Iñaki Galarraga Aldanondo



# Algunos escritos... y otras labores de arquitectura (1969-2019)

# Zenbait idazlan... eta arkitekturako beste lan batzuk (1969-2019)

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

# Algunos escritos...
# y otras labores de arquitectura

# Zenbait idazlan...
# eta arkitekturako beste lan batzuk

# Algunos escritos...
# y otras labores de arquitectura

---

# Zenbait idazlan...
# eta arkitekturako beste lan batzuk

Iñaki Galarraga Aldanondo

eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

*CIP. Biblioteca Universitaria*

**Galarraga Aldanondo, Iñaki**

Algunos escritos__ y otras labores de arquitectura [Recurso electrónico] = Zenbait idazlan__ eta arkitekturako beste lan batzuk / Iñaki Galarraga Aldaondo. – Datos. – Bilbao: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, [2022]. – 1 recurso en línea: PDF (498 p.)

Texto bilingüe en euskara y español.

Libro financiado por el Dpto. de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes de Gobierno Vasco.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-314-4.

1. Arquitectura – País Vasco. 2. Urbanismo – País Vasco. I. Título: Zenbait idazlan__ eta arkitekturako beste lan batzuk.

(0.034)72(460.15)

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-1319-314-4

A lo largo de la vida cambiamos en gran parte como cambian los árboles sus hojas y sus flores, signo de las estaciones; pero el tronco, cuya corteza crece y engrosa, continúa siendo el mismo.

¿Por qué no habría de conciliarse lo moderno con lo antiguo? Se equivocan quienes quieren hacer *tabla rasa* con las cosas heredadas, porque opinan que existe una fisura insalvable entre los diversos momentos del proceso histórico: y se equivocan quienes, por respeto hacia la falsa cultura (cultura sin vida), crean murallas alrededor del pasado para que no sufra contactos impuros con nosotros.

Nunca olvidé el gran apoyo que nos brindó la generosidad de los mayores, y, ahora que a mi vez tengo más edad, siempre que encuentro o descubro un estudiante apasionado trato de manifestarle mi comprensión —y de ayudarlo, si puedo—, porque sé cuán sensible es la juventud al calor de la simpatía en la que se plasma después toda la existencia, y hace que uno no se sienta ya más solo.

Cuando observo lo que sucede en el terreno político y en el de la arquitectura, me asalta, empero, una terri-

Gure bizialdian ia osorik aldatzen gara, zuhaitzek hostoak eta loreak berritzen dituzten bezala, uztaroekin batera; enborra, ordea, haren azala hazi eta mardotu arren, beti bat bera da.

Zer dela eta ez genituzke bateratu behar berria eta zaharra? Ondorengotzan jasotakoekin *tabula rasa* egin nahi dutenak oker daude, uste dutelako prozesu historikoko uneen artean arrakala gaindiezinak daudela: eta oker daude beste horiek ere, kultura faltsuaren (bizigabearen) alderako errespetuz iraganaren inguruan harresiak eraikitzen dituztenak gurekin zikindu ez dadin.

Ez dut sekula ahaztuko nagusien eskuzabaltasunak emandako laguntza handia, eta, orain ni adinean sartuxe nagoela, ikasle suhar bat topatzen dudan aldiro saiatzen naiz ulertzen diodala adierazten —baita laguntzen ere, ahal baldin badut—, jakin baitakit zein sentibera den gazteria sinpatiaren arrimuan, geroztik bizialdi guztia hortxe zertzen baita, gehiago bakarrik sentitu gabe.

Politikaren eta arkitekturaren eremuetan zer gertatzen den ikusten dudanean, ordea, larrimin handi batek

ble angustia: la de que el oficio del arquitecto, como «el oficio de vivir», no sea más que un eterno, un inexorable recomenzar: un oficio imposible.

ERNESTO N. ROGERS (1909-1969)
Prefacio a *La experiencia de la arquitectura*
[1958]

hartzen nau: arkitektoaren lanbidea, «biziaren lanbidea» bezala, ez da berriz haste eternal, ezin saihestuzko bat baizik: lanbide ezinezko bat.

ERNESTO N. ROGERS (1909-1969)
*Esperienza dell'architettura* liburuko aitzinsolasa
[1958]

# Presentación

Con esta nueva publicación fruto de la iniciativa de la ETSA de la UPV/EHU se rinde homenaje a la extraordinaria trayectoria profesional —y vocacional— de Iñaki Galarraga.

Profesor en las áreas de Proyectos Arquitectónicos y Urbanismo de la escuela desde sus orígenes, director del Centro, Iñaki Galarraga amplifica su prolífica actividad académica con su propia producción arquitectónica, a la que hay que añadir su etapa de servicio público en la —por entonces incipiente— Dirección de Arquitectura del Gobierno Vasco.

Y todo ello sin olvidar su incesante aportación teórico-analítica al debate arquitectónico y social en nuestro entorno, en el cual ha destacado por su decidida defensa de principios —desgraciadamente arrinconados muchas veces en la actualidad— basados en un profundo conocimiento de nuestra idiosincrasia cultural.

Polemista a tiempo completo, defensor de causas racionales y fundamentadas, su opinión ha entrado a formar parte de nuestras referencias más queridas, calando —a

# Aurkezpena

Argitalpen berri honek, Arkitektura Goi Eskola Teknikoaren eta UPV/EHUren ekimenaren ondorio denak, gorazarre egiten dio Iñaki Galarragaren ibilbide profesional —eta bokaziozko— bikainari.

Eskolaren hastapenetatik Eskolako Arkitekturako Proiektuetako eta Hirigintzako irakasle izan den Iñaki Galarragak, jarduera akademiko emankorraz gain, bere ekoizpen arkitektonikoa ere badu, eta horri guztiari Eusko Jaurlaritzaren Arkitektura Zuzendaritzan —garai horretan, hasi berria— egindako zerbitzu publikoko etapa gehitu behar zaio.

Eta hori guztia gure herrialdean eztabaida arkitektoniko eta sozialari egindako etengabeko ekarpen teoriko-analitikoa ahaztu gabe: gure idiosinkrasia kulturala ezin hobeto ezagutzean oinarritutako printzipioak irmo defendatzeagatik nabarmendu da —zoritxarrez, askotan zokoratzen dira printzipiook gaur egun—.

Arduraldi osoko polemista eta kausa arrazional eta funtsatuen defendatzailea, haren iritzia gure erreferentzia maitatuen parte izatera igaro da, eta diziplina

modo de xirimiri persistente— en ambientes que trascienden al de la propia disciplina arquitectónica.

Como arquitecto, alumno y compañero de Iñaki Galarraga en labores de docencia y gestión, para mi supone una tremenda satisfacción poder impulsar esta merecida iniciativa, agradeciendo asimismo al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes del Gobierno Vasco su inestimable colaboración para la materialización de esta publicación tan importante para nuestra escuela, y por ende, para el conjunto de nuestra sociedad.

Milesker Iñaki

Juan José Arrizabalaga
Director de la Escuela Técnica Superior
de Arquitectura de la UPV/EHU

arkitektonikoaz harago doazen giroetan ere eragina izan du.

Arkitektoa naizenez, eta Iñaki Galarragaren ikasle eta kide izandakoa irakaskuntzako eta kudeaketako lanetan, poz handia ematen dit merezitako ekimen hau bultzatzeak. Eskerrak eman nahi dizkiot, halaber, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari, laguntza handia eman baitigu gure eskolarako eta, beraz, gure gizarte osorako hain garrantzitsua den argitalpen hau gauzatu ahal izateko.

Milesker, Iñaki

Juan José Arrizabalaga
Director de la Escuela Técnica Superior
de Arquitectura de la UPV/EHU

# Índice / Aurkibidea

**Prólogo / Hitzaurrea** . . . . . . . . . . 13

**1. Al comienzo / Hasieran** . . . . . . . . . . 17

Vitoria: una ciudad en el País Vasco, 1975 / Gasteiz: hiri bat Euskal Herrian, 1975 . . . . . . . . . . 19
Laguardia: análisis urbano, 1976 / Guardia: azterketa urbanoa, 1976 . . . . . . . . . . 25
Vitoria y San Sebastián: alternativas neoclásicas / Gasteiz eta Donostia: alternatiba neoklasikoak . . . . . . . . . . 39
Eibar: urgencias urbanísticas, 1978 / Eibar: hirigintzako premia larrialdiak, 1978 . . . . . . . . . . 51
Arquitectura de Museo y arquitectura de Pabellón / Museoko arkitektura eta Pabiloiko arkitektura . . . . . . . . . . 59
El frontón o juego de la pelota como pieza de arquitectura / Frontoia edo pilotalekua arkitektura piezatzat . . . . . . . . . . 67
Planeamiento y arquitectura en Gipuzkoa: una visión crítica, 1979 / Plangintza eta arkitektura Gipuzkoan: ikuspegi kritiko bat, 1979 . . . . . . . . . . 83

**2. Arquitecturas en tiempos de transición: CGPV y EJ/GV, 1978-1984 / Arkitekturak trantsizioko garaietan: Eusko Kontseilu Nagusia eta Eusko Jaurlaritza, 1978-1984** . . . . . . . . . . 97

El descubrimiento del Boletín Oficial / Aldizkari Ofizialaren aurkikuntza . . . . . . . . . . 99
Declaración programática s/Urbanismo / Hirigintzari buruzko adierazpen programatikoa . . . . . . . . . . 105
Normativa reguladora de núcleos urbanos menores / Hirigune txikiak arautzen dituen araudia . . . . . . . . . . 113
La ambigua capitalidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi / Euskal Autonomia Erkidegoaren hiriburutza anbiguoa . . . . . . . . . . 121
Edificios públicos en Vitoria-Gasteiz / Eraikin publikoak Gasteizen . . . . . . . . . . 131
Pequeños pabellones / Pabiloi txikiak . . . . . . . . . . 137

Academia de la Ertzaintza en Arkaute / Ertzaintzaren akademia Arkautin . . . . . . . . . . 151

Marco para conmemoraciones y otras obras de Arquitectura / Ospakizunetarako esparrua eta arkitekturako beste obra batzuk . . . . . . . . . . 159

Otras experiencias de Arquitectura / Arkitekturako beste esperientzia batzuk . . . . . . . . . . 165

**3. Renovación de la Real Casa de Campo de MIRAMAR / MIRAMARreko Errege Landetxea berritzea . . . . . . . . . . 183**

Un lugar y una Real Casa característicos de la urbanidad donostiarra / Donostiako gizabidearen bereizgarri diren tokia eta Errege Etxea. . . . . . . . . . . 185

Origen, génesis y culminación de un trabajo accidentado / Gorabehera handiko lan baten jatorria, sorrera eta burutzapena . . . . . . . . . . 189

El proceso de renovación continúa pabellón a pabellón / Etengabeko berrikuntza prozesua, pabiloiz pabiloi. . . . . . . 199

Magnífica oportunidad por parte de Musikene / Aukera bikaina Musikeneren eskutik . . . . . . . . . . 207

Desde hoy mirando al futuro / Gaurtik aurrera gçeroari begira . . . . . . . . . . 213

**4. Escritos sobre arquitectura y urbanismo / Arkitekturari eta Hirigintzari buruzko idazkiak . . 223**

Sobre la Escuela de Arquitectura de la UPV / EHUko Arkitektura Eskolari buruz . . . . . . . . . . 225

Edificios notables / Eraikin aipagarriak . . . . . . . . . . 257

Análisis urbano / Hirigintza azterketa . . . . . . . . . . 291

Premios, concursos y otras formas de valorar la Arquitectura / Sariak, lehiaketak eta Arkitektura baloratzeko beste modu batzuk . . . . . . . . . . 305

Exposiciones de arquitectura / Arkitekturako erakusketak . . . . . . . . . . 311

De Arquitecturas y Jueces / Arkitektura eta Epaileak . . . . . . . . . . 317

Arquitectura y Arte Contemporáneo / Arkitektura eta Arte Garaikidea . . . . . . . . . . 333

Algunas cuestiones de importancia / Gai garrantzitsu batzuk . . . . . . . . . . 349

Un par de apuntes teóricos / Pare bat ohar teoriko . . . . . . . . . . 359

**5. Escritos políticos / Idazki politikoak . . . . . . . . . . 377**

Aspectos de la cuestión vasca / Euskal auziaren alderdiak . . . . . . . . . . 379

Traslado temporal a Bilbao del *Guernica* de Picasso / Picassoren *Gernika* Bilbon, aldi baterako . . . . . . . . . . 415

Corrupción o costumbre / Ustelkeria ala ohitura . . . . . . . . . . 429

La cuestión catalana / Kataluniako auzia . . . . . . . . . . 447

Retórica, comunicación y propaganda / Erretorika, komunikazioa eta propaganda . . . . . . . . . . 473

**6. Colofón / Amaiera . . . . . . . . . . 493**

# Prólogo

Existen pocos libros como éste que, a partir de la reunión de un conjunto de textos escritos desde 1975 hasta la fecha, tomando la arquitectura como punto de mira, recojan el pulso de la vida de un modo tan sonoro. En estos textos se oye la voz de su autor, sus opiniones siempre expresadas con claridad y contundencia, esgrimiendo uno y otro argumento, críticas, juicios, ideas, siempre abiertas a la discusión y a aceptar otras disidentes. Transparentan que este autor es un conversador nato, apasionado por contrastar pareceres, arraigado en su mundo, el País Vasco, pero abierto a otros, defensor de su lengua, el euskera, pero conocedor de muchas. «Como bilbaíno, como arquitecto y como ardiente defensor de lo vasco y su afirmación cultural...», empieza uno de estos escritos. Sí, es cierto: de algún modo este libro puede entenderse como una autobiografía, pues estos textos nacen del contacto con la vida misma, por lo que algunos de ellos, meros documentos, encuentran aquí su lugar, y nos producen la impresión del trozo de papel de periódico en la tela en la que se ha representado un rostro, una habitación o una guitarra. Diría que su razón de ser procede de quien ha necesitado reunirlos y darles la forma

# Hitzaurrea

Horrelako liburu gutxi daude; izan ere, liburu honetan, 1975etik gaur arte idatzitako testu sorta bat bildu eta, arkitektura jopuntutzat hartuta, bizitzaren pultsua jasotzen da, ozen jaso ere. Testu hauetan egilearen ahotsa entzuten da; bere iritziak argi eta garbi eta irmotasunez adierazten ditu beti, argumentu bat eta bestea, kritikak, judizioak, ideiak azalduta, betiere eztabaidarako eta beste disidente batzuk onartzeko prest. Autore hau hiztun peto-petoa dela ikusten uzten dute, iritziak kontrastatzearen zale amorratua, bere munduan —Euskal Herrian— errotua baina beste batzuetara zabalik dagoena, bere hizkuntzaren —euskararen— defendatzailea baina beste asko ere badakizkiena. Honako hau dio idazki hauetako baten hasieran: «Bilbotar gisa, arkitekto gisa, eta euskalduntasunaren eta gure kultur adierazpenaren defendatzaile sutsu gisa». Bai, egia da: nolabait, liburu hau autobiografiatzat har daiteke, testu hauek bizitzarekin berarekin izandako kontaktutik sortu baitira, eta, beraz, horietako batzuek, dokumentu soil diren aldetik, hemen aurkitu dute tokia eta aurpegi bat, gela bat edo gitarra bat irudikatu den oihalean egunkari paper zatiaren inpresioa eragiten digute. Idazki hauen izateko arrazoia, esango nuke, idazkiok bildu eta liburu forma emateko premia

de libro para que su propia vida alcance visibilidad. Esta es la posible razón de su autor, Iñaki Galarraga, pero otras son las del lector de *Algunos escritos … y otras labores de arquitectura*.

En efecto, son muchas las sorpresas que depara la lectura de este libro. Junto a un lenguaje técnico que impregna las consideraciones urbanísticas y arquitectónicas, existe otro plano que sencillamente deberíamos llamar culto, en el que la mirada del arquitecto se encuentra asistida por el pasado y lo que la tradición le ha legado. Así, por ejemplo, para comprender el valor arquitectónico de un frontón, se recurre a Leon Battista Alberti y a sus comentarios sobre «aquellas obras públicas donde la juventud se ejercita con la pelota». O cuando hablando de Lekeitio, «una bella arquitectura frente al mar de Bizkaia» recuerda la ola de Leonardo de Vinci. El comparatismo está presente en muchos de estos escritos. Para citar uno de los primeros, no puede pasar desapercibida la comparación de una arquitectura de museo con una arquitectura de pabellón en la obra de un mismo arquitecto, Josep Lluis Sert. Se trata de una comparación hasta cierto punto previsible y que pone de manifiesto la utilidad del método comparativo para alcanzar una mayor comprensión. Mucho más audaz es pensar lo que iba a ser la obra de Rafael Moneo, el auditorio del Kursaal, como el Nacimiento de Venus de Botticelli, es decir, que las «Rocas varadas» son colocadas en este texto junto al Nacimiento de Venus «sobre el nácar de una roca luchando por la entereza del bronce», pues de lo que se está tratando es del nacimiento de la belleza. O bien cuando se nos alerta acerca de la diferencia entre un *situs* y un *locus*, o sea como un sitio cualquiera puede convertirse en un lugar: «Si aceptamos que toda arquitectura aislada cualifica —o descalifica— un sitio (*situs*) para transformarlo en lugar (*locus*) configurando un paisaje, es

izan duen pertsonagandik datorrela, betiere bere bizitzak berak ikusgarritasuna izan dezan. Hori da Iñaki Galarraga egilearen balizko arrazoia, baina *Hainbat idazki… eta arkitekturako beste zenbait lan* liburuaren irakurleak beste batzuk izango ditu.

Izan ere, asko dira liburu hau irakurtzeak dakartzan ezustekoak. Hirigintzako eta arkitekturako gogoetetan agertzen den hizkuntza teknikoarekin batera, beste plano bat ere badago, kultua, jasoa; eta plano jaso horretan, arkitektoaren begirada iraganarekin eta tradizioak utzi dionarekin uztartzen da. Esate baterako, pilotaleku baten balio arkitektonikoa ulertzeko, Leon Battista Albertik esandako hitz hauetara jotzen du: «gazteak pilotarekin ariketak egiten aritzen diren obra publikoak». Edo Lekeitioz ari dela, «arkitektura ederra Bizkaiko itsasoaren aurrean», Leonardo de Vinciren olatua gogorarazten du. Konparatismoa agertzen da idazki hauetako askotan. Lehenengoetako bat aipatzearren, erraz nabarmentzen da Josep Lluis Sert arkitektoaren obran museoko arkitektura pabiloiko arkitekturarekin konparatzen duenekoa. Neurri batean aurreikus daitekeen konparazioa da, eta agerian uzten du metodo konparatiboa erabilgarria dela ulermen handiagoa lortzeko. Askoz ausartagoa da Rafael Moneoren obra izango zena —Kursaaleko auditoriuma— Botticelliren Venusen jaiotzarekin alderatzea; alegia, testu honetan, «Hondoratutako arrokak» Venusen jaiotzaren pare jartzen dira, «arroka baten nakarraren gainean brontzearen sendotasunarengatik borrokan», edertasunaren jaiotzaz ari baita. Edo *situs* baten eta *locus* baten arteko aldeaz ohartarazten gaituenean, hau da, edozein paraje leku bihur daitekeela: «Onartzen badugu arkitektura isolatu orok paraje bat (*situs*) eraldatu eta leku (*locus*) bilakatzeko kualifikatzen duela —edo deskalifikatu—, agerikoa da Donostian Miramar Jauregi izenez ezagutzen dugun eraikinak ». Donostiako Askatasunaren hiribideko espaloia-

evidente que aquel edificio que conocemos en Donostia como Palacio Miramar...». Al comentar el perfil de la acera de la Avenida de la Libertad en Donostia, Iñaki Galarraga cita el célebre aforismo de «Dios está en los detalles», «atribuido a Flaubert», pero sobre todo «difundido por Mies van der Rohe,» y habría que añadir a Aby Warburg para quien tal aforismo se convirtió en lema para sus estudios. Con estos ejemplos solo quería mostrar como en estos escritos se mezcla la mirada microscópica con otra ampliada que busca la visión de conjunto, el tecnicismo con la cultura, y las asociaciones se hacen presentes como el modo más efectivo de encarnar las ideas. Todo ello se combina además con el relato de los trabajos de Iñaki Galarraga como director de arquitectura del País Vasco entre 1982-1984, que culminaron en la restauración del Palacio Miramar, esa obra arquitectónica que efectivamente construye el paisaje de san Sebastián. Como profesor en la Escuela de arquitectura de san Sebastián, aunque formado en la de Barcelona, cercano siempre a Luis Peña y Oriol Bohigas, Iñaki Galarraga manifiesta esa actitud tan deseada por la Universidad actual de aproximarse a la ciudad y no aislarse en el ámbito académico: «Ofrecemos el marco académico de la escuela de arquitectura como foro para las discusiones sobre urbanismo y el plan general» dice en el texto titulado «Ambientistas contra naturalistas». Este es el talante que marca todo este libro: apertura, diálogo, discusión, fino sentido del humor, cultura. Dedicado al gran arquitecto milanés Aldo Rossi hay un texto con motivo de su fallecimiento en 1997 en el que Iñaki Galarraga cifra su personalidad en «hablar, pensar, sentir la arquitectura». Este libro es un buen ejemplo justamente de eso mismo, pues en él la arquitectura ha creado el paisaje donde se mueve y vive su autor.

Barcelona, 14 de octubre de 2020

VICTORIA CIRLOT

ren profilari buruz ari dela, Iñaki Galarragak aforismo ezagun hau aipatzen du: «Jainkoa xehetasunetan dago», «Gustave Flauberti egozten zaiona», baina, batez ere, «Mies van del Rohe arkitektoak arrakastaz zabaldu zuena,» eta Aby Warburg ere gehitu beharko genioke zerrendari, aforismo hori bere azterlanetarako lelotzat hartu baitzuen. Adibide horiekin zera erakutsi nahi nuen, idatzi hauetan, alde batetik, begirada mikroskopikoa eta, bestetik, ikuspegi orokorra bilatzen duen beste begirada zabaldu bat nahasten direla, teknizismoa eta kultura, eta lotura horiek dira ideiak gorpuzteko modurik eraginkorrena. Hori guztia, gainera, Iñaki Galarragak 1982-1984 aldian EAEko arkitektura zuzendari zelarik egin zituen lanen kontakizunarekin uztartzen da. Lan nagusia Miramar Jauregiaren zaharberritzea izan zen, hain zuzen ere, Donostiako paisaia eraikitzen duen lan arkitektonikoa. Donostiako Arkitektura Eskolako irakasle izanik —nahiz eta Bartzelonakoan ikasi zuen—, Luis Peñaren eta Oriol Bohigasen gertuko betiere, Iñaki Galarragak jarrera jakin bat adierazten du, hots, egungo Unibertsitateak hainbeste desiratzen duen hirira hurbiltzeko eta esparru akademikoan ez isolatzeko jarrera: «Arkitektura Eskolaren esparru akademikoa eskaintzen dugu, hirigintzari eta plan orokorrari buruzko eztabaidetarako foro izan dadin» dio «Anbientalistak naturalisten aurka» izeneko testuan. Horixe da liburu honetan guztian markatzen duen jarrera: irekitasuna, elkarrizketa, eztabaida, umore fina, kultura. Aldo Rossi Milango arkitekto handiari testu bat eskaini zion, 1997. urtean hil baitzen, eta testu horretan, Iñaki Galarragak «arkitekturaz hitz egiten, arkitekturari buruz pentsatzen eta arkitektura sentitzen» zuela dio. Liburu hau, hain zuzen ere, horren adibide ona da, arkitekturak sortu baitu liburuaren egilea mugitzen eta bizi den paisaia.

Bartzelona, 2020ko urriaren 14a

VICTORIA CIRLOT

# 1

# Al comienzo

# Hasieran

| | | |
|---|---|---|
| Vitoria: una ciudad en el País Vasco, 1975 | / | Gasteiz: hiri bat Euskal Herrian, 1975 |
| Laguardia: análisis urbano, 1976 | / | Guardia: Hirigintza azterketa, 1976 |
| Vitoria y San Sebastián: alternativa neoclásica | / | Gasteiz eta Donostia: alternatiba neoklasikoa |
| Eibar: urgencias urbanísticas, 1978 | / | Eibar: hirigintzako premia larrialdiak, 1978 |
| Arquitectura de Museo y arquitectura de Pabellón | / | Museoko arkitektura eta Pabiloiko arkitektura |
| El frontón o juego de la pelota como pieza de arquitectura | / | Frontoia edo pilotalekua arkitektura piezatzat |
| Planeamiento y arquitectura en Gipuzkoa: una visión crítica, 1979 | / | Plangintza eta arkitektura Gipuzkoan: ikuspegi kritiko bat, 1979 |

# Vitoria: una ciudad en el País Vasco, 1975

Vitoria representa una geografía ciudadana, en la que aparece con extraordinaria claridad una serie muy amplia y variada de modelos de implantación urbana, todos ellos reflejo figurativo de los múltiples procesos de creación, construcción y transformaciones urbanas a los largo de su historia.

En el proceso de formalización de Vitoria como ciudad, aparecen nítidamente denotados dos tiempos, dos fases fundamentales de intervención arquitectónica, fácilmente identificables, y que representan dos maneras distintas si bien complementarias, de afrontar el aspecto proyectivo y de construcción de una ciudad. Estas fases o maneras pueden ser definidas como intervención urbana «de *relleno*» e intervención «*alternativa*».

Su mayor aspecto diferencial estriba en el hecho que sea una relación de jerarquía, o de diálogo entre iguales, el tipo de relación que presida la idea la creación del nuevo trozo de ciudad en relación con la parte preexistente.

# Gasteiz: hiri bat Euskal Herrian, 1975

Gasteizek geografia hiritarra irudikatzen du, hiriaren historian izan diren hirigintzako prozesu sortzaile, eraikitzaile eta eraldatzaile ugariren adierazgarri figuratiboak diren hiri ezarpeneko eredu asko eta askotarikoak argi eta garbi adierazten dituen geografia.

Gasteiz hiri bihurtzeko prozesuan, bi aldi, esku-hartze arkitektonikoko funtsezko bi fase agertzen dira argi eta garbi, eta oso erraz bereizten dira, gainera; garai edo fase bakoitza hiri baten proiektuaren eta eraikuntzaren alderdiei aurre egiteko modu baten adierazgarri da, eta desberdinak diren arren, elkarren osagarri ere badira bi fase horiek. Fase edo modu horietako bat hirigintzako esku-hartze «*betegarria*» dela esan daiteke, eta bestea esku-hartze «*alternatiboa*».

Bien arteko desberdintasun nagusia hiri zati berriaren eta lehendik dagoenaren arteko harreman mota da; hain zuzen ere, hiriaren zati berria sortzeko ideiaren ardatz nagusiak lehendik dagoen hiri zatiarekiko hierarkia harremana izatea, edo harreman hori berdinen arteko elkarrizketa harremana izatea.

Entre las características básicas del «relleno» está su absoluta dependencia de la existencia previa de un Plano al que dar forma e ir completando. Serán las propias características del plano las que marquen las bases sobre las que debe desarrollarse este tipo de actuación. El plano define específicamente los trazados y la tipología edificatoria cuya concreción puede abarcar varios aspectos, entre los que destaca la forma y configuración de la parcela, así como la ordenanza edificatoria concreta, tratándose del «tipo de casa». El «tipo de edificio público» («emergencia» en terminología del profesor L. Quaroni) viene predeterminada de manera explícita por el lugar urbano del cual participa, el edificio público, y al cual en gran medida conforma.

En este tipo de actuación por relleno no se concibe la arquitectura desligada del trazado ni en su aspecto de geometría ni menos aún en el de proporción, cualidad inseparable de toda consideración morfológica en la urbe.

El otro tiempo lo constituye la «alternativa urbana», la cual representa un salto creativo, una intervención «sobre» la ciudad —contrapunto a la actuación «en» la ciudad— característico de la actuación por relleno. La alternativa conlleva aportaciones cualitativas sobre el organismo urbano. Bajo estas premisas, la creación de nuevos trozos de ciudad precisan de planteamientos novedosos. El caso de Vitoria es muy rico en este tipo de planteamientos, algunos de ellos, caso de la Alternativa neoclásica del 700 planteada por Olaguíbel como «arquitectura de edificio», o los dos crecimientos medievales por adición de Burgos como «arquitectura de plano», han concretado las partes figurativamente más valiosas de Vitoria.

Alternativas menos afortunadas en sus resultados figurativos finales, si bien importantes en la considera-

«Betelana»ren oinarrizko ezaugarrietako bat da erabat behar-beharrezkoa duela aldez aurretik Plano bat izatea, forma eman eta osatu ahal izateko. Planoaren ezaugarriek berek zehaztuko dute zeintzuk izango diren jarduketa mota hori garatzeko oinarriak. Planoan zehatz-mehatz definitzen dira trazatuak eta eraikinen tipologia; zehaztapena hainbat alderditara iritsi daiteke, hala nola lurzatiaren forma eta eraketa, edo eraikingintzako ordenantza jakin bat, «etxe motari» buruzkoa. «Eraikin publiko mota» («emergentzia» esaten zion L. Quaroni irakasleak) eraikin publikoak parte hartzen duen hiriko tokiak baldintzatzen du, esplizituki, eta toki hori eratu ere egiten du, hein handi batean.

Betelaneko jarduketa mota horretan, arkitektura ez da trazatuarekiko inolako loturarik gabe ulertzen, ez alderdi geometrikoari dagokionez, ezta, are gutxiago, proportzioaren alderdiari dagokionez ere, ezaugarri hori bereizezina baita hiriaren kontsiderazio morfologiko orotatik.

Beste fasea «hiri alternatiba» da; horrek sormenezko jauzia adierazten du, hiriaren «gaineko» esku-hartze bat —jarduketa hirian «bertan» egitearen kontrapuntua—, betelaneko jarduketaren bereizgarri. Alternatibak hiri organismoaren gaineko ekarpen kualitatiboak dakartza. Premisa horien arabera, hiri zati berrien sorkuntzak planteamendu berritzaileak eskatzen ditu. Gasteizko kasuan horrelako planteamendu ugari aurki daitezke eta, horietako zenbaitetan Gasteizko zati figuratiboki baliotsuenak zehaztu dira, hala nola Olagibelek planteatu zuen 700eko Alternatiba neoklasikoa, «eraikineko arkitektura» moduan; edo Burgosen Erdi Aroko eransketa bidezko bi hazkundeak, «planoko arkitektura» moduan.

Azken emaitza figuratibo hain onak lortu ez zituzten alternatibak ere izan ziren, nahiz eta Gasteizko hiri-

ción de los hechos urbanos vitorianos, están constituidas por la serie de Planos de Ensanche que se suceden con fortunas varias desde 1860 hasta 1947 —hasta un total de cuatro—. En este punto aparece claramente y con el paso del tiempo la pérdida de tensión arquitectónica en los planteamientos urbanos.

A pesar de sus grandes aciertos parciales —prolongación de la Florida a través de la Senda del Prado, enlace con la fuente del Mineral y avenida hasta la casa de S. Prudencio en Armentia— su éxito en cuanto *alternativa* se contiene escuetamente en un cierto empirismo de los trazados, sin que en ningún caso se llegue a tratar de tipología edificatoria. Estamos más ante un «collage urbano» que se superpone y complementa el trazado, sin configurarlo ni darle proporción.

La consideración de estos «tempos» definitorios del proceso urbano lleva directamente a su mutua inserción en claves de complementareidad, y establecer, sobre esta base, una ley a la que pudiéramos definir como «ley de umbrales arquitectónicos». En este código, conforme queda dicho, se abarcan fases de crecimiento cuantitativo, siempre realizándose, formalizándose, y tomando figuratividad en base a un Plano, Plan o Directriz específicamente arquitectónicos; y otra segunda fase de alternativa cualitativa que interviene como creación y base de nuevas figuraciones urbanas, cuando las expectativas del Plano se han cumplido mediante su transformación completa en una «pieza completa de urbanidad».

La base de la complementaridad entre los definidos como relleno y alternativa urbanos puede establecerse en dos aspectos diferenciados. Uno primero y fácilmente detectable en base a que todo relleno precisa de una alternativa previa. Y un segundo aspecto, es aquel en que la alternativa presenta capacidad como para

gintzako egitate garrantzitsuak izan; esate baterako, 1860. urtetik 1947. urtera bitarteko Zabalgune Planoen sorta bat, askotariko emaitzak izan zituztenak —guztira, lau izan ziren—. Puntu horretan, argi eta garbi agertzen da denboraren poderioz tentsio arkitektonikoa galdu zela hirigintzako planteamenduetan.

Zenbait alderditan bete-betean asmatu zuten: Floridaren luzapena Pradoko bidearen bitartez, Mineraleko iturriarekin lotu eta Armentiako S. Prudentzio etxerainoko hiribidea; alabaina, *alternatiba*tzat hartuta, arrakasta soil-soilik trazatuen nolabaiteko enpirismoari dagokio, eta ezin da jo eraikingintza tipologiatzat, inondik inora ere. Trazatuari gainjartzen zaion eta trazatua osatzen duen «hirigintzako collage» bat dela esan daiteke, baina ez du trazatua eratzen, eta ez dio proportziorik ematen ere.

Hirigintza prozesua zehazten duten «aldi» horiek aintzat hartuz gero, elkarren osagarri direla ikusiko dugu berehala eta, oinarri horren gainean, lege bat ezar dezakegu; hain zuzen ere, «atalase arkitektonikoen legea». Esan dugunez, hainbat fase biltzen dira kode horretan: alde batetik, hazkunde kuantitatiboko faseak, Plano, Plan edo Jarraibide bereziki arkitektoniko batean oinarrituta gauzatzen direnak, eratzen direnak eta itxura hartzen dutenak; eta alternatiba kualitatiboko bigarren fase bat, hiri figurazio berrien sorkuntza eta oinarritzat agertzen dena Planoaren adierazpenak bete direnean «urbanitateko pieza oso» bihurtuta.

Hirigintzako betelan eta alternatibatzat zehaztu ditugun horien arteko osagarritasunaren oinarria bi alderditan finka daiteke. Lehena, erraz hauteman daitekeena, betelan orok aurretiazko alternatiba bat behar baitu. Eta bigarren alderdia: alternatiba gai denean dagoeneko osatuta eta beteta dagoen betegarri batek

que un relleno ya completo y colmatado muestre capacidad de transformaciones internas sobre idénticas bases morfológicas generales, y mediante la adopción de nuevos tipos edificatorios, tomen significado nuevos matices morfológicos, en definitiva nuevas significaciones en la forma urbana.




Tomando ahora el problema a la inversa, es decir a través de lo que tradicionalmente tenemos por «arquitectura en la ciudad», podemos considerar una do-

barne eraldaketak eragiteko gaitasuna agertzeko oinarri morfologiko orokor berdin-berdinetan oinarrituta eta, eraikingintza mota berrien bitartez, ñabardura morfologiko berriak esanahiz betetzen direnean; azken batean, hiriaren forman esangura berriak agertzea.

Eta, orain, arazoa alderantziz aztertuz gero, hau da, tradizionalki «arkitektura hirian» esaten diogun horren bitartez, bi ñabardura egin ditzakegu. Horrela, bada, alde batetik, «Trazatuaren arkitektura» dago, alegia, esangura hierarkikoa duena, hein batean —nahiz eta beti dagoen sormenezko zerbait— eta trazatu haren arabera hartzen duena esanahia, betiere bere geometrian esanahiz betetzen badu eta proportzio harremana ematen badio. Bigarrena «alternatiba arkitektonikoa» da, hau da, trazatu berria lantzeko oinarriak bere kabuz proposatzen eta aurkezten dituena. Kasu hori planteatu zen Arkupeetatik eta Plaza Berritik (gaur egun, Espainia plaza), hurrengo garaietako Gasteiz baten trazatu berrirako oinarriak inplizituki adierazten dituen alternatiba neoklasikoa.

Atxikitako mapan argi adierazten dira Gasteizko geografian nabarmentzekoak diren «betelan eta alternatibak». 1181. urtean Nafarroako Antso erregeak sortutako esparrua, baita Gaztelako Alfontso VIII.a eta Alfontso X.a erregeek sortutakoak ere, trazatu eta ordenantza oso zehatz bati jarraikiz «bete beharreko esparruak» dira. Auzo etxeen eta eraikin publiko edo elementu primarioen (parrokia elizak) tipologiarekin. Era berean, plano horien alternatiba pare bat ere agertu ziren, XIII. mendeko komentu esparruetan gauzatuta.

Santo Domingo, iparraldean eta San Frantzisko, hegoaldean. Azoka esparrua ireki egin zen toki urbano nagusitzat eta jarduera zibikoenen eta guztientzako jarduera komunen kontrapuntu moduan.

ble matización. Así observamos la existencia de una «arquitectura de trazado», es decir aquella cuya significación es en cierta medida jerárquica —aunque siempre existe algo creativo— y toma significado en función de aquel trazado, en la medida que lo signifique en su geometría y en la medida que le aporte relación de proporción. La segunda es la «alternativa arquitectónica», la cual por sí misma propone y formula las bases para elaboraciones de nuevo trazado. Es el caso planteado desde los Arquillos y la Plaza Nueva (actual Plaza de España), alternativa neoclásica que señala implícitamente las bases para en nuevo trazado de la Vitoria-Gasteiz de los tiempos siguientes.

El mapa de la página anterior señala con claridad la serie de «rellenos y alternativas» a reseñar en la geografía vitoriana. Desde el recinto fundacional, por el rey de Navarra Sancho en 1181, así como los creados por los reyes castellanos Alfonso VIII y Alfonso X, como «recintos a rellenar» bajo la directriz de un trazado y una ordenanza muy precisos. Con su tipología de casas de vecindad y edificios públicos o elementos primarios (iglesias parroquiales) Asimismo aparecen un par de alternativas a dichos planos, significados en los recintos conventuales del siglo XIII. Santo Domingo, al norte, y San Francisco, al sur. Abriéndose el recinto ferial como lugar urbano por excelencia y como contrapunto a las actividades más cívicas y comunes a la totalidad.

Todo ello con anterioridad a la ejemplar alternativa urbana significada en el proyecto neoclásico, conducido por la Academia. Obra del Arquitecto vitoriano por antonomasia: Justo Antonio de Olaguíbel con sus Arquillos y la Plaza Nueva así como la definición del solar de nuevo Teatro, obra de Silvestre Pérez. Todas ellas como arquitecturas de la modernidad post re-



*Plano de Chavarri.*
*Vitoria, en 1825.*
*Archivo Municipal de Vitoria*

*Chavarriren planoa.*
*Gasteiz, 1825. urtean.*
*Gasteizko Udal Artxiboa*

Hori guztia proiektu neoklasikoan gauzatutako alternatiba urbano eredugarria baino lehen; Akademiak bideratutako proiektua. Arkitekto gasteiztar nagusiaren obra: Justo Antonio Olagibel, bere Arkupe eta Plaza Berriarekin, eta Silvestre Pérezen Antzoki berriaren orubearen definizioa. Horiek guztiak Erdi Aroaren eta Errenazimentuaren ondoko modernitatearen arkitek-

nacentista y medieval. Auténtico paradigma de ArQª como alternativa urbana en el País Vasco, de la mano de una Sociedad Económica de Amigos del País, en plena efervescencia cultural de la España Ilustrada.

Artículo revisado sobre el publicado en 2C
La Construcción de la Ciudad en 1975.
En colaboración con J.I. Linazasoro.

tura gisa. Arkitektura Euskal Herrian alternatiba urbanotzat hartzen duen paradigma petoa, Euskalerriaren Adiskideen Elkarte Ekonomiko baten eskutik, Espainia ilustratuaren kultura eferbeszentzia bete-betean.

1975. urtean 2C La Construcción de la Ciudad
aldizkarian argitaratu zen artikulua, berrikusia.
J.I. Linazasororen laguntzarekin.

# Laguardia: análisis urbano, 1976

Tomando el análisis, es decir, el conocimiento de los hechos urbanos desde su propio campo de autonomía, como operación dirigida al proyecto de lo urbano, pretendo el esclarecimiento de una visión proyectiva de Laguardia, dentro de un realismo que considera la producción de los hechos urbanos como una operación esencialmente arquitectónica.

Fijados en este concepto, es preciso en primer lugar decidir tanto la metodología como los instrumentos específicos sobre los que apoyar los propósitos iniciales.

En momentos de confusión, como ocurre con frecuencia, en el que los materiales de información urbanística resultan en su mayoría inertes y raramente hacen referencia al atributo básico de todo fenómeno urbano cual es su directa e inseparable raíz arquitectónica, se pensó en elaborar un documento específico en el que se pudieran estudiar y medir la concatenación de aquellos atributos de la arquitectura sobre los cuales se puede y se debe intervenir para elaborar el «proyecto sobre la ciudad». Así además de la información más general fue elaborado con cierto detalle el Plano de la Ciudad.

# Guardia: Hirigintza azterketa, 1976

Azterketa bera —hau da, gertaera urbanoen ezagutza bere autonomia eremu propiotik abiatuta— hirigintzako proiektura bideratutako operaziotzat hartuta, nire asmoa Guardia herriaren ikuspegi proiektibo bat argitzea da, betiere hirigintzako egitateen produkzioa funtsean eragiketa arkitektonikotzat jotzen duen errealismoaren barruan.

Kontzeptu horri erreparatu ostean, lehen-lehenik, hasierako helburuen euskarri izango diren metodologia eta berariazko tresnak erabaki behar dira.

Garai nahasietan —maiz gertatzen dira horrelakoak—, hirigintza informazioko materiala, gehiena, bizigabea, geldoa izaten da eta oso gutxitan aipatzen dute hirigintzako fenomeno ororen oinarrizko ezaugarria, hau da, informazioaren sustrai arkitektonikoa, zuzenekoa eta bereizi ezina. Horrelako garai nahasi batean, dokumentu berezi bat lantzea pentsatu zen, arkitekturaren atributu jakin batzuk aztertzeko eta euren arteko kateamendua neurtzeko; hain zuzen ere, «hiriaren gaineko proiektua» prestatzeko, esku-hartzearen barruan sar daitezkeen eta sartu behar diren atributuak. Hori horrela izanik, informazio orokorragoaz gain, Hiriaren Planoa ere egin zen, nahikoa zehatz.

No me pararé en cuestiones de método, aunque quisiera señalar con cierta insistencia que la elaboración completa del plano de Laguardia, en sus tres estratos —plantas a nivel de terreno, plantas tipo y planta de bodegas bajo la rasante de las calles— constituye un punto de partida fundamental, sin el cual no resulta posible establecer las series de relaciones arquitectónicas características.

La realización del plano permite constatar y valorar en cada caso, las relaciones dimensionales del conjunto con las partes, los trazados o calles con las casas de habitación y los edificios públicos monumentales, éstos con la muralla, etc.

La continua referencia entre todos estos elementos y la verificación asidua de sus dimensiones propia y relativas, constituye el instrumento de trabajo. Contemporáneamente ha sido realizado como anexo al plano tipológico urbano una relación exhaustiva de las características específicas de cada una de las casas componentes del caserío de Laguardia, contenidas en una ficha para cada una.

Dos series de relaciones interesa desarrollar fundamentalmente, ambas enfocadas desde las mismas premisas y con los medios instrumentales señalados.

Las relaciones externas de un lado, aquellas que hacen referencia al conjunto urbano como elemento único y alternativo frente al campo que le rodea y las internas. La cuales se refieren básicamente a los trazados, los tipos edificatorios, sus relaciones mutuas y fundamentalmente a los cambios o las transformaciones tipológicas que han experimentado los tipos residenciales desde la fundación de la villa hasta nuestros días, como muestra de su propia vitalidad.

Ez naiz metodo kontuetan sartuko, baina nabarmendu nahi nuke funtsezko abiapuntua Guardiako plano osoa egitea dela, hiru estratu edo geruza dituena —lur gaineko solairuak, solairu tipoak eta sotoko solairuak, kaleetako sestra azpian—, hori gabe ezinezkoa baita harreman arkitektoniko bereizgarrien sortak ezartzea.

Planoa eginda, kasuan kasu, multzo osoak zatiekiko dituen lotura dimentsionalak egiaztatu eta baloztatu daitezke, trazatu edo kaleak bizitzeko etxebizitzekin, eraikin publiko monumentalak harresiarekin eta abar.

Elementu horien guztien arteko etengabeko erreferentzia eta beren dimentsio propio eta erlatiboak maiz egiaztatzea dira lanerako tresnak. Gaur egun, plano tipologiko urbanoaren eranskin gisa, Guardiako etxe taldea osatzen duten etxeetako bakoitzaren ezaugarri bereziak biltzen dituzten zerrenda zehatza osatu da; etxe bakoitzari fitxa bat dagokio.

Erlazioen bi serie garatzea interesatzen zaigu, biak ala biak premisa beretatik abiatuta eta lehen aipatu ditugun tresna horiekin berekin.

Alde batetik, kanpo harremanak, multzo hiritarra elementu bakar eta alternatibotzat aipatzen dutenak inguruko landa eremuari dagokionez; eta barnekoak. Barne harremanak, funtsean, trazatuei dagozkie, eraikin motei, elkarrekiko harremanei eta, funtsean, hiribildua sortu zenetik gaur arte etxebizitza motetan izan diren aldaketa edo eraldaketei, aldaketa horiek hiribilduaren bizitasunaren beraren adierazgarri izanik.




*Plantas bajas, altas y bodegas.*
*Plano tipológico de Laguardia. 1975*
*según I. Galarraga y J.I. Linazasoro.*

*Beheko solairuak, goikoak eta sotoak.*
*Guardiako plano tipologikoa. 1975*
*I. Galarraga eta J.I. Linazasororen arabera.*

Laguardia, cuyo proyecto originario procede del Fuero de 1164, constituye una de las muchas villas de fundación medieval de las que existen a todo lo largo y ancho de este País Vasco-Navarro. El recinto medieval, aún pervive en su forma originaria y con su definición concreta y unitaria de estas villas europeas medievales, en base a lo cual se puede formular una argumentación urbana más general y señalar cuestiones de arquitectura, en una serie de aspectos evidentes.

El hecho que L. haya realizado sus transformaciones urbanas únicamente sobre la base de la urbe unitaria definida en el Fuero, sin alterarla sustancialmente en su figura de conjunto, sin las rupturas o alternativas características de modelos urbanos de épocas posteriores, permite hacer hincapié y evidenciar el aspecto figurativo unitario y profundamente alternativo y distinto entre el hecho urbano y el campo que le rodea, emergiendo como realidad otra, sin mimetismos ni adaptaciones de imposible definición, como corresponde a dos realidades tan profundamente diferenciadas como son la ciudad y el campo, el cultivo y la vida social.

Si por una parte, es evidente que la estructuración territorial agraria presenta sus leyes propias y precisas de las que resulta un determinado concepto de trazados y una división parcelaria adecuados a su propia definición rural, no lo es menos, que la urbe medieval representa, en primer lugar un cambio cualitativo de esta estructura, conteniendo una definición de los trazados y una división parcelaria totalmente diferenciadas a la rústica y creando parcelas donde puedan asentarse los edificios correctamente.

Los sistemas generales de la estructuración rural se quiebran al llegar a la ciudad y toman una significación distinta. Así lo que era un camino, se transforma en un trazado urbano o calle, con una definición for-

Alde batetik, kanpo harremanak, multzo hiritarra elementu bakar eta alternatibotzat aipatzen dutenak inguruko landa eremuari dagokionez; eta barnekoak. Barne harremanak, funtsean, trazatuei dagozkie, eraikin motei, elkarrekiko harremanei eta, funtsean, hiribildua sortu zenetik gaur arte etxebizitza motetan izan diren aldaketa edo eraldaketei, aldaketa horiek hiribilduaren bizitasunaren beraren adierazgarri izanik.

Guardiaren jatorrizko proiektua 1164. urteko Forutik dator, eta Euskal Herri osoan dauden Erdi Aroko hiribildu ugarietako bat da. Erdi Aroko esparruak eusten dio, oraindik ere, jatorrizko formari eta Europako hiribilduen definizio zehatz eta bateratuari, eta horretan oinarrituta, argumentazio hiritar orokorragoa ezar daiteke eta arkitekturako alderdiak aipatu, ageriko hainbat alderditan.

Guardiako hiri eraldaketak Foruan definitutako urbe bateratuan oinarrituta egin ziren, eta ez zen itxuran, oro har, funtsezko aldaketarik egin, aurreragoko garaietako hiri ereduen bereizgarri diren haustura edo alternatibarik gabe; horri esker, egitate hiritarraren eta inguruko landa eremuaren arteko itxura figuratibo bateratu eta biziki alternatibo eta desberdina nabarmendu eta agerian geratzen da, beste errealitate bat izango balitz bezala, definitu ezinezko egokitzapen edo mimetismorik gabe, hain desberdinak diren bi errealitate horiei dagokien moduan, hau da, hiria eta landa eremua, laborantza eta gizarte bizitza.

Alde batetik, esan gabe doa nekazaritzako lurren egituratzeak berezko lege zehatzak dituela eta, lege horien ondorioz, landa definizioarekin berarekin bat datozen trazatuen kontzeptua eta lurzatien banaketa gertatzen direla; bestetik, esan gabe doa, halaber, Erdi Aroko urbeak, lehenik, egitura horren aldaketa kualitatiboa da-

mal totalmente distinta a aquel y con unas características geométricas y altimétricas propias, para generar un nuevo tipo de parcela cuya principal característica es la de asentar determinadas arquitecturas. El propio trazado así considerado ya es arquitectura en sí.

Serán las puertas de la ciudad medieval las que signifiquen formalmente este profundo cambio cualitativo entre sistema territorial y trazado urbano. Cualquier plano de L. que contenga la villa y el entorno de sus alrededores, evidencia esta realidad característica básica de toda consideración urbana. De este modo de las cinco puertas que actualmente tiene, todas ellas forman parte del trazado y realizan la arquitectura de frontera entre lo urbano y lo territorial. Tanto en su localización como tamaño y definición formal, tiene un significado arquitectónico preciso y determinado y se insertan en la arquitectura general de L. como elementos clave para el entendimiento de todos los demás.

L. constituye una arquitectura edificada y profusamente transformada, cuya imagen de conjunto actualmente puede definirse como típicamente gótica o medieval, es decir compacta y unitaria con una definición formal en extremo concreta, evidente y corporal.

Al margen de «su alrededor» morfológico que favorece la contemplación desde unas perspectivas variadas, tanto próximas como lejanas, así dirá Landazuri en 1748 «la situación es admirable, pues desde su elevado terreno se descubre el Horizonte en más de ocho leguas de circuito»; interesa constatar el hecho que la urbe completa, es representable con una gran economía de medios. Baste como ejemplo para demostrarlo el hecho que con un solo cuadro se obtiene una idea concreta y a la que poco se puede añadir para conocer lo que L. es como forma construida, es decir como arquitectura.

karrela, trazatuen definizio eta lurzatien banaketa landatarrarekiko zeharo desberdina eta eraikinak behar bezala finkatu ahal izateko lurzatiak sortzen dituena.

Landa eremuko egituratze sistema orokorrak urratu egin ziren hirira iristean, eta beste esanahi bat hartu zuten. Horrela, bada, bide bat zena hiri trazatu edo kale bihurtu zen, bidearen definizio formalarekiko erabat desberdina izanik eta ezaugarri geometriko eta altimetriko bereziak zituela, betiere lurzati mota berri bat sortzeko, arkitektura jakin batzuen oinarri izatearren. Horrela pentsatutako trazatua bera arkitektura da, bere kabuz.

Erdi Aroko hiriaren ateek ekarri zuten, formalki, lurralde sistemaren eta hiri trazatuaren arteko aldaketa sakon hori. Guardiako hiribildua eta inguruneak agertzen diren edozein planotan argi ikus daiteke hiritzat har daitekeen elementu ororen oinarrizko errealitate bereizgarri hori. Hartara, gaur egun dituen bost ateetatik, denak sartzen dira trazatuaren barruan, eta eremu hiritarraren eta lurralde eremuaren arteko muga arkitektura egiten dute. Ateen kokapenak, tamainak eta definizio formalak esanahi arkitektoniko zehatz eta jakina dute, eta Guardiako arkitektura orokorrean txertatzen dira, gainerako guztiak ulertzeko gako elementutzat.

Guardiak arkitektura eraikia eta biziki eraldatua eratzen du eta, gaur egun, multzoaren irudia gotiko edo Erdi Aroko tipikoa dela esan daiteke, hots, trinkoa eta bateratua, definizio formal biziki zehatz, ageriko eta gorpuztua duena.

Hiriaren «ingurune» morfologikoari dagokionez, kontenplazioa ahalbidetzen du, gertuko nahiz urruneko ikuspegitik begiratuta; Landazurik 1748. urtean esan zuenez, «kokapena miresgarria da, goratutako lur eremu horretatik zeruertza ikusten baita zortzi legoatik gorako zirkuituan»; ingurune hori alde batera

De este modo podemos establecer en toda su importancia la representabilidad de lo urbano como variable vinculada a su propia calidad arquitectónica. Aspecto que estimo como un punto de reflexión importante y además de gran actualidad, cuando observamos el campo de confusión y abstractismo idealista, en que ha caído la producción de «trozos de ciudad» que nunca previamente se han podido dibujar.

Del mismo modo a como hemos señalado el papel que representan las puertas de la ciudad, en cuanto a significación de un cambio cualitativo entre trazado urbano y sistema territorial, la profunda alternativa que representa el conjunto urbano frente al campo se significa en el estudio de la muralla como elemento arquitectónico en el que recae esta diferenciación.

Los límites físicos y jurídicos de la ciudad están en la muralla, ésta es una característica de la muralla o cerca medieval a diferencia de aquellas otras posteriores realizadas durante los períodos del Renacimiento, concebidas como radicalmente distintas. La muralla medieval es una parte que conforma unitariamente lo urbano; frente a los baluartes y otros elementos de la defensa de la ciudad que son elementos claramente superpuestos a ella.

Este segundo tipo de muralla, será el que con su derribo en la San Sebastián del siglo IX, provoque el alborozo ciudadano, al verse libre de la atadura que limitaba la construcción de nueva ciudad. No así en el caso de la Vitoria del siglo XIII, la cual no precisó de derribos para el crecimiento urbano. Lo hizo mediante la adjunción de sendos Burgos, pegantes por el oeste y el este a la vieja villa fundacional. Su vieja muralla aún hoy evidencia con naturalidad su vinculación profunda como parte integrante de la arquitectura interior al conjunto.

utzita, urbe edo hiri osoa bitarteko gutxi erabilita irudika daitekeela nabarmendu nahi da. Hori frogatzeko adibidetzat aipatuko dugu koadro bakar batekin ideia zehatza lortzen dela eta gauza gutxi gehitu behar zaizkiola Guardia forma eraiki moduan zer den jakiteko, hau da, arkitektura moduan zer den.

Horrela, bada, hiriaren irudikagarritasunari dagokion garrantzia eman diezaiokegu, bere kalitate arkitektonikoarekin lotutako aldagaitzat hartuta. Alderdi hori inflexio puntu garrantzitsua da, nire ustez, eta gaurkotasun handikoa, gainera, aurretiaz inoiz marraztu ezin izan diren «hiri zatien» produkzioak zertan bukatu duen ikusita, hau da, nahasmendu eta abstraktismo idealistaren eremu izaten.

Hiriko ateek betetzen duten eginkizuna aipatu dugu lehen, betiere hiri trazatuaren eta lurralde sistemaren arteko aldaketa kualitatiboaren gauzatzeari dagokionez; modu berean, multzo hiritarrak landa eremuaren aurrean irudikatzen duen alternatiba sakona harresiaren azterketan gorpuzten da, harresia izanik bereizketa hori egiten duen elementu arkitektonikoa.

Hiriaren muga fisiko eta juridikoak harresian daude; Erdi Aroko harresi edo hesi ezaugarrietako bat da hori, Errenazimentuko garaian egindako geroagoko harresi edo hesietan ez bezala, zeharo desberdin pentsatuta baitzeuden. Erdi Aroko harresia hiriaren osotasuna osatzen duen zati bat da; aitzitik, gotorlekuak eta hiria defendatzeko beste elementu batzuk harresiaren gainean jarritako elementuak dira, argi eta garbi.

Bigarren harresi mota hori izan zen XIX. mendeko Donostian, eraitsi zutenean, herritarren artean bozkarioa eragin zuena, hiri berriaren eraikuntza mugatzen zuen loturatik aske zeudela ikustean. Ez zen horrelakorik gertatu Gasteizen XIII. mendean, ez baitzen eraisketarik egin

La muralla representa sobre L. en su conjunto, lo que conocemos como fachada de un edificio. Las profundas variantes que muestra en su construcción, tramos de sillería, tramos de mampuesto, diferencias en los despieces, en la estereotomía de la piedra etc. señalan claramente su estructura de elemento construido de manera discontinua. No obstante es preciso añadir, que dicha construcción puede deberse a las diferentes operaciones de transformación de éstas en el tiempo. Si bien no poseemos datos que puedan verificarlo documentalmente es verosímil suponer, que la muralla como elemento arquitectónico se halla vinculado a las arquitecturas del interior, en medida no fácil de precisar. Parece ser que la muralla no ha formado parte de la casa más que en épocas muy avanzadas de la correspondiente transformación de éstas. No obstante y por posible analogía con casos en cierta medida semejantes como Saint Jean du Pied du Port (asimismo, vieja villa Navarra: Donibane Garazi), se puede afirmar que cada casa periférica del interior, construía la parte de muralla correspondiente, siempre siguiendo un plano prefijado. Por otro lado en todo tiempo ha sido considerada la muralla como un patrimonio colectivo de la ciudad, con lo que la esfera de lo público y lo privado se ven interrelacionados de un modo cuya coherencia es evidente. Existen datos de los años 1771 y 1772, en los cuales se constatan aspectos sobre los métodos de reforma de diversos trozos de muralla y de su consideración como patrimonio colectivo, así los gastos de reparación son satisfechos a cargo del «común aprovechamiento» que tienen las ciudades. En función de lo cual y tras el conocimiento de la actual configuración de L. se puede asegurar que la construcción de la muralla responde a un plano prefijado donde vendrían definidas las características constructivas generales, pero que luego se desarrollan en detalle con la construcción de cada casa, lo cual proporciona una composición característica.

behar izan hiria hazteko. Hazkunde hori Burguak atxikita egin zuen, jatorrizko hiribildu zaharrari itsatsita zeudenez mendebaldetik eta ekialdetik. Harresi zaharrak naturaltasunez erakusten du, gaur egun ere, bere lotura sakona, multzoaren barruko arkitekturaren osagai den aldetik.

Guardia multzo osoari dagokionez, harresia zera da, eraikin batean fatxada izango litzatekeena. Eraikuntzan ezberdintasun sakonak ditu, hala nola harlanduzko zatiak, harlangaitzezko zatiak, desberdintasunak ataltzeetan, harrien estereotomian eta abar; horrek argi adierazten du modu ez jarraituan eraikitako elementuaren egitura duela. Dena den, esan beharra dago eraikitzeko modu horren arrazoi izan daitezkeela denboraren poderioz egindako eraldaketako operazioak. Ez dugu daturik hori dokumentuen bidez egiaztatu ahal izateko, baina sinesgarria da pentsatzea harresia, elementu arkitektonikotzat hartuta, barrualdeko arkitekturei loturik dagoela, zehazten erraza ez den neurrian. Badirudi harresia ez dela etxearen zati izan harresien eraldaketaren garai oso aurreratuetara iritsi arte. Hala ere, eta hein batean antzekoak diren kasuekin izan daitekeen analogiagatik, hala nola Saint Jean du Pied du Port (hiribildu nafar zaharra: Donibane Garazi), barrualdeko etxe periferiko bakoitzak zegokion harresi zatia eraikitzen zuela baieztatu daiteke, betiere aurretiaz zehaztutako planoari jarraikiz. Bestalde, harresia hiriaren ondare kolektibotzat hartu izan da beti; beraz, arlo publikoa eta arlo pribatua elkarlotuta daude, modu koherentean. 1771. eta 1772. urteetako datuetan, harresiaren hainbat zati eraberritzeko metodoei buruzko alderdiak jasotzen dira, baita harresia ondare kolektibotzat jotzen dela ere; hortaz, harresia konpontzeko gastuak hiriek duten «aprobetxamendu komun» horren kargura ordaintzen dira. Horren arabera, eta Guardiaren egungo itxura ikusita, esan dezakegu harresia aurretiaz erabakitako plano

Otro tipo de vinculación importante de la muralla con el conjunto de la urbe-edificio, es la que a nivel lógico-formal existe entre ella misma y los edificios públicos monumentales, construyendo la explicitación más precisa a nivel figurativo de la unidad y jerarquía urbanas.

Esta unidad muralla-edificios públicos monumentales, constituye la síntesis formal preeminente que marca la autonomía de lo construido sobre el lugar sobre el que asienta y circunda. Es la síntesis arquitectónica representable con un único grabado o vista de la villa de L. conforme antes hemos dicho.

Esta unidad arquitectónica explícita y evidente, es lo que constituye en la terminología empleada por D. Julio Caro Baroja, en su estudio sobre Vitoria, «el continente de la ciudad».

Dos templos parroquiales son los edificios públicos monumentales a que hacemos referencia, Santa María al norte y San Juan al sureste. Ambos casos de vinculación con el conjunto urbano son esencialmente distintos. Santa María alza sus trazas en el centro de una plataforma y su relación es únicamente espacial, establecida según claves definitorias del lugar urbano y la participación en el perfil que aportan ambos elementos arquitectónicos al conjunto urbano.

Por otro lado la vinculación entre Iglesia de San Juan y la muralla lo es a nivel físico mucho más estrecha, ya que los propios muros del ábside se constituyen en muralla y bajo su torre se abre la puerta de San Juan, la más importante y representativa de L.

Las vinculaciones definidas entre los monumentos, proporcionan las claves interpretativas más evidentes

baten arabera eraiki zela eta plano horretan zehaztuta egongo liratekeela eraikuntzaren ezaugarri orokorrak, baina, gero, ezaugarri orokor horiek etxe bakoitza eraikitzean zehazten direnez, konposizio bereizgarria izaten du azkenean.

Harresiak urbe-eraikin multzoarekin duen beste lotura garrantzitsu bat zera da, maila logiko-formalean harresiaren eta eraikin publiko monumentalen artean dagoen lotura, hiriaren hierarkiaren eta batasunaren esplizitazio zehatzagoa eraikita maila figuratiboan.

Harresiaren eta eraikin publiko monumentalen arteko lotura hori sintesia da, eraikitakoak oinarritzat duen eta inguratzen duen tokiaren gainean duen autonomia markatzen duen sintesi formal nagusia. Lehen esan dugunez, Guardiako hiribilduaren ikuspegi edo grabatu bakar batekin irudika daitekeen sintesi arkitektonikoa da.

Batasun arkitektoniko esplizitu eta ageriko hori, Julio Caro Barojak Gasteizi buruz egindako azterlanean erabilitako terminologiari jarraikiz, «hiriaren edukitzailea» da.

Bi parrokia dira lehen aipatu ditugun eraikin publiko monumentalak: Andre Maria iparraldean eta San Joan hego-ekialdean. Bi kasuetan, multzo hiritarrarekiko loturak desberdinak dira, funtsean. Andre Maria parrokiaren trazak plataforma baten erdigunean altxatzen dira, eta lotura espaziala baino ez da, toki hiritarra zehazten duten gakoen eta bi elementu arkitektoniko horiek multzo hiritarrari ematen dioten profileko parte-hartzearen arabera ezarritakoa.

Beste alde batetik, San Joan elizaren eta harresiaren arteko lotura fisikoki askoz ere estuagoa da, absidearen hormak harresia bera bihurtzen baitira, dorrearen

para entender lo urbano como conjunto y autonomía de sus elementos y partes y este concepto se manifiesta con claridad en el caso de Laguardia.

La muralla como elemento sujeto a transformaciones arquitectónicas en el tiempo, tiene un extraordinario interés en cuanto a explicitación de las permanencias y los cambios en una urbe que se pretende viva y en continuada renovación.

Al margen de las reconstrucciones, sin duda frecuentes por motivo de ruinas y desplomes de entidad diversa, tres son los aspectos que nos interesa señalar en la serie de transformaciones arquitectónicas sufridas por un elemento que conserva y en el que permanece su arquitectura.

Así en primer lugar, como consecuencia de las sucesivas ocupaciones y colmataciones de las parcelas periféricas, bien sea por construcciones añadidas o por reconstrucciones de casas enteras, éstas han llegado a apropiarse de la muralla como una fachada más de la propia casa. Como consecuencia de lo cual ya a partir del siglo XVII se abren huecos en ella, proceso fuertemente acelerado durante el siglo XIX en base a los principios higienistas. Fundamentalmente ventanas y más esporádicamente balcones han sido abiertos con cierta profusión en todo el perímetro amurallado, aportando la lógica constructiva y formal, así como los caracteres estilísticos de cada época. De este modo puede ir la muralla variando en sus significados con el tiempo, si bien no en su arquitectura fundamental. En idéntico sentido y con el fin de hacer las plantas bajas —principalmente ocupadas por lagares para la elaboración del vino— accesibles desde el exterior, se han abierto huecos de diversa proporción y factura, siendo gran parte de las cuales actuaciones de enorme sensatez constructiva.

azpian irekitzen baita San Joan atea, Guardiako aterik garrantzitsu eta esanguratsuena.

Monumentuen artean definitutako loturak lagungarri dira hiria bere elementu eta zatien autonomiatzat eta multzotzat hartzeko, eta kontzeptu hori argi eta garbi ikusten da Guardian.

Harresia, denborak aurrera egin ahala eraldaketa arkitektonikoak jasaten dituen elementu den aldetik, biziki interesgarria da bizirik eta etengabe berritzen ari den urbe bateko iraunkortasunen eta aldaketen esplizitazio modura.

Berreraikitze lanak alde batera utzita —zalantzarik gabe, maiz egin behar izan ziren horrelako lanak aurri egoerei eta erortzeei aurre egiteko—, hiru alderdi nabarmendu nahi ditugu arkitekturari eutsi dion eta arkitekturak bere baitan irauten duen elementu batek jasan dituen eraldaketa arkitektoniko guztien artetik.

Horrela, bada, lehenik, dela eraikinak gehitu direlako, dela etxe osoak berreraiki direlako, lurzati periferikoak behin eta berriz okupatu eta betetzearen ondorioz, azkenean harresiaz jabetu dira, etxearen beraren beste fatxada bat izango balitz bezala. Hori guztia dela eta, XVII. mendetik aurrera harresian zuloak egiten hasi ziren eta XIX. mendean prozesu hori bizi bizkortu zen, printzipio higienistetan oinarrituta. Batik bat, leihoak eta, bakanago, balkoiak egin dituzte nonahi harresiaren perimetro osoan, garai bakoitzeko eraikuntzaren logika, logika formala eta estilo ezaugarriak ekarrita. Hartara, harresiaren esanahiak aldatu egin daitezke denboraren poderioz, baina ez, ordea, harresiaren funtsezko arkitektura. Zentzu berean, eta beheko solairuak eraikitzean —batik bat, ardoa egiteko dolareak jartzen ziren toki horretan— kanpoaldetik sartzeko modukoak egin nahi zirenez, askotariko

En segundo lugar una transformación arquitectónica significativa consiste en la construcción del juego de la pelota o frontón. Actuación coincidente cronológicamente con la construcción del Collado como paseo que bordea L. por el lado norte. Para construir el frontón se aprovecha la propia muralla como pared izquierda y se construye el frontis mediante la prolongación de uno de los castillos existentes. El conjunto se completa con una delimitación del recinto, que se constituye en graderío, aportando una significación de enorme interés arquitectónico al conjunto amurallado.

Por fin una última transformación arquitectónica sustancial en la muralla está representada por la reciente intervención de la Dirección General de Bellas Artes, en la que se ha procedido a la restauración de un tramo. A pesar de ser meritoria la elección de los artesanos y el ejercicio de las labores de cantería, la intervención se limita a una interpretación arbitraria de los caracteres estilísticos, sin entrar ni resolver los problemas de arquitectura que entraña la muralla en su vinculación con las arquitecturas del interior.

La misma utilización de materiales preexistentes no se hace con un sentido coherente y de naturalidad, sino escenográfico y epatante, concentrando en 500 $m^2$ todo lo habido y por haber en la historia estilística de L. alterando fuertemente la lógica formal de los tipos edificatorios cuya fachada ha sido reformada.

La segunda serie de relaciones a desarrollar; una vez tratados, si bien brevemente, los principales parámetros para un conocimiento del «continente de L.», son aquellas relaciones que se refieren exclusivamente al «contenido», es decir al interior de la villa, encerrado en el perímetro murado. En este sentido destacare-

proportzio eta motako zuloak zabaldu ziren; horietako gehienak zentzuzko eraikuntza jarduketak izan ziren.

Bigarrenik, eraldaketa arkitektoniko esanguratsu bat izan zen pilotalekua edo frontoia eraikitzea. Kronologikoki Collado pasealekua eraikitzeko garaiarekin bat egin zuen; Guardia iparraldetik inguratzen duen pasealekua da. Pilotalekua eraikitzeko, harresia bera baliatu zen ezker pareta moduan, eta frontiserako lehendik zeuden gazteluetako bat luzatu zen. Multzoa osatzeko, esparrua mugatu zen harmailen bitartez, eta harresitutako multzoari interes arkitektoniko handia eman zion.

Azkenik, harresiaren azken eraldaketa arkitektoniko esanguratsua berriki izan da: Arte Ederretako Zuzendaritza Nagusiak zati bat zaharberritu du. Artisauen aukeratzea eta hargintzako lanak oso ongi egin ziren arren, esku-hartzean ezaugarri estilistikoen nahierako interpretazioa baino ez zuten egin, eta ez zituzten konpondu harresiak barrualdeko arkitekturekin lotuta egoteak dakartzan arazo arkitektonikoak.

Lehendik zeuden materialak erabiltzeko garaian ere ez zuten koherentziaz eta naturaltasunez jokatu, baizik eta alderdi eszenografikoari eta txundigarriari jarraikiz; izan ere, 500 $m^2$-tan pilatu zuten Guardiaren historia estilistikoan gertatu den eta gertatuko den guztia eta, beraz, fatxada berritu duten eraikin moten logika formala nabarmen aldatu da.

Garatu beharreko harremanen bigarren sorta; labur-labur bada ere, «Guardiaren edukitzailea» ezagutzeko parametro nagusiak aztertu ostean, soilik «edukiari» dagozkion harreman edo loturak aztertuko ditugu, hau da, harresitutako perimetroaren barneko hiribilduaren barrukoak. Zentzu horretan, honako hauek dira osagai

mos como elementos integrantes más significativos: los trazados urbanos, las agrupaciones residenciales en islas edificatorias y las transformaciones en el tipo edificatorio en las casas de habitación.

El interior del cerco murado se presenta dividido en 19 islas edificadas, planteadas desde una arquitectura de trazados congruente con la arquitectura de edificios residenciales que deben sustentar. Relación trazado-tipo que desarrollo posteriormente.

Tratamos del concepto de isla edificada como distinto, aunque inclusivo del concepto de manzana. Es éste un concepto específico del siglo XIX y de los definidos legalmente como Ensanches en España, una forma urbana muy característica.

La manzana halla su definición en el residuo que deja la malla de comunicaciones al constituirse en subsistema de los sistemas generales territoriales de comunicación viaria. En este sentido, son muy esclarecedoras las opiniones pesimistas expresadas por Ildefonso Cerdá en su «Tratado general de la Urbanización «parece a primera vista, que la casa objeto final de la urbanización, como morada del hombre civilizado, habría de ser la que impusiese las leyes al solar, pues esto sería lo natural, lo lógico, lo racional y sin embargo sucede todo lo contrario, el solar es el que predomina, el solar es el que impone sus leyes tiránicas a la casa, a las condiciones del solar han de subordinarse las de la construcción. El solar es el campo de asentamiento donde ha de levantarse una casa que todavía no es la destinada a la vivienda del individuo o de una sola familia, sino que ha de albergar muchas, tantas como la codicia pueda hacer caber».

En mi opinión, la manzana de los ensanches difiere sustancialmente de la isla medieval, la manzana es isótropa

garrantzitsuenak: hiri trazatuak, etxebizitza multzoak eraikin irletan, eta bizitzeko etxeen eraikuntza motan egindako eraldaketak.

Harresitutako eremuaren barrualdea 19 eraikin irlatan banatuta dago, eta irla horiek barruan hartu behar dituzten etxebizitzen eraikinen arkitekturarekin koherentea den trazatuen arkitektura batetik planteatu dira. Trazatu-mota lotura, aurrerago garatuko dut.

Eraikitako irlaren kontzeptua ez dator bat etxadiaren kontzeptuarekin, nahiz eta etxadiaren kontzeptua barnean hartzen duen. Kontzeptu hori XIX. mendekoa da, Espainian legez zabalgunetzat hartzen ziren guneetarako berezia.

Bide komunikazioko lurraldeko sistema orokorren azpisistema bihurtzen denean, komunikazioen sareak uzten duen arrastoagatik definitu da horrela etxadia. Zentzu berean, Ildefonso Cerdá-k bere «Tratado general de la Urbanización (Urbanizazioaren tratatu orokorra)» lanean adierazitako iritzi ezkorrak oso argigarriak dira: «antza, lehen begiratuan, urbanizatzearen azken helburu den etxeak, gizaki zibilizatuaren bizileku den aldetik, orubeari inposatu beharko lizkioke legeak, hori izango bailitzateke naturalena, logikoena, zentzuzkoena; alabaina, guztiz kontrakoa gertatzen da, hau da, orubea gailentzen zaio etxeari, orubeak ezartzen dizkio bere lege tiranikoak etxeari, orubearen baldintzei men egin behar diete eraikuntzako baldintzek. Orubea etxe baten kokalekua izango da, baina etxe hori ez da izango, oraindik, norbanako edo familia bakar baten bizileku; etxebizitza asko izan behar ditu barruan, diruzalekeriak sarraraz ditzakeen bezainbeste».

Nire ustez, zabalguneetako etxadia ez dator bat, funtsean, Erdi Aroko irlarekin; etxadia isotropoa da no-

en todas sus direcciones y representa como tal la respuesta unívoca a una optimización de la accesibilidad.

Contrariamente, la isla edificatoria contempla otros muchos aspectos. Primeramente, cabe señalar su relación estrecha y determinante con la distribución parcelaria, de modo que las parcelas que puedan resultar de la aplicación del trazado, tengan definición y dimensiones susceptibles de convertirse en una arquitectura racional y seriada. Por otro lado el trazado de L. contiene una direccionalidad y una jerarquía precisas obtenidas en una síntesis arquitectónica entre el aprovechamiento racional del sitio con la ubicación predeterminada de los edificios públicos, los lugares públicos, y el caserío residencial, formulado en base a tipos edificatorios conocidos y como su propio concepto indica tipificables. Esta implantación tendrá una importancia grande como respuesta unívoca y seriada de la división parcelaria primera.

La direccionalidad del trazado, claramente presente en L. de norte a sur, corresponde a los trazados principales en la escala jerárquica y será sobre ellos donde las casas abran fachada. Los trazados secundarios o cantones, tienen únicamente la función de aumentar la accesibilidad general y la comunicación, constituyendo los atajos o trazados accesorios de intercomunicación de la estructura urbana y sobre los que no se abren fachadas hasta fases muy avanzadas de la transformación tipológica residencial.

La relación trazado-tipo edificatorio establecida con precisión en el proyecto originario, se mantendrá hasta que los cambios tipológicos renacentistas y del barroco, así como los del siglo XIX modifique los términos de esta relación, si bien se establecen unas nuevas, manteniéndose fijo el trazado. No obstante la dialéctica trazado-tipo provoca en algunos casos y

ranzko guztietan eta, halakoa izaki, irisgarritasunaren optimizazioari emandako erantzun unibokoa da.

Aitzitik, eraikinen irlan beste alderdi asko sartzen dira. Lehenik, lurzatien banaketarekin lotura estua eta erabakigarria duela nabarmendu behar da eta, beraz, trazatua aplikatzearen ondoriozko lurzatiak arkitektura arrazional eta seriatua bihur daitezkeen dimentsioak eta definizioa izango dituzte. Beste alde batetik, Guardiako trazatuak direkzional eta hierarkia zehatzak ditu, honako bi elementu hauen arteko sintesi arkitektonikotik lortutakoak: alde batetik, tokiaren aprobetxamendu arrazionala eta, bestetik, eraikin publikoen, toki publikoen eta etxebizitzetarako etxe taldeen aurretiaz erabakitako kokapena, betiere eraikuntza mota ezagunetan eta, kontzeptuak berak adierazten duenez, tipifikagarrietan oinarrituta. Ezarpen horrek garrantzi handia izango du lehenengo lurzatien banaketaren erantzun uniboko eta seriatu moduan.

Trazatuaren direkzionalitatea iparraldetik hegoaldera da, argi eta garbi, Guardian, eta hori bat dator eskala hierarkikoko trazatu nagusiekin; trazatu horien gainean ireki zituzten etxeen fatxadak. Bigarren mailako trazatuak —kantoi edo zeharkaleak— helburu bakarra dute: irisgarritasun orokorra eta komunikazioa areagotzea, eta hiri egituraren komunikazioko lasterbide edo trazatu osagarriak izaki, ez zen fatxadarik ireki horien gainean etxebizitza moten eraldaketa fase oso aurreratuetara iritsi zen arte.

Jatorrizko proiektuan zehatz-mehatz ezarritako trazatu-eraikin mota harremanari eutsi egin zitzaion, Errenazimentuko eta Barrokoko tipologia aldaketen eta XIX. mendeko aldaketen ondorioz harreman horren terminoak aldatu ziren arte; orduan, termino edo baldintza berriak ezarri ziren baina trazatua ez zen aldatu. Dena dela, trazatua-mota dialektikak, zenbait

singularmente a partir del periodo barroco alteraciones en el primero. De este modo la ampliación de los cantones o la apertura de la calle Nueva son asumidas con coherencia por el organismo urbano, ya que representan en sí mismas operaciones completas y una transformación entera de una determinada estructura urbana, es decir, enriquece la significación de un elemento urbano fundamental.

No obstante al no aparecer las grandes operaciones de transformaciones urbanas, característica en otras partes como pueden ser los «sventramentos» o las aperturas de grandes avenidas, persiste hoy en su casi totalidad el trazado medieval originario.

Su carga de racionalidad y de sentido, aparece con evidencia bajo un esquema de tres calles longitudinales norte-sur. La calle Mayor en el centro, Paganos hacia el oeste y Santa Engracia por el lado opuesto, con anchuras que se mantienen en el entorno de los 3,50 m apenas modificados por los sucesivos desplomes murarios y errores de replanteo. Esquema apenas distorsionado en el tiempo.

Al margen de una modificación de concepto en los trazados de la zona más al norte de la villa, donde el esquema se varía y cuyas razones no aparecen claras, en las calles Esquide y final de Santa Engracia.

Donde sí aparecen ciertas pequeñas alteraciones es en la transición de un mismo trazado cuando pasa de un Cuarteron o unidad administrativa a otro. Así la calle Santa Engracia se quiebra en su continuación, con el nombre de S. Juan de Suso, al pasar del cuarterón de Santa Engracia al de S. Juan. Análogamente se quiebra la calle Paganos en su continuación como Rua Mayor de Peralta. No sufre alteración la Calle Mayor en toda su longitud.

kasutan eta, bereziki, Barrokotik aurrera, aldaketak eragin zituen lehenengoan. Hori horrela izanik, zeharkaleak handitzea edo Kale Berria irekitzea koherentziaz hartu zituen bere gain hirigintzako organismoak, bi jarduera horiek operazio osotzat eta hiri egitura jakin baten erabateko eraldaketatzat hartzen baitira beren kabuz, hau da, funtsezko elementu hiritar baten garrantzia aberasten dute.

Hala eta guztiz ere, ez zenez agertu hiri eraldaketako jardun handirik —beste hainbat tokitan ez bezala—, hala nola «sventramento» edo etorbide handiak irekitzea, Erdi Aroko jatorrizko trazatuak ia osorik dirau gaur egun ere.

Arrazionaltasuneko eta zentzuzko karga handia du, eta bere eskema ez da ia ezer distortsionatu: ipar-hego luzetarako hiru kale, Kale Nagusia erdian, Paganos mendebaldean eta Santa Engrazia kalea kontrako aldean, 3,50 m inguruko zabalerarekin; eta hori guztia ez da ia aldatu hormak erori eta zuinketa akatsak gertatu diren arren.

Iparralderagoko guneen —Eskide kalea eta Santa Engraziaren amaiera— trazatuetan izandako kontzeptu aldaketa alde batera utzita; kasu horretan, eskema aldatu egin zen eta arrazoiak ez daude argi.

Aldiz, aldaketa txikiak bai gertatu ziren trazatu beraren trantsizioan, Panel edo administrazio unitate batetik bestera igaro zenean. Horrela, bada, Santa Engrazia kalearen jarraipena eten egin zen, eta Santa Engrazia paneletik San Joan panelera aldatu zenean San Juan de Suso izena hartu zuen. Horren antzera, Paganos kalea ere eten egin zen eta Rua Mayor de Peralta bihurtu zen. Kale Nagusiak, aldiz, ez zuen aldaketarik izan luzera osoan.

En cuanto a los trazados secundarios o cantones, siempre discurren perpendicularmente a los principales y atraviesan únicamente 1 o 2 islas edificatorias, excepto el llamado el de Cuatro Cantones, que como su nombre indica, atraviesa cuatro islas edificadas. Los cantones ponen en comunicación el sistema general de caminos y comunicaciones territoriales con los trazados urbanos o calles principales. Las cuales hallan su definición apropiada a partir de las cinco puertas de la Villa, como evidencia contundente de la radical diversidad entre camino y trazado urbano. Como constatación redundante de la distinta cualificación del hecho urbano —la urbe en términos isidorianos— frente al campo que le rodea.

San Sebastián 1976

3.ª Semana de Arquitectura

Bigarren mailako trazatu edo zeharkaleei dagokienez, nagusiekiko perpendikularrak dira beti eta eraikin irla 1 edo 2 baino ez dituzte zeharkatzen, Cuatro Cantones edo Lau Kantoi izenekoa izan ezik; izan ere, izenak adierazten dituenez, lau eraikin irla zeharkatzen ditu. Kantoi edo zeharkaleen bitartez, lurraldeko bideen eta komunikazioen sistema orokorra hiribilduko bost ateen bitartez definitutako hiri trazatu nagusiekin komunikatzen da, bidearen eta hiri trazatuaren arteko muturreko aniztasunaren ebidentzia sendotzat, egitate hiritarraren —urbea, termino isidorianoetan— eta inguruko landa eremuaren kualifikazio bereizgarriaren egiaztapen erredundantetzat.

Donostia, 1976

Arkitekturaren 3. astea

# Vitoria y San Sebastián: alternativa neoclásica

# Gasteiz eta Donostia: alternatiba neoklasikoak

Sobre la base de los trabajos de dos arquitectos neoclásicos de singular relieve e importancia en nuestro marco geográfico y cultural trato de referirme a las alternativas urbanas, es decir a los aspectos diferenciales entre el modo de construir la villa medieval y el que se abre paso a partir de 1750. El modo de hacer en el período llamado neoclásico o ilustrado se desarrolla entre 1750 y 1820 principalmente en este país y se halla representado en dos actuaciones concretas de sendos arquitectos vascos: Justo Antonio de Olaguíbel y Pedro Manuel de Ugartemendía.

Vitoria a fines del siglo XVIII y la reconstrucción de San Sebastián de principios del siglo XIX van a servir de hilo conductor para explicitar conceptos significativos sobre este modo alternativo de afrontar la construcción o reconstrucción de lo urbano.

Como premisa previa interesa señalar, aunque sea brevemente, algún hecho significativo, que en el campo institucional representa el soporte administrativo y cultural para las reformas urbanas neoclásicas. En 1744 se crea la Academia de Bellas Artes de

Gure geografiaren eta kulturaren esparruetan garrantzi eta sona bereziko bi arkitekto neoklasikoren lanetan oinarrituta, hiri alternatibak aztertzen saiatuko naiz, hau da, Erdi Aroko hiribildua eraikitzeko modua eta 1750. urtetik aurrerako modua bereizten dituzten alderdiak. Neoklasiko edo ilustratu esaten zaion aldia 1750. urtetik 1820. urtera bitarte izan zen gure herrian, eta bi euskal arkitektoren jarduketa zehatz bana dira aldi horren adierazgarri: Justo Antonio Olagibel eta Pedro Manuel Ugartemendia.

Gasteiz XVIII. mendearen amaieran eta Donostia berreraikitzea XIX. mendearen hasieran; bi jarduketa horiek izango dira gure hari hiria eraikitzeko edo berreraikitzeko modu alternatibo horri buruzko kontzeptu esanguratsuak azaltzeko garaian.

Aldez aurreko premisatzat, labur-labur bada ere, gertaera adierazgarriren bat nabarmendu nahi nuke, erakundeen esparruan administrazioaren eta kulturaren arloko euskarri baita hiri eraberritze neoklasikoetarako. 1744. urtean San Fernandoko Arte Ederren



*Vista de Vitoria-Gasteiz. 1888*
*Archivo Municipal de Vitoria*

*Gasteizeko bista. 1888*
*Gasteizko Udal Artxiboa*

San Fernando, en el reinado de Felipe V; los puestos responsables en la nueva administración son ocupados por la nueva clase de «los ilustrados».

En este período se crean las Comisiones de Obras como sección que goza de cierta autonomía dentro de las Corporaciones Municipales. Así en 1813 ante el problema que representa la reconstrucción de San Sebastián tras de la masacre propiciada por las tropas de Wellington, se crea el 5 de diciembre la Junta de Obras.

Akademia sortu zen, Felipe V.a errege zela; administrazio berriko ardura postuak «ilustratuen» klase berriak bete zituen.

Aldi horretan, Obra Batzordeak sortu ziren, eta Udalbatzen barruan nolabaiteko autonomia zuten sekzioak ziren. 1813. urtean, Wellington-en tropek eragindako sarraskiaren ondoren Donostia berreraiki behar zenez, arazo horri aurre egiteko Obra Batzarra sortu zen abenduaren 5ean.



*Plaza de España, Vitoria-Gasteiz.*
*Imagen de Google Earth.*

*Espainia Plaza, Vitoria-Gasteiz.*
*Google Earth-eko irudia.*

Sobre este marco institucional se comienzan las obras, en profundidad, para crear alternativas a la ciudad medieval. Alternativas que no sólo abarcan el plano de la arquitectura, que es el que vamos a referirnos, sino también al campo de la ingeniería. Así se inaugura en esta época la traída de aguas desde los Montes de Vitoria a la Plaza Vieja. Transportando el agua en conductos de barro hasta la nueva fuente de 8 caños y planta octogonal que toma protagonismo en un viejo grabado representativo de la urbe de la época.

Erakunde esparru horretan oinarrituta hasi ziren obrak, sakonean, Erdi Aroko hiriarentzat alternatibak sortzeko. Arkitekturaren planoa ez ezik —gu horri buruz jardungo gara—, ingeniaritzako esparrua ere biltzen duten alternatibak. Horrela inauguratu zen garai hartan Gasteizko Mendietatik Plaza Zaharrera ura ekartzea. Ura buztinezko hodietan garraiatuz, 8 kainu eta planta oktogonala zituen iturri berriraino, garai hartako hiriaren adierazgarri den grabatu zahar batean protagonismoa hartzen duena.

Sobre el espacio que constituía la Plaza Vieja que vemos representada en el grabado y que tan adecuadamente se describe en los abundantes libros de viajes, como el de Albert Jouvin en 1672 o el de la Condesa de Aulnoy en 1690 y sobre todo en el correspondiente al viaje que entre 1626 y 27 realizara a Vitoria Manier de Noyon.

Era en este lugar de la Plaza Vieja, donde tenía asiento la parte más importante de los edificios públicos no representativos, como son la Casa del Peso, el Hospital Santiago, y la Cárcel de la Ciudad, así como los más típicamente representativos como las Casas del Ayuntamiento y la Casa de la Real Sociedad Bascongada de Amigos del País.

Olaguíbel traza la Plaza Nueva y los Arquillos como planteamiento urbano que representa una profunda alternativa a los modos de parcelar y construir la villa en período medieval. Se realizan varios proyectos concretos y luego se parcela para llevar a cabo los mismos dentro de una total unidad de conceptos y formas, sancionados por la Academia.

La construcción de la Plaza Nueva basa sus trazas en las 33 Ordenanzas, donde se contemplan todos los pormenores para la, correcta construcción así como su conservación y mantenimiento futuros tal y como estaba pensada.

Dentro de la tradición normativa y ordenancista neoclásica, emanada de la autoridad académica de San Fernando, Ordenanzas totalmente rígidas, únicamente explicativas de un proyecto ya previamente elaborado y al que protegen no solamente para su adecuada construcción, sino que se contienen las cláusulas para un buen mantenimiento y su recta apreciación. El «Despotismo Ilustrado» en toda su esencia.

Plaza Zaharra osatzen zuen espazioari dagokionez; grabatuan ikus dezakegu, eta bidaia liburu ugaritan oso egoki deskribatzen da, hala nola Albert Jouvinena 1672an edo Aulnoyko kondesarena 1690ean eta, batez ere, 1626tik 27ra bitartean Noyoneko Manierrek Gasteizera egin zuen bidaiari zegokion horretan.

Plaza Zaharreko toki horretan zegoen jarrita eraikin publiko ez-adierazgarrien zatirik garrantzitsuena, hala nola Pisuaren Etxea, Santiago Ospitalea eta Hiriko Kartzela, baita ohiko adierazgarrienak ere, hala nola Udaletxearen Etxeak eta Euskalerriaren Adiskideen Elkartearen Etxea.

Olagibelek Plaza Berria eta Arkupeak hiri planteamendu gisa marrazten ditu, Erdi Aroan hiribildua partzelatzeko eta eraikitzeko moduen alternatiba sakona den aldetik. Hainbat proiektu zehatz egiten dira, eta, gero, horiek gauzatzeko, lurzatiak sailkatu ziren kontzeptu eta formen batasun oso baten barruan; Akademiak zehatu egin zituen.

Plaza Berriaren eraikuntzak 33 Ordenantzetan oinarritzen ditu bere trazadurak. Bertan, Plaza eraikitzeko xehetasun guztiak jasotzen dira, baita etorkizunean hura kontserbatzea eta mantentzea ere, pentsatuta zegoen bezala.

San Fernandoko akademiaren agintaritzak emandako arauen eta ordenantzen tradizio neoklasikoaren barruan, Ordenantzak guztiz zurrunak ziren, aurretik egindako proiektu bat azaldu baino ez zuten egiten, eta proiektu hori babesten zuten, behar bezala eraikitzeko ez ezik, behar bezala mantentzeko eta balioesteko klausulak ere bilduta. «Despotismo ilustratua» bere esentzia osoan.

La formalización del esquema parcelario sufre una transformación radical. Propiedad de la casa urbana bajo una acera pública como es el caso de los Arquillos o sobre una arquería o soportal asimismo público como en el caso de la Plaza Nueva. Evolución incesante desde la propiedad total de un solar para una casa urbana de mayor o menor fachada regulado según la metodología gótico-medieval, hacia una formas de propiedad más compleja, con servidumbres de uso público todo ello en aras a la búsqueda de la belleza como expresión máxima del bien común. Tal y como la entendía la Academia de San Fernando.

Las ordenanzas de construcción y parcelación de esta época son absolutamente rígidas, tanto las que sirvieron para edificar esta Plaza Mayor de Vitoria, como las que constituirían la base para la Reconstrucción de San Sebastián por Ugartemendía.

De este modo constatamos cómo en la Ordenanza 10 se define en detalle la calidad del enlosado de piedra en soportales y añade «El primer coste de este pavimento se costeará por los dueños de las casas y su conservación perpetua (es curioso señalar esta perennidad normativa neoclásica) por mitad entre los mismos y el Ayuntamiento. No obstante en la Ordenanza 11 se especifica que entre los arcos que dan entrada a la Plaza el pavimento será de losa más gruesa y la conservación perpetua será a cargo del Ayuntamiento. Al margen de las Ordenanzas específicamente dedicadas a la arquitectura del edificio como construcción, o como forma son interesantes todas las anotaciones sobre la nueva propiedad resultante.

Si tenemos en cuenta que el motivo programático para la construcción de la Plaza fue la creación de un lugar para los espectáculos públicos de día, básicamente los toros, y de noche, los fuegos de artificio, se regula

Lurzatien eskemaren formalizazioa goitik behera aldatzen da. Hiri etxearen jabetza, espaloi publiko baten azpian, Arkupen kasuan bezala, edo arkuteria edo ataripe publiko baten gainean, Plaza Berriaren kasuan bezala. Bilakaera etengabea, Gotikoko-Erdi Aroko metodologiaren arabera araututako fatxada handiagoko edo txikiagoko hiri etxe baterako orube baten jabetza osotik jabetza konplexuagoko forma baterantz, erabilera publikoko zortasunekin, hori guztia edertasuna bilatzeko ondasun komunaren adierazpen maximoan. San Fernandoko Akademiak ulertzen zuen bezala.

Garai hartako eraikuntza eta partzelazio ordenantzak guztiz zurrunak dira, bai Gasteizko Plaza Nagusi hori eraikitzeko balio izan zutenak, bai Ugartemendiak Donostia berreraikitzeko oinarri izango zirenak.

Horrela, 10. ordenantzan ataripeetako harrizko lauzen kalitatea zehatz-mehatz definitzen da, eta honako hau gaineratzen du: «Zoladura horren lehen kostua etxeen jabeek ordainduko dute eta haien betiko kontserbazioa (bitxia da arau neoklasikoen iraunkortasun hori aipatzea) horien eta Udalaren artean erdibana.» Hala ere, 11. Ordenantzan zehazten denez, plazarako sarrera ematen duten arkuen artean, zoladura lauza lodiagokoa izango da, eta Udalak zainduko du beti. Eraikinaren arkitekturari —eraikuntza gisa edo forma gisa— berariaz eskainitako Ordenantzak alde batera utzita, interesgarriak dira ondoriozko jabetza berriari buruzko ohar guztiak.

Plaza eraikitzeko arrazoi programatikoa ikuskizun publikoetarako —egunez, batik bat, zezenketak eta, gauez, su artifizialak— leku bat sortzea izan zela kontuan hartzen badugu, balkoien jabetza eta erabi-

la propiedad y el uso de los balcones. Así la doceava Ordenanza dirá «Que aunque en las primeras condiciones se dijo que la utilidad de los balcones en las funciones públicas se distribuyeran por mitad entre la ciudad y los dueños de las casas, en inteligencia de que los balcones habrían de ser corridos y sin división entre sí ni otra ventana, pero habiendo parecido más conveniente hacer los balcones aislados por ser esta idea más hermosa (aparece aquí de nuevo el tema de la belleza como motivación que prima sobre cualquier otra) y que por ello resulta menos capacidad en los balcones. «Es condición que el producto de ellos en las ocasiones de funciones públicas han de tocar dos partes a la ciudad y una a los dueños de las casas».

Otro aspecto de importancia se contiene en la Ordenanza 19 donde se expresa que «no se permitirá en los balcones, celosías ni otros embarazos que cause fealdad a la vista y solamente por la decencia pondrán los dueños en cada balcón un ruedo o cenefa de celosía de un pie de ancho, trabajada con curiosidad, según una muestra que se aprobará, y se pintará de verde como las ventanas».

El afán de perennidad y buen cuidado de la Plaza una vez concluida, se contiene en varias de las Ordenanzas donde no sólo se regulan las multas para unas posibles reparaciones, sino que la regulación llega al extremo de prohibir la venta de la casa a «obra pía, cofradía o comunidad eclesiástica secular o regular o cualquiera otra comunidad o persona particular que goce de condición militar u otra cualquiera que le sustraiga de la jurisdicción llana y ordinaria». Para de este modo hacer efectivas el pago de las multas tendentes a la perennidad del edificio.

La protección de la obra llega a términos de imponer en Ordenanza que «la Ciudad jamás ha de poder dar

lera arautu ziren. Hamabigarren Ordenantzak honako hau dio: «Balkoien erabilgarritasuna emanaldi publikoetan hiriaren eta etxeen jabeen artean erdibana banatuko zirela esan bazen ere lehen baldintzetan, balkoiak jarraituak izango zirela eta tartean banaketarik eta beste leihorik gabe egongo zirela pentsatuz, baina balkoiak isolatuta egitea komenigarriagoa zela iruditu zen, ideia hori ederragoa zelako (edertasunaren errema agertzen da berriro, beste edozeinen gainetik dagoen motibazio gisa) eta, horren ondorioz, balkoien edukiera txikiagoa da. Beraz, baldintza zera izango da, emanaldi publikoen kasuetan, bi zati hiriari egokitzea eta bat etxeetako jabeei.

19. Ordenantzak badu beste alderdi garrantzitsu bat ere: «Balkoietan, ezin izango dira saretak jarri, ezta ageriko itsusitasuna eragiten duten beste enbarazu batzuk ere, eta begiruneagatik bakarrik jarriko dute jabeek balkoi bakoitzean saretazko zerrenda edo zirkulu bat, oin bateko zabalerakoa, bitxiki landua, onetsiko den lagin baten arabera, eta leihoak bezala berdez margotuko da.

Plaza amaitu ostean, haren iraunkortasuna eta zaintza egokia hainbat ordenantzatan jasota dago. Ordenantza horietan, balizko konponketetarako isunak arautzen dira, baina, horrez gain, etxea honako hauei saltzea debekatzen da: «benefizientziari, eliz kofradia edo komunitate sekular edo erregularrari, edo izaera militarra edo jurisdikzio arruntetik kanpo uzten duen beste edozein izaera duen beste edozein komunitate edo pertsonari». Horrela, eraikinaren iraunkortasunerako isunak ordaindu ahal izango dira.

Obraren babesak honako hau ezartzen du Ordenantzan: «Hiriak ezin du inoiz lursailik eman plaza osa-

terreno contiguo a las nuevas casas que han de formar la plaza, pues por todos los lados han de tener siempre lo que menos el claro de 33 pies».

Curiosamente, también se regula que «en ningún tiempo la Ciudad ni otra persona ha de poder mandar aseguren o aten las cuerdas o ramales con que corren los novillos, ni atar las caballerías en ninguno de los pilares que han de formar los arcos y mucho menos en las rejas de las casas».

Las Ordenanzas, según hemos visto, verdadero tratado de un nuevo modo de concebir la ciudad respecto al gótico-medieval, concluyen con un epílogo en el que se asignan los solares resultantes de la arquitectura, según las leyes marcadas férreamente en el proyecto, así como su propia indivisibilidad.

Es evidente que este esquema de planificación y a esta nueva concepción de la propiedad urbana se llegó con unos resultados tan satisfactorios a como lo hace el proyecto de Olaguíbel, a causa que la propiedad del suelo previa al Plan era pública, o utilizando sus propios términos eran propiedad de la Ciudad. De este modo ha sido posible un desarrollo modélico de una manera de hacer típicamente ilustrada. Alternativa y novedosa respecto la manera antigua, gótico-medieval, con sus sucesivas transformaciones renacentistas y barrocas, sobre todo en el tipo edificatorio de la casa, siempre sobre un esquema parcelario que se mantiene como patrón de continuidad rítmica y de proporción.

Un caso diametralmente distinto, con unos resultados figurativos, sin duda, menos brillantes, si bien de enorme interés, es el representado por el Plano y Reconstrucción de San Sebastián tras el incendio de 1813.

tuko duten etxe berrien ondoan; izan ere, alde guztietatik gutxienez 33 oineko soilunea izan behar dute beti.»

Bitxia bada ere, araututa dago, halaber, ez Hiriak ez beste inork ezin izango duela inoiz agindu zezenkoek izaten dituzten sokak edo uhalak ziurtatu edo lotu ditzatela edo zaldiak lotu ditzatela arkuak osatuko dituzten pilareetako batean ere, eta are gutxiago etxeetako burdin-hesietan.

Ordenantzak, ikusi dugunez, hiria ulertzeko modu berri baten benetako tratatua dira, eta epilogo batekin amaitzen dira, non arkitekturaren ondoriozko orubeak esleitzen diren, proiektuan zorrotz markatutako legeen arabera, baita beren zatiezintasuna ere.

Argi dago plangintza eskema horretara eta hiri jabetzaren kontzepzio berri horretara iritsi zela Olagibelen proiektuak bezain emaitza onak lortuz, Planaren aurretik lurzoruaren jabetza publikoa zelako edo, bere terminoak erabiliz, Hiriaren jabetzakoak zirelako. Horrela gauzatu ahal izan zen egiteko modu ilustratu tipiko baten garapen eredugarria. Alternatiboa eta berritzailea zen antzinako moduarekin, Gotikoko-Erdi Aroko moduarekin, alderatuta, Errenazimentuko eta Barrokoko eraldaketa eta guzti, batez ere etxeen eraikuntza motan, betiere jarraitutasun erritmikoko eta proportzioko patroi gisa mantentzen den lurzatien eskema bati jarraikiz.

Oso bestelako kasua da 1813ko sutearen ondoren Donostiako planoak eta berreraikuntzak adierazitakoa, eta, zalantzarik gabe, emaitza figuratiboak ez dira hain distiratsuak, nahiz eta interes handikoak izan.



*Propuesta de Ugartemendia para la reconstrucción del centro histórico de San Sebastián, 1814. Museo San Telmo*

*Ugartemendiaren proposamena Donostiako. hirigune historikoa berreraikitzeko, 1814. San Telmo Museoa*

Cuando quedó arrasada la Ciudad ardiendo 600 de sus casas. Operación arquitectónica vinculada a la figura de Pedro Manuel de Ugartemendía.

El esquema de funcionamiento es similar al de Vitoria pero la intervención neoclásica, sobre un esquema parcelario y de propiedad medieval preexistente presentó unas dificultades difíciles de superar en unas ar-

Hiria suntsituta geratu zenean, 600 etxe erre ziren. Pedro Manuel Ugartemendiaren irudiari lotutako lan arkitektonikoa.

Funtzionamendu eskema Gasteizkoaren antzekoa da, baina esku-hartze neoklasikoak, aurretik zegoen partzelen eta jabetzaren eskema —Erdi Arokoa— batean oinarritutakoak, zailtasun gaindigaitzak izan zituen

quitecturas tan precisas como las realizadas por Olaguíbel, y ello no fue porque no se intentase.

Olagibelek egindako arkitektura hain zehatzetan, eta hori ez zen izan saiatu ez zelako.

Los nuevos conceptos de la urbanización estaban plenamente vigentes en el San Sebastián del 800. Se disputa y gana la capitalidad a Tolosa en el nuevo esquema de provincias napoleónico, se consigue posteriormente el paso del ferrocarril del Norte en disputa con Pamplona y se hacen toda una serie de propuestas urbanas acordes con la mentalidad ilustrada.

Urbanizazioaren kontzeptu berriak erabat indarrean zeuden 800eko Donostian. Probintzien eskema napoleondar berrian, Tolosaren hiriburutza lehiatu eta irabazi zen; aurrerago, Iparraldeko trenbidea igarotzea lortu zen, Iruñearekin lehian, eta pentsamolde ilustratuarekin bat zetozen hirigintzako proposamenen sorta oso bat egin zen.

En este contexto, ante el trauma de la destrucción, San Sebastián encarga a Ugartemendía el Plano de Reconstrucción y éste realiza en su primer diseño una novísima concepción urbanística. Sustituyendo todos los conceptos de trazados, los esquemas tipológicos, el sistema parcelario así como el carácter de la Plaza Pública. Por otro lado comienza a aplicarse el concepto de alineación y se modifica sustancialmente la proporción calle-edificio, ampliando las dimensiones de ambos.

Testuinguru horretan, suntsiketaren traumaren aurrean, Donostiak Ugartemendiari Berreraikuntza Planoa enkargatu zion, eta hark hirigintzaren kontzepzio oso berria egin zuen bere lehen diseinuan. Trazatuen kontzeptu guztiak, eskema tipologikoak, lurzatien sistema eta Plaza Publikoaren izaera aldatu zituen. Bestalde, lerrokadura kontzeptua aplikatzen hasi zen eta kale-eraikin proportzioa nabarmen aldatu zen, bien neurriak handituz.

El diseño originario, tan equilibrado, simétrico y convergente sobre un esquema de plaza octogonal que contuviera los Edificios Públicos y Representativos resuelve en claves de regularidad todas las solicitaciones arquitectónicas y formales.

Jatorrizko diseinua oso orekatua, simetrikoa eta bateratua zen, Eraikin Publikoak eta Ordezkaritzakoak kokatuko liratekeen plaza oktogonalaren eskema baten gainean, erregulartasun klabean konpondu zituen eskaera arkitektoniko eta formal guztiak.

La antepuerta del templo de Santa María, el acceso a la Plaza Octogonal y sobre todo tiene gran interés en que se hace un planteamiento totalmente novedoso de los tipos edificatorios de la casa familiar. Quedan totalmente regularizadas y geometrizadas las carcavas o caños en la fachada trasera de las casas, como propuesta que, posteriormente, en pleno período higienista y con los Ensanches como modo de hacer ciudad, daría lugar a los patios de manzana característicos a partir de los años sesenta del siglo XIX.

Santa Mariako tenpluaren ataurrea, plaza oktogonalerako sarbidea eta, batez ere, interes handia du familia etxearen eraikuntza moten planteamendu guztiz berria egiten duelako. Erabat erregularizatuta eta geometrizatuta geratu ziren etxeen atzeko fatxadako lubaki edo hodiak, eta proposamen horren ondorioz, gerora, aldi higienista betean eta zabalguneak hiria egiteko modu gisa hartuta, uharte patio bereizgarriak sortu ziren, XIX. mendeko hirurogeiko hamarkadatik aurrera.

Una propuesta tan radical pronto encontró dificultades insalvables, una ciudad totalmente destruida y arruinada no podía tratarse como un edificio único. Las fases necesarias para plasmar el proyecto y construirlo en piedra no iban a permitir una alteración del esquema parcelario antiguo, ni los profundos cambios en las rasantes urbanas en un modo y forma de hacer urbanística tan novedosa.

Fruto de ello fue el encargo de un plan corregido de la misma reconstrucción de la ciudad, en la que si bien se introducirían las mismas nuevas ideas sobre proporciones urbanas, tipos edificatorios y el ensanchamiento de trazados, perdería su rotundidad simétrica en aras a una adaptación más empirista al plano parcelario preexistente. La operación de la parcelación había predominado sobre las demás consideraciones y fue la que forzó a un nuevo planteamiento mucho menos ambicioso en el que se conservaron bastantes cosas del anterior, inclusive los desmontes y fijación de nuevas rasantes de calles, también éste un aspecto diferencial del modo urbano neoclásico frente al gótico-medieval.

Alejo de Miranda, arquitecto asimismo perteneciente a la Academia de San Fernando colaboró con Ugartemendía. En la confección de este segundo plano.

Tampoco éste llegó a realizarse en su totalidad y el esquema de la parte Vieja de San Sebastián que hoy conocemos difiere bastante de aquél, si bien mantiene parte de sus conceptos e indicaciones, aunque no fueran los fundamentales y más novedosos. Fue el plano n.º 4 el que quedara definitivamente aprobado por el Real Consejo de Castilla.

Análogamente Ugartemendía como Olaguíbel basó la gestión de su proyecto en un esquema de ordenanzas comprendido en la Reglas Dictadas para la Recons-

Proposamena hain zen muturrekoa, ezen laster aurkitu baitzituen zailtasun gaindiezinak; erabat suntsitutako eta hondatutako hiri bat ezin zen eraikin bakar gisa tratatu. Proiektua islatzeko eta harriz eraikitzeko beharrezkoak ziren faseak zirela eta, ezin izan zen antzinako lurzatien eskema aldatu, ezta aldaketa sakonak egin ere hiri sestretan, hirigintza egiteko modu eta forma hain berrian.

Horren ondorioz, hiria berreraikitzeko plan zuzendua enkargatu zioten. Plan horretan, hiri proportzioei, eraikuntza motei eta trazatuak zabaltzeari buruzko ideia berriak sartu ziren arren, bere irmotasun simetrikoa galdu zen, lehendik zegoen lurzati planora hobeto egokitzeko. Partzelazioa gainerako alderdiei gailendu zitzaien, eta horrek behartu zuen planteamendu berri bat egitera, anbizio gutxiagokoa, baina aurrekoaren gauza asko bazituena, baita lur erauzketak eta kale sestra berriak finkatzea ere; azken alderdi hori ere hiri forma neoklasikoaren bereizgarria zen, Gotikoko-Erdi Aroko formarekiko.

Alejo de Miranda arkitektoak —San Fernandoko Akademiakoa zen hura ere— Ugartemendiari lagundu zion bigarren plano hori egiten.

Hori ere ez zen osotasunean gauzatu, eta gaur egun ezagutzen dugun Donostiako Alde Zaharraren eskema oso ezberdina da, baina haren kontzeptu eta indikazioen zati bati eusten dio, funtsezkoak ez diren arren. Gaztelako Errege Kontseiluak 4. planoa onartu zuen behin betiko.

Era berean, Ugartemendiak —Olagibelek bezala— Hiriaren Berreraikuntzarako emandako Arauetan jasotako ordenantzen eskeman oinarritu zuen bere

trucción de la Ciudad, no obstante ésta difieren considerablemente de aquellas, ya que no contienen hacia el modo de construir lo proyectado, sino que únicamente regulan con precisa rigidez y determinación la forma resultante de cada edificio en particular y con ellos el conjunto.

Las reglas de Ugartemendía se refieren únicamente al esquema tectónico, constructivo y formal de lo proyectado, a diferencia de las dictadas por Olaguíbel, que contenían todas las cláusulas tendentes a llevar a término y concluir el proceso y gestión de construir un trozo concreto de ciudad.

De su estudio y análisis comparado convendría resaltar las variaciones que representan respecto a la distinta concepción compositiva contenidas en cada una de las series de Ordenanzas a las que hacemos referencia, si bien este es un aspecto teórico en el que convendría insistir en el futuro.

Estos dos magníficos ejemplos de Alternativa Ilustrada, junto a las extraordinarias villas planificadas que enriquecen el territorio así como la serie de intervenciones urbanas representativas de los modos de construir la ciudad, como son los ensanches, o la ciudad jardín y las colonias obreras del siglo XX, pueden constituir el material de investigación y conocimiento, sobre el que elaborar una teoría proyectual válida a la hora de construir lo urbano. En estos momentos tan faltos de una teoría propiamente arquitectónica.

San Sebastián, 1977

proiektuaren kudeaketa. Hala ere, arau horiekiko oso desberdinak dira, ez baitute jasotzen proiektatutakoa eraikitzeko modua; aitzitik, zurruntasun eta irmotasun zehatzez arautzen dute eraikin bakoitzaren ondoriozko forma, bereziki, eta, horiekin batera, multzoa.

Ugartemendiaren arauak proiektatutakoen eskema tektoniko, eraikitzaile eta formalari buruzkoak baino ez dira, Olagibelek emandakoak ez bezala; Olagibelen arauetan, hiriaren zati zehatz bat eraikitzeko prozesua eta kudeaketa burutu eta amaitzeko klausula guztiak biltzen ziren.

Horien azterketa konparatua eginez gero, zera nabarmentzea komeni da, aipagai ditugun Ordenantzen sorta bakoitzean jasotako konposizio ikuskera desberdinarekiko dituzten aldakuntzak, nahiz eta alderdi teoriko hori etorkizunean ere azpimarratzea komeni den.

Alternatiba ilustratuaren bi adibide bikain horiek, lurraldea aberasten duten aparteko hiribildu planifikatuekin batera, baita hiria eraikitzeko moduak adierazten dituzten hiri esku-hartzeak ere, hala nola zabalguneak edo XX. mendeko lorategi hiria eta langile koloniak, ikerketarako eta ezagutzarako materiala izan daitezke, eta horien gainean proiektu teoria bat egin daiteke, hiria eraikitzeko balio duena. Teoria zehazki arkitektoniko baten falta dagoen une hauetan.

Donostia, 1977

# Eibar: urgencias urbanísticas, 1978

Los trabajos de planeamiento en Eibar experimentan un cambio cualitativo importante con el Concurso para la redacción del Plan General de Ordenación Urbana en al año 1974. Comienza así toda una serie de trabajos y análisis encaminados a la puesta en marcha de un sistema, que permita, cuando menos, una reflexión generalizada sobre los problemas urbanos que Eibar tiene planteados.

La amplia y específica problemática urbana eibarresa constituye aspectos fijados en la memoria colectiva de sus gentes: altísimas densidades, faltas de urbanización, congestión casi colapso constante en la circulación, arquitecturas que buscan más la expresión del objeto con una significativa ausencia de referencias urbanas en los edificios, edificios públicos sin una gran significación representativa y reflejo de la colectividad etc.

Esta catalogación de los problemas ha sido objeto de una extensa serie de trabajos que constituyen la «Información Urbanística». Allí han sido ordenados en series, a fin de delimitar el cuadro de las deficien-

# Eibar: hirigintzako premia larrialdiak, 1978

Eibarko plangintza lanek aldaketa kualitatibo handia izan zuten 1974. urtean Hiri Antolamenduko Plan Orokorra idazteko Lehiaketarekin. Horrela, hainbat lan eta azterketa egiten hasi ziren, gutxienez Eibarrek planteatuta zituen hiri arazoei buruzko hausnarketa orokorra ahalbidetuko duen sistema bat abian jartzeko.

Eibarko hirigintzako arazo orokor eta espezifikoak bertako biztanleen memoria kolektiboan finkatutako alderdiak dira: dentsitate oso handiak, urbanizazio faltak, trafikoan pilaketa ia etengabea, eraikinetan hiri erreferentziarik ez duten objektuaren adierazpena gehiago bilatzen duten arkitekturak, esanahi adierazgarririk gabeko eraikin publikoak eta kolektibitatearen isla direnak, etab.

Arazoen katalogazio horri buruzko lan ugari egin dira, eta «Hirigintzako informazioa» eratu da lan horiekin. Han, serieetan antolatu dira, hirigintzako gabezien koadroa mugatzeko. Barne hierarkia baten pean,

cias urbanas. Bajo una propia jerarquía interna, a fin de poder iniciar paulatinamente la necesaria serie de cambios cualitativos en el proceso de construcción de Eibar. Se considera tanto la entera ciudad, como cada una de sus partes individualizables, como un sujeto y objeto de arquitecturas con significaciones específicamente urbanas.

Eibar eraikitzeko prozesuan beharrezkoak diren aldaketa kualitatiboak pixkanaka hasi ahal izateko. Hiri osoa eta bere zati indibidualizagarri bakoitza esanahi zehazki hiritarrak dituzten arkitekturen subjektu eta objektutzat hartzen dira.

El conjunto de estas ideas reflejadas a través de los métodos instrumentales que proporciona la arquitectura, se contiene en un Avance de Planeamiento, donde queda fijado con precisión el cuadro conceptual y las intenciones figurativas, para las transformaciones urbanas en Eibar. Dicho Avance constituye toda una «Idea de Ciudad», tanto en el conjunto como en sus varias partes. Define a un nivel pormenorizado todo el cuadro de nuevos trazados, la mejora o supresión de algunos de los existentes, repropone el tema de la alineación como concepto ordenador y distribuye los lugares públicos como su significación concreta de arquitectura en edificios representativos. Tratando pormenorizadamente cada uno de los rincones de la intrincada geografía eibarresa. Evidentemente dicho Avance contiene un sin fin de propuestas de una cierta radicalidad.

Arkitekturak ematen dituen metodo instrumentalen bidez islatutako ideia horien multzoa Planeamenduaren Aurrerapenean jasotzen da, eta bertan zehaztasunez finkatzen dira Eibarko hiri eraldaketetarako kontzeptu koadroa eta asmo figuratiboak. Aurrerapen hori «Hiriaren Ideia» oso bat da, bai hiri osoari dagokionez, bai hiriaren zatiei dagokienez; trazatu berrien taula osoa xehetasunez definitzen du, lehendik dauden batzuk hobetu edo ezabatzen ditu, lerrokatzearen gaia kontzeptu antolatzailetzat berproposatzen du, eta leku publikoak arkitekturaren esanahi zehatz gisa banatzen ditu eraikin adierazgarrietan. Eibarko geografia korapilatsuaren txoko guztiak zehatz-mehatz aztertuz. Jakina, Aurrerapen horretan nolabaiteko erradikaltasuna duten proposamen ugari biltzen dira.

Esto conlleva que el esquema propuesto en el Avance no pueda ser adoptado sin una discusión previa, a todos los niveles y entre todas las fuerzas operantes sobre la ciudad.

Horrek esan nahi du Aurrerapenean proposatutako eskema ezin dela gauzatu aldez aurretik, maila guztietan, hirian jarduten duten indar guztien artean eztabaidatu gabe.

Tanto directamente los agentes de la construcción de lo urbano —constructores, promotores, industriales etc.— como las gentes para las que va destinada la ciudad concreta que se construya, es decir el propio usuario representado en la totalidad de su vecindario.

Bai, zuzenean, hiri eraikuntzako agenteak —eraikitzaileak, sustatzaileak, industrialak, etab.—, bai eraikitzen den hiri zehatzaren xede diren pertsonak, hau da, erabiltzailea bera, bere auzoaren osotasunean ordezkatuta.



*Avance de Planeamiento con las soluciones arquitectónicas para el Área Central.*

*Planeamenduaren Aurrerapena, Erdialderako soluzio arkitektonikoekin.*

El período de cambio político y representativo que vive en la actualidad el país, en plena constitución de instituciones que representen los intereses de grupo, la absoluta necesidad de organismos que canalicen las aspiraciones populares, el afianzamiento de los partidos políticos, tanto los que canalizan los grupos sociales mayoritarios, como aquellos que sin representación mayoritaria quieren, y deben hacer oír sus criterios.

Gaur egun, politikan eta ordezkaritzetan aldaketa garaia bizitzen ari gara herrialdean: taldearen interesak ordezkatzen dituzten erakundeak sortzen ari dira, herri asmoak bideratuko dituzten erakundeen premia erabatekoa da, alderdi politikoak finkatzen ari dira, bai gizarte talde nagusiak bideratzen dituztenak, bai gehiengoaren ordezkaritzarik izan gabe, beren irizpideak entzunarazi nahi eta behar dituztenak.







Este cuadro institucional en plena formulación, ha permitido, en el caso de Eibar, toda una serie de reflexiones generalizadas en torno a las cuales ha sido

Eratze prozesu bete-betetan zegoen erakunde koadro horri esker, Eibarren kasuan, gogoeta orokor batzuk egin ahal izan dira, eta horien inguruan, zoritxarrez,

posible iniciar un tipo de formulaciones desgraciadamente olvidadas en el quehacer urbanístico cotidiano, cuales son las articulaciones entre propuestas técnicas y control político de las mismas.

ohiko hirigintza zereginetan ahaztutako formulazio mota batzuk abiarazi ahal izan dira, hala nola proposamen teknikoen eta horien kontrol politikoaren arteko artikulazioak.

Tras de una larga serie de reuniones y propuestas de los diversos grupos políticos, siempre sobre la base de los criterios de arquitectura contenidos en el Avance, se ha constituido una amplia Comisión —partidos políticos, asociaciones vecinales y el actual ayuntamiento— que en la actualidad está trabajando intensamente en la pronta resolución de aquellos problemas más acuciantes para la edificación o remodelación de partes de la ciudad cuya solución se considera urgente y en cierta medida no condiciona las grandes tomas de decisión. Decisiones sobre áreas industriales, vivienda asequible, promoción municipal etc. Cuestiones todas ellas que involucran reflexiones aún más generalizadas, y que difícilmente podrán afrontarse con anterioridad a la estabilización de un nuevo cuadro institucional municipal. Dicho de otro modo hasta que no se hallen constituidos los nuevos ayuntamientos tras de unas elecciones municipales libres.

Hainbat talde politikoren arteko bilera eta proposamen sorta luze baten ondoren, betiere Aurrerapenean jasotako arkitektura irizpideetan oinarrituta, Batzorde zabal bat eratu da —alderdi politikoak, auzo elkarteak eta gaur egungo Udala—, eta gaur egun burubelarri ari da lanean, premiazkotzat jotzen diren eta, hein batean, erabaki garrantzitsuak baldintzatzen ez dituzten hiriko zatiak eraikitzeko edo birmoldatzeko arazo larrienak lehenbailehen konpontzeko. Industrialdeei, etxebizitza eskuragarriari, udal sustapenari eta abarri buruzko erabakiak. Gai horiek guztiek gogoeta are orokorragoak dakartzate, eta nekez egin ahal izango zaie aurre udalean erakunde koadro berria egonkortu baino lehen. Bestela esateko, udal hauteskunde libreak egin eta udal berriak eratuta dauden arte.

La construcción y transformación de una ciudad es uno de los procesos que no pueden detenerse sin unas consecuencias graves para la propia comunidad. Por ello hoy se están desarrollando aquellos lugares urbanos de Eibar cuya resolución es más urgente por diversos motivos —área de Abontza—, para la que existen iniciativas urbanizadoras privadas que conviene llevar a buen fin, para ello se están arbitrando soluciones que plantean de manera totalmente explícita un cambio cualitativo en la producción de los hechos urbanos.

Hiri bat eraikitzea eta eraldatzea gelditu ezin den prozesu bat da, ez, behitzat, komunitateari berari ondorio larririk ekarri gabe. Horregatik, gaur egun, hainbat arrazoirengatik lehenbailehen konpondu behar diren Eibarko hiri lekuak garatzen ari dira —Abontzako eremua—; eremu horretarako hirigintza ekimen pribatuak daude, eta horiek behar bezala burutzea komeni da. Horretarako, hirigintzako egitateen ekoizpenean aldaketa kualitatiboa modu erabat esplizituan planteatzen duten konponbideak arbitratzen ari dira.

Sobre el punto de partida de un planeamiento parcial aprobado. El cual consistía en una serie de edificios

Onartutako planeamendu partzial bat izanik abiapuntu. Alegia, eraikin altuak, guztiak etxebizitza- ra-

altos todos ellos para el uso de viviendas, sin un solo garage y reservando para edificio escolar el fondo más hundido de la vaguada de Abontza, se propone una alternativa urbana radical.

Tras de una serie de mediaciones, y partiendo del esquema del Avance propuesto para Abontza —el edificio de gran fondo y planta semicircular situado en el centro de la imagen del Avance— se opta por ampliar esta Área a intervenir, con la parcela contigua, también ocupada por edificios públicos. Sobre esta nueva área ampliada, las posibilidades de ordenación se amplían considerablemente. Se mejoran las condiciones de localización de los edificios públicos y en definitiva quedan ampliamente aumentadas las dotaciones y mejorado el carácter de los espacios públicos, como una gran plaza porticada.

La operación urbanística se caracteriza por una mesurada disminución del número de viviendas, ampliamente compensado con un aumento muy considerable de las plazas de garaje a construir en un inmenso espacio adecuado a tal fin. Rellenando de edificación la totalidad de la vaguada. Todo ello cotejado, contrastado y discutido con el correspondiente estudio de coste-beneficio para la promoción privada.

En pleno período de cambio político, mientras se consensuaban a todos los niveles los grandes cambios que habrían de conducir de un régimen autoritario a otro de libertades, en Eibar se elaboran los principios y las bases de actuación para una programación y construcción urbanas, que sin parar en el proceso cotidiano, permite el avanzar en soluciones más cerca de lo público, más acorde con una idea de la urbe como lugar en el que se reconocen los ciudadanos.

bilerarako, garaje bakar bat ere gabe, eta Abontzako ibarbidearen sakon-sakonena ikastetxearen eraikina egiteko erreserbatuta; abiapuntu horretan oinarrituta, hirigintza alternatiba erradikala proposatu da.

Bitartekaritza lanak egin ondoren, Aurrerapenean jasotako Jarduerarako Eremu berean esku hartuz —Aurrerapeneko irudiaren erdialdean dagoen eraikina, sakonera handia eta zirkuluerdi formako oinplanoa duena—, Eremu hori ondoko lurzatiarekin zabaltzea erabaki da; lurzati horretan ere eraikin publikoak daude. Zabaldutako eremu horretan, antolamendu aukerak nabarmen areagotzen dira. Eraikin publikoak kokatzeko baldintzak hobetu dira, eta, azken batean, espazio publikoen zuzkidurak eta izaera asko optimizatzen dira, arkupedun plaza handi gisa.

Hirigintza operazioaren ezaugarria da etxebizitza kopurua neurriz murriztu izana baina, konpentsatzeko, xede horretarako egokia den espazio handi batean eraiki beharreko garaje plazak nabarmen handitu dira. Ibarbide osoa eraikinez beteta. Hori guztia sustapen pribaturako kostu-onuraren dagokion azterketa egin, alderatu, kontrastatu eta eztabaidatu ostean.

Aldaketa politikoaren garai betean, erregimen autoritario batetik askatasunen erregimen batera eraman beharko gintuzketen aldaketa handiak maila guztietan adosten ziren bitartean, Eibarren, hiri eraikuntzarako eta hiri programaziorako printzipioak eta jarduketa oinarriak landu dira, zeinak, eguneroko prozesuan gelditu gabe, publikotik hurbilago dauden konponbideetan aurrera egitea ahalbidetzen baitu, urbea hiritarrak elkar hartzeko lekutzat jotzen duen ideiarekin bat etorrita.



*Abontza en la actualidad.*
*Imagen de Google Earth.*

*Abontza gaur egun.*
*Google Earth-eko irudia.*

Es decir se trata de devolver el protagonismo a aquel cuerpo social que lo ha ejercido durante los períodos más brillantes de la historia urbana del siglo XX, como fueron los años veinte, con las propuestas de las «Siedlungen alemanas». Se está intentando devolver el protagonismo político de la construcción de la ciudad a aquellos que van a ser sus usuarios, bajo la base de todo un cuadro de representatividades nuevo, desarrollando a nivel municipal ideas de arquitectura y ciudad bajo unos principios urbanos donde prima lo colectivo sobre lo individual.

Hau da, azkenaldiko historiako garairik distiratsuenetan (XX. mendeko hogeigarren hamarkada, «Alemaniako siedlungen»-en proposamenekin) protagonismoa izan duen gizarte taldeari berriro ere protagonismoa eman nahi zaio. Hiriaren eraikuntzaren protagonismo politikoa erabiltzaileak izango direnei itzultzen saiatzen ari da, irudikapen koadro berri batean oinarrituta eta, udal mailan, arkitekturaren eta hiriaren ideiak hirigintza printzipio jakin batzuen arabera garatuta; hain zuzen ere, alderdi kolektiboa alderdi indibidualari gailenduz.

Bien entendido que construir una ciudad —el hecho colectivo por excelencia en frase de Fustel de Coulanges— o parte de la misma siempre debe de cuidar de dar respuestas prioritarias a los aspectos colectivos frente a aquellos puramente privados. Prioridad, por tanto para aquellos aspectos —calles, plazas, lugares públicos etc.— sobre los privados. Evidentemente, sin descuidar, los tipos edificatorios más adecuados para cada circunstancia histórica y para cada lugar. Ya que una correcta definición arquitectónica no resultará posible si no ha sido tomada ésta como el motivo programático prioritario en la construcción de la ciudad.

San Sebastián, 2 de junio de 1978

Ondo ulertuta hiri bat —Fustel de Coulanges-en esanetan, egitate kolektibo nagusia— edo haren zati bat eraikitzean beti zaindu behar dela alderdi kolektiboei lehentasunezko erantzunak ematea, soilik pribatuak diren alderdien aurrean. Lehentasuna, beraz, alderdi horietarako —kaleak, plazak, leku publikoak, etab.— eta, noski, egoera historiko eta leku bakoitzerako eraikuntza mota egokienak alde batera utzi gabe. Izan ere, ezin izango baita definizio arkitektoniko egokia egin ez bada hori hartzen hiria eraikitzeko arrazoi programatiko nagusitzat.

Donostia, 1978ko ekainaren 2a

# Arquitectura de Museo y arquitectura de Pabellón

Tratar el tema de un museo en claves de arquitectura conlleva inmediatamente al concepto de Edificio Público, un museo resulta inseparable de su significación colectiva y como tal, de una cualificación precisa y determinada, equidistante entre la arquitectura «puro simbólica» y la «puro utilitaria». La realidad de un museo no puede entenderse desvinculada de su aspecto institucional, por ello tampoco sus específicas cualidades arquitectónicas podrán contemplarse separadas del mundo institucional.

A lo largo de todo el siglo XIX ha constituido tema preferente, como ejercicio de aprendizaje de arquitectura, bajo aquella otra institución que pretendía compendiar toda significación formal, es decir la Academia, y varios han sido los «Grand Prix» concedidos por la Academia de Francia a ejercicios proyectuales sobre el tema del museo.

Sobre la base de un cuadro conceptual totalmente distinto, aquel que repudia de toda Institución, y se erige por sí mismo como un significante arquitectónico puro, fundamentalmente ligado a un lenguaje deter-

# Museoko arkitektura eta Pabiloiko arkitektura

Museo baten gaia arkitektura klabeetan jorratzeak berehala dakar Eraikin Publikoaren kontzeptua; museo bat ezin da bere esanahi kolektibotik bereizi, eta, beraz, kualifikazio zehatz eta jakin bat du, arkitektura «sinboliko hutsaren» eta «erabilgarritasun hutsaren» artean dagoena. Museo baten errealitatea ezin da bere alderdi instituzionaletik aldenduta ulertu; horregatik, bere ezaugarri arkitektoniko espezifikoak ere ezingo dira ikusi mundu instituzionaletik bereizita.

XIX. mende osoan lehentasunezko gaia izan zen, arkitektura ikasteko ariketa gisa, esanahi formal oro laburbildu nahi zuen beste erakunde haren pean, hau da, Akademiaren pean, eta hainbat izan dira Frantziako Akademiak museoaren gaiari buruzko proiektu-ariketetarako emandako «Grand Prix»-ak.

Guztiz desberdina den kontzeptu koadroan oinarrituta, erakunde oro arbuiatzen duena, eta bere kabuz esanahi arkitektoniko huts gisa eratzen dena, batez ere hizkuntza jakin bati lotua, hala nola «Pabiloien»

minado, como son la arquitectura programática de los «Pabellones», realizados con cierta profusión en el momento álgido de los enunciados programáticos del Movimiento Moderno.

Será esta la doble angulación alternativa que me interesa señalar en estas notas. Es decir los posibles ajustes o desajustes entre mundo programático y resultados concretos en cada uno de los extremos que señalamos.

Nos apoyaremos en dos obras de J.LL. Sert, que pueden ilustrar entre ambos polos de esta angulación conceptual y serán la arquitectura de un museo y la arquitectura de un pabellón, los extremos a analizar.

Consideremos, de un lado, la voluntad de dominar un lenguaje ya institucionalizado, y por otro el heroico intento de definir a través de uno nuevo, las bases para una nueva institucionalización. El arco temporal abarcado será 1937-1975. Y la obras consideradas: el Museo Fundación J. Miró, y el Pabellón para la Exposición Internacional de París, realizados ambos por Sert, si bien éste último en colaboración con el arquitecto Lacasa.

Por otra parte es importante señalar, en toda referencia a las obras de Sert, una continua relación con el universo figurativo de Le Corbusier, como punto de origen de muchos de los elementos que constituirán base de las permanencias —otros llamarán morfemas— fácilmente identificables en las obras de Sert, además de la multiplicidad de situaciones conceptualmente análogas en ambos grandes arquitectos.

Asimismo haremos referencia, aún cuando no, sea más que marginalmente a la profunda relación entre Sert y Le Corbusier, que van desde el trabajo del primero en

arkitektura programatikoa, Mugimendu Modernoaren enuntziatu programatikoen une gorenean ugari egindakoak.

Hori izango da ohar hauetan adierazi nahi dudan angeluazio bikoitz alternatiboa. Hau da, mundu programatikoaren eta emaitza zehatzen arteko balizko bat-etortzeak edo bat ez etortzeak, aipatu ditugun alderdietako bakoitzean.

J.Ll. Sert jaunaren bi lanetan oinarrituko gara, angeluazio kontzeptual horren bi poloen adierazgarri izan daitezkeenak: museo baten arkitektura eta pabiloi baten arkitektura dira aztertu beharreko muturrak.

Kontuan har dezagun, batetik, jada instituzionalizatuta dagoen hizkuntza menderatzeko borondatea, eta, bestetik, hizkuntza berri baten bidez, instituzionalizazio berri baterako oinarriak definitzeko ahalegin heroikoa. 1937tik 1975era bitarteko aldia izango da. Eta aintzat hartutako lanak: J. Miró Fundazioa Museoa eta Parisko Nazioarteko Erakusketarako Pabiloia, biak Sertek eginak, baina azken hori Lacasa arkitektoarekin elkarlanean.

Bestalde, Serten lanei buruzko aipamen orotan, garrantzitsua da aipatzea Le Corbusierren unibertso figuratiboarekin etengabeko harremana dagoela, Serten lanetan erraz identifika daitezkeen iraunkortasunen —beste batzuek morfemak esango diete— oinarri izango diren elementu askoren sorleku gisa, bi arkitekto handietan kontzeptualki analogoak diren egoera ugariez gain.

Era berean, azaletik bada ere, Sert-en eta Le Corbusier-en arteko harreman sakona aipatuko dugu: Sertek 1929an Rue du Sèvres kaleko estudioan egin

el estudio de Rue du Sèvres, durante el año 1929, la colaboración de ambos en la redacción de planes urbanísticos para Barcelona en los años treinta, hasta la relación maestro-discípulo, en la génesis del Carpenter Center, única obra americana de Le Corbusier.

No voy a tratar estos aspectos que ponen en relación la obra de Sert con la de Le Corbusier, ni profundizar en los evidentes puntos de confluencia entre ambos arquitectos, ahora únicamente me interesa señalar unos pocos aspectos sobre la doble angulación que he señalado anteriormente: arquitectura institucional, canónica, «de museo», frente a arquitectura programática, de renovación del lenguaje, «de pabellón».

En el Museo Fundación Joan Miró me interesa determinar más una cierta «línea de tendencia» que una definición formal, y para clarificarla nada mejor que ponerlo con otro museo, asimismo proyectado por Sert y construido el año 1964, asimismo en una ladera mediterránea en Saint Paul de Vence.

El museo de Barcelona constituye una obra en la que se puede notar la búsqueda de una racionalidad en planta y la repetición de elementos o unidades compositivas, cuyo origen, quizá, pueda buscarse en el Hospital veneciano proyectado y no construido por La Corbusier. Se trata del elemento célula-lucernario y su repetibilidad, el cual se presenta en Montjuich (Barcelona) con una definición bastante más clara que en Saint Paul de Vence o en las varias obras en que, con una mayor o menor precisión, ha sido insistentemente utilizado por Sert —casa Miró en Mallorca, casa Braque en Vence—.

Resulta importante señalar la insistente y evolutivamente depurada utilización formal de este elemento arquitectónico por Sert en todas las obras cuyo uso se define en el «mostrar o producir pintura».

zuen lana, hogeita hamarreko hamarkadan Bartzelonarako hirigintza planak idazteko bien arteko lankidetza, eta maisu-dizipulu harremana Carpenter Center-en sorreran (Le Corbusier-en lan amerikar bakarra).

Ez ditut landuko Serten obra Le Corbusierren obrarekin lotzen duten alderdi horiek, eta ez dut sakonduko bi arkitektoen arteko bat-egite puntu nabarietan. Orain, lehen aipatu dudan angeluazio bikoitzari buruzko alderdi gutxi batzuk aipatzea interesatzen zait: alde batetik, arkitektura instituzionala, kanonikoa, «museokoa» eta, bestetik, arkitektura programatikoa, hizkuntza berritzekoa, «pabiloikoa».

Joan Miró Fundazioa Museoan nolabaiteko «joera ildo» bat zehaztu nahi dut, definizio formal bat egin baino gehiago, eta hori argitzeko beste museo batekin jartzea baino hoberik ez dut. Museo hori ere Sertek proiektatu zuen eta 1964an eraiki zen, Mediterraneoko mendi hegal batean, Saint Paul de Vence herrian.

Bartzelonako museoari dagokionez, oinplanoan arrazionaltasuna bilatzen dela eta konposizioaren elementu edo unitateen errepikapena sumatu daitezke; horien jatorria, beharbada, La Corbusierrek proiektatu zuen baina eraiki gabe geratu zen Veneziako Ospitalean bila daiteke. Elementu hori zelula-luzernarioa da, baita horren errepikagarritasuna ere; Montjuich-en (Bartzelona) askoz ere argiago definituta dago Saint Paul de Vencen baino edo Sertek elementua behin eta berriz erabili duen hainbat obratan —Mallorcako Miró etxean, Venceko Braque etxean—.

Garrantzitsua da azpimarratzea Sertek elementu arkitektoniko horren erabilera formala egiten duela behin eta berriz, eta gero eta garbiago, betiere «pintura erakusteko edo produzitzeko» erabilera duten obra guztietan.



*Fundación Joan Miró, Barcelona. Imagen de Google Earth.*

*Joan Miró Fundazioa, Bartzelona. Google Earth-eko irudia.*

El esquema de la planta del museo de Barcelona es sin duda mucho más propiamente arquitectónico que el meditado «paisajismo» e «integración ambiental» de la fundación Maeght.

Bartzelonako museoaren oinplanoaren eskema, zalantzarik gabe, arkitektonikoagotzat har daiteke, Maeght fundazioaren hausnartutako «paisajismoa» eta «ingurumen integrazioa» baino.

Itxura batean antzekoak diren bi obra horien artean alde nabarmenak daude, Bartzelonako obran arrazionaltasun handiagoa dagoela aintzat hartuta. Beharbada, eraikina, atzeko aldetik, hiriarekin lotzen duen eskailera–ur-jauziaren asmo tipologikoetan gorpuztu litezke desberdintasun horiek. Elementu horri dagokio, funtzionalki zein sinbolikoki, Bartzelonako museoaren eta hiriaren arteko lotura eta sustraitzea gauzatzea.

Saint Paul de Vencetik Bartzelonarako urrats hori, zalantzarik gabe, esanguratsua izan zen; izan ere, berez antzekoak diren premisetan —museistikoak— oinarrituta, hiri esanahiren bat bilatzeko erreskate ahalegin herabe bat adieraz dezake. Museoak Greziar Antzokiaren lorategiekin izan zuen loturarekin, eta keinu horren bidez, hirian artikulatu zen. Esanahi horiek ahaztuta geratu ziren Mugimendu Modernoak «hizkuntza arkitektonikoaren» unibertsoan kementsu sartzeko egin zuen borrokan, betiere modernitatearen balio bakartzat hartuta.

Hori horrela ulertuta, Serten jarrera arkitektoniko kulturalen barruan betiere; jarrera horien helburua —helburu berria eta txikiagoa bada ere— urratutako oreka berrosatzea da, honako hauen artean: Arkitekturaren eta Erakundearen artean, hau da, Eraikin Publiko-Ordezkaritzakoaren eta Hiriaren artean. Baina badago argitu beharreko aurretiazko kontu garrantzitsu bat: posible al da, gaur egun, arkitektura eta erakundea bat etortzea, betiere koadro orokorraren barruan, arkitekturaren aurkako konfabulaziotik hurbilago gizartearen balio bertutetsuenak arkitekturaren bitartez adierazteko beharretik baino?

Entre estas dos obras aparentemente similares, existen profundas diferencias con el componente de una mayor racionalidad en la obra barcelonesa. Quizá, se pudiesen significar estas diferencias en las intenciones tipológicas de la escalera-cascada que vincula el edificio, por su parte trasera, con la ciudad. Sobre ella recaería el papel, tanto funcional como simbólico, de materializar el nexo, la vinculación, el enraizamiento del museo barcelonés con su ciudad.

Este paso, sin duda, significativo de Saint Paul de Vence a Barcelona, ya que desde unos presupuestos propiamente análogos —los museísticos—, puede señalar un tímido intento de rescate en la búsqueda de alguna significación urbana. Con la vinculación del museo con los jardines del Teatro Griego, y a través de este gesto su articulación con la ciudad. Significaciones éstas, que habían quedado olvidadas en el fragor de la batalla librada por parte del Movimiento Moderno, en su afán de irrumpir con fuerza en el universo del «lenguaje arquitectónico» como valor único de la modernidad.

Entendido de este modo, dentro de las propias posiciones arquitectónico culturales de Sert, que tienden, aunque de manera en extremo incipiente y menor, al fin de recomponer el equilibrio roto entre: Arquitectura e Institución, es decir entre Edificio Público-Representativo y Ciudad. Aunque queda una cuestión previa e importante de aclarar ¿es posible hoy, este ajuste entre arquitectura e institución dentro del cuadro general, más próximo a una confabulación contra la Arquitectura, que a la necesidad de expresar los valores más virtuosos de la sociedad, a través de ella?

En el extremo opuesto del arco, en este razonamiento, se encuentra el Pabellón realizado por Sert, en colaboración con Luis Lacasa, por encargo del Gobierno republicano español para la Exposición Internacional de París en el año 1937.

Arrazoibide horren arkuaren beste muturrean dago Sertek, Luis Lacasarekin elkarlanean, Parisko Nazioarteko Erakusketarako 1937an egindako Pabiloia, Espainiako Gobernu errepublikarrak aginduta.




Ez dut uste une honetan Pabiloi horrekin lotutako egoerak errepikatu behar direnik —Espainiako Gerra Zibila, Picassoren Gernika koadroa edo, besteak beste, Alexander Calder, José M.ª Uzelai, Ventura Gassol eta abarren parte-hartzea—. Aitzitik, «pabiloiko arkitektura» aipatzea eta nabarmentzea interesatzen zait, sormen arkitektonikoaren aurkako jarrera kulturalen barruko sailkapen kategoria gisa.

No creo que en este momento sea necesario repetir las varias circunstancias que convergen sobre este Pabellón —guerra civil española, el cuadro Guernica de Picasso, participación de Alexander Calder, José M.ª Uzelai, Ventura Gassol etc.—. Por el contrario me interesa hacer referencia y señalar la «arquitectura de pabellón», como categoría clasificatoria dentro de las actitudes culturales frente a la creación arquitectónica.

Para ello me fijaré en una definición, quizá más restrictiva, que la aplicada por Emil Kaufman en su obra sobre Ledoux y Le Corbusier. Me refiero al *pavillon-sistem* como arquitectura propia de los «pabellones en el jardín» con la que se significa un código lingüístico completo, es decir, un lenguaje arquitectónico novedoso y alternativo. Interesa el Pabellón como momento de la arquitectura donde resulta posible la *boutade* compositiva en la que un conjunto se entiende, o se puede entender, a través de diversas expresiones estilísticas formando conjuntos heterogéneos pero muy expresivos a base de pagodas, *cottages*, grutas, puentes etc., o la lógica de este sistema hacia términos de un propio y verdadero manifiesto con el que experimentar y mostrar un lenguaje arquitectónico nuevo, para su más amplia difusión y propaganda. Al igual que cualquiera otro de los productos que se muestran en la exposición.

Resulta lógico que la arquitectura al querer desprenderse del cauce institucional que la sustentaba hasta entonces, al filo del siglo XX precisa de otros modelos para su difusión. No sirven ya las escuelas como lugar para su enseñanza, ni los museos donde cupiera exponerla, al desaparecer el mundo palaciego desde donde propagarla e imponerla.

Tuvo que ser la pequeña entidad y la gran fuerza emblemática de un pabellón —recordemos el Schinckel Pavillion del parque palaciego de Charlotenbourg en Berlín— el lugar sobre el que cristalizara una nueva

Horretarako, Emil Kaufmanek Ledoux eta Le Corbusierri buruzko bere obran aplikatutakoa baino definizio murriztaileago bati erreparatuko diot. *Pavillon-sistem*az ari naiz, «lorategiko pabiloiei» dagozkien arkitektura gisa, hizkuntza kode oso bat adierazten duena, hau da, hizkuntza arkitektoniko berritzaile eta alternatibo bat. Pabiloia arkitekturaren une gisa interesatzen da, konposizio *boutade*a posible den une gisa, non multzo bat zenbait adierazpen tipologikoren bitartez ulertzen den, edo uler daitekeen, multzo heterogeneo baina oso adierazkorrak osatuta, pagoda, *cottage*, kobazulo, zubi eta abarren bidez; edo sistema horren logika interesatzen da, hizkuntza arkitektoniko berri bat esperimentatu eta erakusteko erabiltzen den berezko eta egiazko manifestu baten terminoetarantz, zabalkunde eta propaganda handiagoa izate aldera. Erakusketan ikusgai dagoen beste edozein produktu bezala.

Logikoa da arkitekturak, ordura arte sostengatzen zuen bide instituzionaletik askatu nahi izatean, XX. mendearen hasieran beste eredu batzuk behar izatea hura hedatzeko. Eskolek jada ez dute balio arkitektura irakasteko, ezta erakusketak egiteko erabiliko liratekeen museoek ere, arkitektura hori zabaltzeko eta inposatzeko jauregien mundua desagertu baita.

Berlingo Charlotenbourg jauregi parkeko Shinckel Pavillion pabiloiaren tamaina txikian eta indar enblematiko handian gauzatu zen arkitektura berria, bere esanahi kultural eta, beraz, arkitektonikoetan agortua zegoen koadro instituzional batetik ihesi. Zentzu berean uler daiteke Le Corbusierrek 1925ean egindako *Esprit Nouveau* pabiloiaren esanahi sakona. Errusiako abangoardiako arkitektoek sortutako mundu figuratiboa ahaztu gabe.

arquitectura en su huída de un cuadro institucional agotado en sus significaciones culturales y por lo tanto arquitectónicas. En idéntico sentido se puede entender la profunda significación del pabellón *Esprit Nouveau* de Le Corbusier en 1925. Sin olvidar el mundo figurativo creado por los arquitectos vanguardistas rusos.

Por otro lado entre los años 30 y 70 asimismo del pasado siglo se decantaron muchísimas posiciones dentro del universo arquitectónico. La lucha por la implantación de un lenguaje no podía continuar indefinidamente. De un modo u otro el Pabellón debía dejar su lugar al Museo. Aunque se pueda constatar que un grito como el del pabellón de Sert y Lacasa en París no ha sido capaz de convertirse en lenguaje colectivo, único modo de expresión que corresponde a la arquitectura.

La puesta en relación del Pabellón de París, con sus elementos de lenguaje claros y como afirmación de la modernidad, en un contexto apropiado y dramático, frente al Museo de la Fundación Joan Miró, de definiciones arquitectónicas mucho más vagas, donde se apuntan sin posterior confirmación, algunas intenciones urbanas en la interrelación de varios elementos arquitectónicos con otros edificios públicos o instalaciones asimismo públicas (Teatro Griego), marcan con precisión situaciones arquitectónicas de enorme ambigüedad, que denotan un cuadro institucional incapaz de sentirse reflejado a través de una arquitectura con significaciones colectivas y de civilidad.

San Sebastián-Alghero, 1978

Publicado en *Hinterland* (Milano), agosto de 1978

Bestalde, joan den mendeko 30eko eta 70eko hamarkaden artean ere, leku asko aukeratu ziren unibertso arkitektonikoaren barruan. Hizkuntza bat ezartzeko borrokak ezin zuen mugarik gabe jarraitu. Era batera edo bestera, Pabiloiak lekua utzi behar zion Museoari. Nahiz eta egiazta daitekeen Sertek eta Lacasak Parisen egindako pabiloia bezalako oihu bat ez dela gai izan hizkuntza kolektibo bihurtzeko, arkitekturari dagokion adierazpide bakarra den aldetik.

Alde batetik, Parisko Pabiloia, hizkuntza elementu argiak zituena eta modernitatearen baieztapentzat hartuta, testuinguru egoki eta dramatiko batean, eta, bestetik, Joan Miró Fundazioaren Museoa, definizio arkitektoniko askoz lausoagoak dituena, eta gerora berretsi ez diren hiri asmo batzuk agertzen dituena zenbait elementu arkitektonikoren eta eraikin publiko edo instalazio publikoen (Greziar Antzokia) arteko erlazioan; bi horietan zehaztasun handiz markatzen dira anbiguotasun handiko egoera arkitektonikoak, eta egoera horiek taldeko eta gizalegezko esanahiak dituen arkitekturaren bidez islatuta sentitzeko gai ez den erakunde koadroa dagoela adierazten dute.

Donostia-Alghero, 1978

Argitalpena: *Hinterland* (Milano), 1978ko abuztua

# El frontón o juego de la pelota como pieza de arquitectura

Quizá se pueda definir con cierta precisión al frontón, como aquel lugar, por antonomasia, sobre el que se han desarrollado a través del tiempo, las actividades de ocio en las agrupaciones urbanas del País Vasco. Me interesa señalar en este punto el carácter eminentemente colectivo que confiere la arquitectura del frontón a estas actividades de ocio, es decir no directamente productivas. Ello no solo por las propias características de lugar para juegos que directamente representa, sino y sobre todo por su carácter intrínseco de Edificio Público en las agrupaciones urbanas más características de la geografía vasca. La necesaria vinculación entre los términos colectivo y edificio público hacen, sin duda, del frontón uno de los pocos elementos de la arquitectura sobre los que pueden hacerse recaer simultáneamente significaciones propias del tiempo libre, de los juegos y los principios básicos en torno a los cuales gravitan las cuestiones específicas de la disciplina arquitectónica.

A pesar de la simplicidad aparente de sus componentes básicos, es decir una o dos paredes, no puede po-

# Frontoia edo pilotalekua arkitektura piezatzat

Frontoia honela defini daiteke, agian, nolabaiteko zehaztasunez: urteak joan, urteak etorri, Euskal Herriko hiri elkarteetako aisialdiko jarduerak garatu izan diren toki garrantzitsuena. Puntu horri dagokionez, nabarmendu nahi dut frontoiaren arkitekturak izaera nagusiki kolektiboa ematen diela aisialdiko jarduera horiei, hau da, zuzenean produktiboak ez diren jarduerei. Eta ez bakarrik zuzenean osatzen duen joko eremuaren berezko ezaugarriengatik, baizik eta, batez ere, euskal geografiako hiri elkarte bereizgarrienetan eraikin publikoaren egitekoa betetzen zuelako. Kolektibo hitzaren eta eraikin publiko hitzaren arteko lotura beharrezkoa izaki, zalantzarik gabe, aisialdiaren eta jolasen berezko esanahiak eta arkitektura diziplinaren berariazko gaien oinarrizko printzipioak aldi berean bil ditzakeen arkitekturaren elementu bakanetako bat da frontoia.

Oinarrizko osagaiak —hau da, horma bat edo bi— itxuraz oso sinpleak diren arren, ezin da zalantzan

nerse en duda su característica esencialmente arquitectónica del frontón o juego de la pelota. Si bien, resulta cierto, que en ningún caso ha tenido un lugar en las catalogaciones reservadas a la gran arquitectura. También lo es que no hay más que seguir las pautas conceptuales contenidas en los principales capítulos de la tratadística clásica para poder introducir y definir el lugar que corresponde al juego de la pelota en el universo de la arquitectura, tras haber franqueado el umbral de su consideración como mera construcción.

La definición arquitectónica del juego de la pelota pasa inexorablemente y halla su fundamento tectónico en el concepto de muro o pared en sus diversas acepciones.

En los primeros y principales tratados de arquitectura clásicos, dos son las modalidades murarias fundamentales, sobre las que ahora interesa referencia explícita. Así se puede considerar el muro de cierre y delimitación de la ciudad, elevado sobre el suelo plano, es decir el muro con dos fachadas. Y por otro lado, el muro de una sola fachada o muro de terraplén, el cual define las plataformas que estructuran tectónicamente el desnivel.

Si bien existen diversas especificaciones sobre la construcción de una y la otra modalidad, así en Vitruvio L.1 cap.V, o en Palladio L.1 cap. IX y XI, y en Bails-Elementos de Matemática Tomo IX, Parte I párrafos 533 y siguientes o en Patte etc. Todas ellas desarrollan, ampliamente, los términos puramente constructivos en sus materiales, en su esbeltez y estabilidad sin llegar a entrar, lógicamente, en definiciones y otras precisiones sobre la utilización o no, de los muros o paredes, como elemento primario y fundamental en el juego de la pelota.

jarri frontoiaren edo pilotalekuaren ezaugarri funtsean arkitektonikoa. Hala ere, egia da frontoiak ez duela inoiz tokirik izan arkitektura handirako erabilitako katalogazioetan. Egia da, halaber, tratadistika klasikoaren kapitulu nagusietan jasotako jarraibide kontzeptualei jarraitu besterik ez dagoela pilotalekuari arkitekturaren unibertsoan dagokion lekua definitzeko eta unibertso horretan sartu ahal izateko, betiere eraikuntza soiltzat hartzeko atalasea gainditu ondoren.

Pilotalekuaren definizio arkitektonikoa horma edo paretaren kontzeptuaren adierekin lotzen da ezinbestean, kontzeptu horretan du oinarri tektonikoa.

Arkitektura klasikoko lehen tratatuetan eta nagusietan, bi dira orain esanbidez aipatu nahi ditugun horma mota nagusiak. Alde batetik, hiria ixten eta mugatzen duen horma, lurzoru lauaren gainean goratua, hau da, bi fatxada dituen horma. Eta, bestetik, fatxada bakarreko horma edo lubeta horma, desnibela tektonikoki egituratzen duten plataformak definitzen dituena.

Mota bat eta bestea eraikitzeari buruzko hainbat zehaztapen badaude ere (Vitrubio, 1.L, V. Kap. edo Palladio 1. L, IX. eta XI. kapituluak, eta Bails —Matematikako elementuak, IX. liburukia, I. zatia, 533. lerrokada eta hurrengoak—, edo Patte, etab., horietan guztietan luze eta zabal garatzen dira eraikuntza hutsari dagozkion terminoak, alegia, materialak, lerdentasuna eta egonkortasuna, eta ez dira sartzen, logikoa denez, hormak edo paretak pilotalekuan lehen mailako eta funtsezko elementu gisa erabiltzeari edo ez erabiltzeari buruzko definizioetan eta bestelako zehaztapenetan.





Serán los núcleos urbanos menores de Lapurdi, en el País Vasco-francés los que nos permitan la comprobación de cuanto venimos diciendo, en su referencia al muro de terraplén y su transformación en «paradigma de lo público», específico equipamiento para el tiempo libre y el ocio colectivo. Destacarán en este punto los frontones de Sara, Bidart y Ainhoa.

En el otro de los tipos de muro señalados, es decir los propiamente de límite y defensa del recinto urbano, característicos de la muralla en villas como Laguardia será el frontón el exponente más significativo de una transformación arquitectónica, en mi opinión, cargada de interés y plena de unos significados especialmente valiosos.

Tras de este preámbulo al tema más general que propongo, interesará aunque sea brevemente, el adentrarse, volviendo a la tratadística clásica, en el mundo de las significaciones propiamente arquitectónicas

Ipar Euskal Herrian, Lapurdiko hirigune txikiek emango digute aukera esaten ari garen guztia egiaztatzeko, lubeta hormari dagokionez eta «publikoaren paradigma» bihurtzeari dagokionez, denbora librerako eta aisialdi kolektiborako ekipamendu espezifikoa izanik. Puntu horretan, Sara, Bidarte eta Ainhoako frontoiak nabarmentzen dira.

Aipatutako beste horma motan, hau da, hiri esparruaren mugako eta defentsako hormetan —harresietan egoten dira—, Guardia herrian, esaterako, frontoia da eraldaketa arkitektonikoaren adierazgarririk esanguratsuena eta, nire ustez, biziki interesgarria eta esanahi bereziki baliotsuz betea dago.

Proposatzen dudan gai orokorragoaren hitzaurre honen ondoren, interesgarria izango da, labur-labur bada ere, eraikin publikoen esanahi arkitektonikoen munduan murgiltzea, tratadistika klasikora itzuliz. Frontoiari edo

de los edificios públicos. Para seguir la base de argumentación sobre el frontón o juego de pelota resulta de interés volver sobre los textos de L.B. Alberti en su amplia referencia a «espectáculos theatros, lugares do se corre y quanta sea la utilidad suya». En este capítulo VII y en el siguiente de su libro octavo, León Bautista Alberti delinea con exquisita sensibilidad las características específicas de los edificios públicos como los Teatros, Cercos, Anfiteatros, Paseaderos, Estancias etc. Interesa señalar las anotaciones que jalonan la argumentación de Alberti. Así cuando define «Nuestros antepasados no construyeron más los espectáculos en las ciudades por causa de alegría o regocijo que por la utilidad» y cuando reconoce que «es muy antigua la memoria de los juegos» se sientan las bases explícitas para definir la necesaria vinculación arquitectura-juego en la definición acertada de uno de los lugares valiosos de la ciudad.

Es importante en este punto la definición tipológica y la consiguiente clasificación de los espacios para los juegos, buscando el punto de partida en la especialización que representa el sacar los juegos del teatro, una vez que han quedado clasificados los espectáculos perteneciendo los unos «para el ocio y los otros para el negocio». Al margen de la precisa ironía que esta frase puede encerrar desde su análisis actual, tras la variación o envilecimiento de los términos —ocio, negocio— entiendo no puede obviarse la profundidad del texto albertiano cuando trata de definir los tipos edificatorios públicos.

Sentadas estas premisas en base a la autoridad de Alberti podemos adelantar una primera definición en sus propias palabras «Varias obras se les deben a ellos y por tanto se nombran con diversos nombres, porque

pilotalekuari buruzko argudio oinarriarekin jarraitzeko, interesgarria da L. B. Albertiren testuak aztertzea: «espectáculos theatros, lugares do se corre y quanta sea la utilidad suya» (ikuskizunak, antzerkiak, korri egiten den lekuak eta askotariko erabilerak dituztenak). Zortzigarren liburuko VII. kapituluan eta hurrengoan, Leon Bautista Albertik sentsibilitate bikainez delineatu zituen eraikin publikoen ezaugarri bereziak, hala nola antzokiak, esparruak, anfiteatroak, pasealekuak, gelak, etab. Albertiren argudioaren oinarri diren oharrak aipatzea komeni da. Honako hau dio: «Nuestros antepasados no construyeron más los espectáculos en las ciudades por causa de alegría o regocijo que por la utilidad (Gure arbasoek ez zituzten hirietan ikuskizunetarako eremuak eraiki alaitasunagatik edo poztasunagatik, baizik eta erabilgarritasunagatik)»; eta onartu zuen «es muy antigua la memoria de los juegos (jokoen memoria oso zaharra dela)»; beraz, hiriko leku baliotsuetako baten definizio egokian arkitekturaren eta jolasaren arteko beharrezko lotura zehazteko oinarri esplizituak ezarri zituen.

Puntu horretan, garrantzitsua da jokoetarako espazioen definizio tipologikoa eta sailkapena egitea, espezializazioa izanik abiapuntu, hau da, jokoak antzerkitik bereizteak adierazten duen espezializazioa, betiere ikuskizunak sailkatuta ostean: batzuk «para el ocio y los otros para el negocio (aisialdirako eta beste batzuk negozioetarako)». Esaldi horrek gaur egungo ikuspegitik izan dezakeen ironia zehatza alde batera utzita, terminoak —aisialdia, negozioa— aldatu edo gaiztotu ondoren, nire ustez, ezin da ahaztu Albertiren testuaren sakontasuna eraikin mota publikoak definitzen dituenean.

Premisa horiek Albertiren aginpidean oinarrituta finkatu ondoren, lehen definizio bat aurreratu dezakegu bere hitzak erabilita: «Varias obras se les deben a ellos y por tanto se nombran con diversos nombres, porque

como unos sean en que andan poetas, cómicos, trágicos y los tales, a estos por dignidad los llamaremos Theatros. Pero los otros en que la virtuosa juventud se ejercita en carros de dos o cuatro caballos, este tal se llamará cerco, más finalmente los otros donde se hacen las cazas encerrando fieras, se dirá Anfiteatro» Tras esta primera clasificación que cuenta incluso con un refrendo gráfico existe un campo menos importante y sin duda mucho más lúdico cuando él mismo define «los Paseaderos» como «aquellas obras públicas donde la juventud se ejercita con la pelota».

como unos sean en que andan poetas, cómicos, trágicos y los tales, a estos por dignidad los llamaremos Theatros (Zenbait lan haiei zor zaizkie, eta, beraz, izen ezberdinez izendatzen dira; izan ere, batzuk poeta, komiko, tragiko eta halakoak ibiltzen direnez, hauei, duintasunez, Antzokiak deituko diegu). Pero los otros en que la virtuosa juventud se ejercita en carros de dos o cuatro caballos, este tal se llamará cerco, más finalmente los otros donde se hacen las cazas encerrando fieras, se dirá Anfiteatro (Baina gaztetasun bertutetsua bi edo lau zaldiko gurdietan trebatzen den beste horiei, esparru deituko zaie, eta, azkenik, ehiza piztiak giltzapetuz egiten diren beste horiei, Anfiteatro esango diegu). Lehen sailkapen horren ondoren —grafikoki ere berretsita dago—, bada beste eremu ez hain garrantzitsua bat, zalantzarik gabe, askoz ere ludikoagoa, Albertik berak «Paseaderos (pasealekuak)» honela definitu zituenean: «aquellas obras públicas donde la juventud se ejercita con la pelota (gazteak pilotarekin ariketak egiten aritzen diren obra publikoak)».

De este modo queda definido y halla su precisión tipológica el juego de la pelota en la gran clasificación de los edificios públicos. Sobre ellos recae la profunda significación arquitectónica contemplada en el cambio tipológico y sus definiciones concretadas en cada estrato de la historia además de quedar patente lo específico del edificio público como elemento fundamental en el conocimiento y comprensión de los hechos urbanos.

Horrela definitzen eta zehazten da pilotalekua eraikin publikoen sailkapen nagusian. Horien gain dago aldaketa tipologikoan biltzen den esanahi arkitektoniko sakona, baita historiako geruza bakoitzean zehaztutako definizioak ere, eta agerian geratzen da eraikin publikoaren espezifikotasuna, hirigintzako egitateak ezagutzeko eta ulertzeko funtsezko elementu den aldetik.

Este es el campo o línea de cultura dentro de la cual me interesa entender y desarrollar la problemática del frontón; es decir como el lugar arquitectónico por excelencia de la definición urbana en sus diversas gradaciones; asimismo entendiendo el frontón como un lugar de arquitecturas diversas sobre las que se han desarrollado a lo largo de la historia y con la máxima

Hori da frontoiaren problematika ulertu eta garatzea interesatzen zaidan kultura eremua edo lerroa, hau da, hiri definizioaren leku arkitektoniko nagusia, hainbat mailatan; era berean, frontoia euskaldunen aisialdiko jarduerak —eta, batzuetan, baita negozioak ere— historian zehar garatu diren askotariko arkitekturen lekutzat ulertuta, eta aisialdiko jarduera horien esanahien

versatilidad y riqueza de significados las actividades de ocio —y a veces hasta las de negocio— de los vascos; y también, un tercer aspecto, en el que por su propia definición como arquitectura, se halla sometido, el frontón, a las leyes de configuración y cambio de los hechos arquitectónicos, con lo cual toma plena vigencia el tema prioritario de toda arquitectura, cual es su capacidad para actuar como catalizador preciso de las transformaciones urbanas.

Sobre el juego que se desarrolla sobre los frontones interesa definir una serie de aspectos acerca de su evolución histórica, para lo que puede servir adecuadamente su definición en la Enciclopedia universal Espasa:

> «Herodoto atribuye la invención de este juego a los lidios, y en el canto VI de la Odisea se hace mención a él, en el episodio de Hanca Nausica. Los griegos y los romanos sentían especial predilección por este deporte, que presta gracia y elasticidad a la persona, y le honraban llegando a levantar estatuas a los jugadores de mérito. Galeno recomendó su ejercicio como excelente; Plinio habla de él como habitual lo mismo entre las gentes del campo como entre los personajes, y se citan los nombres de Catón, Virgilio, Horacio, Mecenas y otros como de notables jugadores de pelota. Ello induce a creer que los soldados romanos fueron fervientes propagadores del juego, que en Francia, en el siglo XV se había extendidote tal suerte, que hasta las mujeres tomaban parte en los partidos, siendo digno de recordarse el nombre de una joven llamada Margot que, según Pasquier, hacia 1424 competía con los más hábiles jugadores. Jugábase entonces a mano limpia y más adelante usose un guante de cuero endurecido. Pueden citarse como grandes aficionados Francisco I y Enri-

aldakortasun eta aberastasun handienarekin; eta hirugarren alderdi bat ere bai, non, arkitekturatzat definitzen denez, frontoia arkitektura egitateen konfigurazioko eta aldaketako legeen mende dagoen, eta, beraz, arkitektura ororen lehentasunezko gaiak erabateko indarra hartzen duen, hau da, hiri eraldaketen katalizatzaile zehatz gisa jarduteko gaitasunak.

Frontoietan garatzen den jokoari dagokionez, haren bilakaera historikoari buruzko zenbait alderdi definitzea komeni da, eta, horretarako, Lur hiztegi entziklopedikoan agertzen den definizioa egokia izan daiteke:

> «Kanpoan sortua izan arren, egungo pilota jokoa Euskal Herrian garatu zen, bertan arautu da eta bertatik zabaldu da mundura. Antza denez, XVII-XVIII. mendeetan Europan zehar aski hedaturik zeuden pilota jokoen finkatzea da euskal pilota. Nolanahi den, garaiko lekukotasunen arabera XVIII. menderako pilota guztiz errotua zen Euskal Herrian: herri bakoitzak bere pilotalekua bide zuen, hartarako Elizako edo Udaletxeko horma bat erabiltzen zelarik. Gaur ezagunenak diren pilota jokoak XIX. mendearen erdialdean finkatzen eta arautzen hasi ziren. Euskal Herritik Frantziara eta Espainiara zabaldu zen aurrenik, eta Ameriketara, Filipinetara, Italiara eta Txinara gero. Hedapen horren arrazoia XX. mendeko lehen urteetan pilotariak lanbidez profesional bihurtzea da: pilota enpresek pilotariak kontratatzen dituzte, eta ikusleen arteko trabesak dira diru iturri nagusia. Bestalde, XX. mendeko komunikabideek, egunkariak, irratia eta telebista, profesionalizatu joko mota horiek, eskua, pala, zesta-punta, erremontea, zabaltzen laguntzen dute. Mundu profesional horren ondoan,

que IV de Francia y Felipe el Hermoso en España, que falleció a consecuencia de una fiebre que contrajo al beber agua fría acalorado tras un partido de pelota. En el siglo XVII perdió algo de su boga este deporte, manteniendose como diversión de las clases elevadas, pues a los villanos se les prohibió este ejercicio, según puede verse en las Ordenanzas del Louvre y en los mandatos del Parlamento. Pero estas prohibiciones duraron poco, y desde el siglo XVIII pudo practicarse libremente.»

baita beraren oinarrian ere, kirol hau egiten duten zaletu asko dago. Maila askotako txapelketetan esku har dezake zaletuak; haietan gorena lau urtez behin egin ohi diren Munduko Txapelketak dira. Pilota jokoak sailkatzerakoan hiru berezitasun hartzen dira kontuan: pilota jotzeko tresna —eskua, pala, eskularrua, erremontea, xistera (zesta), sarea, erraketa—; jokalekua —plaza luzeak, pareta bakarreko frontoia, bi paretako frontoia (motza eta luzea), trinketea—, eta elkarren aurka jokatzen dutenen kopurua —banakoa, bikotea, taldea—».

Tras de toda esta serie de precisiones podemos avanzar en el tema en sus términos más apropiados, es decir en cuanto objeto de arquitectura y como tal, en su valor como elemento de la ciudad. Será sin duda el siglo XVIII, el siglo ilustrado, el momento en el que las villas medievales amuralladas o bien optan por «abaluartarse» para adecuar su defensa, o bien pierden valor e importancia sus murallas y cercas, en esta perentoria necesidad. Se producen las series de transformaciones urbanas en las cuales el frontón rompe las barreras de su enquistamiento aristocrático e irrumpe como tema de gran importancia, por su sencillez elemental y por su generalidad, en la nueva configuración de los conjuntos urbanos.

Zehaztapen horien guztien ondoren, gaian aurrera egin dezakegu termino egokienetan, hau da, arkitektura objektu gisa eta, hala, hiriko elementu gisa duen balioan. Zalantzarik gabe, XVIII. mendean, Ilustrazioaren mendean, Erdi Aroko hiribildu harresituek beren defentsa egokitzeko «gotorleku bihurtzea» aukeratu zuten, edo, bestela, harresi eta hesiek balioa eta garrantzia galdu zuten, ezinbesteko premia horretan. Hiri eraldaketak gertatu ziren. Horietan, frontoiak bere enkistamendu aristokratikoaren oztopoak gainditu eta garrantzi handiko gai gisa sartzen da multzo hiritarren konfigurazio berrian, elementuen soiltasunagatik eta orokortasunagatik.

No resulta ocioso, en este momento, reseñar la declaración de los Estamentos franceses —tercero y parte del primero— cuando «se reúnen —ilegalmente— en una sala vecina que es una especie de hangar destinado a practicar el deporte que entonces estaba de moda: el juego de la pelota. Los diputados comprometen solemnemente a no separarse hasta haber dado una constitución al país». Definirá Michel Péronnet en «Del Siglo de la Luces a la Santa Alianza» a aque-

Ez da alferrikakoa, une honetan, Frantziako Estamentuen adierazpena aipatzea —Hirugarrena eta lehenengoaren zati bat—; izan ere, «alboko areto batean biltzen dira —legez kanpo—, garai hartan modan zegoen kirola praktikatzera bideratutako hangar moduko batean: pilotalekuan. Herrialdeari konstituzio bat eman arte ez banatzeko konpromisoa hartu dute, handikiro». Michel Péronnet-ek «Argien mendetik Aliantza Santura» lanean azaldu zuen Frantziako Iraultza

lla asamblea nacional constituyente desarrollada en el Trinquete de París, por la que se encendió la Revolución Francesa.

Queda como símbolo preciso, aplicado a la arquitectura, en el que el viejo «*jeu de paume*» aristocrático tal y como lo representan los pintores Couder y David, sale a la plaza, se convierte en Plaza, se transforma en arquitectura sobre la que ha podido desarrollarse la actividad eminentemente civil y progresiva del juego. Este paso del «paseadero, al *jeu de paume*, y al frontón después» representa una ruptura significativa desde una arquitectura que fue pública, según nos relata Alberti, quedó encerrada en el estrecho círculo de los «*connaisseurs*» y volvió a recuperar su cualidad de lugar público, abierto y civilmente significativo, como parte sustancial en la configuración de los núcleos urbanos las villas y las ciudades del País Vasco.

Laguardia, representa en este sentido, la figuración más clara en la transformación de una villa de traza medieval, mediante la adición del juego de pelota, tal y como señala el plano de Coello. Apoyándome en el estudio realizado, hace algunos años, en colaboración con José I. Linazasoro sobre el análisis urbano de Laguardia señalamos:

> «Una segunda transformación de la muralla, consiste en la construcción del juego de pelota-frontón. Es un tipo de transformación muy corriente en el País Vasco, mediante el cual, aprovechando un paño de Muralla como pared izquierda y prolongando para frontis el muro lateral de uno de los castillos-torre, diría Vitruvio en su libro I, se construye el lugar propiamente del juego. El conjunto se completa con una delimitación del recinto en su totalidad, que se constituye en graderío y que aporta una significación de gran interés arquitectónico al

piztu zuen batzar nazional konstituziogile hura, Parisko Trinketean egin zena.

Arkitekturari aplikatutako ikur zehatz gisa geratzen da, non «*jeu de paume*» aristokratiko zaharra —Couder eta David margolariek irudikatzen duten moduan— plazara irteten den, Plaza bihurtzen den, arkitektura bihurtzen da eta, bertan, jokoaren jarduera nagusiki zibil eta progresiboa garatu ahal izan da. «Pasealeku izatetik *jeu de paume* izatera eta, gero, frontoi izatera» igarotzeak haustura esanguratsua dakar publikoa izan zen arkitektura batetik; «*connaissers*»-en zirkulu estuan itxita geratu zen, eta leku publiko, ireki eta zibilki esanguratsu izaera berreskuratu zuen berriro, Euskal Herriko hiribilduen eta hirien hiriguneen konfigurazioaren funtsezko zati gisa.

Guardia da, zentzu horretan, Erdi Aroko trazadun hiribildua eraldatzeko figuraziorik argiena, pilotalekua gehituz, Coelloren planoak adierazten duen bezala. Duela urte batzuk Guardiako hirigintza azterketari buruz José I. Linazasororekin elkarlanean egindako azterlanean oinarrituta, honako hau adierazi nahi dugu:

> «Harresiaren bigarren eraldaketa pilotalekua-frontoia eraikitzean datza. Euskal Herrian oso ohikoa da eraldaketa mota hori; horren bidez, harresiaren horma atal bat ezkerreko hormatzat baliatu eta dorre-gaztelu baten alboko horma luzatzen zen frontiserako. Vitrubiok bere I. liburuan esango zuenez, jokorako lekua bera eraikitzen da. Multzoa osatzeko, esparru osoa mugatu zen harmailen bitartez, eta harresitutako multzoari interes arkitektoniko handia eman zion. Zainduegia ez dagoen kontserbazio egoeraz gain, nolabaiteko



conjunto amurallado. Aparte de su estado de conservación, no excesivamente cuidado, donde puede aparecer una cierta contradicción arquitectónica es en el escamoteo torpe a que se han sometido los canecillos o modillones de articulación entre los paños verticales en la pared con el fin de alisarla*.»

De este modo, pienso, queda en su lugar la arquitectura del frontón, pegante a un casco medieval y aprovechando sus mismos materiales —el muro—, al tiempo que aporta un nuevo sentido al conjunto de la villa.

* En una vista de 2012 puede apreciarse una renovación del Frontón de Laguardia a fin de remediar las deficiencias señaladas en el escrito de 1975 y glosadas en el párrafo anterior.

kontraesan arkitektonikoa ager daiteke horman horma-atal bertikalen arteko artikulazioko hagaburutxoak edo modiloiak jartzen direnean, horma leuntzeko*.»

Horrela, nire ustez, frontoiaren arkitektura bere lekuan geratzen da, Erdi Aroko hirigune bati itsatsita eta bere material berberak —horma— aprobetxatuz; eta, aldi berean, beste zentzu bat ematen dio hiribildu osoari.

* 2012ko ikuspegi batean ikus daiteke Guardiako frontoia berritu egin dela, 1975eko idazkian adierazitako eta aurreko paragrafoan azaldutako akatsak konpontzeko.

Ampliando la casuística ahora podremos analizar el valor urbano del frontón, aún más ejemplar en el caso de los núcleos urbanos menores a los que algunos no de manera en exceso apropiada denominan núcleos rurales. Entendiendo la formulación urbana más significativa en el País Vasco la fundación de Villas en período medieval, así como su posterior reestructuración administrativa y urbana en los siglos XV y XVI, mediante la adscripción de las aldeas dependientes de la misma. En éstas constituirá el frontón un elemento fundamental en la conformación urbana. Será el frontón junto a la iglesia parroquial y el cementerio a su alrededor, el conjunto arquitectónico que representen el lugar por excelencia de los edificios públicos que dan significado al núcleo central, en estrecha relación territorial y formal con las unidades agrarias (caseríos, *oikos*) conformando una estructura racional y precisa del valle y sus laderas montañosas.

Será el caso de Ainhoa donde queda definido el frontón como «muro de terraplén» que sostiene la plataforma sobre la que emerge el templo parroquial junto al cementerio. Idénticas consideraciones, aunque en un modo lateral, en vez del anterior frontal, encontramos en el caso de Behovia. El abanico de soluciones tipológicamente análogas, si bien con variaciones en su expresión final, se halla muy extendido en toda la geografía del País Vasco. Así podemos recordar pueblos en Alava, anteiglesias en Bizkaia y otros conjuntos urbanos de pequeña entidad urbana en Gipuzkoa y Navarra. Esta organización característica de los conjuntos urbanos menores en torno a uno o varios edificios públicos, generalmente iglesia, cementerio y frontón, constituye, con sus muchas variantes, una de las bases de mayor certeza a la hora de definir la estructuración precisa de los montes y valles que configuran este País.

Kasuistika zabalduz, orain frontoiaren hiri balioa aztertu ahal izango dugu, are eredugarriagoa baita hirigune txikien kasuan; hirigune txiki horiei landagune esaten diete zenbaitek, baina ez da izen oso egokia. Euskadiko hiri formulazio esanguratsuena Erdi Aroan hiribilduak sortzea izan zen, bai eta, gerora, XV. eta XVI. mendeetan izandako administrazio eta hiri berregituraketa ere, hiribilduaren mendeko herrixkak atxikita. Kasu horietan, frontoia funtsezko elementua izango da hiri eraketan. Parrokia elizarekin eta haren inguruko hilerriarekin batera, frontoiak eratzen duen multzo arkitektonikoa erdiguneari esanahia ematen dioten eraikin publikoen kokagune nagusia izango da, lurraldeari eta formari dagokienez lotura estua izanik nekazaritza unitateekin (baserriak, oikoak), haranaren eta mendi hegalen egitura arrazional eta zehatza osatuz.

Ainhoaren kasuan, frontoia «lubeta horma» izango da, hau da, hilerriaren ondoko parrokia tenplua kokatuta dagoen plataformari eusten diona. Beste horrenbeste gertatzen da Behobiaren kasuan, baina aurrekoa izan beharrean, albo batean. Tipologikoki antzekoak diren soluzioak oso zabalduta daude Euskal Herriko geografia osoan, nahiz eta azken adierazpenak desberdinak izan. Horrela, bada, Arabako hainbat herri gogora ditzakegu, Bizkaiko elizateak eta Gipuzkoako eta Nafarroako beste multzo hiritar txiki batzuk. Multzo hiritar txikiak eraikin publiko baten edo batzuen inguruan antolatzen ziren: oro har, eliza, hilerria eta frontoia; antolaketa bereizgarri hori, izan ditzakeen aldaera ugariekin, oinarri ziurrenetako bat izaten zen herri hau osatzen duten mendi eta haranen egituraketa zehatza definitzeko garaian.





Aipatutako hiru elementuak, edo horietakoren bat, egoteak eratzen du multzo txikienen «hirigintza oinarria». Une oro ikus daiteke frontoiaren horma ezaugarri berezia, horretarako sortua, edo euste horma eta lubeta gisa aplikatuta.

Frontoiaren hiri esanahia ulertzeko bi modu horiek aipatu dira, hau da, Erdi Aroko harresiaren edo hesiaren eraldaketa gisa, edo hirigintzaren oinarri edo hirigune gisa, baserri sakabanatuak dauden inguruneetan. Aurretik zegoen hiri egituran frontoia txertatzeko hirugarren modu bat alternatiba barrokoa da. Horren bidez, benetako hiri zentralitate berri bat eratzen da udaletxe eta frontoi berriak eraikita, hiribilduaren hedadura gisa, eta, horren ondorioz, jolaserako eta paseatzeko hiriguneak areagotu egiten dira. Horrelako kasuak dira Elgoibar, Otxandiano, Oñati eta beste hainbat herri. Elgoibarren Barrokoaren garaian gertatzen dena hartuko dugu eredugarri eta eredutzat. Irudian agertzen den planoa irakurriz, hiribilduaren eraketaren gertaera garrantzitsuenak agertzen dira, eta horretan oinarritu dezakegu parrokia elizaren, plazaren, udaletxearen eta Erdi Aroko hiribildua Santa Klarako errebaleraino josten eta zabaltzen duen zubi berriaren trazatua —antza, Lucas Longa arkitektoari zor zaio trazatu hori— nabarmentzen duen argudioa.

Elgoibarko plano horretan biltzen diren arkitektura kontzeptu sorta guztietan sakondu gabe, hala nola hiribildu osoaren eta gaur egun hilerria dagoen Olasoko San Bartolome komentuaren arteko erlazioan sakondu gabe, komeni da orain frontoiaren esanahiari erreparatzea, udalarekin unitate formal bat osatzen duen arkitekturatzat. Parrokia tenpluaren aurreko zabalgunearen hedadura osatzen dute biek, eta plaza hori ixten dute frontoiaren bigarren paretarekin edo

La existencia de los tres elementos citados, o únicamente alguno de ellos, son los que formulan la «base de urbanidad» de los conjuntos menores. En todo momento se puede apreciar la peculiar característica muraria del frontón como emergencia en sí misma, o mediante su aplicación como muro de contención y terraplén.

Tras de estas dos manera de entender la significación urbana del frontón, como transformación de la muralla o cerca medieval o bien como núcleo o base de urbanidad en conjuntos de caserío disperso. Una tercera manera en el florecimiento del frontón en la estructura urbana preexistente la podemos considerar aquella alternativa barroca, mediante la cual se forma una auténtica nueva centralidad urbana por medio de la construcción de una nueva casa consistorial y frontón, como extensión de la villa y consiguiente ampliación de los lugares urbanos para el juego y el paseo. Serán los casos de Elgoibar, Otxandiano, Oñati y algunos otros más. Tomaremos como la más modélica y ejemplar de éstas la que se produce en Elgoibar en pleno período barroco. Leyendo la vista que aparece en la figura, aparecen los principales episodios significativos en la configuración de la villa y es donde podemos apoyar la argumentación que enfatiza el trazado —según parece debido al arquitecto Lucas Longa— de la iglesia parroquial, plaza, casa consistorial y el nuevo puente que sutura y amplía la villa medieval hasta el arrabal de Santa Clara.

Sin profundizar en todas las series de conceptos de arquitectura que encierra este plano de Elgoibar como puede ser la relación del conjunto de la villa con el convento de San Bartolomé de Olaso, actual cementerio, conviene centrarse ahora en la significación del frontón como arquitectura que completa en una unidad formal con el Ayuntamiento. Ambas completan la extensión de la explanada frente al Templo parroquial y cierran esta plaza con la segunda pared o fron-

frontisarekin. Multzoa osatu eta hiribildutik kanpoko inguruneetara irekitzen da zubiaren bitartez. Erdi Aroko hiribilduaren ordezko eraldaketa barrokoa gertatu zen horrela. Laburbilduz, udaletxearen fatxada harlanduzko horma lau baten bidez ibaiaren mugaraino luzatuta eratu zen frontoia, eta hortik horma perpendikularra edo frontisa sortzen da. Horrela zehaztu zen plaza ludiko-ordezkaritzako berria. Hiri osoko ekipamendu zibil eta erlijiosoaren benetako sintesia. Aldi berean, hirigunearen eta Santa Klarako komentu errebalaren arteko jarraitutasun harremanei balioa eman zitzaien: eraldaketa kualitatiboko hirigintza operazio bat egin zen, hiri osoa hartu zuena, eta gaur egun ere, berrehun urte geroago, Elgoibarko «balio nagusia» izango da. Aztertzen ari garen hiri alternatiba hori, baita beste batzuetan aipatu ditugun Gasteizko Arkupeak eta Plaza Berria ere, oso esanguratsu eta baliotsutzat har daitezke Euskal Herriko hirigintzaren historian.

Segurako kasua ere antzekoa da, nahiz eta neurri handi batean parte hartzen duen hurrengo paragrafoetan jasotako kasuistikan.

Indar enblematiko txikiagoa baina arkitekturaren eta hiri eraldaketen printzipioen aplikazio pragmatikoagoa dute XIX. mendearen hasieran izandako gertaera guztiek, hau da, hiriguneetako harresiz kanpoko «kanpoaldean» frontoiak edo pilotalekuak ezartzea, zabalguneak eta paseorako beste leku batzuk okupatuz Ilustrazioaren aldian. Funtsean, «ezproien» gainean edo, Albertiren terminologiaren arabera, pasealekuetan edo definizio arkitektoniko espezifikoa duten beste leku publiko batzuetan kokatutakoak izango dira, eta frontoiak osatu egiten zituen jokoaren hiri eremua sortuta, betiere «eraikin publiko xumea» adierazi nahian; xumetasuna hainbesterainokoa zen, ezen bi horma baino ez baitzituzten eraikitzen

tis del frontón. El conjunto se completa y se abre a los alrededores fuera de la villa mediante el puente. Se produce así la transformación barroca alternativa a la villa medieval. Resumiendo, el frontón se constituye mediante la prolongación de la fachada de la casa consistorial a través de un muro plano de sillería, hasta el límite del río, de donde surge la pared perpendicular o frontis. Así queda definida la nueva plaza lúdico-representativa. Verdadera síntesis del equipamiento civil y religioso de toda la ciudad. Al mismo tiempo se pondrán en valor las relaciones de continuidad entre el casco y el arrabal conventual de Santa Clara, realizándose una operación urbanística de transformación cualitativa cuyo ámbito es la ciudad entera y todavía hoy, doscientos años después constituirá el «principal valor» de Elgoibar. La alternativa urbana que contemplamos, al igual que otras veces nos hemos referido a los Arquillos y Plaza Nueva de Vitoria-Gasteiz, pueden encajarse como muy significativas y valiosas en la historia urbana del País Vasco.

En idéntico sentido podemos tomar el caso de Segura, si bien participa en gran medida en la casuística contemplada en párrafos posteriores.

Con una menor fuerza emblemática aunque con una aplicación más pragmática de los principios de la arquitectura y de las transformaciones urbanas, podemos entender toda la serie de episodios que se desarrollan a principios del siglo XIX, en la implantación de frontones o juegos de pelota en las «afueras» extramuros de los cascos urbanos, ocupando explanadas y otros lugares para el paseo del período ilustrado. Serán básicamente los situados sobre «espolones» o paseaderos en terminología de Alberti, u otros lugares públicos de definición arquitectónica específica y a los que, el frontón completa creando el ámbito urbano del juego, bajo una evidente significación de «senci-



*Casco histórico de Elgoibar. Imagen de Google Earth.*

*Elgoibarreko alde zaharra, Google Earth-eko irudia.*

llo edificio público», hasta el punto de limitarse a la construcción de dos muros formando un triedro y en el que la pared más larga —o pared izquierda— generalmente se construye con una altura que va decreciendo del ángulo hacia la parte trasera. En cualquier caso tomando un sentido mucho más empírico y pragmático que el caso del frontón barroco de Elgoibar.

Bajo este criterio tiene interés repasar la cartografía militar clásica del País Vasco, debida fundamentalmente al coronel de Ingenieros y académico del siglo XIX, don Francisco Coello de Portugal, en la cual se representa en toda su entidad el arco de los distintos tipos de asentamientos para frontones en varias villas del País Vasco.

Siguiendo por esta vía, evidentemente alejada a la de las transformaciones de los hechos urbanos, hasta nuestros días, en la definición del frontón como objeto propio de la arquitectura, es decir en el campo en el que se va objetualizando y al tiempo decontextualizando de sus significaciones urbanas, para tomar valor, el frontón, en su acepción más paisajista. Será un valor como objeto, donde cuenta únicamente la disposición de muros y graderío al margen de cualquiera consideración urbana y de conjunto.

Entramos en el típico callejón de difícil salida a que han conducido la mayor parte de las arquitecturas a partir de comienzos del siglo XX. No es, sin duda, el camino que conduce a la autonomía de la arquitectura, sino más bien el que lleva rápidamente hacia su soledad.

De todos modos, y a pesar de todo, existen algunos ejemplos interesantes en este tipo de implantaciones del frontón. Destacaré el segundo frontón de Bidart en el que aparece con claridad la pérdida de valor, en

triedro bat osatuz, eta, oro har, paretarik luzeenaren —ezker pareta— altuera txikitu egiten zen angelutik hasita. Edonola ere, Elgoibarko frontoi barrokoaren kasuan baino zentzu askoz ere enpirikoago eta pragmatikoagoa hartu zuen.

Irizpide horren arabera, interesgarria da Euskal Herriko kartografia militar klasikoa berrikustea, batez ere, XIX. mendeko Francisco Coello de Portugal ingeniarien koronel eta akademikoak egindakoa. Kartografia horretan, Euskal Herriko hainbat hiribildutan frontoietarako kokaleku mota guztiak irudikatzen dira.

Bide horretatik jarraituz —eta hirigintzako egitateen eraldaketaren bidetik urruntzen da, argi eta garbi— gaur egun arte, frontoia arkitekturaren berezko objektu gisa definitzen da, hau da, frontoia objektualizatzen eta, aldi berean, bere hiri esanahien testuingurutik aldentzen ari da, balioa hartzeko, betiere frontoiaren adiera paisajistikoenean. Objektutzat izango du balioa, hormen eta harmailen kokapena soilik aintzat hartuta, hirigintzako eta osotasuneko beste edozein kontsiderazio alde batera utzita.

XX. mendearen hasieratik aurrera arkitektura gehienek sorrarazi duten irteerarik gabeko kalexka tipikoan sartu gara. Ez da, zalantzarik gabe, arkitekturaren autonomiara daraman bidea, baizik eta bere bakardadera azkar eramaten duena.

Nolanahi ere, eta hala eta guztiz ere, badira adibide interesgarri batzuk frontoiaren ezarpen mota horri dagokionez. Bidarteko 2. frontoia nabarmenduko dut. Frontoi horretan argi eta garbi agertzen da balio ga-

su más completa significación arquitectónica, es decir como configurador urbano y su ámbito de plaza abierta a la colectividad. Enfrentado al concepto de soledad, ensimismamiento e individualidad, este frontón de Bidart, por otro lado nada desdeñable en términos de diseño y virtuosismo formal, marca una pauta en la depauperación progresiva de una arquitectura que como señalan los fundamentos conceptuales de Alberti, va dejando de ser Lugar de arquitectura, para convertirse en Objeto de arquitectura.

La deriva tipológica posterior de algunos frontones jalona diversos episodios desafortunados que proliferan hoy en villas particulares, en clubes privados, o como entidades paramunicipales ya totalmente enmarcadas en el «negocio», habiendo olvidado su característica primordial como lugar para el «ocio».

Finalmente, volviendo al punto primero, el de considerar el tiempo libre, el ocio entendido en su faceta más positiva, como cultura de masas, puede interesar rescatar el viejo «*jeu de paume*», aristocrático —juego de palma— y tomar la raíz tipológica del edificio en el cual desarrolló, el juego, sus momentos más brillantes, singularmente en el París bajo el régimen absolutista. Se trata del trinquete, tipo edificatorio que cristalizó con fuerza y se popularizó en todo el País Vasco francés, tras del declive del «*jeu de paume*» en la capital; hasta nuestros días en que siguiendo la evolución y expansiones del juego, se hallan en bastantes lugares, geográficamente distantes.

En este aspecto —el paso de aristocrático a popular—, se significa en la arquitectura de una modalidad del frontón, como edificio cerrado y cubierto, con galería superior y otra lateral a nivel de la cancha de juego. Es la que fue adoptada en un edificio singular en la Rentería guipuzcoana de los años 30 del pasado

lera, bere esanahi arkitektoniko osoenean, hau da, hiri konfiguratzaile gisa eta kolektibitateari irekitako plazaren eremuan. Bakardadearen, bakartzearen eta indibidualtasunaren kontzeptuari aurre eginez, Bidarteko frontoi horrek ildoa markatzen du arkitektura baten ahultze mailakatuan; izan ere, Albertiren oinarri kontzeptualen arabera, arkitektura leku izateari utzi eta arkitektura objektu bihurtu da. Bestalde, frontoi hori nabarmentzeko modukoa da diseinuari eta birtuosismo formalari dagokionez.

Zenbait frontoiren ondorengo deriba tipologikoan zoritxarreko gertaerak izan ziren eta, gaur egun, horietako ugari daude hiribildu partikularretan, klub pribatuetan edo «negozioan» erabat kokatuta dauden udal erakunde paramunizipal gisa, horien ezaugarri nagusia «aisialdirako» toki izatea zela ahaztuz.

Azkenik, lehenengo puntura itzuliz, hau da, denbora librea edo aisialdia bere alderdirik positiboenean ulertuta, masa kultura gisa, interesgarria izan daiteke «*jeu de paume*» aristokratiko zaharra —palma jokoa— erreskatatzea, eta jokoak unerik distiratsuenak bizi izan zituen —bereziki Parisen, erregimen absolutistapean— eraikinaren sustrai tipologikoa hartzea. Trinketeaz ari gara; Ipar Euskal Herri osoan indar handiz sartu eta hedatu zen eraikuntza mota, hiriburuan «*jeu de paume*» jokoaren gainbehera gertatu ondoren; gaur egun arte, jokoaren bilakaerari eta hedapenei jarraiki, geografikoki urrun dauden leku askotan aurki daitezke.

Aristokratiko izatetik herrikoi izatera igarotze hori frontoiaren modalitate baten arkitekturan adierazten da, eraikin itxi eta estali gisa, goian galeria bat eta albo batean beste bat zituela, joko kantxaren parean. Joan den mendeko 30eko hamarkadako Errenterian (Gipuzkoa) hautatu zuten modalitate hori eraikin be-

siglo, justamente los previos al estallido de la catástrofe golpista franquista, construyendo el antiguo Batzoki o edificio sobre el que se hicieron confluir las significaciones del juego, de la cultura y de la acción política. Para ello contaba con un frontón, así como un pequeño teatro y otros locales en su propia estructuración arquitectónica.

En este tipo de edificaciones, propiamente insertos como singularidad de una trama urbana, propiciados por el Partido Nacionalista Vasco, y sobre los que se jugaba a la pelota, eventualmente representaciones teatrales, otras actividades gastronómicas y en todo momento una acción política abierta a sus afiliados, todas las cuales quedaron prematuramente truncadas a raíz de la Guerra Civil. La confiscación del edificio y su utilización por los vencedores hicieron llevar una vida en extremo lánguida como herida sangrante de la contienda civil, hasta que en estos años en que se inicia una Transición política en España está pendiente su futuro, en base a una nueva ordenación urbanística del lugar, una vez devuelto el Batzoki a sus legítimos propietarios.

San Sebastián, 1979

Publicado en *Hinterland* (Milano),
enero-abril de 1979

rezi bat egiteko, hain zuzen ere frankismoaren hondamendia piztu aurretik, eta eraikin horretan —Batzokia zena— uztartu zituzten jokoaren, kulturaren eta ekintza politikoaren esanahiak. Horretarako frontoi bat, antzoki txiki bat eta beste lokal batzuk zituen eraikinaren egitura arkitektonikoan.

Eusko Alderdi Jeltzaleak bultzatu zituen horrelako eraikin motak, hiri bilbe baten berezitasun gisa txertatuta; bertan, pilotan jokatzen zen, tarteka antzezpenak egiten ziren, baita bestelako jarduera gastronomikoak ere, eta une oro afiliatuei irekitako ekintza politikoa gauzatzen zen, baina jarduera horiek guztiak etenda geratu ziren gerra zibilaren ondorioz. Garaileek eraikina konfiskatu eta erabili izanak bizitza makala eman zion, gerra zibilaren ondoriozko zauri odoltsu baten antzera, harik eta Espainian trantsizio politikoa hasten den urte hauetan bere etorkizuna kolokan dagoen arte, tokiko hirigintza antolamendu berri batean oinarrituta, betiere Batzokia jabe legitimoei itzuli ondoren.

Donostia, 1979

Argitalpena: *Hinterland* (Milano),
1979 urtarrila-apirila

# Planeamiento y arquitectura en Gipuzkoa: una visión crítica, 1979

Para entender el urbanismo en los últimos años en Guipúzcoa resulta importante precisar previamente una serie de aspectos que nos permitan encajar este tan ambiguo concepto dentro del marco en el cual podamos entendernos. El problema de la terminología siempre ha representado una de las bases de indefinición y constituye punto origen de la confusión, sobre la que se han ido entretejiendo conceptos de arquitectura y de lo urbano. En este sentido merece la pena reseñar las precisas afirmaciones de Viollet la Duc cuando en su explicación del término *style* para el «Diccionaire» expresa:

> « Dans les arts, et dans l'architecture en particulier, les définitions vagues ont causé bien des erreurs, ont laissé germer bien des prejuges, enraciner bien des idèes fauses.
>
> On met un mot en avant, chacun y attache un sens différent. Des raisonnement qui ne peuvent jamais se croiser s'elevent sur ces basses mal assises, n'avancent pas les questions d'un degré,

# Plangintza eta arkitektura Gipuzkoan: ikuspegi kritiko bat, 1979

Gipuzkoako azken urteetako hirigintza ulertzeko, garrantzitsua da aldez aurretik zenbait alderdi zehaztea, kontzeptu anbiguo hori elkar uler dezakegun esparruan txertatu ahal izateko. Terminologiaren arazoa beti izan da zehaztugabetasunaren oinarrietako bat, nahasketaren abiapuntu izanik, eta nahasketa horretatik abiatuta, arkitekturaren eta hirigintzaren kontzeptuak nahasten joan dira. Zentzu horretan, Viollet la Duc-en baieztapen zehatzak azpimarratzea merezi du, bere «Diccionaire» hiztegian style terminoa azaltzen duenean:

> « Dans les arts, et dans l'architecture en particulier, les définitions vagues ont causé bien des erreurs, ont laissé germer bien des prejuges, enraciner bien des idèes fauses.
>
> On met un mot en avant, chacun y attache un sens différent. Des raisonnement qui ne peuvent jamais se croiser s'elevent sur ces basses mal assises, n'avancent pas les questions d'un degré,

> embarrassent les indecis et nourrissent les esprits paresseux. »

Esta imperiosa necesidad de clarificar los términos, constituye, en toda disciplina, un punto de arranque absolutamente imprescindible, sin el cual queda truncada toda posibilidad de avanzar en el campo cognoscitivo, y lo es mucho más en aquellas disciplinas que representan características específicamente colectivas como son todas aquellas materias que hacen referencia a la arquitectura y a la ciudad.

Una consciente huída de la racionalidad y consecuentemente su continuada búsqueda, representa el campo general dentro del cual han de entenderse todas las series de conceptos que tratan, en su sentido más profundo de urbanismo o construcción día a día de una ciudad.

En este estrecho marco explicativo, en un breve examen del último urbanismo realizado en Gipuzkoa, sin tratar de profundizar o extenderse en muchas de las interioridades conceptuales del urbanismo, únicamente interesará señalar ahora unas pocas, las cuales representan, a mi juicio, aquellas fundamentales para aproximarse con un mínimo de garantías al conocimiento y al establecimiento de criterios que nos permitan un juicio sobre lo urbano.

En este camino de búsqueda de precisiones conceptuales tenemos que considerar en primer lugar los términos de la contraposición urbanismo-arquitectura como el aspecto básico sobre el cual referir todo intento de aproximación al conocimiento del urbanismo en Gipuzkoa durante los últimos años.

Sobre esta relación, cuyas formulaciones desacertadas, gran parte de ellas propiciadas desde interpreta-

> embarrassent les indecis et nourrissent les esprits paresseux. »

Terminoak argitzeko ezinbesteko premia hori, diziplina orotan, behar-beharrezko abiapuntua da; hori gabe, eremu kognitiboan aurrera egiteko aukera oro zapuztu egiten da, eta are beharrezkoagoa da ezaugarri berariaz kolektiboak ordezkatzen dituzten diziplinetan, hala nola arkitekturarekin eta hiriarekin lotura duten gai guztietan.

Arrazionaltasunetik modu kontzientean ihes egiteak eta, horren ondorioz, haren etengabeko bilaketak eremu orokorra eratzen du, eta eremu horren barruan ulertu behar dira hiri baten egunerokotasuna, hirigintzaren edo eraikuntzaren zentzurik sakonenean, lantzen dituzten kontzeptu guztiak.

Gipuzkoan egindako azken hirigintza azterketa laburraren barruko azalpen esparru estu horretan, hirigintzaren kontzeptuzko barnekotasun askotan sakondu edo zabaldu nahi izan gabe, orain, gutxi batzuk baino ez ditugu aipatuko; hain zuzen ere, nire ustez funtsezkoak direnak hirigintzari buruzko iritzi bat izatea ahalbidetuko duten irizpideak ezarri eta ezagutzen hasteko, betiere gutxieneko bermeekin.

Kontzeptuzko zehaztapenak bilatzeko bide horretan, lehenik eta behin, hirigintzaren eta arkitekturaren arteko aurkakotzaren terminoak hartu behar ditugu kontuan, Gipuzkoan azken urteotan hirigintzaren ezagutzara hurbiltzeko egindako ahalegin oro aipatzeko oinarrizko alderditzat.

Aurkakotzako harreman horren formulazio desegokiak, batzuetan, arkitekturako mugimendu modernoa-

ciones ingenuas a veces, malintencionadas otras, del movimiento moderno en arquitectura, recaen la mayor parte de las limitaciones y desajustes de una realidad urbana tan desafortunada como representa la última transformación de los conjuntos urbanos en Gipuzkoa.

La coartada teórica de la multidisciplinareidad, sin una formulación precisa, sin considerar en ningún caso la debida jerarquía y orden interno en las diversas disciplinas, ha relegado voluntariamente a la arquitectura al triste papel del embellecimiento de «objetos aislados» de todo significado colectivo y a su obligada marginación como elementos sustantivos o partes significativas de la realidad urbana. De este modo el discurso urbano queda diluido y ha desaparecido, evidentemente en la mejor de sus formulaciones, en una serie de «interjecciones sucesivas» o de «objetos dispersos», casi siempre casas de habitación. No han proliferado unas formulaciones precisas, ni en el campo de los trazados, los lugares públicos, los edificios representativos etc. ni en aquellos aspectos básicos de una disciplina propiamente arquitectónica. Ha desaparecido el concepto de ciudad como cosa colectiva y la individualidad ha exasperado su expresión imposible.

La magnificación de esloganes tan simples, faltos de sentido y concepto como: sol, espacio verdor, únicamente han conseguido unos planteamientos teóricos y unos resultados, donde han quedado diluidas las significaciones arquitectónicas de los trazados, los tipos edificatorios, el orden urbano con sus proporciones, el estilo etc. Y como consecuencia de ello han sido descuartizadas enormes áreas periféricas a las villas y ciudades, sin aportar nuevas significaciones de interés. Y por el contrario empobreciendo hasta los límites de su supervivencia aquellos conjuntos urbanos

ren interpretazio xaloen ondorio dira eta, beste batzuetan, asmo txarreko interpretazioen ondorio; eta harreman horretan oinarritzen dira oso desegokia den hiri errealitate baten muga eta desoreka gehienak, hau da, Gipuzkoako multzo hiritarren zorigaiztoko azken eraldaketarenak.

Diziplinartekotasunaren koartada teorikoak, formulazio zehatzik gabe, diziplinetako barne ordena eta hierarkia inola ere kontuan hartu gabe, nahita baztertu du arkitektura esanahi kolektibo orotik «isolatutako objektuak» edertzeko eginkizun tristera, bai eta hirigintza errealitatearen elementu substantibo edo zati esanguratsu gisa nahitaez baztertu behar izatera ere. Horrela, hirigintzaren diskurtsoa diluituta geratzen da, eta desagertu egin da —bere formulaziorik onenean, noski— «elkarren segidako interjekzio» edo «objektu sakabanatu» batzuetan, ia beti bizitzeko etxeak. Ez dira formulazio zehatzak ugaritu, ez trazatuen, leku publikoen, ordezkaritzako eraikinen eta abarren eremuan, ez eta diziplina berariaz arkitektoniko baten oinarrizko alderdietan ere. Desagertu egin da hiriaren kontzeptua, hiria gauza kolektibotzat hartuta, eta indibidualtasunak bere ezinezko adierazpena asaldatu du.

Slogan oso sinpleak, zentzurik eta kontzepturik gabeak, goretsi dira, hala nola eguzkia, espazioa, berdea; gorespen horrek planteamendu teoriko eta emaitza jakin batzuk baino ez ditu lortu, eta emaitza horietan trazatuen esanahi arkitektonikoak, eraikuntza motak, hiri ordena bere proportzioekin, estiloa eta abar diluituta geratu dira. Horren ondorioz, hiribilduen eta hirien inguruko eremu periferiko izugarriak zatitu egin dira, esanahi interesgarri berririk eman gabe. Eta, aitzitik, beren biziraupenaren mugetaraino pobretuz nortasunez eta zentzu kolektiboz gainezka zeuden

tan plenos de identidad y de sentido colectivo como eran las villas, ciudades, anteiglesias, lugares, universidades y pueblos de este país.

Otro aspecto difícil de obviar, lo constituye aquel que llenando gran parte de las ideas y escritos producidos últimamente sobre estos temas, y que constituye la dicotomía o bien los puntos de coincidencia entre el dibujo de lo urbano y la construcción física de la ciudad.

Sin entrar, de momento, en el fondo de la cuestión, por otro lado demasiado importante para expresarla en este contexto limitado, resulta a todas luces de interés, el reseñar a propósito del último urbanismo producido en Gipuzkoa, su enorme carga de abstracción y ambigüedad con respecto a la propia voluntad de plasmar en la realidad los conceptos contenidos en la ciudad que dibujaba, las pocas veces que este dibujo o idea de ciudad ha sido previamente realizado.

Dicha ambigüedad presente en los primeros planteamientos urbanísticos y de planeamiento que consideramos, es decir los realizados en torno a los años 50, toma cuerpo en el transcurso del tiempo y al no resolverse los términos de la misma agudiza sus contradicciones internas, en base a obviar totalmente el término previo, es decir, el «dibujo» la «idea» de ciudad. De este modo los trabajos urbanísticos realizados con posterioridad constituyen únicamente documentos abstractos, en base a los cuales construir «algo», a poder ser «mucho», aun cuando ese algo no sea una ciudad, ni parte de ella, ni, evidentemente, tampoco arquitectura. Era un producto que se vendía… y hoy ni eso.

Este tipo de correspondencia entre el pensamiento, expresado mediante el dibujo, y la construcción, como su explicitación material, reviste en el caso

multzo hiritarrak, hau da, herrialde honetako hiribilduak, hiriak, elizateak, lekuak, unibertsitateak eta herriak.

Alde batera uzteko zaila den beste alderdi bat zera da, gai hauei buruz azkenaldian sortu diren ideia eta idazkien zati handi bat alderdi horri buruzkoa izanik ere, hirigintzaren marrazkia eta hiriaren eraikuntza fisikoa bat datozen puntuak edo bi horien arteko dikotomia.

Oraingoz, gaiaren muinean sartu gabe —izan ere, bestalde, testuinguru mugatu honetan adierazteko garrantzitsuegia baita—, interesgarria da, argi eta garbi, Gipuzkoan egindako azken hirigintzaren abstrakzio eta anbiguotasun karga handia aipatzea, marrazten zen hirian jasotako kontzeptuak errealitatean islatzeko borondateari dagokionez, betiere hiriaren marrazki edo ideia hori aldez aurretik egin den gutxitan.

Kontuan hartzen ditugun lehen hirigintza eta plangintza planteamenduetan, hau da, 50eko hamarkadaren inguruan egindakoetan, anbiguotasun hori gorpuztu egiten da denborak aurrera egin ahala eta, terminoak ez direnez ebazten, barruko kontraesanak areagotu egiten dira, aldez aurretiko terminoa, hau da, hiriaren «ideia», «marrazkia», erabat alde batera utzi delako. Horrela, gerora egindako hirigintza lanak dokumentu abstraktuak besterik ez dira, horietan oinarrituta «zerbait» eraikitzeko, ahal dela «asko», nahiz eta zerbait hori ez izan hiri bat, haren zati bat, ezta arkitektura ere, bistan denez. Produktu hori saldu egiten zen… eta gaur egun hori ere ez.

Pentsamenduaren —marrazkiaren bidez adierazten dena— eta eraikuntzaren —aurrekoaren gauzatze materialtzat hartuta— arteko elkarrekikotasun mota ho-

de la dimensión urbana de la arquitectura una importancia capital, y sin duda su correcta definición y planteamiento marca claves teóricas de singular importancia en la configuración de los hechos urbanos.

Evidentemente, esta correspondencia no la vamos a tratar aquí en los términos propuestos por E.L. Boullée en su comentario sobre Vitruvio, contenidos en la introducción a su «Arquitectura ensayo sobre el Arte», no obstante interesa ahora expresar la amplitud de ese pensamiento transcribiendo sus frases:

> «Qué es la arquitectura? La definiré yo con Vitruvio como el arte de construir? Ciertamente no… Vitruvio toma el efecto por la causa. Para nosotros la concepción de la obra precede a su ejecución. Nuestros antepasados construyeron sus cabañas después de habernos creado su imagen. Es esta producción del espíritu, esta creación que constituye la arquitectura y que nosotros, en consecuencia podemos definir como arte de producir y de llevar a la perfección cualquier edificio.»

Ninguna referencia se puede hacer lógicamente a la ciudad como objeto de arte que es, sin que previamente a su construcción o implementación, no exista claramente especificada y definida, una idea concreta y clara de aquello que se pretende realizar. La falta de concreción, la abstracción etc, en consecuencia no podrán servir para marcar pautas urbanísticas que hayan de convertirse en unos hechos urbanos, y esta imagen a la que hacemos referencia únicamente podrá estar constituida con los materiales que proporciona la arquitectura.

Sobre la base de esta doble polaridad, es decir la contenida entre los términos de arquitectura-urbanismo

rrek berebiziko garrantzia du arkitekturaren hiri dimentsioaren kasuan, eta, zalantzarik gabe, dimentsio hori egoki definitu eta planteatzeak garrantzi bereziko gako teorikoak ezartzen ditu hirigintzako egitateen konfigurazioan.

Jakina, elkarrekikotasun hori ez dugu hemen aztertuko E.L. Boullée-k Vitruvio-ri buruz egindako iruzkinean proposatutako terminoetan —«Arkitektura. Arteari buruzko saiakera» liburuaren sarreran agertzen dira—, baina, orain, pentsamendu horren zabaltasuna adieraztea interesatzen zaigu; horretarako, esaldiak transkribatuko ditugu:

> «Zer da arkitektura? Vitruviorekin bat definituko al dut nik eraikitzeko arte gisa? Egia esan, ez… Vitruviok ondorioa kausatzat hartzen du. Guretzat, obraren sorkuntza obra gauzatu baino lehen egiten da. Gure arbasoek txabolak eraiki zituzten txabolen irudiak sortu ondoren. Espirituaren produkzio hori da, arkitektura eratzen duen sorkuntza hori; beraz, guk honela definitu dezakegu: eraikin oro produzitzeko eta burutzeko artea.»

Logikoa denez, ezin da esan hiria arte objektu denik —eta hala da—, baldin eta hiria eraiki edo ezarri aurretik, ez badago argi eta garbi zehaztuta eta definituta egin nahi den horren ideia zehatz eta argi bat. Zehaztasunik ezak, abstrakzioak eta abarrek, beraz, ezin izango dute balio hirigintzako egitate bihurtu behar diren hirigintza jarraibideak markatzeko, eta aipatzen ari garen irudi hori arkitekturak ematen dituen materialekin soilik eratu ahal izango da.

Polaritate bikoitz horretan oinarrituta, hau da, alde batetik, arkitektura hirigintza terminoen artean dagoen

de un lado, y por otro la relación que se contiene entre el dibujo, imagen o idea de ciudad y su plasmación material concreta, constituyendo una «pieza» o «parte urbana», será sobre la que vamos a referir algunos aspectos del urbanismo gipuzkoano en el período comprendido entre los años cincuenta y la actualidad.

Prescindiendo deliberadamente del urbanismo primero de la posguerra, es decir aquel representado en la idea de reconstrucción sobre las cicatrices urbanas más flagrantes de los destrozos de la contienda, aquel urbanismo de revancha estilística, que al margen de su retórica imperial, representa un urbanismo disciplinarmente valioso y en absoluto desdeñable, al margen de sus connotaciones verbalistas y sangrientas. Ahora interesa tratar del período inmediatamente posterior, la época que se abre con el discurso de Don Pedro Bidagor en San Sebastián en Mayo de 1946, el cual expresa acertadamente la voluntad de sus planteamientos conceptuales, así como su ambigüedad programática, cuando dice:

> «La posguerra ha traído la importación tardía del movimiento funcionalista…
>
> En España el Movimiento (nacional, franquista), nos ha encauzado hacia una arquitectura que sin abandonar el progreso conseguido en materia de confort, de construcción y de distribución tenga una preocupación espiritual como algo esencial, y naturalmente orientada hacia la tradición nacional y regional…
>
> Hoy se desea una cierta disciplina de la arquitectura y del urbanismo como la que presidió el crecimiento de la ciudad de San Sebastián, y nuestras preocupaciones se orientan en gran medida hacia la organización perfecta del conjunto de la ciudad…

polaritatea eta, bestetik, hiriaren marrazki, irudi edo ideiaren eta ideia horren irudikapen material zehatzaren artean dagoen erlazioa, «pieza» edo «hiri zati» bat izango da; horri buruz arituko gara berrogeita hamarreko hamarkadatik gaur egunera bitarteko Gipuzkoako hirigintzaren hainbat alderdiri dagokionez.

Nahita utziko dugu alde batera gerraosteko lehen hirigintza, hau da, gerraren hondamendiak eragindako hiri orbain agerikoenen gainean berreraikitzeko ideian irudikatutakoa, errebantxa estilistikoko hirigintza hura, bere erretorika inperiala alde batera utzita, diziplina aldetik baliotsua eta inondik inora gutxiesgarria ez den hirigintza, konnotazio berbalista eta odoltsuak alde batera utzita. Orain, horren segidako aldiari buruz hitz egin nahi dugu, hau da, Pedro Bidagor jaunak Donostian 1946ko maiatzean emandako hitzaldiarekin hasten den aldiari buruz; hitzaldi horretan, egoki adierazten du bere kontzeptuzko planteamenduen borondatea zein den, bai eta bere anbiguotasun programatikoa ere, honako hau esaten duenean:

> «Gerraosteak mugimendu funtzionalistaren inportazio berantiarra ekarri du…
>
> Espainian, erosotasunaren, eraikuntzaren eta banaketaren arloan lortutako aurrerabidea alde batera utzi gabe, kezka espirituala funtsezkotzat duen arkitektura baterantz bideratu gaitu Mugimenduak (nazionala, frankista) eta, jakina, nazio eta eskualde tradiziora bideratuta dagoen arkitektura baterantz…
>
> Gaur egun, arkitekturaren eta hirigintzaren nolabaiteko diziplina bat nahi da, hala nola Donostiako hiriaren hazkundean nagusi izan zena, eta gure kezkak, neurri handi batean, hiri osoaren antolamendu perfektura bideratzen dira…

…nuestra ciudad ha coronado una obra verdaderamente modelo, de la que los donostiarras podemos estar verdaderamente orgullosos, lo ha hecho merced a un esfuerzo sostenido de unos equipos de unos hombres políticos, administrativos y técnicos de gran honradez y competencia que se han sucedido con constante espíritu de superación.

San Sebastián que en 1846 tenía 10.000 habitantes, alcanzaba 50.000 en 1910 y bastantes más que 100.000 en la actualidad. Sigue su marcha ascendente y probablemente alcanzará los 250.000 antes de 1980. Necesita para ello organizar grandes zonas de periferia previendo anexiones tan claras como Pasajes y Rentería, comunicaciones nuevas, emplazamientos para las industrias que le han de dar vida, desarrollos ordenados de viviendas, según diversos tipos y diversas clases sociales…

…en resumen un Plan General de Ordenación Urbana como el que desarrollan Madrid, Valencia, Sevilla, Zaragoza, y Bilbao que sirva de cauce urbanístico a la actividad de los próximos 50 años.»

…Gure hiriak egiaz eredugarria den obra burutu du, eta donostiarrok benetan harro egon gaitezke horretaz; zintzotasun eta gaitasun handiko politikari, administrari eta teknikari taldeen ahalegin iraunkorrari esker lortu da, betiere etengabe hobetzeko espirituarekin.

Donostiak 1846an 10.000 biztanle zituen, 1910ean 50.000 eta gaur egun 100.000 baino dezente gehiago. Goranzko bidean jarraitzen du eta ziur asko 250.000 izatera iritsiko da 1980 baino lehen*. Horretarako, periferiako eremu handiak antolatu behar ditu, eta argi dauden atxikitzeen —Pasaia eta Errenteria, esaterako— aurreikuspenak egin behar ditu, komunikazio berriak, bizitza emango dioten industrientzako kokalekuak, etxebizitzen garapen ordenatuak, moten eta klase sozialen arabera…

Laburbilduz, Hiri Antolamendurako Plan Orokor bat, Madril, Valentzia, Sevilla, Zaragoza eta Bilbo garatzen ari direna bezalakoa, datozen 50 urteetako jarduerarako hirigintza bide izango dena.»

En este período que, no por casualidad coincide con la total ruina institucional, política y económica de los ayuntamientos, cuando se pretenden crear administraciones que sustituyan al poder municipal, siempre bajo la disculpa urbanística y fruto de la implantación violenta de las ideas vencedoras en la guerra civil, es el momento en que se pretende crear en Gipuzkoa, como provincia piloto del nuevo urbanismo un novedoso y sorprendente Plan Urbanístico Provincial, siguiendo la escala ilusoria de un planeamiento que nace a escala estatal y pretende llegar hasta el nivel parcial de un área menor. El plan urbanístico como mitología del nuevo orden, surgido de la legislación italiana del período musoliniano, como panacea tecnocrática, sustitutoria de una administración inexistente y como

Aldi hori bat dator —eta ez kasualitatez— udalen erabateko hondamendi instituzional, politiko eta ekonomikoarekin, udal boterea ordezkatuko duten administrazioak sortu nahi direnean, betiere hirigintza-barkamenaren pean eta gerra zibilean irabazle izan ziren ideiak bortitzki ezartzearen ondorioz; une horretan sortu nahi da Gipuzkoan, hirigintza berriaren probintzia pilotu gisa, Probintziako Hirigintza Plan berri eta harrigarria, Estatu osorako sortu eta eremu txikiagoko baten maila partzialeraino iristeko asmoa zuen plangintza baten ilusio eskalari jarraikiz. Hirigintza plana ordena berriaren mitologia gisa, Musoliniren garaiko Italiako legeriatik sortua, panazea teknokratiko gisa, existitzen ez den administrazio baten ordezko, eta hiria «gertakari kolektibo nagusi» gisa

coartada conceptual a un estado de cosas que huye de entender la ciudad como «hecho colectivo por excelencia», para dejarla en manos de iniciativas privadas de carácter eminentemente especulativo.

La vieja idea del Plan cuyas formulaciones más positivas como los Ensanches y la Reforma interior de poblaciones, han entendido desde su única angulación posible y operativa, es decir el plan promovido y transformado en realidad por la autoridad democrática. Aquella idea cuyas aplicaciones sucesivas sobre San Sebastián durante su historia, produjo como resultados concretos «una ciudad bien hecha», no exenta de enormes discusiones teóricas. Será la que dé, a partir de 1950, paso a una nueva mentalidad sobre la que con el tiempo quedará aislada peligrosamente la «idea de arquitectura», respecto a la «idea de ciudad». Definitivamente se ha puesto en marcha un proceso en el que por depauperaciones sucesivas, basadas en la propia inconsistencia de los principios, asistiremos a un empobrecimiento tanto de los «sucesivos planes» como de sus resultados concretos. Resultados que siempre constituirán una sorpresa muy difícil de imaginar cuando contemplamos las voluntariamente confusas «manchas, áreas coloreadas y polígonos», que constituyen la documentación básica del plan urbanístico de aquellos años.

Las fases más significativas de este proceso de deterioro de los mecanismos, en base a los cuales se han producido los últimos acontecimientos urbanos en Gipuzkoa, se pueden entender a partir de la promulgación de la Ley del Suelo en 1956.

El paso a través del urbanismo gipuzkoano desde aquellos años, puede ser considerado en el plano teórico como un paso cíclico desde la ciudad que se di-

ulertzetik ihes egiten duen gauzen egoera baten koartada kontzeptual gisa, nagusiki espekulatiboak diren ekimen pribatuen esku uzteko.

Planaren aspaldiko ideia; eta planeko formulazio positiboenak, hala nola Zabalguneak eta herrien barne erreformak, angeluazio posible eta operatibo bakarretik ulertu dira. Alegia, egiaz agintaritza demokratikoak sustatu eta eraldatutako plana. Ideia haren ondoz ondoko aplikazioak Donostian, historian zehar, emaitza zehatzak izan zituen, hau da, «ondo egindako hiria», eztabaida teoriko izugarriak izan arren. 1950etik aurrera pentsamolde berri bati bidea utziko diona izango da, eta pentsamolde berri horretan oinarrituta, denborarekin, eta modu arriskutsuan, «arkitekturaren ideia» isolatuta geratuko da «hiriaren ideiari» dagokionez. Azkenean prozesu bat jarri da abian. Prozesu horretan, printzipioak berak sendoak ez izatearen ondoriozko ahultzeak direla eta, «elkarren segidako planak» ez ezik, horien emaitza zehatzak ere pobretu direla ikusi dugu. Emaitza horiek irudikatzeko oso zailak diren ezustekoak izango dira beti, nahasgarri nahita egiten ditugun «orban, eremu koloreztatu eta poligonoak» aztertzen ditugunean; eta horiek osatzen dute urte haietako hirigintza planaren oinarrizko dokumentazioa.

Gipuzkoako azken hiri gertaeren oinarri izan diren mekanismoen narriadura prozesu horren faserik esanguratsuenak Lurzoruaren Legea 1956an aldarrikatu zenetik aurrera gertatu ziren.

Urte haietatik aurrera Gipuzkoako hirigintza aztertuz gero, plano teorikoan, orube eraikigarrietan marrazten zen hiritik hasi eta gaur egungo uneetara bitarteko

bujaba en sus solares edificables, hasta, los momentos actuales, en que ya nadie duda que la única manera plausible de construir una ciudad es teniendo previamente una «Idea de la arquitectura» de su conjunto y partir de su «Dibujo» como criterio de orden, que abarque o bien toda la ciudad, o bien cada una de las partes, en que según los criterios de la arquitectura, pueda considerarse dividida la ciudad.

En el intermedio ha pasado un largo y oscuro período en el que la forma, el resultado prefigurado, las profundas significaciones del hecho urbano que daban al azar de la más o menos hábil transformación de un volumen y una «cantidad edificable» marcada en el coeficiente de edificabilidad, en objetos incompletos, sin identidad propia y carentes de toda relación formal con los demás.

Todo proceso de cambio conceptual, por radical que se pretenda, conlleva unas inercias en las que aparecen, si bien en términos de extinción, criterios de la época anterior a la que se quiere modificar.

De este modo podemos ver en Planes Generales, como el de Zumárraga o Villafranca (Ordizia) en los que perduran y se resisten a desaparecer conceptos de arquitectura tan evidentes como pueden ser los tejidos urbanos: ciudad-jardín, ensanche, casco etc. No obstante todo ello quedará truncado cuando su voluntad de construirse en ciudad se someta al proceso de «División en polígonos», el cual constituye el documento clave, junto a la asignación de coeficientes de edificabilidad ($m^3$ por $m^2$), sobre el que a partir de 1959 se instituye la construcción de la ciudad, por los particulares (naturalmente).

Previamente y como inercia positiva ante el brutal cambio conceptual, parece importante señalar el hecho

urrats ziklikotzat har daiteke, eta gaur egungo une hauetan inork ez du zalantzan jartzen hiri bat eraikitzeko modu onargarri bakarra aldez aurretik osotasunaren «arkitekturaren ideia» bat izatea dela, eta horren «marrazkia» abiapuntu izanik ordena irizpide gisa, hiri osoa har dezala barnean edo, bestela, arkitekturaren irizpideei jarraikiz, hiria zati daitekeen zatietako bakoitza.

Tartean, denboraldi luze eta iluna igaro da, eta forma, aurrez itxuratutako emaitza, hirigintzako egitatearen esanahi sakonak eraikigarritasun koefizientean markatutako «kantitate eraikigarri» eta bolumen baten eraldaketa trebearen edo ez hain trebearen mende geratzen ziren, objektu osatugabeetan, identitate propiorik gabe eta, batez ere, besteekiko harreman formal orotan.

Kontzeptu aldaketako prozesu orok, muturrekoa izan arren, inertzia batzuk dakartza, eta aldatu nahi den garaiaren aurreko irizpideak agertzen dira, desagertzeko zorian badaude ere.

Horrela, esaterako, Zumarragako edo Ordiziako Plan Orokorretan ikus dezakegu arkitektura kontzeptu nabarmenek iraun egiten dutela eta desagertzeari uko egiten diotela, hala nola hiri sareak: lorategi hiria, zabalgunea, alde zaharra, etab. Hala ere, hori guztia eten egin zen hirian eraikitzeko borondatea «poligonoetan banatzeko» prozesuaren mende jarri zenean; funtsezko dokumentu horretan oinarrituta, eraikigarritasun koefizienteak ($m^2$ bakoitzeko $m^3$-ak) esleitzearekin batera, 1959tik aurrera partikularrak (modu naturalean) hasi ziren hiria eraikitzen.

Aldez aurretik, eta kontzeptu aldaketa basatiaren aurrean inertzia positibo gisa, garrantzitsua dirudi aipa-

desarrollado en los años 50, mediante el que se realizaron toda una serie de levantamientos y confección de planos de las principales aglomeraciones urbanas de Gipuzkoa. Se partía de una documentación precisa, apropiada y cargada de significaciones arquitectónicas para el conocimiento de los conjuntos urbanos. Documentos gráficos que contienen los más significativos atributos de la realidad urbanística en aquel momento. Así los planos de Elgoibar o el de Bergara.

*Plano de Vergara*




Sobre este punto de partida del conocimiento de la realidad, bien documentado se plantean los primeros mecanismos urbanísticos: los anteriores a 1956. Alguno de ellos presentan cualidades evidentes en el entendimiento arquitectónico de lo urbano. No faltan los aciertos en algunos planteamientos de «extensión de lo urbano», mediante la adición al tejido urbano preexistente, de auténticas «partes completas» sean ensanches, sean ciudades-jardín. Sin embargo, ninguno de ellos contiene las necesarias claves para la transformación o colmatación de lo existente. Y se-

tzea 50eko hamarkadan garatutako gertaera; izan ere, horren bidez, Gipuzkoako hiri aglomerazio nagusien jasotzeak eta planoak egin ziren. Multzo hiritarrak ezagutzeko, abiapuntuko dokumentazioa zehatza zen, egokia eta esanahi arkitektonikoz betea. Une hartako hirigintza errealitatearen ezaugarri esanguratsuenak jasotzen dituzten dokumentu grafikoak. Elgoibarko edo Bergarako planoak, esaterako.

Errealitatearen ezagutza horretan —ongi dokumentatutakoa— oinarrituta, lehen hirigintza mekanismoak planteatu ziren: 1956 baino lehenagokoak. Horietakoren batek ezaugarri nabariak ditu hirigintzaren ikuspegi arkitektonikoari dagokionez. «Hiri eremua hedatzeko» zenbait planteamendutan ongi egindakoak ere badira, lehendik zegoen hiri ehunari benetako «zati osoak» gehituta, direla zabalguneak, direla lorategi hiriak. Hala ere, horietako bakar batek ere ez ditu aipatzen lehendik dagoena eraldatzeko edo betetzeko beharrezkoak diren gakoak. Eta Gipuzkoako Eraikuntzako Ordenantza Orokorrak —ordenantza gorriak esaten zaie— hiri ehunetan modu orokorrean aplikatzearen ondorioz sortu ziren hirigintza distortsio nabarmenak. Esate baterako, Erdi Aroko trazadura duen erdigune historiko baten gainean eraikitzen denean, eraikuntza mota desegokiekin, eta are okerrago eraikuntzari «mugimendu modernoaren» dogmatik ekiten bazaio, hiri proportzioaren, erritmoaren, ehunduraren eta serialtasunaren edozein kontsiderazio alde batera utzita.

Edonola ere, Poligonoetan banatzea deritzon mekanismoa izango da, lege berritik aurrera agertzen dena, haren interpretazio azkar eta sinplifikatzaile gisa, betiere anbiguotasunaren barruan. Presakako geometria baten mekanismo hori indarreko antolamendu plan orokorrei gainjarri zitzaien, edo antolamendu plan berriak egiteko oinarri kontzeptuala izango da.

rán unas Ordenanzas Generales de Edificación para la Provincia de Guipúzcoa —comúnmente llamadas las ordenanzas coloradas— las que con su aplicación generalizada en los diversos tejidos urbanos produzcan serias distorsiones urbanísticas. Así por ejemplo cuando se edifica sobre un centro histórico de traza medieval con los tipos edificatorios inapropiados, y peor aún si se afronta la edificación desde el dogma del «movimiento moderno», ajeno a cualquier consideración de proporción urbana, ritmo, textura y serialidad.

De cualquier modo, será el mecanismo denominado División en Polígonos, que aparece a partir de la nueva ley, como interpretación apresurada y simplificadora dentro de su ambigüedad. Este mecanismo de una geometría apresurada se superpone a los vigentes Planes Generales de Ordenación o bien constituirá la base conceptual para elaborar nuevos planes de ordenación.

Este troceo del hecho urbano, realizado generalmente al margen de cualquiera consideración de arquitectura, ignora las «partes de la ciudad» y huye de crearlas, se basa en una disgregación de los polígonos, sin atender a las relaciones que deben vincular a unos con otros creando una estructura urbana general.

Cuenta únicamente la cantidad edificable, es decir el aprovechamiento urbanístico medido en los metros cúbicos edificables, por cada metro cuadrado de propiedad. Todo ello sumado a unos consistorios municipales arruinados política y económicamente, ha hecho que aparezcan «cosas y casas» sin mucho orden, no importa dónde ni con qué forma, ni a qué precio para la colectividad.

Hirigintzako egitatearen zatitze horrek, arkitekturari buruzko edozein kontsiderazio alde batera utzita egin ohi denak, ez ditu «hiriko zatiak» aintzat hartzen, eta horiek sortzeari ihes egiten dio; poligonoak sakabanatzean oinarritzen da, hiri egitura orokor bat sortuz batzuk besteekin lotu behar dituzten harremanei jaramonik egin gabe.

*Plan General de Villafranca y división en polígonos*




Kopuru eraikigarria bakarrik hartzen du kontuan, hau da, metro kubiko eraikigarrietan neurtutako hirigintza aprobetxamendua, jabetzako metro koadro bakoitzeko. Horren guztiaren ondorioz, eta udalak ere politikoki eta ekonomikoki lur jota egotearen ondorioz, «gauzak eta etxeak» ordena handirik gabe agertu dira, ez du axola ez non, ez nola, edo kolektibitatearentzat zer prezio izango duen.

Poligonoetan banatzeko metodologian, hirigintzako esku-hartze eremu bat arkitekturaren lehen ideia potentzialtzat definitzea eta mugatzea, hiri trazatuak —bai linealak (kaleak eta horien elkarguneak), bai




La definición y delimitación de un área de intervención urbanística como primera idea de arquitectura en potencia, los trazados urbanos, tanto lineales (calles y sus encuentros) como superficiales (plazas y otros espacios libres), así como el establecimiento de los tipos edificatorios, sean los residenciales como los de los edificios públicos quedarán anulados en la metodología de la división en polígonos. Queda consumada así la gran cesura entre la cultura urbana y la cultura general.

Este proceso ha llevado inexorablemente a una progresiva depauperación de los niveles de calidad urbanos existentes, ha motivado una Babel de criterios, no permite resquicios para un mínimo optimismo de cara a una pronta recuperación de los niveles conceptuales de una ciudad amable y bien hecha.

Hoy estamos en plena recuperación de alguno de los principios del Buen Gobierno, tanto en el Territorio como en la Ciudad, según las alegorías que pintara Ambrogio Lorenzetti en pleno renacimiento. Con el consiguiente cambio cualitativo en los planteamientos políticos e institucionales, será precisa una reflexión continuada sobre el hecho urbano en Euskadi.

gainazalekoak (plazak eta beste espazio libre batzuk)—, eta eraikuntza motak ezartzea —bizitegitarako zein eraikin publikoetakoak— baliogabetuta geratuko dira. Horrela, hirigintzako kulturaren eta kultura orokorraren arteko eten handia gauzatu egin da.



Prozesu horrek, ezinbestean, hiriko kalitate mailak arian-arian ahultzea ekarri du, irizpideen Babel bat eragin du, eta ez du aukerarik ematen baikortasun txikienari ere tartetxorik uzteko, hiri atsegin eta ondo egin baten kontzeptu mailak lehenbailehen berreskuratzeko.

Gaur egun, Gobernu Onaren printzipioetakoren bat berreskuratzeko bidean goaz, bai lurraldean, bai hirian, betiere Ambrosio Lorenzettik Errenazimentu



betean margotu zituen alegorien arabera. Horren ondorioz, planteamendu politiko eta instituzionaletan aldaketa kualitatiboa gertatuko denez, etengabe hausnartu beharko da hirigintzako egitateari buruz Euskadin.

Un avanzar en el plano del conocimiento, una búsqueda paciente y continuada en el plano colectivo que arbitre con urgencia mecanismos reales para la recuperación de un «solar» que ha sido duramente maltratado.

Algunas iniciativas balbuceantes empiezan a abrirse paso en el complicado marco del urbanismo guipuzcoano de hoy, las cuales, como estas dos propuestas de actuación en Legazpia, en este momento no representan más que unos «materiales ingenuos» cuya comprobación y discusión generalizada resulta urgente de cara a un cambio cualitativo en la construcción de lo urbano como alternativas al planeamiento vigente.

Lo cual no será posible sin un reforzamiento institucional profundo fundamentalmente en el campo de la administración municipal y la universidad.

Publicado en *COMUN 3*, 1979

Ezagutzaren alorrean aurrera egitea, bilaketa paziente eta jarraitua egitea maila kolektiboan, biziki gaizki tratatua izan den «orube» bat berreskuratzeko benetako mekanismoak premiaz ezarriko dituena.

Gaur egungo Gipuzkoako hirigintzaren esparru korapilatsuan, hainbat ekimen hasiak dira, poliki-poliki, aurrera egiten, eta ekimen horiek, hala nola Legazpiko bi jarduketa proposamenak, une honetan «material inozoak» baino ez dira; horiek egiaztatzea eta orokorrean eztabaidatzea premiazkoa da indarrean dagoen planeamenduaren alternatiba gisa hiri eremua eraikitzeko aldaketa kualitatibo bati begira.

Eta hori ez da posible izango, batez ere, udal administrazioaren eta unibertsitatearen esparruan erakundeak sakon indartu gabe.

Argitalpena: *COMUN 3,* 1979

# 2

# Arquitecturas en tiempos de transición CGPV y EJ/GV, 1978-1984

# Arkitekturak trantsizioko garaietan: Eusko Kontseilu Nagusia eta Eusko Jaurlaritza, 1978-1984

| | |
|---|---|
| El descubrimiento del Boletín Oficial | / Aldizkari Ofizialaren aurkikuntza |
| Declaración programática s/ Urbanismo | / Hirigintzari buruzko adierazpen programatikoa |
| Normativa reguladora de núcleos urbanos menores | / Hirigune txikiak arautzen dituen araudia |
| La ambigua capitalidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi | / Euskal Autonomia Erkidegoaren hiriburutza anbiguoa |
| Edificios públicos en Vitoria-Gasteiz | / Eraikin publikoak Gasteizen |
| Pequeños pabellones | / Pabiloi txikiak |
| Academia de la Ertzaintza en Arkaute | / Ertzaintzaren akademia Arkautin |
| Marco para conmemoraciones y otras obras de Arquitectura | / Ospakizunetarako esparrua eta arkitekturako beste obra batzuk |
| Otras experiencias de Arquitectura | / Arkitekturako beste esperientzia batzuk |

# El descubrimiento del Boletín Oficial

El Consejo General del País Vasco se crea como uno de los eslabones de importancia en la deseada democratización española, tras el fallecimiento del golpista y dictador (20-11-1975). Órgano político democrático y provisional, preautonómico, de urgencia, y prefiguración de lo que sería el Gobierno Vasco. Toma realidad jurídica a través del Real Decreto-Ley 1/1978. Es decir el primer texto legislativo promulgado el año 1978, apenas dos años después del inicio de la Transición del autoritarismo a la democracia. En su desarrollo se crea la Consejería de Ordenación del Territorio, Medio Ambiente y Urbanismo (15 mayo y1 junio 1978). Era su titular el político líder del PNV Don Juan Ajuriaguerra Ochandiano, quien fallece en agosto, recién producido el «Real Decreto 1981/1978, de 15 de julio, sobre transferencias de competencias de la Administración del Estado al Consejo General del País Vasco en materia de agricultura, industria, comercio y URBANISMO».

Le sustituye en el cargo Don Juan José Pujana el 11 de septiembre y es nombrado Director del Departamento

# Aldizkari Ofizialaren aurkikuntza

Eusko Kontseilu Nagusia Espainiako demokratizatze prozesu desiratuaren katebegi garrantzitsuenetako bat izan zen, kolpista eta diktadorea hil ondoren (175-11-20). Organo politiko demokratikoa eta behin-behinekoa, autonomiaren aurrekoa, urgentziazkoa, eta Eusko Jaurlaritza izango zenaren aurrekaria. 1/1978 Errege Lege Dekretuaren bidez hartu zuen errealitate juridikoa. Hau da, 1978an aldarrikatutako lehen legegintza testuaren bidez, autoritarismotik demokraziarako trantsizioa hasi eta bi urtera. Legearen garapenean, Lurralde Antolamendu, Ingurumen eta Hirigintza Saila sortu zen (1978ko maiatzaren 15a eta ekainaren 1a). EAJko buruzagi politiko Juan Ajuriaguerra Ochandiano jauna izan zen Sailburu, baina abuztuan hil zen, 1981/1978 Errege Dekretua egin berritan: «1981/1978 Errege Dekretua, uztailaren 15ekoa, nekazaritzaren, industriaren, merkataritzaren eta HIRIGINTZAren arloetan Estatuko Administrazioak zituen eskumenak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontseilu Nagusiari eskualdatzeari buruzkoa».

Haren ordez, Juan José Pujanak hartu zuen kargua irailaren 11n, eta Lurralde Antolamendu eta Hirigin-

de Ordenación Territorial y Urbanismo, el arquitecto José Miguel Abando Ereño el 9 de octubre 1978.

Apenas dos meses después se nombra a los Directores de Ordenación Territorial Urbanismo y Medio Ambiente (OTUMA) de Álava Gipuzkoa y Bizkaia. Corresponderá «grosso modo» a la figura del Delegado provincial del Ministerio de Obras Públicas y Urbanismo (MOPU).

Posteriormente son nombrados los Directores Territoriales y me corresponde asumir la Dirección del Departamento en Araba. Paralelamente los compañeros arquitectos, Xavier Unzurrunzaga es nombrado Director para Gipuzkoa y Antón Agirregoitia para Bizkaia.

Así se inicia un breve, paso por la administración del Urbanismo y la responsabilidad técnico-política sobre las materias que afectan fundamentalmente a la arquitectura y lo urbano en Araba. Parangonando a Lope de Vega puedo decir que «en horas veinticuatro pasaron (mis ideas sobre la ciudad y sus arquitecturas) de las musas al teatro»

Paralelamente, quedó determinado el régimen del personal de la Administración del Estado que quedaba afectado por las transferencias de funciones y servicios a los Entes Preautonómicos (octubre 1978). Es decir el traspaso del personal y los medios materiales que desde las Delegaciones del MOPU pasaban a la Dirección de OTUMA en Araba. Asentados en parte de lo que era, a la sazón, la delegación provincial del MOPU, en la calle Independencia de Vitoria, con vistas a la Plaza de los Fueros, obra que cierra el ciclo de colaboraciones entre Eduardo Chillida y Peña Ganchegui, y con tres profesionales adscritos a la nueva Dirección del CGPV: un arquitecto, un arquitecto técnico y una auxiliar administrativa.

tza Saileko zuzendari José Miguel Abando Ereño arkitektoa izendatu zuten, 1978ko urriaren 9an.

Handik bi hilabetera, Arabako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Lurralde Antolamendu, Hirigintza eta Ingurumeneko (LAHI) zuzendariak izendatu zituzten. «Grosso modo», Herri Lan eta Hirigintza Ministerioko (MOPU) probintzia ordezkaria izango da.

Gerora, lurralde zuzendariak izendatu zituzten, eta niri egokitu zitzaidan Sailaren Arabako Zuzendaritza hartzea. Aldi berean, Xavier Unzurrunzaga arkitektoa izendatu zuten Gipuzkoako zuzendari, eta Anton Agirregoitia arkitektoa Bizkaikoa.

Hori horrela dela, Arabako Hirigintzaren administrazioan eta, funtsean, arkitekturarekin eta hiri eremuarekin lotutako gaien gaineko erantzukizun tekniko-politikoaren bideari ekin nion; bide laburra izan zen. Lope de Vegaren hitzak hartuta, zera esan dezaket, «en horas veinticuatro pasaron (mis ideas sobre la ciudad y sus arquitecturas) de las musas al teatro»

Aldi berean, eginkizun eta zerbitzuak Autonomia Erkidegoen aurreko erakundeetara transferitu izanak eraginpean hartzen zituen Estatuko Administrazioko langileen araubidea zehaztu zen (1978ko urria). Hau da, MOPUren Ordezkaritzetatik Arabako LAHIren Zuzendaritzara aldatu ziren langileen eta baliabide materialen eskualdatzea. Garai hartan MOPUren probintzia ordezkaritza zenaren zati batean zegoen egoitza, Gasteizko Independentzia kalean, Foruen Plazara begira; obra horrek Eduardo Txillidaren eta Peña Gantxegiren arteko lankidetza-zikloa itxi zuen, eta Eusko Kontseilu Nagusiaren Zuzendaritza berriari hiru profesional atxiki zitzaizkion: arkitekto bat, arkitekto tekniko bat eta administrari laguntzaile bat.

De este modo dio comienzo un nuevo capítulo en mi mundo dedicado a la arquitectura. En él, como primer aprendizaje, resultaría necesario adaptarse a un nuevo lenguaje, como «medio» con el que vincular, de manera consistente, las ideas de unos y otros, pues gran parte de estas ideas habrían de tener consistencia legal. Este lenguaje era ni más ni menos el lenguaje de un Boletín Oficial.

Así entre la auxiliar administrativa Presentación Alonso, el arquitecto técnico Francisco Romero y el arquitecto vitoriano Javier Gatón Pérez de Albéniz, procedentes del ministerio, pudimos formar un escueto y verdadero equipo en el que fructificara con abundancia la mejor colaboración técnico-profesional y que luego derivaría en una profunda amistad.

Con fecha 2 de marzo 1979 y publicación en el BOCG del País Vasco 15 de marzo, sale la primera serie de resoluciones urbanísticas. Se trata de la Aprobación definitiva del proyecto de urbanización del Plan Parcial Santiago, Polígono nº 54 de Vitoria. Aprobación definitiva del Proyecto de Urbanización referente al tratamiento paisajístico del Cementerio «El Salvador» de Vitoria y la Denegación al Proyecto de Urbanización de «Paso inferior en calle Marqués de Estella» en Vitoria, promovido por la Caja de Ahorros Municipal. Así como de otros tres Edictos para inicio de tramitación de otras tantas viviendas unifamiliares en la extensa Araba rural que no contaba con ningún tipo de regulación para este tipo de pequeñas intervenciones características del territorio alavés.

Representa un significativo cambio cualitativo en lo profesional, tras de un itinerario temporal y arquitectónico de aproximadamente diez años, en los que desde la titulación de Arquitecto el 2 de mayo de 1969 se

Horrela hasi zen arkitekturari eskainitako nire munduaren beste kapitulu bat. Bertan, lehen ikasbidea hizkuntza berri batera egokitu beharra izan zen, hizkuntza hori baitzen batzuen eta besteen ideiak modu trinkoan lotzeko «bitartekoa», ideia horietako askok lege oinarria izan beharko zuten eta. Hizkuntza hori Aldizkari Ofizial baten hizkera zen, ez gehiago, ez gutxiago.

Horrela, bada, ministeriotik zetozen Presentación Alonso administrari laguntzailearekin, Francisco Romero arkitekto teknikoarekin eta Javier Gatón Pérez de Albéniz arkitekto gasteiztarrarekin benetako lantalde txiki bat osatu ahal izan genuen, eta elkarren arteko lankidetza tekniko eta profesional onenak fruitu ugari eman zituen; gerora, adiskidetasun handia ere sortu zen.

1979ko martxoaren 2an, hirigintzako ebazpenen lehen sorta kaleratu zen; Eusko Kontseilu Nagusiaren Aldizkari Ofizialean martxoaren 15ean argitaratu zen. Gasteizko Santiago 54. poligonoko Plan Partzialaren hirigintza proiektuaren behin betiko onarpena. Gasteizko «Salbatzailearen» hilerriaren paisaia tratamenduari buruzko urbanizazio-proiektuaren behin betiko onarpena, eta Gasteizko «Lizarrako markesaren kaleko azpiko pasabidea» urbanizatzeko proiektua ukatzea. Baita beste hiru ediktu ere, Arabako landa eremu zabalean familia bakarreko etxebizitzen izapideei ekiteko; izan ere, ordura arte ez zegoen inolako erregulaziorik Arabako lurraldearen bereizgarri diren eskuhartze txiki horietarako.

Aldaketa kualitatibo nabarmena izan zen arlo profesionalean, 1969ko maiatzaren 2an arkitekto titulua lortu nuenetik Luis Peña Gantxegiren estudio profesionalean jardun bainuen hamar bat urtez. Testuin-

inicia mi participación laboral en el estudio profesional con Luis Peña Ganchegui. En ese contexto ponemos en marcha iniciativas varias, así las reuniones semanales en aquel legendario Estudio de Reyes Católicos de una decena de arquitectos para comentar y debatir sobre los temas de teoría, proyectos y otras muchas inquietudes; las tres Semanas de Arquitectura (1974, 1975 y 1976) bajo patrocinio colegial organizadas por los compañeros M. Garay y J.I. Linazasoro; las reuniones mensuales entre los arquitectos, del contexto Vasco-Navarro, dispuestos a debatir sobre los distintos problemas de la cultura y el proyecto arquitectónicos; el Curso de Postgraduados en el otoño de 1977 y finalmente los comienzos de la «ansiada» Escuela Técnica Superior de Arquitectura en el Curso 1977-78 tras la inteligente gestión conjunta de Luis Peña Ganchegui con Oriol Bohígas, con la entusiasta ayuda y colaboración del primer cuadro de los profesores, entre los que destacaba en edad y vieja sabiduría Don Julio Caro Baroja; tuvieron, tanto para mí como para mi buen amigo, compañero y «vida paralela desde aquellos tiempos», Xavier Unzurrunzaga, el corolario, político profesional de una nueva responsabilidad en el mundo del Urbanismo y la Arquitectura en el País Vasco.

guru horretan, hainbat ekimen abiarazi genituen; astero, Errege-Erregina Katolikoen kaleko estudio legendario hartan hamar bat arkitekto biltzen ginen eta gai teorikoei, proiektuei eta beste hainbat kezkari buruz eztabaidatzen genuen; M. Garay eta J.I. Linazasoro lankideek elkargoaren babespean antolatutako Arkitekturako hiru asteak (1974, 1975 eta 1976); Euskadiko eta Nafarroako arkitektoen hileroko bilerak, kultura eta proiektu arkitektonikoen arazoei buruz eztabaidatzeko; graduondoko ikastaroa 1977ko udazkenean eta, azkenik, Arkitekturako Goi Eskola Teknikoaren hastapenak 1977-78 ikastaroan, Luis Peña Gantxegik Oriol Bohígasekin batera kudeaketa lan egokiak egin ostean, eta lehen irakasle taldearen laguntza eta elkarlan gogotsuarekin —irakasleen artetik Julio Caro Baroja jauna nabarmentzen zen, adinagatik eta jakinduriagatik—; bai niretzat, baita nire lagun min, kide eta «garai haietatik bizimodu paraleloa generaman» Xavier Unzurrunzagarentzat ere, urte haien guztien ondorio politiko eta profesionala zera izan zen, Euskadiko Hirigintzaren eta Arkitekturaren munduan erantzukizun berri bat izatea.

Tras las elecciones generales y municipales de 1979 se produce el cambio en la presidencia del CGPV. Si bien continúa el Consejero J.J. Pujana así como los directores nombrados en la anterior legislatura.

1979ko hauteskunde orokorren eta udal hauteskundeen ondoren, aldaketa gertatu zen Eusko Kontseilu Nagusiaren lehendakaritzan. Baina J.J. Pujana sailburuak eta aurreko legegintzaldian izendatutako zuzendariek jarraitu egin zuten.

Nuestra labor principal sigue siendo la resolución de los expedientes urbanísticos, mientras en las instancias políticas superiores se redacta el Estatuto de Autonomía que queda aprobado en Referéndum con fecha 25 Octubre. Fruto de esta aprobación se constituye el Gobierno Vasco, presidido por Carlos Garaikoetxea. Es nombrado Consejero de Política

Gure zeregin nagusia hirigintza espedienteak ebaztea zen oraindik ere, eta goragoko instantzia politikoetan, berriz, Autonomia Estatutua idazten ari ziren; urriaren 25eko Erreferendumean onartu zen. Onarpen horren ondorioz, Eusko Jaurlaritza eratu zen Carlos Garaikoetxea buru zuela. Javier Lasagabaster izendatu zuten Lurralde Politikako sailburu, eta desagertutako

Territorial Javier Lasagabaster, quien mantiene como colaboradores a los cuatro arquitectos provenientes del extinto Consejo General del País Vasco.

Finalmente será en febrero de 1982 cuando la Consejería tome una nueva estructura y en la que junto al mundo administrativo de la política urbanística se crean los mundos convergentes de la política de arquitectura y la de vivienda, correspondiendo a las nuevas competencias transferidas a las nuevas instituciones autonómicas vascas en aplicación del Estatuto de Autonomía.

Inicio mi nueva responsabilidad como Director de Arquitectura en febrero de 1982, responsabilidad que se extiende hasta abril de 1984.

Corresponden al período del Consejo General del País Vasco el asentamiento de los principios teóricos sobre los que apoyar la andadura administrativa a desarrollar en la administración del urbanismo. Todos ellos se contienen en el *Lan agiria* o Memoria en que se contienen todas las actividades de la Consejería, en el año siguiente a su creación en 1978 (septiembre de 1978 a septiembre de 1979).

Por otro lado también se elabora un cuadro normativo para regular en claves de ordenación y arquitectura la construcción de casas unifamiliares y pabellones agrícolas, principalmente en el extenso territorio de Álava que no cuenta con ninguna otra regulación urbanística.

Durante todo el transcurso de la Dirección de Urbanismo de Álava se trabajó, aunque más de una manera teórica y discursiva que en cumplimiento de unas competencias concretas, en la elaboración de bases teóricas y argumentales tanto como las propiamente tipológicas, sobre los Edificios Públicos. Fueros estu-

Eusko Kontseilu Nagusitik zetozen lau arkitektoak laguntzailetzat izaten jarraitu zuen.

Azkenik, 1982ko otsailean, Sailak egitura berria hartu zuen, eta, bertan, hirigintza politikaren administrazio munduarekin batera, arkitektura politikaren eta etxebizitza politikaren mundu bateratuak sortu ziren, Autonomia Estatutua aplikatuz euskal erakunde autonomiko berrietara transferitutako eskumen berriekin bat etorrita.

1982ko otsailean hartu nuen Arkitektura Zuzendari izatearen erantzukizun berria, eta 1984ko apirilera arte luzatu zen.

Eusko Kontseilu Nagusiaren aldian finkatu ziren hirigintzaren administrazioan garatu beharreko administrazio ibilbideari laguntzeko printzipio teorikoak. Horiek guztiak Lan Agirian edo Memorian bildu ziren, eta bertan jasota daude Sailak 1978an sortu eta hurrengo urtean egin zituen jarduera guztiak (1978ko irailetik 1979ko irailera bitarte).

Bestalde, familia bakarreko etxeen eta nekazaritza pabiloien eraikuntza antolamenduaren eta arkitekturaren aldetik arautzeko araudia ere egin zen, batez ere, Arabako lurralde zabalean, ez baitzuen beste hirigintza araurik.

Arabako Hirigintza Zuzendaritzaren jardunean, eraikin publikoetarako oinarriak —oinarri teorikoak, argumentalak eta tipologikoak— prestatzen lan egin zen, baina modu teoriko eta diskurtsiboan gehiago, eskumen zehatz batzuk betetzeko baino. Ordezkagarritasuneko eta arkitekturako hainbat kontzeptu az-

diados y sistematizados algunos conceptos de representatividad y arquitectura, que sin duda deberían de resultar necesarios en un futuro inmediato a la hora de asentar y localizar todos los órganos administrativos y de gobierno, derivados de la puesta en práctica de los organismos necesarios para la puesta en marcha del Estatuto de Autonomía.

Todo ello confluyó, evidentemente de manera totalmente indirecta en las decisiones políticas conducentes a la elección de la ciudad que habría de configurarse como sede Parlamentaria, albergar la sede de la Presidencia del Gobierno Vasco y ubicar la sede de las distintas Consejerías y otros organismos administrativos.

Una vez constituida la Dirección de Arquitectura se crea en su seno, una pequeña oficina de proyectos dirigida por el arquitecto Antón López de Aberasturi, en la que trabajan otros dos arquitectos y varios arquitectos técnicos, delineantes y auxiliares administrativas, apenas una decena de profesionales. Oficina desde la que se produce una gran parte de los proyectos y direcciones de obra de las principales arquitecturas construidas por las consejerías del Gobierno Vasco y se establecen las condiciones de encargo y relación con otros profesionales de la arquitectura.

tertu eta sistematizatu ziren, zalantzarik gabe, beharrezkoak izan beharko bailirateke etorkizun hurbilean administrazio eta gobernu organo guztiak finkatu eta lokalizatzeko, Autonomia Estatutua abian jartzeko beharrezkoak ziren organismoak abian jartzearen ondorioz.

Horren guztiaren ondorio izan ziren —noski, erabat zeharka— hainbat erabaki politiko; hain zuzen ere, Legebiltzarraren egoitza, Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzaren egoitza eta Sailen eta beste administrazio erakunde batzuen egoitza kokatu beharko litzatekeen hiria hautatzeko erabaki politikoak.

Arkitektura Zuzendaritza eratu ondoren, horren barruan, Anton Lopez de Aberasturi arkitektoak zuzendutako proiektu bulego txiki bat sortu zen. Bulego horretan beste bi arkitekto eta hainbat arkitekto tekniko, delineatzaile eta administrazio laguntzaile aritzen ziren lanean; hamar bat profesional baino ez. Bulego horretan sortu ziren Eusko Jaurlaritzaren Sailek eraikitako arkitektura nagusien proiektu eta obra zuzendaritza gehienak, eta arkitekturaren arloko beste profesional batzuei enkarguak egiteko eta haiekiko harremanetarako baldintzak ezarri ziren.

# Declaración programática s/ Urbanismo

# Hirigintzari buruzko adierazpen programatikoa

En el comienzo de nuestra nueva ocupación, ya en la administración y la política, aunque fuera en una modesta tercera o cuarta división de las responsabilidades públicas, se mantuvieron, aún con mayor vigencia que en los años preparatorios, nuestras preocupaciones teóricas. En tal sentido nos empleamos a fondo en la explicación programática de nuestro ideario, tanto en el campo del urbanismo como en el de la arquitectura. Y para ello nada mejor que participar a fondo en la elaboración de los borradores que dieran forma a la Memoria de la Consejería de OTUMA del Consejo General del País Vasco. En este contexto fue preparado el siguiente texto:

Los cometidos específicos que tiene asignados esta Consejería, en virtud de las transferencias que se han ido realizando estos últimos meses son las que hacen referencia al Medio Ambiente y al Urbanismo, es decir aquellos cometidos concretos que residían en la denominada Comisión de Servicios Técnicos del Gobierno Civil y los aspectos cuya sanción correspondía a la antigua Comisión Provincial de Urbanismo, o los correspondientes para Euskadi de la Comisión Central de Urbanismo.

Gure zeregin berriaren hasieran, bai administrazioan, bai politikan, erantzukizun publikoen hirugarren edo laugarren maila apalean bazen ere, gure kezka teorikoak mantendu egin ziren, prestaketa urteetan baino indar are handiagoarekin. Zentzu horretan, gure ideiarioaren azalpen programatikoa sakonki landu genuen, bai hirigintzan, bai arkitekturan. Eta, horretarako, Eusko Kontseilu Nagusiaren LAHI Sailaren memoriari forma emango zioten zirriborroak egiten sakonki parte hartzea baino hoberik ez dago. Testuinguru horretan, honako testu hau prestatu zen:

Sail honek esleituta dituen zeregin espezifikoak, azken hilabete hauetan egin diren transferentzien arabera, Ingurumenari eta Hirigintzari buruzkoak dira, hau da, Gobernu Zibilaren Zerbitzu Teknikoen Batzordeari zegozkion zeregin zehatzak eta Hirigintzako Probintzia Batzordeak zehatu beharreko alderdiak, edo Hirigintzako Batzorde Nagusitik Euskadiri zegozkionak.

Serán básicamente los expedientes de actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas, por un lado así como la aprobación o denegación de Planes Generales de Ordenación, Planes Parciales, de Reforma Interior, Proyectos de Urbanización etc. Es decir aquellos que resolvían los organismos anteriormente mencionados y que ahora son competencia de esta Consejería del CGPV.

Parece importante señalar que ambos organismos: Comisión de Servicios Técnicos y Comisiones Provinciales de Urbanismo, han llevado durante muchos años una vida más bien tímida y únicamente fiscalizadora, ya que en los presupuestos de antiguo régimen ha sido considerado el Medio Ambiente ni el Urbanismo materias a potenciar, defender y administrar con cierta prioridad, sino que por el contrario la ausencia de planteamientos teóricos y objetivos generales, en todo momento ha reducido el Medio Ambiente y el Urbanismo a meras comparsas de un desarrollismo no excesivamente meditado.

Quizá con cierta benevolencia decimos ausencia de planteamientos teóricos y objetivos generales. Otros, sin embargo afirman que dichos planteamientos y objetivos, además de existir se ocultaban, pero desde todo punto de vista eran evidentes y reaccionarios. No creemos que este sea el mejor momento para hacer juicios y quisiéramos que toda nuestra actual reflexión sobre Urbanismo y Medio Ambiente permita echar a andar con total urgencia en estas disciplinas, tan importantes, tan conflictivas y una de las primeras piedras de toque sobre las que se va a poder juzgar, la capacidad administrativa de esta Consejería.

Hoy esta Consejería no cuenta con los medios que en principio parecen los correctos para ejercer en su to-

Funtsean, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuen espedienteak izango dira, batetik, eta, bestetik, Antolamendurako Plan Orokorrak, Plan Partzialak, Barne Erreformarako Planak, Urbanizazio Proiektuak eta abar onartzea edo ukatzea, hau da, goian aipatu ditugun organismoek ebazten zituztenak eta orain Eusko Kontseilu Nagusiaren Sail honen eskumenekoak direnak.

Una primera es la que agrupando a todas las Consejerías o en su caso Departamentos se ubican todas ellas ocupando un edificio único, en una de las ciudades capitales de su competencia: Bilbao, San Sebastián, Vitoria. En este caso la imagen ciudadana de dicho edificio habría de ser la de un elemento clave en la estructura urbana de la correspondiente ciudad.

A fin de ilustrar este concepto pudiéramos considerar entre los edificios públicos existentes en Euskadi, los de la Casa de Misericordia, o el edificio del que es autor Silvestre Pérez de la vieja escuela de Maestría en Achuri (Bilbao). En San Sebastián se aproxima a este criterio conceptual el Palacio de Ayete o el edificio de la Tabacalera y tratándose de Vitoria esta imagen de edificio coincide con el de los cuarteles actualmente en ruina en el Paseo del Cuarto de Hora (actual Paseo del Marqués de Urquijo), o bien el antiguo seminario junto a la Catedral vieja.

Si tomamos en consideración los posibles solares no edificados que pudieran albergar un edificio público de este tipo, en el caso de Vitoria existiría varios, entre los que destacan los de la actual Avenida, propiedad del Instituto Nacional de la Vivienda (en el que habría que pensar para las transferencias que habrán de producirse próximamente), o bien los que posee el Ayuntamiento en la actual Plaza de la Hispanidad. El catastrófico desarrollo urbanístico reciente de San Sebastián y Bilbao hacen difícil el determinar en un pri-

## Eusko Jaurlaritzaren antolaketa arkitektonikoa

Eusko Kontseilu Nagusiaren eta, kasuan kasu, Eusko Jaurlaritzaren egoitza izan behar duten arkitekturen antolaketa bi modutara uler daiteke.

Lehenengoa, sail guztiak edo, hala badagokio, departamentu guztiak elkartu eta eraikin bakar batean kokatzea denak, bere eskumeneko hiriburuetako batean: Bilbon, Donostian edo Gasteizen. Kasu horretan, eraikin horren hiri irudiak funtsezko elementu izan beharko luke dagokion hiriko hiri egituran.

Kontzeptu hori argitze aldera, Euskadin dauden eraikin publikoen artean honako hauek aipa ditzakegu: Miserikordia Etxea, Atxuriko (Bilbo) Maisutza eskola zaharreko Silvestre Perezek egindako eraikina. Donostian, irizpide kontzeptual horretara hurbiltzen da Aieteko Jauregia edo Tabakaleraren eraikina; eta Gasteizi dagokionez, eraikinaren irudi hori bat dator Ordu Laurdeneko Pasealekuan (Urkijo markesaren Pasealekua gaur egun) aurri egoeran dauden kuartelekin, edo Katedral Zaharraren ondoko seminario zaharrarekin.

Mota horretako eraikin publiko bat har lezaketen eraiki gabeko orube posibleak aintzat hartuz gero, Gasteizen hainbat egongo lirateke, besteak beste, egungo Hiribidekoak —Etxebizitzaren Institutu Nazionalarenak dira (horri buruz pentsatu beharko litzateke laster gertatuko diren transferentzietarako)—, edo Udalak egungo Hispanitatearen Plazan dituenak. Donostian eta Bilbon gertatu berri den hirigintza garapen katastrofikoa dela eta, zaila da lehen azterketa labur batean horrelako eraikinetarako oruberik bada-

mer y muy somero análisis la existencia de solares para este tipo de edificios. Al menos si exceptuamos uno en la Plaza Pío X en San Sebastián.

Si la organización del Consejo ha de ser la resultante de Consejerías aisladas, o en agrupación sin contener la totalidad de ellas, pudiera ser la arquitectura del «palacete» o gran villa residencial, la que permita, tras de su transformación correspondiente, la utilización más adecuada.

En este mismo sentido encaja la necesaria arquitectura vinculada a la Presidencia. En este capítulo pueden entrar las arquitecturas que caracterizan la antigua casa familiar de los Sota (reconvertida en Gobierno Militar) en Bilbao. En San Sebastián son varios los ejemplos que pueden servir, villas en Ategorrieta, Ondarreta, Aldapeta entre las que podemos destacar «La Cumbre» (actual propiedad del Ministerio de Asuntos Exteriores), villa Elda, Itxas Gain (Caja de Ahorros Municipal), Villa Eva (Opus Dei)

En Vitoria el elenco es más extenso. A todo lo largo del Paseo Fray Francisco de Vitoria (Ajuria-Enea, otro palacete en ruina, Museo Provincial etc.) así como varios solares sin edificar (propiedad del gobierno marroquí, familia Gómez de Segura etc.) situadas en la prolongación de dicho paseo que toma el nombre de Paseo Cervantes.

Vitoria-Gasteiz, 3 de julio de 1979

goen zehaztea. Donostiako Pio X.a plazako bat izan ezik, behintzat.

Kontseiluaren antolaketa isolatutako Sailen ondoriozkoa izango bada, edo multzokatuta baina sail guztiak bildu gabe, «jauregitxo» edo txalet handiaren arkitektura izan daiteke, dagokion eraldaketa egin ondoren, erabilera egokiena ahalbidetzen duena.

Ildo beretik doa Lehendakaritzarekin lotutako beharrezko arkitektura. Kapitulu honetan sar daitezke Bilboko Sota familiaren antzinako etxea (Gobernu Militar bihurtua) ezaugarritzen duten arkitekturak. Donostian hainbat dira balio dezaketen adibideak: Ategorrietako, Ondarretako eta Aldapetako txaletak, besteak beste, «La Cumbre» (gaur egun Kanpo Arazoetako Ministerioarena da), Elda etxea, Itxas Gain (Udal Aurrezki Kutxa), Villa Eva (Opus Dei).

Gasteizen zerrenda luzeagoa da. Frai Francisco Vitoria ibilbidean barrena (Ajuria-Enea, aurri-egoeran dagoen beste jauregi bat, Museo Probintziala, etab.), baita ibilbide horren luzapenean —Cervantes pasealekua— dauden eraiki gabeko zenbait orube ere (Marokoko gobernuarena, Gómez de Segura familiarena, etab.).

Gasteiz, 1979ko uztailaren 3a



*Primera sede del Gobierno Vasco en Bilbao (Hotel Carlton).*
*Eusko Jaurlaritzaren lehenengo egoitza Bilbon, Carlton hotela.*



*Segunda sede del Gobierno Vasco en París, 11 Avenue Marceau.*
*Eusko Jaurlaritzaren bigarren egoitza Parisen, 11 Avenue Marceau.*

# Edificios públicos en Vitoria-Gasteiz

# Eraikin publikoak Gasteizen

Corrían muy avanzados los años setenta del pasado siglo cuando un par de arquitectos donostiarras, cuyos nombres evitaré, ante las constantes dificultades que hallaron en esta ciudad para consultar el archivo municipal de urbanismo, optaron por tomar todas las mañanas el tren y hurgar en la pequeña-gran historia urbana de la ciudad hermana de Vitoria-Gasteiz. San Sebastián a la sazón era un coto cerrado en el que la propia historia urbana era de «propiedad particular». Fueron la profesionalidad, benevolencia y entusiasmo de la archivera bibliotecaria vitoriana (Milagros Bidegain) lo que permitió que fruto de aquellas indagaciones se conocieran y publicaran temas y aspectos del urbanismo de nuestras capitales de algún interés general. Entre otros trabajos y artículos (2C Construcción de la Ciudad) surgió un «dossier sobre edificios públicos de Vitoria-Gasteiz» que trazaba una línea de interés cultural, con aplicaciones a la política, máxime cuando por aquellos años la Comunidad autónoma del País Vasco andaba a la búsqueda de una Capital, o quizá de nominación menos rimbombante «sede de los edificios de gobierno». Aquel escrito llegó a manos del alcalde Cuerda. Y formó un

Joan den mendeko hirurogeita hamarreko hamarkada oso aurreratuta zegoelarik, bi arkitekto donostiarrek —ez ditut haien izenak esango—, hiri horretako hirigintzako udal artxiboa kontsultatzeko izan zituzten etengabeko zailtasunak ikusita, goizero trena hartu eta Gasteiz hiri senidearen hirigintza historia txiki-handia arakatzea erabaki zuten. Donostia, garai hartan, barruti itxia zen, eta hiriaren historia bera «jabetza partikularrekoa» zen. Gasteizko artxibozain liburuzainaren (Milagros Bidegain) profesionaltasunak, onginahiak eta gogoak ahalbidetu zuten ikerketa horien ondorioz gure hiriburuetako hirigintzari buruzko interes orokorreko gaiak eta alderdiak ezagutzea eta argitaratzea. Beste lan eta artikulu batzuen artean (2C Construcción de la Ciudad), «Gasteizko eraikin publikoei buruzko txostena» egin zen, interes kulturaleko lerro bat markatzen zuena, politikan ere aplikatzeko modukoa, are gehiago urte haietan Euskal Autonomia Erkidegoa hiriburu baten edo, agian, «Gobernu eraikinen egoitza» baten —hain arranditsua ez den izena erabiliz— bila zebilenean. Idazki hura Cuerda alkatearen eskutara iritsi zen. Eta ideia multzo bat eratu zuen, Arabako hainbat instantziatan

núcleo de ideas que fueron expandiéndose y tomando fuerza en diversas instancias alavesas: profesionales, políticas, culturales etc.

De aquellas ingenuas líneas salieron decisiones políticas de amplia repercusión para nuestro porvenir. En una asamblea del PNV, creo recordar que en Alsasua, se tomó, a iniciativa de alaveses y gipuzkoanos y apoyándose en la autoridad moral del navarro don Manuel de Irujo, la decisión de optar por Vitoria-Gasteiz como la capital sede de las Instituciones de nuevo cuño: Parlamento y Gobierno.

Bilbao sería la sede financiera y el «núcleo duro de la autonomía» y correspondería a Donostia-San Sebastián la capitalidad cultural. Algo así como Cannes en Francia o Venecia en Italia: cinematográfica y estival.

Tras el correspondiente acuerdo parlamentario, a propuesta del PNV y con la puesta a prueba de la disciplina de voto, fue aprobada Vitoria-Gasteiz como Sede de las Instituciones de Gobierno don fecha 23 de mayo de 1980.

Pocos días bastaron para que en una reunión con el Lehendakari del CGPV (en la Diputación de Bizkaia) se tomara la decisión de dedicar Ajuria-Enea a presidencia y el viejo Instituto del parque de la Florida vitoriana, para sede del Parlamento/Eusko Legebiltzarra.

Se estaba por aquel entonces en plena fase de «renovación del viejo edificio escolar» y pocas cosas hubo que hacerle a un proyecto, tipológicamente muy adecuado, ya en marcha, para convertirlo en un Parlamento cargado de dignidad. Cuando los edificios son correctos y los proyectos para su renovación parten de su conocimiento más profundo, los «usos», eso que viene a llamarse «función», se le adhiere con

hedatuz eta indarra hartuz joan zirenak: profesionalen, politikaren, kulturaren eta abarren arloko instantzietan.

Lerro xalo haietatik, gure etorkizunean eragin handia zuten erabaki politikoak atera ziren. EAJren batzar batean, Altsasun izan zela esango nuke, arabar eta gipuzkoarrek eskatuta eta On Manuel Irujo nafarraren aginte moralean oinarrituta, erakunde berrien egoitza Gasteiz izatea erabaki zen: Legebiltzarraren eta Jaurlaritzaren egoitza.

Bilbo egoitza finantzarioa eta «autonomiaren nukleo gogorra» izango zen, eta Donostia, berriz, kultura hiriburua. Frantzian Cannes edo Italian Venezia bezalaxe: zinematografikoa eta udakoa.

Legebiltzarraren akordioaren ostean, EAJk proposatuta eta boto diziplina proban jarriz, Gasteiz onartu zen gobernu erakundeen egoitza gisa, 1980ko maiatzaren 23an.

Egun gutxi batzuk aski izan ziren Eusko Kontseilu Nagusiaren Lehendakariarekin (Bizkaiko Foru Aldundian) egindako bilera batean lehendakaritza Ajuria Enean eta Legebiltzarra Gasteizko Florida parkeko institutu zaharrean kokatzeko erabakia hartzeko.

Garai hartan, «eskola eraikin zaharra berritzeko» fase bete-betean zegoen, eta gauza gutxi egin behar izan zitzaion jada abian zegoen eta tipologikoki oso egokia zen proiektu bati, duintasunez betetako Legebiltzar bihur zedin. Eraikinak egokiak direnean eta horiek berritzeko proiektuak eraikinen ezagutza sakonenetik abiatzen direnean, «erabilerak», alegia, «eginkizun» esaten zaion hori, oso erraz atxikitzen zaizkio.

una enorme facilidad. En Vitoria de instituto a casa de cultura y parlamento. En Donostia, hace casi cien años y de manera análoga: otro edificio emblemático se convirtió de casino en casa consistorial.

Fueron José Erbina y Julio Herrero los arquitectos encargados de llevar a cabo las obras que bajo el entusiasmo de J.J. Pujana pronto se convirtieron en un lugar digno y apto para trabajar. Evidentemente nunca un buen edificio queda concluido y totalmente terminado el día de su inauguración, por ello la arquitectura auténtica se forja día a día y en el continuo habitar. En el ajuste cotidiano entre tipo edificatorio y función. En este caso la más sublime de la representación político-institucional de una renaciente nacionalidad.

Paralelamente, un solo día y una enorme dosis de sentido común bastaron para decidir que el «enorme geriátrico de Lakua» se convirtiera en la sede de las consejerías o departamentos del recién inaugurado G.V. Correspondió al gipuzkoano Javier Lasagabaster mano a mano con el navarro Etxenike y el alcalde Cuerda, proponer la toma de decisión, que luego sería refrendada por Gobierno, Ayuntamiento y Diputación.

Pronto, y por encomienda del Gobierno a la aún «*non nata*» oficialmente Dirección de Arquitectura, se preparó un proyecto y se empezó a urbanizar el «páramo de Lakua», a llevar unos cuantos muebles, y sobre todo a trabajar en unas oficinas improvisadas, aún cuando durante los primeros meses hubiera que atravesar un barrizal y las primeras mesas de trabajo fueran el viejo material de desecho de la Caja Vital.

Gasteizen, institutu izatetik kultur etxe eta legebiltzar izatera. Donostian, duela ia ehun urte eta antzera: beste eraikin enblematiko bat kasino izatetik udaletxe bihurtu zen.

Jose Erbina eta Julio Herrero arkitektoak arduratu ziren obrak egiteaz eta, J.J. Pujanaren gogo biziaren zuzendaritzapean, lan egiteko leku duin eta egoki bihurtu ziren. Bistan denez, eraikin on bat ez da inoiz bukatuta eta erabat amaituta egoten inaugurazio egunean eta, horregatik, benetako arkitektura egunez egun eta etengabeko bizitzean lantzen da. Eraikuntza motaren eta eginkizunaren arteko eguneroko egokitzapenean. Kasu honetan, naziotasun berpiztu baten ordezkaritza politiko instituzionalik gorena.

Aldi berean, egun bakar bat eta sen onaren dosi handi bat nahikoa izan ziren «Lakuako geriatriko erraldoia» inauguratu berri zen Eusko Jaurlaritzaren sailen egoitza bihurtuko zela erabakitzeko. Javier Lasagabaster gipuzkoarrari egokitu zitzaion, Etxenike nafarrarekin eta Cuerda alkatearekin batera, erabakia har zedin proposatzea; erabaki hori Jaurlaritzak, Udalak eta Aldundiak berretsi zuten.

Laster, eta Jaurlaritzak ofizialki oraindik «*non nata*» zen Arkitektura Zuzendaritzari aginduta, proiektu bat prestatu zen eta «Lakuako eremu hutsa» urbanizatzeari ekin zitzaion, altzari batzuk eraman ziren eta, batez ere, bulego inprobisatuetan lan egiten hasi ziren, nahiz eta lehenengo hilabeteetan lokatzez betetako gune bat zeharkatu behar izan eta lehenengo lan mahaiak Vital Kutxak zaborretarako zituen material zaharra izan.





*Academia Vasca de Policía y Emergencias, Vitoria-Gasteiz*

*Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, Vitoria-Gasteiz.*




*Imagen de Google Earth.*

*Google Earth-eko irudia.*

No resultó muy distinta la opción del centro de educación especial Arkaute para sede de la Ertzaintza. Sobre la marcha, con una considerable economía de medios, con mucho entusiasmo, y con algunas pocas ideas suficientemente claras, pero firmemente ancladas en una decisión primera sobre ¿cómo se

Arkauti heziketa bereziko zentroa Ertzaintzaren egoitza izateko hautatzeko prozesua ez zen oso bestelakoa izan. Egin ahala, baliabideen eskasia nabarmenarekin, gogo handia jarrita, eta ideia gutxi batzuk argi samar izanik, baina lehenengo erabakietan irmoki oinarrituta; erabaki horiek honako gai hauei buruzkoak izan

ocupan los edificios?, ¿cuándo se puede y se deben de ocupar? Pero sobre todo conociendo en detalle su potencial futuro de transformación interior. Un concepto capital para la arquitectura cual es el cambio tipológico, aquel que informa la vida de los edificios y le proporciona su auténtico espíritu (*elan*) vital.

Aunque para ello sea condición precisa e imprescindible el estar «bien formado» en los detalles, las interioridades y los mil matices internos de la propia disciplina arquitectónica. No valen ilusionismos ni imposturas desde la irresponsabilidad. De arquitectura y construcción se sabe o no se sabe, no valen los esteticismos, la vampirización del gusto, ni otras frivolidades. El estilo y la apariencia son otra cuestión.

Ahí están treinta años después Ajuria.Enea en pleno Paseo de la Senda, Eusko Legebiltzarra en lo que fuera el Jardín Botánico de la Florida, Eusko Jaurlaritza en Lakua como animador de la magna operación urbanística de los años setenta y Ertzantza en lo que en su día fuera construido como Centro de Educación Especial en el pueblo de Arkaute. Todas ellas sedes institucionales con todas sus adaptaciones, transformaciones y puestas al día, nacidas de una decisión firme tanto en el plano arquitectónico como en el institucional.

ziren: eraikinak nola okupatzen dira? Noiz okupatu daitezke eta okupatu behar dira? Baina, batez ere, eraikinaren barne eraldaketako etorkizuneko potentziala zehatz-mehatz ezagututa. Arkitekturaren funtsezko kontzeptua da aldaketa tipologikoa, hots, eraikinen bizitza osatu eta benetako bizi bultzada (*elan*) ematen diona.

Nahiz eta horretarako baldintza zehatza eta ezinbestekoa izan arkitektura diziplinaren beraren xehetasunetan, barnekotasunetan eta milaka barne ñabarduretan «ondo jantzita» egotea. Ez dute balio arduragabekerian oinarritutako ilusionismoek, ezta itxurakeriek ere. Arkitekturaz eta eraikuntzaz badakigu edo ez dakigu; ez dute balio estetizismoek, gustuaren banpirizazioak, ezta beste huskeria batzuek ere. Estiloa eta itxura beste kontu bat dira.

Hor daude, hogeita hamar urte geroago, Ajuria Enea Senda ibilbidean, Eusko Legebiltzarra Floridako Lorategi Botanikoa izandakoan, Eusko Jaurlaritza Lakuan —hirurogeita hamarreko hamarkadako hirigintza operazio erraldoiaren bultzatzaile—, eta Ertzaintza bere garaian Hezkuntza Bereziko Zentro gisa Arkauti herrian eraiki zen eraikinean. Erakundeen egoitzak dira denak, beren egokitzapen, eraldaketa eta eguneratze guztiekin, bai arkitektura mailan, bai erakunde mailan hartutako erabaki irmo baten ondorioz sortu ostean.

# Pequeños pabellones

Siempre he entendido la labor del arquitecto en cualquiera de los puestos de la administración como una dedicación intensa a la tarea proyectual y edificatoria. Evidentemente dentro de los marcos de la total compatibilidad con la dedicación administrativa. Siempre recordaré el ejemplo de Luis Peña Ganchegui que su paso por el Ayuntamiento de San Sebastián, como arquitecto municipal, quedó marcado principalmente por la magnífica Plaza de la Trinidad en la ciudad histórica de San Sebastián, a la que diera forma durante los años de su dedicación administrativa compartida con una intensa actividad proyectual.

En esa línea de conceptos mi actividad constructiva se inicia, recién nombrado Director de Arquitectura, con el proyecto de tratamiento superficial y cierre de la parcela, del gran edificio, que iba a ser un Geriátrico «*non nato*», y tras la formación del Gobierno ya en el mismo mes de mayo de 1980, cuando de manera en extremo precaria, se había empezado a habitar como sede de las Consejerías del recién constituido Gobierno Vasco/Eusko Jaurlaritza.

Varios pabellones de pequeña dimensión se insertan en esta actuación arquitectónica. Principalmente el

# Pabiloi txikiak

Arkitektoak administrazioko edozein lanpostutan egiten duen lana, nire ustez, proiektu eta eraikuntza lanetan buru-belarri jardutea da. Jakina, administrazioko arduraldiarekin erabat bateragarri diren esparruen barruan. Beti gogoratuko dut Luis Peña Gantxegiren adibidea; Donostiako udaletxean egon zen, udal arkitekto gisa, eta Donostiako hiri historikoko Trinitate Plaza bikainari forma eman zion administrazioko arduraldiko urteetan, baina beste proiektu asko ere egin zituen aldi berean.

Kontzeptu ildo horri jarraikiz hasi zen nire eraikuntza-jarduera, arkitektura zuzendari izendatu berritan, geriatriko «non nato»-a izango zen eraikin handiaren gainazaleko tratamendurako eta lurzatiaren itxierarako proiektuarekin, eta 1980ko maiatzean bertan Jaurlaritza sortu ondoren, baldintza biziki txarretan, Eusko Jaurlaritza eratu berriaren Sailen egoitza gisa erabiltzen hasi zenean.

Tamaina txikiko pabiloiak txertzen dira jarduera arkitektoniko honetan. Batez ere sarrerako pabiloia, ga-

pabellón de entrada con sus garitas y los dos pabellones para albergar unos pocos garajes.







El tratamiento superficial de la parcela distinguía cuatro áreas diferenciadas, una amplia zona de aparcamientos, dividida en dos por la verja de cierre de la finca y en la que el protagonismo corresponde al plátano como árbol especialmente adaptado a solicitaciones urbanas diversas en nuestra área geográfica. Modulado como «columnas» cada 5 m y tratando de crear un techo verde entretejido de ramas como elemento necesario para la sombra de un inmenso parking. Las restantes áreas corresponden a un bosque,

rita eta guzti, eta garaje gutxi batzuk izango zituzten bi pabiloi.





Lurzatiaren gainazaleko tratamenduan lau eremu bereizten ziren, aparkaleku eremu zabal bat, finka ixteko hesiak bitan banatzen zuena, eta platanoa izanik protagonista, gure eremu geografikoan askotariko hirigintza eskakizunetara bereziki egokitutako zuhaitza den aldetik. 5 metrotik behin landatu ziren zuhaitzak, «zutabe» gisa, eta adarrez jositako sabai berde bat sortu nahi zen, aparkaleku erraldoian itzala izateko

a un jardín y al edificio propiamente, cuyas rampas de entrada llegan a una plataforma-antepuerta plantada con seis robles como referencia al roble de Gernika.

Así quedó configurado el conjunto de las Consejerías del Gobierno Vasco a partir de aquella reutilización de un edificio construido para residencia geriátrica y que desde su propia inauguración hasta hoy, con muchísimas modificaciones y adaptaciones, incluso el derribo de los principales pabellones ha sido el «santo y seña» más potente de las instituciones de la Autonomía Vasca.

beharrezko elementua baitzen. Gainerako eremuak baso bat, lorategi bat eta eraikina bera ziren; eraikinaren sarrerako arrapalak plataforma-ataurre batera iristen dira; plataforma-ataurre horretan sei haritz landatu ziren, Gernikako haritzaren erreferentzia gisa.

Horrela taxutu zen Eusko Jaurlaritzaren Sailen multzoa, geriatriko bat izateko eraiki zen eraikina berrerabilita. Eraikin hori izan da, inauguratu zenetik gaurdaino, Euskal Autonomia Erkidegoko erakundeen bereizgarri garrantzitsuena, aldaketa eta egokitzapen ugari izan arren eta pabiloi nagusiak eraitsi ere egin diren arren.









*Varias vistas que corresponden a los primeros años del Gobierno Vasco en Lakua.*

*Eusko Jaurlaritzaren Lakuako lehenengo urteetako hainbat ikuspegi.*








*Estampa del pabellón de entrada en Lakua.*

*Lakuan sartzeko pabiloiaren irudia.*




*Esquema de los pabellones garaje en Lakua.*

*Lakuako garaje pabiloien eskema.*



*Intervención urbanizadora sobre la parcela, completando el tratamiento superficial con el área de jardín y la del bosque. Recién sembrados y plantado.*

*Lurzatian egindako hirigintzako esku-hartzea, gainazaleko tratamendua lorategi eremuarekin eta baso eremuarekin osatuz. Erein eta landatu berriak.*

Coincidiendo en el tiempo, hubo que construir un nuevo y pequeño pabellón de garaje, con, asimismo, un mínimo local para el destacamento de Ertzaintza al servicio de la Lendakaritza, es decir el Palacio Presidencial, en la Senda vitoriana. Para ello, conforme se aprecia en el plano adjunto, se amplió el conjunto formado por la casa del Jardinero y el vivero de plantas. Ambos en el borde del límite oeste de la parcela a mitad de su larga dimensión longitudinal.

Aldi berean, garaje pabiloi berri eta txiki bat eraiki behar izan zen, Lendakaritzaren zerbitzura egongo zen Ertzaintzaren destakamentu txiki batekin, hau da, Lehendakaritzako Jauregia, Gasteizko Senda ibilbidean. Horretarako, erantsitako planoan ikus daitekeenez, lorezainaren etxeak eta landare haztegiak osatutako multzoa handitu zen. Biak lurzatiaren mendebaldeko mugaren ertzean, luzetarako dimentsio luzearen erdian.



*Posteriormente se proyectó un segundo pabellón de guardia de mayor tamaño, si bien nunca fue construido.*

*Geroago, guardiako bigarren pabiloi handiago bat proiektatu zen, baina ez zen inoiz eraiki.*


Estado Actual Dependencias
Pabellones para Garaje y Dependencias en el Jardín de Ajuria-Enea
Vitoria-Gasteiz
Diciembre 1980
Arquitecto
V° B° Presidencia
V° B° Dep. Interior
Aparejador


Planta y Alzado General Pabellón A
E = 1:100
Patio
Pabellones para Garage y Dependencias en el Jardín de Ajuria-Enea
Vitoria-Gasteiz
Diciembre 1980
Arquitecto
Vº Bº Residencia
Vº Bº Dep. Interior
Aparejador







Ya bastante avanzada la primera legislatura (1980-1984) tuvo su aprobación presupuestaria un programa de construcción de marquesinas de espera de autobuses interurbanos, a desarrollar en colaboración con los municipios de la Comunidad Autónoma. Fueron muchos los ayuntamientos que se sumaron a la iniciativa. Tratando de buscar un tipo repetitivo y adaptable a diferentes tamaños al tiempo que fuera de una fácil y sistematizada construcción, se optó por una construcción sencilla a base de columnas de hormigón vertido sobre encofrado perdido, ancladas a una base de hormigón convenientemente adaptada al desnivel del terreno, rematada por una cubierta modular fabricada en taller y a base de teja plana sobre tableros hidrófugos con remates de perfil metálico.

Lehen legegintzaldia (1980-1984) nahiko aurreratuta zegoelarik, hiriarteko autobusen zain egoteko markesinak eraikitzeko programa bat onartu zen, Autonomia Erkidegoko udalerriekin lankidetzan garatu beharrekoa. Udal askok egin zuten bat ekimenarekin. Errepikakorra, tamaina desberdinetara egokitzeko modukoa eta, aldi berean, erraz eta modu sistematikoan eraikitzeko modukoa zen mota bat bilatu nahi zenez, enkofratu galduaren gainean isuritako hormigoizko zutabez egindako eraikuntza xume bat aukeratu zen, lurraren desnibelari behar bezala egokitutako hormigoizko oinarri bati ainguratuta zutabeak, eta tailerrean egindako estalki modular batez errematatua; estalkia teila lauz egindakoa zen, metalezko profileko errematedun taula hidrofugoen gainean jarrita.






PABELLON NO URBANO DE ESPERA DE AUTOBUS
ACCESORIOS
ALZADO LATERAL
ALZADO FRONTAL
E: 1/20
SECCION
SEÑALIZACION
PLANTA
E: 1/2
DETALLE DE FIJACION DE MARCO




El reto de este tipo de instalaciones urbanas frente al vandalismo constituyó una auténtica prueba de fuego para poder reflexionar sobre el diseño de este tipo de «chirimbolos», tratando de prescindir de los mecanismos puramente publicitarios que anidan sobre este tipo de pabellones urbanos, de cara a su mantenimiento cotidiano y su conservación duradera.

Horrelako hiri instalazioek bandalismoari aurre egin behar izatea erabakigarria izan zen mota horretako «tramankuluen» diseinuari buruz hausnartu ahal izateko; horrelako hiri pabiloien gainean kokatzen diren eta publizitatea jartzeko baino erabiltzen ez diren mekanismoak alde batera uzten saiatu ginen, eguneroko mantentze-lanei eta kontserbazio iraunkorrari begira.

Bastantes años más tarde y por encargo del Ayuntamiento de Andoain tuve la posibilidad de desarrollar esta misma idea de los pabellones de espera de autobús, en una variante típicamente urbana. Las columnas se cambian por pilares metálicos esbeltos, coronados por un capitel que abarca todo el fondo del pabellón, la cubierta se desarrolla en lámina de cobre sobre armazón en tablillas de madera formando la curva y los bancos de cortesía se apoyan en los pilares centrales de la marquesina

Sigue como mecanismo básico en la organización del pabellón la misma idea de repetitividad del módulo, de modo que se puede elegir la dimensión mayor o menor de la marquesina según la importancia de la parada.

Urte batzuk geroago, Andoaingo Udalak eskatuta, autobusaren zain egoteko pabiloien ideia hori bera garatzeko aukera izan nuen, aldaera hiritar tipiko batean. Zutabeen ordez pilare metaliko lirainak jarri genituen, eta pabiloiaren sakonera guztia hartzen duen kapitel batean amaitzen ziren. Estalkia kobrezko xafla batez egiten zen, egurrezko taulatxoekin egindako armazoi baten gainean, kurba osatuz, eta kortesiazko bankuak markesinaren erdiko zutabeetan bermatzen ziren.

Pabiloia antolatzeko oinarrizko mekanismotzat moduluaren errepikakortasunaren ideia berari eutsi zitzaion; izan ere, hartara, markesinak tamaina handiagoa edo txikiagoa izatea aukera zitekeen, geltokiaren garrantziaren arabera.





En esta acepción desaparece la plataforma de apoyo y su versatilidad para definir la base horizontal de apoyo al tratarse en todos los casos de aceras en las que la horizontalidad es una de las bases de partida.

Según los casos se pueden aplicar accesorios de una mayor protección frente a la lluvia mediante la incorporación de pantallas de cristal en la parte del arco, tal y como aparece en el modelo primero.

Ikusmolde horretan, bermatzeko plataforma desagertu zen, baita bermatzeko oinarri horizontala zehazteko moldakortasuna ere, kasu guztietan espaloiak baitziren eta, horietan, horizontaltasuna baita abiapuntuko oinarrietako bat.

Kasuaren arabera, euritik hobeto babesteko osagarriak aplika zitezkeen, arkuaren aldean kristalezko pantailak jarrita, lehenengo ereduan agertzen den bezala.

# Academia de la Ertzaintza en Arkaute

Los cuatro grandes estandartes del «*riuso*», la reutilización de edificios vitorianos como sede para las incipientes Instituciones, derivadas del Estatuto de Gernika, se completa con la adecuación del «Centro de Educación Especial de Deficientes Mentales de Arcaute». Esta era la denominación oficial, aún en el año 1978, de un centro educativo, que evidentemente en el año 1980, estaba ya totalmente desfasado, y al parecer resultaba anacrónico, para la especialidad formativa para la que había sido y aún estaba siendo utilizado.

Edificio brillante del arquitecto Julio Vidaurre que por su propia definición tipológica como agregación de pabellones, permitía su propia recomposición arquitectónica. Así partiendo de los pabellones existentes y mediante la agregación de otros varios, sirvió para configurar una Academia para la Ertzaintza, en plena llanada alavesa, en el pueblo vitoriano de Arkaute y en relativamente un breve plazo.

El proceso proyectual y constructivo da comienzo con la construcción de un pabellón próximo y semejante en sus características de arquitectura, a los preexistentes,

# Ertzaintzaren akademia Arkautin

«*Riuso*» edo Gasteizko eraikinak Gernikako Estatutuaren ondoriozko erakunde berrien egoitza izateko berrerabiltzeko prozesuak lau estandarte izan zituen, eta azkena «Arkautiko Adimen-urritasuna dutenentzako Heziketa Bereziko Zentroa» egokitzea izan zen. Horixe zen, 1978. urtean ere, ikastetxearen izen ofiziala; jakina, 1980. urtean erabat zaharkituta zegoen, eta, dirudienez, anakronikoa ere bazen, erabili zen eta oraindik erabiltzen ari zen prestakuntza espezialitaterako.

Julio Vidaurre arkitektoaren eraikin bikaina, tipologikoki pabiloien agregaziotzat definituta zegoenez berrantolaketa arkitektonikoa ahalbidetzen zuena. Horrela bada, lehendik zeuden pabiloiak hartuta abiatu eta beste batzuk gehituta, Ertzaintzaren Akademia sortzeko balio izan zuen, Arabako lautada betean, Gasteizko Arkauti herrian eta epe labur samarrean.

Proiektu eta eraikuntza prozesuari hasiera emateko, lehendik zeuden pabiloien antzeko arkitektura ezaugarriak zituen pabiloi bat eraiki zen, gertu, Polizia eta

dedicado a la gran cocina y comedor, para el nuevo complejo formativo en régimen de internado de la que será la Academia Vasca de Policía y Emergencias.

Larrialdietako Euskal Akademia izango denaren barnetegi erregimeneko prestakuntza-konplexu berriaren sukalde handia eta jantokia jartzeko.



*Academia Vasca de Policía y Emergencias, Vitoria-Gasteiz. Imagen de Google Earth.*

*Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia, Vitoria-Gasteiz. Google Earth-eko irudia.*



*Arkaute: pórtico, patio y frontones en obra 1985.*

*Arkauti: arkupea, patioa eta pilotalekuak egiten 1985.*

Como se aprecia en la vista aérea Google Earth, la operación primera consistió en crear una extensa y regular plaza-patio para lo cual se adjuntaron los nuevos cinco pabellones dormitorio, a un lado y otro de lo que sería el nuevo patio. Al tiempo que se creaba una instalación deportiva consistente en seis frontones cubiertos, configurando con el conjunto de estos nuevos pabellones tanto el fondo del patio como planteando los pórticos de doble orden que definen y caracterizan la transformación del tipo edificatorio.

Google Earth aireko ikuspegian ikus daitekeenez, lehenengo lana plaza-patio zabal eta erregularra sortzea izan zen, eta horretarako bost logela pabiloi berriak erantsi ziren, patio berria izango zenaren alde batean eta bestean. Aldi berean, estalitako sei pilotaleku zituen kirol instalazio bat sortu zen, pabiloi berri horiekin batera patioaren hondoa ez ezik, ordena bikoitzeko arkupeak ere eratuz; arkupe horiek eraikuntza motaren eraldaketa definitzen eta ezaugarritzen dute.





*Croquis iniciales: dormitorios y frontones.*

*Hasierako krokisak: Logelak eta pilotalekuak.*

Tras esta primera operación y siguiendo el esquema de axialidades y paralelismos de partida se plantean los restantes pabellones que configuran la implantación primera de la Academia de la Ertzantza en Arkaute. Pabellón de piscina y gimnasios, pabellón de tiro, garajes y talleres, y finalmente el pequeño pabellón para la unidad canina. Tal y como se aprecia en la vista general, de arriba abajo en la vista aérea.

La totalidad del proceso de la construcción de la Academia coincide con la puesta en funcionamiento y evolución de la Dirección de Arquitectura. Desde los primeros croquis a mano durante el verano de 1980 y la temprana incorporación del Arquitecto, jefe de servicio Antón López de Aberasturi, un equipo, creciente en número y complejidad, marcó el inicio y el desarrollo de las obras del propio GV/EJ, así como varias de las inversiones realizadas en la primera legislatura.

Lehen lan horien ondoren, eta abiapuntuko axialtasun eta paralelismoen eskemari jarraituz, Arkautiko Ertzaintzaren Akademiaren lehen ezarpena osatzen duten gainerako pabiloiak planteatu ziren. Igerilekuaren eta gimnasioen pabiloia, tiro pabiloia, garajeak eta tailerrak, eta, azkenik, txakur unitatearen pabiloi txikia. Ikuspegi orokorrean ikusten den bezala, goitik behera aireko ikuspegian.

Akademia eraikitzeko prozesu osoa bat dator Arkitektura Zuzendaritza abiaraztearekin eta zuzendaritzaren bilakaerarekin. 1980ko udan eskuz egindako lehen krokisetatik abiatuta, eta Anton Lopez de Aberasturi arkitektoa zerbitzuburu moduan sartu zenetik, lantalde batek (gero eta handiagoa zen kopuruan eta konplexutasunean) markatu zuen EJren beraren obren hasiera eta garapena, baita lehen legegintzaldian egindako zenbait inbertsio ere.





*Varias vistas del pórtico que enlaza los diversos pabellones.*

*Pabiloiak lotzen dituen arkupearen hainbat ikuspegi.*







*Núcleo central de la nueva sistematización tipológica, marcando la articulación entre los pabellones anteriores a la transformación arquitectónica y los primeros que configuran la nueva Academia. Imagen de Google Earth.*

*Sistematizazio tipologiko berriaren erdigunea, eraldaketa arkitektonikoaren aurreko pabiloien eta Akademia berria osatzen duten pabiloien arteko artikulazioa markatuz. Google Earth-eko irudia.*

También puede apreciarse en la vista Google Earth el pórtico, de nueva factura, que da unidad al conjunto vinculando los pabellones de distintas épocas y distintas configuraciones creando el patio-plaza como espacio público sobre el que gravitan las actividades al aire libre de los Eztzainas. Uno de ellos es el edificio principal representativo —en la parte inferior izquierda en la imagen— que junto con la «masa de los frontones» completa la configuración espacial del conjunto.

Google Earth ikuspegian ere ikus daiteke arkupea, egin berria, multzoari batasuna ematen diona, garai eta konfigurazio desberdinetako pabiloiak lotuz eta patio-plaza espazio publikotzat sortuz; patio horren inguruan egituratzen dira ertzainen aire zabaleko jarduerak. Horietako bat eraikin nagusi adierazgarria da —irudiaren beheko ezkerraldean—, «pilotalekuen masarekin» batera multzoaren konfigurazio espaziala osatzen duena.



*Planta correspondiente a los frontones, en su configuración de un gran espacio cubierto como plaza, y como lugar de formaciones masivas en momentos climáticos adversos. Complementado con los cuatro frontones exteriores en una unidad edificatoria.*

*Pilotalekuei dagokien oinplanoa; estalitako espazio handi bat osatzen dute, plaza moduan, eta eguraldi txarra egiten duenerako formazio masiboak egiteko leku gisa. Kanpoko lau pilotalekuekin eraikuntza unitate bakarra osatuta.*

El siguiente esquema planimétrico corresponde al pabellón dormitorio tipo, así como su fachada posterior, que incorpora y proporciona la base formal del pórtico de doble orden, como elemento clave en la creación del ritmo y proporción del conjunto edilicio transformado.

Hurrengo eskema planimetrikoa logela pabiloi tipoari dagokio, baita atzeko fatxadari ere; fatxada horretan, ordena bikoitzeko arkupearen oinarri formala txertatzen eta eskaintzen da, eraldatu den eraikin multzoari erritmoa eta proportzioa emateko funtsezko elementu gisa.



# Marco para conmemoraciones y otras obras de Arquitectura

# Ospakizunetarako esparrua eta arkitekturako beste obra batzuk

Además de la construcción y de otras transformaciones necesarias, en los edificios para la implantación, o despliegue de la Ertzaintza, Policía Autónoma Vasca, desde la Dirección de Arquitectura fueron desarrolladas otras muchas actividades. En colaboración con diversos Ayuntamientos, y con otros varios Departamentos del mismo GV/EJ.

La propia Dirección fue creciendo e incorporando a otros varios arquitectos, aparejadores y técnicos para desarrollar los proyectos encomendados. Un equipo no muy numeroso en el que colaboramos como arquitectos además de Antón López de Aberasturi, principal responsable de la mayor parte de los proyectos y direcciones de obra, Augusto Terreros, Matxalen Fuldain, Javier Juaristi y José Ramón Marticorena.

Una pequeña muestra de las obras desarrollada por este equipo de la Dirección de Arquitectura entre los años 1980 y 1986 quedan explicadas e ilustradas su-

Ertzaintza ezartzeko edo hedatzeko eraikinak eraiki eta egin beharreko eraldaketak egiteaz gain, Arkitektura Zuzendaritzak beste jarduera asko ere egin zituen. Hainbat udalekin eta Eusko Jaurlaritzako bertako beste sail batzuekin lankidetzan.

Zuzendaritza bera hazten joan zen eta beste hainbat arkitekto, aparejadore eta teknikari sartu ziren agindutako proiektuak garatzeko. Ez zen talde oso handia, eta arkitekto gisa parte hartu genuen Augusto Terreros, Matxalen Fuldain, Javier Juaristi eta Jose Ramon Marticorenak; proiektu gehienen arduradun nagusia eta obra gehienen zuzendaria Anton Lopez de Aberasturi izan zen.

Arkitektura Zuzendaritzako lantalde horrek 1980-tik 1986ra bitarte egindako lanen lagin txiki bat aurki daiteke Arkitekturak trantsizioko garaietan kapitulu

cintamente en las páginas siguientes de este muy amplio capítulo dedicado a las Arquitecturas en Tiempos de Transición.

Dos conmemoraciones de importancia tuvieron lugar durante estos años: la visita del Papa Wojtila en otoño de 1982 y el 200 aniversario del nacimiento de Simón Bolívar. En ambos acontecimientos, la Dirección de Arquitectura intervino en el marco de sus competencias.




oso luze honen hurrengo orrialdeetan, azalpen eta ilustrazioekin.

Bi ospakizun garrantzitsu izan ziren urte horietan: Wojtila Aita Santuaren bisitaldia 1982ko udazkenean, eta Simon Bolivarren jaiotzaren 200. urteurrena. Arkitektura Zuzendaritzak bi gertakari horietan parte hartu zuen, bere eskumenen esparruan.

Euskadiko arte barrokoaren *capolavoro* edo obra nagusia den Loiolako Santutegiaren inguruneko espazioa prestatzeko lanak izan ziren, nagusiki, hau da, lorategietako marrazki berriak, segizio nagusia iristeko eta abiatzeko heliportuak egokitzea, eta haran estu batean eta ekitaldirako sarbide benetan mugatuekin jende asko biltzeko beharrezkoak izan ziren arkitekturako gai logistiko guztiak.

Simon Bolivar Askatzailearen jaiotzaren 200. urteurrenaren ospakizun mota erabat bestelakoa izan zen.

1983ko uztailean izan zen, heroi amerikarraren familiaren jatorrizko herrian, hau da, Bizkaiko Bolibar herrixkan.

Lan garrantzitsuena, San Tomas Parrokia Ziortzako kolegiata zistertar garrantzitsuarekin lotzen zuen harrizko galtzada zaharra «berraurkitzea» izan zen; izan ere, errepide berria egin zenean ez zuen inork erabiltzen eta ia desagertuta geratu zen. Gurutze baten arrastoa zegoen parrokiaren inguruan, eta kolegiataren sarreran gurutze bide luze baten hiru gurutze ere ikusten zirenez, aztarna eta seinale horietan oinarrituta, hondeamakina sartu eta bi kilometro baino gehiagoko galtzada luzea agertu zen, ongi samar kontserbatuta.




Principalmente fue la preparación espacial de los alrededores del Santuario de Loiola, *capolavoro* del arte barroco en Euskadi, con el nuevo dibujo de sus jardines, el acondicionamiento de los helipuertos de llegada y salida de la comitiva principal, así como cuantas cuestiones logísticas de arquitectura fueron necesarias para una concentración multitudinaria de gente en un valle angosto y con accesos ciertamente limitados para el evento.

Un tipo de conmemoración totalmente distinta fue la del 200 aniversario del nacimiento de Simón Bolívar el Libertador.

Lo fue en julio de 1983 y en la Puebla bizkaína, denominada Bolíbar, en la que tiene su origen familiar el héroe americano.

La labor más importante fue la de «redescubrir» la vieja calzada pavimentada en piedra que enlazaba la Parroquia de Santo Tomás con la importante colegiata cisterciense de Ziortza, y que con la construc-

Ospakizun horietarako beste esku-hartze osagarri bat Bolibartarren familiarena —ustez— izan zen hiri etxe zahar bat erostea izan zen. Errementarikua izeneko etxea berritu eta eraldatu genuen, museo bolivartar txiki bihurtzeko eta, hartara, Askatzaile amerikarrak bere orube bizkaitar zaharrarekin zuen lotura adierazi nahi izan zen. Halaxe ikus daiteke hiri ingurune bete-betean dagoen erreferentziako museo etxearen plano eta ikuspegietan.



ción de la nueva carretera quedó en desuso y prácticamente desaparecida. El leve indicio de una cruz en la proximidad de la parroquia y la culminación con las tres cruces de un largo Vía-Crucis en la entrada de la Colegiata, marcaron los indicios y señales para descubrir, a golpe de excavadora, una larga y bastante bien conservada calzada de más de dos km.

Otra intervención complementaria para estos eventos conmemorativos fue la compra de una vieja casa urbana que, al parecer, había pertenecido al linaje de los Bolíbar. Fue la renovación y la transformación de esta casa, llamada Errementarikua, para su conversión en pequeño museo bolivariano, la mesurada operación con la que se quiso significar la relación del Libertador americano con su viejo solar bizkaíno. Tal y como puede apreciarse en las vistas y planos de la casa museo de referencia en pleno entorno urbano.





*Ziortza-Bolivar. Bizkaia.*

# Otras experiencias de Arquitectura

Dos intervenciones, menores, corresponden a sendos proyectos en el puerto donostiarra. Se trata del cierre del conocido tinglado portuario llamado Portaviones, para su utilización, vinculada a la Cofradía de Pescadores como almacén para la custodia de las artes de pesca.

Este curioso tinglado, obra del prestigioso ingeniero Iribarren, corresponde a una antigua ampliación del viejo muelle de la Jarana adentrándose en la dársena mediante una atrevida y pionera estructura de hormigón, sobre este muelle nuevo se eleva una simple estructura regular con techo plano todo ello en hormigón armado. Pronto la especial sensibilidad aristocrática y veraniega donostiarra descalificó estéticamente la edificación vinculándola a un artefacto náutico de orden gigantesco. En consecuencia, desde siempre, esta edificación se conoce como «El Portaviones».

Se trata de un cerramiento liviano, que permite la vista de las artes de pesca a los viandantes, y con una utilización de su cubierta para secado y cosido de las redes.

# Arkitekturako beste esperientzia batzuk

Bi esku-hartze txiki egin ziren; Donostiako portuko proiektu banari dagozkio. Portaviones izeneko portuko aterpe ezaguna ixtea zen kontua, Arrantzaleen Kofradiak erabil zezan arrantza aparailuak gordetzeko biltegi gisa.

Iribarren ingeniari ospetsuak egindako aterpe bitxi hori Jaranako kai zaharraren antzinako handitze bati dagokio: hormigoizko egitura ausart eta aitzindari baten bitartez nasan sartzea; eta kai berri horren gainean egitura erregular sinple bat eraiki zen, sabai lauarekin. Hori guztia hormigoi armatuz egin zen. Handik gutxira, donostiarren eta udatiarren sentsibilitate aristokratiko bereziak eraikina gaitzetsi egin zuen estetikoki, ordena erraldoiko tramankulu nautiko batekin lotuz. Horren ondorioz, eraikin horri «El Portaviones» deitu izan zaio betidanik.

Itxitura arin bat da, eta oinezkoei arrantza aparailuak ikusteko aukera ematen die. Estalkia sareak lehortzeko eta josteko erabiltzen da.




Otra intervención proyectual en el puerto donostiarra fue la renovación de la «puerta urbana» entre puerto y parte vieja donostiarra. Las llamadas Portaletas que formando parte de la «muralla de cierre urbano» contiene un paseo de ronda de excelente factura y utilidad en la percepción de los mejores episodios de la urbanidad en la capital gipuzkoana. Se trata de sustituir el techo plano del viejo portal semiexadonal muy deteriorado, por una parte en semicúpula, reservando el borde para la necesaria continuidad del paseo de ronda.

Donostiako portuan proiektu bidez egindako beste esku-hartze bat portuaren eta Donostiako alde zaharraren arteko «hiri atea» berritzea izan zen. Portaletak esaten zaion eremu hori «hiri itxiturako harresiaren» zati zen eta erronda bide bat du, oso ongi egina eta oso baliagarria Gipuzkoako hiriburuko hirigintzaren gertakari onenak ikusteko. Atari erdiexadonal zaharraren sabai laua oso hondatuta zegoen eta, haren ordez, kupula erdi bat jarri zen zati batean; ertza, berriz, erronda bidearen jarraipenerako utzi zen.







*y la Renovación de las Portaletas.*

*eta Portaletak berritzea.*




*Proyectos para cierre del Portaviones.*

*Portaviones delakoa ixteko proiektuak.*



*Sección de la Renovación de las Portaletas.*

*Portaletak: berrikuntzaren sekzioa.*

En la línea de las colaboraciones con las otras Direcciones del Departamento, insertas administrativamente en la misma Viceconsejería de Ordenación del Territorio, desde la Dirección de Arquitectura se desarrollaron algunos proyectos, tanto de rehabilitación como de obra nueva.




Especial significado tiene una intervención de pequeña dimensión en Leintz Gatzaga. Apenas seis viviendas en pleno centro histórico de una de las Villas gipuzkoanas más características de la implantación medieval en el primer tercio del siglo XIV.

Las viviendas de Leintz representan la adopción del tipo de casa gótica con escalera de un tramo, en una variante en la que en vez de desarrollar una vivienda por tramo de escalera, como en las conocidas viviendas para pescadores de Lekeitio, se superponen dos dúplex, colocando la escalera correspondiente al dúplex, por debajo y encima del tramo intermedio de la escalera general, de acceso al piso alto. Según puede apreciarse en el esquema tipológico adjunto. Otros

Saileko beste zuzendaritzekiko —Lurralde Antolamenduko Sailburuordetza berekoak ziren administratiboki— lankidetzaren ildotik, Arkitektura Zuzendaritzak hainbat proiektu garatu zituen, bai birgaitzekoak, bai obra berrikoak.



Esanahi berezia du Leintz Gatzagako esku-hartze txiki batek. Sei etxebizitza baino ez, XIV. mendearen lehen herenean Erdi Aroko ezarpenaren bereizgarri

ajustes, sobre todo en relación con la superficie útil de las casas, para encajar en el esquema normativo de la protección oficial, permitieron experimentar un tipo de casa apropiado para los Centros Históricos.




El plano corresponde a las cuatro plantas de las dos viviendas en dúplex, superpuestas en cada portal, así como la fachada a Rosario kalea. Una primera vista de las seis viviendas, con sus tres portales, apenas ter-

handienetakoa den Gipuzkoako hiribilduetako baten erdigune historikoan.



Leintzeko etxebizitzak atal bakarreko eskailera duen etxe gotiko motakoak dira, baina aldaera horretan, eskailera atal bakoitzeko etxebizitza bat garatu beharrean —Lekeitioko arrantzaleentzako etxebizitza ezagunetan bezala—, bi duplex gainjartzen dira, eta duplexari dagokion eskailera goiko solairura sartzeko eskailera orokorraren tarteko atalaren azpian eta gai-

minadas en el año 1985. La otra vista corresponde a una imagen Google Earth en la actualidad



Parte importante de la actividad proyectual y edificatoria de la Dirección de Arquitectura se desarrolló en el acondicionamiento de las Delegaciones Territoriales. Así en el edificio comprado con tal finalidad por el GV/EJ y situado en Gran Vía, 85, en Bilbao, como en el edificio de Plaza Lasala en San Sebastián se procedió a la completa adecuación de las oficinas territoriales de los diversos Departamentos.

Paralelamente se elaboró un proyecto de nueva planta para las delegaciones en Álava.

nean jartzen da. Erantsitako eskema tipologikoan ikus daiteke. Beste doikuntza batzuk ere egin ziren, batez ere, etxeen azalera erabilgarriari dagokionez, babes ofizialeko arau eskemarekin bat etortzearren; horri esker, erdigune historikoetarako egokia zen etxe mota bat esperimentatu ahal izan zen.

Planoa duplex motako bi etxebizitzetako lau solairuei dagokie, atari bakoitzean gainjarrita, baita Rosario kalerako fatxadari ere. Sei etxebizitzen lehen ikuspegi bat, hiru atariekin; 1985. urtean amaitu berri zeuden. Beste ikuspegia Google Earth irudi bat da, gaur egungoa.

Arkitektura Zuzendaritzaren proiektu eta eraikuntza jardueraren zati garrantzitsu bat lurralde ordezkaritzak egokitzea izan zen. Esate baterako, Eusko Jaurlaritzak xede horretarako erositako eraikinean (Bilboko Kale Nagusiko, 85. zenbakian dago), eta Donostiako Lasala Plazako eraikinean, sailetako lurralde bulegoak egokitu ziren, erabat.



Aldi berean, oin berriko proiektu bat egin zen Arabako ordezkaritzetarako.

Sobre un solar en la que fuera Plaza de la Hispanidad luego Plaza de la Constitución según acuerdo municipal de 1982, emplazamiento de un importante y significativo concurso de arquitectura para la nueva Casa Consistorial vitoriana, en los años 70, se elaboró un proyecto-tipo de edificio administrativo que debía albergar todas las delegaciones, así como los organismos dependientes del Gobierno. Este edificio no se llegó a construir.

Lehenik Hispanitatearen Plaza eta geroago, 1982ko udal akordioaren arabera, Konstituzio Plaza izan zen orube batean, 70eko hamarkadan Gasteizko udaletxe berrirako arkitektura lehiaketa garrantzitsu eta esanguratsua egin ostean, administrazio eraikin baten proiektu tipoa egin zen; eraikinak ordezkaritza guztiak eta Gobernuaren mendeko erakundeak hartu behar zituen. Eraikin hori ez zuten eraiki azkenean.



*Planta de acceso y alzado principal.*

*Sarrerako solairua eta altxaera nagusia.*



*Axonometría del hall principal.*

*Atondo nagusiaren axonometria.*

Finalmente en este breve catálogo de las experiencias más importantes en la vertiente edificatoria de la Dirección de Arquitectura me interesa señalar la Intervención restauradora sobre la Iglesia Parroquial de San Martín de Tours en Urretxu. El texto que sigue fue leído en la ceremonia religiosa de su inauguración el 21 de Septiembre de 1985 y de alguna manera representa el espíritu de aquellos tiempos de transición en los que cuajaron toda una serie de esperanzas e ilu-

Azkenik, Arkitektura Zuzendaritzaren eraikuntza arloko esperientzia garrantzitsuenen katalogo labur honekin bukatzeko, Urretxuko Tourseko San Martin pa-

siones personales cuyas vivencias marcan toda una vida.



«Es para mí un motivo de satisfacción aceptar la invitación que amablemente me ofrece esta Parroquia de Urretxu para explicar, y quisiera hacerlo muy brevemente, cuales han constituido los aspectos más importantes de estas obras que hoy podemos contemplar aquí.

rrokia elizan egindako zaharberritzeko esku-hartzea aipatu nahi dut. Honako testu hau 1985eko irailaren 21ean irakurri zen eliza inauguratzeko zeremonia erlijiosoan eta, nolabait, bizitza oso bat markatzen duten itxaropen eta ilusio pertsonal ugari gauzatu ziren trantsizio garai haietako espiritua irudikatzen du.

«Niretzat oso pozgarria da Urretxuko parrokia honek atseginez eskaini didan gonbidapena onartzea, gaur hemen ikus ditzakegun obra hauen alderdirik garrantzitsuenak zeintzuk izan diren azaltzeko, eta labur-labur azaldu nahi nuke.

Lehenik eta behin, adierazi nahi dut une oro parrokia komunitate honek planteatu duela gogo, hausnarketa eta sakrifizio handienarekin tenplua konpontzeko eta kontserbatzeko premia. Jose M.ª Iztueta parrokoak prestatu ditu eraikin honek zituen eta konpondu behar ziren balioak jasotzen dituzten txosten guztiak, eta bera izan da une oro Parrokia Komunitatearen eta Eusko Jaurlaritzako Arkitektura Zuzendaritzaren arteko komunikazio emankorraren hari nagusia.

Ekimen-potentzial horrek guztiak aldeko oihartzuna izan zuen Eusko Jaurlaritzaren dagokion Saileko Lurralde Antolamenduko sailburu eta sailburuordeen artean, eta une honetan, horiei guztiei eta, bereziki, gure sailburuari eskerrak eman nahi dizkiot Arkitektura Zuzendaritzarekin izan duten konfiantzagatik, baita Urretxuko parrokiko Tourseko San Martin tenpluan egindako lehen liturgia ospakizun honetara etortzeagatik ere.

Era berean, ezin zoriontsuagoa naiz Setien Monsinorea gotzain jaun txit gorenak egingo duelako inaugu-

Me interesa en primer lugar señalar que, en todo momento ha sido esta Comunidad Parroquial la que con más ahínco, reflexión y sacrificio ha planteado la necesidad de reparar y conservar el Templo. El párroco Don José M.ª Iztueta ha sido quien preparó todos los dossiers en los que se contienen los valores que este edificio presentaba y que se debían reparar, y él ha sido el hilo conductor que en todo momento ha mantenido la fértil comunicación entre la Comunidad Parroquial y la Dirección de Arquitectura del Gobierno Vasco.

Todo este potencial de iniciativa halló eco favorable entre los responsables, tanto Consejeros como Viceconsejeros de Ordenación Territorial del Departamento correspondiente del GV/EJ. y éste es el momento en que quiero, a todos ellos, y singularmente a nuestro Consejero, significar mi agradecimiento por la confianza depositada en la Dirección de Arquitectura, así como por su presencia en esta primera celebración litúrgica en el Templo de San Martín de Tours, Parroquia de Urretxu.

Asimismo, no puedo más que sentirme feliz de que sea el Exmo. Sr. Obispo, Monseñor Setién quien uniendo a su calidad de primer mandatario religioso de la Diócesis, su probada capacidad cultural para conocer, valorar y amar nuestra arquitectura, sea quien oficie el acto litúrgico inaugural, sobre todos estos altares junto a los retablos y en el templo que a nosotros nos ha tocado restaurar.

Fue, como he dicho anteriormente, la Comunidad Parroquial representada en una Comisión, quienes recogiendo un sentir generalizado y encauza-

razioko ekitaldi liturgikoa, Elizbarrutiko agintari erlijioso nagusia izanik, gure arkitektura ezagutzeko, baloratzeko eta maitatzeko gaitasun kultural frogatua duenez, aldare horien guztien gainean, erretaulen ondoan eta guri zaharberritzea egokitu zaigun tenpluan.



Lehen esan dudan bezala, Parrokiako Komunitatea ordezkatzen duen Batzorde batek, iritzi orokorra bildu eta Jose M.ª Iztueta jaunaren irizpideei jarraikiz, gugana jo zuen, bitarteko kultural, tekniko eta, azkenik, ekonomiko bat aurkitzeko itxaropenarekin, atzemateko zaila zen egoera baten irizpena eman genezan. Urretxuko tenplu honen egiturazko alderdi garrantzitsuenak konpontzeko bidea presta zezaketen moduak adierazteko. Egiturazko alderdi horiek tenpluaren beraren existentzia arriskuan jartzen zutela jakinik.

Zuek guztiek dakizuenez, duela hiru urte, herrigune honen funtsezko arkitektura tenplu honek estalkia, hau da, teilatua emana eta sabeldua zegoen eta, horren ondorioz, itogin ugarik estalkiko armadurak

dos bajo los criterios de Don José M.ª Iztueta su Párroco, se dirigió a nosotros con la esperanza de hallar un medio tanto cultural, como técnico y finalmente económico con el fin de dictaminar una situación de hecho, difícil de detectar. Para señalar los cauces que pudieran preparar un camino que condujera a la reparación de los más importantes aspectos estructurales de este templo de Urretxu, conscientes de que atenazaban con insistente peligrosidad su propia existencia.

Todos ustedes conocen como hace tres años, este Templo, arquitectura fundamental de este Casco Urbano, tenía la cubierta, es decir el tejado, cedido y abombado fruto de ello numerosas goteras acrecentaban el peligro de deterioro de las armaduras de cubierta y las filtraciones de agua además de socavar la resistencia del tejado dañaban las cúpulas. Y esta agua en contacto con los viejos cables de electricidad constituían un riesgo permanente de deterioro, incendio y ruina.

No es preciso hacer excesivo hincapié, en lo que este Templo representa y es, en cuanto arquitectura, consustancial al Casco entero de Urretxu o dicho en otras palabras, como elemento primario o monumento por antonomasia de una Villa formada de casas en torno a calles dibujadas en modélico orden, definiendo una más de las numerosas y equilibradas Villas que dan significado a la geografía vasca.

En este sentido, nunca debe de olvidarse que la presencia, el carácter, la fachada de un edificio y más si éste es público, pertenece, por antonomasia, a la colectividad. Tal y como dijera Vitruvio, Es decir, todo edificio en su conjunto forma parte consustancial de la calles o plaza, ágora por excelencia de nuestra vida colectiva.

hondatzeko arriskua areagotzen zuten; gainera, ur filtrazioek, teilatuaren erresistentzia ahultzeaz gain, kupulak kaltetzen zituzten. Eta ur horrek elektrizitate kable zaharrekin kontaktua eginez gero, hondatzeko, su hartzeko eta suntsitzeko arriskua etengabea zen.

Ez da gehiegi azpimarratu behar tenplu honek zer adierazten duen eta, arkitekturaren aldetik, bere-berezkoa dela Urretxuko herrigune osorako; edo beste hitz batzuekin esanda, lehen mailako elementua edo monumentu nagusia da, ordena eredugarrian marraztutako kaleen inguruan eraikitako etxeez osatutako herrian, euskal geografiari esanahia ematen dioten Villa edo herri ugari eta orekatuetako bat izanik.

Alde horretatik, inoiz ez da ahaztu behar eraikin baten presentzia, izaera, fatxada, inorenak izatekotan, kolektibitatearenak direla, eta are gehiago eraikin hori publikoa bada. Vitruviok esan zuenez, eraikin oro, oro har, kalearen edo plazaren bere-berezko zatia da, gure bizitza kolektiboaren agora nagusia.

Horren atzetik etorriko da, baina beti bigarren maila batean, eraikina eredutzat hartzea, eginkizun jakin batzuetarako egokia, artisau orok bere lanbideari ematen dion trebetasunaz eraikia eta askotan aldakorrak diren estilo jarraibideen arabera ordenatutako elementu sinpleagoez osatua.

Jakina, tenpluaren arkitektura izango da, bere adiera orokorrenean, ezaugarri horiek gehien azpimarratzen dituena, hau da, alde batetik, aipatu ditudan ezaugarriak, hirigintzako osagai/osagai kolektibo diren aldetik, eta, bestetik, eraikuntzaren eta konposizioaren osagaiak berak.

Luego vendrá, pero siempre en segundo lugar, la consideración del edificio como tipo, adecuado a unas determinadas funciones, construido con la pericia que todo artesano infunde a su oficio y compuesto a base de elementos más sencillos ordenados según pautas estilísticas, a menudo cambiantes.

Obviamente, será la arquitectura del templo, en su acepción más general, aquella sobre la que se significan con mayor insistencia estas características, es decir los rasgos a los que me vengo refiriendo, como componentes urbano-colectivos, de un lado, y los propio constructivo compositivos, por otro.

Si toda arquitectura tiene vocación de permanencia y sobre todo aquella que constituye edificio público, no es menos cierto, que ninguna puede sustraerse a un continuado cambio a través del tiempo. Y éste cambio inexorable que corresponde a todo edificio constituye el punto de arranque de unos trabajos desarrollados durante estos últimos años.

Más que hablar de restauración, término en exceso ambiguo, me interesa definir los trabajos realizados, en una doble vertiente, si bien totalmente concatenadas ambas. Así por un lado podemos hablar de una reparación a fondo de los elementos estructurales dañados —tejado, armaduras, y torre principalmente— y por otro la recomposición de aquellos elementos arquitectónicos u ornamentales, que vistos u ocultos, por las sucesivas transformaciones del Templo cons-

Arkitektura orok eta, batez ere, eraikin publikoa osatzen duen arkitekturak irauteko bokazioa badu, egia da, halaber, batek berak ere ezin diola ihes egin denboran zehar etengabeko aldaketari. Eta eraikin orori dagokion ezinbesteko aldaketa hori da azken urteotan garatutako lanen abiapuntua.



Zaharberritzeaz hitz egitea baino gehiago —termino anbiguoegia baita—, egindako lanak definitzea interesatzen zait, bi alderdietan, nahiz eta biak erabat kateatuta egon. Horrela, alde batetik, kaltetutako egiturazko elementuak (teilatua, armadurak eta dorrea, nagusiki) sakon konpontzeaz hitz egin dezakegu, eta, bestetik, tenpluak izan dituen eraldaketen ondorioz, agerian edo ezkutatuta dauden eta bere historia arkitektonikoa osatzen duten elementu arkitektonikoak

tituyen su propia historia arquitectónica, así las cúpulas, troneras, óculos, retablos, coro, etc.

La reparación a que hago referencia afecta a la armadura de cubierta, mediante la sustitución de dos vigas en madera en el vano trasero, el más próximo a la torre, el refuerzo de la viga fundamental que soporta el vano del presbiterio, y la sustitución de aquellos solivos que podridos en su cabezal de unión con el muro estaban ruinosos, así como una nueva tablazón impermeable y retejo, utilizando en gran parte el material preexistente.

Análogamente se ha procedido a reparar la torre, limpiando todas las malezas vegetales que dañaban la sillería de piedra; se ha reforzado su trabazón lateral, al tiempo que se han protegido las cornisas con plomo, como forma de ralentizar al máximo el inexorable deterioro de la piedra al paso del tiempo.

En cuanto a la recomposición de elementos del interior del Templo yo indicaría como los más significativos pasos del proceso, el cambio en e l carácter de las cúpulas, para que alterando su significación original de «falsas estereotomías en piedra» se conviertan en propias cúpulas de madera y signifiquen más un trabajo artesanal, próximo a la carpintería naval y por supuesto totalmente ajeno a la cantería arquitectónica, siguiendo modelos muy abundantes, tanto en las arquitecturas de los templos de Lapurdi como en numerosos ejemplos de templos centroeuropeos y nórdicos.

En este punto me interesa señalar que si bien hemos encontrado y estudiado muchos templos nórdicos con bóvedas en madera al igual que los más próximos en Iparralde en ninguno de los casos hemos encontrado casos de cúpulas realizadas con la maestría, sutileza y buen hacer de estas de Urretxu. Sería por poner un ejemplo la diferencia que puede haber entre una tinaja (cúpula) y un barco (bóveda).

edo apaingarriak berrantolatzeaz, hala nola kupulak, kuku leihoak, okuluak, erretaulak, korua, etab.

Aipatu dudan konponketa estalkiko armadurari dagokio; atzeko baoan, dorretik hurbilen dagoen baoan, zurezko bi habe aldatu dira, presbiterioko baoari eusten dion funtsezko habea sendotu da, hormarekin lotzeko burua ustelduta zuten solibak aldatu, entablazio iragazgaitz berria jarri eta teilak berriz ipini dira, hein handi batean lehendik zegoen materiala erabiliz.

Era berean, dorrea konpondu da, eta harrizko harlanduari kalte egiten zioten landare sastraka guztiak garbitu dira; alboko uztardura sendotu da eta, aldi berean, erlaitzak berunez babestu dira, denboraren poderioz harriak izaten duen hondamen saihestezina ahalik eta gehien moteltzeko.

Tenpluaren barneko elementuen berrantolaketari dagokionez, nik, prozesuko urratsik esanguratsuenak aipatzearren, honako hauek adieraziko nituzke: kupulen izaera aldatzea, jatorrian «harrizko estereotomia faltsuak» izatetik zurezko benetako kupula bihur daitezen eta artisau lana gehiago adieraz dezaten, itsas arotzeriatik hurbil eta, jakina, arkitekturaren hargintzatik guztiz urrunduta, ugariak diren ereduei jarraituz, hala Lapurdiko tenpluetako arkitekturetan, nola Europa erdialdeko eta iparraldeko tenpluetako adibide ugaritan.

Puntu honetan, zera nabarmendu nahi dut, Europa iparraldean zurezko gangak dituzten tenplu asko aurkitu eta aztertu baditugu ere, baita gertuago Iparraldean gertuen daudenak ere, kasu bakar batean ere ez dugula aurkitu Urretxuko gangen maisutasun, sotiltasun eta lan onarekin egindako kupularik. Adibide bat ematearren, treska edo tina baten (kupula) eta itsasontzi baten (ganga) artean egon daitekeen aldea litzateke.



Por otro lado, se ha realzado la doble composición de los muros por el interior, en base a recomponer la sillería que existía oculta por el yeso en su parte inferior, constituyendo zócalo y la superior a base de rasear el mampuesto, para lo que ha sido preciso construir *ex novo* en piedra toda la cornisa que señala la separación entre ambas partes. Y es en ese mismo aspecto donde aparecen enmarcadas en el paño de sillería, las viejas troneras que existían ocultas en el muro.

Se ha mantenido, si bien debidamente reparado el Coro, en su significación arquitectónica última, es decir, una vez desaparecidas las extensiones laterales, que, sin duda, algún día existieron. Tal y como lo demuestran los huecos (cajas) que quedan en la parte pétrea de las columnas, como resto de empotramientos de vigas y jabalcones o tornapuntas.

Se ha buscado una nueva configuración del presbiterio, ocupando la parte central del primero y principal de los vanos del Templo, realzando una plataforma, como plinto con peldaños. Todo ello en madera de roble. Como remate de ese presbiterio, aprovechando los materiales del anterior retablo se ha compuesto uno nuevo cuya principal intención es la de reproducir un ábside virtual a través del medio expresivo de la pintura. Ya que el ábside, que, sin duda, remataba este Templo dedicado a S. Martín de Tours, fue suprimido, mutilando el Templo para mejorar la vialidad de la calle exterior.

Esta imagen de un nuevo ábside, obra del pintor navarro Marco J. representa el espacio imaginario de un templo análogo al real y evita el efecto plano del actual muro de testero, y busca una significación propia basada en los principios compositivos renacentistas característicos de este Templo.

Bestalde, hormen konposizioa bikoitza nabarmendu da; barrualdetik, behealdean igeltsuarekin ezkutatuta zegoen harlandua berregin eta zokaloa osatuz, eta goiko aldetik, harlangaitza zarpiatuz. Horretarako, bi zatien arteko banaketa markatzen duen erlaitz osoa *ex novo* eraiki behar izan da, harriarekin. Eta alderdi horretan bertan agertu ziren, harlanduzko horma atalean txertatuta, horman ezkutatuta zeuden kuku leiho zaharrak.

Koruaren azken esanahi arkitektonikoa —hau da, zalantzarik gabe, noizbait hor egon ziren alboko luzapenak desagertu ondoren— bere horretan utzi dugu, baina behar bezala konponduta. Zutabeen harrizko zatian geratzen diren hutsuneek (kaxek) horixe adierazten dute, habe eta besoen landatzeen ondorio diren aldetik.

Presbiterioaren konfigurazio berria bilatu da, tenpluko baoen arteko lehengoaren eta nagusiaren erdialdea hartuz, plataforma bat nabarmenduz, mailadun plinto gisa. Hori guztia haritz-egurrez egina. Presbiterio horren erremate gisa, aurreko erretaulako materialak aprobetxatuz, beste bat osatu da, asmo nagusia pinturaren adierazpen bitartekoaren bidez abside birtual bat erreproduzitzea izanik. Izan ere, Tourseko S. Martin Tourskoari eskainitako tenplu hau —zalantzarik gabe— errematatzen zuen absidea kendu egin baitzen, tenplua mutilatuta kanpoko kalearen ibilgarritasuna hobetzeko.

Marko J. margolari nafarrak egindako abside berriaren irudi honek benetakoaren antzeko tenplu baten espazio imajinarioa irudikatzen du, egungo buruhormaren efektu laua saihestu, eta esanahi propioa bilatzen du, tenplu honen bereizgarri diren Errenazimentuko konposizio printzipioetan oinarrituta.

Efecto virtual por otro lado muy usual en la arquitecturas del renacimiento y aún más en período barroco, como puede ser el Templo de S. Sátiro en Milán y muy desarrollado por pintores de la época, como singularmente representan las pinturas de Massaccio.

La abundante, rica y bien cuidada imaginería con que cuenta el Templo de Urretxu, ha sido toda ella restaurada y ha servido como pauta general para la composición de nuevos retablos en esta configuración del Templo renovado.

Para concluir, no puedo dejar de hacer mención a todo el proceso intelectual y técnico que ha constituido el hilo conductor del proceso constructivo. Ninguna opinión ociosa, por parte de la Comisión Parroquial, y en todo momento juicios benevolentes, profundamente meditados y exentos de toda brizna de dogmatismo estético sobre cada fase de la obra y de la ornamentación nos han proporcionado los suficientes ánimos para adentrarnos, proseguir y concluir esta transformación del Templo de Urretxu que hoy se inaugura.

En idéntico plano tengo que dejar constancia de mi agradecimiento al arquitecto Don Antón López de Aberasturi Chasco, que ha sido sobre quien han recaído las responsabilidades de la toma de decisiones cotidianas, quien en buena armonía con el constructor navarro Don Raimundo Zubillaga y asistido por los aparejadores Don Gabriel Barrenetxea Bujanda, Don José Carballo Iparraguirre y Don Sabino Ruiz Madina han estado día a día por todos estos tejados, cúpulas y piedras dando lo mejor de su buen quehacer profesional.

De los cerca 60 millones de pesetas el total de la obra incluidos retablos, altares y restauración de la imaginería, sus tres cuartas partes han sido costea-

Bestalde, efektu birtual hori oso ohikoa da Errenazimentuko arkitekturan eta, are gehiago, barroko garaian —horren adibide da Milango S. Satiroren tenplua—, eta garai hartako margolariek asko erabiltzen zuten, Massaccioren pinturetan bereziki adierazten denez.

Urretxuko tenpluan irudi asko, aberatsak eta ongi zainduak daude, eta den-denak zaharberritu dira; irudi horiek hartu dira jarraibide orokortzat berritutako tenpluaren konfigurazio honetan erretaula berriak osatzeko.

Amaitzeko, ezin dut aipatu gabe utzi eraikuntza prozesuaren hari bideratzailea izan den prozesu intelektual eta tekniko osoa. Parrokiako Batzordeak ez du alferrikako iritzik eman, eta, une oro, obraren fase bakoitzari eta apaingarriei buruzko iritziak eman dizkigute, borondate onez, dogmatismo estetiko izpirik gabe; iritzi horiek behar adina animo eman digute gaur inauguratzen ari garen Urretxuko tenpluaren eraldaketa prozesu honetan barneratzeko, lanean jarraitzeko eta lanak amaitzeko.

Plano berean, nire esker ona adierazi behar diot Anton Lopez de Aberasturi Chasco arkitekto jaunari, hari egokitu baitzaio eguneroko erabakiak hartzeko ardura. Arkitekto horrek harmonia onean jardun du Raimundo Zubillaga eraikitzaile nafarrarekin, eta Gabriel Barrenetxea Bujanda, José Carballo Iparragirre eta Sabino Ruiz Madina aparejadoreek lagunduta, egunez egun ibili dira teilatu, kupula eta harri hauen tartean, lanbide jardunean euren onen-onena emanez.

Obraren kostua, guztira, 60 milioi pezeta inguru izan da, erretaulak, aldareak eta irudiak zaharberritzea sartuta; zenbateko horren hiru laurdenak Eusko Jaurla-

das por el Gobierno Vasco y la cuarta parte restante ha sido pacientemente recogida entre la comunidad parroquial.

Aspecto éste que junto a las motivaciones específicamente culturales de encontrarnos ante un Templo singular en sus características arquitectónicas, han motivado nuestro interés y el empeño de la Dirección de Arquitectura del Gobierno Vasco para su renovación.

ritzak ordaindu ditu, eta gainerako laurdena parrokia komunitateak bildu du, pazientzia handiz.

Horregatik, eta tenpluaren ezaugarri arkitektonikoak bereziak izateak eragindako motibazio bereziki kulturalak direla eta, gure interesa ez ezik, Eusko Jaurlaritzaren Arkitektura Zuzendaritza tenplua berritzeko tematu izana ere eragin ditu.

# 3

# Renovación de la Real Casa de Campo de MIRAMAR

# MIRAMARreko Errege Landetxea berritzea


Un lugar y una Real Casa característicos de la urbanidad donostiarra / Donostiako gizabidearen bereizgarri diren tokia eta Errege Etxea

Origen, génesis y culminación de un trabajo accidentado / Gorabehera handiko lan baten jatorria, sorrera eta burutzapena

El proceso de renovación continúa pabellón a pabellón / Etengabeko berrikuntza prozesua, pabiloiz pabiloi

Magnífica oportunidad por parte de Musikene / Aukera bikaina Musikeneren eskutik

Desde hoy mirando al futuro / Gaurtik aurrera geroari begira

# Un lugar y una Real Casa característicos de la urbanidad donostiarra

Si tuviéramos que localizar lo más profundo de su esencia, fijar en la geografía aquello que mejor y más ampliamente caracteriza a la ciudad de San Sebastián, probablemente algún historiador avezado se inclinara por el emplazamiento del viejo monasterio de San Sebastián de El Antiguo, donde actualmente se eleva la Real Casa de Campo de Miramar. El edificio con un aire inconfundiblemente agrario inglés que conocemos como el Palacio Miramar.

Un lugar y la serie de edificaciones que se han ido sucediendo en el tiempo, todas las cuales han protagonizado muchos de los hitos fundamentales que marcan el carácter esta ciudad.

Historias como las de la donación del propio monasterio al cenobio navarro de Leire, con falsificaciones escritas de lesa trampa eclesiástica, auténtica historicidad de los bulos y otras *fake news* interesadas, presentes entre nosotros, desde el siglo IX; la temprana adscripción al convento de las dominicas y la tan sor-

# Donostiako gizabidearen bereizgarri diren tokia eta Errege Etxea

Donostia hiriaren muina lokalizatu beharko bagenu, hiria hobekien eta zabalen ezaugarritzen duena geografian kokatu beharko bagenu, ziur asko historialari trebaturen batek Antiguako San Sebastian monasterio zaharraren kokalekua hautatuko luke, gaur egun Miramarreko Errege Landetxea dagoen tokia. Nekazal itxura ingeles nabaria duen eraikinari Miramar Jauregia esaten diogu gaur egun.

Leku hori eta denboran zehar egon diren eraikinak hiri honen izaera markatu duten gertaera garrantzitsuenetako askoren protagonista izan dira.

Hainbat istorio, hala nola monasterioa bera Leireko zenobio nafarrari eman zitzaionekoa, elizaren iruzurrezko idatzizko faltsifikazioekin, IX. mendeaz geroztik gure artean dauden bulo eta beste *fake news* interesatu batzuen benetako historikotasunarekin; domingotarren komentuari egindako atxikipen goiztia-

prendente como premonitoria aventura de la Monja alférez en la España imperial del siglo XV; la brutal sinrazón antimoderna de las tres guerras carlistas que atraviesan gran parte del siglo XIX con la quema —consensuada con el obispado— del monasterio por los carlistas en retirada; parroquia del barrio; la ermita de Loreto y el curioso barbarismo a que dio origen «el pico del loro»; el torreón cilíndrico apuntado, y con remate en vuelo denominado el Tambor durante la tercera guerra dinástica.

Más tarde los veraneos de la Reina Regente Doña M.ª Cristina de Habsburgo a fines del XIX y comienzos del siglo XX, con la construcción de la casa palaciega que se yergue altiva en la actualidad; su adscripción a la república española en tiempos agitados; la devolución a la Familia del Rey y la estancia del Príncipe Juan Carlos en su primer período de formación en España entre los años 50 y 54 del pasado siglo, son otros tantos «episodios donostiarras» que se suceden en este promontorio, y que superan ampliamente el marco de la propia ciudad.

A partir de 1958 se segrega la amplia finca sobre la que se asentaba el palacio y sus anexos, se desarrollan iniciativas inmobiliarias sobre lo que eran caballerizas y garajes al tiempo que se inicia el Paseo Pío Baroja y tras el ajuste en la configuración de la portería, queda definida una parcela menor, que conteniendo los cuerpos del palacio, pasará a propiedad municipal.

En este contexto y tras de la adquisición, por el municipio en 1972, a Don Juan de Borbón, de la propiedad del cuerpo principal del palacio, con sus varios pabellones, mejor o peor articulados en una única edificación, sobre un parque de tres ha. y media, ocurre, como con casi todas la grandes oportunidades de cultura de esta ciudad, se inicia un tiempo,

rra eta Monja alferezak XV. mendeko Espainia inperialean izandako abentura harrigarri bezain iragarlea; XIX. mendearen zati handienean izandako hiru karlistadetako modernotasunaren aurkako zentzugabekeria basatia, atzera zihoazen karlistek —apezpikuarekin adostuta— monasterioa erre zutenekoa; auzoko parrokia; Loreto ermita eta gaztelaniazko «Pico del loro» izenaren jatorriaren barbarismo bitxia; dorre zilindriko puntaduna eta errematea hegalean duena, hirugarren gerra dinastikoan Danborra deitu zitzaiona.

Geroago, Maria Kristina Habsburgokoa erregina erregentearen udaldiak XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, gaur egun harro-harro zut dagoen jauretxea eraikita; garai gorabeheratsuetan errepublika espainiarrari atxiki zitzaion; Erregearen familiari itzuli zioten eta Juan Carlos printzeak bertan egin zuen egonaldia, 1950etik 1954ra bitarte Espainian egin zuen lehen prestakuntzaldian; horiek dira, besteak beste, muino horretan izandako «gertaera donostiarrak», hiriaren beraren esparrua nabarmen gainditzen dutenak.

1958tik aurrera, jauregia eta haren eranskinak kokatuta zeuden finka zabala banandu egin zen, zalditegiak eta garajeak ziren eraikinetan higiezin ekimenak garatu ziren, eta, aldi berean, Pio Baroja pasealekua egiten hasi zen. Atezaindegiaren konfigurazioa doitu ostean, jauregiaren gorputzak biltzen zituen lurzati txikiago bat zehaztu zen, eta udalarena izatera igaro zen.

Testuinguru horretan, 1972. urtean udalerriak jauregiaren gorputz nagusiaren jabetza erosi zion Joan Borboikoari, eraikin bakar batean hobeto edo okerrago artikulatutako pabiloiekin batera, hiru ha eta erdiko parke batean; erosketa horren ondoren, hiri honetako ia kultura aukera handi guztiekin gertatzen den bezala, hitz egiteko eta eztabaidarako aldi oso luze

siempre larguísimo, para debatir y discutir sobre cómo actuar, cuanto invertir y con especial virulencia, sobre el qué y cómo intervenir arquitectónicamente sobre el edificio. Y cuando ya parece que se vislumbra una cierta idea, bajo un consenso incipiente, se vuelve al origen, para seguir discutiendo. Y así hasta completar períodos entre los treinta y los cincuenta años. Y esta referencia vale tanto para el viejo convento de dominicos de San Telmo y para el Kursaal, excepción a la regla la constituyó la renovación de la Tabacalera pero la «norma» sigue vigente y sin duda tiene una aplicación directa en cuanto se refiere al Palacio Miramar.

Ya desde el momento de la adquisición, incluso antes, se pretendía para el palacio su restauración y la instalación en el mismo de servicios de carácter turístico y cultural. Parece que desde un principio se han cruzado dos ideas antitéticas para asentar sobre Miramar: Casino, por un lado y Museo de la Regencia con salas de exposiciones del patrimonio nacional así como otras salas para muestras de pintura y escultura contemporáneas, en el lado contrario.

bat hasi zen, nola jokatu aztertzeko, zenbat inbertitu eta, berezi-bereziki, eraikinean zer egin eta nola egin esku-hartze arkitektonikoak. Eta ideia bat ikusten dela dirudienean, adostasun hasiberri baten pean, berriz ere atzera egiten da eztabaidatzen jarraitzeko. Eta horrela hogeita hamar urtetik berrogeita hamar urtera bitarteko aldiak osatu arte. Eta erreferentzia horrek San Telmo domingotarren komentu zaharraren kasurako ez ezik, Kursaalaren kasurako ere balio du; arau horren salbuespena Tabakalera berritzeko proiektua izan zen, baina «arauak» indarrean jarraitzen du eta, zalantzarik gabe, aplikazio zuzena du Miramar Jauregiari dagokionez.

Erosi zen unetik bertatik, baita lehenago ere, jauregia zaharberritu nahi zen eta bertan turismoarekin eta kulturarekin lotutako zerbitzuak jarri. Badirudi hasieratik bi ideia antitetiko gurutzatu direla Miramarren kokatzeko: kasinoa, alde batetik, eta, bestetik, Erregentziaren Museoa, ondare nazionala ikusgai jartzeko erakusketa aretoekin, eta pintura eta eskultura garaikideen erakusketak egiteko beste areto batzuekin.

# Origen, génesis y culminación de un trabajo accidentado

# Gorabehera handiko lan baten jatorria, sorrera eta burutzapena

Ante la presión inmobiliaria en los sesenta se crea el Instituto Francisco de Ibero como asociación inscrita en el Registro General de Asociaciones desde el año 1966 e inicia una serie de acciones encaminadas a la «protección del edificio y su bosque» para lo que solicita su clasificación como Monumento Histórico-Artístico grado que se consigue en el año 1967. La posición cultural y política del mencionado Instituto es manifiestamente a favor de de rememorar la regencia de la Reina M.ª Cristina y de restaurar arquitectónicamente los pabellones en las claves preconizadas por Viollet le Duc, es decir tratando de «perfeccionar y mejorar» aquello que en origen no se pudo hacer y creando mundos estilísticos sorprendentes dentro del mayor de los eclecticismos de raíz decorativa.

En los convulsos años del primer mandato municipal tras las elecciones de 1979 hay un acuerdo de la comisión permanente del Aytº de San Sebastián para dedicar el palacio a Museo de la Regencia. En esa línea por aquellos tiempos y a tal fin, sin apenas concrecio-

Hirurogeiko hamarkadako higiezinen presioaren aurrean, Francisco de Ibero Institutua sortu zen, 1966az geroztik Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatutako elkarte gisa, eta «eraikina eta basoa babesteko» zenbait ekintza hasi zituen. Horretarako, monumentu historiko-artistikotzat sailkatzea eskatu zuen, eta 1967an lortu zuen sailkapen hori. Institutu hori, alde batetik, Maria Kristina erreginaren erregeordetza gogoratzearen alde zegoen, argi eta garbi, kulturaren eta politikaren aldetik; eta, bestetik, pabiloiak arkitekturaren aldetik zaharberritzearen alde, baina Viollet le Duc-ek aldarrikatutako gakoei jarraikiz, hau da, jatorrian egin ezin izan zena «hobetzen eta hobetzen» saiatuta eta mundu estilistiko harrigarriak sortuta, dekorazioaren arloko eklektizismo handienaren barruan.

1979ko hauteskundeen ondoko lehen udal agintaldiko urte gorabeheratsuetan, Donostiako Udaleko batzorde iraunkorrean jauregia Erregentziaren Museoari eskaintzea erabaki zuten. Garai haietan, eta horretarako, museografiari eta programari dagozkion

nes museográficas y de programa aceptadas, se redacta, bajo auspicios del Instituto Ibero y por encargo de la Consejería de Cultura del GV/EJ, un proyecto de restauración sobre el conjunto de los cuatro pabellones (principal, oficios, servicios y del príncipe). En este proyecto se abunda en la creación de entradas y nuevos accesos al interior del edificio, hasta tres y un par de ellos por sótanos, con la acusada intención de «restaurar en estilo» y enfatizar los valores del hipotético «estilo Reina Ana» para que prevalezcan y se reafirmen sobre los «caracteres campestres» del Miramar de Wornum y Goicoa.



Y mientras se debate sin avanzar un milímetro en la institucionalización de una propuesta coherente, el edificio, apenas sin ningún mantenimiento y cuidado sufre los rigores de la intemperie en una geografía especialmente hostil por los ambientes marinos y su efecto sobre estructuras de hierro, así como por la potencia de los vientos del N.O. en el frente atlántico, con lo que, sobre todo los pabellones menores, acusan y acrecientan peligrosas situaciones que amenazan ruina.

Paralelamente toma cuerpo la iniciativa universitaria de los Cursos de Verano de la UPV/EHU. Será en

zehaztapenik ia onartu gabe, Ibero Institutuaren babespean eta Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren enkarguz, lau pabiloiak (nagusia, ofizioak, zerbitzuak eta printzearena) zaharberritzeko proiektu bat idatzi zen. Proiektu horretan, eraikinaren barrualderako sarrerak eta sarbide berriak sortu ziren, hiru, eta beste pare bat sotoetatik, «estiloan zaharberritzeko» eta «Ana erreginaren estilo» hipotetikoaren balioak nabarmentzeko asmoz, Wornum eta Goicoa-ren Miramarrek zituen «landa-ezaugarrien» gainetik nagusitu eta berretsi zitezen.



Eta proposamen koherente baten instituzionalizazioan milimetro bat bera ere aurrera egin gabe eztabaidan jarraitzen zen bitartean, eraikinak, inolako mantentze-lanik eta zainketarik gabe, aire zabalaren laztasunak pairatzen zituen kontrako duen geografia batean, bereziki, itsas inguruneengatik eta burdinazko egituretan duen eraginagatik, baita iparmendebaldeko haizeek fronte atlantikoan duten potentziagatik ere, eta, beraz, pabiloi txikiak, batez ere, egoera gero eta arriskutsuagoan zeuden, aurri zorian egoteraino.

Aldi berean, UPV/EHUren Uda Ikastaroen unibertsitate ekimena gauzatzen hasi zen. 1985ean, Ricardo Etxeparek eta Ingeniaritza Teknikoko Eskolako bere

1985 cuando Ricardo Echepare y su equipo de la Escuela de Ingeniería Técnica, siguiendo la estela de los cursos de la Universidad Menéndez y Pelayo en Santander dan un gran impulso y sistematizan la iniciativa que con los años irá tomando carta de naturaleza como una experiencia cultural y universitaria de indudable potencia y enriquecedora del contexto vasco en los meses veraniegos.

taldeak, Santanderreko Menéndez y Pelayo Unibertsitatearen ikastaroen arrastoari jarraikiz, ekimenari bultzada handia eman zioten eta sistematizatu egin zuten. Urteak joan urteak etorri, ekimena esperientzia kultural eta unibertsitario nabarmen bihurtu zen, eta udako hilabeteetan euskal testuingurua aberasten zuen.

Ese mismo año se produce un cambio de gobierno en Vitoria-Gasteiz y Luis M.ª Bandrés Unanue es nombrado Consejero de Cultura y Sebastián Aguirreche Oráa es llamado para la viceconsejería del Departamento.

Urte horretan bertan, gobernu aldaketa gertatu zen Gasteizen: Luis M.ª Bandrés Unanue izendatu zuten Kulturako sailburu, eta Sebastián Aguirretxe Oráa Saileko sailburuorde.

Y éste es el período en el que la superposición de estas circunstancias hace que desde la Viceconsejería de Cultura se pida soporte técnico y apoyo a la Dirección de Arquitectura, ambas del Gobierno Vasco, siguiendo en la línea mantenida con otros departamentos. Singularmente Interior, viceconsejerías y direcciones generales, en especial las de Puertos y Vivienda.

Eta aldi horretan gertakari horiek guztiak gainjarri zirenez, Kultura Sailburuordetzak laguntza teknikoa eta babesa eskatu zion Arkitektura Zuzendaritzari —biak Eusko Jaurlaritzakoak ziren—, beste sail batzuekin izandako ildoari jarraikiz. Batez ere, Herrizaingo Saila, sailburuordetzak eta zuzendaritza nagusiak eta, bereziki, Portuetakoa eta Etxebizitzakoa.

Lógicamente la primera labor fue la de analizar en detalle todas las circunstancias que se daban sobre el Proyecto de Restauración del Palacio Miramar, así como verificar su estado de conservación y buscar un encaje y acomodo a las especificidades de aulas, salas de reunión y otras cuestiones relacionadas con los Cursos de Verano.

Logikoa denez, lehenengo lana Miramar Jauregia Zaharberritzeko Proiektuaren inguruko inguruabar guztiak zehatz-mehatz aztertzea izan zen, haren kontserbazio-egoera egiaztatzea, eta ikasgelen, bilera gelen eta Uda Ikastaroekin lotutako beste gai batzuen berezitasunetara nola egokitu bilatzea.

En esta primera aproximación al tema quedó claro y de común acuerdo, que el proyecto presentado por el Instituto Ibero se alejaba considerablemente de las necesidades y las maneras graduales en la renovación del edificio que constituía criterio del Departamento de Cultura del GV/EJ. Y a tal fin se procedió a concluir en aquel punto el contrato, liquidar los compromisos económicos y comenzar una nueva andadura,

Gaiari egindako lehen hurbilketa horretan, argi geratu zen eta denak ados zeuden Ibero Institutuak aurkeztutako proiektua nabarmen urruntzen zela eraikina berritzeko premia eta modu mailakatuetatik, horixe izanik Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren irizpidea. Eta, horretarako, puntu hartan kontratua eten egin zen, konpromiso ekonomikoak kitatu eta ibilbide berri bati ekin zitzaion, pixkanaka, pabiloika, eta oso

en un proceso paulatino, por pabellones, y muy a largo plazo para en primer lugar asentar los Cursos de Verano, y si fuera posible ir asentando en el palacio las grandes instituciones culturales del País Vasco: Euskaltzandía, Euzko Ikaskuntza etc.

El nuevo modo para afrontar la Renovación del Palacio sería realizado por el mismo GV/EJ, significado en la Viceconsejería de Cultura y la Dirección de Arquitectura, actuando en su apoyo la ingeniería Batlle y Nogueras, en aquellos puntos relacionados con el saneamiento de las estructuras arruinadas y la necesaria implantación de unas nuevas instalaciones.

A tal fin y con la decisión de asentar los Cursos de Verano a la mayor brevedad, se comenzó por un análisis exhaustivo de los pabellones menores, es decir Servicios, Oficios y Príncipe, con nuevos levantamientos de planos técnicamente muy pormenorizados. Al tiempo de estudiar el estado de conservación.

epe luzean; lehenik eta behin Uda Ikastaroen kokagune izango zen, eta ahal izanez gero Euskal Herriko kultur erakunde handiak kokatuko ziren gero: Euskaltzandia, Euzko Ikaskuntza eta abar.

Jauregiaren berrikuntzari ekiteko modu berria Eusko Jaurlaritzak berak egin zuen, Kultura Sailburuordetzaren eta Arkitektura Zuzendaritzaren bitartez, eta Batlle y Nogueras ingeniaritza enpresaren laguntzarekin hondatutako egituren saneamenduarekin eta instalazio berrien ezarpenarekin zerikusia duten puntuetan.

Horretarako, eta Uda Ikastaroak lehenbailehen finkatzea erabaki zenez, hasteko, pabiloi txikien azterketa sakona egin zen, hau da, Zerbitzuak, Ofizioak eta Printzea, eta teknikoki zehaztasun handiak zituzten planoen jasotze berriak egin ziren. Aldi berean, kontserbazio egoera aztertu zen.






Estas imágenes muestran la situación de los pabellones Servicios y Príncipe, con anterioridad al inicio de la intervención. Merece analizarse especialmente la difícil, extraña y sin duda mal resuelta articulación entre el pabellón del Príncipe (obra del arquitecto Elizalde en 1920) con Oficios y Servicios (Wornum y Goicoa 1893).

Irudi hauetan Zerbitzuetako eta Printzearen pabiloien egoera ikusten da, esku-hartzea hasi baino lehen. Bereziki aztertzea merezi du Printzearen pabiloiaren (Elizalde arkitektoak 1920an egina) eta Ofizio eta Zerbitzuetako pabiloiaren (Wornum eta Goicoa 1893) arteko artikulazioa, zaila eta bitxia izateaz gain, zalantzarik gabe, gaizki ebatzia dagoelako.

La operación proyectual resultó bastante sencilla. Conservando en todo momento el tipo edificatorio de cada uno de los pabellones se aligeraron distribuciones allí donde la supresión de las particiones lo hacía posible tanto desde el punto de vista tipológico como constructivo. Manteniendo y/o renovando, tanto los aspectos materiales y de detalle en todo lo que hubiera que reconstruir o reparar. Todos los modelos a copiar los teníamos en el propio edificio: escaleras secundarias, aleros, parteluces, carpinterías, tarimas, zócalos etc. En una abundancia y con múltiples variantes en su aplicación concreta, y así para cada una de las solicitaciones de la nueva distribución, en las salas de mayor tamaño no había más que acertar en el modelo a copiar.

Proiektua egiteko operazioa nahiko erraza izan zen. Pabiloi bakoitzaren eraikin motari une oro eutsiz, banaketak arindu ziren bai tipologiaren aldetik, bai eraikuntzaren aldetik zatiketak kendu zitezkeen tokietan. Berreraiki edo konpondu behar ziren gauza guztietan materialei eta xehetasunei eutsiz eta/edo horiek berrituz. Kopiatu beharreko eredu guztiak eraikinean bertan genituen: eskailera sekundarioak, teilatu hegalak, mainelak, arotzeriak, tronadurak, zokaloak eta abar. Ugari eta aldaera askotakoak beren aplikazio zehatzean, eta horrela banaketa berriaren eskakizun bakoitzerako, gela handienetan kopiatu beharreko ereduan asmatu besterik ez zegoen.

Constituyó un principio de referencia reforzar todas las estructuras portantes, o en caso de su reconstrucción afianzar el pincipio vitruviano de la «firmitas», ya que en parte y por el momento de su construcción las estructuras de forjados metálicos adolecían de una gran esbeltez que hacían de los suelos, elementos de la arquitectura en exceso débiles fueran propensos a las vibraciones inconvenientes.

Erreferentziako printzipioa izan zen sostengu egitura guztiak indartzea, edo, berreraikiz gero, Vitruvioren «firmitas»-aren printzipioa sendotzea; izan ere, neurri batean eta eraikitzeko unean, forjatu metalikoen egiturak hain ziren lirainak, ezen zoruek —arkitekturaren elementu ahulegiak— komeni ez ziren bibrazioetarako joera handia baitzuten.

En estas imágenes se muestra el marco resumen de esta primera intervención sobre el palacio. En la parte superior las plantas de acceso, la primera y el bajocubierta en el pabellón del Principe. En la parte inferior los tres alzados del pabellón de Servicios (desde el acceso de entrada de Mirakontxa y sus dos facha-

Irudi hauetan, jauregian egindako lehen esku-hartze horren laburpen esparrua ikusten da. Goialdean, Printzearen pabiloiko sarrerako solairua, lehenengoa eta teilatupea. Behealdean, Zerbitzuetako pabiloiaren hiru altxaerak (Mirakontxako sarbidetik eta parkera begirako bi fatxadak), eta Elizaldek 1920an

das al parque) así como la fachada principal del pabellón proyectado por Elizalde en 1920 y encajado con dificultad en el conjunto palaciego. Aparece señalado en el plano de modo punteado el pabellón de Oficios, cuya renovación será la segunda operación arquitectónica en Miramar.

proiektatutako pabiloiaren fatxada nagusia, jauregiaren multzoan nekez txertatu zena. Planoan, puntuz markatuta, Ofizioen pabiloia agertzen da; pabiloi hori berritzea izan zen Miramarreko bigarren esku-hartze arkitektonikoa.







Vista de la nueva escalera, según modelo preexistente en Palacio, como vía de evacuación del aula más importante del pabellón de Servicios. En la siguiente imagen aparece, desde el interior, el nuevo parteluz hacia el parque, en el frente del pabellón del Príncipe.

Eskailera berriaren ikuspegia, Jauregian lehendik zegoen ereduaren arabera, Zerbitzuetako pabiloiko ikasgelarik garrantzitsuena ebakuazio bidetzat. Hurrengo irudian, parkera begirako mainel berria agertzen da, barrutik, Printzearen pabiloiaren aurrealdean.

Los Cursos de Verano iniciaron su andadura en Miramar en la edición correspondiente a 1989 y uno de los primeros tenía por enunciado: «Los tiempos del eclecticismo», cuya inauguración corrió a cargo de Don Julio Caro Baroja. Al tiempo, se pudo realizar en pasillos, vestíbulos y otras galerías una extensa expo-

1989an hasi ziren Uda Ikastaroak Miramarren, eta lehenengo edizioetako baten izenburua honako hau zen: «Los tiempos del eclecticismo (Eklektizismoaren garaiak)»; Julio Caro Baroja jaunari egokitu zitzaion ikastaroa inauguratzea. Denborarekin, korridore, atari eta beste galeria batzuetan erakusketa handi bat egin

sición de las arquitecturas que responden a ese enunciado en el que sin duda puede encajarse el mundo arquitectónico del Palacio Miramar.

Esta primera intervención, fue fuertemente contestada desde su inicio por el Instituto Francisco de Ibero.



Se judicializó todo el proceso llevándolo a los tribunales bajo acusaciones de «lesa cultura», impugnando tanto la utilización universitaria como otras afrentas y expolios en la arquitectura y los muebles del palacio. Eran los tiempos en se promulgaba la Ley del Patrimonio Hº Español, con la idea de evitar las exportaciones ilegales de obras de arte, aunque dio pie para judicializar toda obra de renovación de arquitectura.

No consiguieron las impugnaciones judiciales el parar las obras, lo que constituye el máximo éxito de toda operación entorpecedora. Las sentencias, como siempre ocurre en los procesos largos y complicados como son todos los de la Arquitectura, fueron dejando a cada uno en su sitio pero las obras continuaron y el

ahal izan zen izenburu horrekin bat zetozen arkitekturei buruz eta, zalantzarik gabe, Miramar Jauregiaren mundu arkitektonikoa hor sar daiteke.

Lehen esku-hartze horri gogor kontra egin zion Francisco de Ibero Institutuak hasieratik.



Prozesu osoa auzitara eraman zen, «lesa cultura» salaketapean, eta unibertsitateko erabilera zein jauregiko arkitekturan eta altzarietan izandako espoliazioak eta bestelako laidoak inpugnatu zituzten. Ga-

proceso se culminó. Hoy continúan los cursos, cuando han pasado ya 31 años.

Este modo de impugnación de las obras monumentales de especial valor cultural se continuó con el Teatro Romano de Sagunto, en su renovación de Giorgio Grassi y Manuel Portaceli y aún pende una sentencia para derribar lo construido. También se intentó paralizar la ampliación del Museo del Prado en el claustro de Los Jerónimos que desarrollaba el arquitecto R. Moneo, aunque tampoco en este caso consiguieron sentencia paralizadora de modo cautelar, de las obras en curso.



Tres vistas del Pabellón del Príncipe. En la superior aparece la sala habilitada en los espacios bajo cubierta y su comunicación con el piso segundo, comunicados ambos mediante una escalera lineal escindida en dos tramos (ver imagen anterior), modelo análogo a otra de las escaleras preexistentes en la configuración del pabellón proyectada por Elizalde en 1920.

La segunda muestra la nueva apertura de este pabellón al jardín, sustituyendo el primitivo muro ciego

rai hartan, Espainiako Ondare Historikoaren Legea aldarrikatu zen, artelanen legez kanpoko esportazioak saihesteko asmoz, baina arkitektura berritzeko obra guztiak auzibidera eramateko aitzakia ere izan zen.

Inpugnazio judizialek ez zuten lortu obrak geldiaraztea, hori baitzen eragozpen operazioaren helburu nagusia. Arkitekturako prozesu judizial guztiak luze eta korapilatsuak dira, eta horrelako prozesuetan beti gertatzen den bezala, epaiak bakoitza bere lekuan utzi zuen, baina obrek aurrera jarraitu zuten eta prozesua amaitu egin zen. Gaur egun, 31 urte igaro direnean, ikastaroek aurrera jarraitzen dute.



Balio kultural bereziko monumentuetako obrak inpugnatzeko bide horri jarraitu zitzaion Saguntoko Erromatar Antzokiaren kasuan, Giorgio Grassi eta Manuel Portacelik berritu behar zutenean; eraikitakoa eraisteko epaiaren zain daude oraindik. R. Moneo arkitektoa Pradoko Museoa handitzeko lanak egiten ari zen Jeronimotarren klaustroan, eta obra horiek geldiarazten ere saiatu ziren, baina kasu horretan

por dos columnas que muestran el «orden de alturas» entre los pabellones palaciegos más notables y los más secundarios y domésticos, el cierre al jardín se resuelve mediante parteluces.

En la tercera, nueva configuración del pasillo que articula el Pabellón del Príncipe en planta baja en su definición renovada.



ere ez zuten lortu abian ziren obrak kautelaz geldiarazteko epairik.

Horregatik, «kulturaren ospakizun» izatea nahi dugun hauei hasiera emateko, ba al da modu egokiagorik iritziak entzutea baino? Betiere ongi oinarrrituriko iritziak izanik, arkitekto on bati dagokion bezala eta Eskola honen eta Eskolako jendearen aspaldiko lagun bati dagokion bezala.

Ignasi de Solá Morales Errealismoaren ortodoxiarik koherenteenen barruan trebatutako arkitektoen belaunaldi bati dagokio, bere susperraldiaren alde borrokatzen ari zen Mugimendu Moderno bateko kide zen, eta hirurogeiko hamarkada haietan erakargarritasun bereziz garatu ziren bi hirik osatu zuten binomio batean: MILAN eta BARTZELONA hirien binomio boteretsu eta izaera hiritarrekoan.

Ernesto Rogers (Milan) eta José Antonio Coderch (Bartzelona) arkitektoen figurak ezinbesteko erreferentzia ziren garai hartan gazteak ziren arkitektoen belaunaldientzat, hala nola Rossi, Gregotti, Grassi, Bohigas, Correa eta beste batzuentzat, eta, beraz, baita gu guztiontzat ere, garai hartan Bartzelonako Arkitektura Eskola gogotsu bateko ikasle bizargabe ginenontzat. Garai hartan Diagonal hiribideko eraikina inauguratu zuen eskola hark.

Ignasik Donostian egin zuen lehen agerraldia Arkitekturako II. Astean izan zen, hizlari gisa, Scolari, Fratricelli, Caro Baroja, Carlos Sambricio eta beste batzuekin batera. Gogoan dut, halaber, Ignasik geure gozagarri eta entretenigarri eman zuen hitzaldia Louis Khan-i buruzkoa izan zela, «klasizismoaren paradigma Mugimendu Modernoaren barruan». Soláren hitzaldiak oihartzun oso positiboa izan zuen gu guztion artean.

Azkenik, oker ez banaiz, Arkitekturako Aste haietan Oriol Bohigas, Esteve Bonell, Sabater eta beste lagun asko, goi mailakoak guztiak ere, etorri ziren kezkak

ter, y otros muchos amigos, me parece que los Antonios de Sevilla, Cruz y Ortiz también se dejaron caer por Donostia, y os puedo asegurar que entre la flebitis del general Franco en el primer aviso de que por fin se iba, y las propuestas siempre calculadamente provocativas de Oriol Bohigas, aquellas Semanas de Arquitectura y sus corolarios en el restaurante Derteano marcaron momentos inolvidables y fundamentales para la consolidación de esta Institución en la que estamos hoy.

Desde entonces sin duda ha llovido mucho, ha habido inundaciones y sequías, han pasado ciertamente muchas cosas, en el campo de la arquitectura entendida en su sentido más general, y de eso vamos a tratar este año a lo largo de nuestra programación de cultura.

Estos quince años tan trabajosos y de perfiles inciertos, no pueden entenderse al margen de unas cuantas cosas que han acontecido a nuestro alrededor. En el campo de la Arquitectura es preciso señalar que mientras que tras la muerte del Dictador un extraño optimismo nos sumió a todos, operaciones como las del Scalectric de Atocha, o la Puerta del Sol ambas en Madrid; frente a la ilusión Olímpica y las Áreas de nueva centralidad en Barcelona, o el control desde la Arquitectura de las grandes operaciones de transformación urbana y territorial en Euskadi, todas ellas se pusieron en marcha, pero una vez más, sólo los catalanes y su inveterado *seny* por las cuestiones de forma arquitectónica, llegaron airosos a la meta final.

Se consumó la apoteosis arquitectónica y urbana de la Olimpiada en el marco de unos Juegos modélicos, pero ahí están arrastrándose en fracasos, las farolas de la Puerta del Sol, el episodio de la vieja estación de Atocha en Madrid. Y nosotros los vascos, mientras tanto seguimos descuartizándonos en mil banderías de mendigos, buscando implorantes un chusco de pan, en el patio de monipodio del panorama arquitectónico español.

partekatzera. Iruditzen zait Sevillako Antonioak, hau da, Cruz eta Ortiz ere Donostian izan zirela, eta ziurtasunez esan dezaket, alde batetik, Franco jeneralaren flebitisaren —azkenean bazihoala adierazten zuen lehen abisuan— eta, bestetik, Oriol Bohigasen proposamen beti kalkulatuki probokatzaileen artean, Arkitektura Aste haiek eta Derteano jatetxeko korolarioak une ahaztezinak eta funtsezkoak izan zirela gaur gauden erakunde hau sendotzeko.

Harrezkero, zalantzarik gabe, euri asko egin du, uholdeak eta lehorteak izan dira, gauza asko gertatu dira, egiazki, arkitekturaren esparruan, zentzurik orokorrenean ulertuta, eta horretaz arituko gara aurten gure kultura programazioan.

Profil gorabeheratsuko hamabost urte gogor hauek ezin dira ulertu gure inguruan gertatu diren hainbat gauza alde batera utzita. Arkitekturaren alorrean, adierazi behar da diktadorea hil ondoren baikortasun bitxi batek hartu gintuela guztiok, eta hainbat operazio martxan jarri ziren, hala nola Atotxako Scalectric edo Puerta del Sol operazioak —biak Madrilen—, edo Olinpiaden ilusioa eta zentralitate berriko arloak Bartzelonan, edo Euskadiko hiri eta lurralde eraldaketako operazio handiak arkitekturatik kontrolatzea; horiek guztiak martxan jarri ziren, baina katalanak eta arkitektura kontuengatik duten antzinako *seny*a baino ez ziren helmugara iritsi.

Olinpiadaren apoteosi arkitektoniko eta urbanoa gauzatu zen Joko eredugarri batzuen esparruan, baina porrotean murgilduta daude oraindik 4. Puerta del Soleko farolak, Madrilgo Atotxako geltoki zaharreko gertakizuna. Eta bien bitartean, guk, euskaldunok, eskaleen hamaika alderdikeriatan zatitzen jarraitzen dugu, ogi koskor bat erreguka, Espainiako arkitekturaren panoramako monipodio patioan.

Este es el aspecto que me interesa resaltar de Cataluña, y de la actuación de Ignasi de Solá Morales, cuando escribe el memorable artículo de *El País:* la CAÍDA DE LOS DIOSES.

Salía en defensa no de unas personas, sino de una manera de entender y de hacer la Ciudad y de construir un marco para un acontecimiento: Los Juegos Olímpicos. Aquella opción se convirtió en la triunfadora y hoy todo el mundo recuerda los Juegos como el éxito de la civilidad y de la cultura, y a nosotros nos corresponde valorar el mérito de actitudes como las de Ignasi Solá, y tantos otros, en defensa de una idea de Arquitectura que anima la construcción de una Ciudad.

Entre nosotros, aquí en Euskadi, las cosas se desarrollan de una manera más triste, aquí proliferan los ataques interesados hacia las ideas de progreso arquitectónico, y todo el mundo calla.

Es en base a todo este estado de cosas en relación con la Arquitectura, por lo que esta Escuela quiere abrir un debate amplio, desde el que establecer las correspondientes plataformas, para incorporar un pensamiento de cultura, a nuestra realidad arquitectónica y urbana actual.

Muchas gracias al profesor Solá por su presencia entre nosotros, vaya mi consideración por sus méritos académicos y profesionales y en el convencimiento de que todo progreso de la cultura arquitectónica, es un progreso civil y democrático de hondo calado e importancia general, dejo la palabra a Ignasi de Solá Morales.

Octubre, 1992

Horixe da Kataluniatik eta Ignasi de Solá Moralesen jardunetik nabarmendu nahi dudan alderdia, *El País* egunkarian artikulu gogoangarri hau idatzi zuenean: la CAÍDA DE LOS DIOSES.

Ez zituen pertsona jakin batzuk defendatzen, baizik eta hiria ulertzeko eta egiteko eta gertakari baterako esparru bat eraikitzeko modu bat: Olinpiar Jokoak. Aukera hura suertatu zen garaile, eta gaur egun mundu guztiak gogoratzen ditu Joko haiek gizalegearen eta kulturaren arrakastatzat, eta guri dagokigu Ignasi Soláren eta beste hainbaten jarreren meritua baloratzea, Hiri baten eraikuntza bultzatzen duen Arkitekturaren ideia bat defendatu zutenean.

Gure artean, hemen Euskadin, gauzak modu tristeagoan garatzen dira, hemen arkitekturaren aurrerabidearen ideien aurkako eraso interesatuak nonahi gertatzen dira, eta inork ez du ezer esaten.

Gauzak egoera horretan zeudenez Arkitekturarekin loturik, Eskola honek eztabaida zabal bat ireki nahi du, egungo arkitekturan eta hiri errealitatean kulturaren gaineko pentsamendu bat txertatzeko plataformen ezarpenerako oinarri izan dadin.

Eskerrik asko Solá irakasleari gure artean egoteagatik; nire begirune osoa duzu zure merezimendu akademiko eta profesionalengatik, eta kultura arkitektonikoaren aurrerapen oro sakoneko eta garrantzi orokorreko aurrerapen zibil eta demokratikoa dela sinestuta, Ignasi de Solá Moralesi emango diot hitza.

1992, urria

## Pasado y futuro de la Escuela de Arquitectura

Este curso inauguramos edificio, y celebramos el 15 aniversario de la fundación de la Escuela de Arquitectura de la Universidad del País Vasco.

Algún día convendría que se estudiaran desapasionadamente y en profundidad las razones en la tardanza en implantarse aquí una Universidad, ocho siglos de retraso respecto a París y Bolonia parecen en principio demasiados, para culpar de ello únicamente al general Franco.

Ahora esperemos que ni la indiferencia, ni la incuria, ni el ultraburocratismo que nos caracteriza, ni por supuesto los dinamiteros de la *borroka* cotidiana, entorpezcan su adecuado funcionamiento y expansión.

La Escuela de Arquitectura surgió como una iniciativa de lo que hoy llamaríamos la «sociedad civil». Apoyándose en el clima favorable creado por los pioneros de la Universidad en Guipuzcoa, un grupo de arquitectos empeñados en las cuestiones teóricas, culturales y didácticas de nuestro oficio, nos solíamos reunir, discutir y organizar conferencias y otros actos culturales. Para ello se buscaron apoyos y dineros de aquí y de allá. Recuerdo que el Colegio de Arquitectos, Bankoa, Kutxa, Caja Laboral etc. nos dieron algunos «cuartos» que nosotros nos encargamos de multiplicar en su valor colectivo, por medio de las conferencias y enseñanzas de Moneo, Grassi, Aldo Rossi, los Hermanos Krier, Lacarra, Caro Baroja, etc.

En aquel momento pensábamos que era mejor que los «genios» nos «enseñaran a pescar, y no que nos traje-

## Arkitektura Eskolaren iragana eta etorkizuna

Ikasturte honetan eraikina inauguratu dugu, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Arkitektura Eskolaren sorreraren 15. urteurrena ospatuko dugu.

Egunen batean komeniko litzateke sakontasunez eta inolako grinarik gabe aztertzea ea zeintzuk izan diren hemen unibertsitate bat ezartzeko atzerapenaren arrazoiak; izan ere, Paris eta Boloniarekiko zortzi mendeko atzerapena izatea, hasiera batean, gehiegitxo da, antza, horren errua Franco jeneralari bakarrik egozteko.

Orain espero dezagun ez axolagabekeriak, ez arduragabekeriak, ez bereizgarri dugun ultraburokratismoak, ez eta, jakina, eguneroko borrokako dinamitariek ere, ez dutela oztopatuko unibertsitatearen funtzionamendu eta hedapen egokia.

Arkitektura Eskola gaur egun «gizarte zibila» deituko genukeenaren ekimen gisa sortu zen. Unibertsitateko aitzindariek Gipuzkoan sortutako aldeko giroan oinarrituz, gure ofizioko gai teoriko, kultural eta didaktikoekin tematutako arkitekto talde bat biltzen hasi ginen, eztabaidatzeko eta hitzaldiak eta bestelako kultur ekitaldiak antolatzeko. Horretarako, han eta hemen bilatu genituen laguntza eta dirua. Gogoan dut Arkitektoen Elkargoak, Bankoak, Kutxak, Caja Laboralek eta abarrek «sos» batzuk eman zizkigutela, eta gu diru horren balio kolektiboa biderkatzeaz arduratu ginen, Moneo, Grassi, Aldo Rossi, Krier anaiak, Lacarra, Caro Baroja eta abarren hitzaldi eta irakasbideen bitartez.

Une hartan uste genuen hobe zela «jenioek» «arrantzan erakustea guri, arraina prestatuta eta zerbitzatuta

ran el pescado cocinado y servido». Hoy por el contrario parece que este criterio ha cambiado.

Estas iniciativas cristalizaron, a través de Luis Peña Ganchegui, en su debut como profesor de la Escuela de Barcelona y con el inestimable apoyo de Oriol Bohigas, consiguieron la creación de un curso delegado de la Escuela de Barcelona aquí, Aquel fue el embrión de la Escuela de hoy.

Para ello hizo falta que Rectores como Gregorio Monreal aquí, y Julián Fernández en Barcelona, nos comprendieran y ayudaran; que un número de alumnos, que se elevó el primer curso hasta 28, confiaran en nosotros; y finalmente, que Garay, Linazasoro, Peña Ganchegui, Unzurrunzaga y yo mismo nos atreviéramos a iniciar esta bella andadura que nos ha conducido hasta el día de hoy que con 700 alumnos y 50 profesores, constituimos uno de los pilares seguros de la UPV/EHU en su campus de Gipuzkoa.

No sería justo el olvidar en esta andadura al Patronato Municipal, desde el que la Concejal M.ª Pilar Larraina vertió sus mejores esfuerzos en hacer posible el sustento económico de la Escuela en sus primeros balbuceos, ni el acordarnos de nuestro Director-Comisario Don Luis de León y Vigiola (q.e.p.d), que con tanta habilidad, convirtió en sencillo lo que se adivinaba como imposible.

Hoy la Institución está en marcha y cara al futuro optamos claramente por profundizar y mejorar en la calidad de la enseñanza, evidentemente en sus aspectos más conceptuales y menos epidérmicos. Aquellos aspectos, que enseñen al alumno el «¿donde? y ¿cómo? pescar», en vez de venderles o regalarles el pescado, y de paso el inculcarles que nunca lo hagan en aguas revueltas.

ekartzea baino». Gaur egun, aldiz, badirudi irizpide hori aldatu egin dela.

Luis Peña Gantxegi Bartzelonako Eskolako irakasle lanetan hasi berria zen, eta haren bitartez eta Oriol Bohigasen laguntza eskergarekin, Bartzelonako Eskolako ikastaro delegatu bat sortu zen hemen: gaur egungo Eskolaren ernamuina.

Horretarako, hainbat faktore ezinbestekoak izan ziren: Gregorio Monreal errektoreak hemen eta Julian Fernandez errektoreak Bartzelonan gu ulertzea eta laguntzea; ikasleek —lehen ikasturtean 28 izan ziren— gugan konfiantza izatea; eta, azkenik, Garay, Linazasoro, Peña Gantxegi, Unzurrunzaga eta ni neu ere ausartu egin behar izan ginen ibilbide eder honi ekiten. Gaur egun, 700 ikasle eta 50 irakasle ditu gure eskolak, eta EHUren Gipuzkoako Campuseko zutabe irmoenetako bat gara.

Ez litzateke bidezkoa izango ibilbide honetan Udal Patronatua ahaztea, bertatik M.ª Pilar Larraina zinegotziak ahaleginik onenak egin baitzituen hastapen horietan Eskolaren sostengu ekonomikoa ahalbidetzeko, ezta Luis de León Vigiola gure zuzendari-komisarioa (goian bego) ez gogoratzea ere, trebetasun biziki handiz lortu baitzuen guri ezinezkoa iruditzen zitzaiguna zerbait sinple bihurtzea.

Gaur egun, erakundea martxan dago, eta etorkizunari begira, irakaskuntzaren kalitatean sakondu eta hobetzearen alde egiten dugu argi eta garbi, kontzeptuzkoak diren eta hain epidermikoak ez diren alderdietan. Ikasleari «non eta nola arrantzatu» irakasten dioten alderdiak, arraina saldu edo oparitu beharrean, eta, bide batez, ur nahasietan arrantza inoiz egin ez dezaten ulertaraztea.

Queremos que esta Escuela sea una referencia válida, de la calidad en la construcción física, y en la ordenación territorial de nuestro País y aspiramos a hacer perceptible nuestra presencia en la Sociedad Vasca de hoy. No podemos permitir que la Arquitectura de más prestigio, los diseños de productos que se fabrican en Euskadi, la planificación de nuestro entorno urbano, sean ajenos a nuestra Escuela, y menos que se compren pagando elevados *royalties* externos, como precio de una falta de confianza en nuestra propia capacidad.

La Escuela quiere estar abierta a toda la sociedad, y por ello invita a que se nos conozca, para lo cual puede representar una magnífica ocasión el «Acto Académico por excelencia» de la licenciatura en Arquitectura.

A tal fin invitamos a cuantos se interesan por estos temas, de la Arquitectura, el diseño y la Ciudad, a los actos de corrección pública y exposición de los Proyectos Fin de Carrera, que con periodicidad trimestral se llevan a cabo en la Sala de Grados del nuevo edificio que acabamos de estrenar.

19 de noviembre de 1992

Eskola hau baliozko erreferentzia izatea nahi dugu, gure herriaren eraikuntza fisikoaren eta lurralde antolamenduaren kalitatearen erreferentzia, eta gure presentzia gaur egungo euskal gizartean hautematea nahi dugu. Ezin dugu onartu ospe handieneko arkitektura, Euskadin fabrikatzen diren produktuen diseinua eta gure hiri ingurunearen plangintza gure eskolatik kanpoko zerbait izatea, eta are gutxiago kanpoko royalty handiak ordainduz eros daitezen, geure gaitasunarekiko konfiantzarik ezaren ordain gisa.

Eskolak gizarte osoari irekita egon nahi du, eta, horregatik, gu ezagutzera gonbidatzen du gizartea; horretarako, Arkitekturako lizentzia eskuratzeko «ekintza akademiko nagusia» aukera paregabea izan daiteke.

Horregatik, arkitekturarekin, diseinuarekin eta kalitatearekin lotutako gaiak interesatzen zaizkion oro gonbidatu nahi ditugu Karrera Amaierako Proiektuak jendaurrean zuzendu eta erakusteko ekitaldietara; ekitaldi horiek hiru hilean behin egiten dira, estreinatu berri dugun eraikin berriko Gradu Aretoan.

1992ko azaroaren 19a

## Apertura del curso 1993-94 por el Director de la ETSASS

Esta conferencia se enmarca en la voluntad del EQUIPO de DIRECCIÓN de la Escuela, para significar de una manera evidente y sobre todo culturalmente comprometida, cada uno de los períodos lectivos, ES DECIR CADA UNO DE LOS CURSOS, de este Centro, empeñado en la enseñanza de la Arquitectura.

Y ello queremos hacerlo siempre desde la propia especificidad de la ARQUITECTURA, dentro de la Universidad del País Vasco, esta nuestra EUSKAL HERRIKO UNIBERSITATEA.

Es en este sentido y con esta voluntad, iniciada desde la reciente inauguración de nuestro Gran Edificio, construcción que materializa adecuadamente y de una manera brillante la institucionalización de la Escuela. Es el sentido desde el que venimos manteniendo la idea de dedicar al comienzo de cada curso, y como reflexión del hacia donde vamos, unas horas lectivas, para glosar y exponer para todos vosotros, alumnos, exalumnos y profesores, unas IDEAS que se fundamenten en el Pasado, sean de actualidad en el Presente y sobre todo sirvan de PAUTAS DE FUTURO para esta Escuela, en la indeclinable responsabilidad de liderar el protagonismo de la Arquitectura en la Euskal-Herria de hoy.

Para ello y siguiendo el inmutable principio de la «auctoritas» clásica, que tan positivos resultados ha proporcionado en el campo de la comunicación de los conocimientos, trataremos tanto hoy como en años venideros, de acercar a este auditorio, a las personas que conociendo nuestra trayectoria, y que desde un prestigio general indubitado, nos puedan ayudar más en el camino de esclarecer principios y

## 1993-94 ikasturtearen hasiera Donostiako Arkitektura Goi Eskola Teknikoko zuzendariaren eskutik

Arkitekturaren irakaskuntzarekin tematuta dagoen Eskola honetako ZUZENDARITZA TALDEAk ikastaldi bakoitzari, hau da, IKASTURTE BAKOITZAri garrantzia eman nahi dio, argi eta garbi, eta, batez ere, kulturaren aldetik konpromisoa hartuta; borondate horren barruan sartzen da hitzaldi hau.

Eta hori guztia ARKITEKTURAren berezitasunetik bertatik egin nahi dugu beti, Euskal Herriko Unibertsitatearen barruan, gure EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAren barruan.

Zentzu horretan eta borondate horrekin hasi zen, hain zuzen ere, gure Eraikin Handia duela gutxi inauguratu zenetik; eraikin horrek behar bezala eta ezin hobeto gauzatzen du Eskolaren instituzionalizazioa. Zentzu horretan, ikasturte bakoitzaren hasieran, eta nora goazen hausnartzeko bidetzat, eskola ordu batzuk hartu ohi ditugu Iraganean oinarritutako IDEIAK aipatu eta azaltzeko zuei guztiei, ikasle, ikasle ohi eta irakasle, orainaldian gaurkotasunekoak direnak eta, batez ere, Eskola honentzat ETORKIZUNERAKO JARRAIBIDE izango direnak, gaur egungo Euskal Herrian arkitekturaren protagonismoaren buru izateko erantzukizun bazterrezinean.

Horretarako, eta «auctoritas» klasikoaren printzipio aldaezinari jarraikiz —emaitza oso positiboak eman baititu ezagutzen komunikazioaren arloan—, bai gaur egun, bai datozen urteetan, gure ibilbidea ezagutzen duten pertsonak entzule horiengana guztiengana hurbiltzen saiatuko gara, euren zalantzan jarri ezinezko izen on orokorretik abiatuta, printzipioak argitzeko bidean gehiago lagun diezaguten eta, baterako hausnar-

tras una reflexión en común, nos conduzcan a una acción constructiva y de progreso con suficientes garantías de acierto.

Seguidamente tiene la palabra el profesor Iñaki Galarraga en la presentación de un viejo conocido de esta casa, tenemos en esta mesa al Catedrático de la Escuela de Arquitectura, y además un brillante personaje público como Concejal electo de Cultura, del importante consistorio de la catalana ciudad de Barcelona: Oriol Bohigas.

Xavier Unzurrunzaga

**Presentación**

Presentar a ORIOL BOHIGAS y además el hacerlo ante vosotros, en el nuevo edificio de la Escuela de Arquitectura de la Universidad del País Vasco, constituye un motivo de alegría y sin duda un momento propicio para rememorar tiempos y anécdotas, algunas de entre ellas, tejidas en común por muchos de nosotros, en ese amplio telar, que constituye la Arquitectura, como marco de la articulación de unas relaciones civiles teñidas de progreso.

Conocí a Oriol al comienzo del curso 64-65, en las aulas de la Escuela de Arquitectura de Barcelona, y ya en aquel año tuve la fortuna de colaborar con él en la Organización del Viaje de Curso, es decir hace 29 años que todos los alumnos del segundo curso tuvimos la ocasión de conocer *in situ* las arquitecturas vibrantes de Torres Blancas de Paco Oiza, los poblados de vivienda mínima y socialmente comprometida, las metafísicas disquisiciones de A. Fernandez Alba y también por qué no decirlo, las excentricidades de aquella fábrica de chorizos en Segovia, obra del per-

keta baten ondoren, eraikuntzako eta aurrerabideko ekintza batera eraman gaitzaten, ongi egiteko nahikoa bermerekin.

Jarraian, etxe honetan aspaldiko ezaguna den Iñaki Galarraga irakasleak hartuko du hitza. Mahai honetan dugu Arkitektura Eskolako katedraduna eta, gainera, Bartzelonako udal garrantzitsuan kulturako zinegotzi hautatu duten pertsonaia publiko bikaina: Oriol Bohigas.

Xavier Unzurrunzaga

**Aurkezpena**

Pozgarria da ORIOL BOHIGAS aurkeztea eta, gainera, zuen aurrean aurkeztea, Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Eskolaren eraikin berrian, eta, zalantzarik gabe, une egokia da denborak eta pasadizoak gogora ekartzeko, arkitekturak eratzen duen ehungailu zabal honetan gutariko askok elkarlanean ehundutakoak izanik pasadizo horietako zenbait, aurrerabidez jantzitako harreman zibilak artikulatzeko esparru gisa.

64-65 ikasturtearen hasieran ezagutu nuen Oriol, Bartzelonako Arkitektura Eskolako geletan, eta urte hartan Ikasturteko Bidaiaren antolaketan harekin batera lan egiteko zortea nuen. Bestela esateko, duela 29 urte, bigarren mailako ikasle guztiok Paco Oizaren Dorre Zurien arkitektura bibratzaileak in situ ezagutzeko aukera izan genuen, etxebizitza minimo eta sozialki konprometituko herrixkak; A. Fernandez Albaren disgresio metafisikoak eta, zergatik ez esan, Segoviako txorizo fabrika hartako bitxikeriak. Fabrika hura pertsonaia pintoresko eta, zalantzarik gabe, arki-

sonaje pintoresco y sin duda buen arquitecto, próximo al Opus Dei pamplonica, que fue Curro Inza, a quien Oriol definía como «un Arquitecto representante legítimo de las de Derechas medievales.»

Fue también en aquél viaje a Madrid, durante las tertulias nocturnas que sosteníamos alumnos y profesores en el sótano del Café Gijón, bella obra de interiorismo del fallecido Curro Inza, es decir —OPUS INTERIORIS—, tertulias que duraban hasta avanzada la madrugada, cuando conocí de la boca de Oriol aspectos importantes e ideas, que luego con el transcurso de los años, he podido comprobar constituían base importante de su pensamiento y han constituido las pautas y programas de su intensa acción pública.

Así cuando surgía la vena política de la discusión, en la que Oriol conocía con precisión aspectos del primer Lehendakari de Euskadi José Antonio de Agirre y Lekube, o bien se interesaba y nos preguntaba por las andaduras en la Barcelona de entonces de ese ilustre conspirador vasco llamado Jorge de Oteiza, o nos ilustraba la biografía del arquitecto-historiador y político catalán Puig y Cadafalch, no me imaginaba yo con exactitud que en aquellas actitudes éticas, políticas, culturales y arquitectónicas de mi profesor Oriol Bohigas se contenían aspectos importantes de lo que iba a fructificar con los años en acciones que condujeran a la brillantez urbana de la Barcelona Olímpica, o en los enunciados potentes y llenos de civilidad, en la mejor linea de los enunciados programáticos y eslóganes del Movimiento Moderno en arquitectura, como que «Una Ciudad o lo es para la cultura o esa Ciudad no será».

Pasando, por la alta cualidad de numerosos y bellos edificios arquitecturados con primor y especial cuidado, desde el Estudio Martorell-Bohigas-Mackay, hasta la acompasada y frecuente aparición de varios

tekto on baten lana izan zen; hain zuzen ere, Iruñeko Opus Deiren inguruko Curro Inza jaunarena, eta Oriolek honela definitzen zuen: «Erdi Aroko eskuindarren ordezkari legitimoa den arkitektoa».

Madrilerako bidaia hartan ere, Café Gijóneko sotoan —Curro Inza zenaren interiorismo lan ederra, hau da, OPUS INTERIORIS—, ikasle eta irakasleek izaten genituen gaueko solasaldietan, goizaldera arte irauten zuten horietan, Oriolen ahotik alderdi garrantzitsuak eta ideiak ezagutu nituen eta, gero, urteen poderioz, haren pentsamenduaren funtsezko oinarri eta haren ekintza politiko biziaren jarraibide eta programa izan zirela egiaztatu ahal izan dut.

Horrela, eztabaidan politika sartzen zenean —Oriolek zehatz-mehatz ezagutzen zituen Jose Antonio Agirre Lekube Euzkadiko lehen lehendakariaren zenbait alderdi—, edo Jorge Oteiza izeneko euskal konspiratzaile ospetsu horren garai hartako Bartzelonako gorabeheren berri jakin nahi zuen eta galdetzen zigun, edo Puig i Cadafalch arkitekto-historialari eta politikari katalanaren biografia azaltzen zigun, baina ez nuen nik zehatz-mehatz imajinatzen nire irakasle Oriol Bohigasen jarrera etiko, politiko, kultural eta arkitektoniko horiek Bartzelona Olinpikoaren hiri distira ekarriko zuten ekintzetan gauzatuko zirenik urteen poderioz, edo gizalegez betetako eta indar biziko enuntziatuetan, arkitekturaren Mugimendu Modernoko enuntziatu programatiko eta esloganen ildo onenari jarraikiz, esate baterako «Hiri bat edo kulturarentzat da, edo Hiri hori ez da hiri izango».

Martorell-Bohigas-Mackay estudiotik egindako eraikin eder eta ugarien —abilezia eta arreta bereziz arkitekturatuak— nolakotasun gorenarekin hasi eta liburuen agerpen erritmiko eta ugariarekin bukatu —teoriako li-

libros, sean de teoría, o de interpretación histórica o bien constituyan una sutil y comprometida autobiografía arquitectónica, debidos todos ellos a la expresiva pluma de Oriol Bohigas.

El segundo «encontronazo», sea dicho entre comillas y como superlativo de un encuentro más largo y profundo que lo habitual, fue para mí encontrar, a mi ya ex-profesor Oriol, en LA CAPUTXINADA del 27 de noviembre del año 66, aquella memorable encerrona de tres días en un convento forzosamente obligada, y en la que todos los demócratas que gritábamos con fuerza y desde distintas organizaciones e instancias del ámbito estudiantil, LIBERTAD, coincidimos en un acto político-cultural de hondas consecuencias simbólicas y de profundas resonancias, en las que nos encontramos, y echamos raíces de amistad, los que ansiábamos la democracia y a través de ella una cierta libertad.

Tras estos dos encuentros, que entiendo como los más significativos para relatar hoy aquí, muchos más han sido nuestros encuentros y desencuentros con Oriol, a lo largo de tantos años, y en los que nuestra pasión en favor de la arquitectura, y de una acción política para entronizar a la misma en el concierto de la más progresiva cotidianeidad, nos ha llevado a veces a militar en campos coincidentes y a veces en campos adversos, pero esa es otra historia, sin duda de menor importancia y de la que quizá hablemos otro día.

Esta Escuela debe en gran parte su propia existencia, a los buenos oficios y afinadas estrategias de Oriol Bohigas, y sin duda toda mi generación de arquitectos podemos hallar en él una referencia de compromiso de progreso político, arquitectónico y cultural.

buruak izan daitezke, edo interpretazio historikoko liburuak, edo autobiografia arkitektoniko sotil eta konprometitua izan daitezkeen liburuak—, lan guzti-guztiak Oriol Bohigasen luma iraunkorraren ondorio dira.

Bigarren «topaketatzarra» —komatxo artean esanda, ohikoa baino topaketa luzeago eta sakonago baten adierazgarri— zera izan zen niretzat, jada irakasle ohia zen Oriol, 66ko azaroaren 27ko KAPUTXINADAn topatzea; hiru eguneko egonaldi gogoangarria egin behar izan genuen derrigorrez komentu batean, eta demokrata guztiok gogotsu eta ikasleen esparruko erakunde eta instantzia desberdinetatik honako hau oihukatzen genuen: ASKATASUNA. Ondorio sinboliko eta erresonantzia sakonak izan zituen ekitaldi politiko-kultural batean elkartu ginen, eta adiskidetasunaren sustraiak errotu genituen demokrazia, eta, horren bidez, nolabaiteko askatasuna nahi genuenok.

Bi topaketa horien ondoren —gaur hemen kontatzeko esanguratsuenak iruditu zaizkit—, askoz gehiago izan dira Oriolekin hainbeste urtetan izan ditugun adostasunak eta desadostasunak, eta arkitekturaren aldeko geure grinak eta arkitektura egunerokotasunik mailakatuenaren kontzertuan uztartzeko ekintza politiko baten aldeko geure grinak batzuetan bat datozen esparruetan eta beste batzuetan kontrako esparruetan militatzera eraman gaitu, baina hori beste kontu bat da; zalantzarik gabe, garrantzi txikiagoko kontua da eta, agian, beste egun batean hitz egingo dugu horri buruz.

Eskola honek Oriol Bohigasen jardunbide on eta estrategia finei zor die, hein handi batean, bere izatea bera eta, zalantzarik gabe, arkitektoen nire belaunaldi osoarentzat erreferentzia bat izan daiteke; hain zuzen ere, politikaren, arkitekturaren eta kulturaren arloetako aurrerabidearekiko konpromisoaren erreferentzia.

La trayectoria de Oriol se enraiza con sencillez y con fuerza, en lo más avanzado de la tradición arquitectónica catalana, ahí está su admiración por Domenech y Montaner, Puig y Cadafalch y por Moragas entre otros, para corroborarlo, pero nunca lo ha hecho, desde un rancio y casposo historicismo como estilo, a la manera de los carcas de un postmodernismo cruel y caníbal de la historia, sino siempre tirando con fuerza del carro de una Historia, escrita con mayúsculas, y desde la idea de Modernidad.

La coyuntura de encontrarse con un País culturalmente más vertebrado que el nuestro, a la muerte del Dictador, junto con la fuerza, convicciones, claridad de ideas y capacidad de generar ideales arquitectónico-urbanos de Oriol han hecho de su ciudad, la Barcelona de todos, una referencia obligada en la Cultura europea de este Siglo.

Visto este panorama en el día de hoy, desde esta Euskadi en exceso disgregada, y en plena carnicería cultural, en la que ni la unificación del idioma que lograra Pompeu y Fabra hace tantos años allá, nos hace crear consensos enciclopédicos, aunque sean tardíos, aquí.

Donde nuestra pugna cultural no deja de ser el corolario de una cruel y sangrienta caza del adversario, y en un contexto sin más referentes generales y de progreso, de que «por fin llegue la ansiada Paz».

En este contexto debemos de mirar con respeto, admiración y agradecimiento a amigos como Oriol Bohigas, entre cuyos méritos se encuentra también y además, el de haber construido junto con Luis Peña Ganchegi, el embrión universitario de lo que hoy está creciendo con personalidad propia, y constituye esta Escuela de Arquitectura, pilar sin duda importante de nuestra Universidad.

Oriolen ibilbidea erraz eta indartsu sustraitzen da Kataluniako tradizio arkitektonikoaren alderdi aurreratuenean; horren adierazgarri da, besteak beste, Domenech i Montaner, Puig i Cadafalch eta Moragasekiko miresmena, baina inoiz ez du egin historiaren postmodernismo anker eta gizajale bateko atzerakoien antzera, historizismo zaharkitu eta kasposoa estilotzat hartuta; baizik eta beti letra larriz idatzitako Historia baten orgari indarrez tiratuta, eta Modernotasunaren ideiatik abiatuta.

Diktadorea hil zenean, kulturalki gurea baino egituratuagoa dagoen herrialde batekin topo egin izana, gehi Oriolen indarra, sinesmenak, ideien argitasuna eta ideal arkitektoniko-urbanoak sortzeko gaitasuna, horren guztiaren ondorioz, bere hiria, guztion Bartzelona, ezinbesteko erreferentzia bihurtu da mende honetako europar kulturan.

Panorama hori ikusita, gaur egun, gehiegi sakabanatutako Euskadi honetatik, eta kultura sarraski bete-betean, Pompeu Fabrak duela urte asko han lortutako hizkuntzaren bateratzeak ere ez digu adostasun entziklopedikorik sorrarazten, nahiz eta berantiarrak izan hemen.

Gure kultura borroka aurkariaren ehiza krudel eta odoltsuaren ondorio baino ez da, eta gure testuinguruan erreferente orokor eta aurrerabidearen erreferente bakarra «azkenean bakea iristea» da.

Testuinguru horretan, begirunez, mirespenez eta esker onez begiratu behar diegu Oriol Bohigas bezalako lagunei; izan ere, haren merituen artean dago, baita ere eta gainera, Luis Peña Gantxegirekin batera unibertsitatearen enbrioia eraiki izana, gaur egun berezko nortasunez hazten ari den unibertsitatearen enbrioia; hortik, Arkitektura Eskola hau sortu zen, zalantzarik gabe, gure Unibertsitatearen zutabe garrantzitsua izanik.

Este curso va a tener lugar a iniciativa de los alumnos un merecido homenaje y reconocimiento a la labor de nuestro amigo y profesor Luis Peña Ganchegi, por ello, abundando en esa misma idea, ahora y antes de que dé comienzo la conferencia de Oriol creo que es de justicia que cuantos componemos esta Institución que él contribuyera a fundar, brindemos un sincero aplauso de agradecimiento y bienvenida al amigo de siempre, a esta nuestra casa común de la Arquitectura en Euskadi.

Ongi etorri Oriol denon etxera.

Noviembre, 1993

Ikasturte honetan, ikasleek merezitako omenaldia eta aintzatespena egingo diote Luis Peña Gantxegi gure lagun eta irakaslearen lanari. Horregatik, ideia hori bera zabalduz, orain eta Oriolen hitzaldia hasi baino lehen, uste dut bidezkoa dela erakunde hau osatzen dugunok, berak sortzen lagundu zuen erakundea osatzen dugunok esker oneko eta ongietorriko txalo zaparrada bero bat ematea gure betiko lagunari, arkitekturak Euskadin duen gure etxe komun honetara.

Ongi etorri Oriol denon etxera.

1993, azaroa

## La música y los energúmenos, o el elogio póstumo a un maestro

Al parecer, resulta que fuimos legión, los amigos de Don Julio Caro Baroja (q.e.p.d.). ¿Dónde queda pues, lo huraño de su carácter, y el cascarrabias, que algunos, aunque de manera cariñosa, adivinaron encontrar en el corazón de Itzea? Día a día, van apareciendo tantas glosas, artículos y recuerdos, de quienes compartieron, tertulia, trabajo u otros tipos de colaboración con el maestro recientemente fallecido, que casi uno se avergüenza, de la necesidad que siente para escribir unas lineas, como reconocimiento intelectual, moral y fundamentalmente un recuerdo hacia la figura carismática de Don Julio.

No estoy seguro que un carácter tan antirretórico como el del anteúltimo Jaun de Itzea, aceptara gustoso tanto elogio, e incluso si no reaccionaría con cierto desdén y distancia, ante alguno que otro arrimar ascuas a sardinas interesadas, o tanta «historia e historieta ad probandum», para hacerse venir bien las cosas, como algunas de las que se han escrito con motivo del fallecimiento de una personalidad tan polifacética.

De los mil temas que me sugieren algunas conversaciones, que tuve la fortuna de cruzar con Don Julio, hay uno que me parece oportuno, y más en el día de hoy. Se trata de la extraña y estentórea sensibilidad del General Saliquet, en torno al fenómeno musical.

Nos contaba, que en plena posguerra española, en aquellos años obscuros de comienzos de los cuarenta, y asistiendo el joven Caro Baroja a un concierto, pudo apreciar cómo desde el centro del auditorio y en posición emergente en uno de los palcos, el conocido General Andrés Saliquet y Zumeta, quien siempre había brillado por la más dura insensibilidad humana puesta al servicio y en favor de la cruel efectividad de las armas, se emo-

## Musika eta energumenoak, edo hilondoko gorazarrea maisu bati

Dirudienez, legioa izan ginen On Julio Caro Barojaren (goian bego) adiskideak. Non dago, beraz, bere izaera betizua eta zenbaitek, maitekiro bada ere, Itzearen bihotzean aurkitzen asmatu zuten erretxina? Egunez egun, berriki zendutako maisuarekin solasaldiak, lana edo bestelako lankidetzaren bat partekatu zituztenen hainbeste glosa, artikulu eta oroitzapen agertzen dira, ezen bat ia lotsatu ere egiten baita lerro batzuk idazteko sentitzen duen beharraz, On Julioren irudi karismatikoarekiko aitorpen intelektual, moral eta, funtsean, oroitzapen gisa.

Ez nago ziur Itzeako azken-aurreko jaunarena bezalako izaera antierretoriko batek atseginez onartuko ote zituzkeen hainbeste laudorio, eta, are gehiago, nolabaiteko mespretxu eta distantziaz erreakzionatuko ez ote zukeen baten edo bestearen aurrean —nork bere sorora ur—, edo hainbeste «istorio eta kontakizun ad probandum», gauzak ongi etorrarazteko, hala nola pertsonaia hain polifazetikoaren heriotzaren harira idatzi diren hainbat.

Zorionez On Juliorekin izan nituen elkarrizketek iradokitzen dizkidaten mila gaien artetik, bada bat egokia iruditzen zaidana, eta are gehiago gaurko egunean. Saliquet jeneralak musikaren inguruan zuen sentsibilitate bitxi eta zaratatsua da.

Kontatu zigunez, Espainiako gerraostean, berrogeigarren hamarkadaren hasierako urte ilun haietan, eta Caro Baroja gaztea kontzertu batera joan zen eta zera ikusi ahal izan zuen, auditoriumaren erdialdean eta palkoetako batean toki nabarmenean zegoela, Andrés Saliquet Zumeta jeneral ezaguna —beti nabarmendu izan zen armen eraginkortasun krudelaren aldeko eta zerbitzurako bere giza bihozgabetasun gogorrenagatik— nola hunkitu zen eta

cionaba y perdía en sensibilidades y otras melancolías, ante los compases de una melodía romántica.

Aquel mismo día Don Julio se prometió a sí mismo desconfiar de un medio expresivo, la música, que pudiera emocionar por igual al prepotente y sanguinario general victorioso como al tímido intelectual brillantemente dubitativo, que se escondía en el anonimato de una de las butacas de la sala auditorio.

Años más tarde con motivo de una exposición de dibujos, el día de la inauguración, fuimos a coincidir con el autor de los mismos. Allí fue expuesto un jocoso diseño. Figuraba una brillante y extensa sala de conciertos, en la que se erguía inconfundible, un militar lleno de medallas, en medio de un gentío más discreto. Todos aparecían embelesados por los sonidos. Al preguntarle por la identidad del personaje, en seguida espetó su autor, «he querido representar al general Saliquet». El cuadro venía rubricado con un «Iulius Carus pinxit»

De todo esto se pueden extraer dos consecuencias, de primera urgencia. O abominamos de la música, de una vez por todas, aunque ello resultará a más de uno muy difícil, sobre todo tras escuchar a Rostropovich, a María Bayo o a Maxim Vengerov, o a quienes nos hemos dejado embelesar por esa mozartiana «Flauta mágica». O bien invitamos a tanto bárbaro y salvaje, de los que llenan la fauna de nuestra cotidianeidad, para que asistan a músicas y otros conciertos brillantes, aunque sea forzándoles a ello, para que puedan engendrar de este modo una brizna de sensibilidad, descartar por siempre el estigma del odio, y así quizá, construiremos entre todos un surco en el que pueda germinar la paz.

In memoriam, Iulius Carus B. Goian bego.

Septiembre, 1995

sentikortasun keinuak eta bestelako malenkoniak egin zituen, melodia erromantiko baten konpasak entzunda.

Egun hartan bertan, On Juliok bere buruari hitz eman zion ez zela adierazpide hartaz, hau da, musikaz fidatuko, berdin-berdin hunkitzen bazituen auditoriumeko besaulkietako baten anonimotasunean ezkutatzen zen zalantza bikainez betetako intelektual lotsatia eta jeneral garaile agintzaile eta odolzalea.

Urte batzuk geroago, marrazki erakusketa bat zela eta, inaugurazio egunean, marrazki horien egilearekin bat egin genuen. Diseinu barregarri bat zegoen ikusgai. Kontzertu areto distiratsu eta zabal bat ageri zen eta, tartean, dominaz betetako militar bat nabarmentzen zen zutik, jendetza diskretuago baten erdian. Denak liluratuta zeuden soinuak entzuten. Pertsonaia nor zen galdetzean, berehala esan zuen egileak «Saliquet jenerala irudikatu nahi izan dut». Koadroak errubrika hau zuen: «Iulius Carus pinxit».

Hortik bi ondorio atera daitezke. Edo musika gaitzesten dugu, behin betiko, nahiz eta hori oso zaila gertatuko zaion bati baino gehiagori, batez ere Rostropovitx, Maria Bayo edo Maxim Vengerov entzun ostean edo Mozarten «Txirula magiko» horrek liluratu gaituenei. Edo gure egunerokotasuneko fauna betetzen duten barbaro eta basati horiek guztiak gonbidatzen ditugu musika ekitaldietara eta beste kontzertu bikain batzuetara joan daitezen, behartuta bada ere, horrela sentiberatasun izpi bat sor dakien, gorrotoaren estigma betiko baztertu eta, hartara, agian, guztion artean, bakea ernamuinduko den ildaska eraiki ahal izan dezagun.

In memoriam, Iulius Carus B. Goian bego.

1995, iraila

## Presentación: Edades de la Música

No se trata ahora y aquí de presentar simplemente la interpretación de seis conciertos en la Universidad, y en concreto en el Aula Magna de la Escuela de Arquitectura, con la presente iniciativa se pretende en primer lugar acercar dos mundos que hasta ahora en Gipuzkoa y en el conjunto de Euskadi, han estado demasiado alejados, se trata del mundo de la Música y el mundo de la Arquitectura a través de la Universidad.

Evidentemente ello tiene su lógica ya que es de conocimiento general que entre nosotros la Institución Universitaria es en demasía reciente y también resulta comúnmente admitido que tampoco la difusión de una cultura musical ha superado los límites, que le permitieran llegar a una gran mayoría de los estamentos de la sociedad.

Se trata por lo tanto de hilar seis sesiones didácticas en torno a las distintas EDADES de la MÚSICA, con el fin de que el mundo preocupado por la Cultura en Gipuzkoa y no especializado en el tema musical pueda asistir a una sucesión de experiencias a través de las cuales se perciban de manera explícita los momentos más significativos en la Historia de la Música.

El título les puede a ustedes parecer un plagio respecto a la exitosa exposición de Arte que bajo la denominación de Las Edades del Hombre, tiene actualmente lugar en su cuarta sesión en Salamanca, pues bien no se trata tanto de un plagio cuanto que de compartir orígenes comunes. Pocas definiciones pueden existir de mayor rigor conceptual y belleza que aquella que hiciera Agustín de Hipona —San Agustín para los creyentes— para definir los distintos Tempus o

## Aurkezpena: Musikaren Aroak

Orain eta hemen, kontua ez da Unibertsitatean eta, zehazki, Arkitektura Eskolako Gela Nagusian, sei kontzerturen interpretazioa aurkeztea, besterik gabe. Ekimen honen bitartez, lehenik eta behin, orain arte Gipuzkoan eta Euskadi osoan urrunegi egon diren bi mundu hurbildu nahi dira, Unibertsitatearen bitartez: musikaren mundua eta arkitekturaren mundua.

Noski, horrek badu bere logika; izan ere, gauza jakina da gure artean Unibertsitatea erakunde berriegia dela, eta, oro har, onartu egiten da musika kulturaren hedapenak ere ez dituela gainditu gizartearen estamentu gehienetara iristea ahalbidetuko dioten mugak.

Beraz, MUSIKAren AROen inguruko sei saio didaktiko egitea da kontua, Gipuzkoan kulturaz arduratuta dagoen eta musikan espezializatuta ez dagoen jendeak esperientzia sorta batez gozatzeko aukera izan dezan eta, esperientzia horien bitartez, Musikaren Historiako unerik esanguratsuenak esplizituki hauteman ditzan.

Baliteke izenburua plagio bat iruditzea zuei; hain zuzen ere, Salamancan Las Edades del Hombre (Gizakiaren Aroak) izenburupean egiten den arte erakusketa —gaur egun, laugarren edizioa egiten ari da— arrakastatsuaren plagioa, baina ez da plagio bat, baizik eta jatorri komunak partekatzea. Definizio gutxi egon daitezke Agustin Hiponakoak —San Agustin, sinestunentzat— edozein arteren Tempus edo Aldiak definitzeko egin zuena baino zorroztasun eta

Periodos de cualquier arte: «Así va transcurriendo la Hermosura de las Edades del Mundo cuyas parcelas se ajustan cada una a su tiempo, como un magnífico verso de un inefable artista.»

Si aplicamos esta sentencia al universo musical y desarrollamos en seis parcelas, sus distintas épocas o edades podremos construir un edificio que argumente el valor del arte y la sensibilidad.

Por otro lado tampoco olvidamos la máxima en la que Jerónimo nos previene que «la Música en el duelo está fuera de tiempo» pero a pesar de las penurias presupuestarias, de la crisis generalizada, del momento general de tristeza que atenaza a nuestra convivencia cotidiana lacerada desde posiciones de terror, prepotencia y de ventajismo, pero a pesar de ello y sobre todo para ayudar a superarlo, aportamos desde este intento, una esperanza. Queremos con esta iniciativa entre los músicos y los universitarios proporcionar pautas para una colaboración entre esferas del arte en las que los ritmos y la proporción constituyen su principal razón de ser.

Se han elegido seis edades de la MÚSICA como síntesis de las que pueden representarla mejor. Las personas llamadas a la explicación teórica y a la interpretación musical ejemplificadora son gentes de un elevado prestigio, cimentado en la dureza cotidiana de ganarse un lugar, en nuestra sociedad desde el difícil mundo del Arte y el del cultivo de la Sensibilidad.

En la Escuela de Arquitectura estamos orgullosos de recibir a la Capilla Peñaflorida, al Quinteto de viento Pablo Solozábal, a las simpáticas pianistas Barandiarán y De Bustos, a nuestro timbalero mayor de la Orquesta de Euskadi Sr. Soldevilla con el conjunto de

edertasun handiagokoak: «Horrela iragaten da Munduko Aroen Edertasuna, zeinaren partzelak bakoitza bere garaiari egokitzen baitzaizkio, artista paregabe baten bertso bikain bat bezala.»

Esaldi hori musikaren unibertsoari aplikatzen badiogu eta sei ataletan garatzen baditugu musikaren garai edo aroak, artearen balioa eta sentsibilitatea argudiatzen dituen eraikin bat eraiki ahal izango dugu.

Bestalde, ez dugu ahaztuko Jeronimoren esaldi hau: «doluan musika garaiz kanpo dago», baina, beldurrezko, nagusikeriazko eta abantailazko posizioetatik urratutako gure eguneroko bizikidetza geldiarazten duen tristura une orokorra, krisialdi orokortua eta aurrekontu zailtasunak gorabehera, hala ere, eta batez ere hori gainditzen laguntzeko, itxaropen bat ematen dugu saiakera honetatik. Ekimen honen bitartez, artearen esferen arteko lankidetzarako jarraibideak eman nahi dizkiegu musikariei eta unibertsitarioei, erritmoak eta proportzioa baitira esfera horien izateko arrazoi nagusia.

MUSIKAren sei aro aukeratu dira, musikaren adierazgarri hoberenak izan daitezkeenen sintesi gisa. Azalpen teorikoa eta interpretazio musikal eredugarria eman behar duten pertsonak izen oneko pertsonak dira, gure gizartean toki bat lortzeko eguneroko borroka gogorrean oinarrituta lortu dutenak izen on hori, artearen eta sentiberatasunaren lanketaren mundu zailetik.

Arkitektura Eskolan harrotasunez hartuko ditugu honako hauek: Peñaflorida Kapera, Pablo Sorozabal haize boskotea, Barandiaran eta De Bustos piano jotzaile atseginak, Euskadiko Orkestrako gure tinbalari nagusi Soldevilla jauna Opus III perkusio taldearekin,

percusión Opus III, así como al Trío Pérez Azpeitia y al cuarteto de cuerda Usandizaga.

Estamos seguros que la sucesión de teorías, interpretaciones musicales y demás diálogos hará de la experiencia conjunta un acontecimiento cultural de altura, y sobre todo que más que una cima constituirá el comienzo de una colaboración entre Música-Arquitectura y Universidad que pueda llevarnos hacia nuevas experiencias fructíferas y trabajos positivos realizados en común.

El hecho de desarrollar músicas varias en las que voluntariamente se ha dejado de lado el momento gregoriano y medieval a fin de no caer en los persistentes «cantos de sirena» y trivializadora de los eslóganes de mayor actualidad, a pesar de valorar evidentemente su enorme valor intrínseco, solo debe de entenderse desde el afán de la mayor profundidad posible en los caminos de la música al margen de su mayor o menor popularidad.

Se pretende que en cada sesión una persona especializada y conocedora del tema en profundidad haga la correspondiente introducción teórica, así esperamos contar con gentes como J. Antonio Echenique auténtico adalid de las musicalidades donostiarras desde la afamada Quincena Musical, Yon Bagües presentará en concierto barroco, Peio Leiñena el Clasicismo, Elena Legorburu la época romántica, a Begoña Arana Martija le corresponderá introducir al auditorio en las claves de la última música del siglo XX, y procuraremos que sea la misma Vicerrectora Doña Montserrat Gárate que tan favorablemente ha potenciado este acontecimiento cultural, que sea quién nos presente la sesión correspondiente a la Modernidad, como paso previo a las interpretaciones de las pianistas De Bustos y Barandiarán, auténticas promotoras e

baita Perez Azpeitia hirukotea eta Usandizaga hari laukotea ere.

Ziur gaude teorien, musika interpretazioen eta gainerako elkarrizketen sorta horri esker esperientzia goi mailako kultura gertaera bihurtuko dela eta, batez ere, gailur bat baino gehiago, musika-arkitekturaren eta unibertsitatearen arteko lankidetzaren hasiera izango dela, esperientzia emankor berrietara eta elkarrekin egindako lan positiboetara eraman gaitzakeena.

Hainbat musika garatzea eta, musika horietan, gregorianoaren eta Erdi Aroko unea nahita alde batera utzi izana gaurkotasun handieneko slogan aringarri eta liluragarri iraunkorretan ez erortzeko, haien berezko balio handia argi eta garbi baloratu arren, modu bakarrean ulertu behar da; hain zuzen ere, musikaren bideetan ahalik eta sakontasun handienaz barneratzeko grina, musikaren ospea handiagoa edo txikiagoa den alde batera utzita.

Saio bakoitzean, gaia sakon ezagutzen duen pertsona espezializatu batek sarrera teorikoa egitea da asmoa. Horrela, bada, honako hauek gure artera etorriko direla espero dugu: J. Antonio Echenique musikazale garrantzitsua, Donostiako Musika Hamabostaldi ezagunetik; Yon Bagüesek kontzertu barrokoa aurkeztuko du; Peio Leiñenak klasizismoa; Elena Legorburuk garai erromantikoa; Begoña Arana Martijari egokituko zaio entzuleei XX. mendeko azken musikaren gakoak aurkeztea; eta, era berean, Montserrat Gárate errektoreorde andreak Modernitateari dagokion saioa aurkezteko ahalegina egingo dugu, kultura gertakari honen bultzatzaile sutsua izan den aldetik; horren ondoren, De Bustos eta Barandiaran piano jotzaileen interpretazioak etorriko dira, horiek baitira orain aurkezten ari ga-

iniciadoras de la idea Musical que ahora les presentamos a ustedes.

14 de marzo, lunes, 19:30
Capilla Peñaflorida

23 de marzo, miércoles, 19:30
Cuarteto de Cuerda Usandizaga

11 de abril, lunes, 19:30
Javier Pérez de Azpeitia Trío

18 de abril, lunes, 19:30
Quinteto de viento

27 de abril, miércoles, 19:30
Dúo de pianos: Barandiarán-De Bustos

2 de mayo, lunes 19:30
Opus III Percussion Ensemble

*Cada sesión se desarrollará en tres partes, una breve introducción teórica, concierto y coloquio*

tzaizkizuen ideia musikalaren benetako sustatzaile eta sortzaileak.

Martxoak 14, astelehena, 19:30
Peñaflorida Kapera

Martxoak 23, asteazkena, 19:30
Usandizaga hari laukotea

Apirilak 11, astelehena, 19:30
Javier Pérez de Azpeitia hirukotea

Apirilak 18, astelehena, 19:30
Haize boskote

Apirilaren 27, asteazkena, 19:30
Piano bikotea: Barandiarán-De Bustos

Maiatzak 2, astelehena, 19:30
Opus III Percussion Ensemble

*Saio bakoitzak hiru zati izango ditu: sarrera teoriko labur bat, kontzertua eta solasaldia*

## Aldo Rossi en San Sebastián

Lamentablemente, el reciente fallecimiento del arquitecto milanés Aldo Rossi, apenas ha conseguido rasgar el velo de las páginas de la prensa vasca. Para un motivo que guarda relación con la arquitectura, ha sido demasiado difícil abrirse paso entre las noticias principescas y de otras vidas ejemplares, que han consumido, con creces, la amplia fruición de información necrológica de este mes de septiembre. Sin embargo el arquitecto Rossi ha sido, fundamentalmente en los años setenta y primeros ochenta, uno de los personajes de la cultura más influyentes en la formación de los jóvenes arquitectos vascos, un personaje y una personalidad difíciles de eludir cuando se afronta la crónica de la arquitectura en la Euskal Herria de estos últimos años.

Desde, aquel ya lejano 1966 en el, que publicara su tratado teórico y manifiesto cultural, titulado con sabiduría y acierto *L'architettura della città,* la figura de Aldo Rossi ha estado presente en todos cuantos debates arquitectónicos se han producido en Europa y en los EE.UU. Junto a su maestro E. Rogers fue pionero en la llamada de atención hacia la *Historia,* tras los desvaríos y exageraciones, en este sentido, del llamado *movimiento moderno* en arquitectura. Dio carta de naturaleza a un método de análisis de la ciudad y de los fenómenos urbanos, en cuyas fértiles tierras pudieran germinar las más brillantes ideas de arquitectura, pues siempre entendió que la objetividad en arquitectura, esa ansiada *Neue-Sachlichkeit*, únicamente podía partir de una comprometida comprensión del fenómeno arquitectónico como un componente básico de la ciudad de la que cada edificio forma parte. Por ello Rossi fue en todo momento sutilmente atacado desde todos los campos, tirios y troyanos del formalismo *modern style* y del historicismo estilístico,

## Aldo Rossi Donostian

Tamalez, Aldo Rossi arkitekto milandarraren heriotzak ozta-ozta lortu du aipamenik euskal prentsaren orrialdeetan. Arkitekturarekin zerikusia duen arrazoi bat sortu denerako, zailegia izan da iraileko informazio nekrologikoan tokia lortzea; izan ere, printze-printzesei eta beste bizitza eredugarri batzuei buruzko albisteek bete baitute, ongi bete ere, hilabete honetako informazio nekrologikoaren aukera zabala. Hala ere, Rossi arkitektoa, batez ere, hirurogeita hamarreko hamarkadan eta laurogeiko hamarkadaren lehen urteetan, euskal arkitekto gazteen heziketan eragin handieneko kulturako pertsonaietako bat izan da; azken urteotako Euskal Herriko arkitekturaren kronika egin nahi denean, alde batera uztea zaila den pertsonaia eta nortasuna.

Jada urrun geratu den 1966. urte hartan argitaratu zituen bere tratatu teorikoa eta kultura manifestua, jakinduriaz eta egokitasunez *L'architettura della città* izenburua jarrita; harrezkero, Aldo Rossiren irudia Europan eta AEBn gertatu diren eztabaida arkitektoniko guztietan egon da. E. Rogers bere maisuarekin batera, arkitekturako *mugimendu modernoa*ren barruan izan ziren zentzugabekeria eta gehiegikerien ondoren, arreta *Historia*ri ematen aitzindaria izan zen. Hiria eta fenomeno urbanoak aztertzeko metodo bati garrantzia eman zion, eta eremu emankor horietan ernamuindu ahal izan ziren arkitekturaren ideiarik distiratsuenak, beti uste izan baitzuen arkitekturaren objektibotasunak, *Neue-Sachlichkeit* desiratu horrek abiapuntu bakarra izan zezakeela: fenomeno arkitektonikoa eraikin bakoitza kokatuta dagoen hiriaren oinarrizko osagaitzat hartzea. Horregatik, *modern stile* formalismoaren eta historizismo estilistikoaren eremu, tiroar eta troiar guztiek sotilki erasotu izan zuten Rossi, une oro, baita beste oportunista batzuek

así como otros oportunistas, intentaron reconducir las teorías y la práctica proyectual de Aldo Rossi por sus propios abrevaderos.

Estuvo en Gipuzkoa durante el comienzo de la primavera de 1974, fue una conferencia memorable, organizada por la Comisión de Cultura de un Colegio de Arquitectos bastante inquieto, por aquellos años. La presentación corrió a cargo del arquitecto Moneo, quien no dejó pasar la ocasión para polemizar con el conferenciante sobre los matices y maneras de concebir una teoría de lo moderno en cuanto a la forma de la arquitectura. El diálogo posterior a las charlas, resultó muy rico y fructífero, jóvenes arquitectos, entonces, como M. Garay, X. Unzurrunzaga, José Ignacio Linazasoro y otros, cruzaron sus argumentos con los de Rossi a fin de fijar mejor y concretar las claves conceptuales de su discurso.

Fruto de todos aquellos ímpetus culturales fueron algunas tomas de posición general en materia restauradora y de rehabilitación de los edificios, así como la renovación profunda en los cascos históricos de Euskal-Herria, de alguna manera se detuvo la marea devastadora y de barbarie que asolaba las estructuras urbanas culturalmente más valiosas y de sus mejores ejemplares de arquitectura.

Muchas generaciones de arquitectos vascos, han conocido y han sido educados en las teorías de forma urbana y tipo edificatorio de aquella prestigiosa escuela italiana de la que Aldo Rossi, Giorgio Grassi, Carlo Aymonino y otros varios han sido magníficos protagonistas. Yo creo que ello ha sido enormemente beneficioso para la arquitectura de este país. Ahora corren tiempos distintos, parece que una vez más la arquitectura pretende escaparse de la ciudad y del contexto al

ere, Aldo Rossiren proiektuetako teoriak eta jardunbidea euren urasketatik bideratu nahian.

Gipuzkoan egon zen 1974ko udaberriaren hasieran, eta hitzaldi gogoangarria eman zuen, urte haietan nahiko urduri zebilen Arkitektoen Elkargo bateko Kultura Batzordeak antolatuta. Aurkezpena Moneo arkitektoak egin zuen, eta ez zuen hizlariarekin eztabaidatzeko aukerarik galdu, modernotasunaren teoria baten ñabardurei eta teoria hori ulertzeko moduei buruz, arkitekturaren formari dagokionez. Hitzaldien ondoko elkarrizketa oso aberatsa eta emankorra izan zen; orduan gazteak ziren arkitektoek, hala nola M. Garay, X. Unzurrunzaga, José Ignacio Linazasoro eta beste batzuek, Rossirekin eztabaidan aritzeko aukera izan zuten, haren diskurtsoaren kontzeptuzko gakoak hobeto finkatu eta zehazteko.

Kultura bulkada horien guztien emaitza izan zen eraikinen zaharberritze eta birgaitzearen arloan jarrera orokorrak hartzea, baita Euskal Herriko herrigune historikoen berrikuntza sakona ere; nolabait geldiarazi egin zen kulturaren aldetik baliotsuenak ziren hiri egiturak eta arkitekturaren adierazgarri onenak suntsitzen ari zen joera basatia.

Euskal arkitektoen belaunaldi asko Italiako eskola ospetsu bateko hiri formei eta eraikuntza motei buruzko teorietan oinarrituta trebatu dira eta teoria horiek ezagutu dituzte; Aldo Rossi, Giorgio Grassi, Carlo Aymonino eta beste hainbat eskola hartako protagonista bikainak izan ziren. Nire ustez, hori oso onuragarria izan da herri honetako arkitekturarako. Bestelako garaiak bizi ditugu orain; badirudi, berriro ere, arkitekturak ihes egin nahi duela hiritik, baita bere

que debe su propia forma y por tanto su propia razón de vida.

Para que quede claro el tipo de personalidad creadora que anidaba en el cerebro y en el corazón de Rossi, conviene citar que, durante uno de los paseos que hicimos aquellos días por el Ensanche donostiarra, además de valorar la coherencia del conjunto urbano y la neutralidad de sus edificios, se paró entusiasmado ante el edificio de la Hacienda estatal, obra del arquitecto De la Sota, en la calle Okendo, magnífica muestra de arquitectura moderna en un conjunto decimonónico. Pero, claro, eso era antes de que el Ayuntamiento donostiarra obligara al brillante edificio a un transformismo por el que debió de cambiar su piel, de terso granito, por una mediocre, débil y ñoña lámina de piedra arenisca.

Aquellas jornadas eran, siempre, días memorables, tras la conferencia, cena y a seguir discutiendo de arquitectura. Justo después de la conferencia de Aldo Rossi, fuimos todos a la Perla, y en lo más negro de la noche, un pulcro profesor, con traje de franela se encontró con un conocido, era un taxista de Tudela. Al salir del local, casi al amanecer el miembro de mayor edad del grupo espetó la frase categórica del día: «yo, mañana, no trabajo». También aquellos eran otros tiempos. Hoy a casi nadie interesa hablar, pensar y sentir la arquitectura.

Descanse en paz nuestro admirado maestro y buen amigo.

Septiembre, 1997

forma eta, beraz, bere izateko arrazoia bera ematen dion testuingurutik ere.

Rossiren burmuinean eta bihotzean zegoen izaera sortzailea zein motatakoa zen argi gera dadin, komeni da aipatzea Donostiako zabalgunean egun haietan egin genituen ibilaldietako batean, multzo hiritarraren koherentzia eta eraikinen neutraltasuna baloratzeaz gain, Estatuko Ogasunaren eraikinaren aurrean atseginez gelditu zela zutik; De la Sota arkitektoak Okendo kalean egin zuen eraikina arkitektura modernoaren erakusgarri bikaina da, hemeretzigarren mendeko multzo baten barruan. Baina, jakina, hori Donostiako Udalak eraikin bikaina eraldatzera behartu baino lehen izan zen; transformismo horretan, azala aldatu behar izan zuen eraikinak eta granito leunaren ordez, hareharrizko xafla kaskar, ahul eta ñoñoa jarri zioten.

Jardunaldi haiek egun gogoangarriak izaten ziren beti: hitzaldiaren ondoren afaria, eta arkitekturaz eztabaidatzen jarraitzen genuen. Aldo Rossiren hitzaldiaren ondoren, Perlara joan ginen denok, eta, gauaren beltzenean, flanelazko jantzia zeraman irakasle txukun batek ezagun batekin egin zuen topo: Tuterako taxilari bat zen. Lokaletik irtetean, ia egunsentian, taldeko kide zaharrenak eguneko esaldi kategorikoa bota zuen: nik, bihar, ez dut lanik egingo. Haiek ere beste garai batzuk ziren. Gaur egun, ia inori ez zaio interesatzen arkitekturaz hitz egitea, arkitekturari buruz pentsatzea eta arkitektura sentitzea.

Goian bego gure maisu eta lagun on miretsia.

1997, iraila

## Ambientalistas contra naturalistas

Recientemente hemos asistido a un enfrentamiento, afortunadamente sólo intelectual y de cultura administrativa, entre gentes encuadradas en las disciplinas del medio ambiente y las alineadas en el mantenimiento y conservación de los parques y jardines. Todo ello a propósito de las «piezas de natura» que rodean a los Palacios de Ayete y Cristina-Enea en San Sebastián.

Cerca de ellos se encuentran las otras dos «facciones» entre las que se disputan hegemonías culturales sobre los mismos palacios. Son los conservacionistas o «*ripristinadores*» a todo trance, frente a los renovadores y revitalizadores de las fábricas palaciegas. Los que quieren mantener o restaurar a cualquier precio, contenidos y formas pretéritas, frente a quienes pretenden afianzar nuestra cultura con aplicaciones de la arquitectura, más acordes con el espíritu de los tiempos actuales (neue Zeitgeist). Que son los que marcan la contemporaneidad

Completan los pares, la serie de grupos con intereses más o menos particulares y desde los diversos grados de legitimidad social. Quienes se disputan el uso y disfrute, más o menos directo de ambos conjuntos aristocráticos de singular urbanidad. Ayete y Cristina-Enea, hoy ámbitos colectivos por excelencia y además legalmente protegidos, por su propia excepcionalidad. Protección que debe entender lógicamente de su propia esencia, así como de las pautas para su renovación,

En esta «bahía donostiarra infestada de tiburones» se debe de permanecer extremadamente prudentes y cautos, pero sobre todo tratar de no echar a comer a los escualos la carne del contrincante. No vaya a ser que

## Anbientalistak naturalisten aurka

Berriki, liskarra izan da —zorionez liskar intelektuala eta kultura administratibokoa baino ez da izan—, alde batetik, ingurumenaren arloko diziplinetan dabilen jendearen eta, beste alde batetik, parke eta lorategien mantentze-lanetan eta kontserbazioan jarduten dutenen artean. Hori guztia Donostiako Aieteko eta Cristina-Eneako jauregiak inguratzen dituzten «natura piezak» direla eta.

Horietatik gertu, beste bi «fakzioak» daude, jauregi horien gaineko hegemonia kulturalak lortzeko lehian dauden bi fakzioak. Alegia, alde batetik, kontserbazionistak edo «*ripristinatzaileak*» ororen gainetik; eta, bestetik, jauregien berritzaile eta biziberritzaileak. Hau da, kosta ala kosta, iraganeko eduki eta formak mantendu edo zaharberritu nahi dituztenak, eta gure kultura arkitekturaren aplikazioekin sendotu nahi dutenak, gaur egungo espirituarekin (neue Zeitgeist) bat datozenak. Horiek dira gaurkotasuna markatzen dutenak.

Pare horien osagarri, hein handiagoan edo txikiagoan eta legitimitate sozialaren maila handiagoarekin edo txikiagoarekin interes partikularrak dituztenak daude. Hirigintza berezia duten bi multzo aristokratikoen erabilera eta luperketa zuzena edo ez hain zuzena lortu nahi dutenak. Aiete eta Cristina-Enea eremu kolektibo garrantzitsuenetakoak dira gaur egun eta, gainera, legez babestuta daude, bereziak direlako. Logikoa denez, babes horren barruan eraikinen funtsa bera sartu behar da, berritzeko jarraibideez gain.

«Marrazoz betetako badia donostiar honetan» oso zuhur eta kontuz jokatu behar da, baina, batez ere, marrazoei aurkariaren haragia jaten ez ematen saiatu behar da. Ez dadin gertatu denok elkar jatea. Bitar-

todos nos veamos devorados por todos. Mientras, con tanta maniobra de distracción y agria reivindicación, se van arruinando ambos palacios ante la indiferencia general. Y se malogran, para todos, sus hermosos entornos de natura.

En los asuntos colectivos como son todos los de la arquitectura y la ciudad, más importante que las Grandes Ideas, serán la más correcta y bien cumplida realización de aquellas otras ideas más humildes y consuetudinarias, que aun no siendo las más grandes, resulten suficientemente coherentes y correctas en su aplicación y durabilidad.

Cada cosa y cada proceso tienen su lugar y su tiempo. Y a los entornos urbanos de Ayete y Cristina Enea, evidentemente que, el suyo, les ha llegado ya.

Ahora y sobre todo a propósito del nuevo Plan General de Ordenación Urbana de San Sebastián es el momento propicio para desatar todos los debates culturales para el próximo futuro. Es el tiempo de contraponer posiciones distantes frente a los problemas de consolidación y la renovación de cada trozo de nuestra ciudad. Y ello es tanto más necesario para evitar caigamos en los sempiternos errores de dejar que cosas e ideas se pudran. Porque luego con las presiones desmesuradas de parte, con las prisas y sobre todo con el ritmo olímpico de las legislaturas, los asuntos de la ciudad se harán siempre tarde y mucho peor que cuanto fuere de desear.

Ofrecemos el marco académico de la escuela de Arquitectura como foro para las discusiones sobre urbanismo y el plan general. Pues esta ciudad no puede olvidar que cuenta con instituciones específicamente dedicadas a la reflexión y discusión de los temas re-

tean, hainbeste distrakzio eta aldarrikapen garratzekin, bi jauregiak hondatzen ari dira axolagabetasun orokorraren aurrean. Eta hondatu egiten dira, denontzat, beren natura ingurune ederrak.

Arazo kolektiboetan —arkitekturako eta hiriko arazo guztiak halakoak dira—, Ideia Handiak baino garrantzizkoagoa da beste ideia apal eta ohiturazkoak behar bezala eta egoki gauzatzea, handienak ez izan arren, behar bezain koherente eta zuzenak badira aplikazioari eta iraupenari dagokienez.

Gauza bakoitzak eta prozesu bakoitzak dagokion lekua eta dagokion garaia du. Eta Aieteko eta Cristina Eneako hiri inguruneei, jakina, dagoeneko iritsi zaie beren lekua eta beren garaia.

Orain, eta batez ere Donostiako Hiri Antolamendurako Plan Orokor berriari dagokionez, une aproposa da etorkizun hurbileko kultur eztabaida guztiak pizteko. Gure hiriko zati bakoitza sendotzeko eta berritzeko arazoen aurrean, jarrerak aurrez aurre jartzeko garaia da. Eta hori are beharrezkoagoa da gauzak eta ideiak usteltzen uzteko betiko akatsak berriro ere egin ez ditzagun. Zeren, gero, neurrigabeko presioekin, presekin eta, batez ere, legealdien erritmo olinpikoarekin, hiriko arazoak berandu konponduko baitira beti, eta nahi baino askoz okerrago.

Arkitektura Eskolaren esparru akademikoa eskaintzen dugu, hirigintzari eta plan orokorrari buruzko eztabaidetarako foro izan dadin. Izan ere, hiri honek ezin baitu ahaztu arkitekturarekin, paisaiarekin eta hiriarekin lotutako gaiei buruz berariaz hausnartzeko eta eztabai-

ferentes a la arquitectura, al paisaje y la ciudad. Y no deja de ser un lujo, o una frivolidad, que tantas y tantas veces se pretenda sobrepasar a las instituciones propias buscando sucedáneos. Comprando para ello otras opiniones más distantes, en cualquier caso menos conocedoras y comprometidas con nuestra realidad.

Abril, 2006

datzeko erakundeak badituela. Eta, hainbat eta hainbat aldiz, geureak ditugun erakundeen gainetik igaro eta suzedaneoak bilatu nahi izatea luxua edo arinkeria besterik ez da. Horretarako, urrutiagoko beste iritzi batzuk erosten ditugu baina, edonola ere, gure errealitatea hain ongi ezagutzen ez duten eta gure errealitatearekin hain konprometituta ez dauden iritziak dira.

2006, apirila

## Carta a un estudiante de Arquitectura

Leo en la prensa del 16/9/2006, y lo interiorizo con una indisimulada alegría que el alumno cuyo expediente académico ha sido el mejor de Gipuzkoa, en el pasado curso escolar, ha optado por proseguir sus estudios tomando la arquitectura como la disciplina desde la que adentrarse en el mundo universitario de nivel superior.

Retomando aquella vieja predisposición del gran arquitecto, humanista, pintor y poeta del pasado siglo apodado Le Corbusier para dirigirse a los estudiantes de arquitectura, me permito unas breves «apuntaciones» a los jóvenes que en breves días van a comenzar sus estudios en la Escuela de Arquitectura de la UPV/EHU en San Sebastián.

En primer lugar deciros que nuestra disciplina va mucho más allá de las esencias mediáticas siempre ficticias y engañadoras. Pero sobre todo, más allá de los lugares comunes de tantos prestigios sociales, abundancias monetarias y otros oropeles cargados de falsedad. Es la disciplina arquitectónica un camino de extraordinaria dureza en el proceso vital de la realización personal. Son los estudiantes de arquitectura y los jóvenes arquitectos quienes de una manera más lacerante sufren los embates de una sociedad que precisa de iconos publicitarios en torno a las ciudades y su urbanidad. Vivimos en los lugares de la virtualidad y la propaganda en los que poco valen ideas y principios profundos, pues para seguir ciegamente el curso de los días bastan los trucos, las medias verdades, «la certeza mediática» y poco más.

Nadie podrá negar que la disciplina «constructiva» por excelencia, en la que convergen teoría, técnica, expresión plástica e imaginación formal es de las más

## Arkitekturako ikasle bati idatzitako gutuna

2006/09/16ko prentsan irakurri eta disimulurik gabeko alaitasunez barneratu nuen berria: aurreko ikasturtean Gipuzkoako ikasketa espedienterik onena izan duen ikasleak arkitekturaren diziplina hautatu du ikasketekin jarraitu eta goi mailako unibertsitate munduan sartzeko.

Joan den mendeko Le Corbusier arkitekto, humanista, margolari eta poeta handiak arkitekturako ikasleei hitz egiteko zuen joera zaharrari berriro helduz, egun gutxi barru UPV/EHUren Donostiako Arkitektura Eskolan ikasketak hasiko dituzten gazteei «apuntazio» labur batzuk egiteko aukera baliatuko dut.

Lehenik eta behin, zera esango dizuet, gure diziplina beti fikziozkoak eta iruzurtiak diren esentzia mediatikoetatik askoz harago doala. Baina, batez ere, ospe sozial, diru ugaritasun eta faltsukeriaz betetako beste urreizun batzuen leku komunetatik harago. Diziplina arkitektonikoa oso bide gogorra da errealizazio pertsonalaren bizi prozesuan. Arkitektura ikasleak eta arkitekto gazteak dira hiriei eta hirigintzari buruzko publizitate ikonoak behar dituen gizarte baten erasoak gehien pairatzen dituztenak. Birtualtasunaren eta propagandaren lekuetan bizi gara, non ideia eta printzipio sakonek gutxi balio duten; izan ere, egunen bilakaerari itsu-itsuan jarraitzeko nahikoak baitira trikimailuak, egia erdiak, «ziurtasun mediatikoa» eta ezer gutxi gehiago.

Inork ez du ukatuko diziplina «konstruktibo» nagusia, hau da, teoria, teknika, adierazpen plastikoa eta irudimen formala uztartzen dituena diziplina osatue-

completas en la formación de una personalidad humanista, conocedora de la naturaleza y la tierra, pero además, eminentemente *proyectual*. Prueba de ello es que numerosas de las más grandes personalidades creativas en el campo del cine, del diseño, de la moda, de las artes plásticas etc. han pasado, con mayor o menor intensidad por las aulas de alguna escuela de arquitectura.

Pero no nos podemos engañar. El control o lo que es igual el «poderío» sobre la forma, y sobre la forma urbana en particular, constituye un territorio demasiado codiciado y auténtico cauce de pirañas o piscina de tiburones donde a los arquitectos más valiosos, ingenuos y entusiastas, se pretende despojar de sus méritos y habilidades para crear imágenes de impacto y mercadear en tratos de dudosa legitimidad.

Aunque parezca una verdad de Perogrullo podemos decir que sólo desde la formación del arquitecto surgen las condiciones para proyectar ideas, y plasmarlas en documentos concretos de eficiencia constructiva, racionalidad económica, y progreso cultural. Siempre sobre la base de un conocimiento profundo de la historia del arte y las historias de la arquitectura como expresión en piedra de la Gran Historia en su sentido más general.

A pesar de todas las dificultades actuales, en nuestra sociedad mediática, de apariencias y virtual, es importante que los cerebros más cultivados y dados a la reflexión y el estudio opten por los estudios de arquitectura. Pues, junto a ella, no son muchas las disciplinas que permiten una situación ventajosa y abierta para adentrarse en el universo de la creatividad en sus diversas maneras de construir la realidad.

Septiembre, 2006

netako bat denik izaera humanista baten trebakuntzarako, natura eta lurra ongi ezagutzeaz gain, batik bat *proiektuala* izango den izaera baten trebakuntzarako. Horren erakusgarri da zinemaren, diseinuaren, modaren, arte plastikoen eta abarren arloko sortzaile handienetako asko arkitektura eskolaren bateko ikasgeletatik igaro direla, intentsitate handiagoarekin edo txikiagoarekin.

Baina ez dezagun geure burua engainatu. Formaren gaineko eta, bereziki, hiri formaren gaineko kontrola edo «boterea» lurralde gutiziatuegia da, pirañen ubide edo marrazoen igerileku, non arkitekto baliotsuenei, inozoenei eta gogotsuenei beren merituak eta trebetasunak kendu nahi zaizkien inpaktuzko irudiak sortzeko eta zalantzazko zilegitasuna duten tratuetan aritzeko.

Pellokeria dirudien arren, esan dezakegu arkitektoaren trebakuntzak soilik ematen dituela ideiak proiektatzeko eta ideia horiek dokumentu zehatzetan jasotzeko baldintzak, eraikuntza eraginkortasunari, arrazionaltasun ekonomikoari eta aurrerapen kulturalari dagokienez. Betiere, artearen historiaren eta arkitekturaren historien ezagutza sakona oinarri hartuta, Historia Handiaren harrizko adierazpen gisa, zentzurik orokorrenean.

Gaur egungo zailtasunak gorabehera, gure gizarte mediatiko, itxurazko eta birtualean, garrantzitsua da burmuin jantzienek eta hausnarketarako eta ikasketarako joera dutenek arkitekturako ikasketak aukeratzea. Izan ere, arkitekturaz gain, ez baitira asko sormenaren unibertsoan barneratzeko abiapuntu mesedegarri eta irekia izatea ahalbidetzen duten diziplinak, errealitatea eraikitzeko moduei dagokienez.

2006, iraila

## Luis Peña Ganchegui (arquitecto)

El pasado día 2 de abril fallecía a la edad de 83 años el arquitecto vasco Luis Peña Ganchegui en su domicilio de San Sebastián. Peña ha sido el gran animador y referente de la modernidad en la arquitectura del País Vasco desde que finalizara sus estudios en la Escuela de Madrid en 1959. Pertenecía a aquella generación que tan bien encarnó el movimiento moderno de la arquitectura en una España que trataba de aprovechar el mínimo resquicio de libertad, en el páramo cultural franquista. Nombres importantes de la arquitectura como Eduardo Mangada, Miguel Oriol, Fernando Higueras entre otros, conforman aquella generación que tan bien se enraizó en la lección de los maestros Oiza, de la Sota y algunos pocos más.

Pronto conectó, a través de aquellos legendarios Pequeños Congresos (1960-1969) con lo mejor de la arquitectura catalana y europea. Fueron casi constantes los encuentros lúdico-profesionales entre Oriol Bohigas, Federico Correa, Vázquez de Castro, Giancarlo di Carlo, Vittorio Gregotti, Alvaro Siza, Nuno Portas y tantos otros referentes de la arquitectura desde la segunda mitad del pasado siglo. Fueron importantes sus aportaciones humanas y profesionales en aquellos encuentros a los que sucesivamente se fueron incorporando quienes luego conformarían lo mejor de las arquitecturas de la modernidad en España. Rafael Moneo, Oscar Tusquets y algunos otros más. Sus obras construidas, Torre Vista Alegre de Zarautz, Renovación de la Plaza Trinidad en San Sebastián, el grupo de viviendas Iparragirre (premiadas con uno de los primeros premios Aizpurua), Entzus, «las casas Rosas», Imanolena, todas ellas en Mutriku son ejemplos de una arquitectura tan sencilla como sentida y cargada de valores culturales. Así, con la obra y la actitud cultural de Peña en su relación con las corrientes

## Luis Peña Gantxegi (arkitektoa)

Apirilaren 2an hil zen, 83 urte zituela, Luis Peña Gantxegi euskal arkitektoa Donostiako bere etxean. Peña Euskal Herriko arkitekturaren modernitatearen erreferente eta animatzaile handia izan da, 1959an Madrilgo Eskolan ikasketak amaitu zituenetik. Frankismoaren kultura basamortuan, askatasun zirrikiturik txikiena ere baliatzen saiatzen zen Espainia batean arkitekturaren mugimendu modernoa oso ondo gorpuztu zuen belaunaldikoa zen. Besteak beste, Eduardo Mangada, Miguel Oriol eta Fernando Higueras arkitektoek osatzen dute Oiza, de la Sota eta beste maisu gutxi batzuen ikasbidean hain ondo sustraitu zen belaunaldia.

Kongresu Txiki gogoangarri haien bitartez (1960-1969), Kataluniako eta Europako arkitekturaren onenarekin konektatu zuen berehala. Oriol Bohigas, Federico Correa, Vázquez de Castro, Giancarlo di Carlo, Vittorio Gregotti, Alvaro Siza, Nuno Portas eta arkitekturaren beste hainbat erreferenteren arteko topaketa ludiko-profesionalak ia etengabeak izan ziren. Topaketa haietan ekarpen garrantzitsuak egin zituzten, ekarpen humanoak eta ekarpen profesionalak, eta pixkanaka-pixkanaka, aurrerago Espainiako modernitatearen arkitekturetatik onena eratuko zutenak ere txertatu ziren. Rafael Moneo, Oscar Tusquets eta beste zenbait. Bere eraikitako lanak dira, besteak beste, Zarauzko Vista Alegre dorrea, Donostiako Trinitate Plaza berritzea eta Iparragirre etxebizitza taldea (Aizpurua lehen sarietako batekin sarituak), Entzus, «Etxe Arrosak», Imanolena —guztiak ere Mutrikun—; arkitektura xume bezain sentituaren eta balio kulturalez betetakoaren adierazgarri dira. Horrela, bada, Peña Europako hegoaldeko korronte «errealistarik» baliotsuenekin harremanetan zegoe-

«realistas» más valiosas del sur de Europa quedaron marcados los caminos por los que se iban a desarrollar los mejores episodios de la arquitectura vasca.

Fue capaz de aglutinar a grupos más jóvenes de arquitectos vascos con los que llegaría a compartir inquietudes y crear nuevas tertulias, como aquellas antiguas de las que él fuera asistente y testigo con Don Pío Baroja, Luis Martín Santos Juan Benet, etc.

En torno a Peña Ganchegui y Oriol Bohígas cristaliza el núcleo fundador de la Escuela de Arquitectura en la Universidad Pública Vasca. Corrían tiempos propicios para las aventuras culturales en los últimos años del antiguo régimen y los inicios de aquella enigmática Transición política. Tiempos de ilusión que los dos grandes arquitectos supieron administrar con habilidad para, desde el binomio Catalunya-Euskadi, dar carta de naturaleza universitaria a la Institución que probablemente sea para la arquitectura del País Vasco su fundamento más esperanzador y necesario.

Creador por naturaleza y siempre muy atento a la dimensión constructiva de la disciplina. Su labor docente ha estado fundamentada en el ejemplo y testimonio personal y sobre todo en explicar hasta en sus más elementales detalles la propia obra construida y el proceso de constante búsqueda.

Las inquietudes culturales de Peña desde la arquitectura le llevaron a mantener unas relaciones complejas, a veces difíciles, pero siempre fructíferas con los principales creadores vascos. Tanto en su proximidad al Grupo Gaur de artistas nucleado en torno a Oteiza como en la afortunada simbiosis entre naturaleza, arquitectura y escultura tan magníficamente logradas por Peña junto con Eduardo Chillida en «los Peines

nez, bere jarrera kulturalarekin eta bere obrarekin euskal arkitekturaren pasarterik onenak garatzeko bideak markatu zituen.

Euskal arkitektoen talde gazteagoak biltzeko gai izan zen, eta haiekin kezkak partekatu eta solasaldi berriak sortu zituen; besteak beste, On Pio Baroja, Luis Martín Santos, Juan Benet eta abarrekin batera parte-hartzaile eta lekuko izan zen antzinako solasaldi haietan.

Peña Gantxegi eta Oriol Bohigasen inguruan gauzatu zen Euskal Herriko Unibertsitateko Arkitektura Eskola sortu zuen nukleoa. Kultura abenturetarako garai aproposak ziren antzinako erregimenaren azken urteak eta Trantsizio politiko enigmatiko haren hasiera. Ilusio garaiak, bi arkitekto handiek trebetasunez administratzen jakin zutenak, Katalunia-Euskadi binomiotik erakunde bati, hau da, ziurrenik Euskal Herriko arkitekturarako oinarririk itxaropentsuena eta beharrezkoena izango den erakundeari unibertsitate izaera emateko.

Sortzailea berez, eta diziplinaren dimentsio eraikitzaileari oso adi beti. Bere irakaskuntza lana eredu eta testigantza pertsonaletan oinarritu zuen, eta, batez ere, eraikitako obra bera eta etengabeko bilaketa prozesua azaltzen zituen, xehetasunik oinarrizkoenetan ere.

Arkitektura abiapuntu hartuta, Peñak zituen kezka kulturalek euskal sortzaile nagusiekin harreman konplexuak izatera eraman zuten, batzuetan zailak, baina beti emankorrak. Bai Oteizaren inguruan bildu ziren artisten Gaur Taldearekiko hurbiltasunean, bai Peñak, Eduardo Txillidarekin batera, «Haizearen orrazia» lanean lortutako natura, arkitektura eta eskulturaren arteko sinbiosi zoragarrian. Itsasoaren eta Donostia hi-

del Viento». Carismático y dulce «abrazo» en claves figurativas entre el mar y la ciudad donostiarra.

Personaje característico en la tan intrincada como difícil de comprender pluralidad vasca, carácter desarrollado desde una faceta de la cultura tan compleja y globalizadora como lo es la arquitectura. Contrario a cualquier atisbo de divismo y resistente frente a la actual mediatización y trivialización iconográfica de la disciplina arquitectónica, Peña Ganchegui pertenece ya, por historia personal y obra construida al universo profundo de los grandes creadores, aquellos que son capaces también de hacerlo desde sus propias raíces y de una manera humilde y callada a la manera del noruego Sverre Fehn, el danés Jörn Utzon o como el que fuera su gran maestro y guía espiritual el finlandés Alvar Aalto.

Abril, 2009

riaren arteko «besarkada» karismatiko eta gozoa, klabe figuratiboetan.

Ulertzeko zaila bezain korapilatsua den euskal aniztasunaren pertsonaia bereizgarria, kulturaren alderdi konplexu eta globalizatzaile batetik, hau da, arkitekturatik garatutako nortasunaren ondorioz. Divismoaren zantzu ororen aurkako izanik, eta diziplina arkitektonikoaren egungo mediatizazio eta arinkeria ikonografikoari aurre eginez, Peña Gantxegi, bere historia pertsonalagatik eta eraikitako obragatik, sortzaile handien unibertso sakonean sartu da dagoeneko, beren sustraietan oinarrituta eta modu apal eta isilean egiteko gai direnen unibertsoan, alegia, Sverre Fehn norvegiarraren, Jörn Utzon danimarkarraren edo bere maisu handi eta gidari espiritual izandako Alvar Aalto finlandiarraren antzera.

2009, apirila

# Edificios notables

- Arquitecturas de nácar y bronce bañadas por las olas.
- Algo más que un edificio: el KURSAAL.
- El Kursaal donostiarra: ¿geografía o urbanidad?
- Elogio de arquitectos y el asunto del Kursaal.
- Instituciones catalanas premian la arquitectura del Kursaal.
- Corta memoria de un historiador.
- Miramar. Algo más que un palacio.
- El legado de Mausolo y el monumento a Lenin.
- Ruina romántica u obra inacabada?

# Eraikin aipagarriak

- Olatuek bustitzen dituzten nakarrezko eta brontzezko arkitekturak.
- Eraikin bat baino gehiago: KURSAALa.
- Donostiako Kursaala: geografia ala urbanitatea?
- Arkitektoen gorazarrea eta Kursaalaren afera.
- Kataluniako erakundeek Kursaalaren arkitektura saritu dute.
- Historialari baten oroimen laburra.
- Miramar. Jauregi bat baino gehiago.
- Mausoloren ondarea eta Lenini eskainitako monumentua.
- Hondamen erromantikoa ala obra burutu gabea?

## Arquitecturas de nácar y bronce bañadas por las olas

Soy consciente que en este país no resulta conveniente para uno mismo, al menos si lo hace desde la independencia y la soledad, el dar opinión, y menos polemizar sobre ningún tema, y más inconveniente aún si este tema se refiere a la arquitectura y a la ciudad de San Sebastián o cualquiera de sus monumentos existentes o por construir.

Antes se decía que cuando se juntan varios vascos surge espontáneamente un orfeón, ahora podemos constatar que si se supera el cainismo que nos caracteriza y se juntan varias personas de esta país, surgen una coordinadora o cualquiera otro grupo de presión que únicamente defiende los intereses «privaditos» de sus miembros, sin que para ello dejen de invocarse los más altos fines y propósitos de generosidad.

Me pongo a escribir estas líneas con el ánimo de aportar mi pequeño grano de arena e intentar superar, aunque sea milimétricamente, esta situación de dicotomía entre el «silencio del intelectual» y el «vocerío por todos los medios», incluidos los judiciales y los otros, de tantas coordinadoras, institutos, asociaciones y grupos, en distintas formas de sabotaje.

El tema de mi atención hoy va a ser el conocido proyecto de Auditórium y Palacio de Congresos en el Kursaal en San Sebastián, o para entendernos de manera más breve, las «rocas varadas de R. Moneo», como tan acertadamente se conoce en el contexto popular.

En primer lugar es preciso no olvidar que el punto de partida de toda esta historia está en que el solar, que

## Olatuek bustitzen dituzten nakarrezko eta brontzezko arkitekturak

Jakin badakit herri honetan ez dela komenigarria norberarentzat, ez behintzat independentziatik eta bakardadetik egiten badu, iritzia ematea, eta are gutxiago ezein gairi buruz eztabaidatzea, eta are deskomenigarriagoa gai hori arkitekturari buruzkoa eta Donostiako hiriari edo bere monumentuetako edozeini edo eraikitzeke dagoen bati buruzkoa bada.

Lehen zera esaten zen, euskal herritar batzuk elkartzen direnean, orfeoi bat sortzen dela; orain, zera egiazta dezakegu, berezkoa dugun kainismoa gainditu eta herrialde honetako hainbat pertsona elkartzen badira, koordinakunde bat edo bestelako presio talde bat sortzen dela, kideen interes «pribatutxoak» soilik defendatzen dituena, baina eskuzabaltasuneko helburu eta asmo gorenak alde batera utzi gabe.

Lerro hauek idazteari ekin diot helburu bakarrarekin; hain zuzen ere, ekarpen bat egitea —nire hondar ale txikia— egungo dikotomia egoera hau milimetrikoki bada ere gainditzen laguntzeko: alde batetik, «intelektualaren isiltasunaren» eta, bestetik, hainbat koordinakunde, erakunde, elkarte eta taldek, sabotajea egiteko, «bitarteko guztiak baliatuta —baita auzibidea eta beste batzuk ere— egiten duten zalapartaren» arteko dikotomia.

Gaur, Donostiako Kursaaleko Auditoriumaren eta Kongresu Jauregiaren proiektu ezaguna izango da nire mintzagaia, edo labur-labur ulertzeko, herritarrek esaten duten moduan, «R. Moneoren hondoratutako arrokak».

Lehenik eta behin, ez da ahaztu behar afera honen guztiaren abiapuntua zera izan zela, norbaitek, inoiz

nunca fue municipal, alguien, en una brillante pirueta en la que era un auténtico experto, logró escriturar como «bien de propios» del Ayuntamiento de San Sebastián.

Otros, como recordaba Félix Iraola desde la Cámara de Comercio, y yo mismo, formando parte de un equipo plural, nos ocupamos de redactar desde la humildad de lo cotidiano, y desde el principio de la rentabilidad global, un dossier donde se contemplaban tanto los temas de arquitectura como los de oportunidad, en las facetas económica, comercial, de financiación y de cuantos datos constituyen punto de partida para un proyecto de envergadura.

Tras la lectura de aquel dossier se concluía que el solar en cuestión podía ser edificado con arquitecturas brillantes, cuidando su propia financiación e incluso produciendo beneficio. Al igual que el Barbican de Londres o la Illa de Barcelona, sin que por ello mermara en absoluto la calidad del Auditórium, ni la magnificencia de las Salas de Congresos ni, por supuesto, la imagen de un conjunto arquitectónico proyectada sobre el mar Cantábrico.

Aquel dossier evidentemente fue a la papelera, al igual que hubiera ido el currículo de Francisco de Asís, si se presenta queriendo participar de la cosa pública; y gentes muy concretas, con fuertes apoyos institucionales, planearon un concurso de estrellas de la Arquitectura en el mejor «star system» del momento, todo un Hollywood de provincias que cautivó a los poderes municipales.

Un concurso que no tenía mayor enunciado ni programa que «haga usted lo que quiera, que como nos guste, nosotros hacemos del resto». Para ellos se anduvieron buscando nombres y teléfonos de los personajes más asiduos de las revistas, con algún toque lo-

udalarena izan ez zen orubea Donostiako Udalaren «ondasun propio» gisa eskrituratzea lortu zuela, benetako adituen moduko pirueta paregabe bat eginez.

Felix Iraolak Merkataritza Ganberatik gogoratzen zuenez, beste batzuk eta ni neu, talde plural bateko kide izanik, egunerokotasunaren apaltasunetik eta errentagarritasun globalaren printzipioan oinarrituta, dosier edo txosten bat idazteaz arduratu ginen. Txosten horretan, arkitekturari eta egokitasunari buruzko gaiak aztertu genituen ekonomiari, merkataritzari, finantzaketari eta proiektu handi baterako abiapuntu diren datu guztiei dagokienez.

Txosten hura irakurri ondoren, orube horretan arkitektura bikainak eraiki zitezkeela ondorioztatzen zen, betiere finantzaketa zainduta eta etekina ere aterata. Londresko Barbican edo Bartzelonako Illa bezala, baina horregatik Auditoriumaren kalitatea eta Kongresu Aretoen handitasuna batere murriztu gabe, ezta, jakina, Kantauri itsasoaren gainean proiektatutako multzo arkitektoniko baten irudia ere.

Txosten hark, esan gabe doa, zakarrontzian bukatu zuen, Frantzisko Asiskoaren curriculumak bukatuko zukeen bezala, baldin eta alderdi publikoan parte hartu nahian aurkeztu izan balitz; eta pertsona jakin batzuek, erakundeen babes sendoarekin, Arkitekturako izarren lehiaketa bat proposatu zuten une hartako «Star system» onenean. Bestela esateko, udal botereak liluratu zituen abarkadun Hollywood bat.

Lehiaketa horren enuntziatu edo programa bakarra honako hau zen: «egin ezazu nahi duzuna eta, gustuko baldin badugu, gainerakoa guk egingo dugu». Horretarako, aldizkarietan gehien ateratzen ziren pertsonaien izenak eta telefonoak bilatzen ibili ziren, bertako bate-

cal, para que no protesten los arquitectos de aquí. No todos los llamados quisieron participar, pero lo cierto es que el concurso por invitación resultó lo más florido y colorista que podía producir el momento de icónico publicitario de la arquitectura.

Se estuvo a un paso que se repitiera el fiasco del concurso de los años 60, con su secuela de frustraciones y otras fantasías. ¿Se acuerdan ustedes de aquellos edificios imposibles de edificar en forma de varios cuernos, que tan de moda estaban por aquellos años, hasta el punto de ganar muchísimos concursos de arquitectura en todo el mundo.

Sólo la fortuna quiso que ahora en los 90, en aquel ramillete de ideas variopintas para el solar del Kursaal, se colaran varias que fueron de una gran brillantez, y sobre ellas destacó, a mi juicio la de las «Rocas varadas» del arquitecto Moneo.

Pero de dinero no hablemos ahora, que ese es un tema menor y además poco señorial para nuestra peculiar frivolidad e idiosincrasia; por ello algunos se pusieron a trabajar denodadamente y de manera en exceso costosa para publicitar y vender la idea mediante exposiciones, libros, folletos… y demás artificios de la propaganda.

Y otros a descubrir minas de diamantes de los que produce el urbanismo en Miramón u otros lugares de la ciudad con los que argumentar un moderno cuento de la lechera» que en un breve plazo permitiera los dineros para el nacimiento, sobre el solar de aquellos prismas cristalinos, objeto de la brillantez arquitectónica de R. Moneo, a la manera representada por Botticelli desde el nácar de una Concha y luchando con la entereza del bronce, en su famosa representación del Nacimiento de Venus.

ren bat ere sartuta, hemengo arkitektoek protesta egin ez zezaten. Deitutako guztiek ez zuten parte hartu nahi izan, baina egia esan, gonbidapen bidezko lehiaketa hori arkitekturaren publizitate ikonikoaren une hartan sor zitekeen distiratsu eta koloristena izan zen.

60ko hamarkadako lehiaketan gertatutako iruzurra errepikatzeko zorian egon zen, ekarri zituen frustrazio eta beste fantasia batzuekin. Gogoan al dituzue garai haietan moda-modakoak ziren eraikinak, adarren forma zutenak eta eraikitzeko ezinezkoak zirenak? Izan ere, hain ziren modakoak ezen mundu osoan eta urte haietan lehiaketa ugari irabazi zituztela.

Halabeharrak nahi izan zuen orain, 90eko hamarkadan, Kursaaleko oruberako ideia mordoiloen sorta hartan, ideia bikain batzuk sartzea eta, nire ustez, denen artean Moneo arkitektoaren «Hondoratutako arrokak» proiektua nabarmendu zen.

Baina ez dezagun orain diruari buruz hitz egin, ez baita gai garrantzitsua eta, gainera, ez da dotorea geure arinkeria eta idiosinkrasia berezirako; horregatik, batzuk handikiro eta garestiegi hasi ziren lanean, ideia hori erakusketen, liburuen, liburuxken eta propagandaren gainerako artifizioen bidez iragartzeko eta saltzeko.

Eta beste batzuk, hirigintzak Miramonen edo hiriko beste leku batzuetan sortzen dituen diamante meatzeak deskubritzen hasi ziren, «esneketariaren ipuin» moderno bat argudiatzeko, betiere, epe labur batean, R. Moneoren bikaintasun arkitektonikoaren fruitu ziren prisma kristalino haiek orubearen gainean jaiotzea ahalbidetuko zuen dirua biltzearren, Botticellik irudikatutako Venusen Jaiotza ospetsu hartan bezala, Kontxa baten nakarretik eta brontzearen sendotasunaren aurka borrokatzen.



*«El nacimiento de Venus (Botticelli).» Wikipedia, La enciclopedia libre. 22 ago 2021. 23 sep 2021. <https://es.wikipedia.org/wiki/El_nacimiento_de_Venus_(Botticelli)>.*

Pero como alguien dijo, el *soufflé* se vino abajo y la obstinada realidad previsora y presupuestaria de 1993 ha hecho que los pasos que primero se debían haber dado, en un contexto serio, resulten los últimos en recorrerse. Está a punto de concluir el proyecto para su ejecución y nadie sabe con aproximación ¿qué hacer con la carpeta el día que llegue?

Se oyen voces llenas de causticidad… ¿se hará o no se hará?, y un alcalde simpático y voluntarioso corre de organismo en organismo, eso sí, anunciando la visita por la prensa, buscando una ayuda para comenzar y terminar el edificio, a poder ser durante este mismo período de mandato municipal. Claro todos los responsables susceptibles del «sableo», o están hablando por teléfono, o bien están reunidos, según aseguran las secretarias.

Otro sector nada desdeñable ven en el evento la ocasión perfecta para elevar a la categoría de las Bellas Artes el famoso derby vasco de la primera división de fútbol, y hay quien encuentra en el Kursaal un magnífico filón para explotar en claves vasco-bizkaínas,

Baina norbaitek esan zuen bezala, *souffléak* behera egin zuen, eta 1993ko aurreikuspenen eta aurrekontuaren errealitate setatsuaren ondorioz, testuinguru serio batean lehenengo egin behar ziren urratsak egindako azkenak izan dira. Proiektua amaitzear dago eta inork ez daki, gutxi gorabehera, zer egin karpetarekin iristen den egunean.

Garraztasunez betetako ahotsak entzuten dira… Egingo da ala ez da egingo? Eta borondate onez betetako alkate jatorra erakunde batetik bestera dabil —hori bai, bisitaldi bakoitza prentsan iragarrita—, ahal dela udal agintaldi honetan bertan eraikina hasi eta bukatzeko laguntza bila. Noski, «diru ekarpen» horiek egin zitzaketen arduradun guztiak edo telefonoz hitz egiten ari dira, edo bilduta daude, idazkarien esanetan.

Beste sektore ez txiki batek aukera ezin hobea ikusi du futboleko lehen mailako euskal derby ospetsua Arte Ederren kategoriara goratzeko, eta bateren batek lehendik ere askotarikoa eta ugaria den Euskal Herriko panorama politikoa itoaraziko duten beste eztabaida batzuk —euskal-bizkaitar, euskal-gipuzkoar eta euskal-arabar klabeetan— ustiatzeko mauka ezin hobetzat hartzen du Kursaala.

Donostiako Kursaaleko orubearen hasierako arkitektura ideia arrakastatsua izan zen —hein batean, halabeharrez— eta, zalantzarik gabe, oraindik ere ia bide osoa falta da egiteko. Hori dela eta, nire ustez, «Hondoratutako arrokak» aukera oso ona dira Europako txoko honetan arkitektura lan benetan garrantzitsu bat egiteko, datozen belaunaldiak harro sentitzeko modukoa. Zalantzarik gabe, Sydneyko Opera eta arkitekturaren beste hainbat sorkuntza lan izan diren moduan, nahiz eta zailtasunez jositako proiektuak izan hasieran.

vasco-gipuzkoanas y vasco-alavesas algunas controversias más que congestionen el ya variopinto y abundante panorama político del país.

Tras el éxito de la idea de arquitectura inicial para el solar del Kursaal en San Sebastián, aunque en parte esta sea fruto del azar, y sin duda todavía falta casi todo el camino por recorrer, me atrevo a pensar que las «Rocas varadas» constituyen una ocasión muy brillante para que en este rincón de Europa se eleve una obra de arquitectura verdaderamente importante, de la que pudieran sentirse orgullosas generaciones venideras. Como sin duda ha resultado la Opera de Sydney y tantas otras creaciones de la arquitectura que tuvieron comienzos erizados de dificultades y otros desajustes de la correcta gestión.

El reto tecnológico, cultural y económico es de auténtica envergadura y no cabe duda que Rafael Moneo sea una de las personas más adecuadas para llevar a buen fin empresa tan arriesgada.

Y en este contexto, no parece el mejor método para continuar el proceso confiando la financiación del edificio a través de «cuestaciones y otras filantropías» desde las páginas locales de la prensa provincial.

Por ello ya que no se ha hecho antes y se han cambiado de tal manera las premisas adecuadas en el planteamiento de cualquier operación sensata de construcción de una parte de ciudad, parece hoy urgente sentar premisas de sensatez para el buen fin de lo que nació de manera tan incierta como casual.

Articulando y programando muy meticulosamente factores como son los plazos de construcción del edificio, ya que para una obra de este tipo conviene sean dilatados, aproximándose más a los ritmos del maratón que a los 100 m lisos, y sin que para ello se planteen soluciones basadas en redimensionados empobrecedores

Erronka teknologiko, kultural eta ekonomikoa oso handia da, eta zalantzarik gabe, Rafael Moneo da ekintza biziki korapilatsu hori aurrera ateratzeko pertsonarik egokienetako bat.

Eta testuinguru horretan, ez dirudi prozesuari jarraipena emateko metodorik onena denik eraikinaren finantzaketa «diru-eskeen eta beste filantropien» bitartez lortzea, probintziako prentsaren tokiko orrialdeetatik.

Horregatik, lehenago egin ez denez, eta hiriaren zati bat eraikitzeko zentzuzko edozein operazioren planteamenduan premisa egokiak hainbeste aldatu direnez, gaur egun premiazkoa dirudi zentzutasuneko premisak ezartzea, halabeharrez eta modu zalantzagarrian jaio zen hori behar bezala burutu ahal izateko.

No hay duda que el lugar de Antiguo-Loreto-Miramar, hoy propiedad pública, significa algo muy cercano a un Memorial donostiarra, en su más amplia dimensión gipuzkoana, vasca, española y universal. Ahora toca a nuestra generación el insuflar a este aglomerado histórico-cultural renovada vitalidad, para ir completando y dotando de sentido cívico y de actualidad a su ya imponente currículo e historial. Casa de todos donde podamos asistir a cursos, conferencias y exposiciones del más alto nivel. Complemento cívico de todas las actividades comprendidas en una gran casa consistorial, desde las salas y capilla de matrimonios, como la «keller» característica en los ayuntamientos de centroeuropa, pasando por todo tipo de salas y salones para recepciones, tertulias y encuentros de nuestros tres niveles de la política y la administración, así como de otras entidades de la civilidad.

Puede fácilmente convertirse en el más fiel e ilustrado reflejo de San Sebastián y Gipuzkoa, así como de toda Euskalerria, en su fascinante complejidad. Para divulgar su historia, explicando la arquitectura de sus edificios, la racionalidad de sus planes urbanísticos, planteando sus ideales renovadores y las ilusiones de futuro. Una empresa colectiva, por antonomasia, como la que representa desde sus orígenes toda Casa

arabiera eta luliotarra ikastera lotu zitzaizkion hamahiru fraide frantziskotarrak elkartu zituen XIII. mendeko zenobio mallorcarraren izena hartuta. Erabaki pertsonala izen zen, eta Maria Cristina erregina erregeordearen diruen kargurakoa. Gaur egun Miramarko Jauregi gisa ezagutzen duguna da, 1893an inauguratua. Espainiako errege-erreginen udaldietarako leku nagusia izan zen XIX. mendeko Bigarren Erregeordetzaren garaian. Maria Cristina erreginak bertan pasa zituen udako denboraldi luzeak 1929an hil aurreko hilabete gutxi batzuk lehenagora arte.

Ez dago zalantzarik Antigua-Loreto-Miramar lekua, gaur jabetza publikokoa dena, Donostiako memorialtzat jo daitekeela dimentsiorik handienean: gipuzkoarra, euskalduna, espainiarra eta unibertsala. Orain gure belaunaldiari dagokio aglomeratu historiko kultural horri haize berria ematea, berez itzela den curriculum eta historiala osatzen joateko eta zentzu zibikoz eta gaurkotasunez janzteko. Goi -mailako ikastaroetara, konferentzietara eta erakusketetara joateko aukera emango digun guztion etxea. Herriko etxe handi batean bildutako jarduera guztien osagarri zibikoa; areto eta ezkontza kaperatik, Europa Erdialdeko udaletxeetako «keller» bereizgarria bezala, gure politikaren eta administrazioaren eta gizalegearen beste erakundeen hiru mailen harrerak, solasaldiak eta topaketak egiteko areto eta geletara.

Donostiaren eta Gipuzkoaren isla zintzo eta ilustratuen bilaka daiteke erraz, baita Euskal Herri osorena ere, haren konplexutasun liluragarriari esker. Haren historia ezagutarazteko, bere eraikinen arkitektura azalduta, baita hirigintza planen arrazionaltasuna ere, eta bere ideia berritzaileak eta etorkizunerako ilusioak planteatuta. Enpresa kolektibo bat, beste guztien gainetik, hasiera-hasieratik herriko etxe orok irudikatzen

Consistorial. Una hermosa Herriko Etxea, en su sentido más popular y ciudadano.

Los mimbres están, un edificio modélico y monumental, totalmente renovado en sus estructuras, sensatamente administrado durante estos últimos treinta y tantos años, sede de unos interesantísimos Cursos de Verano de la Universidad y con firme voluntad de una renovación continuada.

Ese pienso que es, hoy por hoy, el más apasionante reto cívico-cultural de esta enloquecedora ciudad —*ene hiri soragarria*—, desde siempre entregada al canto de mil sirenas, distrayendo, a veces, su propia personalidad.

Junio, 2018

duena bezalakoa. Herriko Etxe eder bat, adierarik herrikoi eta herritarrenean.

Oinarriak hortxe daude; eraikin modeliko eta monumentala, erabat berritua egiturei dagokienez, azken hogeita hamar urte luzeetan zentzuz kudeatua, Unibertsitatearen Udako Ikastaro zinez interesgarrien egoitza, eta etengabeko berrikuntzarako borondatea duena.

Hori da, gaur egun eta nire ustez, hiri erogarri honen —*ene hiri zoragarria*— erronka zibiko-kultural handiena, betidanik egon baita milaka sirenaren kantuari errendituta, batzuetan bere izaerari berari arreta kenduta.

2018, ekaina

## El legado de Mausolo y el monumento a Lenin

Es evidente que una de las maneras más frecuentes de perpetuar la memoria, sea como método individual o colectivo de enraizamiento y vinculación con la propia historia, reside en la valoración e identificación de cada uno de nosotros, con «nuestros» monumentos, u otras arquitecturas conmemorativas.

Una de las características más frecuentes de los monumentos, reside en su capacidad de alejarse de las motivaciones y demás bases programáticas en las cuales hallaron su propio origen.

¿Quien recuerda hoy las aventuras y méritos del emperador Tito?, mientras que pocas personas habrá que desde una plataforma de mediana cultura e incipiente conocimiento, sea capaz de ignorar el valor carismático del Arco de Tito, como monumento con el que se identifica todo aquel que haya tenido la fortuna de contemplarlo o estudiarlo.

Estas consideraciones previas me parecen de interés ante un monumento de reciente factura, su origen entronca con los años treinta de este siglo, por lo tanto como todo lo reciente en materia de memoria, está justo en el límite de ser una representación del personaje concreto al que conmemora, o bien, de dar el salto definitivo hacia el más allá, y tener vida propia como Monumento en el que se identifiquen gentes de la más variada y extensa extracción.

No podemos olvidar que el Mausoleo fue la tumba del rey de Caria, Mausolo. Tampoco debemos de ignorar que hoy poca gente se acuerda del rey griego a quién su esposa Artemisa enterró con solemnidad, pero to-

## Mausoloren ondarea eta Lenini eskainitako monumentua

Argi dago memoria iraunarazteko modu ohikoenetako bat —norberaren historiarekin sustraitzeko eta lotzeko metodo indibidual zein kolektibo gisa— gutako bakoitza «gure» monumentuekin edo bestelako oroitzapeneko arkitekturekin identifikatzea eta haiek baloratzea dela.

Monumentuen ezaugarri ohikoenetako bat jatorri izan zituzten motibazioetatik eta gainerako oinarri programatikoetatik urruntzeko gaitasuna da.

Nork gogoratzen ditu egun Tito enperadorearen abenturak eta merituak? Baina, aldiz, kultura eta ezagutza maila ertainak dituzten pertsona gutxik ukatuko dute Titoren Arkuaren balio karismatikoa, hura ikusteko eta aztertzeko zortea izan duen oro identifikatuta sentiaraziko duen monumentu gisa.

Aurretiko gogoeta hauek interesgarriak iruditzen zaizkit monumentu eraiki berri baten aurrean. Haren jatorria mende honetako hogeita hamargarren hamarkadarekin dago lotuta, eta hortaz, memoriaren arloan hurbilekoa den guztia bezala, omentzen duen pertsonaiaren irudikapenaren eta, harago joanda, jatorri oso anitzeko pertsonak identifikatzen diren monumentu gisa berezko bizitza izatearen arteko mugan dago. Ez dezagun ahaztu Mausoleoa Kariako errege Mausoloren hilobia izan zela.

Ez dezagun ahaztu, ezta ere, gaur egun jende gutxik gogoratzen duela Artemisa emazteak hotsanditasunez lurperatu zuen Greziako erregea, baina guztiok dakigula zer den mausoleo bat, hau da, pertsona bat oroi-

dos tenemos al mausoleo como proto-tipo de edificio conmemorativo de una personalidad, el enterramiento ampuloso y «virtual multiplicador en piedra» de los recuerdos del personaje allí enterrado.

tarazteko eraikin prototipoa, lurperatze hanpatua eta bertan lurperatuta dagoen pertsonaiaren oroigarrien harrizko biderkatzaile birtuala.

Es por todas estas cuestiones por lo que hoy resulta necesario referirse con cierto cuidado, al más famoso Mausoleo de los últimos tiempos, es decir al mausoleo de Lenin en la Plaza Roja de Moscú.

Arrazoi horiek guztiak direla eta, gaur egun kontu handiz hitz egin behar izaten de azken garaietako mausoleo ezagunenetako bati buruz. Moskuko Plaza Gorrian dagoen Leninen mausoleoaz ari gara.

No tiene importancia que se diga ahora, pero tampoco importa, asegurar que yo no he sido nunca leninista, incluso mi aproximación al marxismo-leninismo no supera una curiosidad intelectual, de quien tiene algunas nociones y ha conocido, con mayor o menor aprovechamiento, pensamientos sobre el materialismo histórico y dialéctico, y quizá sea capaz de recordar el texto leído hace aproximadamente treinta años sobre la «Enfermedad infantil del comunismo, el izquierdismo» del que era autor Vladimir Ilich Ulianov, conocido por el apodo Lenin.

Orain esateak ez du inolako garrantzirik, baina ez du garrantzirik ere ziurtatzeak ni ez naizela inoiz leninista izan, marxismo-leninismorako nire hurbilketak ere ez du inoiz materialismo historikoari eta dialektikoari buruzko pentsamenduak ezagutu dituenaren eta agian duela 30 urte irakurritako *La enfermedad infantil del comunismo, el izquierdismo* Vladimir Ilitx Ulianov «Lenin»en testua gogoratzeko gai izango litzatekeenaren jakinmin intelektuala gainditu.

Pero tengo que confesar que hace seis años tuve la fortuna de conocer el Mausoleo de Lenin, en el que ha estado descansando, el cadáver embalsamado de este personaje sin duda importante en la historia del siglo XX, y que, no dudo que el alma de Vladimir vuela y anda todavía buscando un Paraíso, en el que todos nos podamos encontrar.

Baina, aitortu beharra daukat, duela sei urte Leninen mausoleoa ezagutzeko zortea izan nuela, XX. mendeko historian zalantzarik gabe garrantzitsua izan den pertsonaia horren hilotz baltsamatuak atseden hartu duen lekua. Eta ez dut zalantzarik Vladimirren arima oraindik ere guztiok topo egingo dugun paradisu baten bila dabilela.

La Plaza Roja, es en Moscú algo más que un lugar de inciertos tonos colorados, sobre los que se yergue el monumento funerario.

Plaza Gorria hileta monumentua zutitzen den kolore nahasiko leku bat baino gehiago da Moskun.

No sabemos a ciencia cierta si ese viejo espacio del ferial, o mercado pegante a la fortaleza moscovita (Kremlin), toma su colorido nombre en base a la sangre que corrió por sus adoquines tras el ajusticia-

Ez dakigu ziur Moskuko gotorlekuari (Kremlina) itsatsita dagoen azoka edo merkatu eremu zahar horrek nondik hartzen duen izena. Streltsyko errebelde sutuen esku hildako boiardoen odolak bustitako gal-

miento de los boyardos a manos de los exaltados rebeldes Streltsy, o bien por el reflejo del rojo ladrillo compacto de la muralla de la fortaleza, tal y como se representa en los viejos iconos, o bien por la fuerza cegadora de la luz de poniente, capaz de teñir e igualar de tonos rojizos todos los cuerpos que quedan anegados por sus rayos rasantes, en las cuatro estaciones en las que se divide el año solar.

Pues bien, en este espacio que llamamos desde antiguo la Plaza Roja, lugar bien proporcionado entre sus semejantes, adecuadamente limitado por la Catedral de San Basilio y el museo de la Historia, se levanta el mausoleo de Vladimir Ilich Ulianov de apodo Lenin, que en brillante mármol de la finlandesa Carelia, completa el esquema de arquitecturas monumentales, extra e intra-muros de la fortaleza.

Este monumento debido a la maestría del arquitecto Shusev, tomó plaza y se elevó con lentitud y en varios plazos, y superando varias tentativas, como corresponde a las obras de verdad importantes, en la historia y vida de las Grandes Arquitecturas.

A la muerte del revolucionario más científico de este siglo, a comienzos del año 24, nadie osó construir un monumento definitivo, se erigió un primer y efímero catafalco de madera, para servir de referencia a unas honras fúnebres y a los desfiles multitudinarios que sin duda merecía Vladimiro.

Luego, unos años después se construyó otro catafalco en el mismo lugar, asimismo en madera como manera de ir tomando las medidas y los contornos más adecuados del sitio, para definir de verdad y con precisión los perfiles de una arquitectura que fuera imperecedera.

tzada harrietatik hartu ote zuen izen koloretsua, edo gotorlekuko harresiko adreiluaren kolore gorri biziaren islatik —hala baitago irudikatuta ikono zaharretan—, edo mendebaldeko argiaren indar itsutzailetik gai baitzen haren pean geraturiko gorputz guztiak kolore berez tindatzeko eguzki urtea banatzen den lau urtaroetan?

Bada, aspalditik Plaza Gorri izenez ezagutzen den espazio horretan, proportzio egokiko lekua, behar bezala mugatua, San Basilio katedrala duena alde batean eta Historia museoa bestean, hortxe altxatzen da Vladimir Ilitxi Ulianov «Lenin»en mausoleoa, zeinak Finlandiako Kareliako marmol distiratsuan, gotorlekuaren harresien kanpoko eta barruko arkitektura monumentalen eskema osatzen baituen.

Shusev arkitektoaren trebeziari zor diogun monumentu horrek poliki-poliki hartu zuen lekua eta goratu zen, hainbat epetan, Arkitektura Handien historian benetan garrantzitsuak diren lanei dagokien bezala.

Mende honetako iraultzaile zientifikoena hil zenean, 1924 hasieran, inor ez zen ausartu behin betiko monumentu bat eraikitzera. Hasieran egurrezko katafalko iragankor bat eraiki zuten, Vladimirrek ondo merezitako hileta omenaldietan erreferentziaren bat izateko.

Ondoren, zenbait urte geroago, beste katafalko bat eraiki zuten leku berean, hura ere egurrezkoa, tokiaren neurri eta forma egokienak hartzen joateko edo, arkitektura hilezkor baten soslaiak benetan eta zehaztasunez definitzeko.



Finalmente fue en el año 1929, cuando el modelo ligneo desapareció discretamente y dejó lugar a un magnífico, pequeño y proporcionado edificio en mármol rojo, lógicamente trabado, compuesto y construido por el mismo arquitecto Shusev. Es el monumento que hasta hoy hemos conocido como el Mausoleo de Lenin, tribuna de desfiles en la Plaza Roja de Moscú.

En esta Plaza, además de este elemento de la arquitectura y del simbolismo, conviven otros de memoria más antigua y sin duda no menos controvertida que el que ahora nos ocupa.

El monumento de Shusev desde el punto de vista de la arquitectura urbana es un auténtico acierto, tanto en sus texturas y materiales, como en su tectónica y proporciones y sobre todo en la interpretación del tipo de enterramiento monumental, haciéndolo trascender hasta significaciones de un enigmático elemento de arte en la Plaza más importante de la historia moscovita.

Azkenik, 1929. urtean desagertu zen diskretuki egurrezko eraikuntza eta leku eman zion marmol gorriko eraikin zoragarri, txiki eta proportzionatuari, noski Shusev berak giltzatu, moldatu eta eraikia. Gaur egunera arte Leninen Mausoleo izenez ezagutzen dugun monumentua da, Moskuko Plaza Gorriko desfileetarako tribuna paregabea.

Plaza horretan, arkitekturaren eta sinbolismoaren elementu horretaz gain, badira memoria zaharragoarekin loturiko beste elementu batzuk, horiek ere polemikoak, zalantzarik gabe.

Shuseven monumentuak trebezia handia erakusten du arkitekturaren ikuspegitik, bai testurari eta materialei dagokienez, bai tektonikari eta proportzioei dagokienez ere, eta, bereziki, ehorzketa monumental motaren interpretazioari dagokionez, hura transzendituaraziz, Moskuko historian garrantzi handien izan duen plazako arte.

Aquel año de 1929, otro gran genio de la arquitectura del siglo XX, el alemán Mies Van der Rohe construyó en la montaña barcelonesa de Montjuitch otro pabellón fundamental, contrapunto y reverso del de Shusev. Si el moscovita representa un escalón muy alto en la arquitectura de volúmenes, texturas y proporciones, el de Mies representa la máxima cota en la creación arquitectónica basada en la riqueza y articulación de los espacios, y la finura de unos detalles, más cerca de la orfebrería que de la construcción.

Por ello si los catalanes han sido capaces de rescatar de la miseria y la incuria su monumento, para lo cual ha sido preciso el reconstruirlo, ¿con cuanta más razón?, en mi opinión, a todos nos corresponde evitar, que los moscovitas derriben el suyo. Desde ese mismo prisma el Mausoleo de Lenin bien merece la amnistía, o cuando menos el perdón.

Para finalizar, apostaría yo sin duda, que seguramente ni Mausolo, ni Tito, ni Vladimiro, jamás creyeron en los valores de progreso en clave política y social, que tienen las arquitecturas bien hechas, configurando ciudades con valores de perennidad.

Marzo, 1995

1929ko urte hartan, XX. mendeko arkitekturaren beste maisu batek, Mies Van der Rohe-k, ezinbesteko pabilioi bat eraiki zuen Bartzelonako Montjuïc mendian, Shusevenaren kontrapuntua eta ifrentzua. Moskukoak maila gorena erakusten du bolumenen, testuren eta proportzioen arkitekturan; Mies-enak, aldiz, espazioen aberastasunean eta artikulazioan oinarrituriko sorkuntza arkitektonikoaren sabaia jotzen du, baita detaileen fintasunari dagokionez ere, sarri gertuago baitaude urregintzatik eraikuntzatik baino.

Horregatik, katalanak gai izan badira beraien monumentua miseriatik eta utzikeriatik erreskatatzeko (horretarako berreraiki egin behar izan dute), nola ez dugu ba guk guztiok arrazoirik izango, nire iritziz, moskutarrek beraiena eraistea saihesteko zerbait egiteko? Ikuspegi horretatik, Leninen Mausoleoak ondo merezita dauka amnistia, edo, gutxienez, barkamena.

Amaitzeko, apustu egingo nuke ez Mausolok, ez Titok, ezta Vladimirrek ere, ez zutela inoiz sinetsi ondo egindako arkitekturek, iraunkortasun balioak dituzten hiriak taxutzen dituzten horiek, aurrerabide politiko eta soziala lortzeko duten balioan.

1995, martxoa

## ¿Ruina romántica u obra inacabada?

A propósito de la reciente consagración del templo de la Sagrada Familia y su elevación a la categoría basilical, se ha vuelto a destapar la vieja polémica sobre si debería de continuarse (deberíamos de continuar) con las obras de su construcción, aún desaparecido su autor el arquitecto Gaudí, o si bien se debía y se debe de conservar la «obra del genio» en el mismo estado en que quedó el templo expiatorio en el momento de su muerte. Otra vuelta al viejo dilema «ruskiniano». La permanente vitalidad catalana y barcelonesa en materia de arquitectura y la visita de Benedicto XVI han actualizado los argumentos en uno u otro sentido. La impactante figuración televisiva, magníficamente conducida por Tv3, del acto litúrgico del domingo 6 de noviembre, ha vuelto a dar motivos para el debate cultural aun cuando desde la vistosidad de la imagen televisada y del resplandor de una ceremonia que tomó al templo como su gran protagonista, parece ser que el tema ha removido los cimientos y ha atrincherado a los protagonistas de una Barcelona cultural, defensora a ultranza de la modernidad y «el genio» en arquitectura.

Puede que estemos en una reedición a la manera «ottocentesca» en las diatribas entre Ildefons Cerdá y su Eixample, frente a las descalificaciones de Milá i Fontanals y su grupo de incondicionales. Me parece importante que se discuta, se hable y se polemice sin descalificar sobre la arquitectura, y hoy por hoy, eso en España sólo es posible, y se produce a veces, en Barcelona. Por ello hay que tomar el tema de la visita papal al templo gaudiniano como un revulsivo de importancia.

Pero resulta importante señalar que el templo de la Sagrada Familia no es, en ningún caso, ni era cata-

## Hondamen erromantikoa ala obra burutu gabea?

Duela gutxi Familia Santuaren tenplua sagaratu eta basilika mailara igo izanari dagokionez, berriro ere azalera atera da antzinako polemika, hau da, hura eraikitzeko lanekin jarraitu beharko litzatekeen (jarraitu beharko genukeen), nahiz eta egilea, Gaudi arkitektoa, desagertuta egon, edo «jenioaren lana», hau da, tenplua, hura hil zenean zegoen egoera berean utzi behar den. Beste buelta bat dilema «ruskiniar» zaharrari. Arkitektura kontuetan Kataluniako eta Bartzelonako bizitasun etengabeak eta Benedikto XVI.aren bisitak argumentuak bide batetik edo bestetik eguneratu dituzte. Azaroak 6ko ekitaldi liturgikoari buruz Tv3 kateak bikain gidaturiko telebistako figurazio txundigarriak berriz eman ditu eztabaida kulturala pizteko arrazoiak, nahiz eta telebistako irudiaren ikusgarritasunetik eta tenplua protagonista nagusitzat hartu zuen zeremonia baten distiratik iruditu gaiak arkitekturan modernotasuna eta «jenioa» kosta ahala kosta defendatzen dituzten Bartzelonako kultur munduko protagonisten zimenduak mugitu eta berean iraunarazi dituela.

Baliteke Ildefons Cerdá eta bere Eixamplearen eta Milá i Fontanals eta bere jarraitzaile zintzoen deskalifikazioen arteko diatriben XIX. mendeko erako berrargitalpen batean egotea. Garrantzitsua iruditzen zait arkitekturari buruz deskalifikatu gabe eztabaidatzea, hitz egitea eta polemizatzea, eta hori, gaur egun, Espainiari dagokionez, Bartzelonan baino ezin da egin, eta hala gertatzen da batzuetan. Horregatik, aita santuak Gaudiren tenplura egindako bisitaren gaia garrantzizko pizgarri gisa hartu behar da.

Baina garrantzitsua da aipatzea Familia Santuaren tenplua ez dela eta ez zela, inolaz ere, «hondakin

logable como una «ruina romántica». No parece se haya arruinado una potente fábrica edilicia por la labor del desgaste de «natura» ni por una violenta destrucción bélica. Una obra inacabada es una obra inacabada y punto. Una «opus interruptus» frente a la «opera aperta» que pueda interesar a otros. Aunque unas trazas y unas piedras no sean arquitectura, tal y como señala inteligentemente Dani Freixes, hasta que no tenga construido su techo o cubierta (según la clasificación arquitectónica albertiana de región, área, partición, pared, techo, y abertura). Las piedras que forman la obra inacabada no dejan de constituir una «arquitectura en potencia» pero en ningún caso una «arquitectura en acto». El dilema es cómo actuar y acertar frente a la obra inacabada.

Si se hubiera hecho en el sentido, que señala Oriol Bohigas, de «petrificar al regusto romántico las piedras gaudinianas» y hacer una gran explanada para la concentración colectiva, hubiera quedado un impactante y significativo «templo urbano al descubierto» ya que no parece posible hoy en día, alterar y minimizar el profundo sentido simbólico de las torres construidas bajo el impulso del arquitecto Gaudí. Sin duda es una opción posible aunque como se ha visto no la única. En cualquier caso una opción más barroco-vaticanista que la neomedieval querida por Gaudí, que ha sido la solución adoptada con mayor o menor fortuna según los gustos, los criterios, dogmas y otros atributos del juicio sobre la arquitectura.

Algunas otras pequeñas tonterías como la de reconvertir el templo expiatorio en «moderna estación del tren» mejor dejarlas en la trastienda de conversaciones jocosas de un mundo «*molt divertit*». De esas que hacen epílogo de largas y fructíferas tertulias que van apagándose en ingenio y aumentando en atrevimiento a medida que la noche

erromantiko» gisa katalogagarria. Ez dirudi udal fabrika garrantzitsu bat hondatu denik «natura»ren higaduraren ondorioz, ezta gerra suntsiketa bortitz baten ondorioz ere. Bukatu gabeko obra bat bukatu gabeko obra bat da, eta kito. *Opus interruptus* bat, beste batzuentzat interesgarria izan daitekeen *opera aperta*ren aurrean. Nahiz eta traza batzuk eta harri batzuk arkitektura ez izan, Dani Freixesek ondo adierazten duen bezala, sabaia edo estalkia eraiki arte (eskualde, area, partizio, horma, sabai eta irekiduraren sailkapen arkitektoniko albertianoaren arabera). Amaitu gabeko obra osatzen duten harriek «arkitektu potentzial» bat osatzen dute, baina inola ere ez «egintzazko arkitektura» bat. Amaitu gabeko lanaren aurrean nola jokatu eta asmatu da dilema. Amaitu gabeko lanaren aurrean nola jokatu eta asmatu da dilema.

Oriol Bohigasek adierazten duen zentzuan egin izan balitz, hau da, «Gaudiren harriak joera erromantikoaren arabera harri bihurtzea» eta kontzentrazio kolektiborako zabalgune handi bat egitea, «agerian dagoen tenplu urbano» txundigarri eta esanguratsu bat edukiko genuke, gaur egun ezinezkoa baitirudi Gaudi arkitektoaren bultzadaz eraikitako dorreen zentzu sinboliko sakona aldatzea eta minimizatzea. Zalantzarik gabe, aukera posible bat da, baina, ikusi denez, ez bakarra. Edonola ere, aukera barroko-vatikanistagoa da Gaudik maite izan zuen neomediebala baino, arkitekturari buruzko judizioaren gustu, irizpide, dogma eta beste ezaugarri batzuen arabera zori handiagoz edo txikiagoz hartutako irtenbidea izan dena.

Beste tontakeria txiki batzuk, tenplu espiatorioa «tren geltoki moderno» bihurtzea kasu, hobe mundu *molt divertit* bateko elkarrizketa bitxien gibelaldean uztea. Solasaldi luze eta emankorren epilogoa egiten duten horietakoak, adimena itzaliz eta ausardia areagotuz doazenak, gaua eta alkohola izpirituez jabetzen diren

y el alcohol se apoderan de los espíritus. Siempre antes y con mayor zafiedad en unos que en otros.

La gran lección del debate de estos días estriba, en mi opinión, en tomar partido sobre si la obra de arquitectura, a diferencia de la obra y objeto de arte, pertenece a su autor o por el contrario es algo que el arquitecto, desde un primer momento entrega a la sociedad para que la mantenga viva y haga con ella lo que considere conveniente y más oportuno. Corresponderá a los mandatarios de esa colectividad y a sus Instituciones, sea la Iglesia, sean las academias u otras comisiones de fomento de las artes del diseño, sea el poder civil según los casos, el tomar las decisiones que en cada momento considere como las más apropiadas.

Si una arquitectura y un edificio tienen vida propia, y ese creo yo es el gran potencial del templo ideado por Gaudí, al margen de su mejor o peor gusto con que fuera y ha sido complementado, conviene que otras generaciones la mantengan, revitalicen y prolonguen esta vitalidad tanto tiempo como sea posible. Al igual que la mezquita de Córdoba y tantos otros edificios que han sobrepasado el impulso creador de su autor primero. Aunque como tantas veces pasa con los propios hijos, evolucionen y se reconstruyan de una manera distinta y alejada a la que a nosotros mismos nos pueda parecer la única, la correcta y la más adecuada.

Lo único inexcusable es que cuanto se actúe sobre la arquitectura preexistente se haga desde la cultura, la prudencia y el sentir general más noble, sin dejar el más mínimo resquicio al dogmatismo, a la oportunidad política, al populismo, al chiste y a la demagogia. Y una vez más, dentro de la polémica, y el lícito contraste de opiniones, este es el buen ejemplo que nos viene desde Barcelona.

Noviembre, 2010

heinean. Beti lehenago eta zakarkeria handiagoarekin batzuengan besteengan baino.

Egun hauetako eztabaidaren irakaspen nagusia nire ustez, arkitektura lanari buruz erabaki bat hartzea da: arte objektua eta artelana ez bezala, egilearena da? edo, aldiz, arkitektoak hasiera-hasieratik gizarteari entregatzen dion —bizirik euts diezaion eta harekin komenigarrien eta egokien jotzen duena egin dezan— zerbait? Gizatalde horretako mandatariei eta erakundeei dagokie (dela eliza, direla akademiak edo diseinuaren arteak sustatzeko beste batzorde batzuk, dela botere zibila), une bakoitzean egokientzat jotzen dituzten erabakiak hartzea.

Arkitektura batek eta eraikin batek bizitza propioa badute —eta nik uste dut hori dela Gaudik asmatutako tenpluaren potentzial handia, gustu onarekin edo txarrarekin osatu duten alde batera utzita—, komeni da beste belaunaldi batzuek mantentzea, biziberritzea eta bizitasun hori ahal bezain beste luzatzea. Kordobako meskita eta bere lehen egilearen bultzada sortzailea gainditu duten beste hainbat eraikin bezala. Nahiz eta, seme-alabekin askotan gertatzen den bezala, guri modu bakarra, zuzena eta egokiena iruditzen zaigunarekin zerikusirik ez duen beste modu batean eboluzionatu eta berreraiki egiten diren.

Saihestu ezin den gauza bakarra da aurretik dagoen arkitekturan eragiten den guztia kultura, zuhurtzia eta sentimendu orokor nobleenetik egitea, dogmatismoari, abagune politikoari, populismoari, txisteari eta demagogiari zirrikiturik txikiena ere utzi gabe. Eta, beste behin ere, polemikaren eta iritzien kontraste zilegiaren barruan, hori da Bartzelonatik datorkigun adibide ona.

2010, azaroa

# Análisis urbano

- Lekeitio: una bella arquitectura frente al mar de Bizkaia.
- Monumentos donostiarras y la avenida de la Libertad.
- San Sebastián sobre San Sebastián.
- Murallas y silencio.

# Hirigintza azterketa

- Lekeitio: arkitektura ederra Bizkaiko itsasoaren aurrean.
- Donostiako monumentuak eta Askatasunaren hiribidea.
- Donostia bat bestearen gainean.
- Harresiak eta isiltasuna.

## Lekeitio: una bella arquitectura frente al mar de Bizkaia

Decía Vitruvio, primer tratadista de la arquitectura y de la ciudad y posteriormente Andrea de Palladio, uno de los más reconocidos arquitectos de todos los tiempos transcribía:

> «Se debe de buscar con mucha diligencia que las ciudades no miren por línea recta a algún viento, porque de este modo por ella correrán furiosos y violentos. Y para la salud es preciso que vengan quebrados, suaves, purgados y cansados.»

Quizá pudiéramos añadir «cuidadosamente peinados» tal y como los magníficos Peines del viento en Donostia, tienen por misión realizar, asomados como espolones sobre el Cantábrico, durante los días de vendaval.

A las ciudades que se abren al mar directamente, la experiencia ha enseñado que existen dos mares distintos: el mar que son elementos desatados, fieros agua, aire, olas y viento que barren todo a su paso, y el mar que tras ser domado pasa a convertirse en bucólica y calma parte de natura.

El primero fue el que venció a una armada, cuyo nombre era «La Invencible», y el segundo, el mar apacible, fue espejo de juegos galantes, de naumaquias sobre grandiosos escenarios portuarios, de los baños reales, y de la picaresca de una desnudez lejanamente contemplada.

Una cierta característica de las ciudades se define en su propia voluntad de cambio, como una necesidad de abrirse hacia la naturaleza circundante, un cambio de fachada de la ciudad entera. en vez de volcarse sobre sí misma hacia el interior de su recinto murado.

## Lekeitio: arkitektura ederra Bizkaiko itsasoaren aurrean

Arkitekturaren eta hiriaren lehen tratadista izan zen Vituribiok honako hau esan zuen, eta gero garai guztietako arkitektorik ezagunenetako bat izandako Andrea de Palladiok transkribatu zuen:

> «Arreta handiz bilatu behar da hiriek inongo haizeri lerro zuzenetik ez begiratzea, bestela, haserre eta bortitz ibiliko dira haietatik. Eta osasunerako beharrezkoa da hautsita, leun, garbi eta nekatuta etor daitezela.»

Agian, «kontu handiz orraztuta» gehitu ahal izango genioke esaldiari, Donostian, haize gogorreko egunetan, Kantauri itsasoaren gainetik ezproiak bailiran agertzen diren *Haizearen orrazi* bikainak bezala.

Itsasora zuzenean zabaltzen zaizkien hiriei esperientziak erakutsi die bi itsaso ezberdin daudela: askaturiko elementu basatiak diren itsasoa, igarobidean aurrean duten guztia bipiltzen duten ura, airea, olatuak eta haizea; eta bezatu ostean naturaren zati lasai bilakatzen den itsaso bukolikoa.

Lehenengoak garaitu zuen «Garaiezin» ezizenez ezagutzen zen armada bat; eta bigarrena, itsaso barea, joko xaloen, portuko eszenatoki bikainetan eginiko naumakien, errege-erreginen bainuen eta urrunetik behatutako biluztasun baten pikarokeriaren ispilu izan zen.

Hirien nolabaiteko ezaugarri bat aldaketa nahiak berak definitzen du, hau da, inguruko naturarantz zabaltzeko beharrak, hiri osoaren fatxadaren aldaketa bat, bere burua bere esparru harresituaren barrualdera irauli beharrean.



*Imagen de Google Earth.* *Google Earth-eko irudia.*

XVIII. mendeko eta XIX. mendearen hasierako hiri garapenaren konstante bat da plaza simetrikoak irekitzea, parkeak eta kai muturrak sistematizatzea, arkupeen gainean etxe berriak gehitzea, hiriari fatxada berria eginez, eta natura eta itsasoa ikusteko eta menderatzeko plataforma bikainak sortzea.

Hainbat aurpegi dituen Kantauriaren aurrean altxatzen da hiri bizkaitar bat; zalantzarik gabe, beren harriak itsaso basati bezain atseginaren aurrean ematen dituztenetan interesgarriena. Lekeitioz ari gara. Han, Tala-ko horma handi eta osoak ez ditu elementuak orrazten, baina gai da Kantauriko ur eta olatu biziak saretu, liluratu eta desbideratzeko, forma eta amarruen joko alai, soil eta sotil batean, azkenean olatuak hausten dituena, edo, hobeto esanda, uraren elementu haserretua astintzen duena, eguneroko nabigazioaren ezinbesteko premia bihurtzeko

Gauza jakina da komeni dela elementuen aurka borrokatzea; aitzitik, ideiarik argienak hiria azalarazten du, bere buruaz ziur, non, artearekin eta talentuarekin, lurrari laguntzen dioten hiru elementuak gudukatzeko, menderatzeko eta orrazteko baldintza egokietan dagoen.

Ez dirudi Leonardo de Vincik olatu bat ahultzeko moduari buruz adierazten duenaren zentzua besterik denik:

> «Itsasertz zeiharra kolpekatzen duen olatua… haren kontra oldartsu puskatzen da, eta hautsi ondoren, lehen astindutako hondartzatik korrika eginez ahitzen du bere indarra. Atzera itzultzean, hurrengo olatuaren oinarria joko du, eta hura atzeratu. Beraz, olatuaren gandorrak oinarriak baino gehiago aurrera egiten duenean momentu bat iris-

Constituye una constante del desarrollo urbano de los siglo XVIII y comienzos del XIX, el abrir simétricas plazas, sistematizar parques y espolones, añadir nuevas casas sobre pórticos conformando nueva fachada a la ciudad, al tiempo de crear magníficas plataformas desde las que contemplar y dominar la naturaleza y el mar.

Frente a este Cantábrico de tantas facetas, se yergue una urbe vizcaína, sin duda la más interesante de cuantas entregan sus piedras frente a un mar tan fiero como amable. Se trata de Lekeitio. Allí el imponente y entero muro de «la Tala» no peina los elementos, pero es capaz de enredar, embaucar y desviar las bravas aguas y olas del Cantábrico, en alegre, austero, y sutil juego de formas y argucias, que finalmente rompe las olas, o más bien bate al elemento agua enfurecido, para hacer de él imprescindible necesidad de una navegación cotidiana.

De todos es sabido que es conveniente luchar contra los elementos, antes bien, la más inteligente idea hace emerger a la ciudad, segura de sí misma donde y cuando con arte y con talento se está en condiciones favorables para lidiar, domar y peinar los tres elementos que acompañan a la tierra.

No parece ser otro el sentido de cuanto expresa Leonardo de Vinci sobre la manera de debilitarse una ola

> «La ola del mar que percute en la orilla oblicua… se estrella contra ella con ímpetu, después de romperse, consume su ímpetu en correr por la playa antes batida. Al volver atrás embiste la base de la ola siguiente y la retrasa. Por lo tanto, avanzando más la cresta que la base de la ola llega un momento que al carecer de base o apoyo se desploma sobre sí misma entrando bajo la espuma.»

No son muchas las urbes, en las que la relación entre ésta y el mar resulte más sensata y más culta, que lo que las distintas arquitecturas urbanas y a lo largo

> ten da noiz, oinarririk edo euskarririk gabe, bertan eroriko den eta aparraren azpian sartu.»

Ez dago itsasoarekiko erlazio zentzudunagoa eta kultuagoa duen hiri asko hiri arkitekturek eta luzaroan zehar Lekeitiok Kantauri itsasoko zatiari dagokionez lortu duena baino gehiago lortzeko gai denik. San Petersburgok ezarritako ildoan —Errusien Baltikorako irekiera handia— aurkituko ditugu akaso euskarri izango zaizkigun eta emulatu ahalko ditugun ezaugarriak. Baina Errusiako hiriaren gaia, eskala eta esanahia edozein izanik ere, hain da desberdina, ezen aparteko azterketa bat, iruzkin luze bat eta artikulu labur honek adierazi nahi duen guztia baino gogoeta akademikoago bat merezi baitu.

Lekeition, diogun bezala, itsasoa, eta haren elementuak (airea, ura, haizeak eta olatuak) Talara iristen dira eta, lehen eraso baten ondoren, makurrenak eta menderakaitzenak, San Nikolas uharteko harkaitzen aurka desbideratzen dira.

Zalantzarik gabe, haize eta olatu jasankor eta lasaienek badakite norabidea aldatzen Isuntza hondartzan sartzeko; han, harearen atzean, eta «Aitxitxa Makurrak» etengabe zainduta eta ohartarazita, horma-harresi bikain bat altxatzen da lurraren (hirigunea) eta hondartzaren (natura) artean.

Lur hori parke bihurtzen da han, baranda txiki eta apaleko horma soilaren atzean, garai batean jauregi lorategia eta monarkia austro-hungariarren azken aurreko atsedenaldia zenaren eta Isuntzako hondartzaren arteko muga zehazten duena. Bigarren burdin hesia, zeinaren aurrean Kantauri itsasoko elementuek bekokia tolesten baituten Lekeitio izeneko toki horretara iristean.

de mucho tiempo han conseguido para Lekeitio frente a su trozo de Cantábrico. En la línea marcada por San Petersburgo, la gran apertura de las Rusias al Báltico podemos, quizá encontrar, los caracteres sobre los que apoyarse y emular. Pero sea como fuere el tema, la escala y la significación de la ciudad rusa, resulta tan distinta que sin duda merece un estudio aparte, un comentario extenso, una reflexión más académica que cuanto este breve artículo intenta expresar.

En Lekeitio, como decimos, el mar, sus elementos aire, agua, vientos y olas llegan a «la Tala» y tras de una primera embestida son desviados los más aviesos e indómitos, contra los escollos de la isla de San Nicolás.

Sin duda los más sufridos y serenos vientos y olas saben cambiar el rumbo para adentrarse en la playa de Isuntza allí tras la arena, y en perpetua vigía y alertada por la «roca del abuelo» (*aittitta makurra*) se eleva un magnífico muro-muralla entre la tierra (lo urbano) y la playa (natura).

Tierra que allí es un parque tras del austero muro de humilde y ligera barandilla, definiendo la línea de frontera entre lo que fuera el jardín palaciego escenario curioso del anteúltimo reposo de monarquías austro-húngaras y la playa de Isuntza. Segundo rejón ante el que doblan testuz los elementos del Cantábrico al llegar a ese lugar llamado Lekeitio.

Pocos y muy apaciguados, ya domadas y peinadas, llegan las olas y los vientos al puerto, que mira de reojo a la bahía de Isuntza, tras el muelle de «los Curas».

Puerto magnífico, denominado del Contramaestre Chacho, plácido estanque o lámina de agua sobre la que sólo nadan los reflejos de los miradores, los reflejos de las casas que ahora son mirador al puerto y a natura, tras el cambio de fachada que honró la arqui-

Gutxi eta oso baretuak haizeak, jada bezatuak eta orraztuak olatuak, hala iristen dira Apaizen kaiaren atzean dagoen Isuntzako badiari zeharka begiratzen dion portura.

Portu bikaina, Chacho kontramaisuarena deitua, urmael edo ur-xafla lasaia, non begiratokien islek —orain portuaren eta naturaren begiratoki diren etxeen islek— baino ez duten igeri egiten, Lekeitioko hiri arkitektura —garai ilustratuetako kultuenetako bat— ohoratu zuen fatxada aldaketaren ondoren.

Portua, halaber, kaiak, plazak —kareharri gogorrean altxaturiko eta balaustrez erremataturiko plataforma indartsua—, eta platanondo lirain eta gotikoen adaburuek —Antiguako Andre Mariaren parrokia elizaren fabrika gotikoaren edertasuna eta potentzia administratzen duten pantaila lotsakorrak— osaturiko hiri sekuentziaren islaren zilar koloreko euskarria da.

Hainbeste iragazkik, hainbeste belok, hainbeste orrazik oso delikatu eta eder egiten dute monumentuaren (Lekeitio) eta itsasoaren arteko harremana.

Beti izan zen San Juan Talako behatoki-baselizan, non hainbeste alargunek deitoratu baitzituzten naufragioak, begi erne bat, sentiberatasun argi bat, arkitekto trebe bat, politikari zentzudun bat, egunero-egunero hiri bikain bat egiten jakin zuena; hiri bat non, aspaldiko garaietatik, haizeak orraztu ziren, itsasoak bezatzeko esperientziadun geometriak zituzten dikeak eta harresiak eraiki ziren, baita herritarrek behar zituzten plazak eta tenpluak ere, guztiak partikularren etxetxoen serie errepikakorren aurkako kontrapuntu monumental gisa.

tectura urbana de Lekeitio, como una de las más cultas en tiempos ilustrados.

También sirve el puerto como plateado apoyo al reflejo de la secuencia urbana conformada por el muelle, la plaza como potente plataforma alzada en dura caliza y remate de balaustres, las copas de esbeltos y góticos plátanos que hacen de pantalla pudorosa, administrando la belleza y potencia de la fábrica gótica de la Iglesia Parroquial de Santa María de la Antigua.

Tantos filtros, tantos velos, tantos peines hacen enormemente delicada y hermosa la relación entre el monumento (Lekeitio) y el mar.

Siempre hubo en el observatorio-ermita de San Juan Talako, donde tantas viudas lloraron naufragios, un ojo avizor, una sensibilidad despierta, un arquitecto hábil, un político sensato, que supieron hacer, día a día, una magnífica urbe donde desde viejos tiempos se peinaron los vientos, se construyeron diques y muros con geometrías experimentadas para domar los mares y se edificaron las plazas y templos que necesitan los ciudadanos todos, como contrapunto monumental frente a las series repetidas de las casas de habitación particulares.

Dos maneras de entender la naturaleza, dos maneras de interactuar con ella. O bien como bucólico paisaje o bien como desatados elementos en furiosa ebullición. Finalmente una manera de construir la urbe, urbanizar; con arte, ponderación y la adecuada utilización de arquitecturas e ingenierías correctamente mesuradas. Todo ello con el fin de elevar a feliz síntesis la construcción y edificación del lugar por excelencia de la vida colectiva. La CIVITAS que se yergue audaz y dominante sobre los cuatro elementos: la tierra, el agua, el aire y el fuego.

Mayo, 1989

Natura ulertzeko bi modu, harekin elkarreragiteko bi modu. Edo paisaia bukoliko gisa, edo irakinaldi amorratuan dauden elementu askatu gisa. Azkenik, hiria eraikitzeko, urbanizatzeko modu bat; artearekin, haztapenarekin eta behar bezala neurtutako arkitektura eta ingeniaritzen erabilera egokiarekin. Hori guztia, bizitza kolektiboko tokirik nagusienaren eraikuntza zorioneko bihurtzeko. Lau elementuen gainean —lurra, ura, airea eta sua— ausart eta menderatzaile altxatzen den CIVITASa.

1989, maiatza

## Monumentos donostiarras y la avenida de la Libertad

Nunca el suelo de una calle, plaza o cualquiera otro elemento exterior de una urbe es totalmente plano u horizontal. Estudiados y muy sutiles planos inclinados, con ligeras pendientes, conducen las aguas de lluvia a su sitio —rejilla, sumidero, alcantarilla o imbornal— configurando de este modo lo que llamamos el perfil de la calle, plaza o de ese elemento de la ciudad.

En este sentido son memorables, por su alta cualidad, los perfiles de la Plaza Roja moscovita, la de San Juan Arri en el cercano Irún, la antigua plaza Elíptica en Bilbao y no desmerecía lo más mínimo el perfil que se dibujaba en la Avenida de la Libertad donostiarra hasta su última renovación.

Desde hace mucho tiempo, las urbes y los ciudadanos de este País se debaten en una intensa liturgia, efervescente y eminentemente romántica, en cuyo culto únicamente cobra valor el deber colectivo de conservar. Conservar, aunque para ello sea necesario, previamente, practicar el acto antinatural por excelencia: embalsamar o momificar.

Llevamos una temporada demasiado larga momificando edificios y otros trozos urbanos, reinventando taxidermias y otras formas de disecar formas de edificios antiguos y mientras tanto pasamos de largo por otros muchos aspectos valiosos de nuestra urbanidad.

Algunos son capaces de anclar la historia, apergaminar la memoria y sobre todo cercenar cualquier posibilidad de progreso civil en materia formal, aplicando corsés de dudoso respeto con la historia en su siempre versátil e irónica movilidad.

## Donostiako monumentuak eta Askatasunaren hiribidea

Kale, plaza edo hiri baten kanpoko beste edozein elementuren zorua ez da inoiz erabat laua edo horizontala izaten. Malda txikiak dituzten plano inklinatu aztertu eta oso sotilek beren lekura eramaten dituzte euri urak (sareta, hustubidea, estolda edo kainu zuloa), eta, horrela, hiriko kalearen, plazaren edo elementu horren profila eratzen dute.

Alde horretatik, gogoangarriak dira, beren ezaugarrigatik, Moskuko Plaza Gorriaren profilak, Irungo San Juan Arrirenak, Bilboko antzinako plaza Eliptikoarenak; eta ez zuen balio txikiagoa Donostiako Askatasunaren hiribidean marrazten zen profilak, azkenekoz berritu zen arte.

Aspaldidanik, herri honetako hiriak eta herritarrak borrokan dabiltza liturgia bizi eta bereziki erromantikoan, eta haien kultuan balioa duen bakarra kontserbatzeko betebehar kolektiboa da. Kontserbatzea, nahiz eta horretarako beharrezkoa izan aldez aurretik naturaren aurkako ekintza nagusi bat gauzatzea: baltsamatzea edo momifikatzea.

Denboraldi luzeegia daramagu eraikinak eta beste hiri zati batzuk momifikatzen, taxidermiak eta antzinako eraikinen formak disekatzeko beste modu batzuk berrasmatzen, eta bitartean gelditu gabe igaro gara gure hiritartasunaren beste alderdi baliotsu askoren aurretik.

Batzuk gai dira historia ainguratzeko, oroimena zimurtzeko eta, batez ere, arlo formalean aurrerapen zibilerako edozein aukera murrizteko, historiarekiko begirune zalantzagarriko kortseak aplikatuz, haien mugikortasun aldakor eta ironikoan.

Ahora y aquí, en cuanto arquitectura y urbanidad respecta, lo único importante es discernir entre lo que se puede y se debe de conservar, y lo que por otro lado resulta conveniente o perentorio de renovar. Y para ello es preciso estudiar mucho, dogmatizar poco, y sobre todo no tener un excesivo afán de notoriedad y pasarse de justicieros cargados de probidad.

El caso es que al margen de mayores o menores estridencias o aciertos como las del viejo convento de San Bartolomé, Villa Manolita (¡vaya apelativo!) o el denostado «levante» del edificio de la Equitativa, la estatua del Sagrado Corazón rematando el Castillo de Urgull, etc. Y que son las que atraen el interés para la polémica del personal, pasan desapercibidas otras muchas cuestiones sutiles que configuran tantos y tantos matices de belleza cotidiana y del buen hacer constructivo en esta ciudad.

Se acaba de proceder a la reforma de una parte sustancial de la calle o trazado más carismático del Ensanche decimonónico de San Sebastián. Se ha trabajado sobre las aceras de la Avenida de la Libertad. En estos trabajos se ha olvidado el matiz, se ha obviado aquella dulzura proporcionada por las muy ligeras pendientes que conducían las aguas a la línea de rejillas que enlazaban los alcorques de los árboles, formando parte de una hermosa y cuidada acera de humilde material. Ahora la nueva acera reformada de la Avenida, en gran parte correcta en su textura y material, es un simplón y único plano inclinado que escupe las aguas sobre el borde de la calzada. Antes esas aguas eran conducidas a su sitio —rejillas e imbornales— a través de tres planos inclinados, los cuales definían un perfil apropiado a una extensa acera, cargado de sutilezas y preñado de poesía de profunda urbanidad.

Orain eta hemen, arkitekturari eta hiritartasunari dagokionez, garrantzitsua den gauza bakarra kontserbatu daitekeena eta kontserbatu behar dena, eta bestetik, berritzea komeni edo beharrezkoa dena bereiztea da. Eta, horretarako, asko estudiatu behar da, gutxi dogmatizatu, eta, batez ere, nabarmenkeria gehiegi ez izan eta zintzotasunez betetako justiziagileenarena ez gehiegi egin.

Kontua da, zarata handiagoak edo txikiagoak edo hobe ala okerrago egindakoak alde batera utzita; esaterako San Bartolome komentu zaharrekoak, Villa Manolitakoak (a ze abizena!), Ekitatiba eraikinaren «jasodura» laidoztatuarenak, Urgulleko gaztelua errematatzen duen Jesusen Bihotzaren irudiarenak, eta abar, alegia, interesa erakarri eta polemika pizten dutenak, oharkabean pasatzen direla beste hainbat kontu sotil, hiri honetako eguneroko edertasunaren eta eraikitze lan onaren hainbat eta hainbat ñabardura eratzen dituztenak.

Duela gutxi eraberritu dute Donostiako hemeretzigarren mendeko zabalguneko kalearen edo trazadura karismatikoenaren zati handi bat. Askatasunaren hiribideko espaloietan aritu dira lanean. Lan horietan xehetasunak ahaztu dituzte, alde batera utzi dira urak zuhaitzetako txorkoak lotzen zituzten sareta lerrora eramaten zituzten malda oso arinen gozotasuna, material apaleko espaloi eder eta zaindu haiek. Orain, Hiribideko espaloi berritu berria, zati handi batean zuzena bere testura eta materialari dagokionez, urak galtzadaren ertzera botatzen dituen plano inklinatu sinple eta bakana da. Lehen, ur horiek beren lekura bideratzen ziren (saretak eta kainu zuloak), hiru plano inklinaturen bidez, zeinak gozotasunez eta gizalege sakoneko poesiaz beteriko espaloi zabal baterako profil egokia zehazten zuten.

Todavía es posible hoy, acercarse a la Avenida y comprobar las dos maneras diferentes de entender el perfil de la acera, antes de la reforma y la de después, pero ahora es ya un algo tarde y evitando males mayores, más vale que las cosas acaben de la manera comenzada. Al menos en uno de los lados de la Avenida en su totalidad.

Si esta ciudad cuidara más de educarse a sí misma, si sus cronistas y portavoces se cuidaran más del oficio que del beneficio, pequeñas cosas como la que relato, creo no hubieran sucedido. Se hubieran evitado. Pero parece que por aquí sólo nos interesa, y en demasía; el exabrupto pasional y romántico con la consiguiente falta de finura de cuanto suponga la obra de cada día bien hecha, culta y con naturalidad.

Sería el momento de profundizar en ese aforismo: «Dios está en los detalles», atribuido a Gustave Flaubert, aunque fuera el arquitecto Mies van del Rohe quien lo difundiera con éxito.

Junio, 1994

Gaur egun, oraindik ere, posible da Hiribidera hurbiltzea eta espaloiaren profila ulertzeko bi modu desberdinak egiaztatzea, eraberritzearen aurrekoa eta ondorengoa, baina orain berandu samar da eta kalte handiagoak saihesteko, hobe da gauzak hasitako moduan bukatzea. Behintzat Askatasunaren hiribideko aldeetako batean.

Hiri hau bere burua hezteaz gehiago arduratuko balitz, bere kronikariak eta bozeramaileak ofizioaz onuraz baino gehiago arduratuko balira, kontatzen ari naizena bezalako gauza txikiak ez ziratekeen gertatuko. Saihestu egingo ziren. Baina badirudi hemen pasiozko eta erromantikotasunezko purrustada bakarrik interesatzen zaigula, gehiegi interesatu ere, eta ondorioz, fintasuna falta zaiola ondo, kulturaz eta naturaltasunez eginiko eguneroko obrari.

Honako aforismo honetan sakontzeko unea litzateke: «Jainkoa xehetasunetan dago», Gustave Flauberti egozten zaiona, nahiz eta Mies van del Rohe arkitektoak arrakastaz zabaldu.

1994, ekaina

## San Sebastián sobre San Sebastián

¿A quién puede sorprender a estas alturas, la aparición de restos de fortificación, conservados en bastante buen estado, bajo la tierra de Alderdi-Eder? ¿Es ciertamente necesario un aparcamiento en Alderdi-Eder y el Bulevar o es que no hay otras localizaciones menos conflictivas, de menores riesgos culturales y más positivas para el conjunto de los ciudadanos de esta ciudad? Demasiados interrogantes, a los que la ciudadanía donostiarra, a través de sus representantes políticos, ha eludido dar respuesta de una manera adecuada y oportuna en estos últimos años, y ante tales carencias, ahora no les queda otro recurso que improvisar.

Nuestra ciudad, como tantas otras, está constituida por una serie de estratos superpuestos, que corresponden a épocas distintas y significativas en su propia definición formal. Hoy podemos encontrar con facilidad los estratos de la Donostia antigua y también los de una Donostia decimonónica, pero en cualquier caso no conviene confundir ambos, como pasa con frecuencia en la actualidad.

Se puede decir, sin ambages, que la Donostia decimonónica, el llamado Ensanche, arrasó a la antigua ciudad, y además lo hizo a ciencia y conciencia, mientras festejaba con alborozo, la destrucción de su fortaleza y el aniquilamiento de su propia coraza muraria, para adentrarse, más o menos hacia 1860, hacia la modernidad. ¡Claro que aquellos eran otros tiempos!

Por tanto, hoy tenemos aquí, al menos, dos ciudades superpuestas. De un lado, una preexistencia figurativa, formada por la Villa (actual Parte Vieja y toda su sistema de baluartes derribados hasta la cota del suelo), en sutil diálogo formal con las emergencias

## Donostia bat bestearen gainean

Gaur egun, nor harrituko du Alderdi Ederreko lursailaren azpian nahiko egoera onean kontserbatutako gotorleku hondarrak agertzeak? Beharrezkoa al da aparkaleku bat Alderdi Ederren eta Bulebarrean? Ez al dago hain gatazkatsua ez den kokalekurik, arrisku kultural txikiagoa izango duena edo positiboagoa hiri honetako biztanleentzat? Galdera gehiegi dira, eta azken urteetan Donostiako herritarrek, beren ordezkari politikoen bitartez, uko egin diote haiei erantzun egokia bilatzeari; eta gabezia horien aurrean, inprobisatzea beste baliabiderik ez zaie geratu.

Gure hiria, beste asko bezala, hainbat geruza gainjarrik osatzen dute, beren definizio formalean garai ezberdin eta esanguratsuei dagozkienak. Gaur egun erraz aurki ditzakegu antzinako Donostiaren estratuak, baita hemeretzigarren mendeko Donostiarenak ere, baina ez da komeni biak nahastea, gaur egun maiz gertatzen den bezala.

Esan daiteke, zalantzarik gabe, hemeretzigarren mendeko Donostiak, Zabalgune izenekoak, suntsitu egin zuela antzinako hiria, eta, gainera, zientzia eta kontzientzia handiz egin zuela, bere gotorlekuaren eta bere horma bidezko babesaren suntsipena alaitasunez ospatzen zuen bitartean, modernotasunean barneratzeko, gutxi gorabehera 1860 aldera. Noski, beste garai batzuk ziren!

Beraz, gaur egun, gutxienez bi hiri ditugu hemen gainjarrita. Alde batetik, aurre existentzia figuratibo bat, honako hauek osatua: hiribildua (gaur egungo Alde Zaharra eta lurzoruaren kotaraino eraitsitako gotorleku sistema osoa), San Bartolomeko irtenune

naturales y lugares conventuales de San Bartolomé (aún vivo, pero por poco tiempo), el de San Agustín (posterior torreón de guerras carlistas y actual palacio de Miramar), y el de San Francisco (convento desamortizado y actual lugar de acogida de los vehículos municipales en Zuahisti, hasta que la «imaginación ilustrada de nuestros munícipes» lo convierta en un polideportivo municipal).

Sobre aquella vieja Donostia, tenemos un Ensanche decimonónico, en el que entre Cortázar y Goicoa, como artífices de sus diseños, dieron al traste con la ciudad antigua, derribaron toda la fortaleza para dar paso a Alderdi-Eder y el Bulevar y plantearon una ciudad alternativa a aquella, que era la vieja ciudad. Si no acabaron con San Bartolomé, con San Agustín y con San Francisco fue porque a las excavadoras y bulldozers, ese invento maligno para la lírica urbanística, les faltaban unos 90 años, para hacerse mayorcitos y aprender a morder.

Si algún cometido concreto correspondía realizar al Plan General de Urbanismo de San Sebastián recientemente aprobado, era diseñar las líneas maestras de una hermosa ciudad para comienzos del siglo XXI, en la que se fuera configurando en una nueva síntesis los estratos urbanísticos más valiosos en la Historia de nuestra ciudad. Es evidente que no ha sido así. Se ha primado la manera de hacer decimonónica en su faceta más tosca y bajo un ropaje estilísticamente ecléctico, se ha tirado por la vía del medio en cuanto al modelo polinuclear de los conventos donostiarras. Se van a «podar» sus históricas geografías emergentes y se han elegido para guardar los coches y poner supermercados, los lugares más complejos y sutiles de la historia urbana donostiarra: Alderdi-Eder y el Bulevar.

Aquella v*ielle ville* a la que Cortázar quiso estructurar en tres clases de ciudadanos: la más acomodada,

naturalekin eta komentuetako lekuekin elkarrizketa formal sotilean (oraindik bizirik, baina denbora gutxiz), San Agustin (karlistaldietan dorre izandakoa eta gaur egun Miramar jauregia dena) eta San Frantzisko (komentu desamortizatua eta gaur egun udal ibilgailuak hartzen dituen lekua, Zuhaiztin, gure zinegotzien irudimen ilustratuak udal kiroldegi bihurtu arte).

Donostia zahar haren gainean hemeretzigarren mendeko zabalgune bat dugu, non Cortazarrek eta Goicoak hiri zaharra suntsitu eta gotorleku osoa eraitsi zuten Alderdi Eder eta Bulebarra sortzeko, eta hiri zaharraren ordezko hiri bat planteatu zuten. San Bartolomerekin, San Agustinekin eta San Frantziskorekin amaitu ez bazuten, hondeamakinei eta *bulldog-zerrei* —hiri lirikarako asmakizun gaizto horiei— kozkortzeko eta koska egiten ikasteko 90 urte inguru falta zitzaizkielako izan zen.

Orain dela gutxi onartu den Donostiako Hirigintza Plan Orokorrari zeregin zehatzen bat bazegokion XXI. mendearen hasierarako hiri eder baten ildo nagusiak diseinatzea zen, zeinetan gure hiriaren historiako hirigintza estratu baliotsuenak eratzen joango ziren. Argi dago ez dela horrela izan; hemeretzigarren mendeko egiteko modua lehenetsi da, baina bere alderdirik zakarrenean, eta estilistikoki eklektikoa den itxura baten azpian. Erdiko bidetik jo da Donostiako komentuen eredu polinuklearrari dagokionez. Irtenune geografiko historikoak «inausi» egingo dira, eta autoak gordetzeko eta supermerkatuak jartzeko Donostiako hiri historiako tokirik konplexu eta sotilenak aukeratu dira: Alderdi Eder eta Bulebarra.

Cortazarrek hiru hiritar motatan egituratu nahi izan zuen *vielle ville* hura: aberatsenak, biztanleria mugi-

la población flotante, es decir la de bañistas y veraneantes, y la de los artesanos y obreros, ahora ha visto añadido su elenco con la clase de los jubilados, más los infinitos patinadores juveniles que arrasan las áreas peatonales de nuestro flamante nuevo sistema callejero.

En este contexto, si se plantea el hacer aparcamientos en el subsuelo de Alderdi-Eder y en el del Bulevar, pues claro que salen restos arqueológicos, por todas partes, restos y más restos de aquella primitiva fortificación. Basta contemplar un plano anterior a 1859 para tomar conciencia que no podía ser de otra forma.

A algunos siempre nos ha parecido un enorme error, frente al limitado objetivo de obtener unas cuantas plazas de garaje, agujerear estos espacios decimonónicos, cargados de enterramientos históricos. Por ello nadie debe ahora llamarse a engaño y sorpresa, al contemplar cómo surgen por doquier hermosos muros de mampuesto y algunos de sillería, que estaban «bajo tierra». Lo que no encaja con una civilización de progreso, es trabajar más de 10 años, para programar un aparcamiento y al empezar a construirlo, encontrar al primer golpe de excavadora, lo que ya todos sabíamos, los muros históricos. Y antes de afrontar la barbarie en su propia salsa, algunos, poniendo por montera el emblema de la estética romántica donostiarra y sus claves puramente estetizantes, nos proponen parar ahora todos un rato, para reflexionar.

Paralizar o simplemente alterar los ritmos de una obra es un trauma grave que denota poca madurez cívica y política, representa unos costos, unas deseconomías y unas frustraciones difíciles de evaluar, conduce a cientos de familias al paro, y todo ello, por no haberse parado, a su debido tiempo, a pensar.

korra, hau da, bainulari eta udatiarrek osaturikoa, eta artisau eta langileena. Orain, dena den, zerrenda hori handitu egin da erretiratuen klasearekin, eta gure kale sistema berriko oinezkoentzako eremuak hartuak dituzten patinatzaile gazte amaigabeekin.

Testuinguru horretan, Alderdi Ederreko eta Bulebarreko lurpean aparkalekuak egitea planteatzen bada, gauza jakina da aztarna arkeologikoak aterako direla, nonahi, jatorrizko gotorleku haren hondakinak alde guztietatik. Nahikoa da 1859 baino lehenagoko plano bati begiratzea bestela ezin zitekeela izan ohartzeko.

Batzuoi akats itzela iruditu izan zaigu beti, aparkatzeko leku batzuk lortzeko helburu mugatuaren aurrean, ehorzketa historikoez beteta dauden hemeretzigarren mendeko gune horiek zulatzea. Horregatik, orain inork ez du damutu behar eta ezustekorik hartu behar harlangaitzezko horma ederrak eta «lur azpian» zeuden harlanduzko horma batzuk nonahi nola sortzen diren ikustean. Aurrerapenaren zibilizazioarekin bat ez datorrena da aparkaleku bat programatzeko 10 urte baino gehiago lan egitea eta eraikitzen hastean, hondeamakinaren lehen kolpearekin batera, denok genekiena, hau da, horma historikoak aurkitzea. Eta basakeriari bere saltsan aurre egin baino lehen, batzuek, estetika erromantiko donostiarraren ikurra eta estetizazio gako hutsak aurretik jarrita, orain denok tarte batez gelditzea proposatzen digute, gogoeta egiteko.

Obra bat geldiaraztea, edo, besterik gabe, haren erritmoak aldatzea trauma larria da, eta heldutasun zibiko eta politiko txikia adierazten du, kostu, desekonomia eta frustrazio ebaluaezinak ekartzen ditu, eta ehunka familia eramaten ditu langabeziara, eta hori guztia, bere garaian pentsatzera ez gelditzeagatik.

Una vez más, hemos caído en la inmadurez urbanística, hemos olvidado a San Sebastián para sustituirlo por *san-se-discute* y *san-se-está-bien*. Lo que, en su día, pudo haber sido un proyecto brillante de recuperación e integración de nuestra historia urbana, superando el esquematismo decimonónico, incluso buscando y valorando restos de cimientos y murallas en los sótanos de tantas casas, incluida la Consistorial, que hoy se asientan en pleno Ensanche, para poner en valor lo que era la antigua fortificación, se puede convertir en uno más de los rifi-rafes tan frecuentes como innecesarios y empobrecedores. Siempre al margen de cualquier planteamiento político de coherencia urbanística e histórica, así como de cultura y civilidad.

No creo mucho, en que los siempre tardíos y apocalípticos manifiestos de intelectuales, consigan grandes cosas para rectificar nuestro comportamiento cotidiano. Pero si esta vez nos sirve para pensar cómo debemos de afrontar los problemas del urbanismo y la historia donostiarra para la próxima oportunidad, bienvenidas sean las firmas de mis amigos en defensa de la muralla donostiarra, pero yo no puedo dejar de ser pesimista ante el desarrollo de esta ciudad. Sigue el proceso destructor de San Bartolomé, se confirma la pésima ordenación urbanística sobre el solar del viejo convento de San Francisco y sus aledaños de Atotxa, y con los mercados de la Bretxa cualquier cosa puede suceder. En definitiva la Donostia histórica en una de sus facetas figurativas más brillantes está a punto de desaparecer.

Beste behin ere, hirigintzaren heldutasunik ezan erori gara, Donostia ahaztu eta *Don-eztabaidatzen* da eta *D-ondo-gaude*rengatik ordezkatzen dugu. Bere garaian, gure hiri historia berreskuratzeko eta integratzeko proiektu bikaina izan zitekeena, hemeretzigarren mendeko eskematismoa gaindituta, are gaur egun zabalgunean dauden hainbat etxetako sotoetan —Udaletxea barne— zimendu eta harresien hondarrak bilatuta eta baloratuta, antzinako gotorlekuari balioa emateko, ohikoak bezain pobretzaileak diren hizka-mizka bilaka daiteke. Beti alde batera utzita hirigintzaren eta historiaren koherentziari buruzko edozein planteamendu politiko, bai eta kulturari eta gizalegeari buruzkoa ere.

Ez dut uste intelektualen adierazpen beti berantiar eta apokaliptikoek gauza handirik lor dezaketenik gure eguneroko portaera zuzentzeari dagokionez. Baina oraingoan Donostiako hirigintzaren eta historiaren arazoei nola aurre egin behar diegun pentsatzeko balio badigu, ongi etorriak Donostiako harresia defendatzeko nire lagunen sinadurak, baina, hala ere, nik ezin diot ezkor izateari hiri honen garapenaren aurrean. San Bartolome suntsitzeko prozesuak aurrera darrai, San Frantziskoko komentu zaharraren orubearen eta haren Atotxako ingurukoen gaineko hirigintza antolamendu kaskarra berretsi dute, eta Bretxako merkatuekin edozer gauza gerta liteke. Azken batean, Donostia historikoaren alderdi figuratibo distiratsuenetako bat desagertzear dago.

## Murallas y silencio

Siguen los dimes y diretes sobre la fortificación donostiarra, esas murallas de mampuesto tan bien conservada en arenas, durante unos ciento treinta años, tras el interesado expolio de sus sillares de mayor valor. Ha quedado meridianamente clara nuestra inveterada tendencia a resolver los problemas, todos, y en concreto los de la cultura urbana, en claves de prepotencia populista e improvisación. En todo este singular y breve proceso de «impostación de ideas sobre las fortificaciones donostiarras» se han echado a faltar de una forma clamorosa, dos pronunciamientos necesarios. ¿Por qué ha callado el Instituto Francisco de Ibero, reliquia de tan arduos trabajos en la defensa de los valores históricos de la arquitectura y la faceta donostiarra de la urbanidad, Institución vinculada a la R.S.V.A.P., que otras veces fuera tan locuaz? ¿Qué le pasa al Colegio de Arquitectos, que lo mismo nos sorprende con una esquela por el levante de una casa, como calla ante los problemas más lacerantes de una realidad urbanística más bien triste, en la que únicamente se reserva a la arquitectura y a sus «concursos» la facultad de elegir el modelo y el material de los bancos, farolas y pavimentos, cuando el fundamento de los procesos constructivos y urbanos, se desarrollan al margen de la arquitectura y la cultura de la ciudad? Algo de eso queda palmariamente demostrado en el extraño proceso proyectual del mercado de la Brecha y sus alrededores.

Las murallas de Alderdi-Eder han puesto en claro muchos de los problemas de fondo en la arquitectura y en el urbanismo donostiarras, no sería malo sacar de ello las consecuencias más adecuadas y precisas, para que este estado de cosas se corrija. Para que empecemos todos, a andar con pie firme sobre un camino algo más sensato, donde quedando orillado ese «historicismo en estilo» tan cargado de intereses, primen la cultura general y el principio de urbanidad.

Febrero, 1997

## Harresiak eta isiltasuna

Donostiako gotorlekuaren gaineko eztabaidak ez dira amaitu; balio handieneko harlanduak espoliatu ondoren ehun eta hogeita hamar urte inguruz hareatan hain ongi kontserbatutako harlangaitzezko harresi horiez ari gara. Argi eta garbi geratu da arazo guztiak eta, zehazki, hiri kulturari dagozkionak, konpontzeko dugun antzinako joera, prepotentzia populistaren eta inprobisazioaren ildotik. «Donostiako gotorlekuei buruzko ideien inpostazio» prozesu berezi eta labur horretan guztian, bi erabaki falta izan dira. Zergatik isildu da Francisco de Ibero Institutua, Donostiako arkitekturaren balio historikoak eta hiritartasunaren alderdia defendatzeko hain lan neketsuen erlikia, Euskalerriaren Adiskideen Elkarteari lotua, beste batzuetan halako hitz jarioa izan duenean? Zer gertatzen zaio Arkitektoen Elkargoari, zergatik batzuetan eskela bat egiten du etxe baten jasoduragatik, eta beste batzuetan, aldiz, isildu egiten da hirigintza errealitate triste baten arazo zaurgarriagoen aurrean? Zergatik mugatu dute azken aldian arkitekturak bere «lehiaketek» dagokien zeregina bankuen, farolen eta zoladuren modeloa eta materiala aukeratzera, eraikuntzako prozesuak eta hiri prozesuak arkitekturatik eta hiriaren kulturatik kanpo egiten direnean? Hein batean Bretxako azokako eta haren inguruetako proiektuaren prozesu arraroan aurkituko dugu azalpena.

Alderdi Ederreko harresiek Donostiako arkitekturaren eta hirigintzaren sakoneko arazo asko jarri dituzte agerian; ez legoke hain gaizki horretatik ondorio egokienak eta zehatzenak ateratzea, egoera hori zuzen dadin. Denok bide zentzudunago batetik ibiltzen has gaitezen, interesez beteriko «estilo historizismo» hori alde batera utzi eta kultura orokorra eta hiritartasun printzipioa lehenetsiko dituen bide batetik.

1997, otsaila

# Premios, concursos y otras formas de valorar la Arquitectura

- Sverre Fehn, arquitecto y fondista nórdico.
- Del Pritzker y otros premios.

# Sariak, lehiaketak eta Arkitektura baloratzeko beste modu batzuk

- Sverre Fehn, arkitekto eta fondista norvegiarra.
- Pritzker saria eta beste sari batzuk.

## Sverre Fehn, arquitecto y fondista nórdico

Desde este otro rincón del Atlántico, que conocemos como Vasconia o Euskal-Herria, hay varias razones para sentirse contentos con el premio Pritzker que ha merecido este maduro arquitecto noruego. Se trata de una personalidad fuerte, capaz de aguantar modas, superar otros embates y sobre todo tiene tras de sí una larga travesía desértica a través del «ninguneo», la falta de encargos y la soledad del profesor de arquitectura.

Siempre fue para nosotros un paradigma el comportamiento general del mundo báltico, en relación con la arquitectura. Las dos grandes tendencias formales de todos los tiempos conviven allí fructíferamente, emergiendo alternativamente una sobre la otra, sin mayores traumas ni contratiempos. ¿Quién no admira la profundidad del clasicismo nórdico, y quién puede dejar de emocionarse con el lirismo paisajístico de los edificios de Sverre Fehn, y tantos otros participantes del universo formal aaltiano? La tendencias formales nunca han jugado en el norte a destruirse mutuamente, ni hoy, ni en períodos mucho más difíciles, cuando en todo el resto de Europa, excepto Italia, el debate y la descalificación eran a muerte, entre tradición y vanguardia, entre bolchevismo formal y neoclasicismo, entre *«les anciens et les modernes»*.

Los países del Báltico, singularmente Finlandia, frecuentemente han fijado los grandes momentos de su identidad nacional y afianzamiento cultural en edificios de arquitectura, desde la catedral neoclásica de Helsinki de Carl Ludwig Engel, coronando la gran acrópolis de la ciudad, al clasicista Parlamento de J.S. Siren, llegando al magnífico edificio moderno denominado palacio Finlandia de A. Aalto sobre el lago

## Sverre Fehn, arkitekto eta fondista norvegiarra

Atlantikoko beste txoko honetatik, Euskal Herria izenez ezagutzen dugunetik, hainbat arrazoi ditugu Norvegiako arkitekto helduak irabazi duen Pritzker sariarekin pozik egoteko. Nortasun indartsua du, moden gainetik egoteko eta beste eraso batzuk gainditzeko gaitasuna eta, batez ere, ibilbide bakartia du bere bizkarrean, zeinetan gutxiespenari, enkargu faltari eta arkitekturako irakaslearen bakardadeari egin behar izan dion aurre.

Guretzat paradigma bat izan zen beti mundu baltikoaren portaera orokorra, arkitekturari dagokionez. Garai guztietako bi joera formal handiak elkarrekin bizi dira han, emankor, bata bestearen gainean txandaka azaleratuz, trauma eta eragozpen handirik gabe. Nork ez du miresten eskandinaviar klasizismoaren sakontasuna, eta nor ez da hunkitzen Sverre Fehnen eraikinen paisaia lirismoarekin, eta Aalto-ren unibertso formaleko beste hainbat partaiderenekin? Joera formalak ez dira iparraldean inoiz elkar suntsitzera jolastu, ez gaur, ez eta garai zailagoetan ere, Europa osoan, Italian izan ezik, tradizioaren eta abangoardiaren, boltxebikismo formalaren eta neoklasizismoaren, eta «*les anciens et les modernes*»en arteko eztabaidak eta deskalifikazioak hiltzerainokoak zirenean.

Baltikoko herrialdeek, bereziki Finlandiak, sarritan finkatu dituzte beren nortasun nazionalaren eta kultur finkapenaren une handiak arkitektura eraikinetan, hiriko akropoli handia koroatzen duen Carl Ludwig Engel-en Helsinkiko katedral neoklasikotik hasita, J.S. Sirenen Parlamentu klasizistara eta Töölö lakuaren gainean erakitako A. Aaltoren Finlandia jauregia deritzon eraikin moderno bikainera, modernotasu-

Töölö, sin olvidar los municipios de Goteborg y Estocolmo, paradigmas respectivamente de la modernidad y el mesurado y sutil clasicismo nórdico. Todos ellos como muestra del buen hacer de arquitectos, escandinavos, actuando por sí mismos, con libertad, alejados de todo cainismo y sin complejos. También conviene señalar, que los países del contexto báltico han sido pioneros en dedicar a la arquitectura sendos museos, donde se archivan planos, se discute con pasión y cultura, y se estudia, desde niveles populares amplios, este fenómeno de la arquitectura, tan importante para la convivencia civil y urbana. Otra característica del mundo nórdico de la arquitectura es su confianza en sí mismos, siempre al margen de los momentos y las modas, nunca hay grandes bandazos, por ello nada mejor para disfrutar del proceso creador arquitectónico que acercarse al universo de Sverre Fehn, actualmente magníficamente expuesto en la «palladiana basílica» de Vicenza. Allí se contraponen, creando una magnífica y nueva metáfora, los dos mundos que con mayor intensidad han animado y animan el alma arquitectónica báltica: clasicismo y paisaje. En esta exposición no resulta necesaria ni una sola de esas palabras esotéricas que cada tres años cambian su raíz y siempre terminan en *ismo*, en las que se esconde una incapacidad para buscar los senderos de progreso del arte, en el propio valor del matiz y tras fórmulas «absolutamente novedosas» sólo llegan a ofrecer más de lo mismo.

Una muestra cargada de sensibilidad por la arquitectura y por la profundidad expositiva de sus propias texturas. Se pueden apreciar desde los pabellones de Bruselas para la Expo del 58, pasando por el magnífico pabellón de los jardines de la Bienal de Venecia en el año 1962, hasta varios museos y sencillas casas familiares en el inmenso bosque báltico. Concursos no vencidos, como el enigmático espacio enterrado o

naren eta iparraldeko klasizismo neurritsu eta sotilaren paradigma diren Goteborg eta Stockholm hiriak ahaztu gabe. Guztiak ere beren kabuz, askatasunez, kainismo orotatik urrun eta konplexurik gabe jarduten duten arkitekto eskandinaviarren lan onaren erakusgarri dira. Aipatzekoa da, halaber, testuinguru baltikoko herrialdeak aitzindariak izan direla arkitekturari museo bana eskaintzen. Bertan, planoak artxibatzen dira, grinaz eta kulturaz eztabaidatzen da eta, herri maila zabaletatik, bizikidetza zibilerako eta hiri bizikidetzarako hain garrantzitsua den arkitekturaren fenomeno hori aztertzen da. Arkitekturaren mundu nordikoaren beste ezaugarri bat bere buruarengan duen konfiantza da, beti une eta modak alde batera utzita, inoiz ez dago aldaro handirik; horregatik, ez dago Sverre Fehnen unibertsora hurbiltzea baino esperientzia hoberik arkitekturaren sorkuntza prozesuaz gozatzeko. Eta, gaur egun, Vicenzako Palladioren basilikan dugu hari buruzko erakusketa bikaina ikusteko aukera. Han kontrajartzen dira, metafora bikain eta berri bat sortuz, Baltikoko arima arkitektonikoa gehien animatu izan duten eta animatzen duten bi munduak: klasizismoa eta paisaia. Hari dagokionez, ez da beharrezkoa hiru urtean behin sustraia aldatu eta beti ere «ismo» atzizkiarekin amaitzen diren hitz exoteriko horietako bakar bat ere erabiltzea; artearen aurrerabidearen bideak bilatzeko ezintasuna ezkutatzen duten hitz horiez ari naiz, formula «guztiz berritzaileen» atzean gauza bera baino eskaintzen ez duten horiez.

Arkitekturarekiko eta bere testuren adierazpen sakontasunarekiko sentsibilitatez betetako erakusketa bat. Hainbat gauza ikusiko ditugu: 1958ko Exporako Bruselako pabilioiak, 1962ko Veneziako Bienaleko lorategietako pabiloi bikaina, baita hainbat museo eta Baltikoko baso erraldoian eraikitako familia etxe xumeak ere. Irabazi gabeko lehiaketak, hala nola, Vasa (1982) Suediako itsasontzi ospetsua erakus-

túnel arquitectónicamente mesurado en el que exhibir el legendario barco sueco Vasa (año 1982), hasta el primer premio en la extensión del teatro real de Copenhague del pasado año; todo un reconfortante itinerario de cultura, sin un sólo aspaviento.

Este es el largo y apasionante recorrido de un «atleta», que por coherencia y convicción con la práctica y enseñanza de su oficio de arquitecto durante cuarenta años, es más un enjuto corredor de fondo, que aquel oportunista charlatán de fonda en el que tantas y tantas veces se convierten, por estos pagos, quienes toman decisiones y articulan el discurso cotidiano de la forma arquitectónica.

Mayo, 1997

teko espazio lurperatu enigmatikoa edo tunel arkitektoniko neurtua, Kopenhageko errege antzokiaren hedapenagatik joan den urtean irabazitako lehen sarira arte; kultura ibilbide atsegin bat, furfuria bakar bat gabe.

Fondista baten ibilbide luze eta zirraragarria da hau, berrogei urtez bere arkitekto lanbidearen praktika eta irakaskuntzarekin koherente eta sineskor izanik, iraupen lasterkari bat dena, ostatuko berritsu oportunista bat baino gehiago, naiz eta gurean azken horiek izan erabakiak hartzen dituztenak eta arkitekturaren formaren eguneroko diskurtsoa artikulatzen dutenak.

1997, maiatza

## Del Pritzker y otros premios

Como bilbaíno, como arquitecto y como ardiente defensor de lo vasco y su afirmación cultural, lógicamente, entiendo de manera muy positiva que un premio de arquitectura de resonancia mundial, el Pritzker de 1986, se concediera a un arquitecto próximo. Nacido en Tudela y la entrega correspondiente al año premio del año siguiente, al parecer, se realizará en Bilbao. Habíamos leído, hace unos pocos días, que el premio correspondiente al año 1987 iba a ser entregado en Andalucía (Granada o Córdoba, no recuerdo bien) buscando para el acto, el apoyo arquitectónico y marco formal de la inmensa y grandiosa arquitectura presente en ambas localidades, como elemento de singular valor e importancia cultural. Ambas, noticias breves de prensa, me atrevo a decir que «de agencia», resultan contradictorias entre sí y frente a las cuales, curiosamente, aún no se ha producido, en España, ningún tipo de reacción especial.

¿Qué ha pasado en estos escasos días para que la influyente Fundación Hyatt abandone el valor seguro del grandioso marco arquitectónico hispano-árabe, para acogerse a un edificio aún «non nato» y todavía en obras, argumentando que se trata de «convocar la atención sobre un nuevo edificio que marcará un hito mundial»?

Es más que posible, y además deseable, que el Museo Guggenheim se convierta en su día en algo importante, pero lo que no cabe duda es que aún hoy no lo es. ¿A qué viene esa precipitación para predecir que un edificio marcará un hito mundial? si aún apenas ha terminado de nacer y difícilmente se prefigura su devenir futuro.

Si algún valor se debe de exigir a la arquitectura es el de mostrarse con extrema prudencia, y que para cose-

## Pritzker saria eta beste sari batzuk

Bilbotar gisa, arkitekto gisa, eta euskalduntasunaren eta gure kultur adierazpenaren defendatzaile sutsu gisa, logikoa denez, oso modu positiboan ulertzen dut mundu mailako oihartzuna duen arkitektura sari bat, 1986ko Pritzker saria, gertuko arkitekto bati ematea, Tuteran jaioa. Dirudienez hurrengo urteko sari banaketa Bilbon egingo da. Duela egun batzuk irakurri genuen 1987. urteari zegokion saria Andaluzian (Granadan edo Kordoban, ez dut ondo gogoratzen) emango zela, eta ekitaldiak bi hirietan dagoen arkitektura izugarri handiaren babes arkitektonikoa eta esparru formala bilatuko zuela, balio bereziko eta kultur garrantziko elementua izanik. Prentsako albiste laburrak biak, eta seguruenik agentzia batek idatziak, elkarrekiko kontraesanean daude, eta, bitxia bada ere, Espainian oraindik ez da inolako erreakzio berezirik izan.

Zer gertatu da egun hauetan eragin handiko Hyatt Fundazioak esparru arkitektoniko hispaniar-arabiar handiaren balio segurua alde batera uzteko eta oraindik «jaio ez den» eta obretan dagoen eraikin baten alde egiteko, helburua «arreta mundu mailan mugarri izango den eraikin berri batean jartzea» dela argudiatuz?

Litekeena da, eta are desiragarria ere, Guggenheim Museoa egun batean garrantzitsu bihurtzea, baina zalantzarik gabe, oraindik ez da hala. Zertara dator eraikin batek mundu mailako mugarri bat ezarriko duela iragartzeko presa hori, oraindik ez bada ia jaio ere egin eta haren etorkizuna nekez aurreikus badaiteke?

Arkitekturari ezaugarriren bat eskatu behar bazaio, zuhurtzia handiz agertzekoa da, eta kultur erroko arra-

char éxitos multitudinarios de raíz cultural, debe de cargarse de paciencia y ser capaz de esperar. Por ello esta exaltación precipitada del «*nasciturus*» museo bilbaíno, suena a un marketing *made in USA,* bastante exagerado. Algo para embaucar a aquellos que están dispuestos aceptar a la arquitectura como un fácil consumo de proclamas, manifiestos, anuncios y otras imágenes o iconos de falsedad. Imágenes que nos van configurando con precisión milimétrica, sobre lo que debemos de entender y sentir, en cada momento como lo «más sublime» y poco hacen más allá de «formatear» de manera efímera y de puro consumo el símbolo de la actualidad.

Si para estar en la modernidad arquitectónica, debemos de estar en las listas de algún «*cultural operator*», y si los setecientos años de historia bilbaína no han producido arquitectónicamente nada comparable al brillante museo, pues ¡apaga y vámonos! Sí, vámonos hacia el sur, a disfrutar del grandioso mundo arquitectónico musulmán-cristiano, que tan acertadamente conoce y describe Moneo, en espera que el tiempo dé vida a la «flor arquitectónica» de Abando-Ibarra. Dejemos sean otras, las generaciones a quienes corresponda refrendar la calidad de un edificio, no vaya a ocurrir, entre tanto, que la flor se vaya ajando y comience a marchitar.

Marzo, 1997

kasta jendetsuak lortzeko, pazientziaz betetzekoa eta itxaroteko gai izatekoa. Horregatik, Bilboko Museoaren *nasciturus*aren presazko gorespen horrek «Made in the USA» marketin kanpaina gehiegizko baten itxura du. Arkitektura aldarrikapenak, manifestuak, iragarkiak eta bestelako irudi edo ikono faltsuak erraz kontsumitzeko moduan onartzeko prest daudenak engainatzeko moduko zerbait. Irudi horiek zehaztasun milimetrikoz taxutzen gaituzte, zer ulertu eta sentitu behar dugun esaten digute, une bakoitzean zer den «sublimeena», eta ezer gutxi egiten dute gaurkotasunaren sinboloa modu iragankorrean eta kontsumo hutsez «formateatzeaz» harago.

Modernitate arkitektonikoan egoteko *cultural operator* baten zerrendetan egon behar badugu, eta Bilboren zazpiehun historia urteek ez badute arkitektonikoki museo distiratsuaren pareko ezer ekoitzi, gureak egin du! Bai, goazen hegoaldera, Moneok hain zuzen ezagutu eta deskribatzen duen mundu arkitektoniko musulman-kristau bikainaz gozatzera, denborak Abando Ibarrako «lore arkitektonikoari» bizia eman zain gauden bitartean. Utz dezagun beste belaunaldi batzuen esku eraikin baten kalitatea berresteko lana, ez dadila, bitartean, lorea higatu eta zimeltzen hasi.

1997, martxoa

# Exposiciones de arquitectura

- Erakusketa biribilla. Zezen plazak.
- Una exposición memorable: RCR en Miramar.

# Arkitekturako erakusketak

- Erakusketa biribila. Zezen plazak.
- Erakusketa gogoangarri bat: RCR Miramarren.

## Erakusketa biribilla. Zezen plazak

Pues sí, en mi opinión, la exposición que sobre Plazas de Toros presenta estos días el Colegio de Arquitectos, en una sala de la calle Bengoetxea de San Sebastián, constituye una muestra, en todos sus aspectos, redonda. Y no únicamente por la geometría del objeto motivo de la exposición, sino sobre todo, por la cantidad de aciertos, en claves de alta cultura, que encierran los planos y las maquetas que podemos ver, en nuestra propia casa.

Cualquier vasco, con mediana ilustración, sabe que tanto la Plaza Nueva vitoriana como la de la Constitución donostiarra, hallan su origen, entre otros motivos, en buscar un lugar urbano hecho de arquitectura, adecuado para las corridas de toros y para la fiesta barroca de los fuegos de artificio. Ningún vizcaíno que se precie, puede olvidar el Puerto Viejo de Algorta y sus corridas en el día de San Ignacio, así como la simultaneidad de la lucha entre el «diestro» frente a su novillo y la de los organizadores del festejo, contra el tiempo, por el inexorable ascenso de la marea, si la ineficacia del torero prolonga la faena.

Todos esos lugares de la civilidad y de la geografía urbana más genuina de Euskal-Herria forman parte importante de nuestra propia cultura. Por ello la exposición que comentamos, es extraordinariamente didáctica y convincente, lástima que una vez más nuestra peculiar incuria para la cultura figurativa y de los temas urbanos, ha hecho que las «zezen-plazak» vascas brillen por su poca presencia.

Toros sí, toros no, ese no es el dilema, lo que hoy nos toca dilucidar a nosotros es, si tomando la lección de saber colectivo que se encierra en toda esa brillante se-

## Erakusketa biribila. Zezen plazak

Bada, bai, nire ustez, Arkitektoen Elkargoak egunotan Donostiako Bengoetxea kaleko areto batean zezen plazei buruz aurkeztu duen erakusketa biribila da alderdi guztietatik. Eta ez bakarrik erakusketa eragin duen objektuaren geometriagatik, baizik eta, batez ere, gure etxean bertan ikus ditzakegun planoek eta maketek dituzten ondo eginiko gauzen kopuruagatik, goi mailako kulturako gakoei dagokienez.

Gutxieneko ilustrazio maila bat daukan edozein euskaldunek badaki Gasteizko Plaza Berriaren eta Donostiako Konstituzio plazaren jatorria, besteak beste, zezenketetarako eta su artifizialen festa barrokorako egokia izango zen arkitekturadun hiriak eraikitzeko nahian dagoela. Inongo bizkaitar jatorrek ezingo ditu ahaztu Algortako Portu Zaharra eta San Inazio eguneko bertako zezenketak, ezta toreatzailearen eta bere zezenkoaren arteko borrokaren eta jaiaren antolatzaileen eta denboraren artekoaren aldiberekotasuna ere, azken horien kasuan marea igotzearen beldur baitira, toreatzailearen eraginkortasun ezaren ondorioz faena luzatuz gero.

Euskal Herriko gizalegearen eta hiri geografiarik jatorrenaren leku horiek guztiak gure kulturaren zati garrantzitsuak dira. Hori dela eta, aipatu dugun erakusketa oso didaktikoa eta sinesgarria da. Tamalez, beste behin ere, kultura figuratiborako eta hiri gaietarako dugun axolagabezia bereziak nahiko ezkutuan utzi ditu berriz ere Euskal Herriko zezen plazak.

Zezenak bai, zezenak ez, hori ez da dilema, gaur dagokiguna zera da, jai gune distiratsu horietan guztietan gordetzen den jakintza kolektiboko ikasgaia

rie de espacios para la fiesta, podemos ser capaces de articular criterios de amplio consenso cultural, en los que hallen fundamento popular los nuevos lugares de la arquitectura y los espacios colectivos para la convivencia en paz y abiertos hacia todo lo que nos rodea. Y los Mazzantini (de Elgoibar), el último Califa (de Llodio) el mismísimo Chiquito de Amorebieta, o los Recondo (de Donostia) son personajes muy variados de ésta nuestra faceta taurina, quizá en torno a las sutiles ideas de urbanidad y de cultura implícitas en la exposición de las Plazas de Toros, podamos encontrar algunas claves, para salir del bache profundo y circular infierno dantesco, en el que estamos, peleando cuadrilla contra cuadrilla, con finas banderillas y otros golpes de estoque, hoy en Euskal-Herria.

Junio, 1996

hartuta, gai ote garen kultura adostasun zabaleko irizpideak artikulatzeko, non oinarria aurkituko duten arkitekturaren leku berriek eta bizikidetza baketsurako eta inguruko guztiarekiko irekita egongo diren espazio kolektiboek. Mazzantinitarrak (Elgoibarkoak), azken Kalifa (Laudiokoak), Chiquito de Amorebieta bera, edo Recondotarrak (Donostiakoak), gure alderdi taurinoko pertsonaietako batzuk dira, eta agian zezen plazei buruzko erakusketan inplizituki agertzen diren hiritartasunaren eta kulturaren ideia sotilen inguruan gako batzuk aurki ditzakegu Euskal Herrian eskuetan banderilla meheak ditugula eta bestelako ezpata kolpeak erabilita koadrila koadrilaren aurka borrokatzen ari garen zulo sakon eta infernu danteskotik ateratzeko.

1996, ekaina

## Una exposición memorable: RCR en Miramar

No son fáciles las exposiciones de arquitectura. Allí donde los objetos expuestos no son más que una mediación, más o menos autónoma o discursiva, para conducir al espectador a una experiencia superior y distinta: la experiencia de la arquitectura, que es propiamente una percepción de enorme intensidad espacio-temporal. Entre experimentar el Panteón de Roma o Santa Sofía en la antigua Constantinopla y el mirar unas estampas, imágenes planas o bien en modelo de estos «espacios tremendos», existe una evidente diferencia de cualidad. Tampoco una exposición de arquitectura puede convertirse en un reclamo hacia clientelas extensas, o la mera sucesión de planos y otros dibujos que muestre la propia metodología proyectual de su autor. En el límite se trataría, tomando como análogo en la música, de exponer adecuadamente las partituras de los conciertos de Brandenburg de J.S. Bach, por ejemplo, que además de su belleza gráfica evidente, entre pentagramas, claves, notas, anotaciones y otros signos del lenguaje musical, produjeran en el receptor la misteriosa emoción del sonido, en su armonía celestial.

Los RCR, notables arquitectos catalanes de Olot, hoy en la cumbre mundial del prestigio artístico y profesional, han cuidado de construir un «artefacto expositivo», aplicado a su labor de arquitectos, de una enorme versatilidad y belleza. Mediante paneles de una ajustada escala y una intensa luminosidad, conforman un itinerario cargado de imágenes, planos, diagramas, fotografías y textos conceptuales, que nos conduce con suavidad al meollo de sus múltiples arquitecturas. Lo hacen con sutileza a través de las estancias principales, realzando el característico tipo edificatorio de la casa palaciega de Miramar. Completando una hermosa variante de la corbusierana *promenade architectural*.

## Erakusketa gogoangarri bat: RCR Miramarren

Arkitektura erakusketak ez dira errazak. Izan ere, erakusgai jarritako objektuak ikuslea esperientzia handiago eta ezberdin batera bideratzeko bitarteko bat —gutxi gorabehera autonomoa edo diskurtsiboa— baino ez dira: arkitekturaren esperientzia, berez espazio eta denbora intentsitate handiko pertzepzioa dena. Alde nabarmena dago Erromako Panteoia edo antzina Konstantinopla zen horretako Santa Sofia esperimentatu eta irudi lauak edo «espazio izugarri» horien ereduak ikustearen artean. Arkitektura erakusketa bat ere ezin da bezero askorentzako erakargarri bihurtu, ezta egilearen proiektu metodologia erakusten duen plano eta bestelako marrazkien segida soila ere. Mugan, zera litzateke, musikaren analogia erabiliz, J.S. Bachen *Brandenburgeko kontzertuen* partiturak behar bezala erakustea, adibidez, ageriko edertasun grafikoaz gain —pentagrama, klabe, nota, ohar eta musika hizkuntzako beste zeinu batzuk—, hartzailearengan soinuaren emozio misteriotsua sortuko luketenak, harmonia zerutiarrari esker.

RCRko kideek, Oloteko arkitekto katalan ospetsuak, gaur egun izen artistiko eta profesionalaren munduko gailurrean direnak, «erakusketa tresna» bat eraiki nahi izan dute, beren arkitekto lana moldakortasun eta edertasun handiz jantzita. Eskala doituko eta argitasun handiko panelen bidez, irudiz, planoz, diagramaz, argazkiz eta kontzeptuzko testuz betetako ibilbidea osatu dute, leuntasunez eramaten gaituena haien arkitektura ugarien bihotzera. Sotiltasunez egiten dute gela nagusietan zehar, Miramar jauregiaren eraikuntza mota bereizgarria nabarmenduz. Le Corbusierren *promenade architecturale* delakoaren aldaera eder bat osatuz.

Por otro lado, una larga vitrina que recorre la pared más maciza del pasillo palaciego en casi toda su longitud, acoge, en escala menuda, el amplio abanico de los diseños menores. Aquellos que acrecientan la heideggeriana dimensión de la habitabilidad, humanizando las potentes texturas «vulcánicas» de las arquitecturas más variadas: casas, pabellones, claros boscosos para el deporte, museos, mediatecas, escuelas, bodegas etc. Los lugares centrales de cada sala quedan significados por maquetas, principalmente, aunque no faltan objetos de la vida cotidiana a escala 1:1, como la *chaise longue* del escritor Javier Cercas o los variados modelos de banquetas, taburetes y otros artilugios para el descanso.

Una sala, la que fuera pequeña sala de visitas de la reina regente Dña. M.ª Cristina, acoge, de una manera muy sencilla y en varios paneles, que contienen las láminas de esbozos, trazos, gestos y otras maneras de «diagramar» los pensamientos, desde su concepción primera, desde el embrión de una idea, antes de hacerse construcción emergente y objeto de arquitectura.

Interesa señalar la coherencia del conjunto de la exposición y su inserción como «anillo al dedo» en la planta principal de la que fuera Real Casa de Campo y hoy, como continuidad en su significado civil, constituye la esperanza de una «casa para todos». Donde lo mismo asistimos a esta magnífica exposición o su acompañante: los planos y maquetas de la conocida Imanolena, en Mutriku, obra de Luis Peña Ganchegui, expuestos con intención didáctica y maestría en la biblioteca de la casa; o bien disfrutamos con algunos de los eventos de alto significado cultural que allí tienen lugar. Así fue la presentación de la, que pudiéramos llamar, «Casa del Faro» como cristalización de naturaleza, arquitectura y misterio que está preparando la artista donostiarra Cristina Iglesias. O las interesantes

Bestalde, jauregiko korridoreko paretarik trinkoena ia luzera osoan zeharkatzen duen beira arasa luze batek diseinu txikien aukera zabala hartzen du, eskala txikian. Diseinu horiek bizigarritasunaren dimentsio heideggeriarra areagotzen dute, askotariko arkitekturen egitura «bulkaniko» indartsuak gizatiartuz: etxeak, pabiloiak, kirola egiteko baso soilguneak, museoak, mediatekak, eskolak, upategiak, etab. Areto bakoitzeko leku garrantzitsuenak maketekin janzten dira batez ere, baina badira, halaber eguneroko bizitzako objektuak 1:1 eskalan; esaterako, Javier Cercas idazlearen *chaise longue*a edo atseden hartzeko hainbat aulkitxo, aulki eta bestelako tramankulu.



M.ª Cristina erregina erregeordearen bisita gelatxoa zenak modu xumean eta hainbat paneletan biltzen ditu laminak, zirriborroak, trazuak, keinuak eta pentsamenduak «diagramatzeko» beste modu batzuk, ideia bat sortzen denetik, enbrioitik bertatik, eraikin edo arkitekturaren xede bilakatu aurretik.

y numerosas conferencias y otras actividades muy variadas, que han constituido cuerpo de la Bienal.

El viejo lugar de San Sebastián del Antiguo, hoy Miramar y antigua ermita de Loreto, ha sido una caja de resonancia de las mejores «intenciones en arquitectura», usando la expresión de Christian Norberg Schulz, en esta «Bienal de Arquitectura: Mugak». Evento de alto contenido cultural en su conjunto, organizado por Eusko Jaurlaritza-Gobierno Vasco, desde su Departamento de Vivienda, junto a otras muchas instituciones sostenedoras de la cultura en general y con especial atención con la arquitectura, destacando el esfuerzo de la Escuela de Arquitectura de nuestra Universidad.

Evento al que deseamos muchos bienios de vida próspera y éxito creciente a fin de ir transformando, en materia de arquitectura, nuestro páramo en un vergel cultural. Durante esta última semana, que la exposición de los RCR está en Miramar, hay aún una buena ocasión, para los rezagados, para acercarse a contemplar toda una «epopeya de arquitectura» como lo es la paciente y meticulosa trayectoria de cultura y profesionalidad de Rafael Aranda, Carme Pigem y Ramón Villalta, hasta alcanzar la cima del Premio Pritzker reciente y muy meritoriamente conquistado.

Enero, 2018

Komeni da erakusketa osoaren koherentzia azpimarratzea, eta ezin egokiago txertatzea Errege Landetxe zenaren solairu nagusian, zeina gaur egun, bere esanahi zibilaren jarraipen gisa, «guztiontzako etxe» baten itxaropena den. Zeinetan erakusketa bikain honekin edo bere laguntzailearekin gozatuko dugun (Mutrikuko Imanolena izenez ezagutzen denaren planoak eta maketak, Luis Peña Gancheguik eginak eta asmo didaktikoz eta maisutasunez erakusten direnak etxeko liburutegian), baita bertan egiten diren esanahi kultural handiko beste ekitaldi batzuekin ere. Hantxe aurkeztu zen, esaterako, natura, arkitektura eta misterioaren kristalizazio gisa Cristina Iglesias artista donostiarra prestatzen ari den *Itsasargiaren etxea* lana. Eta han egin dira, halaber, hitzaldi interesgarri ugari eta askotariko beste jarduera batzuk, biurtekoaren gorputz izan direnak.

Antiguako San Sebastianen toki zaharra, gaur egun Miramar eta garai batean Loretoko ermita zaharra zena, «arkitektura asmo» onenen erresonantzia kutxa bat izan da, Christian Norberg Schulzen hitzak erabiliz, «Mugak: Arkitektura Bienala» honetan. Oro har, kultura eduki handiko ekitaldia, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailak antolatua, kulturaren eta, bereziki arkitekturaren sostengu diren beste erakunde askorekin batera, gure Unibertsitateko Arkitektura Eskolaren ahalegina nabarmenduz.

Bizitza oparoko eta arrakasta gero eta handiagoko biurteko asko opa dizkiogu ekitaldiari, arkitekturari dagokionez, gure basamortua kultur baratze bihurtzen joateko. RCR etxearen erakusketa Miramar jauregian dagoen azken aste honetan atzeratuta dabiltzatenek aukera ona izango dute duela gutxi ondo merezitako Pritzker Sariaren gailurrera iritsi diren Rafael Aranda, Carme Pigem eta Ramón Villaltaren «arkitektura epopeia», alegia, kultur eta profesionalatasun ibilbide paziente eta arretatsua, ikusteko.

2018, urtarrila

# De Arquitecturas y Jueces

- Judicializar la Arquitectura.
- Triunfo de la Arquitectura.
- Los lugares de la normativa.
- El patrimonio y sus avatares judiciales.

# Arkitektura eta Epaileak

- Arkitektura judizializatzea.
- Arkitekturaren garaipena.
- Araudiaren lekuak.
- Ondarea eta gorabehera judizialak.

## Judicializar la Arquitectura

Nos anuncian desde la Plataforma, constituida contra el actual proyecto para el Nuevo Kursaal, que van a presentar denuncia ante los tribunales, con el fin de apurar todos los medios a su alcance, para evitar la construcción del auditorio y un palacio de congresos en Donostia, conforme al proyecto, gestado y consensuado durante cinco largos años por todos los ciudadanos que han querido interesarse por el tema, y que ha sido conducido con acierto por todas las fuerzas democráticas de esta Ciudad.

Parece ser fue, el general prusiano, Clausewitz, quien definió la guerra como la manera de continuar la política «por otros medios», está claro que para algunos donostiarras los tribunales de justicia, son la manera de continuar el debate cultural «por otros medios». Otros se opusieron, a la autovía que ellos mismos habían deseado y aprobado, también «por otros medios». Es evidente que del atinado ajuste entre fines y medios, surge en cada momento el equilibrio social.

¿No habíamos quedado que lo único que disgusta a la «plataforma» son las características arquitectónicas de ese proyecto ahí en la Zurriola?. Entonces ¿a qué viene mentar la ley del Suelo, la ley de Costas y otros textos jurídicos sin ningún contenido arquitectónico o estético? y sembrar de sospechas, las congestionadas salas de la Audiencia, para parar una obra de tan difícil factura, por un motivo cuyo único e incodificable «delito de lesa estética», es que a algunos pueda no gustar.

Es público y notorio que la Justicia aquí resulta lenta, ¿cómo iba a ser de otra manera?, si se atiborra a los tribunales de escaramuzas y otros artilugios de dudosa lealtad intelectual y moral, y más en este país donde

## Arkitektura judizializatzea

Kursaal Berriaren egungo proiektuaren aurka eratutako Plataformatik iragarri digutenez, eskura dituzten baliabide guztiak erabili eta auzitegietan salaketa jarriko dute, Donostian ez dadin auditoriuma eta biltzar jauregia eraiki, bost urte luzez gaiaz interesatu nahi izan duten herritar guztiek garatu eta adostu duten eta hiri honetako indar demokratiko guztiek modu egokian gidatu duten proiektuaren arabera.

Dirudienez, Prusiako Clausewitz jeneralak esan zuen gerra dela politika «beste bide batzuetatik» egiten jarraitzeko modua, eta argi dago donostiar batzuentzat justizia auzitegiak direla eztabaida kulturalari «beste bide batzuetatik» jarraipena emateko modua. Beste batzuek aurka egin zioten eurek nahi izan eta onartu zuten autobiari, kasu hartan ere «beste bide batzuetatik». Argi dago helburuak eta bideak modu egokian doituta sortzen dela, une bakoitzean, oreka soziala.

Mientras que el debate arquitectónico culturalmente más empeñado trata acerca de la «desmaterialización» de la propia obra arquitectónica, como signo propio de los tiempos actuales, vemos no sin extrañeza, cómo desde posiciones atrincheradas en la artisticidad, se cifra en TRES MILLONES de euros, la indemnización por la supuesta afrenta a unos imprecisos «derechos morales» por anclar un pasadizo nuevo (en su opinión de manera desafortunada) al descansillo de una pasarela anterior sobre la ría bilbaina. La afrenta objeto de valoración monetaria sería la perpetrada por el consistorio de la Villa de Bilbao, en contubernio con dos empresas de construcción. En ningún caso se inculpa a los responsables profesionales arquitectos (Arata Izosaki e Iñaki Aurrekoetxea) tratando así de sustanciar la querella en términos culturales, urbanísticos, compositivos, constructivos, de diseño, etc. En definitiva arquitectónicos. ¡Nos veremos en los tribunales! Es la decisión del artista valenciano, en abierto encontronazo con el Alcalde de los bilbaínos (primer error).

La manera de exigir el pago ha sido pues a través de los juzgados (segundo error). Donde al fin y a la postre unos magistrados, en general poco expertos en el manejo de los principios de la arquitectura (si es que aún existen), deberán resolver en base a unas leyes que asimismo se antojan, en el mejor de los casos, difíciles y de dudosa aplicación. Tratando para ello de aplicar a la arquitectura analogías con disciplinas no

## Calatrava artistaren hiru akatsak

Merkataritzaren globalizazioaren eta ikuskizun unibertsalaren garai hauetan, irudiak sortzeko eta manipulatzeko ahalmen handia duten komunikabideetan sostengatuta, komeni da oinarrizko alderdi batzuk zaintzea, barregarri ez gelditzeko eta ezorduetan ez ibiltzeko.

Arkitekturari buruzko eztabaida kulturalki tematuena obra arkitektonikoaren beraren «desmaterializazioari» buruzkoa den bitartean, egungo garaien berezko ikur gisa, harriduraz ikusten dugu, artistikotasunaren lubakian babestutako posizioetatik HIRU MILIOI euroko kalte-ordaina eskatzen dela antza «eskubide moral» zehaztugabe batzuk iraungi direlako, pasabide berri bat ainguratzeagatik (ustez modu desegokian) Bilboko itsasadarrean lehendik zegoen pasabide baten lauguneari. Dirutan baloratutako irain hori Bilboko Udalak egin izango luke, bi eraikuntza enpresarekin elkartuta. Inola ere ez zaie errurik egozten arkitekto arduradunei (Arata Izosaki eta Iñaki Aurrekoetxea), kereila kultura, hirigintza, konposizio, eraikuntza, diseinu eta abarri dagokienez funtsatzen saiatuz. Azken batean, arkitekturaren arloko gaia litzateke. Bada, auzitegietan ikusiko dugu elkar! Horixe erabaki du valentziar artistak, bilbotarren alkatearekin talka egin ondoren (lehen akatsa).

Beraz, ordainketa eskatzeko epaitegietara jotzea erabaki da (bigarren akatsa). Eta horietan, azken finean, arkitekturaren printzipioak (oraindik existitzen badira) erabiltzen oso adituak ez diren magistratu batzuek hartu beharko dute erabakia, kasurik onenean ere aplikatzeko zailak eta zalantzazkoak diruditen lege batzuen arabera. Eta horretarako, arkitektura harekin bat ez datozen diziplinekin parekatzen saiatuko

coincidentes con ella. Aquellas que le aproximan al arte en general, ni incluso con la escultura como disciplina a la que, quizá se puede (en algunos supuestos) aproximar.

La manera de escenificar, pues de eso se trata en tiempos de globalidad y espectáculo, ha sido a través de un intermediario o persona interpuesta (tercer error). Quien no ha dudado lanzar a los vientos mediáticos las sensaciones de enojo del artista, que, evidentemente no ha salido a defender su postura directamente y con nobleza, como debe de corresponder a las cosas «sublimes» del arte y la cultura. Al final, estas «piezas de autor» acaban por defenderse en los «laberintos de lo contencioso», lejos de ateneos, academias, cátedras y otros antiguos templos del saber y la ilustración de la opinión pública. El «doctor honoris causa» por algunas universidades (lo cual nos permite dudar del acierto de dichas distinciones) en vez de proclamar su razón en los círculos del saber, opta por envíar a su «sirviente» (el aparato jurídico de la empresa) a dar la cara y presentar denuncia judicial. Algo muy grave está fallando en todo este procedimiento, a medio camino entre la excelencia universitaria y la sordidez de los juzgados.

Con estas premisas conviene, quizás ahora, plantear algunas cuestiones acerca de la arquitectura. Sobre su dimensión urbana, civil y colectiva, pero sobre todo, sobre la pertinencia o impertinencia de un «método incriminatorio y judicial» al evaluar las cuestiones de cultura que conforman la ciudad.

Decían hace pocos años Rafael Moneo y Frank Gerhy que sus obras (Kursaal y Museo) una vez acabadas ya no les pertenecen, sino que son de los otros, de los ciudadanos todos (tampoco únicamente de los usuarios, ni de los vecinos) sino de todos los demás. Tra-

dira; analogiak egingo dituzte arkitektura artera hurbiltzeko, oro har, zuzenagoa litzatekeen arren eskulturarekin parekatzen saiatzea, agian (kasu batzuetan) diziplina horretara gehiago hurbildu daitekeelako.

Eszenaratzeko modua, izan ere, hori da helburua globaltasunaren eta ikuskizunaren garaietan, bitartekari baten edo tarteko pertsona baten bidez izan da (hirugarren akatsa). Eta horrek, hedabideen haizetara jaurti ditu artistaren haserre sentsazioak, baina, noski, artista ez da atera bere jarrera zuzenean eta nobleziaz defendatzera, artearen eta kulturaren gauza «sublimeei» dagokien moduan. Azkenean, «egile pieza» horiek «auzien labirintoetan» defendatzen dira, ateneo, akademia, katedra eta jakintzaren eta iritzi publikoaren ilustrazioaren antzinako beste tenplu batzuetatik urrun. Zenbait unibertsitatek «honoris causa doktore» izendaturikoak (ez daukagu argi sari horren egokitasuna), bere arrazoia jakintzaren zirkuluetan aldarrikatu beharrean, «zerbitzaria» (enpresaren aparatu juridikoa) bidali du, aurpegia eman eta salaketa judiziala aurkeztu dezan. Oso larria den zerbait ari da huts egiten prozedura honetan guztian, unibertsitatearen bikaintasunaren eta epaitegien doilortasunaren erdibidean.

Premisa horiekin komenigarria da, agian orain, arkitekturari buruzko zenbait galdera egitea. Arkitekturaren dimentsio urbano, zibil eta kolektiboari buruzko galderak, eta, batez ere, «metodo inkriminatzaile eta judizial» baten egokitasunari edo desegokitasunari buruzkoak, hiria osatzen duten kultura gaiak ebaluatzean.

Duela urte gutxi Rafael Moneok eta Frank Gerhyk esaten zuten beren lanak (Kursaal eta Museoa), behin amaitutakoan, ez direla beraienak, baizik eta besteenak: herritar guztienak (ez soilik erabiltzaileenak edo auzokoenak). Egin dezagun gogoeta: arkitektura lanen

temos de pensar que la cualidad de las obras de arquitectura no está tanto en su propia capacidad mediática y fotogénica del momento inaugural, como en su capacidad de perdurar con valores positivos de figuración y presencia creando los lugares de identificación ciudadana y memoria cultural.

balioa ez datza horrenbeste inaugurazio uneko gaitasun mediatikoan eta fotogenikoan, baizik eta figurazio eta presentzia balio positiboekin irauteko gaitasunean, herritarrak identifikatzeko lekuak eta memoria kulturala sortuz.

Grandes arquitectos sufren al ver desnaturalizadas y mutiladas sus obras. Recuérdese la Plaza de la Trinidad donostiarra... y grandes jirones de cultura se han ido en las continuas y desafortunadas transformaciones del Náutico, asimismo en San Sebastián. No podemos olvidar la continua degradación de tantas escuelas, universidades, templos, viviendas y otros edificios valiosos que se degradan continuamente desde premisas de un apetito utilitario y exageradamente voraz. Pero seamos realistas, no es la sociedad actual la que reclama una cultura arquitectónica de altas miras que además de la necesaria e innegable «utilidad» cotidiana de la obra construida desde el talento y el afecto, la mantenga, reinterprete, mejore y acreciente su propia belleza, su lógica y su artisticidad.

Arkitekto handiek sufritu egiten dute beren lanak desnaturalizatuta eta mutilatuta ikustean. Gogoratu, adibidez, Donostiako Trinitate Plaza... edo Klub Nautikoaren eraldaketa etengabe eta desegokietan galdu diren kultura zati handiak. Eta ezin ditugu ahaztu apetitu utilitario eta neurriz gaindiko baten premisetatik etengabeko degradazioak jasaten ari diren horrenbeste eskola, unibertsitate, tenplu, etxebizitza eta bestelako eraikin baliotsu ere. Baina izan gaitezen errealistak: gaur egungo gizarteak ez du eskatzen asmo handiko kultura arkitektoniko bat, talentutik eta afektutik eraikitako obraren eguneroko «erabilgarritasun» beharrezko eta ukaezinaz gain, obra horri eutsi, berrinterpretatu, hobetu eta bere edertasuna, logika eta artistikotasuna areagotu egingo dituena.

Tras de la caída de las academias, signo preclaro de la Ilustración, no ha alcanzado a sustituirles ninguna otra Institución. Su sucedáneo es precisamente el abuso mediático, el mismo que ha creado las «estrellas» del firmamento de la arquitectura, esa escasa docena de luminarias en el universo global, que apenas tiene tiempo para estar en su taller o estudio. Figuras en las que la propia habilidad para el oficio y el diseño, se queda pequeña frente a la experiencia infinitamente mayor para el marketing y la publicidad.

Akademiak erori ondoren, Ilustrazioaren ikur entzutetsu gisa, ez da ordezko beste erakunderik agertu. Akademien ordezkoa da, hain zuzen ere, abusu mediatikoa, arkitekturaren zeruko «izarrak» sortu dituena, dozena eskas argi unibertso globalean, beren tailerrean edo estudioan egoteko astirik apenas dutenak. Lanbiderako eta diseinurako trebetasun txikia dutenak marketinerako eta publizitaterako duten esperientzia askoz handiagoarekin alderatuta.

Hoy la arquitectura precisa para defenderse de tanta contaminación, de novedosas Instituciones libres en las que al margen de intereses más o menos gremiales y competitivos, y alejadas de los intercambios de favo-

Gaur egun, arkitekturak erakunde berritzaileak eta libreak behar ditu horrenbeste kutsaduratik babesteko eta, interes korporatiboak eta lehiakorrak alde batera utzita, eta mesede trukeetatik eta bestelako ustelkerie-

res y otras cuantas depravaciones más, se establezcan líneas críticas de valor conceptual, utilitario y social.

Necesitamos urgentemente de una auténtica Crítica de la Disciplina. Como mínimo en la línea del FAD catalán, pues aunque también éste sea manifiestamente mejorable, no es correcto que el universo formal de la ciudad esté sólo en manos de las secciones de comunicación de las «grandes firmas» de la arquitectura y de los media que multiplican tanta mercancía averiada de una manera exponencial.

Si el espíritu de Montesquieu (contrapesar y equilibrar los poderes), resulta hoy más necesario que nunca en todos los órdenes de la vida social, también lo es en arquitectura. Conviene con urgencia una clarificación sobre los contenidos de la propia disciplina, sobre las condiciones en las que se producen los grandes acontecimientos urbanos (recuérdese la esquizofrenia del reciente concurso para Gazprom City en la San Petersburgo de Putin, tan bien glosado por el profesor Argullol en las páginas de *El País* 15.12.06). Necesitamos salir del puro papanatismo consumista y como mínimo, afianzar las «*firmitas, utilitas y venustas*» vitrubianas y a poder ser la Z*eitgeist* alemana (espíritu de los tiempos), desde un pensamiento limpio, pues de otra manera y «encontrándonos» en los tribunales seguro que nos va a ir muy mal.

Marzo, 2007

tatik urrun, balio kontzeptual, utilitario eta sozialeko ildo kritikoak ezartzeko.

Diziplinaren Kritika benetako bat behar dugu, presaz. Gutxienez Kataluniako FADen ildotik; izan ere, hori ere nabarmen hobetu daitekeen arren, ez da zuzena hiriaren unibertso formala horrenbeste salgai matxuratu modu esponentzialean biderkatzen dituzten medien eta arkitekturaren «firma handien» komunikazio sailen esku egotea.

Montesquieuren espiritua (botereak berdintzea eta orekatzea) inoiz baino beharrezkoagoa da gaur egungo gizarte bizitzako arlo guztietan, eta noski, baita arkitekturan ere. Lehenbailehen argitu behar dira diziplinaren beraren edukiak, hiriko gertaera handien baldintzak (gogoratu Putinen San Petersburgon berriki bizi izan den eskizofrenia Gazprom City lehiaketa dela eta, Argullol irakasleak horren ondo iruzkindua *El País* egunkarian, 06.12.15ean). Papanatismo kontsumista hutsetik irten behar dugu eta, gutxienez, Vitruvioren *firmitas, utilitas* eta *venustas* printzipioak finkatu behar ditugu, eta, ahal dela, baita Alemaniako *zeitgeist* (denboraren espiritua) ere, pentsamendu garbi batetik. Bestela, auzitegietan «topo egiten badugu», ziur asko oso gaizki joango zaigu.

2007, martxoa

## Art. & Cº + ArQ.

Arte y Arquitectura representan realidades cercanas que pocas veces siguen caminos coincidentes, incluso resulta excepcional que ambas, cada una por su lado, sigan itinerarios complementarios. La relación del mundo del arte con el de la arquitectura ha sido desde siempre complicada, no en vano la arquitectura se enlaza con la dimensión física más cotidiana de las personas, la *utilitas,* y precisa de una construcción y una economía propias que la sustente, será la *firmitas*. Mientras que el arte, sobre todo, hace referencia a la más alta de las dimensiones humanas espiritualmente, *venustas*. Por entendernos en la terminología vitrubiana (útil, firme y bello).

En cualquier caso la arquitectura halla su función en servir al cuerpo (fabricando lugares para la vida y el cobijo) y al alma (construyendo los espacios capaces de crear emociones), mientras que las artes, en cualquiera de sus facetas, plástica, literaria, corporal, audiovisual etc. e incluso en la dimensión gastronómica o estomacal de algún arte de nuestros días, sirven muy prioritariamente y casi únicamente para la grandeza espiritual del alma.

De ahí que ambos polos, expresados en lo escueto de una terminología diferenciada entre arte y arquitectura significan mundos que se ignoran, se distancian, a veces se repelen, pero inexorablemente se necesitan mutuamente.

Otro de los problemas es el de la contemporaneidad. En un mismo período de tiempo (Z*eit*) las más altas expresiones espirituales del arte y de la arquitectura (G*eist*) es muy difícil que se ajusten las unas con las otras, y consigan crear una polifonía armonizada. Resulta ta-

## Art. & Cº + ArQ.

Arteak eta Arkitekturak irudikatzen dituzte hurbileko errealitateak, baina gutxitan jarraitzen diete bide berari; are gehiago, ez da ohikoa, bakoitzak bere aldetik, ibilbide osagarriei jarraitzea. Artearen munduak harreman zaila izan du beti arkitekturarenarekin, izan ere, zerbaitengatik lotzen da arkitektura pertsonen dimentsio fisikorik egunerokoenarekin, *utilitas* delakoarekin, eta eraikuntza eta ekonomia propioak behar ditu sostengu gisa, *firmitas* delakoa alegia. Arteak, aldiz, giza dimentsio espiritual gorenari egiten dio erreferentzia batez ere: *venustas* delakoari. Vitruvioren terminologia erabiltzeagatik (erabilgarria, sendoa eta ederra).

Edozelan ere, arkitekturaren funtzioa da zerbitzua ematea gorputzari (bizitzeko eta babesteko lekuak eginez) eta arimari (emozioak sortzeko gai diren espazioak eraikiz); arteak, berriz, arimaren handitasun espiritualerako balio du lehentasunez eta ia soilik, edozein arlotan (plastikoa, literarioa, korporala, ikus-entzunezkoa eta abar), baita gaur egungo arte baten dimentsio gastronomikoan edo urdailarenean ere.

Horregatik, bi polo horiek, artearen eta arkitekturaren terminologia bereizi eta labur batean adierazita, elkarri entzungor egiten dioten munduak dira, elkarrengandik urruntzen direnak, batzuetan elkar aldarazten dutenak, baina, ezinbestean, elkarren beharra dutenak.

Beste arazoetako bat garaikidetasuna da. Denbora tarte (*zeit*) berean, oso zaila da artearen eta arkitekturaren adierazpen espiritual gorenak (*geist*) bata besteari egokitzea eta polifonia harmonizatu bat sortzea. Ia ezinezkoa da denboraren espiritu bat (*zeitgeist*)

rea poco menos que imposible el construir un espíritu de los tiempos (*Zeitgeist*) en el que muchos se sientan gustosos completando las más extensas capas sociales.

Otra de las características de esta dicotomía reside en que a lo excelso de la expresión de una de ellas (arte o arquitectura) en una determinada época, le conviene, en tiempos absolutamente diferenciados, el contrapunto de la expresión sublime de la otra. Tallas románicas o esculturas corpóreas en ambientes espaciales hiperracionalistas y puristas (Mies van der Rohe), plasticidad de las texturas de un Tapiès o Burri en una decimonónica industria editorial. Pabellones en desuso como laboratorio de la plástica de Anselm Kiefer en el *midi* francés, o la, más próxima y para nosotros, magnífica exposición de Julian Schnabel «ocupando» con naturalidad y dominio, tanto de la plástica como de la propia espacialidad, las galerías, patios y cuadrantes de la casi centenaria Tabakalera donostiarra.

No es fácil hoy llegar a síntesis artísticas del más alto nivel. Como las de la música de J. S Bach y el templo barroco para el que construyera ad hoc el órgano barroco. O la misma Salve decimonónica de Recife en la Iglesia de Santa María cantada por el Orfeón. Algunos lo han intentado como el mejor Le Corbusier junto al músico Edgar Varese para el pabellón Phillips en la Expo de Bruselas del 1958, pero hoy y sobre todo aquí, las cuestiones del arte y la arquitectura, van cada una por su lado. Con ritmos distintos. Con problemáticas y retóricas muy diferenciadas y llenando campos de expresión a veces antagónicos.

De lo que se trata ahora es que tomando todo el potencial estético, actual y el de los tiempos que nos precedieron seamos capaces de construir ámbitos de expresión comunes y multiplicadores de las distintas facetas creativas.

eraikitzea, zeinean asko gustura sentituko diren gizarte geruza zabalenak osatuz.

Dikotomia honen beste ezaugarrietako bat da, garai jakin batean, bietako baten (artea ala arkitektura) adierazpenaren bikaintasunari bestearen adierazpen sublimearen kontrapuntua komeni zaiola, garai guztiz bereizietan. Erromanikoko tailuak edo eskultura gorpuzdunak espazio hiperrazionalista eta puristetan (Mies van der Rohe), Tapiès edo Burri baten testuren plastikotasuna antigoaleko argitalpen industria batean. Erabiltzen ez diren pabiloiak Anselm Kieferren plastikaren laborategi gisa Frantziako midian, edo, gugandik gertuago, Julian Schnabelen erakusketa bikaina, ia ehun urte dituen Donostiako Tabakalerako galeriak, patioak eta koadranteak «okupatu» zituena, naturaltasunez eta plastika nahiz espazialitatea menderatuz.

Gaur egun ez da erraza maila goreneko sintesi artistikoak egitea. J.S. Bachen musika, tenplu barrokoa eta hartarako ad hoc eraikitako organo barrokoa, edo Orfeoiak Santa Maria elizan abestutako Recifeko antigoaleko Salbea bezain gorenak. Batzuk saiatu izan dira, hala nola Le Corbusier onena Edgar Varese musikariarekin batera 1958ko Bruselako Expoan Phillips pabiloirako, baina gaur egun, eta batez ere hemen, artearen eta arkitekturaren kontuak bakoitza bere aldetik doaz. Erritmo desberdinekin. Problematika eta erretorika oso bereiziekin, eta batzuetan antagonikoak diren adierazpen eremuak betez.

Orain, gaur egungo eta lehenagoko garaietako potentzial estetiko guztia hartuta, sormenaren alderdi desberdinen adierazpen eremu komunak eta biderkatzaileak eraikitzeko gai izan behar dugu.

No corren buenos tiempos para la arquitectura hoy en Euskadi, nos contentamos con contemplar las estridencias y las retóricas propagandísticas de media docena de «grandes firmas», en vez de crear las condiciones para que los arquitectos vascos desarrollen sus trabajos aquí en condiciones adecuadas. Y se les ayude y potencie creando el ambiente propicio, desde las Instituciones, a exportarlos para construir en el ancho y globalizado mundo de hoy.

Captar el espíritu de nuestro tiempo no puede ser otra cosa que construir estructuras potentes para la creación y difusión del arte, en todas sus dimensiones y modalidades, y la arquitectura, como expresiones más sutiles de la pujanza de un grupo humano cohesionado y con capacidad de seducción en el mundo. Tal y como lo han hecho los cocineros de la nueva cocina vasca. Evidentemente.

Agosto, 2007

Euskadin ez dira garai onak arkitekturarako; dozena erdi «firma handiren» nabarmenkeriekin eta erretorika propagandistikoekin konformatzen gara, euskal arkitektoek beren lana hemen eta baldintza egokietan egin ahal izateko baldintzak sortu beharrean. Erakundeetatik giro egokia sortuta horiei lagundu eta bultzada eman beharrean, beren lana esportatu eta gaur egungo mundu zabal eta globalizatuan eraikitzeko.

Gure garaiko espirituari heltzeko, ezinbestekoa da egitura indartsuak eraikitzea artea (bere dimentsio eta modalitate guztietan) eta arkitektura sortzeko eta hedatzeko, munduan seduzitzeko gaitasuna duen gizatalde kohesionatu baten kemenaren adierazpen sotilenak diren aldetik. Euskal sukaldaritza berriko sukaldariek egin duten bezalaxe. Bistan denez.

2007, abuztua

## Arquitectura en estado puro

La exposición, recientemente inaugurada (27 de abril a 17 de junio), ocupando una parte importante de los espacios de la planta baja del edificio Tabakalera, muestra 12 vídeos pertenecientes a la Colección Lemaître y permite una nueva lectura arquitectónica de algunos de los espacios del viejo inmueble donostiarra. Para empezar, es preciso referirse al grandioso espacio de la entrada, no por conocida, menos enigmática y significativa de cuánto fueron los viejos ordenes del clasicismo francés, aplicados en este caso a una *«manufacture d'etat»*. El doble espacio, segmentado por dos verjas de cuidada herrería, está perfectamente definido en sus dimensiones de «grandiosidad» por las magnitudes de 26,7 m de fondo, 8 de anchura y cerca de 11 m de alto. Todo él revitalizado de mañana con la luz del alba.

Dejando atrás la entrada, se pasa al espacio de la «gran escalera», lugar luminoso que apabulla con sus dimensiones 10,10 m por 12,10 m y una altura «infinita» como corresponde a la propia definición de las escaleras contenidas en una descomunal «caja». Allá mismo, al pie de la escalera, empieza el recorrido de los espacios de la exposición. Se oscurece el lugar, y sólo los reflejos del vídeo junto a la numeración de la pieza uno permiten la mínima luz que define un espacio sutil de 5 m por 15 m y 6,2 m de altura. La componente longitudinal de la estancia se ve trastocada por la transversalidad en la colocación de una pantalla de gran tamaño y manifiesta luz, a la que acompaña un sonido chirriante y duro. Hermosa ambigüedad de los espacios, las luces, la contemplación del vídeo y el recorrido.

Una cortina negra segmenta el paso a la segunda de las estancias, el taller de carpintería. Sala con tres columnas, dividida por un tabique en dos piezas de cualifica-

## Arkitektura purua

Erakusketa duela gutxi inauguratu zen (apirilaren 27tik ekainaren 17ra), Tabakalera eraikineko behe solairuko espazioen zati handi bat hartuta, eta Lemaître bildumako 12 bideo erakusten ditu eta Donostiako eraikin zahar horretako espazio batzuen irakurketa arkitektoniko berri bat egiteko aukera ematen du. Hasteko, sarrerako espazio handia aipatu behar da, baina ez ezaguna eta klasizismo frantsesaren ordena zaharrak bezain enigmatikoa eta adierazgarria ez izateagatik, kasu honetan *manufacture d'etat* bati aplikatuta. Espazio bikoitza, bi burdin hesi zainduz segmentatua, oso ongi zehaztuta dago bere «handitasun» dimentsioan, 26,7 metroko sakonera, 8 metroko zabalera eta 11 metro inguruko altuera baititu. Eta espazio osoa goizaldeko argiak biziberritzen du.

Sarrera atzean utzita, «eskailera handiaren» espazioa dago. Leku argitsua da, 10,10 m bider 12,10 m-ko azalerarekin eta altuera «infinituarekin», sekulako «kutxa» baten barruan dauden eskaileren definizioari dagokion moduan. Han bertan, eskaileraren oinean, erakusketako espazioen ibilbidea hasten da. Tokia ilundu egiten da, eta bideoaren islek eta 1. piezaren zenbakiak bakarrik ematen dute argi apur bat, 5 m bider 15 m-ko azalera eta 6,2 m-ko altuera dituen espazio sotil bat definitzeko. Gelaren luzetarako osagaia zeharka jarritako pantaila handi eta argitsu batek nahasten du, eta horrekin batera soinu kirrinkari eta gogor bat agertzen da. Espazioak, argiak, bideoaren kontenplazioa eta ibilbidea, anbiguotasun ederrean.

Gortina beltz batek segmentatzen du bigarren gelarako pasabidea, hots, zurgintza tailerrerakoa. Hiru zutabeko gela da, trenkada batez zatitua, kualifika-

ciones espaciales extrañas. La primera, de componente transversal al recorrido, con 5 m por 11 m de dimensión, y la segunda, prácticamente cuadrada de 12 m por los 11 del ancho. Ambas con la misma altura de 6,2 m. Estos dos espacios están señalados por sendas pantallas de luminosidades diversas, soporte de los vídeos 2 y 3 del recorrido de la muestra. El primero pequeño, ya que se trata de un monitor de una televisión doméstica y el segundo de bastante mayor tamaño. Algo así como las dos terceras partes de la pared lateral que ocupa. Tres bancos minimalistas esparcidos informalmente («*negligées*, pudiéramos decir) completan los signos de la espacialidad de la segunda de las estancias.

Atravesando el umbral del fondo se abre hacia la izquierda un hermoso pasillo, más cerca de *«un couloir de l'enfer»* piranesiano aunque horizontal, que de un canónico distribuidor arquitectónico hacia estancias varias, tras las cuatro puertas que lo flanquean con ritmo incierto. Su dimensión es de 35,8 m de largo, ancho de 2,5 m y el mismo alto 6,2 m que toda la planta. Excepción hecha de los patios (cubiertos con bóvedas de hormigón que definen alturas de 5,64 m en apoyos y 7,20 m en su clave o punto más alto).

Al fondo del pasillo se abre el llamado «patio pequeño izquierdo». Verdadero *«sancta sanctotum»* de una «caverna» definida por la versatilidad y grandiosidad de sus cavidades y espacios. Con sus propias texturas cada uno de ellos. Este edificio puede ser cualquier cosa menos una sucesión de «estancias destartaladas». En este lugar mayor del recorrido tres pantallas iluminan la estancia. Como en casi todas las de la muestra, la más potente de ellas se eleva a espaldas del recorrido de entrada. Otra menor define la amplitud dimensional del patio en el centro de la pared izquierda y una tercera (pantalla-luz de tamaño medio) surge desde el suelo cerrando diagonalmente

zio espazial bitxiko bi piezatan. Lehenengoa, ibilbidearekiko zeharkako osagaia duena, 5 m bider 11 m-koa, eta bigarrena, ia karratua, 12 m bider 11 m-koa. Biak 6,2 m-ko altuerakoak. Bi espazio horiek argitasun ezberdineko bi pantailek seinalatzen dituzte, erakusketaren ibilbideko 2. eta 3. bideoen euskarri gisa. Lehenengoa txikia da, etxeko telebista baten monitorea delako, eta bigarrena dezente handiagoa da. Dagoen alboko hormaren bi heren okupatzen ditu, gutxi gorabehera. Informalki sakabanatutako hiru banku minimalista daude (*negligées*, esan genezake), bigarren gelaren espazialtasunaren ikur osagarri gisa.

Atzealdeko atalasea zeharkatuta, korridore eder bat irekitzen da ezkerrerantz, hainbat gelatarako banaleku arkitektoniko batetik baino hurbilago dagoena Piranesiren *un couloir de l'enfer* horizontal batetik, alboetan dituen erritmo lausoko lau ateen atzean. Luzeran 35,8 metro, zabaleran 2,5 m eta, solairu osoak bezalaxe, altueran 6,2 m ditu. Patioek, aldiz, hormigoizko gangak estalita, 5,64 m-ko altuera dute euskarrietan eta 7,20 m-koa giltzarrian edo punturik garaienean.

Korridorearen atzealdean, «ezkerreko patio txikia» deritzona irekitzen da. «Haitzulo» baten benetako *sancta sanctorum*, barrunbeen eta espazioen aldakortasunak eta handitasunak definitua. Bakoitza bere testurarekin. Eraikin hau ez da «gela kalamastren» segida bat. Ibilbideko leku honetan, nagusian, hiru pantailak argiztatzen dute gela. Erakusketako ia guztiek bezalaxe, handienak bizkarra ematen dio sarrerako ibilbideari. Txikiago batek patioaren dimentsioak zehazten ditu ezkerreko hormaren erdian, eta hirugarrena (pantaila-argi ertaina) lurretik sortzen da, korridorearen hondo espaziala diagonalki itxiz. Patio sarrerako ahotik toki honetako argi-ilunak ikuste hu-

el fondo espacial del pasillo. La contemplación de las luces y sombras de este lugar desde la embocadura a la llegada del patio, por sí sola resulta emocionante y grandiosa. Representa un paisaje arquitectónico que bien merece una visita, y posiblemente marcará, en espíritus inteligentes y despiertos para la arquitectura, una huella para el recuerdo.

Dejar el patio por la espalda conduce a una de las galerías. De dimensión y definición características en la «vieja manufactura de tabaco» con 23 m de largo y 10 m de fondo. Aquí son dos las fuentes de luz y los componentes estéticos del vídeo. Los definidos como el 10 y el 11 en el catálogo. Sin duda es en esta estancia donde la definición arquitectónica resulta menos precisa. Afortunadamente, la pantalla 10 ocupa una especie de rehundido u hornacina, rasgada en un muro de tosca textura, para mostrar con sorpresa y acompañados por el deambular de dos perros perezosos la grandeza de un espacio, ajustado al cristianismo reformado. Una nave de iglesia en Amsterdam nos recuerda, desde la cámara de Bojan Sarcevich, a la manera de un Pieter Saenredam de nuestro tiempo, cuales pueden ser los caracteres esenciales de la arquitectura en «estado puro».

El recorrido comienza a llegar a su fin. Tras de la cortina negra se llega al cuadrante extremo. Espacio de componente cuasi-cúbica achatada. 10 m por 10 m y los 6,2 de altura. Toda la muestra concluye entre la repetitividad y el dinamismo ramplón de las escenas concatenadas en el vídeo. Llegados a este punto una sucesión de dos pequeños espacios, ahora ya luminosos por «natura», nos conducen, con la suavidad propia de la buena arquitectura, hacia el espacio exterior de la muestra.

Se han terminado los dinamismos cinéticos de las imágenes en sus recreaciones virtuales. Seguimos a

tsa zirraragarria eta handia da. Bisitatzea merezi duen paisaia arkitektonikoa irudikatzen du, eta, beharbada, oroitzeko moduko aztarna utziko du arkitekturarako espiritu azkarra eta itzarria dutenengan.

Patioa atzean utzita, galerietako batera sartzen da. Dimentsioak eta definizioa «tabako manufaktura zaharraren» bereizgarriak dira: 23 m luze eta 10 m sakon. Hemen, argi iturriak eta bideoaren osagai estetikoak bi dira. Katalogoan 10. eta 11. gisa definitutakoak. Zalantzarik gabe, gela honetan da lausoena definizio arkitektonikoa. Zorionez, 10. pantaila hondoratze edo horma hobi moduko batean dago, testura zakarreko horma batean urratuta, harriduraz eta bi zakur nagiren ibiliak lagunduta espazio baten handitasuna erakusteko, kristautasun eraberrituaren arabera. Amsterdameko eliza bateko habearteak gogorarazten digu, Bojan Sarcevichen ganberatik, gure garaiko Pieter Saenredam baten antzera, zein izan daitezkeen arkitektura «puruaren» funtsezko ezaugarriak.

Ibilbidea amaieratik gertu dago. Errezel beltzaren atzetik, azken koadrantera iristen da. Osagai ia kubikoa duen espazio zapala. 10 m bider 10 m, eta 6,2 metroko altuera. Erakusketa bideoan kateatutako eszenen errepikakortasunaren eta dinamismo handiaren artean amaitzen da. Puntu honetara iritsita, elkarren segidako bi espazio txiki daude, «naturaz» argitsuak, eta erakusketaren kanpoko espaziora garamatzate, arkitektura onaren berezko leuntasunarekin.

Irudien dinamismo zinetikoak amaitu dira, birsortze birtualetan. Beste errealitatean barrena jarraitzen

través de la otra realidad. La de siempre, la más pragmática, tectónica y corporal. Subrayando el carácter fabril de una calle de magnífica definición formal. Calle lateral de Tabacalera. Jalonada por su lado izquierdo por la pesantez ortodoxa de la fábrica clasicista del ingeniero Mauro Ferret y por su lado derecho por la cuidada composición racionalista propia de los edificios en los años treinta del siglo pasado, correspondiente a la fachada del almacén-silo.

Al fondo los árboles, que nos legó el Duque de Mandas forman un fondo de escenario con elementos de la naturaleza, en un lugar bien construido: el conjunto de la Tabakalera. Compendio rico, enigmático y celoso custodio de unas vibrantes arquitecturas, que siempre merecerán ser contempladas desde sus propias componentes esenciales. Es decir en su estado más puro.

Mayo, 2007

dugu. Betiko errealitatean barrena, errealitate pragmatiko, tektoniko eta korporalenean barrena. Definizio formal bikaina duen kale baten fabrika izaera azpimarratuz. Tabakaleraren alboko kalea. Mauro Ferret ingeniariaren fabrika klasizistaren astuntasun ortodoxoak inguratuta ezkerretik, eta joan den mendeko hogeita hamarreko hamarkadan eraikinen konposizio arrazionalista zainduak eskuinaldetik, biltegi-siloaren fatxadan.

Atzealdean, Mandasko dukeak utzi zizkigun zuhaitzek naturako elementuak dituen agertokiaren hondoa osatzen dute, ongi eraikitako toki bat osatuz: Tabakalera multzoa. Arkitektura sutsuen laburpen aberats, enigmatiko eta zaintzaile arretatsua. Beti merezi izango du arkitektura horiek beren funtsezko osagaietatik ikusteak. Hau da, beren egoerarik puruenean ikusteak.

2007, maiatza

# Algunas cuestiones de importancia

- La ciudad frente al mar.
- El Festival de Cine y su reflejo arquitectónico.
- Una guía necesaria, y en espera de un museo de la Arquitectura.

# Gai garrantzitsu batzuk

- Hiri bat itsasoaren parean.
- Zinemaldia eta bere isla arkitektonikoa.
- Beharrezko gidaliburu bat, Arkitekturaren museo baten zain.

## La ciudad frente al mar

La ineludible necesidad de domesticar los Elementos…

…finalmente tendrá que ser el remate llamado con gran acierto poético «Peine del Viento», el que marque a la manera de un espolón, o enigmático «mascarón de proa de la ciudad», una de las páginas más brillantes en la definición de esta entrañable Donostia, frente al mar bravío, frente al temido *Mer de Biscaye* que definen los mapas.

La disculpa de un colector bien trazado, la existencia de un muro de costa más que aceptable, y un acantilado debilitado en su consistencia y textura, han servido de punto de partida e inicio para que dos artistas como Peña Ganchegui y Chillida, el uno con los «mecanismos» de la arquitectura y el otro con las «herramientas» propias de la escultura, hayan culminado una magnífica plataforma granítica, sobre la que en estrecha relación poética, unos enigmáticos y potentes «artefactos», es decir hechos de Arte, «peinan» el poderoso viento del bravo mar Cantábrico.

De este modo se da cumplimiento a aquella recomendación de Andrea Palladio, tomando otra anterior de Vitrubio, por la que «... se debe buscar con mucha diligencia que las ciudades no miren por línea recta a algún viento, porque de este modo por ella, correrán furiosos y violentos, Y para la salud es preciso que vengan quebrados, suaves, purgados, y cansados...».

Nosotros podíamos añadir «que vengan los vientos peinados» por el Arte y la Arquitectura de una bella muestra, de la más brillante arquitectura urbana de Euskadi.

Junio, 1988

## Hiri bat itsasoaren parean

Elementuak etxekotzeko behar saihetsezina…

…azkenean, poetikoki oso egokia den *Haizearen orrazia* izena daraman errematean markatuko du, ezproi baten edo «hiriaren brankako maskaroi» enigmatiko baten antzera, orririk distiratsuenetako bat Donostia maitagarri honen definizioan, itsaso zakarraren aurrean, mapek definitzen duten *Mer de Biscaye* beldurgarriaren aurrean.

Ondo trazatutako kolektore baten aitzakia, itsasertzeko horma onargarri baten existentzia eta sendotasunean eta testuran ahulduta dagoen itsaslabar bat egotea, abiapuntua eta hasiera izan dira Peña Ganchegui eta Chillida artistek, batak arkitekturaren «mekanismoekin» eta besteak eskulturaren berezko «tresnekin», burutu ahal izateko granitozko plataforma bikain bat eta, horren gainean, harreman poetiko estuan, «artefaktu» (hau da, «artearen faktu edo egintza») enigmatiko eta indartsu batzuk, Kantauri itsaso zakarraren haize indartsua «orrazteko».

Horrela, Andrea Palladioren gomendioa betetzen da, Vitruvioren lehenagoko gomendio bat hartuta: «........ arreta handiz bilatu behar da hiriek ez diezaiotela zuzenean begiratu haizeari, bestela amorruz eta bortizki zeharkatuko baititu, eta osasunerako beharrezkoa da haizeak hautsita, leun, purgatuta eta nekatuta etortzea...».

Guk gaineratu genezake «etor daitezela haizeak orraztuta», Euskadiko hiri arkitekturarik bikainenaren erakusgarri eder baten Arteak eta Arkitekturak lagunduta.

1988ko ekaina

## El Festival de Cine y su reflejo arquitectónico

Aquí llega el otoño y se nota, sobre todo en San Sebastián, donde no sólo, se conjuga tan perfectamente el cambio climático con el cambio de hora, sino que además estos cambios ciudadanos, coinciden con el final de un Festival o Feria del Cine, que administra con precisión el largo camino que conduce de la farfolla al glamour.

Precisamente en este ámbito de los cambios urbanos bruscos y deseables, es donde hallan lugar y significado los entoldados, tenderetes, casetas y demás «aparatos», en terminología propia de la época barroca, preparados para acoger y potenciar acontecimientos urbanos de la máxima significación colectiva, pero caracterizados por su propia brevedad.

Y no hay duda de que el Festival o Feria del Cinema en Donostia, es todo un evento que sacude los cimientos de esta Ciudad, durante unos pocos días.

La Arquitectura de lo «efímero», ese arte de componer «aparatos» de vida breve, pero alto significado colectivo, que requiere toda feria (*Messe*), festival, o conmemoración, constituye sin duda un capítulo tan interesante como poco desarrollado entre nosotros, de la historia y vida de la gran Arquitectura.

Sentadas estas pequeñas premisas a la manera de principio, puedo manifestar mi más admirada conformidad con la idea de «plantar» una de esas carpas, entoldados, o casetas, en medio del espacio festivalero, para conseguir un lugar de reunión, un núcleo de cristalización y símbolo a su vez, de las abundantes y diversas relaciones que caracterizan la feria de cine donostiarra.

## Zinemaldia eta bere isla arkitektonikoa

Hemen dator udazkena eta nabaritzen da, batez ere Donostian, non klima aldaketa eta ordu aldaketa oso ongi uztartzen diren, eta, gainera, herritarren aldaketa horiek bat datozen zinemaldi edo zinemaren azoka baten amaierarekin, hutsalkeriatik glamourrera daraman bide luzea zehaztasun osoz kudeatuta.

Hain zuzen ere, hiriaren aldaketa bat batekoen eta desiragarrien eremu horretan aurkitzen dute lekua eta esanahia barrokoaren berezko terminologiako olanpe, saltoki, etxola eta gainerako «aparatuek»; esanahi kolektibo handieneko hiri gertaerak hartzeko eta sustatzeko prestatuek, baina laburtasuna bera ezaugarri dutenek.

Eta argi dago Donostiako Zinemaldia edo zinemaren azoka egun gutxi batzuetan hiri honen oinarriak astintzen dituen ekitaldia dela.

«Iragankorra» denaren Arkitektura, bizi laburreko baina esanahi kolektibo handiko «aparatuak» osatzeko arte hori, azoka (*messe*), jaialdi edo oroitzapeneko ospakizun orok beharrezkoa duena, Arkitektura handiaren historiaren eta biziaren kapitulu interesgarria baina gutxi garatua da gure artean, zalantzarik gabe.

Premisa txiki horiek hasieran bezala jarrita, adieraz dezaket ados nagoela karpa, olanpe edo etxola horietako bat jaialdiaren espazioaren erdian «landatzeko» ideiarekin, Donostiako zinema azokaren bereizgarri diren harreman ugarien eta anitzen bilgune, kristalizazio gune eta ikur bat lortzeko.

Tan acertada ha sido la idea de la carpa como núcleo arquitectónico aglutinador de la feria, que como suele ocurrir entre nosotros, pronto empezaron a llover las descalificaciones sensacionalistas, para el modesto pabellón de plástico desde los más extremados de los ángulos del espectro social, y como cantinela que se repite en los casos análogos, la «estética y la normativa» dieron cobertura a toda serie de opiniones pintorescas, contradictorias y descalificadoras.

Una vez más, la filtración de Informes Técnicos, ha servido como disculpa. Y los periódicos, todos, pero en especial los más interesados en la catástrofe, han magnificado la anécdota hasta tal punto que durante un par de días se convirtió en autentica categoría del mal hacer institucional.

Muchos llegaron a creer que el aparcamiento subterráneo corría riesgo de quedar sin tejado. Y todo este lío para defender, poco más que la caja semanal de un par de establecimientos de hostelería, seguramente errados en sus previsiones.

La evidencia ha llevado, como siempre las aguas a su cauce, y hoy en el momento de su desmontaje parece que la idea se acepta como buena por la mayoría y entiendo que es el momento de pensar con cierta calma, si la realización de esa idea ha sido lo suficientemente buena, o incluso si en el futuro pudiera mejorar.

Da la impresión de que todo el montaje de cartelones, farolas enanitas del modelo «Kursaal» y barandillas como las de la Concha en abalorio, constituye más un desorden y una expansión de almacén municipal congestionado, que unos objetos, elementos y aditamentos, para engalanar esta parte de ciudad durante unos pocos días, en claves de arquitectura efímera.

Karparen ideia hain izan da egokia azokaren gune arkitektoniko aglutinatzaile gisa, non, gure artean gertatu ohi den moduan, laster hasi baitzen plastikozko pabiloi xumearen aurkako deskalifikazio sentsazionalisten jasa, espektro sozialaren angelu muturrekoenetatik, eta antzeko kasuetan errepikatzen den kantinela gisa, «estetikak eta araudiak» estaldura eman zioten iritzi bitxi, kontraesanezko eta deskalifikatzaile orori.

Beste behin ere, txosten teknikoen filtrazioa erabili da aitzakia gisa. Eta egunkariek, denek, baina bereziki hondamendian interesatuenek, horrenbeste puztu dute anekdota, ezen pare bat egunez erakundeen jardun okerraren kategoria bihurtu baitzen zinetan.

Askok sinetsi zuten lurpeko aparkalekua teilaturik gabe gelditzeko arriskuan zegoela. Eta nahaspila hori guztia ostalaritzako establezimendu pare baten asteko diru bilketa baino apur bat gehiago defendatzeko asmotan, seguru asko aurreikuspenetan erratuta.

Beti bezala, urak bere bidera eraman ditu ebidentziak eta, gaur egun, desmuntatzeko unean, badirudi gehiengoak ontzat ematen duela ideia, eta uste dut une egokia dela lasai pentsatzeko, ideia hori behar bezain ona izan den, edo etorkizunean hobetu daitekeen.

Badirudi karteloiak, «Kursaal» modeloko farol nanoak eta Kontxakoak bezalako barandak apaingarri gisa udal biltegi kongesionatuaren desordenaren eta zabaltzearen ondorio izan direla, hiriaren zati hori egun gutxi batzuetan apaintzeko objektu, elementu eta osagarriak baino gehiago, arkitektura iragankorraren klabean.

Alguien, con razón se quejaba de que el paseante que deambula estos días por la otra margen del Río, tan Urumea como la margen izquierda, y tan San Sebastián como el centro y la periferia, no pudiera tener más objetos que contemplar, que unas traseras de cartelones de hojalata. El reverso de los carteles de estreno, para que aparezcan en las tomas televisivas del festival y dejan su trasera «decorando la ciudad».

Elementos más propios en su función de independizar unos boxes de prueba automovilística en el descampado, que como un elemento urbano, por efímero que sea, en el centro de una ciudad que se quiere a sí misma como culta.

Si el cine es cultura, su festival ni puede ni debe de obviar problemas de este tipo, ya que constituyen aspectos muy importantes a resolver bien.

Todo ello en un contexto ciertamente difícil como lo es el ámbito que agrupa al Teatro, el Hotel y los jardines de Oquendo, sobre una plataforma —techo de garajes—, en terrenos arrebatados en su día al río Urumea.

Se trata de dotar de una arquitectura adecuada y con acierto, en claves de provisionalidad para el Festival, en ese difícil lugar de Oquendo.

Lugar de ambigua definición entre la sencillez de los Jardines, a pesar de su mediocre sistema de desagües, al igual de aquellos tejados que almacenan charcos innobles. Completado por los magníficos edificios del Hotel M.ª Cristina y Teatro Victoria Eugenia, con sus respectivas entradas más o menos del revés, según se mire. Y definiendo una plaza abierta frente al Urumea que para colmo de dificultades, da espalda a una parte muy importante de esta ciudad.

Arrazoiz kexatzen zen norbait, esanez egunotan ibaiaren beste aldean, ezkerraldea bezain Urumea eta erdialdea eta periferia bezain Donostia den horretan, noragabe dabilen ibiltariak latorrizko karteloizko atzealdeak baino ez ditzakeela ikusi. Estreinaldien kartelen atzealdeak, Zinemaldiko telebista harraldietan agertzen direnak eta atzeko aldea «hiria apaintzeko» uzten dutenak.

Elementu horiek egokiak izan daitezke, funtzioari dagokionez, zelaiguneetan egindako automobil probetan hainbat box bereizteko, baina ez hiri elementu gisa, nahiz eta iragankorra izan, bere burua kultutzat daukan hiri baten erdian.

Zinema kultura bada, haren jaiak ezin ditu alde batera utzi mota horretako arazoak, ongi konpondu beharreko alderdi garrantzitsuak baitira.

Hori guztia testuinguru benetan zail batean, Antzokia, Hotela eta Okendoko lorategiak biltzen dituen eremuan, alegia, bere garaian Urumea ibaiari kendutako lurretan dagoen plataforma baten gainean —garajeen sabaia—.

Kontua da Zinemaldirako arkitektura egokia egitea, behin-behinekoa bada ere, Okendoko leku zail horretan.

Definizio anbiguoko lekua da Lorategien soiltasunean, bertako hustubide sistema kaskarra gorabehera, nobleziarik gabeko putzuak dituzten teilatuen antzera. Mª Cristina Hotelaren eta Victoria Eugenia Antzokiaren eraikin bikainak ditu osagarri, bakoitza bere sarrerarekin, gutxi gorabehera atzekoz aurrera, segun nola begiratzen den. Eta plaza ireki bat definitzen du Urumearen aurrean, aurrekoa gutxi balitz bezala, hiri honen parte handi bati bizkarra ematen diona.

Ahora que hay tiempo, se puede programar y proyectar para luego con calma construir. Es sin duda el momento de pensar en la edición 92 del Festival, se trata de acertar en este mundo de la Arquitectura, que halla su más alta expresión en lo efímero y conmemorativo.

Ahora, que se ha demostrado que la Carpa (1991) ha sido oportuna, y de una técnica correcta, es el momento de meditar que quizá sea mejorable en otros muchos aspectos, más cercanos a la sutileza, más próximos a significar con brillantez la propia presencia efímera del Festival, dentro de su entorno ferial. La cultura de nuestro país se merece eso y quizás algo más.

Octubre, 1991

Orain denbora dagoenez, programatu eta proiektatu daiteke, gero lasai eraikitzeko. Zalantzarik gabe, Zinemaldiaren 1992ko edizioan pentsatzeko unea da. Arkitekturaren mundu honetan asmatzea da helburua, kontuan hartuta bere adierazpenik gorena iragankorra eta oroitzapenezkoa dela.

Orain, Karpa (1991) egokia izan dela eta teknika egokia izan duela frogatu denez, hausnartzeko unea da, eta agian beste alderdi askotan hobetu daiteke, sotiltasunetik hurbilago, Zinemaldiak bere azoka ingurunean duen presentzia iragankorra bikaintasunez adierazteko. Gure herriko kulturak merezi du hori, eta agian gehiago.

1991, urria

## Una guía necesaria, y en espera de un museo de la Arquitectura

Donostia es una ciudad tan ensimismada en su cualidad geográfica y urbana, que ha aguardado impertérrita, que otros vayan pasando, hasta quedar como una de las últimas ciudades de esta enorme «piel de toro», en contar con una guía de su propia arquitectura. También hay que decir, que en estas tierras, desgraciadamente desde hace algún tiempo, no van muy de la mano, el negocio inmobiliario y la calidad formal de los edificios. Quizás por ello tampoco las «fuerzas vivas» de esta ciudad, han tenido excesiva prisa, en reflexionar y someter a juicio crítico sus propias responsabilidades figurativas. Además, es evidente, que en Donostia, en este aspecto arquitectónico, no resulta difícil vivir de las rentas de un final del siglo XIX pleno de aciertos urbanos y otras sutilezas de la arquitectura en su contrapunto con la naturaleza.

Por ello, aunque algo tardía, sea bienvenida la guía de los edificios de San Sebastián que ha preparado la Delegación Guipuzcoana del Colegio de Arquitectos y que se presenta, en sociedad, el sábado día 21 de Septiembre en ese «levante del Real Club Náutico» al que conocemos como la Kabuzia.

Nada mejor que esta circunstancia, ciertamente importante en la reflexión colectiva sobre los edificios donostiarras, para plantear y airear alguna de las deudas que tiene contraídas esta Ciudad con la disciplina de la arquitectura.

En primer lugar, instar a quien corresponda, como nos recuerdan los enunciados del *sirimiri cotidiano en el D.V.* para que se restaure de una vez por todas, y se reponga en su cualidad pristina, este magnífico edificio-barco del Real Club Náutico, obra brillante y de especial

## Beharrezko gidaliburu bat, Arkitekturaren museo baten zain

Donostia bere baitara bilduta dago izaera geografikoagatik eta urbanoagatik, eta beste batzuei aurretik igarotzen utzi die, beldurgabe, «zezen larru» erraldoi honetan bere arkitektura propioaren gidaliburu bat duen azken hirietako bat izan arte. Esan beharra dago, halaber, lur hauetan, zoritxarrez aspaldidanik, higiezinen negozioa eta eraikinen kalitate formala ez doazela oso eskutik. Eta agian horregatik, hiri honetako «indar biziek» ere ez dute presa handirik izan hausnartzeko eta beren erantzukizun figuratiboak modu kritikoan epaitzeko. Gainera, argi dago Donostian, alderdi arkitektoniko honetan, ez dela zaila XIX. mendearen amaierako errentetatik bizitzea, ideia urbano on asko eta arkitekturaren bestelako sotiltasunak gauzatu baitziren, naturarekin kontrapuntuan.

Hori dela eta, berandu samar bada ere, ongietorria izan bedi Arkitektoen Elkargoaren Gipuzkoako Ordezkaritzak egin duen Donostiako eraikinen gidaliburua. Irailaren 21ean, larunbata, egingo da aurkezpena, Kabutzia izenez ezagutzen dugun «Klub Nautikoaren sortalde» horretan.

Hori baino ezer hoberik ez, Donostiako eraikinei buruzko hausnarketa kolektiboan oso garrantzitsua baita, hiri honek arkitekturaren diziplinarekin dituen zorretako batzuk planteatu eta aireratzeko.

Lehenik eta behin, dagokionari eskatzea, *DVko eguneroko zirimiriaren* enuntziatuek gogorarazten digutenez, behingoz lehengoratu dadila, eta jatorrizko izaera bueltatu dakiola, Klub Nautikoaren ontzi-eraikin bikain horri, obra bikaina eta esanahi berezikoa

significado en la modernidad figurativa y en el sentido más positivo de la dimensión marítima donostiarra.

Luego, conviene recordemos todos, aquel carismático y desaparecido Café Madrid, testigo de tantas nostalgias del cosmopolitismo de San Sebastián, obra asimismo brillante de Aizpurua y Labayen que aunque los más jóvenes la hayan podido olvidar, fue una obra de arquitectura muy importante, que desapareció, por los primeros años setenta, en el número 35 de nuestra Avenida de la Libertad. Al igual que tantos cafés «loosianos» han resucitado en Viena, o la sempiterna pervivencia de los cafés parisinos, desde el «Flore» al de los «Deux Magots», sin olvidar la magnífica recuperación y restauración del café Die Unie, obra racionalista de J.P. Oud en Rotterdam, nuestro desaparecido Café Madrid debe debería ser recuperado, al menos si quedan planos, fotografías y otras posibilidades materiales de hacerlo.

Es cuestión de convencer a la entidad de ahorro propietaria del local, hoy en desuso, a los constructores y promotores donostiarras, a quienes es preciso alinear en favor de la vertiente cultural de la arquitectura, y aportar entre todos, instituciones y diletantes, un esfuerzo, sin mirar hacia otro lado cuando se trata de poner, en la medida de nuestras posibilidades y a fondo perdido «algún duro de los de más valor» en un cajón de economías escasamente productivas. Sería, una inmejorable ocasión para contar con un local en el centro de la ciudad desde el que todo el mundo, se sintiera identificado con la modernidad y donde a la manera de un «*desing centre*» se localizaran continuas exposiciones, debates y discusiones sobre los apasionantes aspectos de los que se nutre la disciplina de la arquitectura. Pudiera bien ser algo como una renovada tertulia, abierta a todos, sobre aspectos fundamentales de nuestra cultura figurativa. Es una manera más de construir una ca-

delako modernitate figuratiboan eta Donostiaren itsas dimentsioaren zentzurik positiboenean.

Gero, denok gogoratu behar dugu Café Madrid karismatiko eta desagertu hura, Donostiaren kosmopolitismoaren nostalgiaren lekuko, Aizpuruaren eta Labayenen obra bikaina; gazteenek agian ahaztu izango duten arren, arkitektura lan oso garrantzitsua izan zen, Askatasunaren hiribideko 35. zenbakian, eta hirurogeita hamarreko lehen urteetan desagertu zen. Vienan kafetegi «loosiano» asko berpiztu diren bezalaxe, edo Parisen hainbat kafetegik betiereko iraun duten bezalaxe, hala nola «Flore» edo «Deux Magots», eta ahaztu gabe Rotterdamen J.P. Ouden Die Unie kafetegi arrazionalista modu bikainean zaharberritu eta berreskuratu dela, gure Café Madrid desagertua berreskuratu beharko litzateke, planoak, argazkiak eta beste aukera material batzuk geratzen badira bederen.

Kontua da gaur egun erabiltzen ez den lokal horren jabe den aurrezki erakundea eta Donostiako eraikuntza eta sustapen enpresak konbentzitzea, arkitekturaren alderdi kulturalaren alde lerrokatu behar baitira, eta, guztion artean, erakundeen eta diletanteen artean, ahalegin bat egitea, beste aldera begiratu gabe, gure aukeren arabera eta itzuli beharrik gabe «balio handieneko ogerlekoren bat» jarri behar denean ekonomia ez oso produktiboen kutxan. Aukera ezin hobea izango litzateke hiriaren erdigunean lokal bat izateko, bertatik denok modernitatearekin identifikatuta sentitzeko eta, *desing centre* baten moduan, arkitekturaren diziplina elikatzen duten alderdi erakargarriei buruzko erakusketa eta eztabaida etengabeak egiteko. Solasaldi berritu bat izan liteke, denei irekia, gure kultura figuratiboaren funtsezko alderdiei buruz. Kulturaren hiriburu bat eraikitzeko beste modu bat da; horregatik, ez litzateke txarra izango Udalak esku hartzea gai ho-

pital cultural, por ello no sería malo, tomara el Ayuntamiento alguna carta en este asunto, ya que nuestro Alcalde, no es de los que le hacen ascos a la arquitectura, como fermento de profunda actividad de cultura.

En tercer lugar conviene recordar que el plan de Museos de Euskadi, contempla a Donostia como sede del Museo Vasco de la Arquitectura, pues bien, es probable, sea ya llegado el momento que las instituciones profesionales, las políticas y las culturales de esta ciudad, manifiesten de manera evidente, su voluntad hacia este tipo de formulaciones museísticas y «templos de la memoria». Donde, también pueda darse un debate profundo sobre las características formales del entorno edificado, y puedan seguirse con asiduidad y bien documentadas las trasformaciones constructivas de una geografía, que en el caso de Donostia resulta de una exquisita calidad.

Acostumbrados como estamos a que nos lo den todo hecho, o a exigir sin mesura lo que «creemos» corresponde realizar a otros, conviene decir que no va a ser fácil, mantener niveles culturales altos en materia de arquitectura, si no nos aplicamos todos y cada uno, cada cual en su sitio, a una tarea colectiva hermosa, y aprovechando esta feliz presentación de la Guía de los edificios donostiarras, nos lanzamos, a propiciar las condiciones más favorables para la arquitectura, como una de las facetas ciertamente valiosas y profundas de nuestra cultura figurativa.

Septiembre, 1996

rren inguruan, gure alkatea ez baita arkitekturari muzin egiten dien horietakoa, kultura jarduera sakonaren eragile gisa.

Hirugarrenik, komeni da gogoratzea Euskadiko Museoen Planak Arkitekturaren Euskal Museoaren egoitza gisa hartzen duela Donostia; izan ere, litekeena da, dagoeneko, hiri honetako erakunde profesionalek, politikoek eta kulturalek argi eta garbi adieraztea halako museo formulazioekiko eta «memoriaren tenpluekiko» borondatea. Bertan, ingurune eraikiaren ezaugarri formalei buruzko eztabaida sakona eta geografia baten eraikuntza eraldaketen jarraipen sarria eta ondo dokumentatua ere egin daitezke, kontuan hartuta Donostiaren kasuan geografia kalitate bikainekoa dela.

Ohituta gaude dena eginda jasotzen, edo «gure ustez» beste batzuei egin behar zaiena neurririk gabe eskatzen, baina esan behar da ez dela erraza izango arkitekturaren alorrean maila kultural altuak mantentzea, baldin eta denok, bakoitza bere lekuan, zeregin kolektibo eder batean ahalegintzen ez bagara, eta Donostiako eraikinen gidaliburuaren aurkezpen eder hau aprobetxatuz, arkitekturarako baldintza onuragarrienak bultzatzen ez baditugu, gure kultura figuratiboaren alderdi benetan baliotsu eta sakonetako bat delako.

1996, iraila

# Un par de apuntes teóricos

- Ocaso de la Arquitectura.
- *Le bon goût*, y el difícil aprecio de la Arquitectura.
- Entre dos milenios: arquitectura, vivienda y solidaridad.
- Epitafio por una profesión agonizante.
- Y en el borde de Sagüés, qué?

# Pare bat ohar teoriko

- Arkitekturaren gainbehera.
- *Le bon goût*, eta Arkitekturaren estimu zaila.
- Bi milurtekoren artean: arkitektura, etxebizitza eta elkartasuna.
- Hilzorian dagoen lanbide baten epitafioa.
- Eta Sagueseko ertzean, zer?

## Ocaso de la Arquitectura

Durante largos períodos de la historia de la humanidad, la arquitectura ha mantenido posiciones prioritarias en el rango jerárquico de los quehaceres y disciplinas del hombre, por su amplio valor colectivo y social. Así ha sido desde la construcción del Templo en Jerusalén, hasta la construcción masiva de viviendas, por las socialdemocracias europeas, en el último período de entreguerras. La construcción del Jardín en Edén, fue llevada a cabo por Yahveh, más para crear un lugar bello y con ello hacer arquitectura en sí misma, que para ejecutar puntualmente un presupuesto previo. Las Catedrales, potentes estratos góticos trasformando viejas y potentes trazas románicas, han señalado de manera indeleble la construcción de la ciudad europea, uno de los más apasionantes logros y creaciones de la humanidad.

De alguna manera la idea de Dios Arquitecto del Universo ha sido la que ha prevalecido a lo largo de los tiempos, llenando hermosísimas páginas iconográficas, desde la *Biblia moralizada* de 1250 hasta las pinturas decimonónicas de William Blake, a diferencia de la idea de un Dios, poderoso autócrata, severo prestamista y prudente planificador. Aquella idea, valiosa, conlleva el concepto de un Universo en expansión, un Universo en cascada de estallidos en fragmentos poéticos, a partir del lejanísimo *big.bang,* en cuyos azares se constituye una belleza, expresión hermosa de su propia imprevisibilidad y contradicción.

En este contexto de ideas la construcción de la Arquitectura tenía valor por sí misma, en cuanto significara y diera forma al sentimiento colectivo y popular. Todo lo demás, las intrigas, el costo, el plazo, el mantenimiento... y hasta su misma «pragmática utilidad»... quedaban claramente subordinadas a la idea más sublime del edificio, que al fin y a la postre era

## Arkitekturaren gainbehera

Gizateriaren historiako denboraldi luzeetan, arkitekturak lehentasunezko posizioak izan ditu gizakiaren zeregin eta diziplinen hierarkia mailan, balio kolektibo eta sozial handia duelako. Horrela izan da Jerusalemgo tenplua eraiki zenetik Europako sozialdemokraziek etxebizitzak masiboki eraiki zituzten arte, gerra arteko azken garaian. Yahvehk Edengo lorategia eraiki zuenean, helburu izan zuen toki eder bat sortu eta arkitektura egitea, eta ez, ordea, aurretik zegoen aurrekontu bat puntualki gauzatzea. Katedralak aztarna erromaniko zahar eta boteretsuak eraldatzen dituzten estratu gotiko indartsuak dira, eta modu ezabaezinean markatu dute Europako hirien eraikuntza, gizateriaren lorpen eta sorkuntza zirraragarrienetako bat.

Nolabait, Unibertsoaren Jainko Arkitektoaren ideia nagusitu da denboran, eta orrialde ikonografiko ederrak bete ditu, 1250eko *Biblia moralizatu*tik William Blakeren antigoaleko margolanetaraino, jainko autokrata boteretsu, mailegu emaile zorrotz eta planifikatzaile zuhurraren ideiaren gainetik. Ideia baliotsu hark hedatzen ari den unibertso baten kontzeptua dakar, zati poetikoetan lehertzen eta teilakatzen den unibertso batena, *big bang* urrunetik abiatuz, zeinaren zorian eratzen baita edertasun bat, bere aurreikusezintasunaren eta kontraesanaren adierazpen ederra.

Ideien testuinguru horretan, arkitekturaren eraikuntzak berez zuen balioa, sentimendu kolektibo eta herrikoiari forma ematen zion heinean. Gainerako guztia, azpijokoak, kostua, epeak, mantentzea... eta «erabilgarritasun pragmatikoa» bera ere, argi eta garbi eraikinaren ideiarik gorenenaren mende geratzen ziren, azken finean, hori baitzen betiko iraungo zuen gauza baka-

lo único perenne y que convenía asegurar por encima de otras contingencias, sin duda de importancia, pero contingencias al final.

La Arquitectura ha tenido siempre, y en el futuro, seguramente tendrá, caracteres de trascendencia. Desde la *Tienda del Tabernáculo,* como expresión de arquitecturas portátiles y desmontables, hasta los monumentos más grandiosos, pétreos y anclados sobre la tierra, en los que se refleja el espíritu de una época y/o de una comunidad, pasando por el más humilde de los hogares, que siempre ha constituido el lugar doméstico por excelencia, para un determinado grupo de hecho o familiar. De ahí la importancia de un adecuado enfoque político, económico y también disciplinar, para la construcción de la arquitectura y por ende la ciudad.

Perder este carácter de «prioridad humana», al afrontar la idea de arquitectura, sea desde sus aspectos más humildes, p.e. la cabaña o la casita mínima; sea al construir las más suntuosas mansiones, jardines y monumentos, constituye un serio quebranto en la cultura y en el equilibrio de una comunidad. Claro está, siempre que se guarden equilibrios ajustados con todas las necesidades «otras», también imprescindibles para los humanos. *Vivere et philosophare*.

Hoy asistimos a una precarización y banalización crecientes de la idea de arquitectura, cada vez más sometida a mil avatares extraños, normativas sorprendentes, plazos imposibles, concursos de formulación incierta, regulaciones legales empobrecedoras y demagógicas, y sobre todo, un total desajuste entre la construcción de la arquitectura y el contexto económico más general.

La economía se globaliza, el poder económico se concentra «opa tras opa» y se convierte cada día en

rra, eta beste kontingentzia batzuen gainetik ziurtatzea komeni zen; horiek ere bazuten garrantzia, zalantzarik gabe, baina, nolanahi ere, kontingentziak ziren.

Arkitekturak haraindiko ezaugarriak izan ditu beti eta, seguruenik, etorkizunean ere izango ditu. *Tabernakulu*tik, arkitektura eramangarrien eta desmuntagarrien adierazpen gisa, monumentu handi, harrizko eta lurrean ainguratuetaraino, zeinetan garai eta/edo komunitate baten espiritua islatzen den, eta tartean etxerik xumeena, izatezko talde edo familia jakin bat bizitzeko *leku* nagusia izan dena beti. Horregatik da garrantzitsua ikuspegi politiko, ekonomiko eta diziplinazko egokia erabiltzea arkitektura eta, ondorioz, hiria eraikitzeko.

Arkitekturaren ideiari aurre egitean «gizakiaren lehentasun» izaera hori galtzeak, dela alderdi apalenetatik, adibidez etxola edo etxetxorik txikienetik, dela etxe, lorategi eta monumentu bikainenak eraikitzean, galera handia dakarkio komunitate baten kulturari eta orekari. Jakina, gizakiontzat ezinbestekoak diren «beste» behar guztiekin bat datozen orekak mantentzen badira.

Gaur egun, arkitekturaren ideia gero eta gehiago prekarizatzen eta banalizatzen ari da, eta milaka gorabehera bitxik eragin gero eta handiagoa dute hartan: araudi harrigarriak, epe ezinezkoak, formulazio zalantzagarriko lehiaketak, lege erregulazio pobretzaileak eta demagogikoak, eta, batez ere, erabateko desoreka arkitekturaren eraikuntzaren eta testuinguru ekonomiko orokorrenaren artean.

Ekonomia globalizatzen ari da, botere ekonomikoa «EEPz EEP» kontzentratzen ari da eta, egunetik egu-

algo más abstracto y alejado de la vida cotidiana. Las decisiones de todo tipo, quedan sometidas a una regulación tiránica cada vez más numérica y cuantitativa tomadas desde unos minúsculos y altamente concentrados órganos del poder. Vamos hacia un mundo en el que todo hierve o se concentra a presión, sin poder estallar. Y un estado de cosas bajo esa tendencia no puede sino redundar en menoscabo de la arquitectura, cuando menos para quienes creemos que la casa, el templo y la ciudad son algo más..., mucho más, que una mera cantidad económica traducida, durante un plazo, en una cantidad de techo y unas paredes en las que relacionarse, estar sólo o pernoctar.

San Sebastián, 1999

nera, gero eta abstraktuagoa da eta eguneroko bizimodutik urrunago dago. Era guztietako erabakiak gero eta tiranikoago, zenbakizkoago eta kuantitatiboagoa den erregulazio baten mende geratzen dira, eta botere organo oso txiki eta kontzentratuetatik hartzen dira. Denak irakiten duen edo presioz kontzentratzen den mundu baterantz goaz, lehertzera iritsi gabe. Eta joera horren pean dagoen gauzen egoera batek arkitekturari kalte egin besterik ezin du egin, gutxienez uste dugunontzat etxea, tenplua eta hiria zerbait gehiago direla... askoz gehiago direla, epe jakin batean sabai kantitate bat eta harremanak izateko, bakarrik egoteko edo gaua pasatzeko horma batzuk ematen dituen diru kopuru huts batetik haratago.

Donostia, 1999

## *Le bon goût,* y el difícil aprecio de la Arquitectura

Hace algunos años, sobre las arenas de una playa en Castelldefels, en donde retozaban amorosos dos jóvenes, una señora mayor, precisamente de Bilbao, se dirigió de manera airada a la pareja, espetando un estentóreo ¡Que aproveche! El joven sin inmutarse, y sin cejar en sus manualidades, replicó a la norteña dama con un satisfecho ¡Gracias... si gusta! Curioso cambio de *sentido,* al traducir el placer erótico a términos de sabor gustativo.

Desde hace bastantes años las cualidades placenteras, sea cual fuere el sentido por el que se perciben, vista, olfato, oído, sabor y tacto, se han venido midiendo en base, principalmente, a parámetros de *gusto*. Y evidentemente, como sobre gustos no hay nada escrito, todo el mundo y en todo lugar, puede y se suele erigir en juez y regla de cualquier tipo de belleza. De ahí que resulte un lugar común, la manida frase «yo de Arquitectura no entiendo nada, pero ese edificio es *horrible*» e incluso responsables políticos y otras dignidades sociales, en general antes de llegar a las responsabilidades más altas de gobierno, se permiten descalificar complejos procesos proyectuales y constructivos, casi a punto de terminar. Siempre toca a los más novedosos y arriesgados, a los que se aplican un par de frases del tipo ¡vaya bodrio!, ¡espantoso!, al que añaden con frivolidad, un apocalíptico... ¡Que lo derriben!

La confusión viene de antiguo, desde 1671, con la fundación de la Real Academia de Arquitectura en la Francia absolutista. Colbert, ministro de Luis XIV, fue quien tras la sesión inaugural del 31 de Diciembre, dedicara la segunda de las reuniones a tratar del *bon goût*. El 7 de enero del 1672, la Academia concluyó su análisis sin solución positiva. Se afirmaba

## *Le bon goût,* eta arkitekturaren estimu zaila

Duela zenbait urte, Castelldefelseko hondartza batean, bi gazte maite jolasetan ari zirela, adineko emakume bat, Bilbokoa hain zuzen ere, haserre bizian joan zen bikotearengana, eta aurpegiratu zien zaratatsuki: On egin diezazuela! Eta mutil gazteak, larritu gabe eta eskulanetan jarraituz, hauxe erantzun zion iparraldeko damari, pozik: Eskerrik asko! Zuk ere gustuko baduzu… *Zentzu* aldaketa bitxia, plazer erotikoa zaporearekin eta dastamenarekin lotzen duena.

Aspaldidanik, batez ere *gustuaren* parametroen arabera neurtu izan dira plazeraren ezaugarriak, zeinahi zentzumenen bidez jasotzen direla ere (ikusmena, usaimena, entzumena, dastamena eta ukimena). Eta noski, zenbat buru, hainbat aburu daudenez, denok eta nonahi, edonolako edertasunaren epaile eta arau bihur gaitezke, eta halaxe egiten dugu. Hori dela eta, «nik arkitekturaz ez dakit ezer, baina eraikin hori *oso itsusia* da» esaldia ohikoa da, eta arduradun politikoek eta gizarteko beste duintasun batzuek ere, oro har gobernuko erantzukizun maila gorenetara iritsi baino lehen, ia amaitzear dauden proiektu eta eraikuntza prozesu konplexuak deskalifikatzen dituzte. Berritzaileenek eta arriskuzaleenek «zer nolako zaborra!» eta «oso itsusia!» erako esaldi pare bat botatzen dituzte. Eta gaineratzen dute, arinkeriaz eta kutsu apokaliptikoarekin... «Eraits dezatela!».

Nahasmena antzinatik dator, 1671tik, Frantzia absolutistan Arkitekturaren Errege Akademia sortu zenetik. Colbertek, Luis XIV.aren ministroak, abenduaren 31ko inaugurazio saioaren ondoren, bigarren bilera *bon goût*aren azterketari eskaini zion. 1672ko urtarrilaren 7an, Akademiak bere azterketa amaitu zuen, emaitza positiborik gabe. Eta gauza oso anbiguo bat

algo tan ambiguo como que lo que fuera hecho con buen gusto, habría de *agradar,* más no todo aquello que *agradara* tenía necesariamente buen gusto. Pasados siete días de aquel *impasse* se llegó a un consenso provisional por el cual se llamaría de buen gusto, aquello que agradara a un individuo inteligente. Estamos ante el sempiterno intento fallido de crear un etéreo y aristocrático *bon goût*, con carácter normativo y descalificador.

¿Por qué, desde entonces, a la arquitectura le está vedada cualquier análisis de tipo racional para someterla en demasía a medidas de un patrón sensorial? ¿Donde hemos dejado aquel matiz tan importante de que el gusto se someta a la inteligencia? Y ante este estado de cosas cabe preguntarse ¿cómo se forma y bajo qué intereses se manipula hoy en día la sensibilidad colectiva, que es al fin y a la postre el único juez de la arquitectura actual?

Si tenemos que aplicar estos sencillos principios a nuestra realidad vasca; país especialmente negado para la reflexión figurativa y arquitectónica, donde ha primado *el hacer* cuantitativo y socialmente correcto, frente a un cualitativo *¿cómo hacer?;* podremos observar una enorme pobreza de contenidos. Se nos llena la boca de sabores de progreso con los manjares de Gerhy y Foster, pues aparecen en todas las revistas que dominan y dictan el *bon goût* actual. Ellos marcarían el camino del *gourmet*. Al mismo tiempo pretendemos mantenernos fieles a nuestras raíces culturales, sin más reflexiones que el construir casas y cosas que se asemejen a algo que se tiene como tradicional. Ese sería el papel del *gourmand,* el glotón. Y en medio de todo este maremagnum de confusiones y otras maldades, la arquitectura que se hace en Euskal Herria sigue huérfana de criterios inteligentes y está asediada en el fondo de sus progra-

esan zen, alegia, gustu onez egindako guztiak *atsegina* izan behar zuela, baina, *atsegina* zen guztiak ez zeukala nahitaez gustu onekoa izan beharrik. *Impasse* hartatik zazpi egun igarotzean, behin-behineko adostasun batera iritsi ziren, eta erabaki zen gustu onekotzat hartuko zela pertsona adimentsu batek atsegin zuen guztia. Hortxe dugu izaera arauemaile eta deskalifikatzaileko *bon goût* etereo eta aristokratiko bat sortzeko betiereko ahalegin alferrikakoa.

Ordudanik, zergatik dago debekatuta arkitekturari edozein analisi arrazional egitea, gehiegitan eredu sentsorial baten neurrien pean jartzeko? Non utzi dugu gustua adimenaren mende jartzearen ñabardura garrantzitsu hura? Eta gauzen egoera horren aurrean, honako galdera hau egin daiteke: nola osatzen da eta zein interesen pean manipulatzen da, gaur egun, sentsibilitate kolektiboa? Azken finean, egungo arkitekturaren epaile bakarra dena?

Printzipio xume horiek euskal errealitateari aplikatu behar badizkiogu, edukien pobrezia izugarria dela ikusiko dugu; izan ere, kontuan hartu behar da herri hau bereziki baldarra dela hausnarketa figuratiboan eta arkitektonikoan, non kuantitatiboki eta sozialki zuzena dena *egiteari* eman zaion lehentasuna, kualitatiboki *nola egin?* galderaren aurrean. Aurrerapenaren zaporez betetzen zaigu ahoa Gerhyren eta Fosterren jaki gozoekin, gaur egungo *bon goût*aren epaileak eta adituak diren aldizkari guztietan agertzen baitira. Horiek markatuko lukete *gourmet*aren bidea. Baina aldi berean, gure kulturaren sustraiei leial izaten jarraitu nahi dugu, tradizionaltzat jotzen den zerbaiten antza duten etxeak eta gauzak eraikitzea beste hausnarketarik egin gabe. Hori litzateke *gourmand*aren papera, tripontziarena. Eta nahasmenduaren eta bestelako gaiztakerien maremagnum horren guztiaren erdian, Euskal Herrian egiten den arkitekturak umezurtz ja-

maciones urbanísticas y económicas por todos los males que derivan de conducir los conocimientos, por el *sentido* contrario. Es decir, más por la vía del buen gusto que por las de la inteligencia y el conocimiento disciplinar.

Si yo fuera vendedor de marisco les aseguro me ofendería sobremanera, si alguien en mi tienda, juzgara a los percebes únicamente por lo airoso de su figura y lo transparente de su color, en vez de analizar lo sabroso de su gusto y lo salino de su olor.

San Sebastián, 1999

rraitzen du irizpide zentzudunei dagokienez, eta bere hirigintza eta ekonomia programazioen sakonean hertsatuta dago, ezagutzak kontrako *zentzutik* bideratzearen ondoriozko gaitz guztiengatik. Hau da, adimenaren eta jakintza diziplinazkoaren bidetik baino gehiago gustu onaren bidetik.

Itsaski saltzailea banintz, zinez diotsuet, biziki minduko nintzateke nire dendara sartu den norbaitek lanpernak epaituko balitu soilik itxura liraina eta kolore gardena dutelako, zaporetsuak diren eta usain gazia duten egiaztatu ordez.

Donostia, 1999

## Entre dos milenios: arquitectura, vivienda y solidaridad

El paso de año, desde el numerado con tres nueves y el uno por delante, al de tres ceros tras el dos, característico de un segundo milenio, constituye un momento de enorme contenido simbólico, propicio para la reflexión y el pensamiento. El cómputo y la medida del tiempo: ...segundos, minutos, horas, días, semanas, meses, años, siglos, milenios y lo que pueda sobrevenir... constituye uno de los más cabales sistemas culturales en los que se reflejan, con especial fortaleza todas las actividades, del cosmos y de la humanidad.

Por ello tratar aspectos tan indisolublemente unidos a la naturaleza de las personas como son la casa y la ciudad en cuanto facetas importantes de Arquitectura, al aproximarnos a este trance milenario, constituye un ejercicio difícil, cargado de riesgos y puede que simplemente opinar, sea una peligrosa temeridad.

A pesar de ser consciente de ello, creo merece la pena, desde la más absoluta modestia de un pensamiento personal, enunciar algún aserto, más o menos cierto y lanzar deseos, desde la ingenuidad. Se trata de sugerir direcciones y fijar el sentido de alguna «larga marcha sensata» sobre sendas de progreso, en los aspectos referidos al campo de la creación de Forma Arquitectónica, al intento de mejorar la casa necesaria a la vida humana, y sobre todo al afán de construir desde la idea genérica de belleza, aquella ciudad en la que los más puedan entrecruzar y enriquecer su propia identidad.

La arquitectura del siglo que dejamos, ha estado marcada en sus tintes de mayor progreso y en los primeros sesenta años, por la idea de resolver y sistematizar de una manera arquitectónica coherente, funcional

## Bi milurtekoren artean: arkitektura, etxebizitza eta elkartasuna

Hiru bederatzi eta aurretik bata dituen urtetik, bigarren milurtekoaren bereizgarri den biaren ondoren hiru zero dituenera igarotzea, eduki sinboliko izugarriko unea da, aproposa gogoeta egin eta pentsatzeko. Denboraren neurketa (segundoak, minutuak, orduak, egunak, asteak, hilabeteak, urteak, mendeak, milurtekoak… eta etor daitekeena) kosmosaren eta gizateriaren jarduera guztiak indar bereziz islatzen dituen kultura sistemarik zentzuzkoenetako bat da.

Horregatik, milurteko aldaketaren trantzera hurbiltzean, pertsonen izaerari modu banaezinean lotutako zenbait alderdi, hala nola etxea eta hiria, lantzea ariketa zaila da, arriskuz betea, eta baliteke iritzia ematea ere ausarkeria arriskutsua izatea, arkitekturaren alderdi garrantzitsuak diren aldetik.

Horretaz jabetuta egon arren, uste dut merezi duela, nire pentsamendu baten apaltasun erabatekotik, baieztapen gutxi gorabehera ziur bat egitea eta desirak adieraztea, inozentziatik. Norabideak iradoki eta «ibilaldi zuhur eta luze» baten zentzua finkatu nahi da, aurreranzko bide baten inguruan, forma arkitektonikoaren sorkuntzaren alorrari, giza bizitzarako beharrezkoa den etxea hobetzeko ahaleginari eta, batez ere, edertasunaren ideia generikotik gehienek beren nortasunak elkar gurutzatzeko eta aberasteko aukera izango duten hiria eraikitzeko ahaleginari buruzko alderdietan.

Atzean utziko dugun mendeko arkitektura, bere aurrerabiderik handieneko ezaugarrietan eta lehenengo hirurogei urteetan, etxebizitzaren eta etxearen arazoa modu arkitektoniko koherentean, funtzionalean eta

y de una enigmática belleza el problema de la vivienda y de la casa, aún cuando el precio pagado por ello haya sido el ignorar, fragmentar y descoyuntar su gran legado histórico y madre de toda arquitectura: La Ciudad.

Los siguientes veinte años se consumieron, en rectificar el rumbo de las destrucciones ciudadanas y a tenor de los resultados obtenidos todavía no se ha conseguido suficientemente rectificar el largo proceso destructor.

Finalmente los últimos veinte años del siglo se han consumido en aceptar acríticamente y ensañarse sobre los fracasos de las utopías y otros ensueños de progreso. Son tiempos propicios para abandonar la casa y la vivienda, así como su forma, su cultura y lo que es aún peor su encaje en el sistema económico, en manos de la rudeza del mercado, Manejadas, casi siempre, por especuladores toscos y otros pícaros, protagonistas de una economía globalizada y liberal.

Paralelamente, estos mismos años del fin de siglo, se han creado potentes mecanismos de propaganda en favor de unas pocas arquitecturas «de élite», las únicas excepciones a las que, en una sociedad en la que sólo el control del dinero produce racionalidad, se permite despilfarrar presupuestos en su gestación y construcción. Arquitecturas convertidas en reclamo de una nueva civilidad adocenada, las únicas muestras urbanas que se mantienen y cuidan con presupuestos que centuplican los mantenimientos y cuidados de las otras arquitecturas de la ciudad.

Es el mundo de los abundantes, grandes, y a veces hasta acertados nuevos monumentos de innoble cuño, poca historia y amplia popularidad. Son obras, en general, más fruto de la propaganda y la manipulación cultural, que de la memoria y la lenta estratificación

edertasun enigmatikoarekin konpontzeko eta sistematizatzeko ideiak markatuta egon da, nahiz eta horregatik ordaindutako prezioa izan den arkitektura ororen ama den ondare historiko handia, Hiria, kontuan ez hartzea, zatikatzea eta desegitea.

Hurrengo hogei urteetan, hiri suntsiketaren norabidea zuzendu nahi izan zen, baina, lortutako emaitzak ikusita, badirudi oraindik ez dela behar beste zuzendu prozesu suntsitzaile luzea.

Azkenik, mendearen azkeneko hogei urteak eman dira utopien porrotak eta aurrerapeneko beste amets batzuk akritikoki onartzen eta horien kontra grinatzen. Garai aproposak dira etxea eta etxebizitza, bai eta horien forma, kultura eta, are okerragoa dena, sistema ekonomikoan duten lekua ere, merkatuaren zakartasunaren esku uzteko; ekonomia globalizatu eta liberal baten protagonista diren espekulatzaile zakarren eta zenbaitetan pikaroen esku, ia beti.

Aldi berean, mende bukaerako urte horietan, «eliteko» arkitektura gutxi batzuen aldeko propaganda egiteko mekanismo indartsuak sortu dira. Arrazionaltasuna diruaren kontrolak soilik eragiten duen gizarte batean, horiexek dira sortzean eta eraikitzean aurrekontuak xahutzeko aukera ematen zaien bakarrak. Beste gizalege eskas baten erakargarri bihurtutako arkitekturak, hiriko gainerako arkitekturen mantentzea eta zaintza ehunkoizten duten aurrekontuekin mantentzen eta zaintzen diren hiri lagin bakarrak.

Oparoen mundua da, handiena, eta, batzuetan, baita nobleziarik gabeko, historia gutxiko eta ospe handiko monumentu berri eta egokiena ere. Oro har, kulturaren manipulazioaren eta propagandaren emaitza dira, memoriaren eta giza esperientzia positiboen estrati-

de las experiencias humanas positivas. En definitiva la arquitectura de fines de siglo y milenio, una vez abandonada la casa de habitación en manos del mercado, y en plena batalla por la recuperación de la ciudad, ha puesto más cuidado en crear signos, iconos y otros reclamos virtuales, que en construir nuevos «lugares para la vida» o transformar viejos ámbitos en los que desarrollar facetas novedosas para el progreso y memoria colectivas. Lógicamente, sin alejarse nunca del bienestar individual.

Tomando lo mejor de cada fase de las señaladas, en el milenio que se acerca, aparece como un principio fuerte y de manual, la socialización masiva de la vivienda, a fin que al igual a como ha ocurrido con la sanidad, lo que hace años parecía una utopía se pueda convertir en una plausible realidad. La casa construida desde la cultura, y de fácil acceso para todos, como un atributo más de la cotidianeidad. No es un tema fácil y menos inmediato, tema de honda raíz económica, política y cultural, difícil, pero necesario y urgente, si queremos declinar con un mínimo de rigor y desde su propia entraña profunda el concepto de progreso y solidaridad.

Sobre la forma de la casa es evidente que tendremos que acercarnos hacia esquemas menos rígidos y formalistas, que los actuales en el País Vasco, viviendas menos pretenciosas de falsa alcurnia, aunque más grandes en su tamaño por persona y sobre todo casas entendidas desde su propia vida y mantenimiento continuado, para una adecuada puesta al día, y constante renovación. Casas menos para «poseer» y «atesorar imagen», que para desarrollar la función cotidiana de habitar con dignidad.

Las grandes proposiciones formales en el campo de la arquitectura, probablemente, irán más por el sen-

fikazio geldoaren emaitza baino gehiago. Azken batean, mende eta milurteko bukaerako arkitekturak, behin bizitzeko etxea merkatuaren esku utzita, eta hiria berreskuratzeko borroka betean, «bizitzarako leku» berriak eraikitzeko edo eremu zaharrak eraldatu eta horietan aurrerapenerako eta memoria kolektiborako alderdi berritzaileak garatzeko baino arreta handiagoa jarri du ikurrak, ikonoak eta bestelako aldarri birtualak sortzeko. Jakina, inoiz urrundu gabe norbanakoaren ongizatetik.

Aipatutako faseetako bakoitzetik onena hartuta, hurbiltzen ari den milurtekoan, printzipio indartsu eta eskuliburuko gisa agertzen da etxebizitzaren sozializazio masiboa, osasungintzarekin gertatu den bezala, duela urte batzuk utopia zirudiena errealitate onargarri bihurtu dadin. Kulturatik eraikitako etxea, denontzat eskuragarria, egunerokotasunaren beste ezaugarri baten gisara. Ez da gai erraza eta, are gutxiago, berehalakoa. Sustrai ekonomiko, politiko eta kultural sakoneko gaia da, zaila, baina beharrezkoa eta premiazkoa, baldin eta aurrerapenaren eta elkartasunaren kontzeptuak gutxieneko zorroztasun batekin eta sakonki deklinatu nahi baditugu.

Etxearen formari dagokionez, argi dago eskema ez oso zurrun eta formalistetara hurbildu beharko dugula, gaur egun Euskal Herrian daudenekin alderatuta. Leinu faltsurik aldarrikatzen ez duten etxebizitzak, baina handiagoak pertsonako eta, batez ere, beren bizitza eta mantentze etengabetik ikusitako etxeak, eguneratze egokia egiteko eta etengabe berritzeko. Etxeak izan daitezela duintasunez bizitzeko eguneroko funtzioa betetzeko, «irudia gordetzeko» eta «edukitzeko» izan beharrean.

Arkitekturaren arloko proposamen formal handiak arrazoiaren bidetik joango dira ziurrenik, estilo histo-

dero de la razón que el de la representación y el esteticismo vacío de los estilos históricos, temas como el de proporción, textura, ritmo, memoria iconográfica y, porqué no decirlo, tipología; estarán en el umbral de las mejores propuestas de los edificios que han de ir formando la memoria, tanto al construirse en las casas de vivienda más simples, como al formar los edificios públicos de la ciudad.

En cualquier caso todos estos deseos e hipótesis pertenecen a un enfoque exclusivista y de un autismo peligroso. Pertenecen a pautas de posible progreso de este pequeño primer mundo en el que tenemos el privilegio de vivir.

Quizá haya llegado el momento para dedicar, seriamente organizados y con fuerza, una mayor parte de nuestras energías y recursos, para que todos los que aún no han superado el estadio de la extrema miseria, el hambre y la enfermedad se aproximen al ámbito de bienestar de nuestra Europa occidental. No será fácil que quienes no tienen nada y están geográficamente tan cerca, sean capaces de seguir eternamente aguantando de manera pacífica, ante el espectáculo cotidiano de una sociedad opulenta, ciega, sorda e insolidaria y cada día más distante ante la miseria física de media humanidad.

San Sebastián, 18/12/99

rikoen errepresentazio eta estetizismo hutsaren bidetik baino gehiago; zenbait gai, hala nola proportzioa, testura, erritmoa, memoria ikonografikoa eta, zergatik ez, tipologia, memoria osatzen joan behar duten eraikinen proposamenik onenen atarian egongo dira, bai etxebizitza etxe sinpleenak eraikitzean, bai hiriko eraikin publikoak eratzean.

Edonola ere, desira eta hipotesi horiek guztiak ikuspegi esklusibista eta autismo arriskutsu bati dagozkio. Bizileku pribilegiatu dugun lehen mundu txiki honen aurrerapen posiblearen jarraibideei dagozkie.

Agian iritsi da unea energia eta baliabide gehiago serioski eta indarrez antolatuta eskaintzeko, oraindik muturreko miseriaren, gosearen eta gaixotasunaren estadioa gainditu ez duten guztiak gure mendebaldeko Europaren ongizate eremura gerturatu daitezen. Ez da erraza izango ezer ez daukatenak eta geografikoki horren hurbil daudenak betiko eta modu baketsuan aguantatzen jarraitzeko gai izatea, gizarte oparo, itsu, gor eta elkartasunik gabe baten eguneroko ikuskizunaren aurrean, gizateriaren erdiaren miseria fisikotik gero eta urrunago dagoen gizarte baten aurrean.

Donostia, 1999/12/18

## Epitafio por una profesión agonizante

Cuando un inefable director de cine expresaba, con sarcasmo, su deseo de suprimir la pena de muerte, excepción hecha de su aplicación para los arquitectos, sin duda definía algo más que una «boutade».

Los resultados de la forma urbana y las formas de la arquitectura, siempre han constituido un motivo de discrepancias radicales entre personas y grupos y han sido un continuo banderín de enganche para posiciones fuertemente enfrentadas, desde las cuales ejercer posiciones de preponderancia social y poderío. Tras la tripleta clásica de los poderes de Montesquieu legislativo-ejecutivo-judicial, se esconden otros poderes más importantes, estructurales y difusos, y los recorren de manera transversal. Me refiero al poder sobre el control de la forma arquitectónica, en su más amplia dimensión, y el poder sobre el control del dinero.

Dejaremos este segundo aspecto para otro día, y otra pluma, para entrar a hacer alguna consideración sobre la forma arquitectónica, sus protagonistas y los antagonismos y guerras que acarrean las ansias por su control.

Fue Colbert, ministro de Luis XIV, quien en plena efervescencia de las Academias, intentara desde el etéreo concepto del buen gusto definir patrones, siempre aristocráticos, para medir los valores y los parámetros de apreciación de la arquitectura. Desde esas premisas serían las pautas académicas, el lugar desde donde se habrían de dictar normas y criterios para dirigir y controlar la producción de buena arquitectura. La regulación del ingreso y la práctica «académica» se constituye en el valladar en el que habrán de fracasar todas las corrupciones formales y otras espantosas muestras del «mal gusto». Pronto surgieron cruentas

## Hilzorian dagoen lanbide baten epitafioa

Esan ezin den zinema zuzendari batek adierazi zuenean, sarkasmoz, berak heriotza zigorra kenduko lukeela, arkitektoentzat izan ezik, zalantzarik gabe, *boutade* bat baino zerbait gehiago definitu zuen.

Hiri formaren eta arkitekturaren formen emaitzek beti eragin izan dituzte desadostasun erradikalak pertsonen eta taldeen artean, eta etengabeko errekrutatze bulego bat izan dira biziki elkarren aurka dauden posizioetarako, bertatik nagusitasun sozialaren eta boterearen posizioetan jartzeko. Montesquieuren botere legegile-exekutibo-judizialaren hiruko klasikoaren atzean, beste botere garrantzitsuago, estrukturalago eta lausoago batzuk ezkutatzen dira, aurrekoak zeharkatzen dituztenak. Forma arkitektonikoaren kontrolaren gaineko botereaz ari naiz, bere dimentsiorik zabalenean, eta diruaren kontrolaren gaineko botereaz.

Bigarren alderdi hori beste egun baterako utziko dugu, beste luma batentzat, eta forma arkitektonikoari, bere protagonistei eta kontrolatzeko irrikak eragiten dituen antagonismoei eta gerrei buruzko gogoeta egingo dugu.

Colbert, Luis XIV.aren ministroa, Akademien irakinaldi betean, arkitekturaren balioak eta hura balioesteko parametroak neurtzeko patroi aristokratikoak definitzen saiatu zen gustu onaren kontzeptu etereotik. Premisa horietatik abiatuta, Akademien jarraibideetatik eman behar ziren arkitektura onaren ekoizpena zuzentzeko eta kontrolatzeko arauak eta irizpideak. Sarrera eta praktika «akademikoaren» erregulazioa hesi moduko bat izango zen, zeinaren kontra porrot egingo zuten ustelkeria formal guztiek eta «gustu txarraren» beste lagin beldurgarri batzuek. Laster, borroka gordinak sortu ziren gustua

luchas por el control del gusto, y todo el siglo XIX está atravesado por soflamas, opúsculos y otros panfletos en reivindicación de los valores positivos de la forma de los edificios y la forma de la ciudad. La vieja querella entre *Ingenieros,* procedentes de la especialización militar, y *Arquitectos,* más vinculados a los dogmas y modelos de la «Academia», nace en ese período y queda evidenciado que entre el mundo de los académicos y el funcionalismo de los ingenieros se abre una brecha de difícil sutura.

En ese estado de cosas surgen iniciativas en la línea de definir, como mediación de progreso, una posible «nueva objetividad», una *neue Sachlichkeit* para fundamentar de una manera algo más objetiva los valores positivos en la creación y conservación de la arquitectura y su manera de formar la ciudad, al margen de cerradas adscripciones de clase profesional concretas. Estas iniciativas, con mayor o menor suceso, han recorrido casi por entero el siglo XX. De ellas surge con fuerza la figura alternativa del arquitecto moderno, el estudioso por vocación y oficio de la forma arquitectónica, con su profundo anclaje en las enseñanzas de la Historia, aunque alejado de los estilos definidos como históricos. Es el arquitecto que se constituye en un razonable y sensible innovador de la forma arquitectónica, exigente de la buena construcción y continuado mantenimiento de sus concepciones, que se mantiene distante, asimismo, del esquematismo reduccionista por el que la «forma sigue a la función» y otras recetas de falso progreso.

El drama de la arquitectura moderna en Euskadi es que nunca ha sido capaz de tener en cuenta a sus arquitectos más comprometidos con el oficio. No se ha sabido crear un estado de opinión popular favorable hacia estas ideas, por ello hoy en día no hay uno sólo de sus arquitectos que tengan un prestigio social

kontrolatzearren, eta XIX. mende osoan hitzaldi kartsuak, opuskuluak eta bestelako panfletoak egin ziren, eraikinen formaren eta hiriaren formaren balio positiboak aldarrikatzeko. Espezializazio militarretik datozen *ingeniarien* eta «Akademiaren» dogmekin eta ereduekin lotuago dauden *arkitektoen* arteko auzi zaharra garai horretan sortu zen, eta agerian geratu zen akademikoen munduaren eta ingeniarien funtzionalismoaren artean jostura zaileko arrakala bat zabaldu zela.

Egoera horretan ekimenak sortu ziren, balizko «objektibotasun berri» bat definitzeko aurrerapenerako bitartekari gisa; *neue Sachlichkeit* bat, modu objektiboagoan oinarritzeko arkitekturaren sorreran eta kontserbazioan dauden balio positiboak eta hiria eratzeko modua, lanbide klase jakin batzuen adskripzio itxiak alde batera utzita. Ekimen horiek, neurri handiagoan ala txikiagoan gauzatu direnak, ia XX. mende osoan egin dute beren bidea. Horietatik indartsu sortu da arkitekto modernoaren figura alternatiboa, forma arkitektonikoaren bokaziozko eta ofiziozko ikastunarena, aingura sakonarekin historiaren irakaskuntzetan, nahiz eta urrun egon historikotzat definitutako estiloetatik. Arkitektoa forma arkitektonikoaren berritzaile zentzuzkoa eta sentibera da, bere sorkuntzak ongi eraikitzeko eta etengabe mantentzeko eskatzen du, eta, era berean, «formak funtzioari jarraitzen diola» adierazten duen eskematismo erredukzionistatik eta aurrerapenerako beste errezeta faltsu batzuetatik urrun mantentzen da.

Euskadiko arkitektura modernoaren drama da inoiz ez dela gai izan lanbidearekin gehien konprometitzen diren arkitektoak kontuan hartzeko. Ez du jakin ideia horien aldeko iritzi egoera bat sortzen eta, horregatik, gaur egun ez dago prestigio sozial eta kultural orokortua duen euskal arkitekto bakar bat ere. Gure politi-

y cultural generalizado. Ya se han ocupado nuestros políticos de laminar cualquier idea creativa y más a cualquier persona que pudiera encarnarla, por el contrario entre escultores y cocineros superamos las dos docenas de prestigiosos profesionales.

Toda una pléyade de políticos ignorantes y de vista corta, perfectamente zaheridos y aconsejados por los espíritus más débiles y perezosos de una profesión moribunda, están haciendo lo imposible para que hoy y aquí desaparezca una conciencia de responsabilidad formal y paisajística, de la que pudieran surgir brillantes arquitecturas cotidianas encajadas en hermosos y comedidos trozos de ciudad. Ni se habla, ni se discute, ni nadie se atreve a protagonizar episodios necesarios para un progreso arquitectónico y formal. Quizá por temor a perder una necesaria corrección política, pues al fin y a la postre de ahí llegan los encargos y los permisos de construcción.

Entretanto agazapados bajo abstractas siglas de empresas, poderosos grupos de presión con potentes vinculaciones dentro de las administraciones, pugnan por adaptarse de manera ventajista a una ley de «Contratos de las administraciones públicas» de muy difícil cumplimiento, de nefasta redacción y claro exponente de perversión conceptual, auténtica tumba en la que van cayendo una a una, las mejores voluntades de regeneración formal aplicadas a la arquitectura y a la ciudad. Estamos en momentos muy poco propicios para la cultura arquitectónica, en plena lucha tribal y empresarial, a la hora de captar los encargos.

Bajo el brillo de unas pocas obras que, no sin enormes dificultades ni alejadas concepciones, florecen vigorosamente, toda una espesura de silencios e incomprensiones anega los espíritus más entregados y valiosos

kariak arduratu dira zapal-zapal egiteaz edozein ideia sortzaile, eta are gehiago ideia horiei gorputza eman liezaiekeen edonor; eskultoreen eta sukaldarien artean, aldiz, ospe handiko bi dozena profesional baino gehiago ditugu.

Politikari ezjakinen eta bista laburrekoen multzo handi bat, hilzorian dagoen lanbide bateko espiritu ahulenek eta nagienek ezin hobe eta erabat umiliatuta eta aholkatuta, ezinezkoa dena ere egiten ari da gaur egun eta hemen erantzukizun formalaren eta paisajistikoaren kontzientzia desagertzeko, bertatik eguneroko arkitektura distiratsuak sor litezkeen arren, hiri zati eder eta praktikoetan txertatuta. Ez da hitz egiten, ez da eztabaidatzen, eta inor ez da ausartzen aurrerapen arkitektoniko eta formal baterako beharrezkoak diren gertakarien protagonista izatera. Agian beharrezko zuzentasun politikoa galtzeko beldurragatik, izan ere, azken batean, enkarguak eta eraikitzeko baimenak hortik iristen dira.

Bien bitartean, enpresen sigla abstraktuen pean ezkutatuta, administrazioen barruan lotura indartsuak dituzten presio talde indartsuak lehian ari dira, betetzen oso zaila den, era negargarrian idatzita dagoen eta perbertsio kontzeptualaren adierazle argia den «herri administrazioen kontratuen» lege batera modu abantailatsuan egokitzeko. Hilobi horretan erortzen dira, banan-banan, arkitekturaren eta hiriaren berroneratze formalerako borondaterik onenak. Kultura arkitektonikorako oso aproposa ez den une batean gaude, enkarguak lortzeko tribu eta enpresa borroken garai batean.

Obra bakan batzuen distirapean, zeinak, zailtasun handiekin eta gauzatzetik urrun bada ere, indartsu loratzen ari diren, isiltasunen eta ulertezintasunen trinkotasun oso bat espiritu emankorrenak eta balio-

en defensa del paisaje y de la arquitectura. Quienes apenas tienen la confianza de nuestra clase política, sus obras se ignoran o se esconden, se construyen pobremente y luego se descuidan y desfiguran hasta que prematuramente desaparecen.

Como siempre que diluvia, habrá que esperar los cuarenta días hasta que escampe. Seguro que tanto desconcierto y desvarío no pueden durar eternamente, porque difícilmente se pueden entender las ansias de libertad de un pueblo, que como costumbre más generalizada, ignora a sus ciudadanos más comprometidos a la hora de construir su propio solar y su paisaje, con las leyes de la arquitectura. Al final va a resultar que el aserto de Röhmer, con el que se encabezan estas líneas, se va a confirmar como un axioma, al menos para nosotros los vascos.

Barcelona, 2/1/2000

tsuenak irensten ari da, paisaiaren eta arkitekturaren defentsan. Baina ia ez dute gure politikarien konfiantzarik, eta beren lanak ez dira kontuan hartzen edo ezkutatu egiten dira, pobreki eraikitzen dira, eta, gero, zaindu gabe utzi eta desitxuratzen dira, harik eta goizegi desagertzen diren arte.

Euria barra-barra egiten duen guztietan bezalaxe, berrogei egunez itxaron beharko dugu, atertu arte. Ziur nago nahasmen eta zorabio horrek guztiak ezin duela betiko iraun, nekez uler baitaiteke herri baten askatasun nahia, herri horrek ohitura nahiko orokortu gisa badu bere herritarrik konprometituenak ez kontuan hartzea, bere orubea eta paisaia eraikitzeko orduan, arkitekturaren legeekin. Azkenean, Röhmerren adierazpena, lerro hauen goiburuan dagoena, axioma gisa baieztatuko da, euskaldunontzat bederen.

Bartzelona, 2000/1/2

## Y en el borde de Sagüés, qué?

Una de las facultades más apreciadas en todo gran artista consiste en recrear nuevos universos figurativos. Siempre limitados, pero en cualquier caso dotados de vida propia. Hacerlo con un mínimo de elementos y sistematizarlos de forma duradera, para que amplios estratos de la sociedad, sintiéndose reflejados en ellos, sean copartícipes y multiplicadores de su propia vitalidad.

Esa es la lección que nos han trasmitido Luis Peña Ganchegui y Eduardo Chillida en sus Peines del Viento, donde entre unas plataformas múltiples, construidas por la acumulación de adoquines modulares de granito gallego sobre el viejo colector de Igara, y unas vibrantes púas de acero, se significan y emulan las defensas y artilugios de diálogo de los que nos dotamos los ciudadanos. Frente una naturaleza hostil de vientos y tempestades a la que es preciso conocer, urbanizar y finalmente domesticar.

Otra característica de la obra de arte es su irrepetibilidad. Por ello resulta imposible trasladar las características más substanciales de los Peines del Viento a ningún otro punto de la ciudad. No es conveniente tratar de los problemas formales del área de Sagüés desde las mismas premisas que nos han marcado y sobre todo han resuelto maravillosamente Peña y Chillida en el vértice occidental de la costa atlántica de nuestra ciudad.

Ahora nos enfrentamos a una reflexión urbanística muy extensa e intensa sobre nuestra costa, sobre las posibilidades de puertos deportivos a sotavento del N.O en Urgull o a barlovento en Ulía u otras posibilidades portuarias. Es un momento propicio para plantear soluciones de conjunto para el área de Sagüés pero sobre todo a toda la montaña de Ulía. Sin olvidar que entre la bahía de Pasaia, la cala Illurgita, la

## Eta Sagueseko ertzean, zer?

Artista handi ororen ahalmen preziatuenetako bat da unibertso figuratibo berriak birsortzea. Unibertso mugatuak beti, baina, edonola ere, bizitza propioa dutenak. Eta ahal bezain elementu gutxirekin egitea eta modu iraunkorrean sistematizatzea, gizartearen geruza zabalak, haietan islatuta, bizitasunaren partaide eta biderkatzaile izan daitezen.

Hori da Luis Peña Gancheguik eta Eduardo Chillidak *Haizearen orrazia*n helarazi diguten ikasgaia. Haizea, Igarako kolektore zaharraren gainean, Galiziako granitozko galtzadarri modularrak pilatuta eraikitako plataforma anitzen artean, eta altzairuzko hortz dardartien artean, non herritarrok dauzkagun defentsak eta elkarrizketarako tramankuluak adierazten eta emulatzen diren. Eta aurrean haizearen eta ekaitzen natura erasokorra; ezagutu, urbanizatu eta, azkenik, etxekotu behar dena.

Artelanaren beste ezaugarrietako bat da errepikaezintasuna. Horregatik, ezinezkoa da *Haizearen orrazia*ren ezaugarririk funtsezkoenak hiriko beste ezein puntutara eramatea. Ez da komeni Sagueseko arazo formalak aztertzea, gure hiriko Atlantikoko kostaldearen mendebaldeko ertzean Peñak eta Chillidak markatutako eta, batez ere, modu zoragarrian konpondu dituzten premisa berberetatik.

Orain, gure kostaldeari buruzko hirigintza hausnarketa oso zabal eta trinkoari ekin behar diogu, Urgullen ipar-mendebaldeko haizebean edo Uliako haizealdean dauden kirol portuak egiteko aukerei buruz edo portuak egiteko beste aukera batzuei buruz. Une egokia da konponbide bateratuak proposatzeko Sagueseko eremurako eta, batez ere, Ulia osorako. Ahaztu gabe, gainera, Pasaiako badiaren, Illurgita kalaren, Zurrio-

ensenada de la Zurriola y la aristocrática Concha veraniega de San Sebastián, hay algo más que una sucesión de «episodios de naturaleza» aislados.

Sería bueno que desde los poderes públicos se plantearan cauces fructíferos para una reflexión urbanística que aborde los temas desde perspectivas amplias. Desde el paisaje, desde la ecología y desde la urbanidad, sin que nadie se crea propietario de una ciudad que nos pertenece a todos. Y en la que parece que sólo los más audaces, los más atrevidos y los más poderosos política y económicamente, son los únicos capaces de marcar unas señas de identidad.

Marzo, 2005

lako senadiaren eta Donostiako Kontxa aristokratiko eta udatiarraren artean, «naturako gertaera» isolatuen segida bat baino gehiago dagoela.

Ona litzateke botere publikoek bide emankorrak planteatzea gaiak ikuspegi zabaletik aztertuko dituen hirigintza hausnarketa egiteko. Paisaiatik, ekologiatik eta gizabidetik, inork ez dezan pentsatu guztiona den hiri baten jabe dela. Hiri bat, non badirudien ausartenak eta politikoki eta ekonomikoki boteretsuenak bakarrik direla gai ezaugarri batzuk markatzeko.

2005, martxoa

# 5

# Escritos políticos
# Idazki politikoak


Aspectos de la cuestión vasca / Euskal auziaren alderdiak

Traslado temporal a Bilbao del *Guernica* de Picasso / Picassoren *Gernika* Bilbon, aldi baterako

Corrupción o costumbre / Ustelkeria ala ohitura

La cuestión catalana / Kataluniako auzia

Retórica, comunicación y propaganda / Erretorika, komunikazioa eta propaganda

# Aspectos de la cuestión vasca

- Crispaciones y otros inconsistentes enfados.
- Comentarios tras la conferencia de Hermann Partzinger.
- Desvanecerse en el aire.
- Euskópolis y su Santo Patrón.
- Gipuzkoa, entre una gastronomía refinada y la digestión de sus basuras.
- LAGUN… *In principio erat*…
- Los colores de la ikurriña y el arco del armisticio.
- 11 del 11 a las 11.
- Nacionalismo vasco a la hora del *ángelus*.
- Terror.
- El rapto de las palabras y sus significados. La mayor concesión a ETA.

# Euskal auziaren alderdiak

- Amorrua, eta bestelako haserre funtsgabeak.
- Hermann Partzingerren hitzaldiaren osteko azalpenak.
- Airean barreiatzea.
- Euskopolis eta bere Zaindari Santua.
- Gipuzkoa, gastronomia finaren eta bere hondakinen digestioaren artean.
- Lagun… *In principio erat*…
- Ikurrinaren koloreak eta armistizioaren arkua.
- 11ren 11, goizeko 11etan.
- Euskal nazionalismoa, *angelus*aren orduan.
- Terrorea.
- Hitzen eta haien esanahien bahiketa. ETAri egindako kontzesio handiena.

## Crispaciones y otros inconsistentes enfados

Parece como si los ciudadanos vascos, sólo pudiéramos manifestarnos y comunicarnos o bien cantando en orfeón, o bien mediante sentencias dictadas con un semblante en extremo adusto y denotando siempre, el más incisivo de los cabreos, cuando nos expresamos, solos o en grupo, en nuestra dimensión más íntima e interior.

Que 22 señores, algunos de ellos buenos amigos míos, hayan enviado un fax apócrifo al Lehendakari, aprovechando que el Urumea pasa por San Sebastián, en el momento en el que la campaña de críticas y descalificaciones de todo signo arrecian contra una joven Ertzaintza, por supuesto que no es una iniciativa neutra, ni en favor del cumplimiento y profundización del Estatuto de Autonomía, ni incluso guarda relación con los afectos debidos al texto constitucional y menos se le adivina un efecto positivo de importancia hacia la tan añorada «*pax vascorum*».

Pero tampoco era necesario contestar a bufido limpio, desde una posición en exceso airada, aventando los antecedentes y las concomitancias profesionales generalizadas de las personas presentes en el fax, aunque no firmantes. En el fondo ha sido como poner música bronca, a un show de otros tiempos, de aquellos tiempos políticos en los que la propaganda política era toda ella, «made in PCE».

Al igual que tampoco nunca fueron fácilmente digeribles, claro está para las personas bienpensantes, aquellos, ya olvidados, cinco puntos de KAS: en los que pidiendo algo tan evidente y lógico como «mejoras generalizadas para la clase trabajadora», y arropando tras de ese enunciado, otros cuatro puntos cargados de

## Amorrua, eta bestelako haserre funtsgabeak

Badirudi euskal herritarrok bi era bakarrik ditugula gure iritzia adierazteko eta komunikatzeko: orfeoian kantatuz ala epai zakarren bidez, beti haserrerik garratzena adieraziz, bakarrik edo taldean, gure barnebarneko dimentsiorik intimoenean hitz egiten dugunean.

Izan ere, 22 jaunek, horietako batzuk nire lagun onak, Urumea Donostiatik igarotzen dela aprobetxatuz, lehendakariari fax apokrifo bat bidali izatea, ertzain gazte baten kontrako zeinu guztietako kritiken eta deskalifikazioen kanpaina indartu den honetan, jakina, ez da ekimen neutroa, ez eta Autonomia Estatutua betetzearen eta sakontzearen aldekoa ere, eta ez du zerikusirik Konstituzioaren testuari zor lekizkiokeen afektuekin ere, eta are gutxiago ikusten da efektu positibo garrantzitsua izan dezakeenik faltan botatzen den *pax vascorum* delakoan.

Baina ez zen beharrezkoa ere purrustadaka erantzutea, gehiegizko haserretik, eta faxean agertzen ziren, baina hura sinatu ez zuten, pertsonen aurrekariak eta konkomitantzia profesional orokorrak haizatzea. Funtsean, musika zakarra jartzea bezala izan da, propaganda politiko guztia *made in PCE* zen garai politiko haietako *show*a egitea bezala.

Pertsona ongiegileentzat beti digeritzeko zailak izan ziren bezala, jakina, KASen bost puntuak, jada ahaztuta daudenak. Haietan, eskaera oso bistako eta logiko bat egiten zen, «langileriarentzako hobekuntza orokorrak», baina, enuntziatu horren atzean, *isekaz* betetako beste lau puntu babesten ziren, euskal

«retintín», se ponía siempre la resolución de los problemas políticos vascos en el límite de lo imposible.

Con tanto enunciado falsamente neutro, tanta respuesta airada y tanto retintín, hemos pasado más de veinte años en profunda incomunicación. Y lo que es mucho peor, la cifra de muertos por la violencia, superan ya los ochocientos, en una carrera de horrores, tan estúpida como infernal. Si olvidamos las lecciones de un reciente pasado y nos liamos a mamporros, sin distinguir en cada momento donde se encuentran Behemot o Leviathan, nos volverá a ocurrir como a aquella mitificada Segunda República española, que, cargada de buenas intenciones, nos alumbró para gobernar durante casi cincuenta años, a un longevo, autoritario y cruel general.

Mal que les pese a algunos, nacionalismo y democracia no sólo son compatibles, sino que de su adecuada conjunción y prudente aplicación, surgen capítulos valiosos del pensamiento y la acción políticas de este siglo. Y mal que les pese a los otros, fuera del contexto colonial, no hay uno sólo de los pueblos y naciones de pequeña dimensión, que haya obtenido sus libertades más amplias, a golpes de tiro en la nuca, coche bomba, secuestro, chantaje y sufrimiento generalizado. A estas alturas de la película europea, con el gendarme americano en la puerta, es evidente que sólo buscando amplias zonas de consenso próximo y lejano, eliminando la crispación, poniendo en valor, y con convicción, los factores democráticos por excelencia, podremos algún día los habitantes de esta tierra vasca, superar las actuales, ya de por sí bastante altas, cotas de libertad colectiva e individual.

Y quien no crea que por ahí van «los tiros», que tenga la paciencia de preguntar a alguien que ha tenido la

arazo politikoen konponbidea ezinezkoen mugan jarriz beti.

Horrenbeste enuntziatu faltsuki neutrorekin, haserre emandako erantzunekin eta horrenbeste isekarekin, hogei urte baino gehiago eman ditugu inkomunikazio sakonean. Eta are okerragoa dena, indarkeriaren ondorioz hildakoen kopurua zortziehundik gorakoa da, izugarrikerien lasterketa ergel eta izugarri batean. Oraintsuko iragan bateko irakaspenak ahaztu eta kolpeka hasten bagara, une bakoitzean bereizi gabe non dauden Behemot edo Leviathan, Espainiako Bigarren Errepublika mitifikatu hari gertatutako gauza bera gertatuko zaigu guri ere, asmo onez beteta erditu eta gero, ia berrogeita hamar urtez bizitza luzeko jeneral autoritario eta krudel baten gobernupean gelditu baikinen.

Batzuei nahigabea eragiten dien arren, nazionalismoa eta demokrazia bateragarriak dira, eta, horrez gain, biak egokiro konbinatuta eta modu zuhurrean aplikatuta, mende honetako pentsamendu eta ekintza politikoen kapitulu baliotsuak idatzi dira. Eta, halaber, besteei gustatzen ez zaien arren, testuinguru kolonialetik kanpo ez dago herri eta nazio txiki bakar bat ere, garondoan tiro eginez, bonba autoak jarriz, eta bahiketen, xantaiaren eta sufrimendu orokortuaren bidez lortu duenik askatasunik zabalena. Europaren filmaren une honetan, amerikar jendarmea atean dugula, argi dago hurbileko eta urruneko adostasun eremu zabalak bilatuz, amorrua ezabatuz, eta faktore demokratiko nagusiei konbentzimenduz balioa emanez soilik lortuko dugula euskal lurretako biztanleok, egunen batean, jada nahiko altuak diren askatasun kolektiboaren eta indibidualaren kotak gainditzea.

Eta baten batek uste badu ez dela horrela, izan dezala pazientzia, eta galdetu diezaiola hurbiletik eza-

ocasión de conocerlo de cerca, ¿cómo se contemplan los problemas de nuestra Euskadi?, desde esas tierras de Uganda, o desde las de Argelia, al trucarse un proceso democrático de difícil compostura, tierras todas ellas a bastante menos distancia de lo que nos pudiera parecer.

Enero, 1997

gutzeko aukera izan duen norbaiti, nola ikusten diren gure Euskadiko arazoak Ugandako lurralde horietatik, edo Aljeriakoetatik, guri iruditzen zaiguna baino askoz ere hurbilago daudenak denak ere, osaketa zaileko prozesu demokratiko bat zapuzten denean.

1997, urtarrila

## Comentarios tras la conferencia de Hermann Partzinger*

Buenos días: Muchas gracias por su imbricación en nuestra lengua y no me cabe duda que también en nuestra cultura.

He conocido su currículum y le voy a contar el mío. Soy arquitecto desde 1969. Ya en 1972 con los arquitectos Grassi y Patetta, a quienes Ud. sin duda conoce, tuve la ocasión de visitar, con el apoyo del cónsul italiano, un Berlín dividido.

Schinkel, su Altes Museum, la Schauspielhaus, Neüe Wache y otras maravillas de la Prusia ilustrada llenaron mi cartapacio de «profesor» para explicar las grandes transformaciones arquitectónicas y urbanas en un período tan importante para Uds. como para nosotros lo fuera unos años antes. Eran los años entre los siglo XVIII y XIX.

Villanueva en Madrid (que ha podido visitar estos días), Olaguíbel en Vitoria-Gasteiz, Gilly y Schinkel en Berlïn, Von Klenze en Baviera, Weinbrener en Karlsruhe y algunos otros arquitectos de la Ilustración. Aquel viaje dio ocasión para toda una serie de conferencias en mi País.

Luego en mi Universidad siempre he explicado el núcleo conceptual de la Villa Europea, en base a la villa alemana estudiada tan intensamente por el arquitecto Karl Gruber en su *Die Gestalt in der Deutschen Stadt*.

* Presidente de La Isla de los Museos y el Foro Humboldt de Berlín.

## Hermann Partzingerren* hitzaldiaren osteko azalpenak

Egun on: Eskerrik asko gure hizkuntzan txertatzeagatik, bai eta, seguru nago, gure kulturan ere.

Zure curriculuma ezagutu dut, eta nirea kontatuko dizut. Arkitektoa naiz 1969az geroztik. 1972an, Berlin zatitua bisitatzeko aukera izan nuen Grassi eta Patetta arkitektoekin, seguru ezagutzen dituzula, Italiako kontsularen laguntzarekin.

Schinkel, Altes Museum, Schauspielhaus, Neüe Wache eta Prusia ilustratuko beste mirari batzuek bete zuten nire *irakasle* karpeta, guretzat urte batzuk lehenago izan zen bezalaxe, zuentzat biziki garrantzitsua zen garai bateko eraldaketa arkitektoniko eta urbano handiak azaltzeko. XVIII. eta XIX. mendeen arteko urteak ziren.

Villanueva Madrilen (egun hauetan bertara joateko aukera izan duzu), Olagibel Gasteizen, Gilly eta Schinkel Berlinen, Von Klenze Bavarian, Weinbrener Karlsruhen eta Ilustrazioko beste arkitekto batzuk. Bidaia haren ondoren, hitzaldi sorta egiteko aukera izan nuen nire herrian.

Gero, nire unibertsitatean beti azaldu izan dut Europako hiribilduaren muin kontzeptuala, Karl Gruber arkitektoak *Die Gestalt in der Deutschen Stadt* lanean biziki aztertutako Alemaniako hiribilduan oinarrituta.

* Berlingo Museoen Uhartearen eta Humboldt Foroaren presidentea.

En cierto modo quise devolver a Wilhelm von Humbolt el viaje que hiciera al País Vasco, a principios del siglo XIX y tanto ayudó a los vascos y a los españoles para internarnos en el mundo de la Ilustración y las Luces con el aliento para crear la Real Sociedad de amigos del País.

Yo, por mi parte, a pesar de los avances y retrocesos, de las luces y sombras tanto en su País como en el mío en estos 200 años, soy un firme creyente (me parece que al igual que usted) en que el camino del conocimiento, transitado con el vehículo de la cultura y que nos lleva hacia la Sabiduría (como acertadamente expresara el Director del Museo del Prado en la jornada inaugural de este curso) constituye la única senda auténticamente humana y necesaria para el «viaje cotidiano» por la existencia.

Uds. y nosotros debemos buscar nuevas formas de unión y colaboración para desterrar viejos fantasmas y ahuyentar los malos espíritus. Por ello quisiera que tras de esta visita a Madrid y el contacto con nosotros (alumnos y profesores del curso de verano en el museo del Prado) nos ayudara a crear una mejor opinión en su país, en la Prusia cuya cultura Ud. organiza, o en esa Baviera tan poderosa que le vio nacer. Opinión que transmiten los medios, no siempre justas con respecto a los pueblos del sur.

No, no somos un país de indolentes y vagos. No somos pueblos que rehúyen la dureza de la tarea, como se lo han demostrado durante decenios los obreros que emigraron en los años cincuenta del pasado siglo o los ingenieros que emigran ahora. Hoy al igual que nosotros les necesitamos, ustedes también nos necesitan. Todos los pueblos necesitamos la ayuda de los otros. Ayuda desinteresada y enriquecedora.

Nolabait ere, XIX. mendearen hasieran Euskal Herrira egindako bidaia itzuli nahi izan nion Wilheim von Humbolti, bisita hura oso lagungarria izan baitzen euskaldunentzat eta espainiarrentzat, ilustrazioaren eta argien munduan barneratzeko, Euskalerriaren Adiskideen Elkartea sortzeko arnasarekin.

Nik, berriz, aurrerapenak eta atzerapenak gorabehera, zure herrian nahiz nirean 200 urte hauetan izandako argi-ilunak gorabehera, irmoki sinesten dut (zuk bezala, nire ustez) benetan gizatiarra den bide bakarra dela ezagutzarena, kulturaren bidez jakinduriarantz garamatzana (Prado museoaren zuzendariak ikasturte honetako inaugurazio egunean egokiro adierazi zuen moduan), eta bide hori beharrezkoa dela existentziaren *eguneroko bidaian*.

Zuek eta guk batasunerako eta elkarlanerako modu berriak bilatu behar ditugu, mamu zaharrak erbesteratzeko eta espiritu txarrak uxatzeko. Horregatik, Madrilera egindako bisita honen eta gurekin (Prado museoko udako ikastaroko ikasleak eta irakasleak) izandako harremanaren ondoren, zure herrian, Prusian (zeinaren kultura zuk antolatzen duzun), edo jaiotzen ikusi zintuen Bavaria boteretsu horretan guri buruzko iritzi hobea sortzen laguntzeko eskatu nahi nizuke. Iritzia hedabideek transmititzen dute, eta beti ez dira justuak izaten Hegoaldeko herriekin.

Ez, ez gara nagien eta alferren herri bat. Ez gara zeregin gogorrei ihes egiten dieten herriak, eta horren froga dira joan den mendeko berrogeita hamarreko urteetan emigratu zuten langileak edo orain emigratzen ari diren ingeniariak. Gaur, guk zuek behar zaituztegun bezalaxe, zuek ere gure beharra duzue. Herri guztiok behar dugu gainerakoen laguntza. Laguntza berekoikeriarik gabea eta aberasgarria.

Me despido con aquel lema que lanzó un gran artista catalán y español Joan Miró en un sello memorable donde decía «aidez l'Espagne». Eran los tiempos de 1936 a 1939, tiempos difíciles en los que también Uds. estaban necesitados de ayuda. Además de un serio correctivo. Fueron tiempos crueles para muchos por eso deseo queden desterrados para siempre.

Hoy entiendo sigue resultando necesario el apoyo y colaboración entre los distintos pueblos del mundo. Nos dominan los estereotipos que es preciso denunciar. España no es exactamente lo que contara (en beneficio propio) el francés Merimèe, ni Alemania es exactamente, ni tampoco Prusia la cuna del militarismo irreductible, el pensamiento prepotente y rígido y la total ausencia del sentido del humor. Ni menos una «máquina deshumanizada del existir»

Son unas simples anotaciones (apuntaciones diría Wilhelm von Humbolt) que me han venido a la memoria, que han «anidado» en alguna parte de mi cerebro tras de su magnífica conferencia el pasado día tres de Julio en Madrid.

Julio, 2012

Joan Miró katalan eta espainiar artista handiak zigilu gogoangarri batean islatu zuen goiburu hura erabiliko dut agurtzeko: «aidez l'Espagne». 1936tik 1939ra bitarteko garaiak ziren, garai zailak, eta orduan, zuek ere laguntza beharrean zeundeten. Garai haiek ikasgai handiak utzi dizkigute. Garai krudelak izan ziren askorentzat eta, horregatik, betiko deserriratuta gelditu daitezen nahi dut.

Pentsatzen dut munduko herrien arteko laguntzak eta lankidetzak beharrezkoa izaten jarraitzen duela gaur egun ere. Salatu beharreko estereotipoek menderatzen gaituzte. Espainia ez da Merimèe frantsesak (bere mesederako) kontatuko zuena, eta Alemania eta Prusia ere ez dira militarismo menderaezinaren, pentsamendu zurrun eta nagusikerioazkoaren eta inolako umore senik ezaren sorlekua. Eta are gutxiago, *existentziaren makina gizatasunik gabe* bat.

Ohar soil batzuk dira (*apuntazioak*, esango luke Wilheim von Humboltek), oroimenera etorri zaizkidanak eta nire burmuinean nonbait *habia egin* dutenak, joan den uztailaren 3an Madrilen eman zenuen hitzaldi bikainaren ondoren.

2012, uztaila

## Desvanecerse en el aire

Las cosas más sólidas, incluso las míticas columnas de Hércules (Calpe y Abila), y también las ideas, es posible que, algún día se desvanezcan en el aire. Sin llegar a la radicalidad del enunciado de Karl Marx, en su Manifiesto Comunista, por el que «todo lo sólido se desvanece en el aire» no es malo tomar como punto de partida, en cualquier reflexión que intente huir de la rigidez mental, la hipótesis enunciada en el encabezamiento de estas líneas.

Puede resultar que «desvaneciendo», aun cuando lo sea sólo en parte, la vieja idea de España, y si intentamos democráticamente ir alumbrando una nueva, es posible que todos avancemos bastante, en nuestro propio ser individual y colectivo. Lo mismo digo si aplicamos idéntica terapia, hacia algunas ideas esclerotizadas acerca de la «soberanía necesaria» que soporta la idea de Euskadi, en los distintos y viejos marcos de «estatalidad».

Trato de convencerme que necesitamos «pensar rectamente» sin que el «sueño de la razón produzca monstruos», parafraseando asertos muy conocidos. Pero en todo caso, es muy urgente cerrar el paso a la prepotencia numérica, al engaño y a la sinrazón.

No puede negarse la evidencia que, entre otras, existe una polaridad o alteridad grande entre los españoles y los vascos, en cuanto tratamos del problema de la nacionalidad e incluso en la respuesta a otros problemas. Lo prueban las respuestas, casi opuestas en tantas solicitaciones diversas, así la encuesta que se hizo al día siguiente a la declarada tregua de ETA el pasado 17 de septiembre, y esta distancia o dicotomía se evidencia en gran parte de los comportamientos colectivos.

## Airean barreiatzea

Gauzarik sendoenak, baita Herkulesen zutabe mitikoak ere (Calpe eta Abila), eta baita ideiak ere, litekeena da egunen batean airean barreiatzea. Karl Marxek bere Manifestu Komunistan egin zuen enuntziatuaren erradikaltasunera iritsi gabe, bertan adierazi baitzuen «solidoa den guztia airean desegiten da», ez da txarra, zurruntasun mentaletik ihes egin nahi duen edozein hausnarketatan, lerro hauen goiburuan adierazitako hipotesia abiapuntu gisa hartzea.

Baliteke, Espainiaren ideia zaharra *desegiten* bada, neurri batean besterik ez bada ere, eta demokratikoki saiatzen bagara ideia berri bat munduratzen, denok aurrera egitea, dezente, geure izate indibidualean eta kolektiboan. Eta uste dut gauza bera gertatuko litzatekeela, terapia bera erabiltzen bada Euskadiren *beharrezko subiranotasunari* buruzko zenbait ideia esklerotizaturen inguruan, *estataltasunaren* marko desberdin eta zaharretan.

Buruan sartu nahi dut *zuzen pentsatu* behar dugula, *arrazoiaren ametsak munstrorik sortu gabe*, adierazpen oso ezagunak parafraseatuz. Baina, nolanahi ere, premiazkoa da harrokeria numerikoari, engainuari eta zentzugabekeriari bidea ixtea.

Ezin da ukatu, besteak beste, espainiarren eta euskaldunen artean polaritate edo alteritate handia dagoela, nazionalitatearen arazoa aztertzen dugunean, baita beste arazo batzuei erantzutean ere. Horren froga dira erantzunak, ia kontrajarriak hainbat eskaeratan, hala nola ETAk irailaren 17an su etena eman eta hurrengo egunean egindako inkestan, eta distantzia edo dikotomia hori agerian geratzen da jokabide kolektibo askotan.

No porque una determinada línea editorial de diarios de enorme tirada, esos profundos crisoles en los que cuajan las opiniones colectivas, repitan machaconamente unas mismas ideas, en contra de una posible patria vasca y en favor de la españolidad, se van a cambiar las percepciones propias sobre la «parcela de soberanía» necesaria para los vascos, en el momento actual. Aunque dichas ideas las escriban vascos, personas en general demasiado lejos de la gente y de la tierra que les caracteriza como tales. Y nadie pensará que todos debemos estar contentos con aspectos de una Constitución que establece nuestra pertenencia a España, en su artículo octavo, como un tema de los «de armas tomar».

Tampoco resulta rectamente pensable y menos puede ser «objeto de deseo» dentro de un mínimo realismo y cordura, que mañana por la mañana tras un portazo destemplado vamos a poder o querer hacer de esta patria vasca un estado decimonónico más, con sus cambios en el ancho de vía en el ferrocarril, con su emisión de moneda propia, y con su propia política de defensa frente al invasor.

No es bueno permanecer continuamente en el contexto del empate indefinido, entre dos ideas —nacionalistas vascos y antinacionalistas— que se presentan como contrapuestas. No conduce hacia un futuro de prosperidad discutir eternamente a golpes de palabras, como esa enigmática y polisémica *autodeterminación*, palabras que más hieren que comunican. Parece negativo el alejarse de los matices e insistir en esa sal gruesa del discurso populista que sólo consigue aumentar el picor y el dolor de las heridas.

Por tanto se trata de relativizar las posturas maximalistas, pero sobre todo es cuestión de limar los mensajes dogmáticos y excluyentes, de esos que caben

Izan ere, egundoko tirada duten egunkarien argitalpen lerroek, iritzi kolektiboak mamitzen diren arrago sakon horiek, behin eta berriz ideia berberak errepikatzen dituzte, balizko euskal aberri baten aurka eta espainiartasunaren alde, baina horrek ez du zertan gaur egun euskaldunentzat beharrezkoa den *subiranotasun partzelari* buruzko pertzepzioak aldatu. Nahiz eta ideia horiek euskaldunek idatzi, pertsona horiek, oro har, urrunegi baitaude jendearengandik eta euskal lurretatik. Eta inork ez du pentsatuko denok pozik egon behar dugunik Konstituzioarekin, kontuan hartuta zortzigarren artikuluan berebizikotzat jotzen duela gu Espainiaren parte izatearen gaia.

Era berean, ez da zuzenean pentsatzekoa, eta are gutxiago izan daiteke *desiragarria*, gutxieneko errealismo eta zuhurtasun baten barruan, bihar goizean ate kolpe desatsegin bat eman eta euskal aberri hau antigoaleko estatu bihurtzeko aukera edo nahia izango dugunik, trenbide zabaleran aldaketak eginda, diru propioa jaulkita, eta inbaditzailetik babesteko defentsa politika propioa definituta.

Ez da ona etengabe jarraitzea berdinketa mugagabearen testuinguruan, kontrajarritzat aurkezten diren bi ideien artean (euskal abertzaleak eta abertzaleen aurkakoak). Ez gaitu etorkizun oparo baterantz eramango etengabe hitz kolpeka eztabaidatzeak, zenbait hitzek komunikatu baino gehiago mindu egiten baitute; *autodeterminazio* enigmatiko eta polisemiko horrek, adibidez. Badirudi kaltegarria dela ñabarduretatik aldentzea eta diskurtso populistaren gatz lodi hori azpimarratzea, azkura eta zaurien mina areagotzea besterik ez baitu lortzen.

Beraz, jarrera maximalistak erlatibizatu behar dira, eta, batez ere, leundu egin behar dira mezu dogmatiko eta baztertzaileak, goizero egunkarietako titular bakar

cada mañana en caracteres grandes y en negrita de un sólo titular periodístico. Aquí no convienen más frentes que los del parte meteorológico y es el momento propicio para empezar a elaborar, en un segundo escalón de la sorprendente transición española, el cauce político-institucional que permita adecuar y articular las diversas naciones y nacionalidades de España, a la nueva realidad política europea que estamos construyendo entre todos, cuya base de partida, pero también su mayor rémora, son los estados-nación anclados en viejos conceptos de soberanía del siglo XIX, y por tanto excluyentes frente a nuevos y emergentes conceptos de territorialidad.

Si afianzamos la paz, nuestras condiciones para la construcción política son enormes; si pensamos que las grandes ideas patrióticas pueden y deben de ser relativizadas; si creemos que tanto la Constitución del 78, en sus aristas más cortantes, como los «pronunciamientos abertzalistas» son dignos de desvanecerse, aunque sea parcialmente, en el aire, entonces estaremos en el camino de construir en este rincón de Europa, una pequeña, valiosa y dinámica comunidad, que sirva de acicate y ejemplo a unas naciones unidas de Europa que se necesitan todas ellas para optar y establecer equilibrios más justos y saludables en la escena global.

Noviembre, 1998

batean karaktere handietan eta letra lodiz sartzen diren horietakoak. Hemen eguraldi iragarpeneko fronteak bakarrik komeni dira, eta une egokia da, Espainiako trantsizio harrigarriaren bigarren maila batean, Espainiako nazioak eta nazionalitateak guztion artean eraikitzen ari garen Europaren errealitate politiko berrira egokitzeko eta artikulatzeko bide politiko-instituzionala prestatzen hasteko; izan ere, errealitate horren abiapuntua, baina baita eragozpen handiena ere, XIX. mendeko subiranotasunaren kontzeptu zaharretan ainguratutako nazio-estatuak dira, eta, beraz, sortzen ari diren lurraldetasunaren kontzeptu berriak baztertzen dituzte.

Bakea finkatzen badugu, eraikuntza politikorako gure baldintzak egundokoak izango dira; pentsatzen badugu ideia abertzale handiak erlatibizagarriak eta erlatibizatu beharrekoak direla eta uste badugu 78ko Konstituzioa, bere ertz zorrotzenetan, eta *abertzaleen adierazpenak*, partzialki bada ere airean desegiteko modukoak direla, Europako txoko honetan komunitate txiki, baliotsu eta dinamiko bat eraikitzeko bidean egongo gara. Eta komunitate hori Europako nazioen akuilu eta adibide izango da, nazio guztiek elkarren beharra baitute agertoki globalean oreka bidezkoagoak eta osasungarriagoak aukeratzeko eta ezartzeko.

1998, azaroa

## Euskópolis y su Santo Patrón

El Alcalde de Barcelona, Pasqual Maragall, expresaba en pleno entusiasmo y euforia, tras el fin de los Juegos Olímpicos del 92, que aquel evento, bien podía y debía de convertirse, en la auténtica *festa major*. Fue, sin duda ésta, una propuesta inteligente y sana, en la que se plantea volver al ritmo y significación festivos precristianos, dando a la fiesta un claro componente de competencia deportiva, no exenta de una cierta espiritualidad y valor cívico.

Hace unos quince siglos, con el cristianismo, las ciudades fueron tomando el patrocinio de los mártires, a quienes se encomendaban devotas para convertirlos en su Santo Patrón. Se trasformaron, con mayor o menor acierto, todo los esquemas anteriores de las fiestas paganas, en un ordenado y municipal período anual de religiosidad y sano regocijo. Así de manera más o menos efectiva, se fueron trasformando Bacanales, Saturnales, Juegos Olímpicos, Juegos Sáficos y otras manifestaciones de la colectividad, en fiestas patronales de Misa Mayor, txistu y tamboril, y algún *arrimateko* que otro cuando las luces dejaban paso al anochecer. La relación municipio, santo, mesura y anualidad, construyó, a lo largo de los siglos, uno de los ritmos más constantes de la civilidad vasca, y hoy somos todos deudores, de esa mágica y constante ecuación.

Euskadi país municipalista por excelencia, y atomizado en urbanidades dispersas en mil montes y merindades, tiene hoy, con toda probabilidad, la mayor densidad de fiestas patronales del mundo conocido, y de entre los Pueblos que optan por un puesto en el universo de la civilización. Cuando no es San León, es la Magdalena, o sino San Juan o San Pedro. Si está lejos San Sebastián queda muy reciente San Bartolomé,

## Euskopolis eta bere Zaindari Santua

Bartzelonako alkate Pasqual Maragallek gogo eta euforia handiz adierazi zuen, 92ko olinpiar jokoak amaitu ondoren, ekitaldi hura benetako *festa major* bat izan zitekeela eta izan behar zuela. Zalantzarik gabe, proposamen zentzuduna eta sanoa izan zen, kristautasunaren aurreko jaiaren erritmora eta esanahira bueltatzea planteatzen zuena, jaiari kirol lehiaren osagai argi bat emanez, nolabaiteko espiritualtasunarekin eta balio zibikoarekin.

Duela hamabost mende inguru, kristautasunarekin, martiriak hirien babesle bihurtzen hasi ziren, eta hiriek, beren burua martiriei gomendatuta, horiek zaindari santu izendatu zituzten. Jai paganoen aurreko eskema guztiak eraldatu ziren, hobeto edo okerrago, eta erlijiotasunaren eta bozkario sanoaren urteko egutegi ordenatu eta munizipal bat sortu zen. Horrela, modu gutxi-asko eraginkorrean, bakanalak, saturnalak, olinpiar jokoak, joko safikoak eta kolektibitatearen beste adierazpen batzuk eraldatuz joan ziren, zaindariaren jaietan, meza nagusiarekin, txistu eta danbolinarekin, eta *arrimateko* bat edo besterekin, argiak lekua uzten zionean ilunabarrari. Udalerriaren, santuaren, neurritasunaren eta urterokotasunaren arteko harremanak, mendeetan zehar, euskal gizalegearen erritmo konstanteenetako bat eraiki zuen eta, gaur egun, ekuazio magiko eta etengabe horren zordun gara denok.

Euskadi, herri munizipalisten artean nagusia, milaka mendi eta merindadetan sakabanatutako urbanitatetan atomizatuta dago. Gaur egun, ziur asko, munduan eta zibilizazioaren unibertsoan postu bat lortzeko aukera duten herrien artean, zaindariaren jaien dentsitaterik handiena duen herria da. San Leon ez denean Magdalena da, edo bestela San Juan edo San Pedro. San Sebastian urrun badago, berriki izan da San Bar-

y a principios de septiembre San Antolín, y así hasta trescientos sesenta y cinco, entre municipios infinitos cada uno con su fiesta patronal, en la que, claro, además de participar, es imprescindible llegar «hasta el tope», no se sabe exactamente de qué.

Hoy la sociedad es laica y apenas queda ya, en las fiestas, aquel componente religioso originario que tuvo siempre en la conmemoración del Santo Patronal. Aunque en algunos casos este sentido, ha sido sustituido con acierto, por un componente lúdico y de brillo cultural, en demasiados otros casos, de sobra conocidos, la sustitución ha venido más por el lado zafio de la más ignorante bestialidad. Ya se sabe, la cabra tira al monte y el vasco que sale ruidoso, tira con fuerza, hacia la txosna, la *gaupasa* y el *kalimotxo*. Estamos en las puertas del tercer milenio de nuestra era, y cada verano en Euskadi, nos pasamos contemplando impotentes cómo reverdecen las costumbres más bestiales, de un milenio simétrico, en aquella antigüedad que culmina en el año cero. ¡Cuatro o cinco mil años... para esto!

De Fidias, Pericles o Zenón casi nadie sabe si existieron ni lo que de bueno o malo pudieron hacer, pero entre bacanales y otros akelarres hay demasiados cuerpos dispuestos a pasar de un ocaso al alba sin tiempo para el sosiego ni menos para la reflexión.

O somos capaces, entre nosotros los vascos, de erradicar tanta barbarie y zafiedaz del extenso *festival* veraniego, o la misma marea de demagogia creciente nos va a arrasar. Para ello quizá no fuera malo, cumpliéramos el deseo mítico de una Euskópolis, enunciado por el Lehendakari aquel cabalístico día 11 del 11 a las 11, en la inauguración del metro, en Bilbao. Sería deseable que esta comunidad autónoma se comportara, toda ella, en lo fundamental como Euskópolis o

tolome, eta irailaren hasieran San Antolin, eta horrela hirurehun eta hirurogeita hamabost, ezin konta ahala udalerritan eta haietako zaindariaren jaietan, zeinetan, noski, parte hartzeaz gain, ezinbestekoa den *dugun guztia jartzea*, naiz eta ez dakigun ziur zertan.

Gaur egun, gizartea laikoa da, eta jaietan ia erabat galdu da zaindari santuaren oroipenean beti izan zuten jatorrizko osagai erlijiosoa. Nahiz eta kasu batzuetan osagai erlijioso horren lekuan osagai ludiko bat jarri den, kulturalki distiratsua, beste askotan, gehiegitan, aski ezaguna denez, ordezkapena zakarki egin da, piztiatasunetik eta ezjakintasunetik. Jakina denez, ahuntzak mendirako joera izaten du, eta euskaldunak, zaratatsua denean, berriz, txosna, *gaupasa* eta kalimotxoa ditu gustuko. Gure aroko hirugarren milurtekoaren atarian gaude eta, udaro, Euskadin ikusten dugu berriro loratzen direla ohitura basatienak, zerogarren urtean amaitutako antzinaroko milurteko simetriko bateko ohiturak. Lau edo bost mila urte… honetarako!

Inor gutxik daki nor izan ziren Fidias, Perikles edo Zenon, ez dakite existitu zirenik ere, ezta zer egin zuten ere, ona nahiz txarra izan, baina, bakanaletan eta beste akelarre batzuetan, gorputz gehiegi daude ilunabarretik egunsentira igarotzeko prest, sosegurako eta, are gutxiago, hausnarketarako astirik gabe.

Euskaldunok ez badugu lortzen, gure artean, udako *jaialdi* zabaletik basakeria eta zakarkeria desagerraraztea, demagogia gero eta handiagoak suntsituko gaitu. Horregatik, agian komeni litzaiguke lehendakariak Bilboko Metroaren inaugurazio egun kabalistiko hartan (11ren 11n, goizeko 11etan) enuntziatu zuen desira mitiko hura, Euskopolis batena, betetzea. Komenigarria litzateke erkidego honek, bere osotasunean eta funtsean, Euskopolis edo hiri handi baten

una gran ciudad, entonces sería posible optar por un sólo Patrón, y al año por una sola gran fiesta patronal. Así podríamos volcarnos en dar a la misma toda una dimensión de progreso y si se quiere de exceso, desmesura y exageración, pero es urgente recuperar la confianza en nosotros mismos, organizarnos mejor para arrinconar lo cutre y al tiempo evitar presentarnos tan frecuentemente como ejemplos de barbarie y sinrazón.

Agosto, 1996

moduan jokatzea; orduan, zaindari bakar bat aukeratu genezake, eta, horrela, urtean zaindariaren jai handi bakarra egin genezake. Horrela, saiatu gintezke aurrerapenaren dimentsio oso bat ematen jai bakar horri, eta, nahi izanez gero, baita demasiaren, neurrigabekeriaren eta gehiegikeriarena ere, baina premiazkoa da geure buruarenganako konfiantza berreskuratzea, hobeto antolatzea narraskeria zokoratzeko eta, aldi berean, horren maiz ez agertzea basakeriaren eta zentzugabekeriaren adibide gisa.

1996, abuztua

## Gipuzkoa, entre una gastronomía refinada y la digestión de sus basuras

Trato de entender nuestro territorio gipuzkoano y su contrapunto capitalicio Donostia, como una nave que se balancea con torpeza y muchos sobresaltos, sin acertar en su rumbo, ni en los ritmos de travesía. Es la sempiterna duda entre el pensar y decidir, entre el discutir y tomar responsabilidades, entre el progreso paso a paso y la reacción visceral, casi siempre de descalificación total. Algo así, como si el *kazkariñato* fuese nuestra única manera de organizar la colectividad. Equivalencia precisa del italiano *leggeri di testa*. Esta dicotomía se significa actualmente, en su expresión máxima, entre el comer a las mil maravillas, en cantidad y calidad, frente al desacuerdo sobre la neutralización de las basuras. Un desencuentro categórico, absoluto y total, con la imposibilidad metafísica de alcanzar acuerdos, siquiera parciales y transaccionales.

Como buenos vascos, cualquier cosa antes de ceder en un asunto, aunque importante intensamente discutible y menos tratar de entender al otro, dialogar y pactar con otras maneras de enfocar los problemas, en este caso los de las basuras. Es decir, sobre lo que se ha hecho hasta ahora, sobre los esfuerzos realizados, sobre los grados de corrección del proceso andado, sobre la situación en la que nos encontramos hoy y aquí y sobre todo, sobre ¿donde estamos y cuánto nos ha costado? encauzar el asunto de nuestras basuras.

Ahora, al parecer toca reiniciar un proceso sobre el ¿dónde?, y sobre todo el ¿cómo?, recoger, acumular, tratar y reciclar nuestras defecaciones, los restos del «gran banquete» y otras excreciones. Ya

## Gipuzkoa, gastronomia finaren eta bere hondakinen digestioaren artean

Gure lurraldea, Gipuzkoa, eta haren kontrapuntua, Donostia hiriburua, ulertzen saiatzen naiz, trakets eta ezusteko askorekin kulunkatzen den nabe bat bailitzan, bere norabidean eta zeharraldiaren erritmoetan asmatu gabe. Betiko zalantza da, pentsatzearen eta erabakitzearen artekoa, eztabaidatzearen eta erantzukizunak hartzearen artekoa, urratsez urratseko aurrerapenaren eta ia beti erabateko gaitzespenezkoa izaten den erraietatiko erreakzioaren artekoa. Eta pentsa liteke *kazkariñatoa* dela kolektibitatea antolatzeko dugun modu bakarra. Italierako *leggeri di testa* delakoaren baliokide zehatza. Dikotomia hori, gaur egun, kantitatez eta kalitatez ezin hobeki jatearen eta hondakinen neutralizazioari buruzko desadostasunaren artean kokatuta dago, bere adierazpen gorenean. Desadostasun kategorikoa, absolutua eta erabatekoa, akordioak lortzeko ezintasun metafisikoarekin, ezta akordioak partzialak eta transakzio bidezkoak izanda ere.

Euskaldun onak garen aldetik, edozer egingo genuke gai batean amore eman aurretik, nahiz eta biziki eztabaidagarria eta garrantzitsua izan, eta are gutxiago saiatuko ginateke besteari ulertzen, harekin hitz egiten eta itunak egiten, arazoak bideratzeko beste modu batzuekin, kasu honetan hondakinen gaiarekin lotuta. Hau da, orain arte egindakoari buruz, egindako ahaleginei buruz, egindako prozesuaren zuzentasun mailei buruz, hemen eta gaur dugun egoerari buruz eta, batez ere, «non gaude?» eta «zenbat kostatu zaigu gure hondakinen gaia bideratzea?» galderei buruz.

Orain, dirudienez, «non?» eta, batez ere, «nola?» galderei buruzko prozesu bati ekin behar zaio berriro, eta bildu, metatu, tratatu eta birziklatu egin behar ditugu gure gorozkiak, *bankete handiaren* hondarrak eta bes-

han quedado encuadrados los dos bandos para la partida.

Importante dilema, propiamente vital, éste que nos sitúa frente a un conflicto existencial, el que se desarrolla entre el lujo y abundancia de nuestras ingestas y la inoperancia manifiesta a la hora de organizar técnicamente nuestras «degestas». Y en esta doble vertiente de la vida, también debemos entender la circunstancia de unas exigencias máximas derivadas de nuestro desarrollo económico y bienestar general (bien comer), frente a la negativa, ampliamente extendida, para la asunción de sus consecuencias, a fin de llegar a acuerdos civilizados a la hora de neutralizar nuestras sobras, en el plano del medio y el ambiental. A este continuo desajuste entre exigencias habituales y sus consecuencias, bien podíamos llamar «amnesia social culpable». O lo que es aún peor, inconsistencia política, es decir incompatibilidad para compartir la «polis», la ciudad. En definitiva incapacidad para convivir en esta tierra vasca, sin maximalismos y conforme a los principios de la tolerancia, un sano relativismo y la mutua respetabilidad.

El debate sobre las basuras gipuzkoanas no pasa de ser un episodio a los que, de largo, nos tienen acostumbrados los talibanes de la «pureza total». No se trata de entrar en la pugna entre los unos y los anteriores gestores del asunto. Se trata únicamente de señalar una evidencia. Si ya quedó establecido democráticamente un sistema para la neutralización de nuestras basuras, larguísimo en tiempos de tramitación y muy trabajoso en gestiones administrativas y de construcción; que no sea la mera alternancia en el gobierno institucional la circunstancia que ponga «*patas arriba*» todo el proceso, para volver a empezar desde cero. O más bien desde menos uno, pues se trata de retroceder todo lo andado, mar-

telako iraizkinak. Dagoeneko enkoadratuta daude partidako bi aldeak.

Dilema garrantzitsua, hil ala bizikoa, gatazka existentzial baten aurrean jartzen gaituena, gure ahorakinen luxuaren eta ugaritasunaren eta gure *kanporakinak* teknikoki antolatzeko eraginkortasunik eza agerikoaren artean garatzen dena. Eta bizitzaren alderdi bikoitz horretan ulertu behar dugu, halaber, gure garapen ekonomikoak eta ongizate orokorrak (ongi jatea) dakartzan eskakizun maximoen zirkunstantzia, oso hedatua dagoen arren haren ondorioak ez onartzeko joera, gure soberakinak neutralizatzeko orduan akordio zibilizatuak lortu ditzagun, ingurunearen eta ingurumenaren mailan. Ohiko eskakizunen eta horien ondorioen arteko etengabeko desoreka horri *amnesia sozial erruduna* deitu geniezaioke. Edo, are okerragoa dena, ahultasun politikoa, hau da, *polisa*, hiria, partekatzeko bateraezintasuna. Azken batean, euskal lurralde honetan elkarrekin bizitzeko ezintasuna, maximalismorik gabe eta tolerantziaren, erlatibismo sanoaren eta elkarrekiko errespetagarritasunaren printzipioen arabera.

*Erabateko purutasunaren* talibanek oso ohituta gauzkate Gipuzkoako hondakinen inguruko eztabaidarekin. Kontua ez da batzuen eta gaiaren aurreko kudeatzaileen arteko lehian sartzea. Ebidentzia bat adieraztea besterik ez da. Kontuan hartuta demokratikoki ezarri zela gure hondakinak neutralizatzeko sistema bat, izapidetzeko denbora asko eta kudeaketa administratiboan eta eraikuntzan lan handia behar izan dituena, ez dadila agintarien txandakatzea izan prozesu osoa *hankaz gora* jarri eta berriro hutsetik hasi behar izatea eragingo duen zirkunstantzia. Edo, hobeto esanda, *minus batetik* hasi behar izatea eragingo duena, izan ere, orain nahi da egindako bide guztia desegin, norabide berri bat mar-

car un nuevo rumbo (tampoco exento de incertidumbres), convencer a la ciudadanía, volver a gastar mucho en propaganda, ya que al parecer, nos conviene recoger y cuidar cada uno de nuestras basuras según una metodología novedosa, a la que llaman «puerta a puerta» y a cada día su «saquito, bajo una nueva e intensa disciplina colectiva. Yo, evidentemente, no voy a entrar en controversias técnicas y menos a dilucidar los matices entre reciclaje, compostaje, biometanización y otras maneras verbales de esconder nuestras propias incapacidades para enmascarar la realidad.

Al igual que en todas las disciplinas, y de alguna manera conozco algo de las mías, que son las de la arquitectura, las urbanísticas y medio-ambientales, hay opiniones diferentes, a veces encontradas, pero es una realidad evidente que entre unas y otras nunca, incluso entre las más extremas el acierto o el desacierto es total y menos excluyente. Lo que suele ocurrir, y a menor cultura mayor dogmatismo, es que las posiciones extremas se trasforman en «ideología» y las luchas ideológicas ya se sabe culminan en fanatismos de prepotencia.

Todos los procesos técnicos son aproximaciones, más o menos precisos y afortunados hacia una «verdad» siempre relativa, huidiza y parcial. Hasta que el tiempo arbitra nuevas soluciones técnicas que dejan a las anteriores en el camino de la obsolescencia, para que en un tiempo y bajo costos razonables ser sustituidas por la novedad.

Cualquier decisión sobre los grandes temas colectivos, grandes infraestructuras, centros culturales etc. son enormemente complejas y trabajosas en sus procesos, al menos si mantenemos el contexto democrático, basado en el trinomio de información veraz

katu (hori ere ez ziurgabetasunik gabea), herritarrak konbentzitu, eta berriz ere propagandan asko gastatu, antza, komeni zaiguna baita norberak bere hondakinak biltzea eta zaintzea, *atez ateko* deritzoten metodologia berritzaile baten bidez, eta egunero *zakutxo* bat jasotzea, diziplina kolektibo berri eta indartsu baten pean. Ni, jakina, ez naiz eztabaida teknikoetan sartuko, eta are gutxiago hasiko naiz argitu nahian birziklatzearen, konpostatzearen, biometanizatzearen eta errealitatea mozorrotzeko geure hitzezko ezintasuna ezkutatzeko beste modu batzuen arteko ñabardurak.

Diziplina guztietan bezala, eta, nolabait, badakit zerbait arkitekturaren, hirigintzaren eta ingurumenaren arloez, nire diziplinak direlako, horietan ere iritzi desberdinak daude, batzuetan kontrakoak; baina argi dago batzuek zein besteek, muturrekoenek barne, ez dutela ehuneko ehunean asmatzen edo kale egiten, eta denek dutela lekua. Gertatzen dena da muturreko jarrerak *ideologia* bihurtzen direla eta borroka ideologikoek nagusikeriara eta fanatismora garamatzela; eta, jakina denez, zenbat eta kultura gutxiago, orduan eta dogmatismo handiagoa.

Prozesu tekniko guztiak hurbilketak dira, gutxi gorabehera zehatzak eta egokiak, beti erlatiboa, iheskorra eta partziala den *egia* baterantz. Harik eta denborak konponbide tekniko berriak ekarri eta aurrekoak zaharkitzearen bidean uzten dituen arte, epe jakin batean eta arrazoizko kostuen pean berritasunek ordezka ditzaten.

Gai kolektibo handiei, azpiegitura handiei, kultur zentroei eta abarri buruzko erabakiak oso konplexuak eta neketsuak dira beren prozesuetan, bai behintzat testuinguru demokratikoari eusten badiogu, trinomio honetan oinarrituta: propagandarik gabeko informazio

exenta de propaganda, discusión limpia y decisión por mayoría sin «hollar al perdedor».

Ahora bien, aquí podemos tratar de otra de las vertientes del tema de los residuos guipuzcoanos, quizá el prioritario hoy. Se trata de la vulnerabilidad de las obras públicas, con sus dilatados «*tempos»* de estudio, maduración, decisión, financiación y construcción. Y frente a ello un enunciado simple y maximalista: hay que paralizar el proceso, ya muy avanzado de construcción de un sistema de tratamiento de las basuras. Es el fenómeno tan guipuzcoano de la moratoria. Decir que estamos pensando para seguir pensando y aburrir al personal. Versión diabólica y tergiversadora del «*cogito ergo sum*», «*je pense, donc je suis» «*pienso luego existo», de René Descartes.

*kito* berriagoa bezalako erokeriekin, aurrera egin dezakegula elkarbizitza berrezartzeko, askatasun berriak konkistatzeko eta ongizate orokorrerako testuinguru egokia ezartzeko, erro infantilista eta ondorio kriminalak dituzten lelo zaharkituak eta elementalak erabiltzen ariko gara. Eslogan sinple horietatik eta, batez ere, haien ustiapen sentimentaletik, zorigaitz eta frustrazio gehiago baino ezin dira sortu. Izan ere, gatazkaren esferan kokatzen saiatzen dira, dogman bertan bizirik irauteko modu subliminalean. Doktrina bat, egia bakar, eztabaidaezin eta absolutu bat bakarrik onartzen duena: norberaren balioespena. Eta, ondorioz, garaipen bat, kimerikoa beti, azken soluzio gisa hartu ezin dena.

2006, apirila

## El rapto de las palabras y sus significados. La mayor concesión a ETA

Euzkadi ta askatasuna son las tres palabras que definen la sigla ETA, una «segregación diabólica» del nacionalismo vasco. Es el resabio amargo y doloroso que arraiga en este país. Surge próximo, se incardina y actúa parasitariamente enredándonos en torno a ideas o principios políticos y humanos valiosos. Valores creativos, ilusionantes y capaces de aglutinar de manera persuasiva a mucha gente, a fin de trabajar y luchar limpia y democráticamente por alcanzarlas. Se pueden sintetizar esas ideas en la proposición de Sabino Arana y Goiri: Euzkadi es la patria de los vascos. Debidamente entendida y contextualizada en el momento en el cual fue formulada. En este «humus propicio», y en la frustración de una guerra perdida, surge ETA como organización que adopta la delincuencia, a la que ellos llaman acción armada, como un activo prioritario y esencial de la acción política. Todo ello bajo las coartadas de un «abertzalismo» de nuevo cuño y de balbuceante definición ideológica. Entre la liberación colonial y un modo de marxismo, oscilando entre su propia definición histórico-cultural y el totalitarismo terrorífico de aquel infame «centralismo democrático». Organización que ha administrado el terror durante 53 largos años de crimen, secuestro, extorsión e intimidación generalizadas, tomando como base de operaciones el ámbito geográfico del País Vasco y sus áreas de influencia próximas y algunas no tan próximas.

Las vicisitudes, cambios de orientación política y otros vuelcos ideológicos, recorren la terrible historia de la organización que se esconde bajo esas tres letras E, T y A. Lo único que no ha variado a lo largo de los años es su determinación para tratar de conseguir sus objetivos, sin duda políticos, mediante la aplicación del terror. Y en contextos de democracia participa-

## Hitzen eta haien esanahien bahiketa. ETAri egindako kontzesio handiena

«Euskadi ta Askatasuna» dira ETA sigla definitzen duten hiru hitzak, euskal nazionalismoaren *bereizketa gaiztoa*. Herri honetan sustraituta dagoen bizio garratz eta mingarria da. Hurbil sortzen da, inkardinatu egiten da eta, parasito baten moduan jardunez, ideia edo printzipio politiko eta gizatiar baliotsuen inguruan korapilatzen gaitu. Balio sortzaileak, ilusionagarriak eta jende asko konbentzitzeko gai direnak, horiek lortzeko garbi eta demokratikoki lan egiteko eta borrokatzeko. Ideia horiek Sabino Arana eta Goiriren proposamenean laburbil daitezke: «Euzkadi euskaldunen aberria da». Behar bezala ulertuta, eta adierazi zen uneko testuinguruan kokatuta. *Humus apropos* horretan, eta gerra galdu baten frustrazioan, ETA sortu zen erakunde gisa, eta ekintza politikoaren lehentasunezko eta funtsezko aktibo gisa hartu zuten delinkuentzia, beraiek ekintza armatua deitzen ziotena. Hori guztia definizio ideologiko zezelkariko abertzaletasun berri baten koartadapean. Askapen kolonialaren eta marxismo modu baten artean, bere definizio historiko-kulturalaren eta *zentralismo demokratiko* zital haren totalitarismo beldurgarriaren artean. Erakundeak terrorea zabaldu zuen 53 urte luzez, krimen, bahiketa, estortsio eta larderia orokorraren bidez, operazio base gisa hartuta Euskal Herriaren eremu geografikoa eta haren eragin eremu hurbilak, eta batzuk urrunagokoak.

E, T eta A hizkien atzean ezkutatzen den erakundearen historia lazgarrian gorabeherak, orientazio politikoaren aldaketak eta beste iraultza ideologiko batzuk egon ziren, eta hauxe izan zen urte horietan aldatu ez zen gauza bakarra: erakundearen helburuak, politikoak zalantzarik gabe, terrorea erabiliz lortzeko erabakitasuna. Eta demokrazia parte hartzaileko testuin-

tiva, el terror como método, descalifica en su totalidad la causa a favor de la cual se aplica.

A no ser que alguien, para justificar la lucha armada, nos consiga explicar que la causa vasca se identifica con la causa palestina o con otros conflictos mucho más duros en sus entrañas, al combinar los factores nacionales, la expulsión de sus tierras y el establecimiento de una miseria generalizada, todo ello bajo ideas religiosas integristas y excluyentes, maximalistas e intensamente agresivas.

Tan execrable ha resultado el terror de prepotencia franquista para afianzar la «unidad de España» en connivencia con ese nacional catolicismo de laxa conciencia solidaria, masacrando a cristiano-demócratas vascos y otros españoles del centro político e izquierdas, como el terror de ETA para lograr una patria «vasca y socialista», en la que el sufrimiento quede socializado. Siempre más próxima a aquella vieja tercera internacional, en su versión estalinista, que a la segunda, la propiamente socialista, con puerto de llegada en la social-democracia, indudable lugar de progreso en Europa.

Pero el peor de los efectos de esta persistente asociación de delincuentes, con motivaciones políticas, no está únicamente, en aquellos que emergen, como son sus acciones de terror, muerte e intimidación constantes. Su mayor crimen es el de habernos robado nuestros símbolos e incluso haberse apoderado fraudulentamente de nuestras palabras. Haber hollado y sembrado de crímenes el discurso liberador del pueblo vasco. Ni el término izquierda les pertenece, y menos el de *abertzales*. Patriotas vascos o *abertzales* somos quienes estamos a favor de la expresión máxima, en términos políticos, de una patria vasca, en el contexto más favorable desde el punto de vista socio-político.

guruetan, terroreak, metodo gisa, erabat baliogabetzen du hura erabiltzearen kausa.

Non eta norbaitek, borroka armatua justifikatzeko, ez digun azaltzen euskal kausa palestinar kausarekin edo beste gatazka askoz gogorrago batzuekin identifikatzen dela bere erraietan, faktore nazionalak, beren lurretatik kanporatu izatea eta miseria orokor baten ezapena konbinatuta, eta hori guztia ideia erlijioso integrista eta baztertzaileekin, ideia maximalista eta biziki oldarkorrekin.

Kontzientzia solidario lasaiko katolizismo nazionalarekin bat etorriz, *Espainiaren batasuna* sendotzeko harrokeria frankistaren terrorea, euskal kristau-demokratak eta zentro eta ezker politikoko beste espainiar batzuk sarraskitu dituena, ETAk sufrimendua sozializatuta geratuko den aberri *euskaldun eta sozialista* bat lortzeko hedatutako terrorea bezain gaitzesgarria izan da. Beti hurbilago hirugarren internazional zahar hartatik, bertsio estalinistan, bigarrenetik baino, hau da, berez sozialista den horretatik baino, azken horrek sozialdemokrazian baitu sarrera portua, Europan aurrera egiteko leku batean, zalantzarik gabe.

Baina motibazio politikoak dituzten gaizkileen elkarte iraunkor horren ondoriorik txarrena ez dago soilik azaleratzen diren ekintzetan, etengabeko terrore, heriotz eta larderiazko ekintzetan. ETAren krimenik handiena da gure sinboloak lapurtu izana, bai eta gure hitzak iruzurrez hartu izana ere. Euskal Herriaren diskurtso askatzailea krimenez zapaldu eta erein izana. *Ezkerra* terminoa ez da beraiena, eta are gutxiago *abertzaleak* terminoa. Abertzale euskaldunak gara euskal aberri baten adierazpen gorenaren alde gaudenak, termino politikoetan, ikuspegi soziopolitikotik aldekoena den testuinguruan. Ez du zertan estatu berri batean artikulatu. Eta inoiz ez zen esan populismoak,

No necesariamente su articulación en un Estado de nuevo cuño. Y nunca se dijo que el populismo, la demagogia y el cómodo e irresponsable banderín de enganche «antisistema», marquen con el rigor necesario, los caminos por los que siempre haya avanzado la izquierda política más comprometida con el progreso; desde las ideas comunistas, a las socialistas, llegando a las ideas democrático cristianas, sobre todo en los períodos de la posguerra última europea.

Ahora que los viejos franquistas, exhaustos de tanta complacencia con el crimen político, y a los 75 años de las bombas y mentiras sobre Gernika, ya han quedado oficialmente marginados, aunque aún ahora guardan fuerzas que emergen desde la nostalgia totalitaria española. También ahora, recién estrenada la «pax etarra», tras de 53 años de esterilidad espiritual, depravación moral y fracaso político militar. Circunstancia en la que, por hastío, esperan recoger algunos beneficios en la política de estos «nuevos tiempos», quizá sea llegado el momento de extremar las cautelas a fin de mantener encendida la llama de la democracia. Son, sin duda, tiempos de tribulación y desconcierto, en los que la superabundancia y el confort egoísta nos ha llevado a la incapacidad de llegar a los mínimos acuerdos políticos para la supervivencia y el progreso.

Abril, 2012

demagogiak eta errekrutatze bulego *antisistema* eroso eta arduragabeak beharrezko zorroztasunez markatzen dituztela aurrerapenarekin gehien konprometitu den ezker politikoaren betiko aurrerabideak; ideia komunistetatik hasi eta sozialistetaraino, ideia demokratiko kristauetara iritsiz, batez ere Europako azken gerraosteko garaietan.

Frankista zaharrak, krimen politikoarekin jasotako atsegin handiekin ahituta, eta Gernikan bonbak eta gezurrak jausi zirenetik 75 urte igaro ostean, ofizialki baztertuta geratu dira, nahiz eta oraindik ere Espainiako totalitarismoaren nostalgiatik sortzen diren indarrak gordetzen dituzten. Orain ere, *pax etarra* estreinatu berritan, 53 urteko antzutasun espiritualaren, makurkeria moralaren eta porrot politiko militarraren ostean. Egoera horretan, nazkatuta, *garai berri* hauetako politikan onuraren batzuk jasotzea espero dute, eta agian iritsi izango da tentuz ibiltzeko unea, demokraziaren sugarra piztuta mantentzekoa. Zalantzarik gabe, nahigabe eta nahasmen garaiak dira, eta gehiegizko ugaritasunak eta erosotasun egoistak bizirauteko eta aurrera egiteko gutxieneko akordio politikoak lortzeko ezintasunera eraman gaituzte.

2012, apirila

# Traslado temporal a Bilbao del *Guernica* de Picasso

- Algo más que un cuadro.
- Los nuevos tecnócratas.
- Campañas poco plurales.
- Traslado del *Guernica* y el principio de incompatibilidad.

# Picassoren *Gernika* Bilbon, aldi baterako

- Margolan bat baino zerbait gehiago.
- Teknokrata berriak.
- Kanpaina ez oso pluralak.
- *Gernika*ren lekualdatzea eta bateraezintasun printzipioa.

## Algo más que un cuadro

Por fortuna otra vez surge el debate que, vinculando inexorablemente la política con el devenir cultural, trata de la conveniencia y oportunidad de trasladar, siquiera temporalmente, el cuadro llamado *Guernica,* y que pintara Picasso, al lugar y nación que le aportara su nombre y propiciara su razón de ser. Han pasado apenas 60 años de un hecho tan cruel como odioso y criminal, fue un bombardeo contra las Españas democráticas, personificado y llevado a efecto con sadismo añadido, sobre los símbolos más preciados de las bien ganadas libertades del pueblo vasco. El genio pictórico de Picasso consiguió plasmar aquel trágico episodio, en una crónica iconográfica desesperada que traspasó las conciencias del mundo, como un eterno grito de denuncia contra la barbarie, el golpismo y la crueldad.

Muchas de las trazas apocalípticas, definidoras de los terrores del primer milenio e ilustradas en el Beato de Saint Sèver, convento de la vieja Wasconia, aparecen también, conformando la pintura de Picasso. El *Guernica* que emergió por primera vez en la exposición universal en París de 1937, sobre el muro del pabellón de la España plural y democrática, es lógicamente algo más... mucho más que un cuadro, mal que les pese a algunos.

Por eso parece bastante inconveniente que la vieja guardia de un trasnochado republicanismo nacionalista español, como los pintores Saura y Gordillo, buscados como *«auctoritas»* para las páginas de un diario importante, hagan política bastante grosera e infantil y caldeando el ambiente, arremetan contra las iniciativas de las autoridades democráticas vascas para evitar que el cuadro-símbolo de referencia pueda trasladarse al contexto socio-cultural del que toma su propio nombre.

## Margolan bat baino zerbait gehiago

Zorionez, berriz sortu da eztabaida, politika eta kulturaren bilakaera ezinbestean lotuz, Picassoren *Gernika* izena eta izateko arrazoia eman zizkion lekura eta nazioari gutxienez aldi baterako lekualdatzearen komenigarritasunaz eta aukeraz dihardduena. 60 urte baino ez dira igaro gertaera krudel, gorrotagarri eta kriminal hartatik. Espainia demokratikoen aurkako bonbardaketa izan zen, pertsonifikatua eta sadismo erantsiarekin gauzatu zena, Euskal Herriaren askatasun ongi irabazien sinbolo preziatuenen gainean. Picassoren talentu piktorikoak pasarte tragiko hura kronika ikonografiko etsi batean islatzea lortu eta munduko kontzientziak gainditu zituen, basakeriaren, kolpismoaren eta ankerkeriaren aurkako salaketa oihu betiereko gisa.

Traza apokaliptiko asko, lehen milurtekoko terroreak definitzen dituztenak eta Euskal Herri zaharreko Saint Sèver komentuko *Dohatsuan* ilustratuak, Picassoren margolanetan ere agertzen dira. Lehen aldiz 1937ko Parisko erakusketa unibertsalean, Espainia anitz eta demokratikoaren pabiloiko horman, agertu zen *Gernika* hura, logikoa denez, margolan bat baino gehiago da... margolan bat baino askoz gehiago da, batzuek atsegin ez badute ere.

Horregatik, nahiko desegokia dirudi espainiar errepublikanismo nazionalista zaharkitu baten guardia zaharrak, Saura eta Gordillo pintoreek esaterako, egunkari garrantzitsu bateko orrialdeetarako *auctoritas* gisa bilatuek, politika nahiko zakar eta umekeriatsua egitea eta, giroa berotuz, euskal agintari demokratikoen ekimenen aurka egitea, erreferentziazko sinbolo-margolana izena ematen dion testuinguru soziokulturalera ekar ez dadin.

Evidentemente el tema resulta complejo y delicado, en sesenta largos años, todos han y hemos tenido demasiado tiempo para cometer errores. Las autoridades nacionalistas vascas por no acordarse del *Guernica* hasta que se lo han recordado los «gringos» del Guggenheim, pero, también es verdad, si no llega a ser por los demócratas norteamericanos, empeñados en valorar el arte, el famoso cuadro bien pudiera hoy haber desaparecido, en la acumulación de desechos de algún vertedero, o en los sótanos de alguna embajada.

Por ello, sin demagogias, dejemos hablar a los políticos, ya que mal o bien, en democracia son nuestros más auténticos representantes. Acábense de una vez por todas las falsas coartadas técnicas y normativas, ya que si la humanidad ha llegado a la luna, y la momia de Lenin aún se la puede contemplar, en un marco de brillante arquitectura, en las afueras del Kremlin, a la tela que contiene el mensaje que pintara Picasso, no le va a resultar demasiado difícil hacer el corto viaje que, en todos los sentidos, separa el País Vasco de Madrid, sin traumas ni demasiados contratiempos.

Que nadie piense que el Patronato del Museo Reina Sofía es un órgano técnico puro, pues nunca fue cierto, que literatos y licenciados en filosofía y letras entendieran en detalle y más que los demás, de la conservación de lienzos. Ni mi buen amigo Paco Jarauta, ni el admirado V. Bozal tienen motivos para saber mucho más que yo, de traslados de cuadros, de conservaciones de pigmentos, ni de maneras de transporte de un gran elemento plano y rectangular. Primero decidan nuestros representantes políticos qué es lo que conviene hacer, y luego las técnicas de la modernidad, que pongan sus fórmulas en jaque y se apliquen en arbitrar los medios y presupuestos para un traslado

Jakina, gaia konplexua eta zaila da, eta, hirurogei urte luzetan, denok izan dute eta izan dugu denbora gehiegi hanka sartzeko. Euskal agintari nazionalistek, *Gernikaz* ez oroitzeagatik Guggenheimeko «gringoek» gogoratu duten arte, baina egia da, halaber, Estatu Batuetako demokratengatik eta artea baloratzeko haien gogo biziagatik ez balitz, litekeena dela margolan ospetsua desagertu izatea, zabortegiren bateko hondakinen artean edo enbaxadaren bateko sotoetan.

Horregatik, demagogiarik gabe, utz diezaiegun hitz egiten politikariei, demokrazian, gaizki ala ongi, gure ordezkaririk benetakoenak baitira. Amaitu daitezela behingoz koartada tekniko eta normatibo faltsuak; izan ere, gizakia ilargira iritsi bada, eta Leninen momia oraindik ere ikus badaiteke, arkitektura ederreko marko batean, Kremlinen kanpoaldean, Picassok margotutako mezua daraman oihalari ez zaio oso zaila egingo Euskal Herria eta Madril zentzu guztietan bereizten dituen bidaia laburra egitea, traumarik eta ezusteko gehiegirik gabe.

Inork ez dezala pentsatu Reina Sofia museoaren patronatua organo tekniko garbia denik, inoiz ez baita egia izan filosofian eta letretan lizentziadunek eta literatoek gainerakoek baino gehiago dakitela mihiseen kontserbazioaz. Ez nire lagun on Paco Jarautak, ez V. Bozal miretsiak, ez dute margolanen lekualdatzeaz, pigmentuen kontserbazioaz eta elementu lau eta errektangular handi baten garraio moduez nik baino askoz gehiago jakiteko motiborik. Lehenik, gure ordezkari politikoek erabaki dezatela zer egitea komeni den, eta, gero, modernitatearen teknikek jar ditzatela beren formulak abian eta aplika daitezela lekualdaketa zoriontsu baterako baliabideak eta aurrekontuak

feliz. Pero si resultara totalmente desaconsejable por imposible, entonces que piensen otra vez más nuestros representantes, elegidos por sufragio, qué es lo que conviene hacer. Pero en ningún caso a la inversa, ya que de oportunistas en la política, y de las opiniones «infalibles» de los «expertos» que nunca han atravesado el umbral de unas elecciones, ahora sabemos demasiado, en este país.

El único motivo, a mi juicio, para negar la vuelta del famoso cuadro al lugar de su título, únicamente puede ser la persistencia cotidiana de la barbarie fascista de algunos cuantos desalmados de la política, con más de 800 asesinatos en su haber. Y en otro orden de cosas de tono menor, la inveterada incuria en materia artística de algunos nacionalistas vascos. A pesar de todo ello, una opinión ampliamente extendida por estas tierras es que el *Guernica* resulta necesario en Euskadi, hasta el punto de pensar que, tras su próximo traslado, apoyándonos y tomando fuerza en la enorme presencia del «gigante americano», una vez expuesto el manifiesto antibélico por excelencia, en el rutilante museo Guggenheim; el cuadro que pintara Picasso debe de quedarse en «la casa» que le dio nombre, es decir en Gernika, o en todo caso en el museo de B.B.A.A. de Bilbao.

Si el estado de conservación actual del cuadro es tan precario como dicen algunos, sólo cabe coincidir con el Lehendakari de Euskadi para decir ¿Qué le han hecho al *Guernica* en tan pocos años en los museos de Madrid? Conclusión: hágase pronto, un buen «facsimil» para dejar allí, y llevemos la precariedad del cuadro, para que se conserve, en algún lugar donde alguien lo pueda mantener y cuidar de una manera mejor. Y en ese sentido nadie puede tener dudas que los técnicos de Guggenheim pueden trabajar conjuntamente con los conservadores del Museo de B.B.A.A.

erabakitzeko. Eta ez balitz batere gomendagarria, ezinezkoa delako, orduan berriz pentsa dezatela gure ordezkariek, sufragio bidez hautatuek, zer egin behar den. Baina inola ere ez alderantziz, herri honetan orain gehiegi baitakigu politikan dauden oportunistez, eta hauteskundeen muga inoiz gainditu ez duten *adituen* iritzi *hutsezinez*.

Nire ustez, margolan ospetsua izena ematen dion lekura itzultzea ukatzeko arrazoi bakarra izan daiteke politikan dagoen zenbait arima galduren basakeria faxista egunerokoa eta iraunkorra, 800 hilketa baino gehiago baitaramatzate bizkar gainean. Eta, beste alde batetik, maila apalagoan, euskal nazionalista batzuen aspalditik errotutako utzikeria arte gaietan. Hala eta guztiz ere, lur hauetan askok uste dute *Gernika* beharrezkoa dela Euskadin, pentsatzeraino, aurki lekualdaketa egin ondoren, *amerikar erraldoiaren* presentzia izugarrian oinarrituz eta bertan indarra hartuz, behin gerraren aurkako manifestu nagusia den margolan hori erakusgai jarrita, Guggenheim museo distiratsuan, Picassok margotutako koadroak izena eman zion *etxean* gelditu beharko lukeela, hau da, Gernikan, edo, izatekotan, Bilboko Arte Ederren museoan.

Margolanaren gaur egungo kontserbazio egoera batzuek diotena bezain eskasa bada, Euskadiko lehendakariarekin bat etorri besterik ezin da egin, honako hau esateko: «Zer egin diote *Gernikari* horren urte gutxian, Madrilgo museoetan?» Ondorioa: egin bedi laster *faksimile* on bat han uzteko, eta eraman dezagun egoera eskasean dagoen margolana norbaitek hobeto mantendu eta zaindu dezakeen toki batera, kontserbatu dadin. Eta, alde horretatik, inork ezin du zalantzan jarri Guggenheimeko teknikariek Bilboko Arte Ederren museoko kontserbatzaileekin batera lan

de Bilbao y arbitrar soluciones que resulten satisfactorias para el mantenimiento y la más adecuada exhibición, *urbi et orbe*, de un cuadro que tiene unos significados bastante más extensos y profundos que una simple pintura, por bella y emblemática que pueda ser.

15 junio 1997

egin dezaketela, eta irtenbide egokiak aurkitu ditzaketela, ederra eta enblematikoa izatea baino esanahi zabalagoak eta sakonagoak dituen margolan bat mantentzeko eta ahalik eta modu egokienean erakusteko, *urbi et orbe*.

1995eko ekainak 15

## Los nuevos tecnócratas

Nunca hubiera pensado que el traslado, a través de cuatrocientos escasos kilómetros, del cuadro *Guernica* que pintara Picasso, iba a trasformar a la flor y nata de la creatividad plástica española, en una cofradía, bien coordinada, y ferviente admiradora de la «infalibilidad» de un informe técnico de parte y poco contrastado; para con ello descalificar de una manera global y genérica una «intolerable ingerencia de los políticos» en los territorios que, por naturaleza, les deben estar vedados. El viejo debate entre el «técnico» y el «político» ha hecho que gentes tan abiertas y universales como los artistas plásticos, Gordillo, López, Chillida, Saura y Tápies, este último en menor medida, arremetan con dureza frente a los políticos democráticos españoles todos y les nieguen el pan y la sal a la hora de instar a una cosa tan lógica como evidente: Que el cuadro que toma nombre en un lugar y en un hecho histórico concreto, pueda viajar a la tierra que le sirvió de argumento.

Se dice con bastante desparpajo, que el cuadro «está hecho polvo», que «sufriría con sólo descolgarlo» y se añaden otras muchas generalidades, pero ninguno de estos creyentes tecnócratas, ha reparado en indagar las evidentes y graves responsabilidades de los cuidadores del tesoro arruinado. En un país en el que hemos judicializado todo, una de dos, o convendría preguntarse del por qué ha llegado el *Guernica* a una situación tan precaria; y quiénes son los responsables del desaguisado, o colegimos que el estado de precariedad no es tal, y estamos ante una simple escaramuza tecnocrática para evitar su traslado. Sobre todo cuando hace escasos quince años, ninguno de esos técnicos y tecnócratas que ahora claman contra el «viaje simbólico e ilustrado», se opuso a que el cuadro, para el salto trasatlántico, fuera enrollado.

## Teknokrata berriak

Inoiz ez nukeen pentsatuko Picassoren *Gernika* lekualdatzean, laurehun kilometro eskaseko bidaia eginda, Espainiako sortzaile plastiko onenak kofradia ongi koordinatu batean bildu eta gutxi kontrastatutako txosten tekniko baten *hutsezintasunaren* miresle sutsu bihurtuko zirenik, horrela, modu orokor eta generikoan deskalifikatu ahal izateko *politikarien injerentzia onartezin* bat, izatez debekatuta izan behar dituzten lurradeetan. *Teknikariaren* eta *politikariaren* arteko eztabaida zaharraren ondorioz, Gordillo, López, Chillida, Saura eta Tápies artista plastiko ireki eta unibertsalak gogor oldartu dira (azkena neurri txikiagoan) espainiar politikari demokratikoen aurrean, eta ogia eta gatza ukatu dizkiete agerikoa bezain logikoa den gauza bat eskatzeko orduan: leku eta gertakari historiko zehatz batean izena duen margolanak argudio gisa balio izan zion lurrera bidaiatu ahal izatea.

Nahiko patxadaz esaten da margolana *hauts eginda* dagoela, *hormatik jaiste hutsarekin sufrituko lukeela* eta beste hainbat orokortasun gehitzen dira, baina fededun teknokrata horietako bakar bat ere ez da hasi altxor hondatuaren zaintzaileen erantzukizun ageriko eta larrietan arakatzen. Dena judizializatu dugun herri honetan, bietako bat: edo galdetzen diogu gure buruari zergatik iritsi den *Gernika* egoera eskas horretara, eta nor diren hondamendiaren erantzuleak, edo ondorioztatzen dugu margolana ez dagoela horren egoera eskasean, eta liskar teknokratiko soil baten aurrean gaudela, lekualdatzea saihesteko. Batez ere, kontuan hartuta duela hamabost urte eskas, orain *bidaia sinboliko eta ilustratuaren* aurkako aldarriak egiten dituzten teknikari eta teknokrata horietako bat bera ere ez zela agertu margolana, jauzi transatlantikoa egiteko, biribilkatzearen aurka.

En otro orden de cosas si aceptamos que el deterioro del cuadro es tan grande, que sólo con descolgarlo, p.e. el día que tengan que blanquear las paredes del museo Reina Sofía, corre un riesgo muy importante, sería bueno oír alguna voz autorizada, que nos tranquilice, para saber si es posible una restauración adecuada, como los frescos de la Sixtina, o los mismos lienzos de Velázquez. O si por el contrario quien no haya podido ir al Reina Sofía antes que, por cualquier motivo descuelguen el cuadro, corre serio riesgo de no captar en toda su profundidad el mensaje estético y ético que con motivo del bombardeo de Gernika plasmara Picasso. Triste signo de perennidad de una obra de arte, realizada con unos pigmentos y sobre una tela tan frágil, que apenas ha llegado, antes de convertirse en polvo, a cumplir los sesenta años.

27 junio 1997

Bestalde, onartzen badugu margolana oso hondatuta dagoela, eta, esate baterako, Reina Sofia museoko hormak zuritu behar diren egunean, hura hormatik jaiste hutsa oso arriskutsua izango dela, ona litzateke eskumena duen norbaitek hitz egitea, lasaitu gaitzan, eta jakiteko litekeena ote den zaharberritze egoki bat egitea, Kapera Sixtinoko freskoekin edo Velázquezen mihiseekin egindakoaren antzera. Edo, aitzitik, jakiteko oso litekeena dela edozein arrazoirengatik margolana hormatik jaitsi aurretik Reina Sofia museora joan ez denak ezin izango duela jaso bere sakontasun osoan Picassok Gernikako bonbardaketaren inguruan adierazi nahi izan zuen mezu estetikoa eta etikoa. Pigmentu ahulekin eta oihal hauskor baten gainean egindako artelan baten galkortasunaren zeinu tristea, ozta-ozta hirurogei urte betetzerako hauts bihurturiko artelan batena.

1997ko ekainak 27

## Campañas poco plurales

Muy sr. mío:

Desde mi condición de lector asiduo de *El País,* y eventual colaborador desde su sección de *Cartas al Director,* me dirijo a Ud. a fin de poner en su conocimiento unos pocos datos que, en mi opinión, denotan desajustes, con los principios, siempre deseables, de *objetividad informativa*. Me refiero al tratamiento, en su medio, de la noticia del traslado eventual del *Guernica* de Picasso al País Vasco, según la petición formulada por el museo Guggenheim de Bilbao.

En el día de hoy (6/7/97), una semana después de enviarla, aún no ha sido publicada una carta mía al director de opinión de *El País,* carta que se mostraba favorable al traslado del cuadro, tomando en sus términos más estrictos y adecuados la aprobación de la proposición no de ley, en las dos cámaras del Parlamento.

Desde que saltara la primera chispa a los medios, *Diario Vasco 13/7/97,* tras el debate parlamentario sobre el estado de la Nación, la redacción de *El País* se puso en guardia buscando primero *opiniones de autoridad:* Saura, Gordillo etc. tuvieron tribuna privilegiada para desautorizar la intromisión política. Luego se fueron enhebrando uno tras otro argumentos, todos contrarios al traslado del cuadro preguntando a quien, por pura lógica e interés, ya se sabía lo que iba a contestar (miembros del patronato de Museo Reina Sofía, pintores y galeristas del contexto madrileño etc.).

Cuando llegó la hora de la verdad, ante el acuerdo de la Comisión de Cultura del Parlamento, un editorial marcó con claridad la idea de *El País* ante el traslado, idea que, lógicamente, era mucho más matizada y respetuosa con el marco político, que los «exabruptos» de

## Kanpaina ez oso pluralak

Jaur agurgarria:

*El País* egunkariaren ohiko irakurlea eta *Zuzendariari gutunak* atalean behin-behineko kolaboratzailea naizen aldetik, zuregana jotzen dut datu gutxi batzuk jakinarazteko, nire ustez ez baitatoz bat *informazioaren objektibotasunaren* printzipio desiragarriekin. Bilboko Guggenheim museoak egindako eskaeraren arabera, Picassoren *Gernika* behin-behinean Euskadira lekualdatzeko albistea zure egunkarian tratatu den erari buruz ari naiz.

Gaur (97/7/6), oraindik ez da argitaratu duela astebete *El País*eko iritzi zuzendariari bidali nion gutuna, margolana lekualdatzearen aldekoa, Parlamentuko bi ganberetan onartutako legez besteko proposamena bere termino zorrotz eta egokienetan hartuta.

Hedabideetara lehenengo txinparta iritsi zenetik, *Diario Vasco* (97/7/13), Nazioaren egoerari buruzko eztabaida parlamentarioaren ondoren, *El País*en erredakzioa erne jarri eta *adituen iritziak* bilatzen hasi zen; hala, Saura, Gordillo eta abarrenak tribuna abantailatsua izan zuten politika tartean sartu izana gaitzesteko. Gero, margolana lekualdatzearen aurkako argudioak bata bestearen atzetik josten joan ziren, izan ere, ikusita zegoen, logika eta interes hutsagatik, zer erantzungo zuten Reina Sofia museoaren patronatuko kideek, Madrilgo testuinguruko pintoreek eta galeristek, etab.

Une erabakigarria iritsi zenean, Parlamentuko Kultura Batzordearen erabakiaren aurrean, editorial batek argi eta garbi markatu zuen *El País*en iritzia lekualdatzearen aurrean, eta, logikoa denez, iritzi hori askoz ere zehatzagoa zen eta marko politikoa askoz gehiago

tantos de los «opinantes» intencionadamente buscados y preguntados, con los que, en base a una falsa «*auctoritas*», predisponer y angular de manera fehaciente un determinado estado de opinión. Más tarde los insultos llegaron de la mano de Vicente Verdú, algo menos descalificador Don Miguel Ullán y siempre bien y distante, la columna dominical de D. Manuel Vicent. Ayer dos cartas al Director en la misma dirección y hoy el artículo mejor colocado de todo el periódico para que Don Félix de Azúa abunde en una misma y alambicada forma de descalificación, de todo lo que el *Guernica* pueda suponer hoy y aquí para los vascos.

La teoría científica para ratificar la negativa al traslado, a mi juicio errónea y en exceso decimonónica, la puso brillantemente el profesor Calvo Serraller en su edición del pasado domingo, pero en todo este proceso desde las páginas de *El País,* ni una sola opinión favorable al traslado del cuadro, cuando es evidente que dichas opiniones existen y además fundamentadas con gran autoridad, de otro modo las dos Cámaras no hubieran sido tan contundentes en sus respectivos acuerdos. Lamentablemente descalificaciones abundantes, algún que otro insulto, y la que bien pudo ser una participación autorizada para esclarecer los hechos, como, sin duda, hubiera sido recabar la opinión de su colaborador, en otras brillantes lides, Sr. Don Javier Tusell; opinión magníficamente expresada desde las páginas de *La Vanguardia*; quedaron vedadas para los lectores de *El País*.

Es en este contexto en el que no me parece justa la exclusión de cualquier colaboración que sin duda hubiera contribuido a crear una *opinión más libremente formada* entre los muchos lectores de su diario, y con esa intención envié mi carta a su Director de Opinión. Por ello me cuesta bastante sustraerme a la idea que, a veces, en los diarios que más predican la libertad de expre-

errespetatzen zuen, *auctoritas* faltsu batean oinarrituta, iritzi egoera jakin bat sortzeko helburuarekin nahita bilatutako *iritzi emaile* ugariren *purrustadekin* alderatuta. Geroago, irainek beste iturri batzuk izan zituzten: Vicente Verdú; Miguel Ullán, horrenbeste deskalifikatu gabe; eta Manuel Vicenten igandeko zutabea, beti ongi eta hoztasunez idatzia. Atzo zuzendariari bi gutun norabide berean, eta, gaur, egunkari osoan hobekien kokatutako artikulua, Felix de Azuak sakondu dezan *Gernika*k gaur eta hemen euskaldunentzat izan dezakeen esanahia deskalifikatzeko modu errepikakor eta bihurri batean.

Lekualdatzeari ezetz esatea berresteko teoria zientifikoa, nire ustez okerra eta antigoalekoegia, bikain azaldu zuen Calvo Serraller irakasleak joan den igandeko edizioan, baina prozesu honetan guztian, *El País*eko orrialdeetan ez da jaso margolanaren lekualdatzearen aldeko iritzi bakar bat ere, bistakoa den arren iritzi horiek existitzen direla eta, gainera, autoritate handiz oinarrituta daudela, bestela bi Ganberak ez baitziren horren sendoak izango beren akordioetan. Zoritxarrez, deskalifikazio ugari, irainen bat edo beste, eta zalantzarik gabe gertakariak argitzeko autoritatea izan zezakeen parte hartze bat, hots, beste gai batzuetan egunkariaren kolaboratzaile bikaina den Javier Tusellek *La Vanguardia*n ederki adierazitako iritzia, debekatuta geratu dira *El País*eko irakurleentzat.

Testuinguru horretan ez zait bidezkoa iruditzen zalantzarik gabe egunkariko irakurle askoren artean iritzi askeago bat sortzen lagunduko lukeen edozein kolaborazio baztertzea, eta asmo horrekin bidali nion gutuna iritzi zuzendariari. Horregatik, kosta egiten zait ikustea, adierazpen askatasuna gehien aldarrikatzen duten egunkarietan, agian libreenak direnetan, eta,

sión y quizás los más libres y por ello están llamados a crear las *capas informativas sobre las que se asienta la más amplia, documentada y completa opinión,* cuando se trata de temas complejos e incómodos, no importan tanto los lectores queriendo colaborar, ni las opiniones libremente expresadas, frente a los amigos de toda la vida, y con intereses entremezclados, que evidentemente van a contestar al unísono con las mismas respuestas que se le ocurren a Don Ángel Síseñor.

Otra ocasión perdida, para profundizar en la tan compleja y difícilmente obtenible libertad de expresión. Al igual que este ejemplo, a propósito del traslado del *Guernica,* podía haberle propuesto algunos otros más, de los cuales guardo documentación, pero estoy seguro que de aquí en adelante no será necesario, pues no me cabe duda alguna que en los temas complejos y con muchas angulaciones, buscarán opiniones diversas y hasta contradictorias, a fin de enriquecer de una manera fehaciente un estado de opinión sano en lo intelectual y más democrático en su aspecto político.

Reciba un saludo muy cordial.

Fdo.: Iñaki Galarraga Aldanondo

San Sebastián, 6 julio 1997

horregatik, *iritzirik zabalena, dokumentatuena eta osoena eratzeko oinarria izango diren informazio geruzak* sortzera deituak daudenetan, batzuetan, gaiak konplexuak eta deserosoak direnean, kolaboratu nahi duten irakurleek eta libreki adierazitako iritziek ez dutela asko inporta, interes nahasiak dituzten betiko lagunen aurrean; eta, bistan denez, horiek denek batera erantzungo dute, Ángel Síseñorri bururatzen zaizkion hitz berberekin.

Beste aukera bat galdu dugu, oso konplexua den eta nekez lor daitekeen adierazpen askatasunean sakontzeko. *Gernika*ren lekualdatzearen adibide hau bezalaxe, beste batzuk ere aipa nitzake, horiei buruzko dokumentazioa gordetzen ditut eta, baina ziur nago aurrerantzean ez dela beharrezkoa izango, zalantzarik gabe, gai konplexu eta angelutsuetan iritzi desberdinak eta agian kontraesankorrak ere bilatuko baitituzue, maila intelektualean sanoa eta maila politikoan demokratikoagoa den iritzi egoera bat modu sinesgarrian aberasteko.

Jaso ezazu agur bero bat.

Stua.: Iñaki Galarraga Aldanondo

Donostian, 1997ko uztailaren 6an

## Traslado del *Guernica* y el principio de incompatibilidad

En todos los procesos controvertidos, y más si se refieren al mundo simbólico del arte, las formas resultan tanto o más importantes que el mismo fondo de la cuestión. Por eso en las cuestiones del traslado, permanente o temporal, del *Guernica* que pintara Picasso a alguno de los museos del País Vasco, conviene extremar, por parte de todos, una especial finura en las formas de actuar. No han quedado en el olvido, los principales aspectos de una gran controversia. Frente a un acuerdo político-parlamentario de muy amplio espectro, claramente favorable al traslado, el Patronato del Museo Reina Sofía, depositario provisional del grandioso cuadro, apoyándose en un informe técnico de parte, por tanto parcial, se opone al mismo, argumentando un evidente peligro de deterioro físico del singular manifiesto antibélico del arte de este siglo.

En el largo proceso de discusiones previas, con demasiados calentadores de motores capitalinos y algunos de provincias, dos opiniones me han parecido especialmente significativas: las de los especialistas, Calvo Serraller y las de Don Javier Tusell; antiguo director del Museo madrileño del Prado, el primero y artífice del traslado, hace más de 10 años, del *Guernica* de Nueva York a Madrid, el segundo. Ambos profesores son colaboradores habituales de un importante diario de Madrid, pero esta vez, como la opinión de Tusell se mostraba favorable a un, último y excepcional, traslado del cuadro a Euskadi, tuvo que imprimir sus opiniones en La Vanguardia de Barcelona.

La tesis de Calvo Serraller, opuesta al viaje, más o menos, venía a decir que el mantenimiento, cuidado y custodia de los grandes valores del arte deben de estar, y

## *Gernika*ren lekualdatzea eta bateraezintasun printzipioa

Eztabaida eragiten duten prozesu guztietan, eta are gehiago artearen mundu sinbolikoarekin lotura dutenetan, formak gaiaren funtsa bera bezain garrantzitsuak edo garrantzitsuagoak dira. Horregatik, Picassoren *Gernika* behin betiko edo behin-behinean Euskal Herriko museoren batera lekualdatzeari dagokionez, komeni da guztiok fintasun berezia izatea jarduteko moduetan. Ez dira ahaztuta gelditu eztabaida handi baten alderdi nagusiak. Espektro oso zabaleko akordio politiko-parlamentario baten aurrean, lekualdatzearen alde argi eta garbi, Reina Sofia museoaren patronatuak, margolan handiaren behin-behineko gordailuzainak, oinarri hartu du alde bakarreko txosten tekniko bat, beraz, partziala, eta lekualdatzearen aurka egin du, mende honetako arteak gerraren aurka egindako manifestu berezi horrek kalte fisikoak jasateko arrisku nabarmena dagoela argudiatuz.

Aldez aurreko eztabaiden prozesu luzean, hiribururuetan eta probintzietan motor berogailu gehiegirekin, bi iritzi bereziki adierazgarriak iruditu zaizkit: Calvo Serraller eta Javier Tusell espezialistenak; lehena, Madrilgo Prado museoaren zuzendari ohia, eta bigarrena, duela 10 urte baino gehiago *Gernika* New Yorketik Madrilera eraman zuena. Bi irakasleak Madrilgo egunkari garrantzitsu baten ohiko kolaboratzaileak dira, baina, oraingoan, Tusell margolana Euskadira eramatearen alde dagoenez, Bartzelonako *La Vanguardia*n azaldu behar izan du bere iritzia.

Calvo Serraller, berriz, lekualdatzearen kontra dago, eta esaten du, gutxi gorabehera, artearen balio handiak erakunde bereziki egokietan mantendu, zaindu eta ba-

así lo viene haciendo desde el pasado siglo, en organismos especialmente adecuados, siempre y de cualquier manera al margen de los vaivenes de la política del momento, y concluía con que eran los patronatos de cada uno de los museos, los organismos adecuados para dictaminar sobre conveniencias o inconvenientes y de cuantas eventualidades pudieran surgir a los tesoros artísticos a su cargo. Una tesis de clara matriz napoleónica e ilustrada, basada en el criterio de autoridad, tesis centralista por excelencia, pero evidentemente siempre digna de tenerse en cuenta. Bien está por tanto que los patronatos se preocupen de cuidar, mantener y difundir el arte depositado en sus respectivos museos, pero, evidentemente, la cuestión es muy otra, y la corrección del argumento salta por los aires, si se trata de traslados de los objetos de arte desde un museo a otro. Pues mal puede dictaminar, justamente, sobre la conveniencia o inconveniencia de un acto, quien resulta el máximo beneficiario que no se produzca el acto.

Así sucedió en el corto viaje del *Guernika* entre el Prado y el Centro de Arte Reina Sofía. Y no es el caso de recordar ahora, lo que ocurrió en aquel Patronato del museo del Prado que presidía J.A. Sánchez Asiain, cuando tuvo que aceptar la imposición del traslado, por la autoridad competente. Pero como eran unos escasos cuatrocientos metros sobre el mismo paseo, siempre en Madrid, el agua apenas llegó al Manzanares.

Después de la separación de poderes dictada por Montesquieu, auténtica base de los principios de incompatibilidad, ¿resulta lícito dejar la última palabra sobre el traslado de una obra de arte, como el *Guernika* de Picasso, al Patronato y al grupo de mantenedores del Museo que, teniéndolo en depósito, es el máximo beneficiario, en el caso de que no se produzca el mismo? En mi opinión, estamos ante un flagrante caso de incompatibilidad de funciones, una anomalía que son-

bestu behar direla, eta horrela egiten dela joan den mendeaz geroztik, beti eta edozelan ere unean uneko politikaren gorabeherak alde batera utzita, eta gaineratzen du museo bakoitzaren patronatua dela bere kargura dituen altxorrei komeni zaienaren eta gerta dakiekeenaren inguruko irizpenak emateko organismo egokia. Matrize napoleoniko eta ilustratu argiko iritzi bat, autoritate irizpidean oinarritua; iritzi zentralista inondik inora, baina, noski, beti kontuan hartzeko modukoa. Ongi dago, beraz, patronatuak beren museoetan gordetako artea zaintzeaz, mantentzeaz eta zabaltzeaz arduratzea, baina, jakina, kontua oso bestelakoa da, eta argudioaren zuzentasuna airean gelditzen da, arte objektuak museo batetik bestera eramateaz ari garenean. Izan ere, neurri baten komenigarritasunari edo desegokitasunari buruzko irizpena ezin du ongi eman, hain zuzen ere, neurri hori ez hartzearen onuradun nagusia denak.

Halaxe gertatu zen *Gernika*k Prado museotik Reina Sofia arte zentrora egindako bidaia laburrean. Eta kontua ez da orain gogora ekartzea J.A. Sánchez Asiain buru zuen Prado museoaren patronatuan gertatu zena, agintari eskudunari obedituz onartu behar izan zuenean lekualdatzea. Baina laurehun metro eskas zirenez pasealeku berean, Madrilen bertan, ura ozta-ozta iritsi zen Manzanaresera.

Kontuan hartuta Montesquieuk emandako botere banaketa, bateraezintasun printzipioen benetako oinarria, zilegi da artelan baten lekualdatzeari buruzko azken hitza, Picassoren *Gernika*renean adibidez, artelana gordainuan duen museoaren patronatuaren eta mantentzaile taldearen esku uztea, kontuan hartuta lekualdatzea ez egitearen onuradun nagusia museoa bera dela? Nire ustez, funtzioen bateraezintasun kasu nabarmen bat dugu aurrean, administratibista ino-

rojaría al más ingenuo de los administrativistas. Pero en la cosa artística y cultural abundan quienes mantienen viejas reticencias decimonónicas, basadas en una autoridad no contrastada, y mantenedora de los viejos prestigios de grupo; siempre y cuando sólo a ellos les toque mandar.

En esta misma línea de pensamiento, mantengo la opinión que el simposio que con tanto autobombo ha preparado el Centro de Arte Reina Sofía para los estos días de enero, se ha tratado, evidentemente, de algo más de lo mismo: La conservadora del Museo Reina Sofía, doña Pilar Sedano, organiza una reunión de «adeptos», o a lo más «semiadeptos», para justificar el llamado «informe Sedano», y de este modo evitar cualquiera otra posibilidad de informes técnicos contradictorios, igualmente valiosos, quizá más matizados y posiblemente documentos técnicos que entiendan como viable el traslado del *Guernika,* con todas las garantías razonables de seguridad. Un simposio del tipo de aquellos famosos referendums en los que la conformidad alcanzaba la sospechosa cifra del 95%.

Por ello resulta desde todo punto de vista inaceptable, que se sigan negando los caminos para una elemental objetividad y se intente evitar la elaboración de nuevos criterios más autónomos y libres, que los que puedan presentar los propios interesados en no trasladar el *Guernika*.

Cuando se trata de fundamentar una decisión compleja en el plano político y sobre todo en el cultural, no parece correcto, que sean los custodios y beneficiarios de un concreto depósito artístico, a quienes corresponda dictaminar sobre la conveniencia de su traslado a otro lugar. Ya que con ello, en mi opinión, se corre el riesgo temerario de vulnerar, el primero y más valioso de los principios sobre los que debe de

zoena ere lotsaraziko lukeen anomalia bat. Baina artearen eta kulturaren munduan asko dira antigoaleko itzulinguruetan jarraitzen dutenak, kontrastatu gabeko autoritate batean oinarrituta eta taldeko ospe zaharrak mantenduz, baldin eta haiei bakarrik badagokie agintzea.

Pentsamendu ildo beretik, uste dut Reina Sofía arte zentroak urtarrileko egunetarako horrenbeste autobonboz prestatu duen sinposioan, jakina, gauza bera tratatu dela: Reina Sofia museoaren kontserbatzaileak, Pilar Sedanok, *jarraitzaileen* edo, gehienez ere, *erdi-jarraitzaileen* bilera bat antolatu du, «Sedano txostena» deritzona justifikatzeko, eta, era horretan, txosten tekniko kontraesankorrak, baliotsuak, agian zehatzagoak eta, beharbada, *Gernika* segurtasun berme guztiekin lekualdatzea bideragarritzat jotzen duten agiri teknikoak saihesteko. Hau da, % 95eko adostasun susmagarrira iristen ziren erreferendum ospetsu haien antzeko sinposio bat.

Horregatik, guztiz onartezina da oinarrizko objektibotasun baterako bideak ukatzen jarraitzea eta *Gernika* lekualdatzea interesatzen ez zainenenak baino autonomoagoak eta askeagoak diren irizpide berriak saihesten saiatzea.

Politikaren arloan eta, batez ere, kulturarenean konplexua den erabaki bat oinarritu behar denean, ez dirudi zuzena denik gordailu artistiko jakin baten zaintzaileek eta onuradunek erabakitzea hori beste leku batera eramatea komeni den. Izan ere, horrela, nire ustez, ausarkeriaz kulturaren oinarri izan behar diren printzipioetan lehena eta baliotsuena urratzeko arriskua dago, kultura zentzu zabalenean ulertuta; hots,

fundamentarse la cultura, entendida en su sentido más amplio, el de la libertad de juicio y consiguientemente el principio de incompatibilidad.

A nadie se le oculta que el traslado de obras de arte, y su cuidado, pertenecen a las categorías más complejas de una política cultural, pero como muy bien razonaba Tusell, parece que ahora en España, una vez más, se ha actuado de manera manifiestamente mejorable, y eso que seguimos sin querer formular demasiadas preguntas sobre los porqués y las responsabilidades de tan repentinos deterioros, en una obra de arte que sólo tiene sesenta años de edad.

Enero, 1998

iritzi askatasunarena eta, ondorioz, bateraezintasun printzipioa.

Bistan dago artelanen lekualdatzea eta zaintza politika kultural baten kategoriarik konplexuenetakoak direla, baina, Tusellek oso ongi arrazoitzen zuen moduan, badirudi orain Espainian, beste behin ere, nabarmen hobetu daitekeen era batean jardun dela, eta are gehiago kontuan hartuta oraindik ez dugula galdera gehiegi egin izan nahi hirurogei urte baino ez dituen artelan batek bat-batean kalteak jasan izanaren zergatiei eta erantzukizunei buruz.

1998, urtarrila

# Corrupción o costumbre

# Ustelkeria ala ohitura

- Urbanismo de tinieblas.
- ¿Corrupción o costumbre?
- Apostillas a una sentencia.
- Ética, Obra Pública y Urbanismo.
- Del fiasco del «ladrillo» a la desesperanza social.

- Iluntasunaren hirigintza.
- Ustelkeria ala ohitura?
- Ohar gehigarriak epai bati.
- Etika, Herri Lanak eta Hirigintza.
- «Adreilu»aren iruzurretik etsipen sozialera.

## Urbanismo de tinieblas

El desarrollismo urbanístico del llamado «milagro español» durante los períodos menos ajetreados del franquismo, constituyó una fuente de corruptelas generalizadas que quedó cortada de raíz con la constitución de los primeros ayuntamientos democráticos. Fueron momentos de euforia en los que creímos que se había terminado para siempre con la heterodoxa utilización del potencial urbano y sus propios procesos constructivos, como fuentes de financiación de unos ayuntamientos depauperados. En cualquier caso totalmente al margen de la racionalidad económica y la práctica democrática.

Bastaron muy pocos años para que las aguas fueran volviendo poco a poco a su «cauce natural» o como comentaba un viejo arquitecto ex director general de Arquitectura en el Gobierno Central, para que el «plomo vuelva a situarse en el fondo, naturalmente». Lo que antes «sólo» servía para financiaciones furtivas y algún otro tipo de favores hacia los más allegados al régimen imperante, ahora, en períodos democráticos se ha generalizado mediante el uso extensivo y opaco de las llamadas «recalificaciones urbanísticas». Una manera «legal» de emitir moneda desde los municipios e instituciones locales.

Si el «valor de los terrenos» queda fijado por su calificación en el correspondiente Plan Urbanístico es evidente que la figura del Plan General de Urbanismo, o en su caso de la Norma Subsidiaria Municipal representan, junto con la aprobación del Presupuesto anual los documentos técnico-políticos por los que se regulan los grandes aspectos económicos con su secuela de plusvalías y minusvalías. De ahí que resulte fundamental la «luz y taquígrafos», inherente a toda democracia que se precie, como garantía de la claridad, inteligibilidad y buena factura en la elaboración técnica y aprobación política,

## Iluntasunaren hirigintza

*Espainiako miraria* deritzoneko desarrollismo urbanistikoa, frankismoaren garai lasaienetan, ustelkeria iturri orokortua izan zen, baina errotik moztuta geratu zen lehen udal demokratikoak eratu zirenean. Euforia uneak izan ziren, eta uste izan genuen betiko amaitu zela hiri potentzialaren eta bere eraikuntza prozesuen erabilera heterodoxoa, udaletxe pobretuen finantziazio iturri gisa. Nolanahi ere, arrazionaltasun ekonomikoa eta jardunbide demokratikoa alde batera utzita.

Oso urte gutxi behar izan ziren urak pixkanaka-pixkanaka bere *berezko ibilgura* itzultzeko, edo Gobernu Zentralean arkitekturako zuzendari nagusi izandako arkitekto zahar batek esan zuen moduan, «beruna berriz ere hondoan kokatzeko, bere kabuz». Lehen *soilik* finantzaketa ezkuturako eta agintzen zuen erregimenaren gertukoenei beste mesede batzuk egiteko balio zuena, orain, demokrazia garaietan, orokortu egin da *hirigintza birkalifikazio* deritzona luze eta zabal eta modu opakoan erabiliz. Udalerriek eta tokiko erakundeek moneta jaulkitzeko *legezko* modua bat.

*Lursailen balioa* dagokion hirigintza planean duen kalifikazioaren arabera finkatzen bada, argi dago hirigintzako plan orokorrak edo, hala badagokio, udalen arau subsidiarioak, urteko aurrekontua onartzearekin batera, alderdi ekonomiko handiak arautzen dituzten dokumentu tekniko-politikoak direla, ondorio dituzten gainbalioekin eta minusbalioekin. Hori dela eta, demokrazia on orori berez dagokion moduan, ezinbestekoa da argia izatea, lanketa teknikoaren eta onarpen politikoaren argitasuna, ulergarritasuna eta egikera ona bermatzeko, hirigintzako dokumentuetan

tanto de los documentos urbanísticos como de los presupuestarios. Pues bien no hay texto más difícil de entender que una ley de presupuestos ni maletón más infumable, para el común de los ciudadanos, que un Plan General de Urbanismo. Y es principio de aplicación general que allí donde reina la oscuridad documental los pícaros se mueven con una especial soltura. Es evidente que las livianas «*addendas*» de las leyes de Acompañamiento del Presupuesto se aprovechan para introducir en los cauces de la legalidad y desde los aledaños del poder, las grandes operaciones políticamente más dudosas y económicamente más suculentas.

nahiz aurrekontuei buruzkoetan. Bada, ez dago aurrekontuei buruzko lege bat baino testu ulergaitzagorik, ez eta hirigintzako plan orokor bat baino maletatzar eramanezinagorik ere, herritar guztientzat. Eta orokorrean aplikatzen den printzipioa da dokumentu ilunak nagusi diren lekuetan pikaroak bereziki erraz ibiltzen direla. Argi dago aurrekontuen lege osagarrien *addenda* arinak aprobetxatzen direla politikoki zalantzagarriagoak eta ekonomikoki guriagoak diren eragiketa handiak legezkotasunaren bideetan sartzeko, boterearen inguruetatik.

Pues bien bajando al nivel local es en las llamadas «Recalificaciones urbanísticas» donde bajo simplificados expedientes y otros minúsculos atajos se da cobertura jurídica a operaciones de una enorme enjundia económica. Es el mecanismo por el que en determinada área se aumentan el número de viviendas previamente aprobadas o se cambia un uso económicamente más parco (rústico) por otro mucho más suculento (urbano residencial) etc. Y todo ello bajo cobertura técnica en extremo liviana y limitada, donde resulta fácil enmascarar la realidad urbana general. No siempre estas Modificaciones al Plan, por las que se recalifican suelos y en definitiva por las que se «emite moneda» son estudiadas adecuadamente desde una perspectiva general y con el mínimo de garantías que aseguren el restablecimiento de los equilibrios urbanísticos. Es evidente que son modificaciones puntuales al Plan General Urbanístico que marcan un campo abonado donde se mueven con soltura los intereses ocultos que conducen con cierta facilidad hacia corruptelas, corrupciones y otras cosas de mayor y peor alcance.

Bada, tokiko mailara jaisten bagara, *hirigintza birkalifikazio* deritzenen bidez ematen zaie estaldura juridikoa mami ekonomiko oso handiko eragiketei, espediente sinplifikatuen eta beste lasterbide ñimiño batzuen bidez. Mekanismo horren bidez, eremu jakin batean, aldez aurretik onartutako etxebizitzen kopurua areagotzen da, edo ekonomiko urria den erabilera bat (landa erabilera) aldatu eta, horren ordez, askoz ere guriagoa den bat (bizitegitarako hiri erabilera) jartzen da, eta abar. Eta hori guztia estaldura tekniko oso arinaren eta mugatuaren pean egiten da, horrela erraza baita hiri errealitate orokorra mozorrotzea. Lurzoruak birkalifikatzeko eta, azken batean, *moneta jaulkitzeko* balio duten planaren aldaketa horiek ez dira beti behar bezala aztertzen, ikuspegi orokorretik eta hirigintza orekak berrezartzeko gutxieneko bermeekin. Argi dago hirigintzako plan orokorren barruko aldaketak eremu ongarritua direla ezkutuko interesak nahieran ibiltzeko, eta ustelkeria eta irismen handiagoko eta okerragoko beste gauza batzuk ekartzen dituztela, nahiko erraz gainera.

Lo irregular del método y la dificultad de su control democrático hacen de estas recalificaciones urbanísticas el *leit motiv* del urbanismo municipal cotidiano.

Metodoaren irregulartasuna eta demokraziatik kontrolatzeko zailtasuna direla eta, hirigintza birkalifikazio horiek eguneroko udal hirigintzaren *leit motiv*

Se comienza por hacer estas operaciones A.M.D.G *(ad maiore Dei gloriam),* se continua por hacerlas en glorificación del pueblo llano y de la comunidad. Resulta fácil pasar a realizarlas en gloria o beneficio de la propia facción o partido, e inexorablemente se acaban haciendo en beneficio de grupo organizado o individuos sin escrúpulos. Ese es el itinerario de la degradación urbanística que vamos conociendo.

Este es el resultado del *reality show* en el que se ha convertido hoy la construcción de la ciudad bajo el «liberalismo globalizador». Es la nueva iconografía arquitectónica que siendo incapaz de crear valores civiles de cierta urbanidad, gasta sus energías en fuegos de artificio y otros recursos mediáticos, a la búsqueda de los grandes negocios inmobiliarios, carentes de las cualidades mínimas y exigencias de cultura para la construcción democrática de la ciudad.

Junio, 2003

bihurtzen dira. Hasieran, eragiketa horiek AMDG (*ad maiore Dei gloriam*) egiten dira, eta, ondoren, herri xehea eta komunitatea loriatzeko egiten dira. Erraza da gerora norberaren fakzioaren edo alderdiaren lorian edo mesedetan egiten hastea, eta, azkenean, ezinbestean, talde antolatu baten edo eskrupulurik gabeko norbanakoen onurarako. Horixe da ezagutzen ari garen hirigintza degradazioaren ibilbidea.

Gaur egun, hori da hiria *liberalismo globalizatzailearen* pean eraikitzeko *reality show*aren emaitza. Ikonografia arkitektoniko berri bat da, nolabaiteko urbanitateko balio zibilak sortzeko gai ez denez, bere indarrak su artifizialetan eta beste baliabide mediatiko batzuetan gastatzen dituena, hiriaren eraikuntza demokratikorako gutxieneko dohainik eta kultura eskakizunik betetzen ez duten higiezinen negozio handien bila.

2003, ekaina

## ¿Corrupción o costumbre?

No hay conversación, periódico, programa televisivo ni cualquier otro modo de comunicarse, que no enuncie el término corrupción una infinidad de veces por jornada. Es como un continuado «miércoles de ceniza» de aquellos preludios cuaresmales, en los que nos recordaban, desde el templo y hasta la saciedad, que «polvo eres y en polvo te convertirás». Todos corruptibles luego todo corrupción. También por aquellos tiempos lo único incorrupto por excelencia en España era el brazo de Santa Teresa, museística y adorablemente custodiado por su Caudillo en aquel pardo refugio de crueldad. Si en tamaña y evidente atmósfera corrupta quedaba a salvo, cuando menos, un brazo en su relicario, ¿qué nos pasa hoy?, que apenas vislumbramos una sola brizna de vida sana. Al igual que no hubo cinco justos en Sodoma, el número mínimo necesario para salvarla de la destrucción. ¿Los habrá en la España de hoy? ¿No estaremos nosotros mismos corrompiendo el lenguaje cuando tratamos de la corrupción? O es que Errejón, Botín-Pujol, Torres-Urdangarín, Rato, Bárcenas y otros tantos son lo mismo, como pudiéramos colegir de una lectura apresurada de «los papeles de cada día», las tertulias de radio o tras permanecer largo rato inermes contemplando el aura de la televisión.

Ante un hecho que se nos aparece con tal frecuencia, extensión y gravedad, sin duda distintas en intensidad, quizá fuera bueno adentrarnos en la disquisición, sobre si de lo que hablamos con tal generalidad, es, al menos en alguna de sus acepciones, corrupción o costumbre. Todo para huir de ese, joven, tecnocrático y equívoco término «sistémico», cuando queremos decir de modo suave y sasi-ilustrado: todo la misma porquería.

En un país en el que muchas leyes son técnicamente tan mediocres y las infinitas regulaciones, casi todas, pare-

## Ustelkeria ala ohitura?

Ez dago *ustelkeria* terminoa egunean hamaika aldiz aipatzen ez duen solasaldi, egunkari, telebistako programa edo bestelako komunikazio modurik. Garizumaren atariko *hausterre egun* amaigabe baten modukoa da, tenplutik aspertu arte «hautsa zara eta hauts bihurtuko zara» gogorarazten zigutenean bezala: denok ustelgarriak gara, beraz, dena ustelkeria da. Garai hartan, Espainian, Santa Teresaren besoa zen usteldu gabe zegoen gauza bakarra, ankerkeriaren babesleku arre hartan bere *caudilloak* museistikoki eta maitagarriro zainduta. Giro nabarmenki ustel hartan beso bat behintzat salbu geratzen bazen bere erlikia ontzian, zer espero dezakegu gaur egun, bizitza sanoaren izpi bakar bat ere ikusten ez dugularik? Sodoman ez zuten izan bosteko justurik, suntsipenetik salbatzeko gutxienekoa, baina, egongo da akaso gaurko Espainian? Ez al gara gu geu hizkuntza usteltzen ariko ustelkeriari buruz ari garenean? Izan ere, ez ote dira gauza bera Errejón, Botín-Pujol, Torres-Urdangarín, Rato, Bárcenas eta beste horrenbeste, *eguneroko paperak* presaka irakurrita, irratiko solasaldietan edo telebistako aurari begira luzaroan egon ostean ondorioztatu dezakegun moduan?

Halako maiztasun, hedadura eta larritasunaz agertzen zaigun gertakari baten aurrean, intentsitate ezberdinez dudarik gabe, agian ona litzateke eztabaidari ekitea, ea horren modu orokorrean aipatzen dugun hori, adieraren batean behintzat, ustelkeria ala ohitura den. Eta dena hitz *sistemiko* gazte, teknokratiko eta dudazko horretatik ihes egiteko, modu leun eta sasi ilustratuan esan nahi dugunean «dena txerrikeria bera da».

Lege asko teknikoki oso kaskarrak diren herrialde honetan, erregulazio amaigabeekin, badirudi ia denak

cen redactadas para saltárselas a «la torera», mal podemos lamentarnos que la trampa, el olvido culpable, la corruptela y la más abyecta de las corrupciones perpetradas «bajo organización industrial», no constituyan el relato cotidiano del «patio de monipodio». La figura del pícaro siempre ha gozado de un amplio prestigio en España. ¿Dónde si no, se articuló aquella proposición: que ellos hagan las leyes que ya haré yo los reglamentos?

Algunos ríos de los que bajan a Madrid, capital del Estado, y a los otros «madriles» de provincias, sobre todo las del Levante español, bajan muy revueltos y a la pesca fluvial ahora llamamos «ingeniería jurídica» e «ingeniería financiera». Mientras tanto a un humilde y hambriento vagabundo por necesidad, en cuanto le pillan hurgando en un basurero le condenan por ladrón. Y lo que aún es peor: por su mal gusto.

Lo más grave de este país es que los mayores robos se perpetran desde los sótanos institucionales y desde el Boletín Oficial, con sus recovecos y sus correcciones de errores. Redes como gürtel, eres y púnica; mafias como las de los grandes Bancos europeos y algunas Cajas españolas; «bromas de alto coste» como las de los aeropuertos del Levante, las radiales de Madrid y los 1.350 milloncitos de indemnización exprés, a una iniciativa errónea y con atisbos de trampa en el camino siempre recorrido en las alcobas del poder, no hacen sino desmoralizar a la gente, masacrar conceptualmente a la pretendida nación y propiciar que todo el que pueda y tenga alguna capacidad organizativa, trate de escapar o bien poner «patas arriba» el cortijo de las mil cabezas. Y si uno no puede o no quiere organizarse, la inhibición y el sarcasmo como solución personal.

De la efectividad judicial, con sus laberintos procedimentales, el abuso de los tiempos, el escalafón de

jaramonik ere ez egiteko idatzita daudela, eta, tamalez, esan dezakegu tranpa, ahanztura erruduna, gehiegikeria eta org*anizazio industrialaren pean* egindako ustelkeriarik xumeena *Monipodioren patioaren* eguneroko kontakizuna dela. Pikaroaren figurak ospe handia izan du beti Espainian. ¿Non artikulatu zen, bestela, «haiek egin ditzatela legeak, nik egingo ditut araudiak»?

Madrilera, Estatuko hiriburura, jaisten diren ibai batzuk, eta probintzietako beste *madriletara* jaisten direnak, batez ere Espainiako Levantekoak, oso nahasiak datoz, eta, orain, ibaietako arrantzari *ingeniaritza juridikoa* eta *ingeniaritza finantzarioa* esaten diogu. Bitartean, beste aukerarik ez duen eskale apal eta goseti bat, zabor ontzi batean arakatzen harrapatu orduko, lapurragatik kondenatzen dute. Eta are okerragoa dena: gustu txarra izateagatik.

Herrialde honetan, gauzarik larriena da lapurretarik handienak erakundeen sotoetatik eta aldizkari ofizialetatik egiten direla, beren zokoekin eta akatsen zuzenketekin. Gürtel, ERE eta Púnica sareak; Europako banketxe handien eta Espainiako kutxa batzuen mafiak; *txantxa garestiak*, hala nola, Levanteko aireportuena edo Madrilgo erradialena; eta 1.350 milioitxo euroko kalte-ordaina espresa ekimen desegoki batentzat, tranpa zantzuak dituena beti boterearen logeletan egiten den bidean. Horiek denek jendea desmoralizatu besterik ez dute egiten, nazio amestua kontzeptualki sarraskitu, eta eragiten dute antolatzeko gaitasuna duen edo izan dezakeen oro mila buruen kortijotik ihes egiten edo hura *hankaz gora* jartzen saiatzea. Eta norbaitek ezin badu antolatu edo ez badu antolatu nahi, inhibizioa eta sarkasmoa erabiltzen ditu irtenbide pertsonal gisa.

Eraginkortasun judizialaz, haren prozeduren labirintoez, denboraren abusuaz, epaileen mailakatzeaz eta

los jueces, y sus filtraciones interesadas a los «medios de comunicación más justicieros», quizá, por el momento, sea mejor no hablar.

*komunikabide justiziazaleenetara* egindako filtrazio interesatuez, agian, hobe oraingoz ez hitz egitea.

Con tanto barullo no es fácil que podamos afrontar a fondo los grandes temas colectivos a resolver. El cumplimiento efectivo del derecho al trabajo, el derecho personal a la vivienda, el no decaimiento de una sanidad por lo demás valiosa, la educación a todos los niveles de la sociedad como «impulso vital imprescindible», una vez satisfechas las condiciones del «*primum vívere*» para adentrarse en las del «*deinde philosophare*». Por ello es urgente y necesario terminar con el barullo. Para lo cual tienen un papel primordial e intransferible los medios de comunicación social. ¿Serán ellos capaces de hacerlo si va en contra de alguno de sus intereses inmediatos?

Horrenbesteko zalapartarekin, ez da erraza konpondu beharreko gai kolektibo handiei sakon ekitea. Lanerako eskubidea eta etxebizitza eskubidea benetan betetzea, osasungintza baliotsua ez zapuztea, hezkuntza gizartearen maila guztietan *ezinbesteko bizi bultzada* izatea, *primum vívere* baldintzak bete ondoren *deinde philosophare* baldintzetan barneratzeko. Horregatik, premiazkoa eta beharrezkoa da iskanbila amaitzea. Eta horretarako, gizarte komunikabideek zeregin garrantzitsua eta besterenezina dute. Gai izango ote dira hori egiteko, haien berehalako interesen baten aurka badoa?

O se vuelve con prontitud a los postulados de la división de poderes, de las cinco grandes columnas del poder en el mundo actual: financiero, mediático, judicial, ejecutivo y legislativo, o va a costar mucho, y quizá no resulte posible, erradicar, hasta unos niveles soportables, la corrupción. Esta se hará costumbre, se convertirá en hábito para el que pueda hacerlo, como hasta hoy, con enorme impunidad y abonará el argumentario cotidiano para el cainismo y la carnicería en los que pautadamente vayamos destruyéndonos los unos contra los otros. Hasta la aniquilación total.

Ez bagara azkar bueltatzen botere banaketaren postulatuetara, gaur egungo munduko boterearen bost zutabe handietan (finantzarioa, mediatikoa, judiziala, exekutiboa eta legegilea), asko kostako da, eta agian ezin izango da lortu, ustelkeria maila jasangarri batzuetaraino jaistea. Ohitura bihurtuko da, gaur arte bezala inpunitate handiarekin egin dezakeenarentzat, eta kainismorako eta haragikeriarako eguneroko argudioak elikatuko ditu, non, bata bestearen aurka, suntsituz joango garen. Erabat desagertu arte.

Por otro lado y en este momento, o bien diseccionamos cuidadosamente la amplia casuística de los transgresores, separando con claridad los que actúan solos, de quienes constituyen «legión». No vaya a ser que metamos en el mismo saco un incumplimiento fiscal prolongado; el cobro de un trabajo de los tipificados en la universidad como «de investigación», por hacerlo fuera de sitio y en horario a conveniencia, con el desfalco

Bestalde, une honetan, kontuz disekzionatu beharko dugu transgresoreen kasuistika zabala, bakarrik jarduten dutenak eta *legio* direnak argi eta garbi bereiziz. Ez ditzagun zaku berean sartu denbora luzez zergak ez ordaintzea; unibertsitatean *ikerketa lan* gisa sailkatutako lan bat kobratzea, tokiz kanpo eta komeni den orduan egiteagatik, aurrezki erakunde baten funtsak sistematikoki desbideratuta; kotizazio indi-

sistemático de una entidad de ahorro; la alteración de los índices de cotización en los santuarios del mercado; la recalificación interesada y onerosa de un terreno o la liquidación final de una obra pública multimillonaria. No todos son iguales y ya que el eufemismo estúpido de «tolerancia cero» ha resultado contraproducente y de nula efectividad, vayamos poco a poco, pero con voluntad de resolver el entuerto en el que estamos metidos. A cada cual conforme a su conducta.

No vaya a ser que como «todos tenemos o hemos tenido posiblemente alguna conducta dudosa» en cuando interese al «maligno», o al poder de turno, escudriña en las hemerotecas del comportamiento y culpando con alboroto una evasión del IVA en la factura del fontanero doméstico, difumina el desfalco de los de Lehman y sus hermanos de las SICAV de turno. Para eso están las escuelas de negocios y las maneras de la publicidad imperante, para adiestrar a los jabalíes de turno. Y a eso le llaman política. ¡Donde hemos llegado!

Será tarea necesaria apartar pronto a quienes nos han engañado continuadamente, a los autores de los desfalcos sean de la cuantía que fueren. A los primeros con los votos y a los otros con los tribunales. Y con una clase política renovada, despejado el campo contaminado, legislar y depurar la actual ley, sin prepotencias de la mayoría ni demasiadas contradicciones; y así cumplir todos con normalidad; gobernar sin mentiras ni propagandas envilecedoras y abusivas; y sobre todo juzgar conforme a una ley limpia, sin vedettes, ni filtra-papeles, sin partidismos y con prontitud. Sólo así se podrán amainar los instintos depravados del extenso tipo de los ventajistas bien asentados entre los laberintos y pliegues de tanto Boletín Oficial.

Noviembre, 2014

zeen aldaketa merkatuko santutegietan; lursail baten birkalifikazio interesatu eta garestia; edo milioi askoko obra publiko baten azken likidazioa. Denak ez dira gauza bera, eta *zero tolerantziaren* eufemismo inozoa kaltegarria eta eraginkortasunik gabea izan denez, goazen pixkanaka, baina bidegabekeria hau konpontzeko borondatearekin. Bakoitza bere jokabidearen arabera.

Izan ere, «denok dugu edo izan dugu zalantzazko jokabideren bat» esanez, ez dezala *gaiztoak* edo betiko botereak, interesatzen zaionean, jokabidearen hemeroteketan arakatu eta, iskanbilaz, iturginari leporatu fakturan BEZa ordaindu ez izatea, era horretan lausotzeko Lehmanekoen eta SICAVetako bere senideen gezurrak. Horretarako daude negozio eskolak eta publizitate modu nagusiak: basurdeak trebatzeko. Eta horri politika deitzen diote. Horixe bakarrik behar genuen!

Laster baztetu beharko dira etengabe engainatu gaituztenak, funtsak desbideratu dituztenak, zenbatekoak gorabehera. Lehenengoak botoekin, eta besteak auzitegietan. Eta politikari berritu batzuekin, kutsatutako eremua garbituta, egungo legeak garbitu eta lege berriak egin, gehiengoaren harrokeriarik eta kontraesan handiegirik gabe; eta horrela, denok normaltasunez bete; gezurrik eta propaganda gaizto eta neurrigaberik gabe gobernatu; eta, batez ere, lege garbi baten arabera epaitu, *vedetterik*, paper isurlerik edo alderdikeriarik gabe eta bizkor. Horrela bakarrik lasaituko dira aldizkari ofizialen labirintoetan eta tolesturetan ongi finkatuta dauden arrakero ugarien sen makurrak.

2004, azaroa

## Apostillas a una sentencia

Tras los muchos comentarios a una sentencia largamente esperada, a lo largo de más de cinco años de espectáculo mediático judicial: con su juez instructor y fiscal tan locuaces, con los impenetrables secretos del sumario, con los denigrantes paseíllos de los investigados y sobre todo con la inefable presencia de unos justicieros al modo de «Manos limpias». En el proceso Torres-Urdangarín pienso que hay un par de omisiones conceptuales que sería bueno esclarecer para ir algo más al fondo en unos hechos que aparecen como censurables y dignos de castigo. Ni una sola referencia a la Escuela de Negocios en la que los dos principales condenados, alumno y profesor, a la sazón en buena concomitancia y armonía, establecieron sus «lazos de fratría» que hoy podemos confirmar como el «huevo de la serpiente», de unos hechos probados y con desenlace tan poco ejemplar. Impostación universitaria, en la que los tintes empresariales, han venido a sustituir con prepotencia al «natural mundo universitario», cierta y necesariamente más próximo a las humanidades y la filosofía. Antes buscar la verdad que el beneficio, ya no es una proposición de actualidad y prestigio.

Tampoco aparece, en mi opinión, referencia bastante hacia el fenómeno olímpico y el de las grandes conmemoraciones deportivas y universales, con sus «entretelas» que saltan con facilidad a la crónica mediática de las componendas turbias, propias de Estados o grandes corporaciones. Esas que tantas veces encierran episodios de corrupción y corruptelas, como para pensar que su vicio está mucho más en la propia esencia «puro circense» del espectáculo, que en una eventual circunstancia excepcional y desvariada.

A estos dos ingredientes categóricos en el fundamento del caso Nóos (mente o intelecto en su etimología

## Ohar gehigarriak epai bati

Luzaroan itxarondako epai bati egindako iruzkinen ondoren, bost urte baino gehiagoko ikuskizun mediatiko judizialean: instrukzio epaile eta fiskal hitzontziak, sumarioaren sekretu itxiak, ikertuen paseotxo iraingarriak, eta, batez ere, Manos Limpiasen moduko justiziazaleen presentzia ezin azalduzkoa. Nire ustez, badira pare bat omisio kontzeptual, argitzea komeni denak, gaitzesgarri eta zigorgarri gisa agertzen diren gertaera batzuetan sakondu ahal izateko. Ez da egin bi kondenatu nagusiek, ikaslea eta irakaslea, garai hartan harreman onean eta harmonia, beren *fratria loturak* ezarri zituzten negozio eskolari buruzko aipamen bakar bat ere, nahiz eta gaur egun esan dezakegun hori izan zela frogatu diren eta batere eredugarria ez den amaiera izan duten gertakari batzuen *sugearen arrautza*. Unibertsitate inpostazioa, non enpresa kutsuek harrokeriaz ordezkatu duten *unibertsitate mundu naturala*, egiazkoa eta halabeharrez giza zientzietatik eta filosofiatik hurbilago dagoena. Onuraren aurretik egia jartzea jada ez da gaurkotasun eta izen handiko proposamen bat.

Nire ustez, halaber, ez dira behar beste aipatzen fenomeno olinpikoa eta kirol ospakizunen eta ospakizun unibertsalen fenomenoa, beren *erraiekin*, estatuen edo korporazio handien berezko trikimaina uherren kronika mediatikora erraz jauzi egiten dutenak. Hainbat aldiz ustelkeria eta gehiegikeriak ezkutatzen dituzte, eta, pentsa genezake horien bizioa balizko zirkunstantzia ezohiko eta aldrebes batean baino gehiago dagoela ikuskizunaren *zirku* esentzia puruan.

Nóos kasuaren oinarrian dauden bi osagai kategoriko horiei (*burua* edo *adimena* grekerako etimolo-

griega; ¡tiene bemoles!), se ha añadido el variopinto muestrario del mayor o menor aprecio de los españoles por la forma familiar de la Jefatura del Estado. Con todo ello se ha entretejido en el gran puchero del pot-pourri mediático un magnífico caldo de cultivo para el éxito futuro del denostado e impreciso populismo que nos invade, en detrimento de una rectitud institucional. ¡De qué nos quejamos! Lo de Trump no pasa de ser un pequeño e incipiente corolario.

Febrero, 2017

gian; alajaina!), espainiarrek Estatuko buruzagitzaren familia formari dioten estimu handiaren ala txikiaren askotariko laginak gehitu zaizkie. Horrekin guztiarekin, *pot-pourri* mediatikoaren lapiko handian saltsa bikaina sortu da, inbaditzen gaituen populismo iraindunak eta zehaztugabeak etorkizunean arrakasta izan dezan, erakundeen zuzentasunaren kaltetan. Zertaz kexatzen gara! Trumpena ez da korolario txiki eta hasiberri bat baizik.

2017, otsaila

## Ética, Obra Pública y Urbanismo

Los recientes acontecimientos por los que, otra vez más, afloran al hedor público, graves indicios de pura corrupción política y social en torno al urbanismo, sólo pueden mover hacia el más profundo de los desánimos. Porque dudamos mucho que estos vergonzosos indicios actúen al modo de una catarsis colectiva en esa materia. Catarsis de la que todos estamos muy necesitados, también en estas tierras. La anteúltima bocanada de fango en España fue con motivo de las elecciones a la Comunidad Autónoma de Madrid. La siguiente podría ser mañana mismo y en cualquier parte de la «piel de toro», aunque es más previsible sea en alguna de las áreas veraniegas y costeras del levante español donde el desenfreno edilicio toca su zenit.

Resulta una evidencia recurrente que los escándalos de financiaciones extrañas, sobre todo de partidos políticos, en todo el contexto europeo, desde tiempos inmemoriales, pasan por las adjudicaciones de la obra pública y por las recalificaciones urbanísticas.

Las quejas mayoritarias de los más variados *Ombusman* de nuestro sistema democrático también se refieren al urbanismo y la calidad de la construcción como los motivos que acumulan un mayor número de quejas. ¿Qué es lo que sucede? para que este estado de cosas se prolongue por tanto tiempo y con frecuencia periódica afloren para espanto colectivo.

Dos fenómenos se entrecruzan. De un lado, en torno a la disciplina del urbanismo y junto a lo categóricamente torpe de su ordenación jurídica se agitan ingentes intereses económicos, sociales, culturales y políticos. De otro la financiación pública, sobre todo de los ayuntamientos y entes locales, es un saco sin aparente fondo, nunca bien resuelto. Por ello todas las «inge-

## Etika, Herri Lanak eta Hirigintza

Azken gertaerek, berriz ere hirigintzaren inguruko ustelkeria politiko eta sozial hutsaren zantzu larriengatik kirats publikoa areagotu dutenek, desanimorik sakonena baino ezin dute bultzatu. Izan ere, zalantza handiak ditugu zantzu lotsagarri horiek gai horretan katarsi kolektibo baten antzera jokatuko ote duten. Eta denok behar dugu katarsi hori, baita inguru hauetan ere. Espainian, azken-aurreko lokatz plasta Madrilgo Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan izan zen. Hurrengoa bihar bertan izan daiteke, *zezen larruaren* edozein tokitan, nahiz eta litekeenagoa den Espainia ekialdeko kostaldean izatea, udatiarrak biltzen diren eremuren batean, non eraikuntza neurrigabeak zenita jotzen duen.

Behin eta berriz ikusten da finantziazio arraroen eskandaluak, batez ere alderdi politikoenak, Europa osoan, antzina-antzinatik, obra publikoaren esleipenean eta hirigintza birkalifikazioetan gertatzen direla.

Gure sistema demokratikoko *Ombusman* askotarikoen kexa gehienak ere hirigintzari eta eraikuntzaren kalitateari buruzkoak dira. Denon harridurarako, gauzen egoera hori horrenbeste luzatu eta aldizka ager dadin, zer ari da gertatzen?

Bi fenomeno elkar gurutzatzen dira. Alde batetik, hirigintzaren diziplinaren inguruan, eta haren antolamendu juridiko zeharo traketsagatik, interes ekonomiko, sozial, kultural eta politiko izugarriak sortzen dira. Eta bestetik, finantzaketa publikoa, batez ere udalena eta tokiko erakundeena, itxuraz hondorik ez duen zakua da, inoiz konpontzen ez dena. Horregatik,

nierías financieras municipales» pugnan por abrirse paso a través de las tasas por licencias de edificación, por las recalificaciones urbanísticas de los terrenos y por la multiplicación de las actividades urbanas (más viviendas, más locales, más pabellones etc.) en un territorio limitado, cual si fuera la milagrosa multiplicación de los panes y los peces.

Los primeros en aplicar el principio de la prepotencia en materia de urbanismo han sido los grandes y más poderosos clubes de fútbol. Ni el Real Madrid ni el Espanyol de Barcelona ni nuestros más próximos Athletic y Real Sociedad, entre otros, han estado desatentos al maná de las recalificaciones urbanísticas. Luego vienen los programas de «vivienda social» o de la otra, ocupando terrenos de las grandes empresas y ministerios estatales (Ferrocarriles, Puertos, Cuarteles, etc.) poseedores de ingentes superficies de terreno en los centros de las ciudades. El siguiente escalón lo constituyen las recalificaciones espúreas de tantas áreas rurales sólo aptas para la agricultura o la explotación forestal que han pasado a formar parte de la oferta de suelos urbanos en los que, por su marginalidad, apenas resulta posible construir un «correcto trozo de ciudad». Y así hasta llegar a los casos de pura corruptela administrativa por la que se permite construir a Juan lo que a Pedro le está prohibido. Siempre que antes pase por «taquilla». En unos casos el «peaje» es hacia lo colectivo, en otros a favor del grupo o facción, menos edificante resulta cuando el peaje se aplica a intrigas partidistas, y al final del descenso a los infiernos de la administración del urbanismo: Marbella, Itxaseder.

Es necesario y urgente que el principio de la «separación de poderes» tan bien enunciado por Montesquieu, pero tan en desuso en estos tiempos de intensa banalización de la ética pública en todos sus niveles, se aplique al urbanismo y a la construcción de la ciu-

*udal ingeniaritza finantzario* guztiak saiatzen dira aurrera egiten eraikuntza lizentzien tasetan, lursailen hirigintza birkalifikazioetan eta hiri jarduera ugarituan (etxebizitza gehiago, lokal gehiago, pabiloi gehiago, etab.) barrena, lurralde mugatu batean, ogien eta arrainen miraria bailitzan.

Hirigintzan nagusikeriaren printzipioa aplikatzen lehenak futbol talde handi eta boteretsuenak izan dira. Ez Real Madrilek, ez Bartzelonako Espanyolek, ezta, hurbilago, gure Athleticek eta Realak ere, besteak beste, ez diote muzin egin hirigintza birkalifikazioen manari. Eta hor daude ere *etxebizitza sozialaren* edo bestelakoaren programak, hirien erdigunean azalera handiak dituzten estatuko enpresa eta ministerio handien (Trenbideak, Portuak, Kuartelak, etab.) lurretan. Hurrengo mailan daude nekazaritzarako edo baso ustiapenerako bakarrik balio duten landa eremu ugarien birkalifikazio faltsuak; izan ere, hiri lurzoruen eskaintzaren parte izatera igaro diren arren, haietan ia ezin baita eraiki *hiri zati egoki bat*, marjinalak direlako. Eta horrela, gehiegikeria administratibo hutsera iritsi arte, Pedrori debekatua zaiona Juani eraikitzen utziz. Baldin eta lehenago *leihatilatik* pasatzen bada. Batzuetan *bidesaria* kolektiboaren aldekoa da, beste batzuetan taldearen edo fakzioaren aldeko, baina, bidesaria azpijoko alderdikoietarako denean, ez da horren ona eta, azkenean, hirigintzaren administrazioaren infernura jaisten gara: Marbella, Itxaseder.

Beharrezkoa eta premiazkoa da *botere banaketaren* printzipioa, Montesquieuk oso ongi adierazia, baina oso gutxi erabiltzen dena etika publikoa maila guztietan hutsaltzen ari den garai hauetan, hirigintzari eta hiriaren eraikuntzari aplikatzea. Ez da komeni hirigin-

dad. No es conveniente que sea el propio municipio en el que se generan las inmensas plusvalías del urbanismo, donde resida el poder administrativo de su propia aprobación. El viejo principio de las incompatibilidades, por las que quien se beneficia de una decisión, no sea en ningún caso el órgano competente para decidirlo, debe de estar en la base de una regeneración urbanística, urgente y necesaria.

Abril, 2006

tzaren gainbalio izugarriak sortzen diren udalerriaren esku egotea horiek onartzeko botere administratiboa. Erabaki baten onuraduna ezin da izan erabaki hori hartzea dagokion organo eskuduna, eta bateraezintasunen printzipio zahar horrek hirigintzaren berroneratze premiazko eta beharrezko baten oinarrian egon behar du.

2006, apirila

## Del fiasco del «ladrillo» a la desesperanza social

Los cuatro principales «activos» de la toxicidad financiera, en el campo del ladrillo parecen ser por orden de su lejanía hacia las auténticas necesidades de la sociedad, los siguientes:

1. Los terrenos, actualmente agrarios o baldíos, clasificados (o recalificados) para urbanizar y que es razonable pensar, no haga ninguna falta se urbanicen en los próximos 50 años, o quizá muchos más. Incluso en muchos lugares costeros resulte urgente «descalificar».
2. Los solares ya urbanizados en los que en ese mismo período de tiempo más vale no edificar inmuebles no vaya a ser que no haya nadie que los pueda comprar. A no ser que se vendan a la nueva casta de ricos del postcomunismo ruso y chino que por el precio de una vivienda puedan además comprar en el mismo lote la nacionalidad española.
3. Las viviendas a medio terminar, por tanto en evidente riesgo de ruina incipiente, que al no hallar las condiciones financieras adecuadas para culminar su edificación, empiezan a conformar conjuntos de profunda expresión surrealista en la periferia de las ciudades y en las naturalezas tanto de montaña como, en una mayor proporción, costeras. Constituyen la plasmación en obra de la soledad y desolación prefiguradas en las pinturas de Sironi, De Chirico y otros maestros de la representación de la melancolía y sus marcos de referencia.
4. Las viviendas ya terminadas en busca de habitante, especie rara en estos tiempos de incertidumbre, desconfianza y desánimo. No es fácil hoy confiar en un futuro mejor ante los continuos engaños a

## *Adreiluaren* iruzurretik etsipen sozialera

Adreiluaren eremuan, badirudi honako hauek direla toxikotasun finantzarioaren lau *aktibo* nagusiak, gizartearen benetako beharretatik urrunen daudenak:

1. Gaur egun nekazaritzakoak edo mortuak diren lursailak, urbanizatzeko sailkatu (edo birkalifikatu) direnak, nahiz eta, zentzuz jokatuz gero, datozen 50 urteetan, edo agian askoz epe luzeagoan, ez legokeen haiek urbanitzatzeko beharrik. Kostaldeko leku askotan, premiazkoa izan liteke *deskalifikatzea* ere.
2. Jada urbanizatutako orubeak, zeinetan, aurreko puntuko epe berean, higiezinik ez eraikitzea komeni den, litekeena baita inork erosi ezin izatea. Non eta ez zaizkion saltzen errusiar eta txinatar postkomunismoko aberatsen kasta berriari, etxebizitza baten prezioan, gainera, lote berean, espainiar nazionalitatea eros dezaten.
3. Erdi bukatuta dauden etxebizitzak, beraz, aurri arrisku nabarmenean daudenak; izan ere, eraikuntza amaitzeko baldintza finantzario egokirik ez dagoenez, surrealismoaren adierazle sakonak diren multzoak osatzen hasi dira hirien kanpoaldean, bai eta mendiko eta, proportzio handiagoan, kostaldeko ingurune naturaletan. Sironi, De Chirico eta malenkoniaren eta bere erreferentzia esparruen irudikapenaren beste maisu batzuen margolanetan irudikatutako bakardadearen eta hondamenaren irudiak dira, obran.
4. Biztanle bila dauden etxebizitza amaituak, baina hori espezie arraroa da ziurgabetasun, mesfidantza eta adorerik ezaren garai hauetan. Gaur egun ez da erraza etorkizun hobe batean konfiantza izatea,

los que nos vienen sometiendo con asiduidad. Lo hacen desde la propaganda y desde la política, que vienen a ser una misma cosa, contando para ello con la inestimable ayuda de los medios de comunicación, que no podemos olvidar hallan en la publicidad y propaganda su principal fuente de sustento.

Ese habitante huidizo que necesita de vivienda no acaba de decidirse a concertar una hipoteca con nuestro flamante, y nunca suficientemente ponderado sistema financiero, no vaya a ser que en el empeño le coloquen unas preferentes, le encajen de matute varios seguros y en el paquete de garantías para acceder al crédito vaya escondida alguna sorpresa que sólo la mentalidad más retorcida, diabólica y desconfiada sería capaz de prever y adivinar. Un corolario inevitable de este último grupo lo constituyen aquellas agrupaciones residenciales, «adosados» p.e. siempre en periferias urbanas alejadas de la vida ciudadana que por estar parcialmente deshabitados resultan de muy difícil cuidado y mantenimiento. Frecuentemente son objeto de rapiña. El romper por romper que cristaliza tras la desesperación y con tal de llevarse algo (grifos, radiadores, cables, bombillas etc.) con un pequeño o mínimo beneficio personal, producen quebrantos irreparables en el inmueble y zozobra en la vecindad.

Ante todo este cúmulo de activos y sobre todo los pasivos derivados del ladrillo, evidente producto de la ignorancia, la torpeza electoral demagógica, la prepotencia y la mala fe, se yergue para servirles de refugio toda una nueva «edificación virtual»: el banco malo. Con el incomprensible y encubridor nombre de Sociedad de Gestión de Activos Procedentes de la Reestructuración Bancaria o Sareb. Pretensión subliminal para tratar de hacernos comprender que el «otro» es el banco bueno. O sea que otra vez nos empecinamos en la falsa idea que todos los problemas

maiz engainatzen baikaituzte. Propagandaren eta politikaren bidez engainatzen gaituzte, gauza bera baitira, eta horretarako komunikabideen laguntza paregabea dute, horiek batez ere publizitateari eta propagandari esker mantentzen baitira.

Etxebizitza behar duen biztanle iheskor horrek ez dauka argi hipoteka bat hitzartuko ote duen gure finantza sistema eder baina ez oso zuhurrarekin, ez diezazkioten ezkutuan zenbait preferente eta aseguru saldu, eta kreditua eskuratzeko bermeen paketean ez dadin ezustekoren bat ezkutatu, buru makur, gaizto eta mesfidatienak bakarrik aurreikus eta asma lezakeen eran. Azkeneko talde honen korolario bat dira, ezinbestean, elkarri *atxikitako* etxeak, betiere herri bizitzatik urrun gelditzen diren hiri periferietan egoten direnak, eta, neurri batean hutsik egoteagatik, zaintzeko eta mantentzeko zailak direnak. Sarritan harrapakarien esku erortzen dira. Etsipenak eraginda hausteagatik haustean, etekin pertsonal txiki edo minimo bat ateratzearren (txorrotak, erradiadoreak, kableak, bonbillak, etab.), kalte konponezinak eragiten dira higiezinean, eta larritasuna auzoan.

Adreilutik etorritako aktibo eta, batez ere, pasibo horien guztien aurrean, ezjakintasunaren, hauteskunde trakeskeria demagogikoaren, harrokeriaren eta fede txarraren emaitza, *eraikin birtual* berri bat altxatu da, babeseku gisa erabiltzeko: banku txarra. Izen ulertezin eta estaltzaile baten pean: Banku Berregituraketatik datozen Aktiboak Kudeatzeko Sozietatea edo SAREB. Asmo subliminal bat, guk pentsa dezagun *bestea* banku ona dela. Beraz, berriz hasi gara tematzen ideia faltsuekin, alegia, arazo guztiak luzamenduekin, amortizazioekin eta etxegabetzeekin kon-

se resuelven con moratorias, amortizaciones y desahucios. Lo fundamental será presentar un «balance guapo» y en el plazo de tiempo más breve. Es el señuelo que guía a «los mercados», al igual que aquella legendaria Libertad personificada en Marianne, dirigía al pueblo en la revolución, según la pintura de Delacroix.

Para pensar el cómo hemos llegado hasta aquí, y lo difícil que nos va a resultar el salir, baste con constatar que, en términos generales, seguimos en la misma línea de actuación. ¿O como puede entenderse de otro modo la pugna indecente entre la comunidad autónoma de Madrid y la de Barcelona? para convertir parte de su territorio en una «ciudad sin ley» y con muchos casinos. Abarcando con esta palabra de acento grave, tanto la expresión italiana como la española del término. Sin duda que a eso se refería el presidente de una conocida institución financiera vasca al tratar del producto final de las bondades inversoras del ciudadano Adelson.

Otro aspecto que puede ayudarnos a esclarecer el «misterio» del cómo hemos llegado a este fracaso económico y social es cuando observamos que uno de los fundamentos de la financiación municipal es el urbanismo y la edificación. Curiosamente cada pleno municipal, cada comisión permanente y casi cada concejal de obras en España tiene la facultad, más o menos apoyada en una auténtica «ingeniería administrativo-financiera», para «emitir moneda», mediante el mecanismo perverso de la «recalificación urbanística» y el aumento incontrolado de la edificabilidad. Si esta inyección económica de tan difícil control, un «dinero fresco que surge de la nada», se emplea en beneficio de la comunidad, tendrá efectos negativos a medio y a largo plazo, cuando haya que dotar de servicios urbanos y otros equipamientos a tanta desmesura. Pero si empiezan los desvíos (a derecha e izquierda de un

pontzen direla pentsatzen. Garrantzitsuena izango da *balantze polit* bat aurkeztea, ahalik eta lasterren. *Merkatuak* gidatzen dituen amua da, Mariannerengan pertsonifikatutako askatasun ospetsu hark iraultzan herria gidatu zuenean bezala, Delacroixen margolanaren arabera.

Honaino nola iritsi garen eta irtetea zein zaila izango zaigun pentsatzeko, nahikoa da egiaztatzea, oro har, jarduketa ildo berari eusten diogula. Nola uler daiteke bestela Madrilen eta Bartzelonaren arteko lehia lizuna, beren lurraldearen zati bat *legerik gabeko hiri* bihurtzeko, kasino askorekin? Azentu kamutseko hitz horretan hitzaren italierazko nahiz espainolezko esamoldeak bilduta. Zalantzarik gabe, horri buruz ari zen euskal finantza erakunde ezagun bateko presidentea, Adelson herritarraren inbertsio onuren azken emaitza aztertzean.

Porrot ekonomiko eta sozial honetara iristeko moduaren *misterioa* argitzen lagundu diezagukeen beste alderdi bat da ikustea udal finantzaketaren oinarrietako bat hirigintza eta eraikuntza direla. Bitxia bada ere, Espainiako osoko bilkura bakoitzak, batzorde iraunkor bakoitzak eta ia obra zinegotzi bakoitzak, gutxi gorabehera benetako *ingeniaritza administratibo eta finantzario* batean oinarrituta, ahalmena du *moneta jaulkitzeko*, *hirigintza birkalifikazioaren* mekanismo zitalaren bidez eta eraikigarritasuna kontrolik gabe areagotuta. Nekez kontrolatu daitekeen injekzio ekonomiko hori, *ezerezetik sortzen den diru freskoa*, komunitatearen onerako erabiltzen bada, ondorio kaltegarriak izango ditu epe ertain eta luzean, hiri zerbitzuez eta bestelako ekipamenduez hornitu behar denean neurrigabekeria hori guztia. Baina desbideratzeak hasten badira (ezker-eskuin, bide zuzen batean),

recto camino), a los que tan acostumbrados nos tienen las crónicas negras de los amiguismos, clientelas, corrupciones, financiaciones furtivas y otras formas de enriquecimiento (o a veces ruina) exponencial, el mal se convierte en socialmente letal. Y este proceso, inevitablemente diabólico, al faltar el más elemental criterio de la separación de poderes, no se paraliza con leyes, ni normas, ni laberintos jurídicos en los que tan bien se manejan los «poderosos». Armazón normativo vacío de contenidos, repleto de contradicciones y que llegado el caso, tan fácil resulta soslayar, neutralizar o anular. Cuando al otro lado del teléfono se pone el ciudadano Adelson u otro parecido y enseñan la chequera.

adiskidekerien, segizioen, ustelkerien, finantziazio ezkutuen eta aberasteko (edo, batzuetan, dena galtzeko) bestelako modu esponentzialen kronika beltzetan ohikoa denez, gaitza sozialki hilgarri bihurtzen da. Eta prozesu hori, gaiztoa halabeharrez, botere banaketaren irizpiderik oinarrizkoena falta denez, ez da geldiarazten lege, arau edo labirinto juridikoekin, *boteretsuak* oso ongi moldatzen baitira ingurune horretan. Edukirik gabeko arau egitura, kontraesanez betea, eta, behar izanez gero, oso erraz saihesten, neutralizatzen edo deuseztatzen dena. Telefonoaren beste aldean Adelson herritarra edo antzeko bat jarri eta txeketegia erakusten dutenean.

Es perentorio el replantearse todas las políticas urbanísticas puestas en práctica en España estos últimos años. Y tratarlas todas desde el prisma de la financiación municipal. Hay que diferenciar con nitidez y sobre todo simplificar los diversos escalones de las responsabilidades en materia de urbanismo, medio ambiente, edificación y diálogo con la naturaleza.

Ezinbestekoa da Espainian azken urteotan martxan jarritako hirigintza politika guztiak birplanteatzea. Eta guztiak udal finantzaketaren ikuspegitik tratatzea. Garbi bereizi behar dira hirigintzaren, ingurumenaren, eraikuntzaren eta naturarekiko elkarrizketaren arloko erantzukizunen mailak, eta, batez ere, sinplifikatu egin behar dira.

En todo momento hay de alejar al juez de la parte, separar al protagonista de un acuerdo de su beneficiario directo o indirecto, y al mismo tiempo no legislar lo que no se vaya a poder cumplir. Será necesario limitarse a legislar lo fundamental, desprenderse de tanta «zaborra pseudo-normativa» como nos atiborra y dificulta el correcto funcionamiento cotidiano, hacerlo con inteligencia empeñándose en que todos y en toda circunstancia, podamos y quedemos obligados a cumplir con la ley.

Une oro, epailea aldetik aldendu behar da, akordio baten protagonista zuzeneko edo zeharkako onuradunarengandik bereizi, eta, aldi berean, ez da egin behar bete ezin izango den legerik. Ezinbestekoa da funtsezko legeak bakarrik egitea, *zabor sasi-arauemailea* alde batera uztea, eguneroko funtzionamendu egokia oztopatzen duelako, eta zentzuz egitea, guztiok eta egoera guztietan legea betetzera behartuta egon gaitezen.

Pero por encima de todo es precisa una regeneración moral por la que se nos gobierne y administre siempre sin mentiras ni eufemismos y tratando de acertar diciendo la verdad. Sólo así retornará la necesaria con-

Baina, gauza guztien gainetik, birsortze moral bat behar da, beti gezurrik eta eufemismorik gabe gobernatu eta administratu gaitzaten, egia esanez asmatzen saiatzeko. Horrela bakarrik berreskuratuko dugu kon-

fianza en la que debemos de fundamentar la superación de una crisis profunda en la que el ladrillo, la vivienda, el paisaje y la ciudad no son más que una expresión evidente de nuestra enfermedad económica y social.

Diciembre, 2012

fiantza, oinarri gisa erabil dezagun krisi sakon bat gainditzeko, non adreilua, etxebizitza, paisaia eta hiria gure gaixotasun ekonomiko eta sozialaren ageriko adierazpen bat baino ez diren.

2012, abendua

# La cuestión catalana

- *Al vent*.
- Pues así tampoco.
- *Guanyar amics*
- *El cant dels ocells*
- Por qué…
- La enmarañada cuestión catalana.
- Epopeya catalana.
- Cuatro reales gestos: del afecto a la entereza.
- La manicura al tigre y elogio de Manuela Carmena.
- *Quo vadis* Catalonia?

# Kataluniako auzia

- *Al vent*.
- Bada, horrela ere ez
- *Guanyar amics*.
- *El cant dels ocells*.
- Zergatik…
- Kataluniako auzi korapilatsua.
- Kataluniako epopeia.
- Lau keinu erreal: afektutik adorera.
- Tigrearen manikura eta Manuela Carmenaren laudorioa.
- *Quo vadis* Catalonia?

## *Al vent*

Estas dos palabras inician una canción que resultará profética, desde hace 53 años, cuando por primera vez fuera entonada en la voz del cantor y poeta Raimon. *Al vent, la cara al vent, el cor al vent, les mans al vent, els ulls al vent, al vent del món*. Sobre todo si las ponemos en relación con aquellas otras, más antiguas (1936) y legendarias, de enorme carga poética y compuestas por Miguel Hernández: «Vientos del pueblo me llevan, vientos del pueblo me arrastran … catalanes de firmeza... cantando … encima de los fusiles y en medio de las batallas». Quizá a los políticos *light* de hoy en día, tan mediáticos todos ellos, les conviniera recordar que la historia profunda de los pueblos está más anclada en la poesía que en los cálculos ventajistas formulados para el corto plazo de un día. Seguro que la España de Miguel Hernández y la Catalunya de Raimon llegarían a mejores entendimientos que los propiciados por A. Mas y M. Rajoy desde el páramo de la política española, en la inmensa soledad actual de la Moncloa.

Septiembre, 2012

## *Al vent*

Bi hitz horiekin hasten da abesti profetiko bat, lehen aldiz Raimon abeslari eta poetaren ahotsean entzun zena duela 53 urte. «Al vent, la cara al vent, el cor al vent, les mans al vent, els ulls al vent, al vent del món». Batez ere, Miguel Hernandezek lehenago (1936) konposatutako hitz oso poetiko eta ospetsuekin lotzen badugu: «Vientos del pueblo me llevan, vientos del pueblo me arrastran … catalanes de firmeza... cantando … encima de los fusiles y en medio de las batallas». Beharbada, gaur egungo politikari *light* eta mediatikoei komeniko litzaieke gogoratzea herrien historia sakona egun bakarrerako formulatutako kalkulu abantailatsuetan baino gehiago ainguratzen dela poesian. Ziur asko Miguel Hernándezen Espainiak eta Raimonen Kataluniak hobeto ulertuko lukete elkar, A. Masek eta M. Rajoyk Espainiako politikagintzaren mortutik, Moncloako gaur egungo bakardade izugarrian, bultzatutakoek baino.

2012, iraila

## Pues así tampoco

En su admonición al Jefe del Estado —«Así, no. Con su decisión de ayer usted decepcionó a mucha gente en Catalunya»— el President Puigdemont, con idéntica impertinencia a la que empleara Lope de Aguirre en su carta a Felipe II, en la rebelión contra España de 1560-61, estimo que olvidó algo fundamental. En mi opinión nunca se ha producido un momento simbólico de mayor intensidad democrática entre Catalunya y España que aquella noche aciaga del 23-F cuando, ante el secuestro de la legalidad de todos, S.M. el Rey Don Juan Carlos, acertó devolviéndonos la confianza en la Ley democrática. Y lo hizo compartiendo, en primer lugar su gesto de autoridad con el President a la sazón de la Generalitat Jordi Pujol. Fue sin duda un momento que hoy nos conviene recordar con inteligencia, serenidad y entereza. Pues violentando la ley, bien con presiones extraordinarias o con astucias contra ella, por ingenioso y embaucador que resulte, sólo llegamos a la sinrazón y la barbarie. Y teniendo esto en cuenta sólo el diálogo y la lealtad pueden conducir a una paz satisfactoria.

Octubre, 2017

## Bada, horrela ere ez

Puigdemont presidenteak estatuburuari egindako oharrean —«Horrela, ez. Atzoko erabakiarekin Kataluniako jende askori huts egin zenion»—, 1560-61eko Espainiaren aurkako matxinadan Lope de Aguirrek Felipe II.ari idatzitako gutunean erabilitako lotsagabekeria berarekin, uste dut funtsezko zerbait falta dela. Nire ustez, Kataluniaren eta Espainiaren artean ez da inoiz gertatu otsailaren 23ko gau hartan baino intentsitate demokratiko handiagoko une sinbolikorik; izan ere, orduan, guztion legezkotasunaren bahiketaren aurrean, Juan Carlos erregeak ongi jardun zuen eta lege demokratikoarekiko konfiantza itzuli zigun. Eta hori egin zuen, lehenik eta behin, bere aginte keinua Generalitatearen presidente izango zen Jordi Pujolekin partekatuz. Gaur, zalantzarik gabe, zentzuz, lasaitasunez eta ausardiaz gogoratu behar dugu une hura. Izan ere, asmotsua eta liluratzailea izan arren, legea bortxatzen badugu aparteko presioekin edo haren kontrako maltzurkeriekin, zentzugabekeriara eta basakeriara baino ez gara iritsiko. Eta hori kontuan hartuta, elkarrizketak eta leialtasunak bakarrik eraman gaitzakete bake egokira.

2017, urria

## *Guanyar amics*

Como asistente a la Asamblea del Sindicato democrático de estudiantes en Barcelona, la «Caputxinada», del 9 de marzo de 1966, he venido recibiendo varios e-mails para la reunión del cincuentenario, en el convento de Sarriá. Evidentemente voy a asistir. Finalmente me invitan también al acto que, para el día 11 de marzo, convoca la Universitat de Barcelona. Al confirmar mi presencia en esta última convocatoria ha surgido una dificultad informática por la que me resultó imposible el comunicar con la U.B. Para solventarla he devuelto otra serie de mails solicitando mediación al primer comunicador. Mi sorpresa ha saltado con los mails que llegaban de Barcelona, respuesta a los míos en castellano. Una coletilla pegada a cada e-mail de respuesta con la nota: «el destinatario ha indicado que preferiría respuestas en estos idiomas: Catalán, Valenciano, Inglés». Sorpresa y decepción. Es la única vez que me ha ocurrido algo semejante, aún comunicándome yo en castellano con el más conspicuo funcionario jacobino, defensor del francés como única lengua propia de «la Republique». Pienso que la lengua es fundamental para afianzar la nación; pero también pienso que previamente y con mayor utilidad la lengua sirve para comunicarnos. Al menos esa es la paradoja de Babel. No se me ha ocurrido contestar en euskera. En mi ingenuidad creo que coletillas de ese tipo, vengan de donde vengan, antes eran las de «hable usted en cristiano», y aún notando las enormes diferencias entre victoria militar y «preferencia democrática», no ayudan en la necesaria tarea de afianzar y aumentar los apoyos hacia una causa; que además es la mía. En definitiva pienso que es mejor poner los medios más correctos y sutiles a fin de ampliar el número de los adictos y «guanyar amics».

Marzo, 2016

## *Guanyar amics*

1966ko martxoaren 9an Bartzelonako Ikasleen Sindikatu Demokratikoaren Batzarrean parte hartu nuenez, *Caputxinada* delakoan, hainbat e-mail jaso ditut Sarriàko komentuan egingo den berrogeita hamargarren urteurreneko bilerarako. Argi dago joango naizela. Azkenik, Bartzelonako Unibertsitateak martxoaren 11rako antolatu duen ekitaldira ere gonbidatu naute. Azken gonbidapen horri baietz erantzun ondoren, arazo informatiko bat egon da, eta, ondorioz, ezinezkoa izan zait Bartzelonako Unibertsitatearekin harremanetan jartzea, arazoa konpontzeko. Beste e-mail batzuk bidali ditut, lehen komunikatzaileari bitartekaritza eskatuz. Baina harridura eragin didate nik gaztelaniaz idatzitako e-mailei Bartzelonatik bidalitako erantzunek. Erantzun horietako bakoitzari honako ohar hau erantsita: «hartzaileak adierazi du erantzunak hizkuntza hauetan nahi lituzkeela: katalanez, valentzieraz, ingelesez». Harridura eta desengainua. Horrelako zerbait gertatu zaidan aldi bakarra izan da, nahiz eta gaztelaniaz komunikatzen naizen *la Republiqueren* berezko hizkuntza bakarra frantsesa dela defendatzen duen funtzionario jakobinoenarekin. Uste dut hizkuntza funtsezkoa dela nazioa sendotzeko; baina, era berean, uste dut, aldez aurretik eta erabilgarritasun handiagoarekin, hizkuntzak balio duela komunikatzeko. Hori da, behintzat, Babelen paradoxa. Ez zait bururatu euskaraz erantzutea. Nire inozentziatik, uste dut horrelako eranskinak, datozen lekutik datozela ere, garai bateko «hitz egin ezazu ulertzeko moduan» haren parekoak direla, eta garaipen militarraren eta *lehentasun demokratikoaren* arteko ezberdintasun izugarriak nabarituta ere, ez dutela batere laguntzen kausa baten aldeko babesa sendotzeko eta areagotzeko zereginean; kausa hori nirea da gainera. Azken batean, uste dut hobe dela bitartekorik zuzenenak eta sotilenak jartzea, zale gehiago izateko eta *guanyar amics* lortzeko.

2016, martxoa

## *El cant dels ocells*

Tras de la amplia concentración de gentes diversas el pasado sábado día 26.8.2017 en el paseo de Gràcia de Barcelona, como terapia lenitiva de un inmenso dolor, tan dispar y variopinta, con intereses diferenciados y con comportamientos altisonantes y acusatorios en algunos momentos, no es fácil entonar un canto de unidad. Sólo calló el bullicio y sonó un silencio atronador ante *«El cant dels ocells»*. Todos nos podemos encontrar en esa melodía de dolor y esperanza. Quizá el profundo mensaje político y artístico de Pau Casals en la Casa Blanca el 13 Noviembre de 1961, con el arma de su *cello*, pueda servir para acercar posiciones y evitar prepotencias. Anular los trágalas de raíz totalitaria, de tanta política de *vista curta*, con asedios cotidianos desde una difusa e insistente «brunete mediática». Es hora de acabar con tanta astucia parlamentaria frente a la «brigada acorazada Aranzadi» e iniciar una solución duradera de pacto inteligente, culto y de progreso para aquella tierra que Casals, gritando con desgarro *…peace, peace, peace…,* añoraba como: *my country: Catalonia*. Es, sin duda, el momento para ir ajustando, sensatamente y con menos aspavientos, las costuras territoriales del conjunto de España y avanzar en la construcción de una Europa renovada, donde patrias, pueblos, parroquias y otras formas de acceso a la colectividad, sean refugiados o inmigrantes, hallen lugar como ciudadanos, en progreso personal, hacia una plenitud en libertad.

Agosto, 2017

## *El cant dels ocells*

Joan den larunbatean, 2017/8/26an, askotariko jendea bildu zen Bartzelonako Gràcia pasealekuan, oinaze ikaragarri eta askotariko baten terapia aringarri gisa; interes desberdinak dituzten pertsonak, une batzuetan portaera hanpatu eta akusatorioak izan dituztenak. Baina ez da erraza batasun kantu bat abestea. *El cant dels ocells* entzun zenean bakarrik isildu zen iskanbila eta nagusitu zen isiltasuna. Denok egin dezakegu topo oinaze eta itxaropenezko melodia horretan. Beharbada, Pau Casalsen mezu politiko eta artistiko sakonak, Etxe Zurian 1961eko azaroaren 13an, bere biolontxeloaren armarekin, posizioak hurbiltzeko eta harrokeria saihesteko balio dezake. Sustrai totalitarioko *tragalak* deuseztatzea, bista eskaseko politikarenak, eguneroko setioekin, *brunete mediatiko* lauso eta temati batetik. Bada garaia *Aranzadi brigada korazatuaren* aurrean maltzurkeria parlamentarioa akabatzeko eta konponbide iraunkor bati ekiteko, itun zentzuzko, kultu eta aurrerabidezko batekin, Casalsek ahots urratuz «…peace, peace, peace…» oihukatuta «my country: Catalonia» esaten zion lurrarentzat. Zalantzarik gabe, Espainia osoko lurralde josturak zentzuz eta espantu gutxiagorekin doitzeko eta Europa berritu baten eraikuntzan aurrera egiteko unea da, non aberriak, herriak, parrokiak eta beste kolektibitate modu batzuk, errefuxiatuak nahiz etorkinak izan, herritar gisa, askatasunerantz eta osotasunerantz joango diren, pertsona gisa garatuta.

2017, abuztua

## Por qué...

Habéis mentido tanto. Políticos de una facción y la otra. Cabecillas de «omnipotentes asambleas». Los «unions» antes. Los «indepes» durante: mucho me temo que todos después. ¡No sabéis que la mentira aniquila a los pueblos! Vosotros habéis roto —¿sin arreglo posible?— el magnífico mundo ibérico, que enlazaba, en sintonía sutil, lo «dulce del ritmo y la melodía» de Juan Maragall con el «espíritu inquieto que no para» de Don Miguel de Unamuno. Hoy sí. Desde la soledad, el dolor y la impotencia de un ciudadano solitario. Yo acuso.

Noviembre, 2017

## Zergatik…

Gezur asko esan dituzue. Alde bateko eta besteko politikariek. *Batzar ahalguztidunen* buruek. *Unions* delakoek lehen. *Indepes* delakoek bitartean. Beldur naiz ez ote diren denak izango gero. Ez al dakizue gezurrak herria suntsitzen duela! Zuek hautsi duzue —konponbide posiblerik gabe?— iberiar mundu bikaina, sintonia sotilean Juan Maragallen *erritmoaren eta melodiaren gozoa* eta Miguel Unamunoren *gelditzen ez den espiritu urduria* lotzen zituena. Gaur bai. Herritar bakarti baten bakardadea, mina eta ezintasuna oinarri hartuta. Nik akusatzen zaituztet.

2017, azaroa

## La enmarañada cuestión catalana

Es una percepción generalmente admitida, al menos en el entorno ibérico, que Catalunya en general y Barcelona en particular, constituyen entidades humanas de un enorme dinamismo y con unas capacidades para todo cuanto se relacione con la cultura y el deporte muy desarrolladas. En este clima de saludables *Jocs Florals,* sólo hay una palabra que consigue atragantar, tan sólo al oírla, a un número creciente de catalanes: Madrid. En general, la ira se torna irreversible y duradera si la referencia guarda alguna relación con el fútbol de primera división. *Sensu contrario* al oír el binomio «Catalunya independiente» se activan todas las adrenalinas y vuelven las prepotencias del «se van a enterar» de tan vieja raigambre autoritaria para quienes «ser español es de las pocas cosas serias que hay en el mundo».

Por ello, sorprende sobremanera que se haya llegado, conducidos por unos políticos, no sé si acomodaticios, prepotentes, ineptos, fantasiosos, *surrealistes* o suicidas a la actual situación de *impasse* y desorientación colectiva en la que nos encontramos: con dos bandos en beligerancia y abiertamente enfrentados. Cuyos modos y resoluciones, emulando quizá, los temores del President Tarradellas, se puedan calificar como maneras variadas de hacer el ridículo. Si no fuera aún peor, tal y como representa Goya en el conocido cuadro «Duelo a garrotazos». Tampoco es cuestión de buscar ahora y señalar a los culpables, que «haber, *haylos* y muchos», sino, al menos quienes estamos muy alejados de la zona de fuego, intentar ayudar en algo para tratar de ir deshaciendo el entuerto. Aunque siempre desde el temor de enmarañarlo aún más, siguiendo el triste «síndrome Kerensky, que nos asignan las vanguardias de la batalla.

Por si sirve, voy a referirme a una circunstancia, que tiene alguna semejanza con la cuestión que ahora nos

## Kataluniako auzi korapilatsua

Oro har, onartzen den pertzepzio bat da, iberiar ingurunean behintzat, Katalunia oro har eta Bartzelona bereziki dinamismo oso handiko giza entitateak direla, eta kulturarekin eta kirolarekin zerikusia duen guztirako gaitasun oso garatuak dituztela. *Jocs florals*-en giro osasungarri horretan, hitz bakar bat dago lortzen duena katalan kopuru gero eta handiago bat trabatzea: Madril. Oro har, haserrea atzeraezin eta iraunkor bihurtzen da erreferentziak lehen mailako futbolarekin zerikusirik badu. *Sensu contrario*, adrenalina guztiak aktibatzen dira *Katalunia independentea* binomioa entzutean, eta sustrai autoritario zaharreko «ikusiko dute» delakoaren nagusikeriak itzultzen dira, *espainiar izatea munduko gauza serio bakanetako bat dela* uste dutenentzat.

Hori dela eta, harrigarria da, politikari agian eroso, harro, ezgai, fantasiatsu, surrealista eta suizida batzuen gidaritzapean, gaur egungo *inpasse* eta desorientazio kolektiboko egoerara iritsi izana, nabarmen bata bestearen kontra dauden bi alderdi beligeranterekin. Horien moduak eta erabakiak, beharbada Tarradellas presidentearen beldurrak imitatuz, hainbat eratan barregarri geratzeko modutzat jo daitezke. Are okerragoa ez bada, Goyak *Duelo a garrotazos* margolan ezagunean irudikatzen duen bezala. Baina orain kontua ez da errudunak bilatzea eta seinalatzea, egon badauden arren, eta asko gainera, baizik eta, gutxienez, borroka eremutik oso urrun gaudenok zerbaitetan laguntzen saiatzea, bidegabekeria konpontzen ahalegintzeko. Baina, betiere, gehiago korapilatzeko beldurrez, Kerensky sindrome tristeari jarraituz, batailaren abangoardiek leporatzen diguten moduan.

Balio badu, orain estutzen gaituen gaiarekin nolabaiteko antzekotasuna duen zerbait aipatuko dut, duela

aprieta y que ocurrió hace unos 160 años. Me refiero a las dificultades y luchas políticas que acaecieron en Barcelona y sus pueblos de alrededor, con motivo de la tramitación y aprobación del Plan de Ensanche redactado por Ildefonso Cerdá. Aunque su autor era catalán, fue duramente combatido y ridiculizado por gran parte del *establishement* catalán-barcelonés del momento agrupado en torno al Ateneu Catalá, luego Barcelonès y encabezados por Pau Milá i Fontanals. Gran parte de la *intelligentsia* (Doménech i Montaner, Marià Fortuny, Manuel Duran i Bas, Juan Mañé i Flaquer y posteriormente el insigne político y arquitecto Puig i Cadafalch, etc.) se levantó y mantuvo en descalificaciones y astucias con tal de rechazar aquel inmenso monumento al pensamiento racional, novedad urbanística para el crecimiento y la modernidad de Barcelona; todo ello bajo la acusación mayor: la de representar una imposición del Gobierno Central. De Madrid, naturalmente.

Pugna difícil de comprender por la cualidad profesional y cantidad de los oponentes, su barcelonismo y catalanismo bien probados, como por lo enconado y poco cortés de la controversia. Pero ya se sabe: cuando las cosas se enzarzan políticamente no hay manera que nadie pare hasta la catástrofe final. Y los años 50 del siglo XIX fueron especialmente convulsos en España.

Bienio progresista (1854-1856). Reinado de Isabel II, asonadas militares por doquier, peleas en torno al límite de la zona táctica de la plaza militar, derribo de murallas, una huelga general en Barcelona (1855), luchas obreras y pugna por las competencias entre el Ayuntamiento de Barcelona y los Ministerios del Gobierno; todo ello en los momentos iniciales en los que se dirimen los grandes liderazgos y otros prestigios nacionales en Europa, entre Francia y Alemania principalmente.

160 urte inguru gertatu zena. Bartzelonan eta inguruko herrietan zabalguneak egiteko Ildefonso Cerdák idatzitako plana izapidetu eta onartzean izandako zailtasun eta borroka politikoez ari naiz. Egilea katalana izan arren, gogor egin zion kontra eta barregarri utzi zuen Ateneu Catalá (gero Ateneu Barcelonès izango zena) delakoaren inguruan bildutako Katalunia eta Bartzelonako *establishement*aren zati handi batek, Pau Milá i Fontanals buru zutela. *Intelligentsia*ren zati handi bat (Doménech i Montaner, Marià Fortuny, Manuel Duran i Bas, Juan Mañé i Flaquer, Puig i Cadafalch arkitekto eta politikari ospetsua, etab.) altxatu egin zen eta deskalifikazioetan eta maltzurkerietan jarraitu zuen, pentsamendu arrazionalaren monumentu ikaragarri hura, Bartzelonaren hazkunderako eta modernitaterako hirigintza berritasuna, baztertzeko asmoz. Eta hori guztia akusazio handiena eginda: gobernu zentralaren inposizioa izatea. Madrilgo gobernuarena, noski.

Zaila da borroka hori ulertzea, aurkarien ezaugarri profesionalengatik eta kopuruagatik, haien bartzelonismoa eta katalanismo ongi frogatuengatik, eta eztabaidaren gogortasunagatik eta adeitasun faltagatik. Baina jakina da gauzak politikoki nahasten direnean ez dagoela gelditzeko modurik, azkenean hondamendia gertatu arte. Eta XIX. mendeko 50eko hamarkada bereziki gorabeheratsua izan zen Espainian.

Biurteko aurrerakoia (1854-1856). Isabel II.aren erregealdia, matxinada militarrak nonahi, borrokak plaza militarraren eremu taktikoaren mugaren inguruan, harresien eraispena, greba orokor bat Bartzelonan (1855), langileen borrokak, eta Bartzelonako Udalaren eta Gobernuaren ministerioen arteko borroka eskumenengatik; hori guztia Europan (batez ere Frantziaren eta Alemaniaren artean) lidergo handiak eta beste ospe nazional batzuk erabakitzen ziren hasierako uneetan.

El asunto de construir la ciudad no era sencillo, con una enorme complejidad e implicaciones muy profundas, ante la magnitud de las decisiones a tomar, en pleno período de iniciación y auge de los ferrocarriles y el telégrafo. Apenas un par de años después de la publicación del Manifiesto Comunista el año 1848.

Fue en este contexto y en plena disquisición higienista entre los planes urbanísticos del Ayuntamiento de Barcelona, cuando convoca un Concurso como respuesta apresurada a un encargo ministerial previo, en la persona del ingeniero Ildefonso Cerdá. Finalmente el Ministerio de Fomento el 9 de junio de 1858 aprueba el Plan de Cerdá desechando las propuestas municipales y el 8 de julio de 1860 ordena su ejecución. Será el 4 de septiembre de 1860 cuando la Reina Isabel II protagoniza el acto inaugural de la construcción del Eixample, cuentan las crónicas que, con la colocación de la primera piedra en la Plaza de Catalunya.

De inmediato se desplegaron por doquier toda una batería de folletines, libelos bajo seudónimo y otras argucias de una innoble intriga. Hasta el punto de crear una auténtica fragmentación afectiva y desprecio hacia la figura del Ingeniero Don Ildefonso Cerdá, quien murió arruinado y dejando tras de sí enemistades viscerales y duraderas, al punto de trasmitirse de padres a hijos, según refiere Arturo Soria y Puig en un documentado texto.

Tuvieron que llegar los años 50 del siglo siguiente (1958) para que la indubitada evidencia del acierto del Ensanche, y toda su Teoría de la Urbanización, la labor urbanística del ingeniero Cerdá, se empezara a considerar como positiva, digna de admiración, elogio y merecedora de estudio. Como suele suceder entre nosotros, los primeros ecos favorables sonaban en el exterior. Fue la historiadora del urbanismo Françoise

Hiria eraikitzearen kontua ez zen erraza, konplexutasun eta inplikazio oso sakonekin, hartu beharreko erabakien garrantzia ikusita, trenbideen eta telegrafoaren hasiera eta goraldi betean. 1848an Manifestu Komunista argitaratu eta urte pare batera.

Testuinguru horretan, Bartzelonako Udalaren hirigintza planen azterketa higienista betean, lehiaketa baterako deia egin zen, aurrez Ildefonso Cerdá ingeniariari egindako ministro enkargu bati presaka erantzutearren. Azkenik, Sustapen Ministerioak, 1858ko ekainaren 9an, Cerdáren plana onartu zuen, Udalaren proposamenak baztertuz, eta, 1860ko uztailaren 8an, plana betearaztea agindu zuen. 1860ko irailaren 4an, Isabel II.a erregina *l'Eixample*ren eraikuntzaren inaugurazio ekitaldiaren protagonista izan zen, garaiko kroniken arabera, Katalunia plazako lehenengo harria jarri baitzuen.

Berehala folletoiak banatu ziren nonahi, panfletoak izengoitiarekin, eta azpijoko eta amarru lotsagabeak erabili ziren. Horrela, benetako zatiketa afektiboa eta Ildefonso Cerdá ingeniariaren figurarenganako mespretxua sortzeraino; ondasun guztiak galduta hil zen, eta etsaitasun bizi eta iraunkorrak utzi zituen atzean, gurasoengandik seme-alabengana transmititu zirenak, Arturo Soria Puigek testu dokumentatu batean aipatzen duen moduan.

Hurrengo mendeko 50eko hamarkadara arte (1958) ez ziren hasi positibotzat eta miretsi, goretsi eta aztertzeko modukotzat jotzen Zabalgunearen egokitasunaren zalantzarik gabeko ebidentzia eta Cerdá ingeniariaren urbanizazioaren teoria osoa eta hirigintza lana. Gure artean gertatu ohi den bezala, aldeko lehen oihartzunak kanpoan entzun ziren. Françoise Choay hirigintzaren historialaria izan zen Cerdáren

Choay la primera que se acordó de ensalzar la labor de Cerdá. Probablemente en la cumbre del pensamiento y la acción urbanísticas a nivel universal, en aquel período del convulso siglo XIX en el que las ciudades tuvieron que elegir entre anclarse en la autocontemplación de una arcadia inexistente y feliz, o aceptar los riesgos de la modernidad.

Desde entonces los herederos de aquella *intelligentsia* catalana, todas sus instancias culturales y las cátedras de urbanismo no han dejado de estudiar la figura del insigne precursor, ponerla en valor y reivindicar para ella el lugar que le fuera negado en vida y cien años más. Pasar de la descalificación al ditirambo, apropiarse de las personalidades de éxito cuando han muerto ya, es una de las prácticas perniciosas de nuestro quehacer político y cultural cotidianos. Y así nos va.

Proceso decadente el que conlleva a una política de descalificaciones y de máximos, incapaz siquiera de escuchar el pensamiento del adversario y con las baterías de la descalificación cargadas sin la menor seña de posible pacto. O por usar palabras queridas a I. Cerdá, en su inmenso pragmatismo inseparable de la acción: transacción y transición.

Todo parecido con la situación actual es, posiblemente, pura coincidencia pero, quizá, si cada uno de los actores del drama, pusiera en el frontispicio de sus ideas el respeto al adversario, la necesidad de pactar y de priorizar la construcción de una auténtica «*solidaritat catalana*», dentro de la solidaridad peninsular y europea como abogaran Unamuno y Maragall mejor iría. Para todos.

Vayan estas líneas como reconocimiento a la labor mediadora de personalidades como el lehendakari

lana goraipatu zuen lehena. Ziur asko hirigintzako pentsamendu eta ekintza unibertsalaren gailurrean, XIX. mende nahasi hartan, hiriek erabaki behar izan zutenean existitzen ez zen Arkadia zoriontsu baten autokontenplazioan ainguratzen ziren ala modernitatearen arriskuak onartzen zituzten.

Harrezkero, *intelligentsia* katalan haren oinordekoak, haren instantzia kultural guztiak eta hirigintzaren katedrak aitzindari sonatuaren figura aztertu dute etengabe, haren balioa azpimarratu dute eta bizirik zegoela eta hurrengo ehun urteetan ukatu zioten merezitako lekua aldarrikatu dute harentzat. Gaitzespenetik gehiegizko gorazarrera pasatzea, pertsona arrakastatsuez jabetzea dagoeneko hil direnean, gure eguneroko zeregin politikoaren eta kulturalaren jardunbide kaltegarrietako bat da. Eta horrela doakigu.

Prozesu dekadentea, deskalifikazioen eta maximoen politika bat dakarrena, aurkariaren pentsamendua entzuteko ere gai ez dena, eta gaitzespenaren bateriak kargatuta dituena, itunak egiteko inolako aukerarik gabe. Ekintzatik bereiztezina den pragmatismo izugarrian, I. Cerdák maite zituen hitzak erabiltzeagatik: transakzioa eta trantsizioa.

Gaur egungo egoerarekin egon daitekeen antzekotasun oro beharbada kointzidentzia hutsa da, baina, agian, dramaren aktoreetako bakoitzak bere ideien frontispizioan jarriko balitu aurkariarekiko errespetua, itunak egiteko beharra, eta benetako *solidaritat catalana* baten eraikuntzaren lehentasuna, penintsulako eta Europako elkartasunaren barruan, Unamunok eta Maragallek defendatuko luketen moduan, hobeto joango litzaiguke. Denoi.

Lerro hauen helburua da Urkullu lehendakariak, J.J. López Burniol notarioak, Omella apezpikuak eta

Urkullu, el notario J.J. López Burniol, el obispo Omella y tantas otras más que no conocemos, pero quizá sea llegado el momento de dar cumplimiento a la máxima de Karl Kraus: Si alguien tiene algo que decir que dé un paso al frente y se calle.

Diciembre, 2017

ezagutzen ez ditugun beste hainbatek egindako bitartekaritza lanari aitortza egitea, eta agian iritsi izango da Karl Krausen maxima betetzeko unea: «norbaitek zerbait esan nahi badu, egin dezala pauso bat aurrera, eta isildu dadila».

2017, abendua

## Epopeya catalana

### De Maragall (Joan) a Maragall (Ernest) pasando por Maragall (Pasqual)

Pueblo y epopeya son dos conceptos que se encuentran y se necesitan, como siempre lo han hecho, en un extraño itinerario, las almas en su continuado conformar los cuerpos que habitan. Los últimos años del siglo XIX resultaron prolijos en construcciones nacionales que engendran grandiosas épicas poéticas, como artificios de un idealismo que marcará con fuerza el «espíritu de los tiempos», en paralelo a una sugerente, inquietante y «herderiana» teorización del «espíritu de los pueblos». Frente a la demoledora gran razón material del marxismo, el relato mítico generador de nacionalidad surge como contrapunto espiritual característico del pensamiento romántico. Desde entonces estas dos grandes tendencias de pensamiento están presentes en toda la historia político-cultural de lo que ha sido Europa en sus momentos más sublimes y en los más aciagos holocaustos.

En 1866 aparece Canigó, epopeya catalana en la que se entrelaza la aventura de Gentil y Flordeneu en un vuelo fantástico sobre el Pirineo catalán como armazón de acontecimientos a medio camino entre la historia y la fantasía. Fundamentado en las confrontaciones bélicas catalano-sarracenas. Muchos sitúan este poema épico, de evidente apoyatura cristiana, en el núcleo original del catalanismo, el nacionalismo catalán y el independentismo.

Tres personajes públicos de una misma familia, los Maragall, nos pueden servir para un itinerario conceptual rápido, a través de la derivación ideológico reivindicativa que nos conduce del enunciado textual verdagueriano a su instrumentación política, todavía reciente, con motivo de la *diada* del 18.

## Kataluniako epopeia

### Maragalletik (Joan) Maragallera (Ernest), Maragallen (Pasqual) barrena

Herria eta epopeia, beti egin izan duten bezala, ibilbide arraro batean aurkitzen diren eta elkarren beharra duten bi kontzeptu dira; arimak, bizi diren gorputzak osatzen. XIX. mendeko azken urteak aberatsak izan ziren epika poetiko bikainak sortzen dituzten eraikuntza nazionaletan, *denboraren espiritua* indarrez markatuko duen idealismo baten artifizio gisa, *herrien espirituaren* teorizazio iradokitzaile, kezkagarri eta *herderiar* batekiko paraleloan. Marxismoaren arrazoi material handi eta zorrotzaren aurrean, nazionalitatea sortzeko kontakizun mitikoa pentsamendu erromantikoaren berezko kontrapuntu espiritual gisa agertzen da. Ordutik, bi pentsamendu joera handi horiek presente egon dira Europaren historia politiko-kultural osoan; unerik gorenetan nahiz holokausto zorigaiztokoenetan.

1866an Canigó agertu zen, Kataluniako epopeia, non Gentilen eta Flordeneuren abentura lotzen den hegaldi fantastiko batean Kataluniako Pirinioen gainetik, historiaren eta fantasiaren erdibidean kokatzen diren gertaeren armazoi gisa. Katalanen eta arabiarren arteko gerra borroken oinarri. Askok, kristau oinarri argia duen olerki epiko hori katalanismoaren, nazionalismo katalanaren eta independentismoaren muinean kokatzen dute, horien jatorrian.

Maragall familiako hiru pertsona publikok ibilbide kontzeptual azkar bat egiteko balio diezagukete, deribazio ideologiko aldarrikatzaile batean barrena, Verdaguerren hitzez hitzeko enuntziatutik, oraintsuko instrumentazio politikora, 18ko *diada* tarteko.

Joan Maragall (1860-1911) se forma en los tiempos que conducen del auge del gran movimiento cultural y político que conocemos como *Renaixença*, al movimiento estético del «nuevo siglo» denominado por d'Ors como *Noucentisme*. Personalidad de honda raigambre cristiana, catalanista profundo. Veía como superación a la constante tendencia de las grandes naciones europeas a consolidar su potencia en continuas carnicerías de crueldad creciente y despiadada, la emergencia y articulación solidaria de las pequeñas naciones culturales. Coincide con Unamuno en el planteamiento de la «federación de los pueblos ibéricos» como fórmula superadora de las catástrofes político humanitarias de la segunda mirad del siglo XIX, y que luego se prolongarían hasta mediado el XX, no sólo en España sino, y con caracteres aún más nefastos en Francia, Alemania, México, y tantos otros.

Joan Maragall (1860-1911) *Renaixença* izenez ezagutzen dugun mugimendu kultural eta politiko handiaren gorakadatik d 'Orsek *Noucentisme* izendatutako *mende berriko* mugimendu estetikora bitarteko garaietan trebatu zen. Sutrai kristau eta katalanista sakoneko pertsona zen. Europako nazio handiek beren indarra sarraski gero eta ankerkerragoen eta gupidagabeagoen bidez finkatzeko zuten etengabeko joera gainditzeko, beharrezkotzat jotzen zuen nazio kultural txikien agerpen eta artikulazio solidarioa. Unamunorekin bat etorriz, *iberiar herrien federazioa* planteatzen zuen XIX. mendearen bigarren erdiko hondamendi politiko-humanitarioak gainditzeko formula gisa, baina XX. mendearen erdialdera arte luzatu ziren hondamendi horiek, Espainian ez ezik, baita Frantzian, Alemanian, Mexikon eta beste hainbat lekutan ere, eta are ondorio zorigaiztokoagoekin.

Es sabido y, supongo que profundamente lamentado por todos, el devenir europeo a partir de 1911, hasta el trienio importante para nosotros: 1975-1978. Golpes de estado, pronunciamientos, imposibilidad de cuajar formas republicanas de convivencia con sacas, checas, asesinatos, enterramientos en cunetas, dictaduras, una brutal guerra civil de tres años y otras excrecencias de la vida humana en comunidad. Hasta culminar en una Constitución Española, atenta a sus regiones y nacionalidades con evidente *pedigrèe* democrático europeo.

Ezaguna da, eta, uste dut denok biziki deitoratzen dugula, Europaren bilakaera 1911tik aurrera, guretzat garrantzitsua den hirurtekora arte: 1975-1978. Estatu kolpeak, altxaldiak, elkarbizitza modu errepublikarrak mamitzeko ezintasuna, *saca*k, *checa*k, hilketak, ehorzketak bide bazterretan, diktadurak, hiru urteko gerra zibil bortitza eta komunitateko giza bizitzaren beste eskrezentzia batzuk. Konstituzioa iritsi arte, Espainiako eskualdeei eta nazionalitateei adi, Europako *pedigrèe* demokratiko nabariarekin.

A partir de esa fecha aparece otro Maragall (1941) me refiero a Pasqual. Curtido en su juventud como un universitario antifranquista más. Estaba alineado en el F.L.P. donde se agruparon gentes especialmente valiosas en el campo intelectual de todas las Españas y que en los años posteriores destacarían en puestos políticos de renombre en la tan alabada Transición de la autocracia a la democracia. Por aquel entonces to-

Data horretatik aurrera, beste Maragall bat (1941) agertu zen: Pasqual. Gaztaroan unibertsitario antifraskita izan zena, beste asko bezala. FLPrekin (*Frente de Liberación Popular*) lerrokatuta zegoen, non Espaina osoko pertsona bereziki baliotsuak eta intelektualak bildu ziren, ondorengo urteetan postu politiko garrantzitsuetan nabarmenduko zirenak, autokraziatik demokraziarako Trantsizio goraipatuan. Garai hartan denok

dos éramos catalanistas, todos éramos partidarios del derecho de autodeterminación de los pueblos, en un ejercicio de ignorancia sobre la geopolítica europea surgida de la II Guerra Mundial, aunque siguiendo fielmente la estela de la liberación argelina. Pero sobre todo queríamos una democracia española y de los pueblos que la constituyen, que fuera homologable en Europa. Eran los años 80, 90 y los primeros albores del siglo XXI. Pasqual Maragall desde la alcaldía de Barcelona completó el tejido de las complicidades que culminaron en el éxito español de los JJOO de Barcelona 92. Triunfo colectivo, bien acogido bajo el prestigio de la Casa Real española, de la mano política y económica y sobre todo armonizando bien la gestión central española junto a la autonómica catalana. Acontecimiento al que ni los asesinos de ETA, auténtica pesadilla de todos estos años, lograron empañar en lo más mínimo. Siempre gravitando sobre la personalidad de Pasqual Maragall y su probado catalanismo, que en sucesivas vivencias políticas llevaron a nuestro personaje a la presidencia de la Generalitat catalana bajo siglas socialistas.

Las primeras escaramuzas de la deslealtad surgen ya en los mismos Juegos del 92, con aquel, nada inocente, *freedom for Catalonia*. Bajo el mandato de Pasqual Maragall se confeccionó la Reforma del Estatut. Ejercicio teórico en que se utilizaron a fondo grandes dosis de «ingeniería jurídica». Capaz de modificar desde el texto autonómico no sólo la Constitución española sino la misma ley universal de la gravitación y el peso de las cosas. Tanta recocina político-jurídica llevó a alinearse a tres partidos catalanes (CiU, Iniciativa y PSC) a favor del sí y a otros dos (ERC y PP) pidieron el votar no. Justo a partir de ese momento se desencadena la procesión de los despropósitos, formando una bola de nieve creciente en desmesuras y confeccionada entre astucias, provocaciones, desa-

ginen katalanistak, denok geunden herrien autodeterminazio eskubidearen alde, gure ezjakintasuna tarteko Europan Bigarren Mundu Gerratik sortutako geopolitikaren inguruan, nahiz eta Aljeriako askapenaren arrastoari leial jarraitu. Baina, batez ere, demokrazia nahi genuen Espainiarako eta hura osatzen zuten herrietarako, homologagarria izango zena Europan. 80ko eta 90eko hamarkadak eta XXI. mendearen hastapenak ziren. Bartzelonako Alkatetzatik, Pasqual Maragallek konplizitateen ehuna osatu eta arrakastara eraman zuen Espainia, Bartzelonako olinpiar jokoekin. Garaipen kolektiboa, ongi hartua Espainiako Errege Etxearen prestigioaren pean, esku politikotik eta ekonomikotik eta, batez ere, Espainiako kudeaketa zentrala ongi harmonizatuz Kataluniako kudeaketa autonomikoarekin batera. ETAko hiltzaileek ere ez zuten lortu gertaera hori apur bat ere lausotzea, urte hauetan guztietan benetako amesgaiztoa izan diren arren. Beti Pasqual Maragallen nortasunaren eta haren katalanismo frogatuaren gainean grabitatzen; izan ere, hainbat bizipen politiko tarteko, Kataluniako Generalitatearen Presidentetzara iritsi zen, sozialisten siglekin.

Desleialtasunaren lehen liskarrak 92ko jokoetan bertan sortu ziren, inozentea ez zen *freedom for Catalonia* harekin. Pasqual Maragallen agindupean egin zen Kataluniako Estatutuaren Erreforma. *Ingeniaritza juridikoko* dosi handi eta sakonekin egindako ariketa teorikoa izan zen. Testu autonomikotik Espainiako Konstituzioa ez ezik, grabitazioaren lege unibertsala eta gauzen pisua bera ere aldatzeko gaitasunarekin. Sukalondo politiko-juridiko haren aurrean, Kataluniako hiru alderdik (CiU, Iniciativa eta PSC) alde bozkatu zuten, eta beste bik (ERC eta PP) kontra. Eta une horretan, zentzugabekerien prozesioa hasi zen, neurrigabekerien elur bola gero handiago bat, maltzurkeria, probokazio, akats, sinadura, kontraesan, engainu, epai eta beste traizio batzuen artean egin-

ciertos, firmas, contradicciones, engaños, sentencia y otras felonías. Eso sí todos con cara de buen chico y donde nadie ha roto un plato. Hoy, tras más de doce años de desencuentros generalizados, el retorno a la lealtad, necesaria en democracia, aparece como una quimera de difícil alcance y prácticamente imposible, y lo que aún resulta peor aún estamos en la fase generalizada del «yo no he sido».

dakoa. Hori bai, denak pertsona txintxoaren itxurarekin, inoiz platerik hautsi ez balute bezala. Gaur egun, hamabi urte baino gehiago ados jarri ezinik igaro ondoren, demokrazian beharrezkoa den leialtasunera itzultzeak irismen zaileko ameskeria dirudi, ia ezinezkoa, eta are okerragoa dena, «ni ez naiz izan» esaten jarraitzen dugu.

Nuestro tercer personaje Ernest Maragall (1943) se inicia y desarrolla casi toda su trayectoria ideológico-política paralelamente a su hermano Pasqual. Pero al declinar la actividad del exalcalde y *expresident de la Generalitat,* da un salto cualitativo y se instala Ernest, en la posición del independentismo que enuncia como principio innegociable: «República o Republica». Y además tenemos prisa. Continuando una deriva política de creciente desafección hacia el resto de las Españas, ahondando en las desafecciones y en otra dimensión que no parece compadecerse bien en la geopolítica europea, claramente contraria a las alteraciones fronterizas y a los sobresaltos de raíz épico-emocional. En la constitución del *Parlament de Catalunya*, en enero del pasado año, declarará como desafiante presidente de la mesa de edad Ernest Maragall, y hablando más con el corazón que con la cabeza, «este país será siempre nuestro» tras endosar todas las causas del «*desconhort*» lluliano, en su versión política fuerte, al Estado español. Evidentemente.

Gure hirugarren protagonistak, Ernest Maragallek (1943), anaia Pasqualekin batera hasi eta garatu du bere ibilbide ideologiko eta politiko ia osoa. Baina alkate ohi eta Generalitateko presidente ohiak jarduerari uko egitean, jauzi kualitatibo bat eman eta Ernest etorri zen, independentismoaren posizioan, «Errepublika ala Errepublika» printzipio negoziaezin gisa enuntziatuz. Eta gainera, presaka. Gainerako Espainiekiko gero eta desafekzio handiagoko noraez politikoan jarraituz, desafekzioetan eta, antza, argi eta garbi mugen aldaketaren eta erro epiko-emozionaleko ezustekoen kotrakoa den Europako geopolitikan ongi uztatzen ez den beste dimentsio batean sakonduz. Kataluniako Parlamentuaren eraketan, iazko urtarrilean, adin mahaiaren presidente desafiatzaile gisa mintzatu zen Ernest Maragall, eta buruarekin baino gehiago bihotzarekin hitz eginez, «herri hau gurea izango da beti» esan zuen, Llullen *desconhort*aren arrazoi guztiak, bere bertsio politiko indartsuan, Espainiako Estatuari leporatu ondoren, jakina.

Se ha envilecido la vieja epopeya verdagueriana, en un *iter* de continuadas tergiversaciones en que han sido violentadas muchas de las premisas poéticas del texto original, para convertirlo en fuente de símbolos. Hoy la *flama del Canigó*, en que sólo se identifican una parte de los catalanes. De cuyo uso y abuso hacen signo beligerante los unos contra los otros. Y lo que es más eufemístico y doloroso, haciéndolo pasar

Verdaguerren epopeia zaharra zitaldu egin da, jatorrizko testuaren premisa poetiko asko bortxatuak izan diren etengabeko desitxuratzeen *iter* batean, sinbolo iturri bihurtzeko. Gaur egun, katalanen zati bat bakarrik identifikatzen da *flama del Canigó* delakoarekin. Eta haren erabilera eta abusua, ikur beligerante bihurtu dute batzuek besteen aurka. Eta eufemistikoagoa eta mingarriagoa dena, askok iraintzat jotzen

como libertad de expresión, aquello que muchos consideran como una afrenta. Todo ello entretejido de lazos amarillos y otras formas simbólicas de descalificación del adversario.

De tanto quejarnos del Mío Cid, de Clavijo, de Santiago Matamoros, de la Cruzada nacional-católica de media España contra el resto, de concentraciones en la Plaza de Oriente madrileña y tantas exageraciones míticas más; hoy hay todo un gobierno en Catalunya que ha escogido el filón del reclutamiento festivo-mitológico de las multitudes, para luego traducirlas en ventaja política. Mal camino. Y como de casi todos los mitos anteriores, en su cualidad de adoctrinar las masas, peor salida. Ahora que parecía que nos emancipábamos de aquel maleficio histórico y entrábamos en la modernidad. Como dice el poema de Jaime Gil de Biedma, exageradamente y con claro complejo y flagelo de inferioridad: «De todas las historias de la Historia la más triste sin duda es la de España, porque termina mal.

Julio, 2019

dutena adierazpen askatasuna dela esanez. Hori guztia begizta horiz eta aurkaria deskalifikatzeko beste modu sinboliko batzuez josia.

Mío Cid, Clavijo, Santiago Matamoros, Espainia erdiaren gurutzada nazional-katolikoa beste erdiaren kontra, Madrilgo Ekialdeko plazako kontzentrazioak eta beste hainbat gehiegikeria mitikogatik kexatu izan gara, eta, gaur egun, Katalunian gobernu oso bat dago, jendetzen errekrutatze mitologiko eta jai girokoaren ildoa aukeratu duena, abantaila politiko bihurtzeko. Bide txarra. Eta aurreko ia mito guztietan bezala, jendetzak doktrinatzeko duten gaitasunean, irtenbide txarragoa. Orain, bazirudienean malefizio historiko hartatik askatu eta modernitatean sartzen ari ginela. Jaime Gil de Biedmaren poemak dioen bezala, exajeratuz eta gutxiagotasun konplexu eta zigor argiz: «Historiako historia guztien artean, zalantzarik gabe, tristeena Espainiakoa da, gaizki amaitzen delako».

2019, uztaila

## Cuatro reales gestos: del afecto a la entereza

El cuatro es, sin duda, un número mítico en Catalunya, al menos en cuanto se refiere a las cuatro barras de la heráldica, correspondientes a otros tantos dedos ensangrentados de Gifré el Pilós en su apoyo sobre el mítico escudo dorado, como recoge Martí de Riquer tomado de Pere Antoni Beuter (1551). Cuatro son los años naturales que discurren entre unos Juegos Olímpicos y los siguientes, dando duración al período de una olimpíada, tal y como aprendimos en los tiempos optimistas de Barcelona 92. Olvidemos que la división territorial en provincias, instaurada en 1833 y de impronta francesa que divide el territorio hispano-catalán en cuatro, aspecto que luego, con la Constitución de 1978, quedara completado nueve años después, con las 31 comarcas catalanas configuradas ya en 1936.

Aún sin dar un excesivo valor simbólico a los números, ni a las letras del alfabeto; entre la a y la z, desde alfa hasta omega, entre *alef* y *tav*; nunca es malo establecer algunas series conceptuales simbólicas, en base a unos determinados signos. Puesto que, en definitiva, por encima y además de los valores racionales, todos, en alguna medida, nos regimos y nos gobiernan a través de complejas «relaciones simbólicas». ¡Y qué decir cuando el buen gobierno trata de aplicarse a los asuntos colectivos de una entidad popular extensamente asentada! Se puede hacer un mejor o peor uso de los símbolos, pero lo que resulta imposible e improcedente es inventarlos y menos sólo para un grupo, para aquí y ahora mismo. El símbolo necesita de tiempo y profundidad.

Por ello estimo de algún interés traer a colación, en estos tiempos agitados, cuatro recientes «gestos reales» en relación con Catalunya, incluso siendo cons-

## Lau keinu erreal: afektutik adorera

Zalantzarik gabe, laua zenbaki mitikoa da Katalunian, heraldikaren lau barrei dagokienez behintzat: Gifré el Pilósen lau hatz odolduak irudikatzen ditu, urrezko armarri mitikoaren gainean, Martí de Riquerrek Pere Antoni Beuterrengandik (1551) jasotzen duen bezala. Lau dira olinpiar joko batzuetatik eta hurrengoetara bitarte igarotzen diren urte naturalak, eta olinpiada bati iraupena ematen diote, Bartzelona 92ko garai baikorretan ikasi genuen bezala. Ahatz dezagun probintzien araberako lurralde banaketa, 1833an ezarria eta frantziar aztarna duena, lurralde hispaniar-katalana lautan banatzen zuena; ondoren, 1978ko Konstituzioarekin, bederatzi urte beranduago osatu zen, 1936an jada eratutako 31 eskualde katalanekin.

Zenbakiei eta alfabetoko letrei balio sinboliko handiegirik eman gabe ere; *a*-tik *z*-ra, alfatik omegara, *alef*-etik *tav*-era; inoiz ez da txarra kontzeptuzko serie sinboliko batzuk ezartzea, zeinu jakin batzuetan oinarrituta. Azken batean, balio arrazionalen gainetik eta horiez gain, guztiok, neurri batean, *harreman sinboliko* konplexuek gidatzen eta gobernatzen gaituzte. Eta zer esanik ez gobernu ona herri erakunde zabal eta egonkortu baten arazo kolektiboei aplikatzen saiatzen denean! Sinboloak hobeto edo okerrago erabil daitezke, baina ezinezkoa eta bidegabea da sinboloak asmatzea, eta are gutxiago talde bakar batentzat, hementxe eta oraintxe erabiltzeko. Sinboloak denbora eta sakontasuna behar ditu.

Horregatik, uste dut interesgarria dela, garai nahasi hauetan, Kataluniari buruzko duela gutxiko lau *keinu erreal* aipatzea, nahiz eta jakin haien enuntziatuak,

ciente que su enunciado, como todo lo que guarda relación con el mundo de los símbolos, lo mismo llama a la comunión y concordia que a la desunión y discordia, pero no se me negará que el reflexionar, con humildad y cuidado, sobre ciertas cuestiones complicadas, puede ayudar a esclarecer puntos de vista.

Será con motivo del 25 aniversario o cuarto de siglo, desde los Juegos de Barcelona 92, el gesto inicial al que voy a referirme. Precioso tiempo transcurrido desde el evento que encumbró a Catalunya y Barcelona al olimpo de «un lugar en el mundo». Acontecimiento en el que los nombres de J. Antonio Samaranch, Pascual Maragall, Juan Carlos de Borbón y el de Felipe de Borbón y Grecia, encabezando con la bandera española nuestra delegación de deportistas en el desfile previo a la competición, marcan otros cuatro hitos personales de seguras referencias simbólicas, de indudable éxito, general aceptación y aprecio. La visita catalana de aquel abanderado, veinticinco años después, en julio de 2017, ya investido como Rey de España, estuvo repleta de significados de afecto y concordia que una gran mayoría estimó como de enorme importancia institucional. Como colofón nos queda la sobrecogedora imagen del Rey abrazando al alcalde de aquel lejano 92, Pascual Maragall, visiblemente disminuido en sus facultades.

Apenas transcurrido un mes y con motivo de los trágicos sucesos de agosto 2017 en la Rambla de Barcelona, el Rey volvió a la ciudad catalana para sumarse a la cabeza de una manifestación de afirmación cívica y conjura contra el miedo; frente a unos estragos y actos de terror contra la humanidad, que tuvieron por escenarios principales Barcelona y Cambrils. El profundo gesto de afecto del Rey, para sumarse al dolor general, fue parcialmente contestado con un amplio estruendo propagandístico y sonoro, escondiendo bajo un meti-

sinboloen munduarekin zerikusia duen guztiak bezala, elkartasunerako eta adiskidetasunerako deia ez ezik, tirabirarakoa eta desadostasunerakoa ere egin dezakeela, baina ez iezadazue esan gai korapilatsu batzuei buruz apaltasunez eta kontuz hausnartzeak ezin duela lagundu gai batzuk argitzen.

Aipatuko dudan lehenengo keinua Bartzelona 92ko olinpiar jokoen 25. urteurrenean edo mende laurdenean egindakoa da. Denbora asko igaro da Kataluniak eta Bartzelonak *munduan leku bat* izatea ahalbidetu zuen ekitaldia egin zenetik. J. Antonio Samaranch, Pascual Maragall, Juan Carlos Borboikoa eta Felipe Borboikoa eta Greziakoa, Espainiako banderarekin gure kirolarien ordezkaritzaren buruan, txapelketaren aurreko desfilean, erreferentzia sinboliko argiko beste lau mugarri pertsonal dira, zalantzarik gabe arrakasta, onarpen eta estimu handikoak. Banderadun hark hogeita bost urte geroago, 2017ko uztailean, Kataluniara egindako bisita, jada Espainiako errege izendatuta, afektuzko eta adiskidetasunezko esanahiz beteta egon zen, eta gehiengo handi batek garrantzi instituzional handikotzat jo zuen. Amaitzeko, irudi hunkigarri bat daukagu: erregearen besarkada gaitasunak nabarmen gutxituta dituen Pascual Maragall 92 urrun hartako alkateari.

Hilabete geroago, Bartzelonako Ramblako 2017ko abuztuko gertaera tragikoak zirela eta, erregea hirira itzuli zen, beldurraren aurkako eta baieztapen zibikorako manifestazio baten buruan, agertoki nagusitzat Bartzelona eta Cambrils izan zituzten gizateriaren aurkako triskantza eta terrorezko ekintza haien aurrean. Erregearen afektu keinu sakonari, oinaze orokorrarekin bat egiteko, propaganda eta soinu zalaparta handiz erantzun zitzaion partzialki, antolaketa agindu zorrotz baten azpian ustezko eta ezohiko herri

culoso dictado organizativo una pretendida e intempestiva espontaneidad popular. Con pitos y algunas descalificaciones, más o menos estrafalarias, bien estructuradas desde la publicidad e indignas de una manifestación de duelo. Los pitos sólo concedieron tregua al sonar los acordes tristes y grandiosos del *Cant dels Ocells*, obra de Pau Casals en la que se condensa gran parte del dolor y la esperanza del pueblo de Catalunya. Fue un momento musical para el acuerdo, brevísimo tiempo para toda una tarde y un recorrido de autoafirmación colectiva, humana, triste, vital y de luto.

espontaneotasun bat ezkutatuz. Txistuak eta zenbait deskalifikazio, gutxi-asko estrafalarioak, ongi egituratuak publizitatetik eta lotsagarriak dolu adierazpen batean. Txistuak, Pau Casalsen *Cant dels Ocells*en akorde triste eta berebizikoak entzutean bakarrik isildu ziren, Kataluniako herriaren minaren eta itxaropenaren zati handi bat kondentsatzen baita bertan. Akordiorako une musikala izan zen, denbora ikaragarri laburra arratsalde oso baten barruan, eta autoafirmazio kolektibo, gizatiar, triste, bital eta doluzkorako ibilbide bat.

Tras de los acontecimientos de los primeros días de Septiembre 2017 en el Parlament, preparatorios de la liturgia del 1.º de octubre, con todos los oficiantes en la ceremonia de «democracia provocativa» bien adiestrados, y tras los desgraciados y aparatosos sucesos de esa jornada, con apenas dos días de intervalo; nueva aparición del Jefe del Estado. Esta vez desde su despacho en La Zarzuela. Como corresponde a los momentos graves, gravedad en la alocución, brevedad y concisión en el mensaje, puesta en escena de «auctoritas» serena apoyada en la propia figura del Rey, sin ampliar la vista de la imagen a su antecesor ilustrado Carlos III, sin perderse en aspectos secundarios y con un mensaje evidente: el compromiso de la Corona con la Constitución y con la democracia. Es el momento de la entereza institucional. Los principales destinatarios del mensaje, en vez de reflexionar y evaluar la intensidad de su sentido, se lanzan a la gran descalificación. Desde la Generalitat se enuncia un desafiante «así no», de incierto recorrido.

2017ko iraileko lehen egunetan Kataluniako Parlamentuan gertatutakoaren ondoren, urriaren 1eko liturgiaren prestaketa gisa, *demokrazia probokatzaileko* zeremoniaburu guztiak ongi trebatuta, eta egun horretako gertakari zoritxarrezko eta zalapartatsuen ondoren, bi egun eskaseko tartearekin: Estatuko buruaren agerraldia, berriz. Oraingoan Zarzuelako bulegotik. Une larriei dagokien bezala, ahots lodia, mezu laburra eta zehatza, *auctoritasen* eszenaratze lasaia erregearen irudian oinarrituta, irudiaren ikuspegia bere arbaso Carlos III.a ilustratuari zabaldu gabe, bigarren mailako alderdietan galdu gabe eta mezu argi batekin: Koroaren konpromisoa Konstituzioarekin eta demokraziarekin. Erakundeen sendotasunaren unea. Baina mezuaren hartzaile nagusiak, hausnartu eta haren zentzuaren intentsitatea ebaluatu beharrean, deskalifikazioetan hasi ziren. Eta Generalitateak «horrela ez» desafiatzaile bat bota zuen, zalantzazko ibilbidearekin.

Finalmente un cuarto gesto se produjo durante la sesión solemne de la entrega de los premios Princesa de Asturias. Fue durante al acto de galardonar a la Unión Europea, con el premio a la Concordia. En presencia de sus principales autoridades: Donald Tusk (Consejo), Jean

Azkenik, laugarren keinua Asturiasko Printzesa sariak banatzeko ekitaldian egin zen. Europar Batasunari Konkordia saria emateko ekitaldian. Donald Tusk (Kontseilua), Jean Claude Juncker (Batzordea) eta Antonio Tajani (Parlamentua) agintari nagusien

Claude Juncker (Comisión) y Antonio Tajani (Parlamento), el Rey Felipe VI expresó, en un emotivo discurso europeísta, el agradecimiento, a sus representantes institucionales, por su apoyo en los momentos de afianzamiento de la democracia en España, así como en los momentos actuales en que las autoridades catalanas han pretendido apropiarse de «la idea europea» en contra de España. Protagonizando unilateralmente un intento de secesión. Como colofón Don Felipe garantizó, una fidelidad sin fisuras, del Estado, que él representa, para consolidar y fortalecer los principios democráticos en los que se sustenta la Unión.

Son en definitiva cuatro momentos de especial intensidad por parte de la máxima instancia institucional del Estado, con modulaciones acompasadas desde el afecto a la entereza. Han seguido otras intervenciones de pública exhortación por parte del Rey, así el mensaje por navidad y la recepción al cuerpo diplomático en el palacio real.

Queda el camino, sin duda difícil, para restaurar los daños, proponer las correspondientes autocríticas y reiniciar, con prudencia y valentía, el arduo camino de transformar y adaptar los comportamientos colectivos y las normas para una mayor efectividad en la convivencia de las personas.

Si a un grupo, por nutrido que sea, no le agradan los ordenamientos jurídicos mayoritariamente aceptados y provoca asonadas o golpes de estado, como lo hicieran bajo el liderazgo del General Primo de Rivera en 1923 y el General Franco trece años más tarde, en ambos casos con el silencio cómplice del Rey Alfonso XIII, reinante en el primer caso y en el exilio en el segundo; habrá que denunciarlos como graves crímenes contra el valor supremo de la convivencia democrática y un grave error de pusilanimidad.

aurrean, Felipe VI.a erregeak, hitzaldi europeista hunkigarri batean, eskerrak eman zizkien ordezkari instituzionalei beren babesagatik, bai Espainian demokrazia finkatzeko, bai une haietan ere, Kataluniako agintariek *Europaren ideiaz* jabetu nahi izan zutenean, Espainiaren aurka erabiltzeko. Alde bakarretik sezesio saiakera bat eginez. Amaitzeko, Felipek berak ordezkatzen duen Estatuaren fideltasuna bermatu zuen, pitzadurarik gabe, Batasunaren oinarri diren printzipio demokratikoak sendotzeko eta indartzeko.

Azken batean, Estatuko instantzia instituzional gorenaren lau une dira intentsitate berezikoak, afektutik sendotasunera doazen modulazio pausatuekin. Erregeak beste aholku mintzaldi publiko batzuk ere egin ditu, hala nola Eguberrietako mezua eta errege jauregian kidego diplomatikoari egindako harreran.

Bide zaila geratzen da, zalantzarik gabe, kalteak konpontzeko, autokritikak proposatzeko eta, zuhurtziaz eta ausardiaz, jokabide kolektiboak eta arauak eraldatzeko eta egokitzeko bide nekezari ekiteko berriz, pertsonen bizikidetzan eraginkortasun handiagoa lortzeko.

Talde bati, oso ugaria izan arren, ez bazaizkio gustatzen gehiengoak onartutako ordenamendu juridikoak, eta matxinadak edo estatu kolpeak eragiten baditu, 1923an Primo de Rivera jeneralaren buruzagitzapean eta hamahiru urte geroago Franco jeneralarenaren pean egin zuten bezala, bi kasuetan Alfontso XIII.a erregearen isiltasun konplizearekin, zeina lehen kasuan errege zen eta bigarrenean erbestean zegoen, elkarbizitza demokratikoaren balio gorenaren aurkako krimen larri eta koldarkerria akats larri gisa salatu beharko dira.

Por incomparables que sean los grados de violencia y crueldad con nuestra actual situación, ambos desvaríos, contra el estado de legalidad, nos deben de mostrar precedentes a extirpar de la vida política en España. Mucho ha costado, y está costando, restañar las profundas heridas de aquellos asaltos a la convivencia; han pasado ya casi 100 años. Será cuestión de aprovechar los avances, de todo tipo, experimentados por la España democrática, en sus nacionalidades y regiones, para ir avanzando en instrumentos, de nueva finura política, que nos ayuden a convivir en paz. Mientras tanto, menos piraterías políticas y jurídicas con sus astucias imaginativas, autistas y unilaterales, ni otros tipos de «asalto a los cielos». Ahora toca insistir en la acción democrática, participar en las instituciones con tesón, inteligencia y generosidad, pero sobre todo con lealtad, viejo término demasiado apartado del lenguaje político cotidiano, pero necesario, imprescindible y sin cuya puesta en el frontispicio de nuestros hábitos será imposible la convivencia y la paz.

Febrero, 2018

Gure egungo egoerarekin alderaezinak diren arren indarkeria eta krudeltasun mailak, legezkotasun egoeraren aurkako bi zentzugabekeria horiek Espainiako bizitza politikotik erauzi beharreko aurrekariak izan behar dute. Asko kostatu da, eta kostatzen ari da, elkarbizitzaren kontrako eraso haien zauri sakonak sendatzea; ia 100 urte igaro dira jada. Espainia demokratikoak bere nazionalitateetan eta eskualdeetan egindako aurrerapenak, era guztietakoak, aprobetxatu beharko dira, elkarbizitza baketsu bat izaten lagunduko diguten fintasun politiko berriko tresnetan aurrera egiteko. Bitartean, pirateria politiko eta juridiko gutxiago, maltzurkeria irudimentsu, autista eta aldebakarrekoekin, eta *zeruari eraso* egiteko beste modu batzuekin. Orain ekintza demokratikoa azpimarratu behar da, erakundeetan parte hartu behar da adorez, buru argiz eta eskuzabaltasunez, baina, batez ere, leialtasunez; izan ere, eguneroko hizkera politikoa hurrunegi dago leialtasunaren termino zaharretik, baina beharrezkoa da, ezinbestekoa, eta gure ohituren frontispizioan jartzen ez badugu, bizikidetza eta bakea ezinezkoak izango dira.

2018, otsaila

## La manicura al tigre y elogio de Manuela Carmena

Es notoria la capacidad del antiguo parlamentario vasco Iñaki Anasagasti a la hora de crear aforismos precisos que diseccionan y definen aspectos cruciales de la actividad política. Hoy resulta legendario aquel «Brunete mediática», que sirvió entonces para englobar la belicosidad «quasi militar» de gran parte de la prensa y otros medios de comunicación al tratar de manera unidireccional y desde el prisma centralista, temas de enorme sutileza, polisémicos, confusos y ardientes por definición. Así resultan los conceptos derivados de unos sentimientos de pertenencia: nacionalidad, nación, país y patria, en los variados entornos que conforman y constituyen España. No olvidemos que la palabra nacionalismo significa exactamente lo contrario-beligerante pronunciada por Macron o por Urkullu.

No menos meritorio resultó el hallazgo del periodista Enric Juliana al propugnar el concepto de «Brigada Aranzadi», que engloba, bajo «una capa guerrera», a una pléyade de mandatarios y usuarios ventajistas del inmenso caudal de datos jurídicos y sentencias recopiladas en la base Aranzadi. Para conducir los aspectos más dificultosos de la política territorial a un callejón jurisprudencial. Pero quizá el aforismo que hoy pueda tener mayor oportunidad sea: «Hacer la manicura al tigre» que, aun siendo de origen impreciso, según creo, ha sido utilizado recientemente y con profusión por el exparlamentario vasco Anasagasti. Principalmente, en cuanto se refiere al proceso separatista catalán, en sus manifestaciones más fuertes.

Así llegará a concretar: «Seguramente los catalanes soberanistas pensaron que podían hacerle la manicura al tigre y que les iba a salir gratis. Demostraron o ingenuidad o escasa capacidad para saber medir sus

## Tigrearen manikura eta Manuela Carmenaren laudorioa

Nabarmena da Iñaki Anasagasti legebiltzarkide ohiaren gaitasuna jarduera politikoaren funtsezko alderdiak disekzionatzen eta definitzen dituzten aforismo zehatzak sortzeko. Gaur, legendarioa da *brunete mediatiko* hura, garai hartan prentsaren eta beste komunikabide batzuen gerrazaletasun *quasi militarra* biltzeko balio izan zuena, norabide bakarrean eta prisma zentralistatik tratatu baitzituen definizioz oso sotilak, polisemikoak, nahasiak eta sutsuak diren gaiak. Horrelakoxeak dira Espainia osatzen duten askotariko inguruneetako pertenentzia sentimenduetatik etorritako kontzeptuak: nazionalitatea, nazioa, herrialdea eta aberria. Ez dezagun ahaztu *nazionalismo* hitzak Macronek edo Urkulluk esandakoaren kontrakoa esan nahi duela.

Gainera, Enric Juliana kazetariak *Aranzadi brigadaren* kontzeptuaren alde egin zuen, Aranzadi basean bildutako datu juridiko eta epai ugariren mandatari eta erabiltzaile abantailazale ugari biltzen baititu *gerlari geruza* baten azpian. Lurralde politikaren alderdirik zailenak jurisprudentzia kale batera eramateko. Baina gaur egun, agian, aforismo egokiena izango da *tigreari manikura egitea*; jatorri zehatza ezagutzen ez den arren, Anasagasti legebiltzarkide ohiak berriki eta ugari erabili duela uste dut. Nagusiki Kataluniako prozesu separatistari dagokionez, bere adierazpen gogorrenetan.

Horrela, adierazi zuen: «Ziurrenik subiranista katalanek pentsatu zuten tigreari manikura egin ziezaioketela eta doan aterako zitzaiela. Erakutsi zuten, edo inozentzia, edo beren indarrak neurtzeko gaitasun

fuerzas. Si tú das una patada al avispero, prepárate con escafandra pues las abejas van a ir a dar cuenta de ti porque el tigre está ahí para darte zarpazos» y añade unas líneas más abajo en su artículo de 3 diciembre 2017: «Y si hacemos un control de daños comprobaremos cómo la fenomenal onda españolista despertada por el Procés ha despertado a la fiera hispana que ahora nos dice que el Cupo es el impuesto revolucionario de ETA y que somos una autonomía piraña. Y lo dicen casi todos, de Pancorbo para abajo. Está claro que sin el telón de fondo catalán, esto no se hubiera producido. Cuerpo a tierra, pues, que vienen los legionarios».

urria. Erlauntzari ostiko ematen badiozu, prestatu eskafandrarekin, erleek gogor erasoko baitizute, tigrea atzaparkadak emateko baitago hor». Eta, lerro batzuk beherago, 2017ko abenduaren 3ko artikuluan, hau gaineratu zuen: «Eta kalteen kontrola egiten badugu, ikusiko dugu Prozesuak eragindako uhin espainolista zoragarriak piztia espainola esnatu duela, esanez kupoa ETAren iraultza zerga dela eta piraña autonomia garela. Eta Pancorbotik behera, ia denek esaten dute hori. Argi dago Kataluniaren hondoko oihalik gabe ez zela horrelakorik gertatu izango. Etzan lurrean, beraz, legionarioak datoz eta».

En este contexto de ideas, sin concesión a los eufemismos, expresado por uno de los más conspicuos representantes del nacionalismo periférico, significado en Galeuscat (Galicia, Euskadi, Catalunya), no es de extrañar que un espíritu tan fino como el de Manuela Carmena haya expresado en Barcelona que la aparición de «Vox es en parte consecuencia del Procés». Sin escaparse del fondo de los problemas, y en un contexto cuando menos comprometido. Para afirmar seguidamente, como corresponde a una persona imbuida por el espíritu de la magistratura, fiel demócrata y defensora del estado de derecho: «El problema es el entorpecimiento de las instituciones, la pretensión de la DUI, el referéndum del 1 de octubre en unas condiciones en las que nunca debería de haberse celebrado y que han perjudicado a Catalunya y a toda España».

Ideien testuinguru horretan, eufemismoei kontzesiorik egin gabe, nazionalismo periferikoaren ordezkari bikainenetako batek, Galeuscat-en (Galizia, Euskadi, Katalunia) itzal handia duenak adierazita, ez da harritzekoa Manuela Carmena bezain espiritu finak Bartzelonan adierazi izatea «Vox, neurri batean, Prozesuaren ondorio da». Arazoen muinari ihes egin gabe, eta testuinguru zail batean. Eta jarraian, magistraturaren espiritua buruan sartuta duen eta zuzenbide estatuaren defendatzailea den demokrata leial bati dagokion moduan, honako hau esan izatea: «Arazoa da erakundeak oztopatzea, aldebakarreko independentzia aldarrikapena egin nahi izatea, urriaren 1eko erreferenduma, inoiz egin behar ez zen eta Kataluniari eta Espainia osoari kalte egin dioten baldintzetan».

Y no digamos el perjuicio causado al universo de las ideas de cuantos creemos con empeño en un modelo de estado descentralizado, autonómico o federal. En estos tiempos de soberanías ampliamente compartidas y en un contexto geopolítico que es el que es y no el que pueda surgir de la mitología y la propaganda interesadas.

Eta zer esanik ez, estatu eredu deszentralizatu, autonomiko edo federal batean zinez sinesten dugunon ideien unibertsoari eragindako kaltea. Gehienek partekatutako subiranotasunen garai hauetan, eta testuinguru geopolitiko honetan, den hori baita, eta ez mitologiatik eta propaganda interesatuetatik sor daitekeena.

La diabólica secuencia de provocaciones por doquier hace que desde hace varios años las minorías más activas del separatismo catalán se hayan dedicado con intensidad a la «fabricación de *botiflers*». Y luego someter al juicio público y descalificatorio a todos los traidores, siguiendo la vieja tradición hispana de los «sambenitos» y los pogromos antijudíos. La lista es enorme y sorprendente: los poetas de la canción catalana como Raimon y Serrat se incluyen, a título de ejemplaridad provocadora de silencios, en una muy larga lista que no termina con los políticos Rufián y Torra… Incluso Puigdemont fue maltratado, cual Judas maligno, bajo acusación de vender la República soñada al simbólico valor de 155 monedas de indignidad claudicante. ¡Qué dirección política y qué proyecto ilusionante puede adivinarse detrás de todo ello! La gobernanza de un pueblo es demasiado seria para jugarla a los dados yendo de farol. Harto suaves y componedoras se me antojan en este contexto las palabras de Carmena y Anasagasti.

No es de extrañar que ante estas ideas hayan discrepado airadamente las fuerzas políticas más cercanas a la anarquía y al «cuanto peor mejor», así como los fieles continuadores de «socializar del sufrimiento» que tanto hemos padecido por estas tierras. Aquellos que declaran guerras para que vayan a pelear y sufrirlas otros y siempre lo hacen desde premisas mitológicas, de inferioridad, amateurismo, romería pseudofestiva y soledad internacional. ¿Recuerdan? el «*jaiak bai, borroka ere bai*».

Resulta más complicado entender a gentes que desde nuestro entorno se hayan sentido estafadas y desilusionadas con la exalcaldesa madrileña y planteen sobre este tema titulares de prensa como «Coscorrón a Manuela Carmena» o se empeñen en airear un inmenso lazo amarillo, simbólico y disolvente res-

Nonahiko probokazioen sekuentzia gaiztoa dela eta, duela urte batzuetatik hona, Kataluniako separatismoaren gutxiengo aktiboenak *botifler* delakoak egiten aritu dira buru-belarri. Eta, gero, traidore guztiei epaiketa publikoa egin eta deskalifikatzen, *sanbenitoen* eta juduen aurkako pogromen tradizio espainol zaharrari jarraituz. Zerrenda handia eta harrigarria da: Kataluniako kantagintzako poetak, Raimon eta Serrat adibidez, isiltasunak probokatzeko eredu gisa, zerrenda luze batean sartzen dira, politikariekin batera (Rufian, Torra…). Puigdemont bera ere gogor hartu zuten, Judas gaiztoa bailitzan, ametsetako Errepublika duintasunik gabeko 155 txanponen balio sinbolikoan saldu izanaren akusaziopean. Zer zuzendaritza politiko eta zer proiektu ilusionagarri igar daitekeen horren guztiaren atzean! Herri bat gobernatzea gauza serioegia da dadoetan jokatzeko, hordago ustela jota. Carmenaren eta Anasagastiren hitzak oso suabeak eta onez-onezkoak iruditzen zaizkit testuinguru horretan.

Ideia horien aurrean ez da harritzekoa, beraz, anarkiatik eta «zenbat eta okerrago hobe» esatetik hurbilen dauden indar politikoak eta lur hauengatik biziki jasan dugun *sufrimenduaren sozializazioaren* jarraitzaile leialak ados ez egotea. Gerrak deklaratzen dituztenak beste batzuk joan daitezen borrokatzera eta sufritzera, betiere premisa mitologikoetatik, gutxiagotasunetik, amateurismotik, erromeria ustez jai girokoetatik eta nazioarteko bakardadetik. Gogoratzen duzue «jaiak bai, borroka ere bai» hura?

Zailagoa da gure ingurunean Madrilgo alkate ohiak iruzur egin diela eta desengainua sentitu duten pertsonei ulertzea, gai horri buruzko prentsako titularrak planteatzen dituztenean, hala nola *Coscorrón a Manuela Carmena*, edo jartzen dutenean lazo hori handi eta sinboliko bat, nahasmendu eragilea Espainiako

pecto a la separación de poderes en la política española, a plena fachada de su sede partidaria territorial. Es evidente que faltan políticas responsables con el ánimo de resolver, desde la lealtad, unos problemas evidentes y hacerlo de modos correctamente planteados, para que las practiquemos desde todos los poderes, estamentos e instancias, pero sobre todo desde las más altas en la escala de la gobernanza, abandonando procedimientos torticeros cuajados de mil florituras, trampas y otras astucias.

Septiembre, 2019

politikako botere banaketari dagokionez, alderdiaren lurralde egoitzaren fatxadan. Argi dago politika arduratsuak falta direla, leialtasunetik arazo nabarmenak konpontzeko eta behar bezala planteatutako moduen bidez egiteko, botere, estamentu eta instantzia guztietatik egin ditzagun, baina, batez ere, gobernantzaren eskalan gorenetatik, mila apaingarri, tranpa eta bestelako maltzurkeriatan oinarritutako prozedurak alde batera utzita.

2019, iraila

## *Quo vadis* Catalonia?

El «*poble*» ese sempiterno «*paller en recerca del pal*», versión ruralista del «*axis mundi*» resulta el material más dúctil y maleable de cuantos componen el universo, según indica Erasmo en su Elogio de la locura. Auténtico paradigma de la cuestión catalana, en su itinerario programado, desde la aprobación entusiasta de la Constitución del 78 hasta el 1-O-17 épico y rebelde, con el juego de unas urnas exóticas traídas de la China. Cual si fuera un inmenso *happening* entre «guardias y catalanes puros». Lástima, para quienes habíamos soñado con unas nacionalidades en autonomía, madurando en libertades, para embridar como partícipes, de la manera más noble de las posibles, a un estado fuerte. Necesario, en el contexto de la geopolítica de los tiempos que han seguido a las brutales guerras europeas del pasado siglo. Era posible, y aún lo es. Pero todos debemos despertar del letargo en que nos han sumido quienes han maltratado nuestras ilusiones, desde la deslealtad, la corrupción, la anarquía. Reaccionar frente a quienes tratan de confundirnos entre legalidad y democracia y lo que es aún peor, entre democracia y las ansias irrefrenables de un simulacro para elegir entre el sí y el no.

Febrero, 2019

## *Quo vadis* Catalonia?

Erasmok *Elogio de la locura* lanean zioenez, *poble* delakoa, *paller en recerca del pal* betiereko hori, *axis mundi*ren bertsio landatarra, unibertsoa osatzen duten material guztietan harikor eta xaflagarriena da. Kataluniako auziaren benetako paradigma, bere ibilbide programatuan, 78ko Konstituzioaren onarpen sutsutik 17-10-1 epiko eta errebeldera arte, Txinatik ekarritako hautetsontzi exotikoekin. *Guardien eta katalan puruen* arteko *happening* itzela bailitzan. Tamalez, batzuk nazionalitateak amestu genituen autonomian, askatasunean helduz, parte hartzaile gisa, ahalik eta modu nobleenean, estatu indartsu bat bridatzeko. Beharrezkoa, joan den mendeko Europako gerra basatien ondorengo garaien geopolitikaren testuinguruan. Posible zen, eta oraindik ere posible da. Baina denok esnatu behar dugu, desleialtasunetik, ustelkeriatik eta anarkiatik gure ilusioak gaizki tratatu dituztenek eragin diguten lozorrotik. Erreakzionatu gu nahasten saiatzen direnen aurrean, legezkotasunaren eta demokraziaren artean, eta, are okerragoa dena, demokraziaren eta *bai* ala *ez* aukeratzeko simulakro baten irrika geldiezinen artean.

2019, otsaila

# Retórica, comunicación y propaganda

- Bambi en el País de la Cucaña.
- Del anonimato a la imposición.
- La deuda puede esperar. La mentira no se debe tolerar.
- ¿Conectados en red o enredados?
- El estercolero.

# Erretorika, komunikazioa eta propaganda

- Bambi Pagotxaren Herrian.
- Anonimotasunetik inposaketara.
- Zorrak itxaron dezake. Gezurra ezin da onartu.
- Sarean konektatuta ala korapilatuta?
- Simaurtegia.

## Bambi en el País de la Cucaña

No es lejano el tiempo en el que el «buen José Luis» (Rodríguez Zapatero), arrastraba de prado en prado la gracilidad de una «figura carismática» a la que algunos maliciosos llamaron «Bambi». Ese debate entre el buenismo del pequeño ciervo de blanca cola y la astucia de quien debería ejercer como «rey de la selva» nos acompaña desde que llegara a la presidencia del gobierno de España. Entonces se produjeron los primeros gestos de una inusual entereza política. Entre otros el de retirar las tropas españolas del Irak en una guerra, a la que nos había conducido la temeridad de su antecesor en el cargo. Con estos comienzos y con las promesas que todos lanzan en cada campaña electoral, fueron largos los tiempos en los que trataron de hacernos creer que el nuestro era el País de la Cucaña, aquel en el que «quien más duerme más gana». Esa eterna «Tierra de Jauja» en la que los ríos arrastran caudales de vino y leche, en todo caso de cosecha bien cualificada y la leche debidamente pasteurizada.

Cuidadosamente conducidos por la propaganda, han sido tiempos de mirarse en el ombligo de la propia opulencia. Desde los despilfarros urbanísticos por todas las partes de la geografía, las recalificaciones arbitrarias de terrenos en busca de pingües y rápidos beneficios económicos (públicos y privados), a las casas culturales y museos en todos los rincones de España, pasando por las casitas de «*weekend*» en la costa, los coches de alta gama y otros lujos, en todo caso tras de vender el alma y la vida al «sistema bancario» de turno, en forma de una hipoteca sin final.

Mientras, cada día ha sido mayor la dificultad de encontrar un puesto de trabajo. Enteros grupos profesionales han sido amortizados o se debaten en la más angustiosa precariedad, los jóvenes, por bien preparados

## Bambi Pagotxaren Herrian

Ez aspaldi, Jose Luis «ona» (Rodriguez Zapatero) *figura karismatiko* baten graziarekin ibiltzen zen belardiz belardi, eta asmo txarreko batzuek «Bambi» esaten zioten. Isats zuriko orein txiki eta onaren eta *oihaneko errege* izan beharko lukeenaren maltzurkeriaren arteko eztabaida hori bidelagun dugu Espainiako gobernuaren presidentziara iritsi zenetik. Orduan, ezohiko sendotasun politikoaren lehen keinuak egin zituen. Besteak beste, Espainiako tropak Iraketik erretiratzea gerra garaian, aurreko presidentearen ausarkeriak eraman baikintuen hara. Hasiera horrekin eta hauteskunde kanpaina bakoitzean denek egiten dituzten promesekin, denbora luzez saiatu ziren sinetsarazten gurea pagotxaren herria zela, «lo gehien egiten duenak gehien irabazten duen herria». *Mauka herri* betiereko hori, non ibaiek ardoa eta esnea daramatzaten, betiere ongi kualifikatutako uzta batekoa, eta esnea behar bezala pasteurizatuta.

Propagandak kontu handiz gidatuta, norberaren oparotasunaren zilborrean begiratzeko garaiak izan dira. Alde batetik, geografiaren alde guztietan egindako hirigintza xahutzeak, eta lurren birkalifikazio arbitrarioak etekin ekonomiko guriak eta azkarrak (publikoak nahiz pribatuak) lortzeko, eta bestetik, kultur etxeak eta museoak Espainiako txoko guztietan, *weekend*eko etxetxoak kostaldean, gamma altuko autoak eta bestelako luxuak, betiere arima eta bizia saldu ondoren betiko *banku sistemari*, amaierarik gabeko hipoteka moduan.

Bitartean, egunetik egunera gero eta zailagoa da lanpostu bat aurkitzea. Profesional talde osoak amortizatuak dira edo prekarietate estugarrienean ari dira; gazteek, ongi prestatuta egon arren, ia ez dute lan-

que estén, apenas encuentran lugar digno donde trabajar y ser justamente remunerados y si miráramos a las costas del sur, iban y van llegando cada amanecer inmensas cantidades de gentes de color, arrastrando su miseria, en busca arriesgada de su propia esperanza y apilados en inhóspitas pateras.

En Euskadi además tenemos otro problema que lo enturbia todo, y cuya gravedad es aún mucho mayor. Me refiero a la persistente amenaza de la violencia que no conseguimos hacer desaparecer, problema de honda raíz política pero que se manifiesta cotidianamente en el más evidente de los estertores de la crueldad del terror y sus lamentables consecuencias.

A eso se le llama desorden institucional y desbarajuste global. No es esa la globalidad que interesa. La globalidad debe primero de mirar a la erradicación de la pobreza, a limar la desigualdad, a proponer una efectiva igualdad de oportunidades, a la paz y la concordia y sobre todo evitar la burocracia leguleya, interesada y culpable de tanta injusticia y tanta mediocridad. Tampoco este estado de cosas se arregla con una insumisa y estoica entrega en manos de ese ente fantasmagórico al que llamamos «mercado». El problema radica ahora y aquí en que aún no estamos organizados para hacer fructífera nuestra indignación. Han sido demasiados años los que hemos estado adormilados dejando que la miseria, económica, política y moral creciera en amplias zonas de nuestro mundo mientras hemos sido habitantes silenciosos del «país de la cucaña».

Ahora toca el tiempo de la política. Menos propaganda y más comunicación (poner las cosas, y los temas todos, en común), menos demagogia de corto alcance y mayor economía de recursos para limitar los cotidianos despilfarros de una falsa autorrepresentación. Es el momento de no abandonarse al desánimo

postu duinik aurkitzen eta soldata duinik jasotzen; eta hegoaldeko kostaldeetara begiratzen badugu, egunsenti bakoitzean pertsona beltz ugari iristen dira, beren miseria arrastaka dakartela, bidaia arriskutsu batean beren itxaropenaren bila, patera babesgabeetan pilatuta.

Euskadin, gainera, badugu beste arazo bat, dena lausotzen duena, eta are larriagoa dena. Indarkeriaren mehatxu etengabeaz ari naiz, ez baitugu lortzen desagerraraztea. Erro politiko sakoneko arazoa da, eta egunero agertzen da terrorearen ankerkeriaren eta haren ondorio tamalgarrien arnasestu nabarienean.

Horri esaten zaio desordena instituzionala eta desoreka globala. Ez da hori interesatzen den globaltasuna. Orokortasunak, lehenik eta behin, pobrezia desagerrarazteko izan behar du, desparekotasuna mugatzeko, aukera berdintasun eraginkorra proposatzeko, bakea eta adiskidetzea lortzeko, eta, batez ere, burokrazia sasiletratu, interesatu, bidegabe eta erdipurdikoa saihesteko. Gauzen egoera hori ez da konpontzen *merkatu* esaten diogun izaki fantasmagoriko horren eskuetan entregatuta intsumiso moduan eta estoikoki. Arazoa da, hemen eta orain, ez gaudela antolaturik gure haserrea emankor bihurtzeko. Urte gehiegi igaro ditugu erdi lo, miseria ekonomiko, politiko eta moralari gure munduko eremu zabaletan hazten utziz, *pagotxaren herriko* biztanle isilak izan garen bitartean.

Orain politikaren garaia da. Propaganda gutxiago eta komunikazio (gauzak, eta gai guztiak, bateratzea) gehiago, irismen laburreko demagogia gutxiago eta baliabideen ekonomia gehiago, autoerrepresentazio faltsu baten eguneroko xahutzeak mugatzeko. Ez dezagun adorea galdu, eta ez diezaiegun erakundeetan

ni dejar el paso expedito en las instituciones a quienes siempre han gestionado la «cosa pública» desde el egoísmo ciego de los mejor situados o desde la demagogia estéril de un oportunismo de corto recorrido. Por difícil que se presente, es sin duda el momento del voto responsable, y a partir de la formación de gobierno, todos a la tarea de organizar nuestra desazón y cabreo, poner nuestra fuerza al servicio de la democracia y a exigir de los electos que cumplan con su responsabilidad.

Mayo, 2011

sartzen utzi *gauza publikoak* beti kudeatu izan dituztenei hoberen kokatuta daudenen egoismo itsuan edo ibilbide laburreko oportunismoaren demagogia antzuan oinarrituta. Zaila bada ere, boto arduratsuaren unea da, zalantzarik gabe, eta gobernua osatuz gero, guztiok antolatu behar dugu gure ezinegona eta haserrea, gure indarra demokraziaren zerbitzura jarri eta hautetsiei beren erantzukizuna bete dezatela eskatuz.

2011, maiatza

## Del anonimato a la imposición

El mito de Fuenteovejuna se impone como una de las maneras de expresar las «nuevas maneras de juicio» en una sociedad cybertecnificada. Ocurre con intensidad creciente en la sociedad occidental a la que pertenecemos, en la que tras difuminar el legado de Montesquieu (separación de los tres poderes clásicos, claramente delimitados), trata de establecer patrones o modelos de convivencia y sociabilidad sorprendentemente volátiles y no por ello menos potentes, intensos, y frecuentemente de extremada crueldad. Vayamos por partes. Lope de Vega expresa con precisión el trecho que separa la «acción popular desregulada» de matar al tirano (el comendador Fernán González) de la «justicia en su sentido más estricto y personal» con el breve diálogo: ¿Quién mató al comendador?, Fuenteovejuna, señor. Y quien es Fuenteovejuna. Todos a una.

Evidentemente el hecho criminal quedó impune. Tras esta, aparentemente ingenua, transferencia de responsabilidad del «autor o autores» del crimen, al colectivo impersonal que se desvanece bajo el nombre de «su población», se perpetua una peligrosa deriva de irresponsabilidades de la que nacen tantos desmanes colectivos.

Antes era Fuenteovejuna, ahora son los Mercados.

El anonimato favorece la impunidad, nos adentra de manera peligrosa en terrenos aptos para la injusticia y nos retrotrae a épocas previas a las sistematizaciones para la convivencia, más valiosas de la modernidad.

Una primera deriva de este estado de cosas es la catarata de insultos, descalificaciones, faltas de respeto y otras lindezas con las que «*trolls*», por llamarlos de alguna manera también ininteligible en nuestras lenguas,

## Anonimotasunetik inposaketara

*Fuenteovejunaren* mitoa gizarte ziberteknifikatu batean *epaiketa modu berriak* adierazteko moduetako bat da. Gero eta indar handiagoz gertatzen zaigu mendebaldeko gizartean, non, Montesquieuren ondarea lausotu ondoren (hiru botere klasikoen banaketa, argi eta garbi mugatuta), ezarri nahi diren elkarbizitza eta soziabilitate eredu oso aldakorrak, baina hala ere indartsuak, biziak, eta sarritan krudelkeria handikoak. Goazen pixkanaka. Lope de Vegak zehaztasunez bereizten ditu tiranoa (Fernán González komendadorea) hiltzeko *herri ekintza desarautua* eta *justizia zentzu hertsienean eta pertsonalenean*, elkarrizketa labur honekin: «Nork hil zuen komendadorea? Fuenteovejunak, ene jauna. Eta nor da Fuenteovejuna? Denok batera».

Argi dago egitate kriminala zigorrik gabe geratu zela. Krimenaren *egilearen* edo *egileen* erantzukizuna, itxuraz modu inozoan, *herria* izenpean desagertzen den kolektibo inpertsonalari transferitu ondoren, arduragabekerien deriba arriskutsu bat betikotzen da, eta horren ondorio dira hainbat gehiegikeria kolektibo.

Lehen Fuenteovejuna zen, orain merkatuak.

Anonimotasunak inpunitatea errazten du, bidegabekeriarako egokiak diren lurretan modu arriskutsuan barneratzen gaitu eta elkarbizitzarako sistematizazioen aurreko garaietara eramaten gaitu.

Gauzak horrela, *trollek*, gure hizkuntzetan ere ulertezina den moduren batean deitzearren, irainak, deskalifikazioak, errespetu faltak eta bestelako loreak erabiliz erasotzen dute, Interneteko orrien zigorgabe-

agreden agazapados de manera innoble desde las páginas de impunidad en internet. Cualquier idea, cualquier diálogo, el mínimo avance de razón, quedan impotentes, indefensos y anulados en la basura de las descalificaciones hechas desde la «masa» y la irresponsabilidad.

Hoy cualquiera puede lanzar una sospecha al «éter» en cualquier tertulia con visos de verosimilitud; o desde sus propios medios en la «red». Luego ya se encargará el mismo «éter» con sus más sofisticadas técnicas de difusión que el libelo tenga vida propia como una inmensa e instantánea verdad. Los efectos de esta invasión de noticias son enormes y demasiadas veces irremediablemente demoledores. Se puede arruinar a un país, se puede condicionar la voluntad de amplias capas de ciudadanos perezosos o ignorantes en su propia formación. Pero sobre todo bajo figuras falsas de «nueva democracia» y «liberalismo difuso» se enseñorea en amplios campos de actividad sin el más mínimo y democrático control de verdad. Y ¿qué decir de la catarata de insultos, difamaciones, exabruptos y mentiras que se destilan cada instante desde esa maraña de «enredadores sociales».

Ahora póngase bajo esta aura del anonimato a cuantas agencias operan en el mundo. Sean las más influyentes en aspectos de «capital importancia» como son las de «calificación de riesgos financieros». Algo que apenas es algo más que conglomerados de tecnócratas, escondidos en una marca. Los mismos que jugando con toda una serie de factores melifluos, poco transparentes e intangibles aunque aparentemente objetivos, consiguen poner el precio a cada una de las unidades de valor real o ficticio que se mueven por el mundo. Una de las maneras más frías y asépticas para arruinar a unos y enriquecer a los más próximos. Libre mercado para todos, aunque sea el monopolio mundial de las agencias de *rating*. Y para mayor bo-

tasunaren atzean ezkutatuta. Edozein ideia, edozein elkarrizketa, arrazoiaren aurrerapen minimoa, indargabe, babesgabe eta deuseztatuta geratzen dira *masak* arduragabekeriaz egindako deskalifikazioen zaborretan.

Gaur egun, edonork plazaratu dezake susmo bat *eterrera*, sinesgarri itxura duen edozein tertuliatan; edo *sareko* bitartekoen bidez. Gero, *eterrak* berak lortuko du libeloak bizitza propioa izatea, bere zabalkunde teknika sofistikatuenekin, egia erraldoi eta batbatekoa bailitzan. Albisteen inbasio horren ondorioak izugarriak dira, eta, gehiegitan, erabat suntsitzaileak. Herrialde bat hondoratu daiteke, herritar nagi edo ezjakinen geruza zabalen borondatea baldintzatu daiteke. Baina, batez ere, *demokrazia berriaren* eta *liberalismo lausoaren* figura faltsuen azpian, jarduera eremu zabaletan jaun eta jabe egin daiteke, egiaren inolako kontrol demokratikorik gabe. Eta zer esan *gizarte katramilatzaileen* nahaspila horretatik erabat ateratzen den irain, difamazio, purrustada eta gezurren ur jauziaz.

Orain, anonimotasunaren aura horren azpian jarri munduan diharduten agentzia guztiak. Eragin handiena dutenak *garrantzi handiko* alderdietan, hala nola *finantza arriskuen kalifikazioan*. Marka baten atzean ezkutatutako teknokrata multzoak besterik ez direnak. Faktore eztitsu, opako eta ukiezin baina itxuraz objektibo batzuekin jolasean, munduan zehar mugitzen diren balio errealeko edo fiktizioko unitate bakoitzari prezioa jartzea lortzen duten berberak. Batzuk hondoratzeko eta hurbilenak aberasteko modurik hotz eta aseptikoenetako bat. Merkatu librea guztiontzat, baina *rating* agentzien mundu mailako monopolioa. Eta lotsa handiagorako, hiri amerikar berean daude denak, *sagar handia* deitzen dioten

chorno todas ellas situadas en la misma ciudad americana, enclave al que llaman «la gran manzana», eso sí, con sucursal europea e isleña en la «*city* del bombín y del *hooligan* furioso».

Otras agencias, también propias del mundo anglosajón, se ocupan de evaluar y acreditar universidades, profesores y a cualquier otra especie a la que haya que contrastar en condiciones de competitividad, desde modos y criterios de evaluación tan aleatorios como ventajistas, desde la mentalidad de unos evaluadores que cuidan de todos los detalles formales, excepto el de incompatibilidad. Demasiados «*rankings*», clasificaciones y otras maneras decisivas, desde la lejanía, desde el anonimato, desde la prepotencia de una marca, desde la más inmensa impunidad.

Los factores a evaluar, por las agencias, en general, adolecen de imprecisión, apenas pueden ser homologables, o resultan manifiestamente mejorables, pero ni se discuten suficientemente, ni se ponen en duda. Y es más un efecto llamada el que producen las agencias con sus parámetros de evaluación (sobre congresos, publicaciones, comités de redacción, ponencias, cursos, innovaciones docentes y otros capítulos mucho más eufemísticamente encajados en el capítulo de «investigación»), sin que aparezca por ningún lado el más mínimo criterio de calidad. ¿Cuantas publicaciones, congresos, reuniones y panfletos inútiles, se organizan sin una mayor necesidad? Sólo para propiciar materiales a presentar en las escasas convocatorias de acreditación. En ellas se prima más la «cantidad y la burocracia», que la calidad y el sentido aplicable a cada disciplina, sobre todo las de definición más imprecisa, las más «transversales» y de difícil clasificación (p.e. la arquitectura y todas cuantas se relacionan con la creación técnico-artístico-intelectual).

tokian, hori bai, Europako eta uharteetako sukurtsalarekin «onddo kapelaren eta *hooligan* amorratuaren *city*an».

Beste agentzia batzuk, horiek ere mundu anglosaxoikoak, unibertsitateak, irakasleak eta lehiakortasun baldintzetan kontrastatu beharreko beste edozein espezie ebaluatzeaz eta egiaztatzeaz arduratzen dira, ausazko ebaluazio modu eta irizpide abantailatsuetatik, xehetasun formal guztiak, bateraezintasunarena izan ezik, zaintzen dituzten ebaluatzaileen pentsaeratik. *Ranking* gehiegi, sailkapenak eta beste modu erabakigarri batzuk, urruntasunetik, anonimotasunetik, marka baten nagusikeriatik, zigorgabetasun handienetik.

Agentziek ebaluatu beharreko faktoreek, oro har, zehaztasun falta dute, ia ezin dira homologatu, edo nabarmen hobetu daitezke, baina ez dira behar bezala eztabaidatzen eta ez dira zalantzan jartzen. Are gehiago, agentziek beren ebaluazio parametroekin (kongresuei, argitalpenei, erredakzio batzordeei, txostenei, ikastaroei, irakaskuntzako berrikuntzei eta eufemistikoki *ikerketa* kapituluan txertatuagoak dauden beste kapitulu batzuei buruz) sortzen duten dei efektua da, inolako kalitate irizpiderik gabea. Alferrikako zenbat argitalpen, biltzar, bilera eta panfleto egiten dira behar handirik gabe? Akreditazio deialdi urrietan aurkeztu beharreko materialak sortzeko bakarrik. Horietan, *kantitatea eta burokrazia* lehenesten dira, diziplina bakoitzari aplikatu beharreko kalitatearen eta zentzuaren gainetik, batez ere definizio lausoenekoak, *zeharkakoenak* eta sailkatzeko zailak direnak (adibidez, arkitektura eta sorkuntza tekniko-artistiko-intelektualarekin lotzen diren guztiak).

El camino de las evaluaciones abstractas desde la lejanía y sobre parámetros difíciles de homologar hace que cada uno se maneje a su manera, tratando siempre de «arrimar el ascua a su sardina». Tirando por elevación, un buen ejemplo de este estado de cosas lo constituye la nueva clasificación mundial de universidades elaborada por la Universidad de las Comunicaciones de Shanghai (Jiaotong). Una especie de Top 500 que ha armado el gran revuelo entre las instituciones universitarias europeas, y que una vez más deja a quienes se mueven en las periferias de los distintos sistemas del poder, descompuestos, desamparados y sin apenas posibilidades de emancipación.

Bien podemos decir que los «procesos de enjuiciamiento» y evaluación, asentados en la distancia, en la abstracción falsamente objetiva y en el anonimato, sólo conducen a una degradación general en claves de pobreza, de cuantos valores positivos posee el individuo en su capacidad de formar parte de una sociedad.

Diciembre, 2011

